

NAFARROAKO ESKOLAREN HISTORIA ILUSTRATUA (1828-1970)

Guillermo Iriarte Aranaz



Guillermo Iriarte Aranaz (Iruña, 1948). 1968tik 1986ra arte Lehen Hezkuntzako maisua izan zen eta Nafarroako eta Bartzelonako hainbat udalerritan irakasle-lanetan jardun zuen. Pedagogia Terapeutikoan diplomaturia, Hizkuntzaren eta Entzumenaren Nahasteetan Espezialista eta Psikologian lizentziatua Bartzelonako unibertsitatean. 1986tik 2011ra arte eskolako orientatzaile gisa lan egin zuen Nafarroako Gobernuan, ondorengo kargu hauek betez: Hezkuntzako eta Zientzietako Ministerioko Hezkuntza Bereziko Eskualdeko Orientatzailea (1988-1990) eta Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Bereziaren Baliabideen Zentroaren arduraduna (CREENA/NHBBZ), 1991 eta 2011 artean.

Ikerketaren alorrean, Hezkuntza Bereziaren inguruan egindako lana hainbat argitalpenetan islatu zen: *Talleres: una metodología para la diversidad* (Tailerrak: aniztasunerako metodologia), Madrileko Hezkuntza Bereziko Baliabide-Zentro Nazionalak saritutakoa *Taller de Cocina: un enfoque interdisciplinar* (Sukaldaritza tailerra: diziplina arteko ikuspegia); *Taller de Carpintería* (Aroztegi tailerra); *Taller de Electricidad* (Elektrizitate tailerra); *Proyecto para la integración del alumnado con necesidades educativas especiales* (Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen integratze proiektua); *Habilidades de Interacción y Autonomía Social* (Interakzio gaitasunak eta Autonomia soziala); *Necesidades Educativas en la Enseñanza Secundaria Obligatoria, ESO* (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, DBH, hezkuntza-beharrak); *Orientaciones para la respuesta educativa: Unidades Específicas en la ESO* (Hezkuntza-erantzunerako orientabideak: Unitate berezituak DBHn); *Respuesta Educativa al alumnado con sobredotación intelectual* (Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-erantzua); *Comportamiento desadaptado y respuesta educativa en Secundaria* (Portaera desagokitu eta hezkuntza-erantzuna Bigarren Hezkuntzan); *La atención a Alumnos con Necesidades Educativas Graves y Permanentes* (Hezkuntza behar larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleen arreta) eta *Los PCPIE en Navarra: tareas profesionales y habilidades sociales* (PCPIEak Nafarroan: lan-profesionalak eta gaitasun sozialak).

Eskolako museoei eta Nafarroako hezkuntza-ondasunari dagokien, azken urteotan artikulatuak idatzi eta hitzaldiak eman ditu. Gainera, bilduma etnografikoak eta manualistikoak bildu ditu. Berriki, bere herriari buruzko liburua argitaratu du: *La Escuela y los Maestros de Ayer en Cadreita* (Cadreitako Eskola eta Iraganeko Maisu-maistrak).

Horas de entrada

Entrada

Meses

Mañana

En los de Marzo,
Abril, Setiembre
y Octubre

A las 8

En los de Mayo,
Junio, Julio
y Agosto

A las 7 $\frac{1}{2}$

En los de Noviembre,
Diciembre,
Enero y Febrero

A las 8 $\frac{1}{2}$

y salida en la escuela.

da Salida

tarde Mañana tarde

Alas 2^h

Alas 3^h

Alas 5^h

Alas 2^h¹/₂

Alas 3^h¹/₂

Alas 6^h¹/₂

Alas 4^h¹/₂

Alas 5^h¹/₂

Alas 4^h

Nafarroako Eskolaren historia ilustratua
(1828-1970)

Nafarroako Eskolaren historia ilustratua (1828-1970)

Guillermo Iriarte Aranaz

Liburu honen argitalpena pertsona eta erakunde askoren laguntzari esker posible izan da, euren ahaleginarekin eta gomendioekin babes eskuzabala eskaini diotelako. Bereziki eskertu nahiko nuke JULIÁN ARANA PASCUALen interesa eta ekarpena.

Izenburua / Título: Nafarroako Eskolaren Historia ilustratua (1828-1970)

Egilea / Autor: Guillermo Iriarte Aranaz

Hitzaurrea / Prólogo: Delfín Montero Centeno

Argazkiak / Fotografías: Bakoitzean adierazi bezala / según indicación en cada una de ellas

Euskaratzaileak: Lis Ruiz de Erentxun Tapiz, Ainhoa Lasheras

© 2019. NAFARROAKO GOBERNUA | GOBIERNO DE NAVARRA

Hezkuntza Departamentua | Departamento de Educación

© Guillermo Iriarte Aranaz

© Argazkiak / Fotografías: egileak / autores

© Hitzaurrea / Prólogo: Delfín Montero Centeno

Maketazioa eta diseinua | Maquetación y Diseño: Cobo-Munárriz Diseño Gráfico

Inprimaketa / Impresión: Gráficas Lizarra

ISBN: 978-84-235-3512-5

LG / DL: 484-2019

Sustapena eta banaketa | Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza | Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa kalea, 21 | calle Navas de Tolosa, 21

2131002 Iruña | Pamplona

Telefonoa | Teléfono: 848 42 71 21

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Carmeni, zure argia distiratsuen delako.

Alberto eta Alexia nire seme-alabei eta Nahia nire ilobari.

*Atzoko, gaurko eta betiko maisu eta maistrei, nire
omenaldirik beroena.*

AURKEZPENA

Liburu hau ikustean eta irakurtzean, oroimina etorriko zaigu burura. Gure adina dena dela, gure iraganeko garaiak gogoratu ditzakegu, hori bai, gertaerak ahazten, ezitzen edo okertzen dituen memoriaren desitxuratze sai-hetsezinarekin. Gure begiradapean, eskolen, ikasgelen, ikasleen eta irakasleen irudien uholdeak aukera emango digu egon ez ginen leku horietan gu geu bilatzeko, ia ahaztu dugun senideren baten ezaugarri ezagunak bilatzeko, edo agian ezagutu genituen kartel eta grafietan atsegin hartzeko. Baliteke, agian, ikasgela horietako hotza eta kea sentitzea, egun desatsegina zaigun pertsonen usaina, arroparen prekarietatea, lokatza eta hautsa, argi elektriko ahula... sentitzea.

Haurtzaroa inoiz bizitako garairik zoriontsuena delaren ustea, neurri batean, erromantizismoaren zorduna da. Hölderlin poeta, ahanzturan hildakoa eta askoz aurrerago heroi gisa jasotakoa, nerabezaroan ainguratuta bizi izan zen zahartzarora arte, eta ondorengo hau idatzi zuen: “Orduan bai, orduan bai bizi nituela urrezko egunak”. Haurtzaroa bakarrik erreferentziatzat hartu zuen, eta ez beti zapaltzaile sentitu zituen eskola edo apaiztegia.

Hala ere, maiz, haurtzaroa eta eskola era bereizezinean nahasten ditugu sortzen ditugun autobiografietan. Ikaskide batzuk, agian, gure bizitzako lagunik onenak izan dira: maisu edo maistra hori, agian, berdindu nahi izan genuen eredu izan zen; egindako txango edo antzezlan batek, irakurketa libururen batek edo jolastokiko jolasen batek eskolaren eta haurtzaroaren arteko lotura sortzen eta nahasten du.

Oroimina atsegina da, onartu beharra dago, baina baita tranpatia ere. Nostalgiaetik liburu honetara hurbiltzen bagara, ezagutzen dugunarekiko begikotasuna piztu eta ahaztuta edo lurperatuta zegoena berpiztu eta ondoren-

go hau argi utziko digu: hau guztia ahaztuta genuen. Horrek guztiak aukera emango digu gure kontaketa intimoa moldatzeko, berriro haurtzaroa geure buruari kontatzeko, kontaketa horretan egoerak txertatuz, sentsazioak baztertuz eta protagonismoak moldatuz.

Guillermo Iriartek eskaintzen digun kutxa handi hau begirada analitikoarekin ere ireki dezakegu, eskaintzen dizkigun ehundaka pasarteak ulertzen saiatzeko. Susan Buck-Morssek azpimarratzen zuen jarrera hain gizatiarra berdindu nahi izatea: zaharkituta ziruditen eta harritutako inbentario kulturalak birpasatzea, fosilak edo herbario bateko landareak entzuten dituzten horiek bezala. Eskoletako argazkiek, ikasgelek, pertsona taldeek, testu kaligrafikoek, horma-irudiek, aipamen biografikoek edo liburuetao tapakiek, kontakizun koherentea joste aldera, biltegi handia osatzen dute.

Ikasmahaiko tiradera horrek aukera ematen digu, bildumazale bat bagina bezala, ordenaren hierarkiak dena antolatzen zuen jendarte behartsu bateko neska-mutilen begiraden duintasuna ikusteko, baita eta material urrien, instalazio prekario eta lotsagarrien, edo horma-irudien eta mapen bidez munduaren ikuspegiaren berri izateko. Aurri eta desioen bilduma zoragarri honetan, asebeteta edo ez, espero ez genuena berreskuratzeko aukera dugu, inoiz gauzatu ez zena, bai eta irudi kolektibo horren beste aldetik begiratzen gaituzten pertsona horientzako gertaera zoragarriak irudikatzeko ere.

Walter Benjaminek esaten zuen pertsonen, euren haurtzaroan, helduak direnean ezohikoa dena egin dezaketela: berria dena aurkitzea, objektuei zentzu objektiboa ematea, memorian gordetzeko zentzu berriak berreskuratzea. Zenbatetan aurkitzen ditugu esanahi berriak aurretik irakurri dugun horretan? Orain ulertuko al ditugu, lehen ez bezala, ikasgelako buru ziren argazki horien zentzua? Zer egiten genuen Domundeko itsulapiko horiekin? Zergatik zeuden neskenak edo mutilenak soilik ziren ikastetxeak edo ikasgelak? Hori dela eta, ez al duzu berreskuratu nahi heldutasunaren txokoren batean gordetzen dugun haurtzaroko zentzu sortzailea?

Liburu hau ez da iraganeko garaiak gogora ekarri nahi dituzten helduentzat edo agureentzat soilik. Adin guztientzako liburua da, igarkizunez beteriko kontaketa bat balitz bezala, liburu honetara hurbiltzen diren horientzat. Odi-seoren kontaketa, J.S. Bachen Golberg bariazioetara edo Goyako grabatuetara hurbiltzean sentitzen dugun horretatik heldu behar diogu haurtzaroari eta gaztaroari. Iraganarekin hitz egitean hilda zirudiena berpizten da, beste zentzu bat ematen dio egungoari, bestelako etorkizunak adosten laguntzen du. Liburu hau, beraz, agertzen den epearekin harremanik izan ez dutenentzat ere aukera da, adibidez 1970tik aurrera jaiotakoentzat.

Agerikoa da landutako epe historikoa, 1828-1970, alderdi guztietan eragin handia izan zuten zorigaitzoko gertaeren eraginarengatik definituta dagoela. Eta, agerikoa da, baita ere, gertaera horiek hezkuntza sisteman eragin ikaragarria izan zutela. Liburu hau irakurtzean, oso landatarra zen Nafarroaren aurrean jarriko gara, egitura ekonomiko aurreindustrialak zuena ia kontaketa bukatzen den arte. Desberdintasunak zatitzen zuen Nafarroa, balio eta jokae-ra tradizionalistekin, emakumeekiko diskriminatzailea zena eta euskaraz hitz egiten zuen jendearekiko mespretxuzko jarrera zuena.

Ez gara oso orijinalak izan. Gure eskola, zalantzarik gabe, Europako eskola zen, Pierre Bourdieuk definitu zuen bezala, agintarien asmoak estatu nazional modernoan eraikuntzan gorpuzten zituena: hizkuntza bakarra ezartzea, beste edozein hizkuntzak zapalduz, diziplina morala, gorputzaren morala, eta denboraren eta eraginkortasunaren arautzea. Eskola modernoa, beste erakundeak bezala, gobernagarritasun agente gisa sortu zen, erregulazio eta arauen bidez. Horrela, populazioa homegeneizatzen zen, erregimen zaharreko azken krisiaren zentzu hierarkiko erabilgarria barneratuz. Eskolaren misioa haurtzaroa zibilizatzea zen, basati eta iragankortzat jotzen zena, heldutasunerako diziplinatuz.

Bere sorreratik, eskola funtzio kontrolatzaile eta ugaltzailearen eta bulkada ilustratzailearen artean ibili da. Zalantzarik gabe, eskolak izan duen onena, erakundearekin adiskidetzen gaituena eta profesional eta herritar gisa harrotzen gaituena, alfabetatze, dibulgazio eta hedapen kulturalaren proiektuak izan dira. Bai eta osasunaren eta higieken aldeko kanpainak edo hainbat eta hainbat neska-mutilen bizitzari eskaini zaizkien aukerak. Eta, askotan, eskola haurtzaroan egon zitezkeen espaziorik onena zen. Hori posible izan zen maisu eta maistra on askoren harreman eta tratu onari esker.

Hori guztia lurperatuta al dago? Agian, irudi horretatik begiak altxatzean, bere protagonisten muturreko pobreziaarengatik aztoratuta, horma irudi horretatik, krimen politikoa modu esplizituan goraiatzen duena, edo mapatik, iragan inperial lotsagarriaz harrotzen dena, gure etorkizun honetan lasai egotearen sentsazioa izango dugu. Mentalki alderatu dezagun hori guztia egungo gure eskolekin, gaitutako eta estimatutako irakasleak dituztenak, mutilak eta neskak elkarrekin euren bizipenak partekatzen dituztenak, ikasgela argitsuekin, komunikazioaren teknologiekin, liburutegiekin eta gimnasioekin hornitutakoak, bizikidetzara gonbidatzen duten proposamenekin.

Baina, agian, liburu hau ixtean, galdera deserosoak sortuko zaizkigu. Eskola horretako ataletan egun eskuraezinak diren balioak hauteman ditzakegu, agian nahi ez ditugunak, berrikuntzarekin eta aniztasunarekin talka egiten

duen eztabaida garaikideak bezala. Baliteke pantailen distirak, ikonikoki ikasgelen buruan daudenak, gardentasunaren isla ez izatea, baizik eta fetitxearena. Teknologia orain arte ez zeuden munduak sortzen ari da, eta antzinako hierarkia eta kontrol soziala, zuri beltzeko irudietan hain agerikoa dena, baliteke gaur sakonagoa eta eraginkorragoa ez izatea. Agian, haurren eskubideen aldeko eta desberdintasunaren errespetua gorai patzen duten kartelen eta ekimen erakargarrien atzean, pertsonen begirada gero eta berekoi eta indibidualistagoa ezkututzen da.

Laburbilduz, aurrerapenaren ideia sinplista, bizitza sozial eta pertsonalaren ustezko etengabeko hobekuntza hori, positibismoaren zordun den engainu interesatua da. Zintzoak izateko, eskola horren eta gaurko eskolaren arteko balantzea askoz korapilatsuagoa da. Izan ere, kultura garaikideak oraina eta berehalakoa pribilegiatzen du, epe luzea baliogabetzen du, aurrera zein atzera, oroitzapen sakonak sortzeko inmundatzen gaitu, garrantzirik gabeko datuz inguratuta gaudelako. Laburbilduz, memoria pertsonala eta partekatutako memoria galarazten du.

Liburu-museo honekin Guillermo Iriartek pentsatzeko, gogorarazteko, alderatzeko eta amesteko aukera ematen digu. Eskolei buruzko opari hau behar genuen beste Guillermo batek, Herrero Tomé, utzitako hutsunea betetzeko. Azken egile horrek lan bikaina egin zuen Nafarroako bigarren hezkuntzaren inguruan. Gure herrialdeko hezkuntza gogo biziz bizi izan dugunok, hain beharrezkoak diren argitalpen hauei ikasketa-orduak eta ahalegina eskaini dietelako, eskerrak eman beharko genizkieke bi egile horiei.

Laburbilduz, irakurle maitea, ireki kutxa hau baina, kontuz, barruan dagoena ez baitago hilik. Aukera baduzu, liburu honetako edozein atalari -irudia edo testua- norbaitekin batera bilgarria kendu, zure alabarekin, aitarekin, lagunekin edo ilobarekin partekatu, eta bere hegadaz ohartuko zara.

Aitor Etxarte Berezibar
NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN BURUA

SIGLAK ETA LABURTZAPENAK

N.A.A.	Nafarroako Administrazioaren Artxiboa.
N.E.A.N.	Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.
I.U.A.	Iruñeko Udal Artxiboa.
N.U.P.A.	Nafarroako Unibertsitate Publikoko Artxiboa.
B.O.E.	Boletín Oficial del Estado.
N.A.O.	Nafarroako Aldizkari Ofiziala.
Karp.	Karpeta.
H.H.L.H.I.	Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.
Bil.	Bilduma.
I.P.	Ikastetxe Publikoa.
D.N.	Diario de Navarra.
FEN.	Formación del Espíritu Nacional.
ILE.	Irakaskuntzako Erakunde Librea.
H.B.N.	Hezkuntzako Batzorde Nagusia.
H.L.O.	Hezkuntzako Lege Orokorra.
H.Z.M.	Hezkuntzako eta Zientzietako Ministerioa.
H.N.M.	Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa.
E.D.	Errege Dekretua.
Ge.	Gari erregu.
E.A.	Errege Araua.
Ek.	Erreal kuarto.
Pap.	Paper-sorta.
S.E.A.N.	Elikadura Eskola-Zerbitzua.
Atal.	Atala.
S.E.M.	Espainiako Irakasle-Lanaren Zerbitzua.
S.I.E.	Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzua.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	17
SARRERA	21
LEHENENGO ATALA: XIX. MENDEKO HEZKUNTZA	25
1. NAFARROAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA	27
2. XIX. MENDEKO ESKOLA	35
2.1. Baliabide materialak eta ekonomikoak	36
2.2. Irakasgai ezberdinen irakaskuntza	55
2.3. Eskola-antolaketa	71
2.4. Hezkuntzaren ikuskapena	91
3. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK	95
BIGARREN ATALA: XX. MENDEKO LEHEN HERENEKO HEZKUNTZA-POLITIKA.....	99
4. HEZKUNTZA FUNTZIO PUBLIKO GISA (1900-1931)	101
5. NAFARROAKO INSTRUKZIO PUBLIKOA	105
5.1. Neurri pedagogikoak	105
5.2. Neurri sozialak	114
5.3. Neurri legegileak	116
6. MENDE HASIERAKO ESKOLA	147
6.1. Irakaskuntzarako materialaren berritzea	152
7. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK	169
HIRUGARREN ATALA: HEZKUNTZA BIGARREN ERREPUBLIKAN ETA GERRA ZIBILEAN (1931-39).....	173
8. BIGARREN ERREPUBLIKA NAFARROAN	175
8.1. Hiru errepublika batean	176
8.2. Maisuak eta maistrak Errepublika garaian	192
8.3. Maisu eta maistrentzako prestakuntza	193
8.4. Eskola Bigarren Errepublikan	203
8.5. Euskararen irakaskuntza Nafarroan	209

9. NAFARROA ETA GERRA ZIBILA	215
9.1. Nafarroako Foru Aldundian ezarritako hezkuntza-neurriak.....	215
9.2. Nafarroako Irakasle-Lanaren errepresioa	221
9.3. Irakasleentzako formakuntza ikastaroak	228
9.4. Eskola Gerra Zibilean.....	230
10. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK	247
LAUGARREN ATALA: HEZKUNTZA FRANKISMO GARAIAN: HEZKUNTZAREN ATZERAKADA, GELDIALDIA ETA GARAPEN MOTELA (1940-1970)	250
11. ESTATU BERRIAREN LEHENENGO URTEAK.....	253
12. ERREGIMENAREN BULTZADA TEKNOKRATIKOA.....	257
13. NAFARROAKO HEZKUNTZA-POLITIKA.....	261
14. FRANKISMO GARAIKO ESKOLA	319
14.1. Sarrera	319
14.2. Eskolako Almanaka	321
14.3. Eskolako hornidura.....	322
14.4. Formakuntza erlijiosoak	352
14.5. Formakuntza Aberkoia	365
14.6. Hezkuntza berezitua. Segregaziotik hezkidetzara.....	374
14.7. Elikaduraren Eskola-Zerbitzua eta Eskola-Zerbitzu Medikua	381
14.8. Mutualitateak eta Aurreikuspeneko Eskola-Barrutiak	388
15. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK	403
BOSGARREN ATALA: BIZITZA GOGOANGARRIAK	407
16. IRAGANEKO IRAKASLE-LANA.....	409
17. ESKOLA-IBILERAK	443
BIBLIOGRAFIA	545
I. NAFARROAKO HEZKUNTZAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA.	547
II. ESPAINIAKO HEZKUNTZAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA	552
III. BESTE ITURRI BATZUK	557

HITZAURREA

Nire ustez, liburu hau egileak bere lurraldeko eskolari eskainitako maitasun egite bat da, bere bizitzaren zati handi bat eskaini baitio eskola horri. Obrarekin batera datorren aipamen biografiko-pertsonal motzetik ondoriozta daitekeen bezala, Guillermo Iriarte profesional oso ezaguna da, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Bereziko Baliabide-Zentroko (CREENA/NHBBZ) arduradun izateagatik bakarrik ez bada ere. Baina irakurleak egilea ezagutzeko ohorea izan ez badu, utzidazue Guillermoren inguruko zenbait zertzelada ematen.

Eskola barrutik zein kanpotik oso ongi ezagutzen du, hezkuntzaren alorrean askotariko karguak izan baititu: irakaskuntza, kudeaketa, orientazioa, programen diseinua, formakuntza eta askoz gehiago. Hortaz gain, ikerketa lanak egin ditu, esku artean dugun liburua adibide delarik. Beti izan dut faltan euren esperientziak dokumentatzera animatzen diren profesional kopuru handiagoa ez egotea. Ez soilik atzetik datozenei laguntzeko, nahikoa izango litzatekeela, baizik eta iraganeko lanak eta akatsen ohiko eraginkortasun eza txikiagotzeko. Zorionez, Guillermo, arau apurtzen duen eredu bikaina da, eta horrek ez dio soilik berari prestigioa ematen, baizik eta bera zati den sare publikoko teknikarien multzoari ere.

Bere curriculumaren aurkezpen eskematikoak behar bereziak dituzten ikasleei zuzendutako profila aurkezten digun arren, ez du agerian uzten egileak adimen ezgaitasuna zuten ikasleei eskaini zien ardura. Lan horri, erabateko eskuzabaltasunez egindakoa, energia osoa eskaini zion. Ikasle horien hezkuntza-inklusioak hezkuntza-sisteman aurkezten duen erronka oraindik ere konpondu gabeko arazoa da. Guillermo Iriarte ikasle horiek hiritar gisa dituzten eskubideak, hezkuntzarena esaterako, lortzeko oztupoak eraisten

saiatu zen, beste hainbat profesional bezala. Guillermok eta bere lankideek heldutasunerako bidean dauden eta adimen ezgaitasuna duten ikasle horientzako lan-proposamenek, orain dela ia hogeita hamar urte, profesional askoren ibilbidea inspiratu zituzten, ni barne.

Irakurleak bere buruari galdetuko dio zerk bultzatzen dion ibilbide profesional espezializatua duen hezitzaile bati eskolaren historiografian sakontzera. Egon daitezkeen erantzunetatik harago, eta itxuren kontra, nire ustez bata eta bestearen arteko lotura sendoa dago. Zaila da bizitza profesionalaren zati bat laguntza gehien behar duten ikasle talde bati eskaintzea ondorioztatu gabe soilik eskola arruntaren sendotzea eta hobekuntza guztientzako kalitatezko eskola eskainiko duela. Baita adimen arazoak edo bestelakoak dituztenentzat ere. Hortik abiatuta, eskolaren arestiko historiaz interesatzera urrats batzuk baino ez daude. Izan ere, historiak nor garen eta nondik gatozen ulertzen laguntzen gaitu, eta are gehiago, etorkizuna proiektatzen ere, hori guztia errealitatearen oinarrietatik abiatuta.

Lanari berez dagokionez, ez dut hemen errepikatuko Guillermo Iriartek sarreran modu sinoptikoan aurkezten duena. Obra zati askotan sakabanututa eta zatituta zegoen material bilketa eta antolaketa lan ikaragarriaren fruitua da. Emaidza, zerbait paregabea da, nik dakidala behintzat, ez delako XIX. mendetik gaur arte Nafarroako eskolaren nondik norakoak deskribatzen eta aztertzen dituen obrarik egin. Argitasun pedagogikoarekin idatzitako lana da, maisu on batek idatzitakoa, eta idazleak inplizituki adierazten du bere konpromisoa irakurlearekin, azken honek garai eta gertaera historiko ezberdinen inguruan bere iritzia sortzeko datu zehatzak eskainiz. Hori egitea askotan ez da erraza, izan ere, (historiari dagokionez), aztertutako gertaeretik hurbiltasunak beharrezko distantzia psikologikoa ezartzea eragozten digu, leku, une eta garai urrunagoetara eramaten gaituzten bidaiak ez bezala.

Norbaitek azken berrehun urtetako gure hezkuntza sistemaren garapenaren deskribapena bilatu nahiko balu, obra hau oso gustukoa izango du, hausnarketarako iturri izan baitateke. Irakurlea bultzatzen dut erakargarriak bezain nahasiak eta gogorak izan ziren hamarkada horietan murgiltzera, jarraipenerako irtenbiderik gabe orainarekin bat egiten dutenak. Ezinezkoa da egungo Nafarroako eskolarekin batera egon diren eta itxura ematen dioten testuinguru sozial, ekonomiko, politiko eta erlijiosoaren inguruan ez hausnartzea. Horietako testuinguru batzuk isilean eraldatu dute eskola, baina begirada altxatzen dugunean eta azken bi mende hauetan jendartean izandako garapena ikustean adierazgarriagoak dira.

Azkenik, ez dut aipatu gabe utzi nahi egileak ikasgelak eta horietan zeuden materialak bisualizatzen laguntzeko egin duen lan bikaina (edozein motako diskurtsoetatik harago, eskolaren arima horietan baitago eta horien bidez azaltzen baita). Eta, noski, obrak Nafarroako eskolako maisu eta maistrenganako adierazten duen aparteko estimuarengatik nire esker ona ere eman nahi diot Guillermo Iriarteri.

Delfin Montero Centeno

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

PEDAGOGIA SOZIALEKO ETA ANIZTASUNEN SAILEKO KATEDRADUNA

SARRERA

Liburu hau Nafarroako eskolen eta maisu-maistren lanaren ikerketari egindako ekarpena da, Erregimen Zaharra erori zenetik hasita eta Espainiako demokraziaren hastapenera arte. Hori dela eta, ikerketa honetako denbora-tartea XIX. mende hasieratik, 1828-29 Gorteak (Erresumako azkenak) ospatu zirenetik, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra aldarrikatu zen artekoa da. Ia berrehun urteko aldi hori nahikoa da Nafarroako eskola-erakundean egon ziren aurrerapenak, geldialdiak eta atzerapenak ulertzeko.

XIX. eta XX. mendeetako Espainiako instrukzio publikoak, eskola-eraikinei, hezkuntza legediari eta curriculumari zegokionez antzeko ezaugarriak zituen lurralde osoan zehar.

Nafarroan, ordea, hezkuntza publikoak gainontzeko probintzietan ez bestelako ezaugarriak garatu zituen, bere foru izaerak estatu mailan ezarritako hezkuntza politikaren hainbat alderditatik aldentzeko aukera eman baitzion. Horregatik, Nafarroako foru berezitasuna azpimarratu nahi izan dut eskolari eta irakasleei buruz hitz egiterakoan.

Gure erkidegoan badira heziketaren inguruko argitalpen teknikoak edo aldizkakoak, baina ez ordea ahaztutako eskoletan nekez bizi baina euren ikasleei dena eman zieten maisu-maistren ingurukoak. Liburu honek eskolaren memoria historikoari ekarpena egin nahi dio, pertsoneri, balioei eta ideiei, baita gauza txikien oroitzapenari ere (entziklopedia, arbela, arbel-ziria, berogailua, idazmahai zaharrak, eskolan bertan egindako tinta, ereserkiak, otoitzak, zigorrak eta sariak, katoiak eta kristau-ikasbidea, esaterako).

Liburua bost ataletan banatuta dago. **Lehenengoak**, sarrera gisa, Nafarroako hezkuntza publikoaren lehenengo urratsei buruzko ikuspegi laburra

eskaintzen du. 1831ko Hezkuntzako Batzorde Nagusiak egindako Lehen Hizkien Eskoletako Araudia azpimarratzen da, bere garaian Nafarroako Lehen Hezkuntzako eskolan aurreraupasu berritzaile garrantzitsua izan zena eta irakaskuntzaren oinarriak errotu zituen. Lege Itunduaren ostean ere indarrean egon zen.

Nafarroako hezkuntza politika bi ardatzen inguruan garatu zen mende horretan; lehenengoa, Estatuaren eta Nafarroako foru-izaera bereziaren arteko ezberdintasunen inguruan eta bigarrena, maila ideologikoan, kontserbadoreen eta liberalen arteko ezberdintasunen inguruan, karlistak ahaztu gabe.

1840an eta 1847an Maisu-Maistren Eskola Normal aitzindariak sortu ziren Nafarroan. Lehen Hezkuntzako Legea, edo 1857ko Moyano Legea, eta Nafarroak foru-sisteman zituen esku-hartzeak aztertu ziren. Azkenik, XIX. mendean Nafarroako eskolak nolakoak izan ziren deskribatzen da.

Bigarren atalak XX. mendeko lehenengo hereneko hezkuntza politikaren ingurukoa da, Espainiako kulturaren “zilarrezko arloa” zeritzona. Nafarroak ezarri zituen antolakuntza, gizarte eta administrazio neurriak deskribatzen dira, Heziketa Libreko Erakundearen korrante berritzaileetara eta Eskola Berririk defendatzen zuen hezkuntza mugimendura eskolak egokitzeke. Eskola graduatuaren onurak ezagutu ziren, lehenengo entziklopediak sortu ziren eta eskoletako altzariak berritu ziren pertsona batentzako edo birentzako ikasmahaiak ikasgeletan jarritz. Primo de Riveraren diktadura argi eta garbi Nafarroako hezkuntza berezitasunak onartzearen kontrakoak izan zen, baina eskola-eraikuntzak bultzatu zituen.

Hirugarren atala II. Errepublikako eskolari buruzkoa da. Modernoa, aske, laikoa eta sakonki soziala zen heziketaren aldeko norabide aldaketa azaltzen du atalak. Guztientzako berdina zen eskola, hezkidetzaren berrezarri zuena eta maisu-maistren lana duindu zuena, ekonomikoki zein alor gizatiarrean. Anbizio handiko Eskola-eraikinen programa batekin, analfabetismoaren kontra borrokatu eta Nafarroako landa eremuetako azken txokoraino hedatu zuen irakaskuntza. Elizak eta sektore integristenek ez zuten botere galera hori jasaten jakin eta Altxamendu Nazioanalaren alde egin zuten. Altxamenduaren ostean, eskola errepublikarraren eta iraskaleen kontrako errepresioa bortitza izan zen.

Laugarren atalean frankismoan zehar eskolak jasandako hezkuntza prozesuaren azterketa egiten da. Zalantzarik gabe, hezkuntzarako eta askatasunerako garairik beltziena izan zen. Ideien eta maisu eta maistren garbiketarekin jarraitu zuten eta ikasgeletan doktrinamendu militante amorratua eskatu zen. Diputazioak, Ikuskaritzak zein Hezkuntza Batzorde Nagusiak

arreta bereziz aurrera eraman zituzten hezkuntza neurriak aztertu ziren, eta, azkenik, eskola-eraikinetarako planak berriro hartzeko saiakerak egin ziren, Errepublikaren ostean ahaztuta zeudenak.

Bosgarren eta azken atala, iraganeko maisu-maistren aintzatespen bat da, hamairu maisu-maistrek eskainitako testigantzen bidez. Euren bizipenak, hausnarketak, desioak eta eskola-proiektuak azaltzen dizkigute. Kontaketa horien bidez ikasgela barruko eguneroko bizitza berreraiki dezakegu eta, batez ere, haiek garaiko hezkuntza sistemaren inguruan zituzten pertzepzioetan murgildu.

Liburu honek, laburbilduz, Nafarroako iraganeko eskolaren eta irakasleen intrahistoriaren gerturatzea aurkezten du: eskola-eraikinak nolakoak ziren, maisu-maistren eta ikasleen ezaugarriak, beraien arteko harremanen nondik norakoak, eskolara zer motako materialak eramaten zituzten, zer eta nola irakatsi eta ikasten zen, zer metodologia erabiltzen zen, zertan zetzan sarien eta zigorren sistema, zer liburu eta tresna erabiltzen zituzten, udalek eta Foru Aldundiak Nafarroako gizartearen hezkuntzan izan zuten eginkizuna, besteak beste, liburuaren hizpide izango dira. Bestetik, garai luze horretan landu ziren edukiak eta materialak iraganeko eskolaren memoria berreskuratzeko asmoz aztertuko dira, eskolaren etorkizunaren inguruan iradokizunak eta bizipenak batzeko asmoz.

Gogorarazi beharrik ez dago jokabideek, metodoek eta sistemek testuinguru soziopolitiko, erlijioso eta kultural ezberdinei erantzuten dietela. Garaian garaiko esanahaia eta zentzua hartzen dute. Ez litzateke bidezkoa edo egokia izango iragana XXI. mendeko hesitik epaitzea edota baloratzea, kritikoki ulerkorra den ikuspuntutik gabe.

Amaitzeko, beharbada liburu honek ia galduta zegoen mundu bat berpiztu edo agerrarazi dezake. 50eko hamarkadako eskola nazional-katolikoa ezagutu zuten orok sentimendu gazi-goza nabarituko dute, ahaztuta zituzten sententzioak azaleratuko baitira. Nolanahi ere, zuri-beltzeko edo sepia koloreko argazkiek iraganeko aurpegiak erakusten jarraitzen dute, galdutako ikasgelen eta eraitsitako eskolen irudiak gogora ekarriz, eskola maite zutenen bihotzetan betirako egongo direnak.

LEHENENGO ATALA: XIX. MENDEKO HEZKUNTZA



MAPA COROGRÁFICO DE NAVARRA.

CORRESPONDIENTE AL ATLAS GEOGRÁFICO QUE DE LA MISMA HA PUBLICADO D. DIONISIO IBARLUCEA.

Imprenta y Librería
de
SIXTO DIAZ DE ESPADA
PAMPLONA
1837



1. NAFARROAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

Hezkuntza politikak, gaur egun ezagutzen dugun kontzeptu gisa, Ilustrazioan du jatorria eta helburu nagusietako bat hezkuntza ikasle guztiei zabaltzea da. Hala ere, gure herrialdean hezkuntza ez da instituzionalizatua izan, hau da, ez da legeen edo araudien bitartez arautu izan, Independentzia Gerraren ostean Estatuak egin zuen arte.

Espainiako eskola publikoaren historia Cadizeko Konstituzioan (1812) du jatorria, agiri horretan IX. tituluaren 366. Artikuluan ezartzen baita lehenengo aldiz, “lehen hizkien eskolen ezarpena monarkiaren menpe daude herri guztietan, haurrek irakurtzen, idazten eta zenbatzen ikasi dezaten”. Aldi berean, programazio orokorra eta irakaskuntzaren kontrola Estatuari zegokiola ezarri zuen. Hala ere, hezkuntzaren behin betiko zehazpena ez zen XIX. mendearen bigarren erdialdera arte egin, 1857an Hezkuntza Publiko Legea edo Moyano Legearen onespenerekin batera.

Nafarroako Erresumak hezkuntzaren inguruan interes handia erakutsi zuen hasieratik. Legalki, hezkuntzaren antolakuntzaren lehenengo foro aurrekariak 1617an eman ziren; zehazki, Novísima Recopilación-eko I. Liburuan, X. Tituluan, 66. Legeak, gramatika maisu-maistren eta irakurtzeko, idazteko eta zenbatzeko eskoletako maisu-maistren izendapena baimentzen zuen eskubidea ezarri zuen.

XVIII. mendean zehar Lehen Hizkien Eskolak arautzeko lehenengo pausoak eman ziren. Berezko eskolak zituzten herriek maisu-maistrak izendatzeaz arduratzen ziren, baita funtzionamendu arauak, eskolen aurrekontuak, ordutegiak, azterketak eta ordenantzak, besteak beste, ezartzeaz ere. Horretaz gain, irakaskuntzaren ikuskapen berezko sistema garatu zuten. Funes (1707), Iruña (1735), Azkoien (1782), Garaioa (1769), Tuteran (1769), Caparroso (1783), Cascante

(1785), Azagra (1786), Zarrakaztelu (1787), Corella (1792), Lizarra (1798), Miranda Arga (1799), Zangoza (1807), Alesbes (1808) eta Valtierra (1820) eskolak tokiko hezkuntza-antolamenduaren adibide onak dira.

Hala eta guztiz ere, udaletxeek euren herrietan irakaskuntza planifikatzeko eta antolatzeke autonomia osoa izan arren, Erresumako herri guztietan eragina izango zukeen maila orokorreko legegintza ezartzea eskatu zuten.

Hori dela eta, Nafarroako Erresumako Gortek 1780-1781an XLI. Legea onartu zuten: “Erresuma honetako herrietan neskato-mutikoen bereizketa eskolak ezartzeko erabakia eta maisu-maistrak eduki beharreko kalitateak”.

Gortek aipaturiko legea garatzea gertaera gogoangarria izan zen Nafarroako hezkuntzaren historian, bere 22 artikuluetan Nafarroako Erresumako hezkuntzaren funtsezko ildoak aurkeztu baitzuen.

Lege horretako hainbat artikuluk Espaniako hezkuntza legegintzari aurrea hartu zioten. Adibidez, 5 eta 12 urte bitarteko neska-mutilen eskolara bertaratzeko betebeharra, bi errealeko isuna ezarriz eskolara joaten ez zen umearen gurasoei; neskatoen eskolen sorrera 150 biztanle baino gehiagoko udalerrietan; maisu-maistren tituluen beharra; ume behardunen sarbidea eskolara eta Superintendentearen figuraren sorrera. Superintendenteak udalek aukeratzen zuten, besteak beste, umeen zaintza, bertaratzeko eta hezkuntza ziurtatzeko.

Zalantzarik gabe, Nafarroako legegileen helburuak ez ziren betetzen errazak. Izan ere, 5 eta 12 urte bitarteko ume guztiak eskolatzeko zailtasun nabaria zegoen, garai horretan ez zuten guda etengabeak kontuan hartuta, eta baita gurasoen pentsamolde praktikoa ere, euren seme-alabek laborantzan eta abeltzaintzan jasotzen zuten formakuntza hobea zela uste baitzuten.

Hezkuntzaren egoerak ez zuen aldaketarik nabaritu 1828-29ko Gortek osatu zuten arte (Erresumako azkenak). Iruñeko lehen hizkien eskoletako maisu-maistrek, Gorte Nagusiei bidalitako oroitza-txostenean, Nafarroan lehen hezkuntzak zituen arazoak salatu eta hainbat konponbide aurkeztu zituzten. Txosten hori Gortek lehen hizkien hezkuntza publikoari buruzko XXII. Legea prestatu, onartu eta Erregeordeak berresteko baliogarria izan zen.

Aipatutako legeak erlijioa, ohorea eta aberriarekiko maitasuna babestea zuen helburu nagusia eta Hezkuntzako Batzorde Nagusia ezarri zuen organo betearazle gisa, Nafarroako Lehen Hizkien Eskolak antolatu eta bateratu, Erresumako eskola guztientzako araudi metodikoa prestatu, maisuen soldataz eta gaitasunetaz eta, orokorrean, hezkuntzarekin lotutako guztiaz arduratzeko funtzioarekin. Horretarako, Batzorde Nagusiak udalek sortutako menpeko batzordeen laguntza jasotzen zuen, udalerrri bakoitzaren eskolak bideratzeko eta zaintzeko asmoarekin. Gaur egun, Hezkuntzako Batzorde Nagusia estatu

mailako Ministerioaren edo autonomia-mailako Hezkuntzako Kontseilaritzaren baliokidea izango litzateke.

Berehala Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren emaitzak begi-bistakoak izan ziren. Izan ere, Hezkuntza Batzorde Nagusiaren lana, sortu eta lehenengo bi urteetan, 1831ko martxoaren 26an onartutako “Nafarroako eskolen Plangintza eta Araudiaren” ekoizpena izan zen. Plan horrek maisu-maistren formakuntza eta eskolaren funtzionamenduarekin lotutako alderdiak (programak, ordutegiak, irakaskuntza-metodoak, sariak eta zigorrak, azterketak eta abar) barne hartu zituen, Nafarroako eskola-politikaren oinarriak finkatuz.

Araudia 20 tituluz eta artikuluz gehigarri osatuta dago: 1. gobernu eta eskolen zuzendaritza; 2. Batzorde Nagusia; 3. menpeko batzordeak; 4. eskolen sailkapena; 5. irakasgaiak eta testuliburuak; 6. irakaskuntza metodoak; 7. ikasleen onarpena eskoletan; irakaskuntza egunak eta orduak eta jardueren antolamendua; 8. azterketa partikularrak eta publikoak; 9. sariak eta zigorrak; 10. eskoletako maisu-maistren azterketak, tituluak, oposaketak eta kalitateak; 11. laguntzaileak eta ikasle behatzaileak; 12. Lekzionistak eta ostatu-etxeak; 13. eskolen hornikuntza; 14. Batzorde Nagusiaren zerbitzurako funtsak eta gastuak; 15. lehen hizkien maisu-maistren lehentasunak eta salbuespenak; 16. polizia eta eskola-ordena; 17. maistrakneskatoen eskolentzat; 18. eskolak eta maistrak; 19. irakaskuntzak eta ikasleak eta 20. betearazpen neurriak.

Garrantzia berezia duten alderdien artean, honako hauek azpimarratu nahiko genituzke:

- Erresumako neska-mutil guztien **eskolara bertaratzeko betebeharra**, 5 urtetatik 12 urte bete arte (65. art.).
- **Eskolen sorrera Erresumako udalerrri guztietan** (18. art.) eta “**Bailarako Eskolak**” 300 biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta herrixketan (19. art.).
- **Nesken eskolatzearen inguruko sentsibilizazioa eta maistren prestakuntza eta ordainketa** (166., 167. eta 168. art.).
- **Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren eskutik testuliburuaren ekoitzea, gainbegiratzea eta onartzea**. Fleuryren *Catecismo histórico* eta Pintonen *Compendio histórico de la religión* onartutako lehenengo testuak izan ziren (34. art.). Gainontzeko materialei eta liburuei dagokienez (silabarioak, aritmetika, irakurmena eta idazmena, gizalegea, kaligrafia, gaztelaniaren gramatika eta ortografia eta abar), Batzordeak onartzeko edo atzera botatzeko eskubidea gordetzen zuen. Nafarroako maisu-maistrek idatzitako eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiak onartutako liburuen artean, Ezequiel Torrecillasen *Silabario* eta *Nuevo Libro Segundo* aipatu ditzazkegu.



Historian zehar Hezkuntzako Batzorde Nagusiak erabilitako idazpuruak.



Nafarroako Irakaskuntza Plana.

- Nafarroako Erresumako eskola guztientzako ikasgaien curriculuma ezartzea: **kristau-ikasbidea, irakurtzen eta idazten ikastea, aritmetikako lau arauak, gramatika eta ortografiaren oinarritzko ezagutza eta gizalege arauak**. Aipatutako irakasgaien programa geografia eta historiaren oinarritzko ikasketarekin osatzen zen, 1. eta 2. mailako eskoletan (32. eta 33. art.).
- **Maisu-maistra tituludunak**. Tituluak Erresumako Erret Kontseilu Gorenak igortzen zituen. Bi maila ezartzen ziren bertan, azterketen kalitatearen eta Eskola oposaketaren eskubideen arabera; hau da, tituluak 1. eta 2. mailakoak izan zitezkeen (100. eta 108. art.).
- **Eskola Pribatuak, Hezkuntza Pribatuko Ikastetxeak edo Etxeak** baimentzeko prozedura ezartzen da (145. art.).
- Hezkuntzako Batzorde Nagusiak sortutako **Lehen Hizkien Eskola Normalak** Faltzes eta Lizarrako udalerrietan, eta bi Iruñeko mutilen eskoletan (27. art.).
- **Araudiaren izaera erlijioso**. Esleitutako xedapen guztien artean, umeen formakuntza erlijiosoari erreferentzia egiten diotenak nabarmentzen dira. Bertan, Sorkunde Garbia eskolen zaindaria izatea ezartzen da, bere irudia ikasgelako aurrealdean edo lekurik txukunenean ikusgai jartzera behartuz (163. eta 164. art.).

Lehen guda karlista hasi baino lehen, Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren kudeaketak osperik handiena lortu zuen. Nafarroa bi eremutan banatuta geratu zen: eremu karlista eta liberala. Nafarroa karlistan, eskolen Araudiak indarrean jarraitu zuen, testuinguru belikoa izanda ere, eta Nafarroa liberalean, antzinako Erresumako erakundeen desegitea gertatu zen, Batzorde Nagusia barne.

Denbora tarte horretan (1833-1839), gure Erresuma lehen guda karlistan murgilduta zegoen. Guda amaitzean, Isabel II. erreginaren gobernu liberalak Nafarroa Espainiako probintzia bihurtu zuen eta bere foru eskubideak kendu. Batzorde Nagusiak bere eskumen gehienak galdu zituen eta Lehen Hezkuntzako Batzorde Probintzialak ordeztu zuen. Geroztik, buruzagi politikoak (gobernadore zibilak) maisu-maistren izendapena berresteko eta hezkuntza arloko legeak ikuskatzeko ardura izango zuen.

1836an Nafarroako foru-erregimena ia bertan behera geratu zen, baina hala ere bazegoen oraindik itxaropen zirrikitu bat Nafarroa eta gobernu zentralaren artean gerta litekeen akordiorako, behin guda karlista amaituta, eta 1839ko urriaren 25eko Foruen Legearen aldarrikapena ahalbidetuko lukeena.

Batasun konstituzionala kaltetu gabe, Nafarroarekiko behin betiko konponbidea 1841eko abuztuaren 16ko Itun-Legearekin gauzatu zen, 1841eko abuztuaren 14ko **Lege Itundua** ere deritzona. Lege horrek finkatu zituen oina-

rrien arabera, Nafarroak monarkiaren batasun konstituzionalarekin bat egin zuen, espainiar Estatuaren esparruko beste probintzia bat bezala. Era berean, hezkuntzaren arloan, Nafarroak orain arte izan zuen autonomia mugatu zen. Hala ere, Víctor Manuel Maeztu Esparza doktoreak adierazten duen bezala, autonomia fiskala aitortzen zuen, Estatuari aurretik ordaintzen zion “Foru-Ku-poa” deituriko kontribuzioarekin. Horri esker Foru Aldundia eta udalak ku-deaketa ekonomiko handiaz baliatu ziren eta hezkuntza Estatuko gainontzeko probintziek baino baliabide gehiagorekin sustatzeko aukera izan zuten.

Hortaz, udalek maisu-maistrak izendatzeko zuten ahalmenak indarrean jarraitu zuen, baina ahalmen hori ez zen jadanik Nafarroako foru-eskubidean oinarrituko, Espainiako indarreko araudian baizik. Hau da, 1838ko Lehen Hezkuntzako Legea, Someruelos Legea ere deiturikoa, 1831ko Nafarroako Eskolen Plangintza eta Araudia baliogabetu zuena.

1840an, Someruelos Legea indarrean zegoela eta Nafarroa espainiar Estatuaren probintzia bihurtuta, Foru Aldundiak hezkuntza arloarekiko ardura zaindu zuen eta, Iruñeko Udalarekin batera, San Frantzisko komentuko eraiki-nean Maisuen Lehen Hezkuntzako Eskola Normala sortu zuen (1840). 1847an, Maistren Eskola Normalaren sorrerarekin batera, Espainiako lehen Eskola Normalak izan ziren, Madrilgo Eskola Normal Orokorren ostean. Zalantzarik gabe, zerikusia izan zuen garai horretan Nafarroak behar adina formakuntza zuen irakasle tituludunak izateko eta, bide batez, titulu edo formakuntzarik gabeko irakaslez jositako eskola kopuruari erantzuna emateko.

Nafarroako Administrazioak hezkuntzarekiko adierazi zuen kezka eskola kopuruaren igoera etengabea ekarri zuen: 1820an zeuden 166 eskolak eta 198 maisu-maistrak, 1842an 305 eskola eta 418 maisu-maistra izatera iritsi ziren¹.

Mende horretan zehar irakaskuntzaren historian egon den hezkuntza legerik urtetsuena eta eraginkorra argitaratu zen: **1858ko Instrukzio Publikoko Legea**. Moyano Legea ere deiturikoa, 1901 arte ez zuen ia aldaketarik izan (Romanonesen hezkuntza publikoari buruzko dekretuek zenbait aldaketa txertatu zituztenean). Moyano Legea 1970 arte egon zen indarrean, Villar Palasíren Hezkuntza Lege Orokorrak ordeztu zuen arte.

Lege hori Europa mailan legerik aurrerakoi eta orekatuenen artean zegoen. Bere ezarpenak eskola tradizionalaren espazio-denbora, curriculum, antolakuntza eta metodologiaren sorkuntzan eragina izan zuen pedagogia ekarri zuen.

1. J. NAVALLAS REVOLE, *Gran Enciclopedia Navarra*, Tomo IV. Alea, Iruña, 1990, 174. orr.

Hona hemen bere ezaugarri nagusietako batzuk:

- Hezkuntza publikoa bateratu eta antolatzen zuen, une horretan indarrean zeuden legeen arabera: Someruelos Legea eta Pidal Plana.
- 6-9 urte bitarteko betebeharra ezartzen zuen, beti ere udalerrian eskola izanik.
- Ordaintzerik ez zutenentzako lehen hezkuntzaren doakotasuna ezartzen zuen, betetzen ez zuten gurasoei zigorrak ezarriz.
- Maistren formakuntza eta soldata arautzen zuen, maisuekiko desparekotasun egoeran. Izan ere, maistrek maisuen soldataren herena kobratzen zuten.
- Lurralde nazionalan eskolak irekitzera behartzen zuen eta maisu-maistren karguen bateraezintasunak finkatzen zituen, Administrazioaren menpe zeuden beste lan-eginkizunekiko (idazkaria, postaria, eta abar).
- Hezkuntza sistema nazionala eta zentralizatua eratu zuen. Udalek euren autonomia galdu zuten.
- Gurasoei edo tutoreei baimena ematen zien euren seme-alabei lehen hezkuntza etxeetan edo zentro pribatuetan emateko.
- Lehen Hezkuntzako Batzordea indargabetu zuen eta haren ordezkari Instrukzio Publikoko Batzorde Probintziala ezarri zuen.

Moyano Legeak irakaskuntza bi mailatan zatitu zuen: oinarrizkoa eta goi-mailakoa, eta, aldi berean, publikoa edo pribatua izan zitekeen.

Oinarrizko mailaren kasuan, ondoko sei irakasgai hauek osatzen zuten curriculum:

- Kristau-jokabidea eta historia sakratuaren oinarriak.
- Irakurmena.
- Idazmena.
- Gaztelaniako gramatika oinarriak.
- Aritmetikako oinarriak, neurrien, pisuen eta txanponen sistema legala erabiliz.
- Mutilentzako nekazaritzaren oinarri laburrak.

Goi-mailako lehen hezkuntzak, Moyano Legearen arabera, aurreko irakasgaien “hedatze zuhurra” hartuko luke barne, ondokoez gain:

- Geometria printzipioak.
- Marrazketa lineala.
- Lur-neurketa.
- Geografia eta historiako hastapenak.
- Fisika eta natur zientzien ezagutza orokorra.

Neskek oinarrizko eta goi-mailako irakaskuntzaren hainbat irakasgai ondorengo eduki hauekin ordezkatu zituzten:

- Sexuari dagokion zereginak.
- Joste-lanei aplikaturiko marrazketa elementuak.
- Etxeko higienari buruzko oinarrizko ezagutza.

Foru Aldundiak, 1857ko Instrukzio Publikoko Legea onartuz, lege horrek finkatzen zuena baino soldata txikiagoa jasotzen ari ziren probintziako maisu-maistrak segituan igoera jasotzeko nahia aitortu zuen. Baina bere borondata maisuek jasotzen zuten soldata ez murriztea zen, legean finkatutakoa baino handiagoa baldin bazen.

Lehen hezkuntzako eskoletako ikasleek ez zituzten euren hezkuntza zikloan aurreikusitako irakasgai guztiak egiten, atal bat besterik ez. Horretaz gain, neska-mutil asko ez ziren ia inoiz eskolara joaten, eta joatekotan denbora tarte laburrean egiten zuten, soilik irakurtzen, idazten eta oinarrizko eragiketa aritmetikoak ikasteko. Nesken kasuan, gainera, joste-lanetan aritzera joaten ziren. Beraz, ikasle gutxik ikasten zuten curriculum bere osotasunean, eta are gutxiago ziren goi-mailako hezkuntzaren berezko irakasgaiak ikasten zituztenak.

Geografia, historia, fisika eta naturaren historia oinarrizko hezkuntzan nahitaezko irakasgaiak ez izan arren, maisu-maistrek kultura orokor gisa irakasten zieten azken saileko ikasleei. Lur-globoa, hiriburu europarrak, fotosintesia, aurkikuntza garrantzitsuak, giza espeziearen jatorria edota Karlomagnoaren inperioa bezalako edukiak hainbat hezkuntza programen barnean sartzen ziren. Bertako batzordeek ikasturte amaierako azterketa publikoetan eduki horiekin lotutako galderak egiten zituzten.

Gure probintzian, aipatutako Legearen aldarrikapenarekin batera, Estatuarekiko harremanak tenkatu egin ziren, maisu-maistren izendapenarekiko zekarren kontraforuaren ondorioz. Gatazkak 1887rarte iraun zuen, Nafarroako Instrukzio Publikoko Batzorde Probintzialak, Foru Aldundiaren kontra eginez, Nafarroako udalak uneoro 1857ko Instrukzio Publikoko Legearen oinarriari eustera behartu baitzituen.

1865ean, Moyano Legeak goiena jo zuenean, Espainiako eta, bereziki, Nafarroako biztanleriaren artean Isabel II.aren erregealdiarekiko nahigabea zabaldu baitzen. Atsekabe horren ondorio gisa, haren kontrako lehen hotsak altxatu ziren, 1868ko iraultza, moderantismoaren porrota eta Erreginaren erorialdia ekarri zutenak.

Estatu liberalaren garaian (1833-1868) izaera unibertsaleko hezkuntza sistema ezarri zen. Espainiako hezkuntza sistemaren modernizazioaren lehen

denboraldia horrek Nafarroan eskolen kopuruaren igoera ekarri zuen. Izan ere, 1842an zeuden 305 eskolak 1868an 684 izatera pasa ziren:

Osatugabeak	315
Mutilenak.....	182
Neskenak	155
Haur eskolak	15
Pribatuak	17
Osotara.....	684 eskola ²

Politikari dagokionez, garai horretan foruen aldeko aldarrikapenak etengabeak izan ziren. 1867an, Foru Aldundiak foralismoa goraipatzen zuen bere adierazpenetan; 1872an hirugarren guda karlistak eztanda egin zuen eta Karlos VII. erregeak Hezkuntza Batzorde Nagusia Lizarrara lekualdatu zuen; 1873an, Lehenengo Errepublika aldarrikatu zen; 1893an Gamazadak berekin ekarri zuen herri matxinada eta, azkenik, 1901ean Foru Aldundiak hezkuntza arloan zituen eskubideen aldarrikapenaren ondorioz, 1914an maisuen Proposamen Eskubidea onartu zen.

Hezkuntzari dagokionez, berrikuntza prozesuaren lehen urratsak eman ziren, besteen artean Pedagogia Kongresuak, Parisen eta Londresen ospatu ziren Erakusketa Unibertsalak, Irakaskuntzaren Erakunde Librea (ILE) eta lehenengo aldizkari profesionalak..

2. J. NOMBELA, *Crónica de la Provincia de Navarra*, 1868, 82 orr.

2. XIX. MENDEKO ESKOLA

XIX. mendeko eskolen azpiegituraren eta pedagogien egoerari buruz literaturan, ikonografian, etnografia historikoan, txosten ofizialetan eta bestelako iturrietan aurkitu ditugun testigantzek, mende horretako eskolaren bilakaerari eta bere arduradunei buruzko irudi historiko fidagarria eta egokia ematen digute.

Hona hemen Luis Lopez Alluek, 1900an argitaratutako *Capuletos y Montescos* eleberrian, Huescako probintziako eskola baten egoerari buruz egindako deskribapena, nire iritziz mende horretako eskola trebetasun handiz irudikatzen duena:

Eskolak udaletxe, udal auzitegi eta maisuaren etxea bezala erabiltzen zen eraikina-
ren beheko solairuaren zati bat betetzen zuen. Pitzatutako panelez osatutako ate
batek patiotik sarbidea ematen zion irakaskuntzara erreserbatutako lokalari. Are-
to hori soto errektangular hezea zen, sabai baxuekin eta, beraz, nekez argitzen eta
aireztatzen zena. Karez zuritutako paretak ia zeharo desagertzen ziren irakurme-
nerako kartelez osaturiko errenkada hirukoitzaren azpian; kartelak jada karaktere
lausoz beteta zeuden erakusleekin etengabe igurtzen baitziren; Historia Sakra-
tuaren irudiek, tonu nabarrez eta janzkeraren eta arkeologiaren anakronismorik
handinez apainduta, Itun Zaharreko eta Berriko eszena nagusiak irudikatzen zi-
tuzten; eta distira egiten zuten mapa koloretsuak, polea eta sabaira lotuta zegoen
soka baten laguntzaz, aho-oihal baten gisa jaisten ziren, haren atzean uholde han-
diari buruzko margolan beldurgarriren bat, Esterren historiari buruzko pasarte
poetikoren bat edota hitzak silabatan zatikatzeari buruzko ariketaren bat estaliz.
Plataformaren aldameneko bi bazterretan zeuden bi arbelen berniz beltzak ames-
gaiztoak sortzen zizkien umeei. Lokalaren erdialdean bankuak eta mahaiak zeu-
den [...], plataforma eusten zuen paretan betiko ordenan pilatzen ziren gurutzea
(hautsez beteriko errezelaren azpian), Estatuburuaren erretratua eta hasierako eta
amaierako otoitzak³.

3. L. LÓPEZ ALLUÉ, *Capuletos y Montescos*, 1993, 23. orr.

Pascual Madozek bere *Hiztegi geografikoan* adierazten duen bezala, 1847an 50 mutiko eta 34 neskatok ikasten zuten Orbarako lehen hizkien eskola mistoan (Aezkoako bailara). Espainiako Eskola-Estatistikoaren arabera, 1908an udalerriko eskola ratioa 37 ikaslera jaitsi zen. 60ko hamarkadaren erdialdean, bi sexuetako 5 ikasle baino ez ziren eskolara joaten. Ikasle kopuru txikiaren ondorioz, Eskola Ikuskaritzak Sasoiko Eskola bihurtzea erabaki zuen. 1974an itxi zen; ikasleak Aribeko eskolara lekualdatu ziren eta geroago Garraldara. Argazki honetan Orbarako eskolako umeak ikus ditzakegu, euren maistrarekin batera, M^a Carmen Lizasoain Larumbe, 1961ean, eskolako atean.



Aztertutako dokumentazioaren arabera (maisuu-maistrek eta tokiko batzordeek egindako galdetegiak; eskolen egoera jasotzen zuten dokumentuak; maisuu-maistren eta ikuskatzaileen txostenak; inbentarioak, gastuak eta eskoletako aurrekontuak; Nafarroako hezkuntzaren historian adituek egindako ikerketak eta abar), argi adierazi dezakegu, Iruña, Lizarra eta Tuterako salbuespenak izan ezik, gure arbasoen eskolek urritasun ekonomikoa eta pedagogikoa zein azpiegituren urritasuna pairatzen zutela.

2.1. Baliabide materialak eta ekonomikoak

2.1.1. Eskola-eraikinak

Lehen Hizkien lehenengo ikastetxeak Udal Eskolak deiturikoak izan ziren, udalen menpe baitzeuden, bai ordenantzei bai lokalen mantenuari zegokionez.

Udalek euren udalerria eskola batekin hornitzeko ardura zuten. Gorteen 1828-29ko XXII. Legeak, 10. artikuluan, ondorengo hau agintzen zuen: “Eskolentzako erosoak eta osasungarriak diren eraikin publikorik egon ezean, udalek erosotasun nahikoa duten eta alokatuta ez dauden etxeak lagako dituzte, batzordeek ezarritakoaren arabera”.

Ondoren estatuan argitaratutako legeek udalei zeregin horren erantzukizuna ematen jarraitu zuten.



XIX. mendearen hasieran, Aranguren ibarran zegoen Zolinako eskola mistora bi sexuetako 26 ikasle bertaratzen ziren eta 25 gari erregurekin hornituta zegoen. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, eskolak 18 ikasleko ratioarekin funtzionatzen jarraitzen zuen. Gaur egun, eraikina ez dago bertan bizitzeko moduan eta udalerriko ikasleak Mutiloako Ikastetxe Publikora joaten dira.

Hortaz, 1838ko Oinarrizko Lehen Hezkuntzako Araudia II. Atalean, udalak lokalak hornitzera behartzen zituen “bizigarritasun baldintzak betetzen dituzten eskolentzat: espazioa, kokapena, osasungarritasun baldintzak”.

Mendearen hasieran, eskola ez zen berez eraikin bat, gutxieneko egokitzapen baldintzak baino betetzen ez zituen areto bat baizik. Udalaren etxabea edota eliz ataria bezalako espazio txiki, ilun eta hotzak ziren, higiene eta osasungarritasun baldintzarik gabekoak. Leiho txikiak zituzten areto sinpleak ziren, komunik gabekoak, kasu batzuetan egurrezko berogailuarekin, eta ikasleek oinak berotzeko eramaten zituzten su-ontzi txikiekin.

Umeak banku luze zakarretan eta baita lurlean ere eserita pilatzen ziren, Fleuriren kristau-ikasbidea, alfabetoa, hasierako eta amaierako otoitzak eta arau moralak ahopeka abestuz, ikasgaia buruz ikasi arte.

Maisu-maistrek eta ikuskatzaileek euren idazkietan aretoen baldintza higieniko eta arkitektoniko txarren inguruko kezka adierazi zuten, baita euren irakasle-lana betetzeko eskuragarri zituzten baliabide material urrien ingurukoa ere. Mende amaieran Nafarroan egin ziren Biltzar Pedagogikoetan, maisu-maistrek eskolen baldintza higieniko txarreatatik kexu ziren, eta hizlari batzuek “txerritegi” hitza ere erabili izan zuten eskolari erreferentzia egiteko⁴.

4. REYES BERRUEZO, “*Conferencias Pedagógicas*”, *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 18.zk, 435.orr.

Pascual Madozen arabera, 1845ean Elizondok bazuen lehen hizkien eskola mistoa, bertan 70 mutilek eta 30 neskek ikasten zuten, eta baita Erruki-Etxean zegoen neskatoentzako ikasgela bat ere. XX. mendeko aldi luze batean zehar, herriak bi eskola publiko izan zituen: mutilena (egun ikastola dena) eta neskena (Elizondoko Herriko Etxea); eta haur eskola bat, Karitatearen Alaben ardurapean zegoena. Bi eskolak itxi zituztenean, ikasleak eraikin desberdinetan birkokatu zituzten: Erruki-Etxean, Elbeteko Eskolan, Lanbide Eskolan eta Lekarotzeko Ikastetxe zaharrean. 1976an "San Francisco Javier" Eskualde-Ikastetxearen inaugurazioak Elizondoko eta eskolarik gabe geratu ziren udalerrietako ikasleak barne hartu zituen. Hezkuntza pribatua ere eskaini zen, Ama Kontzepzionisten eta Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien "El Pilar" Ikastetxean (gaur egun Benito Menni ospital zentroa. Irudian nesken eskola ikus dezakegu 1957an. Gaur egun Herriko Etxea da. S.I.E.



Villatuertako medikuak, Celestino Copaired jaunak, 1884ko idazki batean udalerrri horretako eskolei buruzko deskribapen zentzuduna egin zuen:

Eskolak, mutilentzat eta neskentzat bereiztuta, kartzela, udalbatza-aretoa eta epai-tegi-aretoa bezala erabiltzen den eraikinaren zati dira. Eraikina osasungarritasun eta estetika baldintza penagarrietan dago, eta bere erosotasunagatik ere ez da bereziki nabarmentzen [...] Eraikin berean hiltegi eta harategi gisa erabiltzen zen gela zegoen. Bai hiltegia bai hiltzera zihoazen abelburuak gordetzen ziren gela ere eskolen azpian kokatzen ziren hain zuzen ere, eta eskolen gainean abere larrua eta gainontzeko hondakinak gordetzeko tokia zegoen [...] Mutilen heziketarako erabiltzen den aretoak 10,20 metroko luzera, 4,30m-ko zabalera eta 2,80m-ko altuera du, oso egoera txarrean dagoen adreiluzko eta igeltsuzko zorua du eta ez du inolako aireztapen sistemarik. Nesken eskolak 9,51 metroko luzera, 5,10 m-ko zabalera eta 2,75m-ko altuera duen espazio irregularra da⁵.

Mende amaieran, udalek eskolen azpiegitura baldintzak eta baldintza materialak hobetu zituzten. Nafarroako eskola-eraikin gehienak, bereziki landa eremuetan, herriaren erdialdian zeuden eta udalen ondasunen zati ziren. Eskola-eraikin batzuek maisu-maistrarentzako etxeak ere baziren.

5. JESÚS CARMELO BOLEAS MAEZTU, *Historia de Villatuerta*, II. alea 2013, 241-244.orr.

2.1.2. Eskola-inbentarioa

Erregimen zaharreko maisu-maistrek euren arbasoek irakaskuntzan erabilitako eta denboran zehar tradizioak zabalduz metodoak, antolakuntza sistematikak eta materialak jaso zituzten.

“Artisau-pedagogia” hori Nafarroako Erresuma zaharreko eskola askorentzako eredu izan zen. Hala ere, antzinako maisu-maistren kultura enpiriko eta artisauarekin batera, izaera liberala zuen beste korrante bat sortu zen, edo, hobeto esanda, testuliburuaren eta eskola tresnen berritzea sustatzen zuen eskola kultura tekniko-pedagogiko berri bat (Escolano 2006).

Mendearen hasieran, indarreko araudiak lehen hizkien eskolentzako gomendatzen zuen inbentarioak ondoko elementu hauek ezartzen zituen: Jesu Kristoren irudia, Garbiñe Ama birjina eskolen zaindari gisa, oholtzaren gainean maisu-maistraren mahaia eta idazmahai luze eta makurtuak. Paretetan horma-irudiak eta taulak ipintzen ziren inprimatutako edo eskuz idatzitako ikasgai nagusiekin.

Beranduago, eskolako tresneria aberasten joan zen, irakaskuntza indibiduala eta elkarrekikoa aldibereko irakaskuntza bihurtzen zen heinean. Aldaketa horrek eskolako tresnen, liburuaren eta baliabide didaktikoen berritzea eta areagotzea ekarri zuen, xix. mende amaiera eta xx. mende hasiera arte ez baitziren modu egokian hornitu.

Gure eskoletan erabiltzen ziren materialak inbentarioetan, eskola-aurrekontuetan eta materialen kontuetan azaltzen dira.

1858ko Moyano Legea (1858) ezarri ostean, maisu-maistra bakoitzak, bai karguaz jabetzean bai kagu-uztean ere, eskolako tresneriaren inbentarioa bitan egin behar zuen, hau da, eskuragarri zituzten tresnen eta liburuaren zerrenda, aurrekontuarekin batera, eta Hezkuntza Tokiko Batzordean aurkeztu. Honek Hezkuntza Batzorde Probintzialera bidaltzen zuen eta ondoren, Ikuskaritzara, azken honek onartu zezan. Inbentarioan materialen zaintzaren egoera zein zen ere adierazten zen (ona, erdikoa edo erabilezina), bai eta botatako azken materiala ere.

Maisu-maistrak eskola berri baten ardura hartzen zuenean, inbentarioarekin batera materialen aurrekontuaren kopia bat eskatu behar zuen. Udalei eskatzen zieten materialak hurrengo ikasturterako ezinbestekoak ziren eta lehentasuna ematen zieten tinta, resmak, klarionak, arbel-ziriak edo joste-lanak egiteko tresna suntsikorrei. Maisu-maistra bakoitzaren irizpidearen arabera, urtero material berriak erosten ziren, edota aurrekontuaren zati bat altzariak, koadroak, eta abar konpontzeko erabiltzen zen. Material eskasia baldin ba-

zegoen, eskola batzuek tokiko batzordeei material gehigarria eskatzen zieten; eskaera horiek maisu-maistra bakoitzaren soldataren arabera ezartzen ziren, euren soldataren laurdena eskola aurrekonturako erabiltzen baitzen.

1860-61eko *Anuario Estadístico de España-k* adierazten duenez, Espainian tresneria osoaz hornitutako mutilen eskolen ehunekoak %38,2ra baino ez zen iristen, eta nesken eskoletan %32,8ra baino ez. Nafarroan %70tik gora kokatzen zen, bai mutilen bai nesken eskoletan ere. Gipuzkoa, Balearrak eta Valentziarekin batera, eskola inbentariarik zabalena, pedagogikoki egokiena eta zainduena zuen probintzia zen.

Lehen aipatu dugun bezala, mende hasieran eskola inbentarioa oso urria eta oinarritzkoa zen, izan ere ondorengo elementu hauetara mugatzen baitzen: oholtzaren gainean zegoen irakaslearen mahaia eta aulkia, irudi erlijiosoak, 6 edo 7 mahai luze eta zegozkien bankuak, letrak eta zenbakiak irakasteko horma-irudi handiak eta zeuden liburu eta material urriak gordetzeko armairu bat (eskuizkribuak, inprimatutako ikasgaiak, laginen eta litografia koadernoen bildumak, denek batera erabiltzen zituztenak, baita arropa zintzilikatzeke esekigailuak ere).

Mende amaieran, garai horretan sortu ziren higiene eta pedagogia irizpi-deak kontuan hartuta, eskola publiko baten **inbentario** desigarria ondokoa izango litzateke:

- Maisu-maistraren mahaia, bere plataformarekin.
- Brontzezko edo burdinazko irudia duen gurutzea, igeltsuzko, burdinazko, egurrezko edo paperezko errezelarekin.
- Birjinen irudi bat: Sorkunde Garbia, Pilarreko Ama Birjina, Karmengo Ama Birjina, Agurtzane, Uxueko Ama Birjina, Villarreko Ama Birjina, eta abar.
- Estatuburuaren edo erreginaordearen irudia.
- Isiltasunerako eta lan gogorrerako bi koadro edo taula obalatu.
- Bandera.
- Berogailu bat.
- Armairu bat.
- Idazteko gailuak (tintontzia, luma, gutun-irekitzekoa eta kanpaia).
- Banku eta idazmahai egokituak (7, 8 edo gehiagoko eserlekuak), tintontziak uzteko zuloekin.
- Koadroak eta kartelak seinalatzeko erakusleak.
- Horman edo astoan kokatutako arbelak.

- Harrizko arbel txikiak, dagozkien markoarekin, arbel-ziriak eta arbelak garbitzeko belakiak edo oihalak.
- Denboraren eta Lanaren Banaketaren Koadroa
- Irakaskuntza-Programaren Koadroa.
- Arau moralen koadroak edota horma-irudiak.
- Ohorezko eta Desohorearen zerrenda jartzeko koadroa.
- Hasierako eta amaierako otoitzak zituen koadroa.
- Aritmetikako taula handiak (batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak), kartoietan itsatsita eta horman kokatuta.
- Irakurmen silabario bat edo kartel handiak.
- Kartelak edo letrak ipintzeko atrila.
- Idazketa laginen bilduma, kristalezko markoan edo oholtxoetan kokatuta.
- Hainbat neurri eta motako luma metalikoak gordetzeko tiradera txikiak.
- Idazlumentzako heldulekuak.
- Tintontziak: toska, kristala, beruna, buztina, letoi, latorri, harri, zink eta eztainuzkoak.
- Tinta gordetzeko botila bat.
- Sistema metriko hamartarraren koadroa.
- Zenbaki osoen taula.
- Kutxa metrikoa edo pisuen bilduma eta neurri metrikoak.
- Mapa geografikoak: Mundua, Espainia, Amerika, Europa eta Nafarroa.
- Esekitokiak edo iltzeak txapelak eta berokiak zintzilikatzeke.
- Erratza eta hautsa kentzeko mustuka bat.
- Zazpi erregistro-liburu: bertaratzeak, matrikulak, sailkapena, korrespondentzia, eskola-inbentarioa, tokiko batzordearen bisitak eta bisita-liburua, ikuskarrien eskolen inguruko iritziak biltzen zituena.

Eskola bakoitzak zituen oinarrizko liburuei dagokienez, zaila da kopuru zehatz bati buruz hitz egitea. Orokorrean, liburu kopurua urria zen eta eskolako irakasgai bakoitzarekin bat zetozen.

Hainbat faktorek baldintzatzen zuten eskola inbentarioa, hala nola garai historikoak, gomendio pedagogikoak, maisuak erabilitako metodologiak eta, bereziki, maisu-maistrak urtero jasotzen zuen soldatak (bere soldataren laurdena eskola aurrekonturako erabiltzen zuen). Horregatik, eskola bakoitzak,

aurretik azaldutako “oinarrizko” edo “ereduzko” inbentarioaz gain, ondorengo **material espezifiko** hauek ere bazituen:

- Laguntzailearen edo irakaslearen mahai txikia (Cascante, 1875; San Martin, 1898; Elo, 1886; Larraga, 1865; Lizarra, 1868; Corella, 1895; Iruña 1898).
- Urrezko markoa duen Isabel II. Erreginaren bustoa (Uxue, 1866), Leon XIII. Aita Santuarena (Funes, 1872; Lizarra, 1894) eta Karlos VII. Erregearena (Lizarra, 1875).
- San Ferminen kristalezko irudia (Iruña, 1898).
- Familia Santuaren kristalezko irudia (Lodosa, 1899).
- Ikuskariaren mahaia (Mañeru, 1898; Corella, 1895).
- Lastozko aulkiak (Cascante, 1869, Artarain, 1898, Corella, 1895).
- Joste-lanak irakasteko bankuak (Oibar, 1898).
- Egurrezko bastidoreak eskuineko hankarekin joste-lanak egiteko (Cadreita, 1865; Sunbilla, 1900).
- Neskatoek gonak brodatzeko erabiltzen zuten euskarria (Ledea, 1890).
- Joste-lanentzako espolinatzailea (Oibar, 1895).
- Joste-lanetarako lisaburdinak zegozkien parrillekin (Iruña, 1877).
- Eskolako zigilua (Iruña, 1886; Tuter, 1866; Elo, 1886; Corella, 1889).
- Txirrina (Lesaka, 1900; Corella, 1889; Iruña, 1889; Cascante, 1898; Lizarra, 1890).
- Egurrezko taulak zenbaketa hamartarra lantzeko (Cascante, 1869).
- Kalkulu mentala lantzeko kartela (Cascante, 1869).
- Idazketarako trazuak, loturak eta apaingarriak dituen horma-irudi handia (Cascante, 1869).
- Biderketen eta zatiketen inguruko ariketa taula, Praxen “El nuevo calculador” deiturikoa (Cascante, 1869).
- Taula zenbatzailea, bere ardatzaren inguruan bira ematen zuena eta erakusle urdina zuena, zatikirik arruntenak irakasteko, (Cascante, 1869).
- Zenbaki hamartarrak zenbatzeko taula (Lodosa, 1899)(Iruña, 1890).
- Albaintzeko taula (Iruña, 1898).
- Zenbaki erromatarrei eta euren zenbaki arabiarren baliokidetasunari buruzko koadro bat (Lizarra, 1870).
- Pisuen eta neurrien arteko baliokidetasunen bi taula (Lizarra, 1870).
- Egurrezko euskarria, bere eskuin oinarekin, letren eta zifra mugikorren bost bilduma, margotutako latorrizkoak, ortografia eta ortologia ariketak egiteko. (Zangoza, 1882).

- Alfabetoaren karta-sorta (Murillo del Fruto, 1900). Haritzezko egurrean landutako alfabetoa (Sunbilla, 1900). Zinkeko alfabetoak (Arguedas, 1898).
- Zinkean egindako arau moralak (Iruña, 1890).
- 297 ale (Oibar, 1895) eta 167 ale (Zare, 1898) zituen herri liburutegia.
- Solidoen kutxa (Cascante, 1896; Valtierra, 1896).
- Egurrezko konpasak (Cascante, 1869).
- Zenbakitutako zirkulua (Iruña, 1898).
- Ezpelezko metroa (Milagro, 1893).
- Lumak epeltzekoak (Cascante, 1869; Murillo del Fruto, 1898; Uxue, 1860; Narbarte, 1863; Lizarra, 1870; Legarda, 1890).
- Idazteko erabiltzen diren hegazti lumak (Lodosa, 1861).
- Gotzainak emandako barkamenen koadroa (Cascante, 1869; San Martin, 1898; Andosilla, 1896; Mañeru, 1899; Lodosa, 1899).
- Bekatu kapitalen inguruko sei horma-irudi handi (Cascante, 1869).
- Kutxa entziklopedikoa edo Eskola-Museoa (Iruña, 1898).
- Eskoletako diziplinaren araudiaren koadro bat (San Adrian, 1897; Funes, 1872; Iruña, 1845).
- Analisi osoaren eta gramatikaren koadro bat (Iruñeko Erruki-Etxea, 1857).
- Hegaztien araudiari buruzko koadroa (Funes, 1872; Legarda, 1899).
- Hegaztien bizitzarekiko errespetuari buruzko koadroa (Cascante, 1896; Tuterara, 1896).
- Filoxeraren irudien eta datuen koadroa (Cascante, 1869; Caparroso, 1878; Mañeru, 1899).
- Jesu Kristoraino iritsi arte Adanen ondorengoen genealogia azaltzen duen koadroa (Iruñeko Erruki-Etxea, 1857; Cascante, 1869; Viana, 1891).
- Aditz irregularren koadroa (Arguedas, 1900).
- Zenbaki erromatarren koadroa (Arguedas, 1900).
- Figura geometrikoei buruzko kartoizko koadro handi bat euskarriekin (Cascante, 1869; Arroitz, 1900).
- Nafarroako Foru Aldundiaren koadroa (Iratxeta, 1896).
- Diputatu probintzialen koadro bat (Mañeru, 1898; Artarain, 1898); Igantzi, 1900).
- Espainiako Erregeen koadro kronologikoa (Iruñeko Erruki-Etxea, 1857).
- Historia sakratuari eta Espainiako historiari buruzko irudiak, oihalean ipinita, bernizatuta eta markoarekin (San Martin, 1897; Oibar, 1899; Arguedas, 1898; Zangoza, 1898).
- Arte eta lanbideen irudi bilduma (Iruña, 1898).



XIX. mendearen amaieran, Aramburu argitaletxeak eskoletako material eta sari mota asko zuen. Irudi hauetan argitaletxearen lehenengo katalogoak ikus ditzakegu, 1892.

- Gotzainek emandako barkamenen koadroa (Andosilla, 1882).
- Hainbat gauzari buruzko ikasgaietako objektuen kartoizko bilduma (Iruña, 1898).
- Oihalezko lur-globo geografikoa (Cascante, 1869; Arroitz, 1900; Zirauki, 1896; Mañeru, 1899).
- Dionisio Ibarlucearen Nafarroako mapa korografikoa (Lizarrá, 1887; Zangoza, 1890).
- Espainiako eta Portugalgo errepideen mapa (Bargota, 1898).
- Meteoroen inguruko mapa (Iruña, 1898).
- Tinta gordetzeko porroia (Cascante, 1869).
- Tinta gordetzeko lapikoa (Corella, 1895).
- Umeek ura edateko pegarra eta pitxer txikia (Zangoza; Cascante, 1869; Mañeru, 1898; Corella, 1895).
- Pitxerra eta konketa duen altzaria (Sunbilla, 1900).
- Ur-bedeinkatuaren ontzia (Iruña, 1799).
- Brontzezko edo burdinazko sutontzia eta bertzuna (Cadreita, 1865; Milagro, 1893; Zirauki, 1896; Murillo del Fruto, 1894; Valtierra, 1896; Iratxeta, 1898; Zangoza, 1882; Caparrosó, 1878). Egurrezko sutontzia, igeltsuz forratutako barnealdearekin (Iruña, 1799).
- Petrolioizko kinkea (Elo, 1886).
- Erlojua (Añorbe, 1859; Lizarrá, 1887; Corella, 1887; San Martín, 1898; Mañeru, 1898; Erriberri, 1898; Zangoza, 1898; Sunbilla, 1900).
- Harezko erlojua (Tutera, 1845; Arguedas, 1861).
- Termometroa (Añorbe, 1859; Zirauki, 1896; Valtierra 1896; San Adrian, 1897; Obanos 1896; San Martín, 1878; Beire, 1878; Murillo del Fruto, 1898; Zangoza, 1882; Uxue, 1866; Erriberri, 1898; Lodosa, 1899; Lesaka, 1899).
- Irakasleei eskainitako zilarrezko domina, bere kutxatilan (Arguedas, 1896; Santakara, 1896; Oibar, 1898; Uxue, 1897; Murillo del Fruto, 1898; San Martín, 1899; Sunbilla, 1900).
- Eskola almanaka (Corella 1893; San Martín, 1898; Obanos, 1896; Sunbilla, 1900; Zangoza, 1882).
- Autobiografiatutako ikasgaietako oholtzoa (Arguedas, 1898).

Aztertutako eskola inbentarioei eta aurrekontuei esker, Nafarroako eskoletan erabiltzen ziren baliabide didaktikoen erradiografia zehatza egin dezakegu. Horiei esker gure eskolen kultura enpirikoaren gakoak ere hurbilagoetik hobeto ulertu ditzakegu. Azken finean, tresnen eta liburuen historia neurri batean ere eskolaren historiaren zati baita.

2.1.3. Altzarien eta tresnen egoera eta kokapena

Mende hasierako altzariak eskolak irekitzen ziren edozein herri edo hiritan zurgin trebe batek egin zitzakeen pieza arruntak ziren. Horregatik, eskola bakoitzean ikasleentzako mota ezberdinetako idazmahaiak zeuden, zurgin bakoitzak bere eredu propioa diseinatzen baitzuen. Eskola Administrazioak XIX. mende amaiera eta XX. mendearen hasiera arte ez zuen eskolako altzarien diseinu zentralizatua ezarri.

1831ko Nafarroako Eskolen Plangintzak eta Araudiak, baita 1838ko Estatu Eskolen Araudiak ere, ikasgeletan alfabetoa, taulak, umeen betebeharren inguruko arau moralak eta hasierako eta amaierako otoitzak jasotzen zituzten kartelak kokatzea agintzen zuten. Era berean, orri solteetan inprimatutako edo eskuz idatzitako ikasgaien prestakuntza gomendatzen zuten, testuliburu edo gidaliburuaren eskasia osatzeko.

Tresnen kokapena, hau da; irakaslearen mahaia, oholtza, kartelak, ikasleen idazmahaiak, armairuak, arbelak, gurutzak, horma-irudiak... funtzionaltasun irizpideen arabera antolatuta zegoen. Maisu-maistra gehienek ikasgela era berean egituratzen zuten: mahaia eta bankuak irakaslearen aurrean, horma-irudiak alboetan, irudi erlijiosoak ikasleen mahaien parean eta irakaslearen mahai gainean... hots, tresnen egituraketa asmo hezigarri batekin burutzen zen, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazteko eta baita saritzeko, zigortzeko eta suspertzeko baliabide gisa ere.

Araudiak atal horri buruz proposatzen zuen gomendiorik garrantzitsuena, ondorengo esaldiak arau gisa erabiltzean zetzan: “leku bat egotea gauza bakoitzarentzat, eta gauza bakoitza bere lekuan egotea” (Onsalo, 1898).

Elizondoko Erruki-Etxean, Karitatearen ahizpek neskontzako eskola bat zuten. Julio Nombelak 1868an egin zien bisitaren ostean, ondorengo hitzak erabili zituen ikasgela deskribatzeko:

Nesken eskola gisa erabiltzen den aretoa areto eredu bat da. Isabel II.a erreginarenekin erretratuak gailentzen du aretoa; alboetan, karaktere lodiz idatzitako bi hitz, ikasleek etengabe ikus ditzaketenak: “Ordena eta isiltasuna”.

Paretetan zintzilikatuta bestelako arau moralei buruzko horma-irudi handiak daude, Espainiako mapa eder bat, pisuen eta neurrien irudi bat eta beste irudi eder eta erabilgarriago bat; Historia Sakratua argiztatutako 96 laminetan, aldi berean hezigarriak eta atseginak direnak⁶.

6. J. NOMBELA, *Crónica de la Provincia de Navarra*, 1868, 103. orr.

Goi-mailako Gelako Lizarrako maistrak, eskola-inbentarioaren kopiak Tokiko Hezkuntza Batzordeari eman zizkienean, ikasgelako tresnak eta liburuak zeintzuk ziren zehaztu zituen, baita euren kokapena ere:

Oholtza bat dago maistraren mahaiarekin batera, oinentzako zulo bat duena eta bi alboetan arasa bana liburuak eta paperak gordetzeko, baita besaulki bat ere. Paretan, erreza duen gurutzea, eta Jainkoaren alboetan hasiera eta amaierako otoitzak; azpian Sorkunde Garbiaren irudia eta horren alboetan Ordena eta Aplikazioa hitzak dituzte bi taula eliptiko. Eskuineko paretan, erloju bat eta pisuei eta neurriei buruzko koadro sinoptiko bat; ezkerrean ondoko liburuak dituen armairu bat dago [...]; armairuaren ondoan termometro bat dago, eta zulatutako taula bat lumen berotzaileak gordetzeko; oholtzaren parean neskontzako hamasei idazmahai daude dagozkien bankuekin eta mahai bakoitzak koadroen eta kristalen hiru lagin ditu eta dagozkien kristalezko eta buztinezko tintontziak; oholtzaren parean armairu handi bat dago neskatuen joste-lanak gordetzeko; armairuaren eskuinaldean hiru taula daude, horietako bi pisuen eta neurri metrikoen eta Nafarrokoen arteko elkarrekotasuna adierazten dutenak eta bestea zenbaki erromatarren eta zenbaki arabiarren baliokidetasunari buruzkoa; ezkerrean, bi koadro, bata Sailkapenari buruzkoa eta bestea denboraren banaketari buruzkoa, baita pisuen eta neurriei buruzko koadro handi bat ere; horretaz gain, aritmetika lantzeko sei arbela ere badaude, umeen berokiak uzteko esekitokia eta esaldi moralei buruzko bilduma bat.

Lizarra, mila zortziehun ta hirurogeita hamarreko maiatzaren lehena. Marcelina Lacunza.

Bargotako lehen hezkuntzako eskola publikoko maisu zen (1901) Lorenzo Calavía Santosek bere kargua uztean udalari entregatu zion eskola inbentarioan, ondorengo hitz hauekin deskribatu zuen materialen eta tresnen kokapena:

Oholtzan

- Giltzapetutako tiradera bat zuen mahai zegoen; eskribautegi bat, zazpi aulki; erreza duen gurutzea; Alfontso XIII.a Erregearen erretratua; denbora eta lanaren banaketari buruzko koadro bat; isiltasunaren eta aplikazioaren koadro bana eta hasierako eta amaierako otoitzei buruzko beste bat

Erdialdean

- Zazpi idazmahai egurrezko 21 eredurekin; eztainguzko 14 tintontzi eta harea gordetzeko edalontziak; oholtzaren ezkerrean, giltzapetutako tiradera duen mahai zahar bat.

Paretetan

- Historia Sakratuari buruzko irudien bilduma; Espainiako eta Europako mapak; kartoizko horma-irudien bilduma; agindu moralei buruzko hiru koadro; aritmetikako taulak azaltzen dituzten lau horma-irudi handi; zenbatzeko egurrezko sei taula; Espainiako eta Portugalgo errepideen mapa; pisuen eta sistema metrikoaren neurriei buruzko koadro bat; esekigailu bat; paretetan sartzen ziren sei banku eta giltzapetutako armairu bat, liburuak gordetzeko.

2.1.4. Umeek eskolara eramaten zituzten materialak

Mendearen hasieran, umeek klasean erabiltzen zituzten materialak denen artean erabiltzen ziren eta eskolaren ondasunak ziren, nahiz eta Cadreita bezalako hainbat herritan, liburuak eta papera ikasleek eurek eramaten. Esate baterako, 1844-45eko ikasturterako, udalerrri horretako tokiko hezkuntza batzordeak erabaki zuen familiek udaleko lokaletan eskura zitzaketela haurrek eskolara eramane behar zituzten materialak eta liburuak. Liburuak ondorengo hauek ziren: Fernandez eta Garcia Medranoren *Aritmética*, errealeko kuarto bateko prezioarekin, *Gramática de la Real Academia*, errealeko kuarto bateko prezioarekin eta *Libro Segundo de la Junta Superior de Educación* Ezequiel Torrecillarena, 2 errealeko kuarto balio zuena⁷.

Lopez Alluek, *Capuletos y Montescos* eleberrian, ondorengo hitz hauekin deskribatzen ditu mende bukaerako umeak eskolara joaten ziren unea:

[...] sorbaldetatik zintzilikatuta merino beltzezko poltsa bat eramaten zuten, Gramatikaren Laburpena, Historia Sakratuaren laburpena, Kristau Ikasbidearen liburua, Aritmetikako beste bat eta ogi beltzezko koskor bat zituen⁸.

Orokorrean umeek kartoizko, larruzko edo egurrezko zorroan eramaten zituzten materialak eskolara, eta kasu batzuetan, listari batera lotuta eta zakuto batean. Neguan, landa eremu batzuetan, ikasleek **su-ontzi txikiak** eramaten zituzten ikasgela berotzeko. Neskek joste-lanekin zerikusia zuten materialak eramaten zituzten, euskarriak, orratzak eta hariak, besteak beste.

Ume batzuk ez zuten inolako materialik eramaten, txiroak baitziren. Udale-tako aurrekontuetan kopuru zehatza gordetzen zen kasu horietarako, ondoren maisu-maistra bakoitza kudeatzen zuena. Horregatik, ez da harritzekoa inbentarioetan ikasle horientzako papera, laginak, neskentzako joste-lanetarako materialak, paper-zorroak, lumak eta liburuak bezalako materialak aurkitzea.

Beste udalerrri batzuetan, Valtierran kasu, maisu-maistrek, Tokiko Hezkuntza Batzordearekin elkarlanean, aberatsen eta txiroen artean bereizketarik ez egitea erabaki zuten eta euren ikasgeletan erabiltzen zen material guztia eskolak hornitutakoa zen. 1896an Fermina García, Valtierrako maistrak, aurrekontuaren atalean: “Eskolan ume txiroentzako dauden liburuak eta bestelako irakaskuntza objektuak”, ondoko hau idatzi zuen:

[...] Eskola honetan neska guztiei dohainik ematen zaizkie, aberatsen eta txiroen artean bereizketarik egin gabe, liburuak, papera, tinta, lumak, arbelak, zorroak, zetak, euskarriak, orratzak; eskolako materialari eskainitako kopurua baita.

7. GUILLERMO IRIARTE, *La Escuela y los Maestros del Ayer en Cadreita*, 2014, 24. orr.

8. L. LÓPEZ ALLUE, *Capuletos y Montescos*, 1993, 22. orr.

Corellako maisuak antzeko hitzak erabili zituen 1899an Tokiko Hezkuntza Batzordeari helarazi zion eskola memorian.

[...] baina esperientziak erakutsi du zeinen kaltegarria den batzuei dohainik ematea, limosna gisa, eta beste batzuei ez, eskolan aberatsen eta txiroen arteko desberdintasunak sustatzen direlako bestela. Horregatik materialarentzat esleitutako diru kopurua ume guztien artean banatzea komenigarriagoa delakoan nago.

2.1.5. Eskola aurrekontua, maisu-maistren soldata eta erretretak

Ilustrazioaren eraginpean, irakaskuntza elizaren esparrutik atera eta udalak zuzenean maisu-maistrak kontratatzen hasi ziren.

Garai horretatik aurrera, beraz, udalek irakaskuntzatik eratorritako gastuak ordaintzeko ardura izan zuten eta euren aurrekontuetan aretoen alokairua eta mantenua barne sartzen ziren, baita maisu-maistraren soldata, eskolen hornidura eta baliabiderik ez zuten ume behartsuen eskola materiala ere (“ume txiroak”).

Tokiko batzordeek zerbitzu horri zegokion guztia kontrolatzeko ardura zuten, irakaskuntza eta eskolara bertaratzea sustatuz, maisu-maistrak izendatuz eta ikasleak azterketen bidez ebaluatuz.

XIX. mendean zehar irakasleek udalen bidez jasotzen zuten euren soldata, eta ez Estatuaren bidez. Sistema horrek xx. mendeko bigarren hamarkadara arte iraun zuen.

Maisu-maistrek udalek egokitzen zituzten eskola aurrekontutik ordaintzen zituzten eskolako gastuak, jasotzen zuten soldataren laurdena eskainiz. Kopuru horretatik abiatuta, behin eskubide pasiboen %10 kenduta, bidezko banaketa bat ezarri behar zuten; erdia, eskolaren garbiketarako eta material finkoa erosteko eta, beste erdia, liburuak eta bestelako irakaskuntza materialak erosteko.

Soldata osoa jasotzen zuten maisu-maistrek “benetan txiroak ziren” umeei dohainik halabeharrez irakatsi behar zieten, beti ere bere ikasgelako umeen %10 eta %20 arteko ehuneko gaintitu gabe.

Udal batzuek tokiko irakaskuntzari eskainitako aurrekontu-sailak atzeratzen zituzten. Nafarroako Foru Aldundiak, behin baino gehiagotan, udal berankorrei ohartarazi zien egoeraz eta une oro nahiko arretatsu jokatu zuen, maisu-maistrek hileru euren soldatak ez kobratzeko arriskua sahiesteko asmoz.

Udalerrri gehienetan, ordainketa gisa, umeek diru kopuru bat edota fruituak, bereziki garia, eramateko ohitura zegoen. Familia ugarien kasuan lehenengo bi seme-alaben ordainketa osoa ordaintzen zuten, hirugarren seme-alabaren erdia eta ezer ez gainontzekoen kasuan. Hainbat udalek, funts publikorik ez

zutenez, maisu-maistren soldatak berandu eta gaizki ordaintzen zituzten eta, kasuren batean, ordaindu ere ez zituzten egiten. Horietako maisu-maistra askok ikasleen gurasoen laguntzari esker bizirauten zuten. Maisu-maistrentzako diru-kopurua eskolen kategoriaren, udalerriaren errentaren eta eskolara joaten zen ume bakoitzak ordaintzen zuenaren (orokorrean gariarekin edo bestelako espeziarekin) arabera zen. 1857ko Instrukzio Publikoko Legearen arabera, 192. artikuluan ondorengo hau ezartzen zen: 1. mailako eskolentzako 6.000 erreal kuarto, 2. mailakoentzat 4.000 erreal kuarto eta 3. mailakoentzat 2.000 erreal kuarto. 300 biztanle baino gutxiago zituzten udalerrietan maisu-maistrei 600 erreal kuarto inguruko diru-kopuru finko batekin laguntzen zitzairen.

1857ko eskolen sailkapen horrekin, maisu-maistren soldata ez zegoen bermatuta eta, jasotzekotan, ezberdintasun handiak zeuden udalen aberastasunaren arabera.

Nafarroan biztanle gutxi zituzten udalerriek ez zituzten diru-sarrera nahikorik hilabete bukaeran maisu-maistrek adostutako ordainak ordaintzeko. Horregatik, ekarpen ekonomiko nahikorik jaso gabe eta euren lana garatzeko laguntza urria kontuan hartuta, ez zen harritzekoa ondorengo esaera zaharrak maisu-maistren neke handiak islatzea: “eskolako maisu batek baina gose gehiago pasatzen duzu”.

Hori dela eta, maisu-maistrek bizi ahal izateko eta pobrezian ez erortzeko, ezinbestekoa zuten aldi berean sakristau, bizargin, idazkari, organo-jole, zapatari eta eskribau bezalako lanbideetan aritzea. Familiek “oparien” bidez ere ordaintzen zuten maisu-maistren lana, orokorrean landa eremuko eta animalien hilketako produktuekin.

1847ko otsailaren 9ko Errege Aginduaren arabera, 100 biztanle baino gehiagoko udalerriek beste lanbide publikoa zuten maisu-maistrek euren kargutik kentzera behartuta zeuden. Data horretatik aurrera, maisu-maistrek ezin zuten aldi berean administrazioaren menpe zeuden bi lanbide izan, eta horietako bat aukeratu behar zuten. Francisco Verona Cadreitako maisuak (1845) esaterako, maisu lana ordez herriko idazkari lana lehenetsi zuen⁹.

Moyano Legeak, irakasleen lanbideari erreferentzia eginez, beste edozein lanbiderekin bateragarria zela adierazten zuen, baina lanpostu publiko batekin bateraezina.

Nafarroan maisu-maistrek jasotzen zuten soldatak, neurri batean, 1857ko Legeak ezartzen zituen soldatak baino altuagoak ziren, Nombelak bere idazkietan adierazten duen moduan:

9. GUILLERMO IRIARTE, *La Escuela y los Maestros del Ayer en Cadreita*, 2014, 20. orr.

Eskola osatugabeetan edo 500 ikasle baino gutxiagoko eskoletan aritzen diren maisu-maistrek, soldata handiagoa eta bizibide gehiago jasotzen dute, zalantzarik gabe, beste probintzietan eta eskola osatuetan aritzen diren maisu-maistrekin alderatuta; Ildo beretik, Foru Aldundiak, 1857ko irailaren 9ko Instrukzio Publikoko Legea aurrera eramatean, legeak ezartzen zuena baino soldata txikiagoa jasotzen zuten gure probintziako maisu-maistren soldata igotzeko nahia adierazi zen; baina bere borondatea maisu-maistrek jasotzen zuten soldata ez murriztea zen, aipatutako legean finkatutakoa baino handiagoa baldin bazen¹⁰.

Udalerrri batzuetan maisuek eta maistrek jasotzen zuten soldataren artean %50eko aldea zegoen. 1847an, Pascual Madozen Hiztegiaren arabera, udalerririk euren maisu-maistrei ordaintzen zieten soldaten artean ezberdintasun handiak ikus daitezke:

UDALERRIA	MUTILAK	MAISUA	NEKAK	MAISTRA
Altsasu (mistoa)	60 ikasle, 3.650 errealeko diru-kopuruarekin			
Ablitas	137	4000 erreal	110	1510 erreal
Acedo	35-40 ikasle, 763 errealeko diru-kopuruarekin			
Barasoain	45 ikasle, 3.467 errealeko diru-kopuruarekin			
Kaseda	90	4000	80	120 ek.
Zirauki	100	2.400+ 100 ek.	99	400 + 100 ek
Cortes	50	2000	30	Nesken ekarpena.
Faltzes	131	7080	70	1820
Fitero	72	5000	67	2000
Goizueta	35	4000	12	320
Izaba	100 ikasle, 2.000 errealeko diru-kopuruarekin.			
Mendigorria	133	4420	122	2000
Martzilla	40	2000	30	1000
Milagro	35	1760	45	672
Lekunberri	30	1920	20	400
Otsagabia	120	3400	80	1400
Olazti	33 ikasle (33 mutil eta 3 neska), 2.490 errealeko diru-kopuruarekin			
Doneztebe	64	3000	40	414
Atarrabia (mistoa)	46 ikasle, urtero 2.800 errealeko diru-kopuruarekin.			
Zizur Nagusia (mistoa)	22 ikasle, urtero 70 gari erreguko zenbatekoarekin.			

10, J. NOMBELA, *Crónica de la Provincia de Navarra*, 1868, 103. orr.

Maisuek eta maistrek jasotzen zuten soldaten artean desberdintasun izugarriak zeuden. Orokorrean, maisuen soldata maistrek jasotzen zutenaren bikoitza zen, 1857ko Hezkuntza Publiko Legean 191. artikulua ezartzen zuen bezala. Beranduago, 1883tik aurrera, maisuen eta maistren soldata berdindu egin zen, bakoitzak 625 pezeta urtero jasoz, gainontzeko funtzionarioek jasotzen zuten soldata baino askoz txikiagoa. Argazkian Uxueko mutilen eskola ikus daiteke, Marcelino Bueno maisuarekin, XIX. mende amaieran. Juan Aldunate Ugaldek utzitako argazkia.



1883ko uztailaren 6ko Legearen aldarrikapenarekin maisuen eta maistren arteko soldata ezberdintasunak ezeztatu ziren eta denak, urtero, 625 pezeta jasotzen hasi ziren.

1872ko urtarrilaren 12ko Errege Arauak, 8. xedapenean, maisu-maistrak derrigortzen zituen tokiko batzordeei hurrengo urte ekonomikorako euren eskoletako materialaren gastuen aurrekontua aurkeztera.

Erretretari dagokionez, ez Moyano Legeak ezta beste araudirik ere ez zion gaiari heltzen. Irakasleek 1877ko uztailaren 18ko Legea onartu arte itxaron behar izan zuten, bertan ezartzen baitzen “Lehen hezkuntzako eskola publikoetan jarduten duten maisu, maistra edo laguntzaile guztiek erretreta hartzeko eskubidea”. Legeak jasotzen zituen baldintzak ondorengo hauek ziren: legea aldarrikatu zen datan, hezkuntza publikoan hamabost urteko zerbitzua eskaini izana, beti ere irakaskuntzan jarraitzeko ezintasuna frogatzen bazuten, eta hirurogei urte bete izana.

Maisu-maistrek euren udalekin zuten beste arazoetako bat etxebizitza-logelaren inguruko kalte-ordainarekin zerikusia zuen.

838ko uztailaren 21eko Legeak, 13. artikuluan, halaxe dio: “Udalek, soldata finkoaz gain, maisu-maistra orori zein bere familiari ostatu emateko egokia den etxea edo logela eman beharko diote”. Antzekoa aipatzen du 1856ko Hezkuntza Publiko Legeak, 191. artikuluan ezartzen zuen soldataz gain, “bizigarritasun



XX. mendearen hasieran Orotz-Beteluko eskola bateratua eraiki zen. Beheko solairuan mutilen ikasgela zegoen eta, lehenengo solairuan, nesken ikasgela. 1908an bi sexuetako 85 ikasle bertarutzen ziren. 1970an, eskolak hiru eskola-unitate zituen 29 neska eta 20 mutil barne hartzeko. Argazkian Orotz-Beteluko eskola ikus dezakegu, 1956an. S.I.E.



Orotz-Beteluko eskolaren barnealdea. 1956.

baldintzetan dagoen etxebizitza edo logela duina edukitzeko eskubidea, maisua eta bere familiarentzako, edota kalte-ordaina eskudirutan jasotzeko eskubidea, maisu-maistra ahal bezala molda dadin”.

Hainbat udaletan maisu-maistrek idatzitako dokumentuak aurki daitezke, tokiko batzordeei aipaturiko eskubideak eskatuz eta gogoraraziz etxebizitzak gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzak bete behar zituela.



Pascual Madozen *Hiztegi geografikoak* islatzen duen moduan, 1847an bi sexuetako 40 ume bertaratzen ziren Espartza Zaraitzuko lehen hizkien eskolara mistora. Espainiako Eskola Estatistikaren arabera, 1908an, Eskola Osatugabearen ratioa 50 ikaslekoa zen. 1970an, udalerrriak 17 ikasle zeuden eta eskola izaten jarraitzen zuen. 1970ko Hezkuntza Lege Orokorren ondorioz, eskola bertan behera geratu zen eta ikasleek Otsagabiako Eskualdeko Ikastetxean eman zuten izena. Irudian, Espartza Zaraitzuko Eskola Osatugabe zaharra ikus dezakegu.

Kasu berezia izan zen Lizarrako maisu-maistrena, 1890-91 ikasturtean, udalari urteko jasotzen zuten kopuruari 100 pezetako gehitzea eskatu ziotenean.

Maisu-maistrek argudiatu zuten ezinezkoa zitzaiela gutxieneko bizigarritasun baldintzetan zegoen etxebizitza bat alokatzea diru-kopuru horrekin.

Liskar hori garai guztietan egon zen. Aipagarria da 1928ko otsailaren 3ko Nafarroako Udal Administrazioaren Araudiak 76. artikuluko hirugarren paragrafoan ezartzen zuena eta udalei behartzen ziena “maisumaiestrei etxebizitza-logela itxurosoa ematera eta, horrelakorik egingo ez balitz, dagokion kalte-ordaina zehaztera”.

Irakasle-Lanaren 1947ko Estatutuak arau hori barne hartu eta babestu zuen (176., 177. eta 178. artikulua), maisu-maistrentzako etxebizitzarik ez zegoen kasuetan soldata-osagarria emateko.

2.2. Irakasgai ezberdinen irakaskuntza

2.2.1. Irakaskuntza metodoak eta sistemak

XIX. mendean Carderera, Avendaño, Gil de Zarate eta Montesino bezalako pedagogo ospetsuek, besteak beste, idatzitako pedagogia gidaliburuei esker, eta baita maisu-maistrek tokiko batzordeei eta Instrukzio Publikoko Batzorde Probintzialari helarazten zieten dokumentuei esker, garai horretan gehien erabili ziren metodo eta sistemei buruzko informazio nahikoa jaso izan dugu. Izan ere, gehien erabili ziren metodoak **banakakoa**, **elkarrekikoa**, **aldiberekoa** eta **mistoa** edo **konbinatua** izan ziren.

Banakako metodoa XIX. mendearen hasieran ezarri zen eta eskola tradizionalari lotuta zegoen. Kritikak jaso zituen arren, bere erabilpena ez zen inoiz eten. M^a del Mar del Pozo egindako ikerketaren arabera, “Espainiako eskola publikoen % 34,4k metodo hori ezarrita zuen 1855ean, 1880an kopurua %7,4ra murriztu zelarik”¹¹. Metodo horren ezarpena frankismo garaian bizi izan genuen. Maisu-maistrak ikasleak banan-banan deitzen zituen ikasgaia galdetzeko eta gainontzeko ikasleek euren txanda itxoiten zuten eserleketan eserita edo ilara eginez. Maisu-maistrek kasu zehatzetarako erabili ohi zuten sistema hori. Galdetegi guztietan ez dut topatu maisu-maistraren batek ere metodo hori metodologia orokor gisa aukeratu izanaren frogarik.

Elkarrekiko metodoa maisu-ikasle ratioa gehiegizkoa zenean erabiltzen zen, orokorrean 60 eta 110 ikasle bitarteko ratioan. Kasu horietan, laguntzailleek, eta haren ordezkariak ikasle nagusienek ere, maisu-maistrari laguntzen zioten irakaskuntza prozesuan zehar. Metodo horren gakoak klasea hainbat ataletan antolatzean zetzan, normalean sei ataletan, txandaka ume guztiak jasoz, ikasgaien edukiak ezarritako atal kopuruaren arabera modu mailakatuan zatitzen zirelarik. Metodo hori zentro gutxitan erabiltzen zen, Espainiako gainontzeko txokoetan bezala: % “1,2 1885ean eta % 1,7 1880an”¹².

Ikasle kopurua hain handia ez zenean, maisu-maistrek **aldibereko metodoa** erabiltzen zuten, ikasle taldea hiru taldetan bereiztuz, euren ezagutza mailaren arabera. Aldi berean, ikasle talde bakoitza bi ataletan banatzen zen irakasgai bakoitzean. Metodo horren oinarriaren arabera, maisu-maistrak talde bakoitzari ikasle bakarra balitz bezala irakasten zien bitartean, gainontzeko ikasleek bakarka lan egiten zuten. Ordena erlijiosoek erabiltzen zuten sistema zen hura;

11. M^a DEL MAR DEL POZO, *Historia Ilustrada de la Escuela en España*, 2006, 248. orr.

12. *Ibidem*, 249. orr.

elizak eta alderdi kontserbadoreek nahiago zutena. Izan ere, hezkuntza kristaua askoz ere eraginkorragoa zen eta klaseak erabateko isiltasunean eta diziplina zorrotza erabiliz ematen ziren. Metodo horren arabera, ikasle bakoitzak eskolako bere lan materiala eduki behar zuen. Sistema hori ezartzeak liburuen eta eskola materialen ugaritasuna ekarri zuen berekin. “1855ean % 28,5ak erabiltzen zuen, 1880an, aldiz, % 39,5ak”¹³.

Metodo mistoak elkarrekikoaren eta aldiberekoaren nahasketa bat zen. Laguntzaileak edo ikasle nagusienak errepikapenez, berrikustez eta bakarkako lanaren gainbegiradaz arduratzen ziren, maisu-maistra ikasgai garrantzitsuenetaz arduratzen zen bitartean: erlijioa, gramatika, kalkulua, eta abar. “Espainian, 1855ean eskolen % 39,91an erabiltzen zen, 1880an % 51,6an”¹⁴.

Nafarroan metodo mistoa praktikara eraman zuten maisu-maistra asko egon ziren. Hona hemen 1880an Hilario Ayala jaunak, Tiebaseko maisuak, Instrukzio Publikoko Batzorde Probintzialera bidalitako galdetegiaren erantzuna:

[...] erabiltzen den sistema mistoa da, 58 ikaslek izena eman baitute, eta normalean horietatik 48 bertaratzen direnez, klasea modu egokian emateko irakasle laguntzaileen presentzia beharrezkoa da modu mekanikoan lantzen diren memoria ariketaz arduratzeko, maisu-maistra gainontzeko jardueraz arduratzen den bitartean.

Maisu-maistrek modu librean aukera zezaketen beren ikasleen berezitasunei eta ikasgelaren ezaugarriei gehien egokitzen zitzaizkien metodoa. 1831ko Lehen Hezkuntzako Legeak ondoko hau zehazten zuen:

[...] irakasleak modu librean aukera zezakeen irakaskuntza sistema eta irakasgai bakoitzaren metodo eta praktika zehatzak.

Horregatik, ikasgelan erabilitako metodoarekin batera, errepikapena eta kantua bezalako beste prozedurak eta estrategiak erabiltzen ziren irakasgai ezberdinen ikasketa prozesuan. Jolas didaktikoak ere erabili izan ziren, esate baterako letren karta-sorta, zoriaren gurpila, kontsonanteen taula bokalen dado batekin, eta maisu-maistrak beraiek sortutako material espezifikokoak.

2.2.2. Testuliburuak.

Nafarroako Erreinu zaharrea lehen hizkien eskoletan zeuden liburuak oso urriak ziren. Txartelak, kartoak eta kristau-ikasbideko liburuak ez ziren maiz norbanakoaren jabetza, baizik eta eskolaren edo maisu-maistraren tresnak.

13. *Ibidem*, 250. orr

14. *Ibidem*, 254. orr

Gainera, garestiak zirelako eta inprimatze-kalitatea txarra zelako, eskoletan liburuak askotan paretetan zintzilikatzen ziren horma-irudiengatik ordezkatzeko ziren, letrak, silabak eta zenbakiak irakasteko erabiltzen zirenak.

Liberalak iristean, testuliburuak eta eskola-lanak asko ugaritu ziren. 1848ko ekainaren 30eko Errege Aginduak lanen eta testuliburuaren “Katalogo” bat ezartzen zuen Espainiako maisu-maistrek euren ikasgeletan erabil zezaten.

Liburu horien hautaketa boterean zegoen sistema politikoaren menpe zegoen. Liberalak zeudenean, liburuak maisu-maistrak aukeratzen zituen bere irizpideei jarraiki. Sistema politikoa moderatuen esku zegoenean, batzuk “zerrenden sistema” deitzen zutena agertzen zen, aginte politikoak eta elizak aurretiaz baimendutako testuen artean maisu-maistrari horiek hautatzeko aukera ematen ziona. Seiurteko demokratikoan zehar, testuliburuetarako erabateko askatasuna aitortu zen eta, azkenik, Berrezarpenean, mugatutako askatasunera itzuli zen.

Orokorrean, botere publikoek izan zuten testuliburuaren gaineko kontrola, momentu oro agintean zegoen ideologia zabaltzeko ikaragarrizko tresna baitzen.

2.2.3. Irakurketaren irakaskuntza

1780-81eko XLI. Legean, baita 1831ko Nafarroako Eskolen Plangintza eta Araudian ere, “irakurtzeko, idazteko eta zenbatzeko trebetasuna” Nafarroako eskoletan maisu-maistrek bete behar zuten curriculumean zegoen.

Irakurketa ikasgelan burutzen zen jarduerarik garrantzitsuenak zen; ikasle guztiek, modu batean edo bestean, egunero irakurtzen zuten eta ondoren idazteko gelan jarduten zuten.

Maisu-maistrek irakurketaren irakaskuntzarako erabiltzen zituzten prozedurak oso eskasak ziren, ez baitzuten formakuntza pedagogiko nahikorik. Inbentarioetan agertzen diren materialik ohikoenak ondoko hauek dira: alfabeto mugikorak, karta-sorta alfabetikoak, arbelak klarionarekin idazteko, silabarioak, kuboak margotutako aurpegiekin, kartoak eta paper-orri baten tamainako oholak, horietan irakurketa lezioak itsasteko eta paretetan zintzilikatuta egon behar zirenak. Maisu-maistrak egurrezko erakusle baten laguntzarekin letrak, silabak eta hitzak seinatzen zituen.

Nafarroan irakurmenaren irakaskuntzarako erabili izan zen sistematako bat “zirkuluerdia” deiturikoa zen. Javier Ema Fernández irakasleak ondorengo hitz hauekin desbribatzen du sistema hori:

Maisu-maistra klasea ataletan edo zirkuluerdian banatzen zuen. 7 edo 8 ikaslek osatzen zuten atal bakoitza, eta parean irakurmen kartela kokatzen zen. Maisu-maistrak, erakuslearen laguntzaz, letra, silaba edo hitza seinalatzen zuen eta argi ahoskatzen zuen, umeez errepika zezaten, gainontzeko zirkuluerdiak gainbegiratzeko bitartean¹⁵.

Batzorde Nagusiak irakurketaren irakaskuntzarako proposatzen zuen metodoa silabikoa zen, letraka irakurtzea debekatuz. Horretarako, udalei zirkular bat bidali zien, 1833ko apirilaren 30ean Silabario Berria proposatuz eta maisu-maistrei eta ikasleei Hezkuntzako Batzar Nagusiak ezarritako beste edozein metodo erabiltzea debekatuz. Torrecillasek, Silabario Berriaren egilea, lehen hizkien maisu-maistrei ondorengo irakaskuntza sistema hau proposatzen zien:

[...] silabarioaren ikasgaian ikasleek euren kabuz maisu-maistrak proposatutako formak eta hitzak landu behar dituzte. Horretarako ohol batean mota bakoitzeko letra-sorta izango dute horizontalki zintzilikatutako sokatxo batzuekin¹⁶.

Batzar Nagusiak proposatzen zuen *Silabario Berria* 56 kartel handik osatzen zuten eta eskola askorentzako irakurmenaren irakaskuntzarako erreferentzia izan ziren. Izan ere, inbentarioetan gehien agertzen den materiala da. Kartel handiak paretetan zintzilikatzen ziren. Maisu-maistrak, bi oineko luzera zuen egurrezko erakuslearen laguntzarekin, umeei letrak seinalatzen zizkien.

Aldi berean, Naharro, Vallejo, Seijas, Flórez, Calleja, Avendaño eta Calderearen metodoak ere erabiltzen ziren.

Irakurmenaren hastapenerako ondorengo hauek ziren gehien erabiltzen ziren gidaliburuak:

- Ezequiel Torrecillaren Hezkuntza Batzar Nagusiaren *Silabario Berria*, 52 kartelaz osatuta; Ezequiel Torrecillaren Hezkuntza *Batzar Nagusiaren Bigarren Liburu Berria*; Francisco de Erasun y Radaren *Cartilla para enseñar a leer á los niños con las oraciones*; José Mariano Vallejoren *El arte de leer*; Jiménez Arocaren *El silabario y cartillas*; Florezzen Silabarioa (27 kartel); Pedro Lino Munarrizen *Libro Primero* eta *Libro Segundo*; Seijasen *Catón metódico*; Callejaren *El pensamiento infantil* (4 atal); Callejaren *Colección de carteles de lectura*; Callejaren *Abecedario iconográfico*; José M^a Floresen *Lecciones litografiadas*; Arandaren *Lecciones litografiadas*; Marcelino Palaciosen *Reglas ortográficas*; Ibarlucearen *Epítome de la Real Academia* eta *Nociones de gramática para niños*.

15. F. J. EMA FERNÁNDEZ, *Fuentes histórico-educativas para el estudio de la práctica escolar: el caso de Navarra, Príncipe de Viana*, separata, Nafarroako Gobernua, 2004, 610. orr

16. E. TORRECILLA, *Plan muy instructivo a los Maestros*, 1827, 37. orr



XIX. mendearen bukaeran, Callejaren *Instruir deleitando* alfabeto ikonografikoa kontsultatutako hainbat eskola inbentariotan agertu da.

Behin ikaslea metodo batekin zein bestearekin irakurtzen ikasten hasten zenean, **irakurketa jarraia** hobetzeko hainbat testu erabiltzen ziren. Testu horiek, aldi berean, beste irakasgai batzuetako edukiak ikasteko baliogarriak ziren. Gehien erabiltzen ziren liburuak honako hauek ziren:

- Tomás Ortizen *Las lecciones de un padre a su hijo*; Samaniegoren *Fábulas*; Paluzieren *Guía de la mujer*; Paluzieren *Guía del artesano*; Escoiquizen *El amigo de los niños*; Parraviciniren *Juanito*; Callejaren *La buena Juanita*; Caldereraren *Ciencia de la mujer*; Pilar San Juanen *Flora*; Terradillos doktoarearen *Páginas de la infancia*; Callejaren *La perla del hogar*; Monlauren *Nociones de higiene doméstica*; *El ideal de una niña*, de Santiago Rodríguez; Yevesen *El mentor de las niñas*; Paluzieren *Tratado de urbanidad para los niños*; Paluzieren *Tratado de urbanidad para las niñas*; Callejaren *Tesoro de las escuelas*; Callejaren *Geografía e historia de España*; Luis M^a Lasalaren *Compendio de historia de España*; *Compendio de geografía de Navarra*, de Dionisio Ibarlucea; Capitolina Bustinceraren *Compendio histórico del Antiguo Reino de Navarra para uso de los niños de ambos sexos*; Juan Escoiquizen *Las obligaciones del hombre*; Del Valleren *Camino del cielo* eta Fernandezzen *Obras de misericordia*.

XIX. mende amaieran luma metalikoak, orratzak eta eskolarako tinta ekoizten hasi ziren. Aramburu argitaletxeak hainbat luma mota eskaintzen zizkien eskolei.



2.2.4. Idazketaren irakaskuntza


XIX. mendearen hasieran, ikasleak eskolara batez ere irakurtzen ikasteko helburuarekin bertaratzen ziren. Idazten ikastea ez zen hain garrantzitsua eta ikasle askok, irakurtzen ikasi bezain laster, ikasketak uzten zituzten.

Nafarroako biztanleriak idazketaren ikaskuntzaren gainean zuen interesa Nafarroako Eskolen Araudiaren argitalpenean agertu zen eta 1838ko Araudiarekin orokortu, Nafarroak Erreinu izateari utzi zionean.

Ikasleak letrak egiten hasten ziren eta gero horiek marrazten hasten ziren. Ikasgeletan, maisu-maistrek hainbat lagin zituzten, errazenetik zailenera sailkatuta zeudenak, eta horien edukiak testu erlijiosoetan, moraletan, gizalegezkoeetan edo eguneroko bizitzako testuetan oinarrituta zeuden.

Laginak paperezkoak edo kartoizkoak ziren eta oholtxoetan itsatsita edo beirazko tapakiak zituzten koadroetan markoztatuta zeuden. Idazketarako, hainbat material erabiltzen ziren: arbel txikiak edo arbel-ziriak, paper lerroduna, hainbat formatako resmak, luma-muturrak, eskolan bertan egindako tinta, material askotako tintontziak, tenplaketak... Laginekin lan egin ostean, ikasleak testuak kopiatzen edo eskutitzak idazten hasten ziren.

Nafarroan, gehien erabili zen metodoa Iturzaetarena izan zen eta gehien landutako letra mota endekatua. Metodo horren helburua letra argia eta bateratua lortzea zen, erraz egiten zena, apaingarri gutxirekin egina. Letra mota hori lortzeko, Iturzaetak zenbait aldaketa txertatzen zituen, zotz gorrotagarriak baztertzea esaterako. Baina, hala ere, lagin askotan erabiltzen jarraitu zuten.



1848an Mañeruko eskolan egindako lagina.

Ezequiel Torrecilla nafar maisu ospetsua letra endekatuaren aldekoa zen ere bai. Irakasketa metodoak arauak eta laginak barne hartu behar zituela esaten zuen:

[...] eskuaren kokapenak edo pultsuaren sendotasunak idazten ikasteko adin egokia baldintzatzen du . Horretarako, idazketaren irakaskuntzarako sekuentzializazio bat ezartzen da. Lehenengo urratsa, gorputzeko ohitura onak erdiestean datza. Ondoren, luma finkatzen eta marrak, letrak, loturak eta apaingarriak egiten irakasten zaio ikasleari. Hori guztia dagokien lauki-sarean egin behar dute¹⁷.

Nafarroako Lehen Hizkien Eskoletako Araudiaren 64. artikulua arabe-ira, eskola guztietan, “horma-irudi handi bat” zegoen, “[...] letren oinarrizko marrak, horien loturak, ezaugarriak eta apaingarriak [...]” jasotzen zituen.

Letra mota ezberdinak idazten ziren. Letra endekatu espainolaz gain, ingelesa, gotikoa, biribila edo letra etzana ere erabiltzen ziren. Garrantzia handia ematen zitzaion ikaslea pendolista ona izateari (termino hori erabiltzen

17. J. NAVALLAS REVOLÉ, *Gran Enciclopedia Navarra*, s.v. Iruña, XI. alea, 1990, 12.orr.

1840an Peraltako eskolan egindako lagina.

Las obligaciones que tenemos como cristianos, y como individuos de la sociedad destinados a vivir entre nuestros semejantes, son distintas; pero la primera y principal es la de conocer y amar á Dios, al cual toda la naturaleza reconoce y adora del modo mas admirable. Juan. Por Mariano Etxe, en la villa de Peraltta.

XIX. mendean zehar eta XX. mendearen zati batean, kaligrafia Irakasle-Lanaren Eskola Normaleko derrigorrezko irakasketa izan zen. Argazkian Teresa Ratonek egindako errebalida azterketa ikus dezakegu, 1890an. AUPNAk utzitako dokumentua.



zen hegazti-lumarekin idazten zuten kaligrafoak izendatzeko). Hori dela eta, letra ona izatea familiek eta gizarteak oro har ongi ikusitako zeozer zen. Horregatik erabiltzen zuten maisu-maistrek “poliki eta letra onarekin” esaldia kaligrafiari buruz aritzen zirenean.

Kaligrafia-teknikek idazketa prozesua moteltzen zuten eta, hori dela eta, letra etzana idazten ikasteari lehentasuna eman zitzaion, kaligrafia ariketa apaingarri gisa utziz. Eskola batzuetan, laginak maisu-maistrak prestatzen zituen eta beste batzuetan ikasleek koaderno propioa zuten eurek egindako laginekin, Mañeruko, Los Arcoseko eta Peraltako eskoletan esaterako.

Lerrodun paperetik, paper zurira pasatzen ziren ikasle nagusienak. Idazketa luma-muturrarekin egiten zen (hainbat neurrikoak zeuden), luma-euskarri baten barruan eramaten zituztenak.

Diziplina mota hori irakasteko erabilitako materialen eta liburuen artean ondorengo hauek ditugu:

- Iturzaetaren laginak, paperean eta zirrindoladun kartoietan jarrita (16 lagin); Ibarlucearen letra etzanaren laginak; Avendañoren koadernoak; Bastinos, Arnal, Serrano, Garnier, Arnal, Paluie eta Palaciosen kaligrafia-albumak; lerrodun papera, horizontalki lerrotutako papera, grafikoa, harizkoa, tintaontziak, luma-muturrak, banakako arbelak arbel-ziriarekin, etab.

Idazketak eskola-ordutegiaren zati handi bat betetzen zuen eta Iturzaetaren metodoa erabili zuten gure probintzian. Tratatu-idazle batzuk kaligrafian jartzen zen gehiegizko hanpadura kritikatzeko zuten, diktaketa-idazketari kalte egiten ziolakoan. Mende amaieran zailtasun mailaren arabera zenbaki-tuta zeuden kaligrafia-koadernoak agertu ziren.

2.2.5. Kristau-ikasbidearen irakaskuntza

Erresumako eta Estatuko izaera konfesionala zela eta, kristau-ikasbidea eta historia sakratua eskola guztietan irakasten zen, tarteka laikotasun garai laburrak izan baziren ere.

Aldi berean, “irakurri, idatzi eta kontatzearekin” batera, erlijioa curriculumeko ikasgairik garrantzitsuena zen. Are gehiago, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak berrikusitako eta onartutako lehenengo liburuak Fleuriren “Catecismo histórico” eta Pintonen “Compendio de la religión” izan ziren. Beranduago, bestelako materialak gehitzen joan ziren, esaterako irudiak, mapak, sarrera eta irteera otoitzen koadroak, etab.

Kristau historiaren irakaskuntzarako erabilitako irudia, Saturnino Callejak argitaratutakoa, 1900.



Kristau-ikasbidearen irakaskuntzak gelako programazioaren denborarik gehiena hartzen zuen. Buruz eta bere hitzez-hitzekotasunean ikasi behar zen. Eskolan bertan eta etxean ikasten zen, ondoren maisu-maistren edo apaizaren aurrean errezitatzeko. Berezko kristau irakaskuntzaz gain, ikasleek egunero ikasgelan sartzean eta ateratzean otoitz egin behar zuten.

Maisu-maistrari, batez ere landa-eremuetakoari, eskatzen zitzaion izaera eredugarria, apostolikoa eta bokaziozkoa neurritz kanpoko zen, agintarien hitzetan maisu-maistren lana garrantzia handikoa baitzen. Gainera, maisu-maistrek ikasleekin elizara joan behar zuten agindutako egunetan.

Irakasgai horretarako gehien erabilitako liburuak ondorengo hauek ziren:

- Aita Asteteren *Catecismo de la doctrina cristiana*; *Compendio de historia sagrada*, Fleurirena; Mazoren *Catecismo explicado*; Baigorriren *Nociones de historia sagrada*; Luciano Velascoren *Historia sagrada*; Dionisio Ibarlucearen *Compendio de historia sagrada*; Callejaren *Historia sagrada*; Fanelonen *Padre Nuestro*; Pintonen *Compendio histórico de la religión*; Callejaren *Guía de la niñez*, *Recreo del cristiano* eta *Pequeño devocionario del cristiano*.



1852tik aurrera, maisu-maistrak sistema metriko hamartarra irakastera behartuta zeuden, estatuan pisuen eta neurrien sistema bateratze aldera.

2.2.6. Matematikaren irakaskuntza

XVIII. mendean zehar eta XIX. mende hasiera arte, Nafarroako zenbait udalerritan irakaskuntza hiru ataletan antolatzen zen: irakurleak, eskribauak eta zenbatzaileak. Ikasleek irakaskuntza irakurketarekin hasten zuten, batzuk idazketarekin jarraitzen zuten eta gutxi batzuk aritmetikara pasatzen ziren.

Aritmetikaren irakaskuntza berandu hasten zen eta eskolako ikasleen herena baino gutxiago joaten zen eskola horietara, bi erreal kuarto gehiago ordaindu behar zituztelako¹⁸.

Hori dela eta, eta eskolara gutxitan joaten zirenez, ikasle gehienek soilik “zenbatzen” ikasten zuten.

1938ko Someruelos Legearen ezarpenetik aurrera, zenbatzea, irakurtzea, zifrak eta zenbakiak idaztea eta sistema metriko hamartarra ikastea irakurtzearekin eta idaztearekin alderatu zen. Moyano Legea indarrean sartzean, matematikaren irakaskuntzak leku garrantzitsua bete zuen eskolako progra-

18. F. J. EMA FERNÁNDEZ, *Educación y sociedad en Pamplona durante la segunda mitad del siglo XIX (1845-1898)*, Iruña, 1999, 144.orr.

Saturnino Callejak XIX. mendearen erdialdean argitaratutako luzera, pisua, edukiera... neurriekin lotutako horma-irudiak oraindik erabili ziren xx. mende erdira arte. Irudian, Olatzeko (Uharte) eskola mistoaren barruan zegoen neurrien koadroa ikus daiteke.




man. Beste irakasgai batzuei baino denbora gehiago eskaintzen zitzaion eta gehienetan goizez ematen ziren eskola horiek, ikasleak esnatuago zeudelako.

XIX. mendean zehar material pedagogiko berriak txertatzen joan ziren, esaterako pisuak eta neurriak eta batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa taulen lau afitxa. Abakoak eta taula zenbatzaileak, aritmetika irakasteko arbelak, banakako arbelak, etab. kalkulua irakasteko eskolek zituzten bestelako materialak ziren.

Geometria goi-mailako irakaskuntzan ikasten zen. Moyano Legeko curriculumean “Geometria, Marrazketa Lineala eta Lur-neurketaren Oinarriak” irakasgaia jasotzen zen. Erabilitako materialik ohikoenak konpasak, karta-boiak, zirkuluerdiak, gorputz geometrikoen kutxa, zinta metrikoak... ziren.

Irakasgai horretarako testulibururik erabilienak, kontsultatuko inbentarioen eta aurrekontuen arabera, ondorengo hauek izan ziren:

- Fernández y García Medranoren *Compendio de aritmética*; *Nociones de aritmética*, Gorgonio, Parra eta Carazoren; Torrecillaren *Aritmética*; Gerardo del Valleren *Aritmética*; Yevesen *Aritmética*; Valeriano Goñiren *Compendio de aritmética y tratado de geometría*; Hernandoren *Sistema métrico*; Ibarlucearen *Nociones de aritmética*; Paluzieren *Elementos de geometría*; Lorenzo Alemanyren *Elementos de aritmética* eta Merino Vergararen *Sistema métrico decimal aplicado a Navarra*.



2.2.7. Nekazaritzaren irakaskuntza

Nekazaritzaren irakaskuntzak, bereziki landa-eremuetan, lehentasunezko lekua zuen XIX. mendeko eskoletan.

Kristau-ikasbidearen ereduari jarraiki ikasten zen. Edukiak nekazaritzari eta abeltzaintzari buruzko galderen inguruan antolatzen ziren, haurrek erantzunak buruz ikasten zituzten eta ondoren, errepikatzen zituzten, kristau-ikasbidearekin egiten zuten bezala. Libururik esanguratsuenak Alejandro Olivaren *Manual de agricultura* eta *Cartilla agraria* izan ziren.

Lizarraldeko eskola batzuetan, maisuek Dionisio Ibarlucea maisu ospetsuaren *El libro de agricultura* erabiltzen zuten nekazaritzaren irakasketarako. Mende bukaera aldera, maisuek Gonzalezen *Catecismo agrario*ren alde egin zuten.

2.2.8. Joste-lanen irakaskuntza

Joste-lanen irakaskuntzak garrantzia handia izan zuen nesken formakuntzan mende horretan zehar. Mariano Carderera, garaiko pedagogo ospetsuak, ondorengo hau esaten zuen:

Emakumearentzat irakurketa, idazketa edo bestelako ikasketak erabilgarriak izan daitezkeen arren, bere sexuari dagozkion lanak egitea bezain jarduera iraunkorrik

Nekazaritzaren irakaskuntzak 1967ko Irakasle-Lanaren Prestakuntza Plana iritsi arte iraun zuen eskoletan. 1849ko ekainaren 7koa Errege Agindua lehen hezkuntzako eskola guztiak behartzen zituen nekazaritza-ikasketak egitera eta horretako Alejandro Olivaren Jaunaren *Manual de agricultura* eta *Cartilla agraria* erabili beharreko liburu gisa ezartzen zituen. XX. mendeko lehenengo herenean zehar, Nafarroako maisu-maistrek Gonzalezen *Catecismo de agriculturaren* edo Ascarzaren *Cartilla agraria*ren alde egin zuten. Hirugarren irudian *El segundo catecismo de la escuela rural* liburuak ale bat ikus dezakegu, Espainiako Gerra Zibilaren ostean Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiak onartutako lehenengoetariko bat. Bere egilea, Daniel Nagore Jauna, Familia-Guraso Katolikoan Elkarteko lehendakari izan zen eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiko lehendakariorde.

Nesken eskoletan “sexuari berariaz dagozkion joste-lanek” curriculumaren % 50a bete zezaketen, mutilen kasuan nekazaritzaren irakaskuntzarako aurreikusitako kuota baino askoz gehiago. Fiteroko “Las Anas” eskola erlijiosoa 1887an ireki zen eta 1970ko Hezkuntza Legearen aldarrikapenarekin itxi. Argazkian “Santa Ana” eskolako neskek euren joste-lanekin ikus ditzakegu (1896). José Miguel Escudero-ek utzita argazkia.



eta onuragarriagorik ez dago. Joste-lan horiek beharrezkoak dira familia baten eguneroko beharrak asetzeko eta emakumeari dagozkio ia eskusiboki¹⁹.

Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, Nafarroa erresuma zenean, nesken heziketarekiko ikaragarritzko ardura agertu zuen, herri gehienetan neskentzako eskolak sortuz.

Maistrentzako Eskola Normalak sortzean, nesken eskolak mutilen eskolen parera jarri ziren eta maisuen formakuntza maistren hezkuntzarekin. Hori ez zen oztopo izan neskek eta maistrek berariazko formakuntza izateko.

Emakumeari zuzendutako hezkuntzak, helburu nagusi gisa, neskek emazte, ama eta etxekoandre izateko helburua prestatzea zuen. Paper hori aurrera eramateko, joste-lanek pisu garrantzitsua zuten: josteak, mozteak, trikotatzeak... erlijioarekin batera, emakumezkoen curriculum nagusia osatzen zuten.

Kontsultatutako eskola-inbentario eta aurrekontu guztietan, joste-lanetarako berariazko materialak agertzen dira, batez ere neska txiroei eskainitako atalean. Eskola gehienetan, neskek joste-lanetarako materiala euren etxeetatik eramaten zuten. Dena den, armazoiak, jostintza-mahaiak, bankuak, orratz-lanak gordetzeko armairu bereziak, orratz-lanak egiteko marrazkiak, hariak,

19. M. CARDERERA, *Diccionario de Educación y métodos de enseñanza*, Madril, 1884, II. Alea, 285.orr.

orratzak, titareak, zetak, oihalak, patroiak eta aldizkari espezializatuak bezalako materialak maistrek eskolako aurrekontuan sartzen zituzten materialak ziren.

Javier Emak egindako ikerketen arabera, Iruñeko neskentzako eskola publiko bakarrak (1847):

Eremua hiru gelatan banatzen zuen, puntua lantzekoa, joskintzako eta idazketakoa. Lehenengoan, atal ezberdinen irakurketa egiteaz gain, ikasleei puntua lantzeko askotariko lanak irakasten zitzaizkien, paxetatik zulo-brodatu ederrenetara. Bigarren gelan, aurreko gelako neskak joaten ziren, hau da, jada irakurtzen zekiten horiek. Gela horretako helburua joste-lan guztiak praktikan jartzea zen. Hirugarren gelan, idazketakoa, aurreko bi geletako neskak joaten ziren, eta bertan bestelako irakasgaiak ikasten zituzten, kristau-ikasbideari eta historia sakratuari lehenetasuna emanaz²⁰.

Mende bukaeran joste-lanak oraindik ere nesken heziketako osagai nagusia ziren, baina horien garrantzia gutxitzen joan zen ohiko curriculumaren alde. Hala ere, feminitatearen inguruan antolatzen ziren ideiak, ezkontza eta amatasuna bezalakoak, gelako programazioa egiterakoan oso kontuan hartzen ziren.

Neskentzako etxerako-formakuntza XIX. mendean zehar eta XX. mendearen zati batean argitaratu ziren hezkuntza-legeek berresten zuten. 1970ko Hezkuntza Legearekin, eta hezkidetzaren txertatzearekin batera, bi sexuentzako curriculumak bera ezarri zen.

2.2.9. Heziketa-moralaren eta gizalegezko-heziketaren irakaskuntza

Heziketa moralaren eta gizalegezko-heziketaren helburuak ez ziren eduki teoriakoengatik bereizten bereziki. Helburua ikasleengan giza-baloreak eta bertuteak esnaraztea zen. Errespetua, zintotasuna, eskertasuna, bekaizkeria, harrokeria, ausardia, lana, handikeria, gizadiarenganako maitasuna, laguntasuna, gizalegea, karitatea eta abertzaletasuna klaseetan gehien landu zituzten kontzeptuak izan ziren.

Eskoletan heziketa-morala irakasteko, maisu-maistrek erabiltzen zituzten liburuak ondorengo hauek ziren: Juan Escoiquizen *Las obligaciones del hombre*; Mariano Rodriguezen *Las lecciones del padre*; Torrecillaren *Libro Segundo; Abecedario de la virtud* eta Pilar Pascual de San Juanen neskentzako 12 eredu moralen bilduma, bertso-lerrotan idatzia. Maisu-maistrek moralaren eta gi-

20. F. J. EMA FERNÁNDEZ, *Educación y sociedad en Pamplona durante la segunda mitad del siglo XIX (1845-1898)*, Iruña, 1999, 145. orr.

zartearen arau horiek irakasteko hainbat baliabide erabiltzen zituzten. Ipuin baten irakurketak arau moral bat ondorioztatzeko balio zezakeen, esaterako. Ez zitzaien ikasleei kanpotik inposatutako zer edo zer bezala aurkezten, euren arimaren behar edo xede gisa aurkezten zuten.

Arau moralak lagin kaligrafiko gisa ere erabili ziren. Eskola-inbentario guztietan agertzen ziren eta, ondorioz, pentsaezina zen eskola batek horretarako materialik ez izatea. Bernizatutako oihalezko koadro baten barruan sartzen ziren, kanabera erdiekin jarrita edo kartoi batzuetara itsatsita. Paretetan zintzilikatu ohi ziren eta arau moralen kopurua ez zen finkoa. Oro har, gela bakoitzean sei edo zortzi jartzen ziren. Salbuespen gisa, Uxueko eskolan, 1866an, zituzten 18 arauak izango lirakeke, edo 1897an Iruñeko Vinculoko haur eskolakoek zituzten 23ak.

Irakasleek edozein arlotan zeharka lantzen zituzten. “Herritartasunerako Hezkuntza” moduko bat zen eta Luis Mendia maisuak idazten zuen bezala, Erregimen Zaharreko maisu-maistrek, arau horiek curriculumean txertatuz “ikasle bertutetsuak eta moraldunak egin nahi zituzten; manaerrazak eta eskuzabalak; gobernatzaileak eta gobernatuak; hitz batean, gizarteko kide duinak”²¹.

Ondorengo hauek dira eskoletan landu eta paretan zintzilikatzen ziren arau-moraletako batzuk:

*Al Maestro reverencia; y aprovecha su experiencia.
A Dios y a padres ofendes; si lo que debes no aprendes.
Siempre que puedas haz bien; y no repares a quién.
Si anhelas la paz del alma; ten tus pasiones en calma.
A los ancianos venera; y el premio de Dios espera.
Quién se acostumbra al engaño; él mismo labra su daño.*

21. L. MENDIA, *La Ley del Cristiano*, 1890, 7. orr.

2.3. Eskola-antolaketa

2.3.1. Ordutegiaren banaketa. Eskolako oporrak

Foru araudiak zein estatuko araudiak ez zuen eskola-ordutegiaren banaketa arautzen, ezta eskolako oporrak ere. Gai horren inguruan argitaratutako legeek irakasleei, udalekin eta tokiko gobernu batzordeekin batera, eskumena ematen zieten beharrezkoa zen lekuetan eskolako ordutegia eta oporrak ezartzeko. Landa-eremuetan, oro har, oporraldiak soroetan eta animalien zaintzan lan egiteko erabiltzen ziren.

Eskolako ordutegiari zegokionez, asterokoa zein egunerokoa, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak edo Instrukzio Publikoko Batzorde Probintzialak maisu-maistra bakoitzari bere ordutegia egiteko askatasuna ematen zion. Denboraren banaketa irakasle bakoitzaren antolaketa eta metodologia sistemen arabera zen. Inbentarioetan agertzen denaren arabera, ikasgela bakoitzean denboraren eta lanaren banaketa-koadro bat egoten zen.

1831ko Eskolen Plangintza eta Araudi Orokorrak zein 1857ko Instrukzio Publikoko Legeak udan klase-orduak murrizteko baimena ematen zuen. XIX. mende bukaera aldera, eskolako oporrak 1887ko uztailaren 16ko Errege Dekretuarekin eta 1888ko uztailaren 6koarekin arautu ziren eta probintzia guztietan uztailaren 18tik abuztuaren 31ra arte ezarri oporrak ziren, biak barne. Epe horretatik aurrera, beste egun guztiak eskola-egunak izango lirateke, igandeak eta jaiegunak izan ezik. Beraz, maisu-maistren lanaldia 36 ordukoa zen, 6 ordukoa eguneko astelehenetik larunbatera, hiru ordukoa goizez eta hirukoa arratsalde. Larunbat arratsaldeak formakuntza moral eta erlijiosorako gordetzen ziren. Sartzeko eta ateratzeko orduak bertako klima eta beste ezaugarri batzuk aintzat hartuta eratzen ziren.

Aurrena, Lodosako eskolaren sartzeko eta ateratzeko orduak doaz. Bigarren, Tuterako castel Ruiz eskolako ikasgela batean ematen ziren eguneroko denbora banaketa dator; eta, azkenik, Tiebasko eskola unitarioaren aste bateko denbora banaketa. Kontuan izan ordutegiok mutilen eskolakoak direla, nesken eskoletan maistrak joste-lanei eskaintzen baitzion ordutegiaren ia erdia.

Horas de entrada y salida en la escuela.

Meses	Entrada		Salida	
	Mañana	Tarde	Mañana	Tarde
En los de Marzo, Abril, Mayo y Octubre.	A las 8.	A las 2.	A las 8.	A las 5.
En los de Mayo Junio, Julio y Agosto.	A las 7½.	A las 3.	A las 8½.	A las 6.
En los de Setiembre, Diciembre, Enero y Febrero.	A las 7½.	A las 2.	A las 8½.	A las 4.

Horas de entrada y salida en la escuela.

Meses	Mañana		Meses	Tarde	
	Entrada	Salida		Entrada	Salida
En los de Marzo, Abril, Mayo y Octubre.	A las 8.	A las 2.	En los de	A las 8.	A las 5.
En los de Mayo Junio, Julio y Agosto.	A las 7½.	A las 3.	En los de	A las 8½.	A las 6.
En los de Setiembre, Diciembre, Enero y Febrero.	A las 7½.	A las 2.	En los de	A las 8½.	A las 4.

Maisu-maistrek ikasgeletako ordutegiak zintzilikatzen zituzten paretetan. Lodosako eskolako sartzeko eta ateratzeko ordutegia, 1898. Lodosako Udal Artxibategiak utzitako irudia.

Eskolan sartzeko eta ateratzeko ordutegia. Irakasgaien eguneroko denbora-banaketa.

Tuterako Castell Ruiz eskolak. Eskribauen eskola. Urtea: 1848.

- Goizez: 1.ordua: irakurketa.
2.ordua: idazketa.
3.ordua: aritmetika egun batean, gramatika bestean.
- Arratsaldez: 1.ordua: irakurketa.
2.ordua: idazketa.
3.ordua: ordu erdi kristau-ikasbidea eta beste ordu erdia gizalegea, historia eta higieina.

Ikasgaien asteko denbora-banaketa.

Tiebaseko eskola bateratua, 1879-80 ikasturtea.

Maisu titularra Hilario Alaya jauna zen.

- Kristau-ikasbidea ... 4 ordu
Irakurketa..... 6 ordu
Idazketa 7 ordu
Aritmetika 7 ordu
Historia Sakratua ... 2 ordu
Gramatika 2 ordu

2.3.2. Irakasle-lanaren antolaketa

Nafarroan, eskualdeko buru ziren udalerrietan izan ezik, eskolak bateratuak ziren, bat mutilentzat eta bestea neskentzat. Hala ere, populazio gutxiko udalerrietan bi sexuentzako eskola bakarra zegoen, “eskola osatuagabea” izena jasotzen zuena.

1831ko Nafarroako Eskolen Plangintza eta Araudiarekin, mutilen eskola publikoak bi gelatan banatzen ziren: **Irakurtzeko eskola** deiturikoa eta **Idazteko eskola**. Irakurtzeko eskola, era berean, bitan banatzen zen. Lehenengoan silabarioa ikasten zen, eta bigarrena irakurketaren eta kristau-ikasbidearen inguruan antolatzen zen. Ondoren, idazteko eskolara pasatzen ziren eta, bertan, Historia Sakratua eta Hirugarren Liburua ikasten zuten.

Nafarroa Estatuko beste probintzia bat bihurtu zenean, eskola osatuga-beetako irakasle-lanaren antolaketa hiru taldetan banatu zen, adinaren eta formakuntzaren arabera, eta talde bakoitza, aldi berean, bi ataletan.

Lehenengo taldean Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren silabarioa eta Astete Aitaren edo Fleuryren dotrina irakasten zen. Bigarren taldean *Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Bigarren Liburu Berria*, Ezequiel Torrecillarena eta, ondoren, Pedro Lino Munarrizen *Bigarren Liburua* eta Fleuryren edo Aita Asteteren doktrina. Hirugarren taldeak irakurketa jarraia Pintonen *Historia Sakratuarekin* edo *Hirugarren Liburuarekin* lantzen zuen. Talde horretako maisu-maistrek gehienetan aukeratu zituzten liburuak ondorengo hauek izan ziren: Ortizen *Lecciones de un padre a su hijo sobre la educación*; Samaniegoren *Fábulas*; *El Amigo de los niños*, Escoizquizen; *Juanito* y *La Guía del artesano*, mutilentzat. Eta neskentzako libururik ospetsuenak *Flora*, *La buena Juanita* eta *Guía de la mujer/Emakumearen Gida* izan ziren.

Atal kopurua irakasle bakoitzaren esku zegoen eta ikasleek gainditzen zituzten kartilla edo liburu zehatzen arabera zen. Erabilitako metodoak ezarri beharreko atal kopurua baldintzatzen zuen. Aldi berekoa erabiltzen zen eskoletan, oro har, ikasgela sei ataletan antolatzen zen. Aldiz, ikasle kopurua handiegia zelako elkarren arteko metodoa erabiltzen zen horietan, ikasgela zazpi, zortzi edo atal gehiagotan antolatzen zen.

Hainbat unitate zituzten eskoletan ikasgela ezberdinak zeuden, maisu-maistra titularrei zegozkienak, eta horietariko bakoitza ataletan banatzen zen. Bi maisu-maistra baino gehiago zituzten eskoletan ikasgelak ikasketamailaren eta adin-hurrenkeraren arabera banatzen zituzten. Geletako antolaketa horrek maisu-maistrei zein ikasleei on egiten zien. Ikasleentzat, euren ezagutzen arabera taldekatzen zirenean, errazagoa zen ezagutza berriak

barneratzen joatea. Maisu-maistraren lana bestalde, errazagoa eta oparoagoa zen, ikasleengan zuen eragina etengabekoa zelako eta baliabide gehiago zituelako.

Hainbat irakasle zituzten gelek askotariko izenak jasotzen zituzten. Lizarran, 1876an, mutilentzako hiru gela eta neskontzako beste hiru zeuden: hastapen gela, oinarrizko gela eta gela osagarria.

Tuteran, 1848an, mutilen eskola lau gelatan antolatzen zen: hastapenak, irakurketa-gela, eskribauen-gela eta goi-mailako gela. Horietako eskola bakoitzak euren esku-hartze eta pedagogia-irizpide propioak zituzten.

Tuterako “Castel Ruiz” Udal Eskoletako esku-hartze eta pedagogia-irizpideak ondorengo hauek izan ziren:

1. Heziketa publikoak barne hartzen dituen beste arloak momentuz 4. banaketan irakatsiko dira.
2. Irakasgai bakoitza klase orokortzat hartuko da.
3. Irakasleari dagokion banaketa bakoitzean aldi bereko sistemara egokituko diren atalak egingo ditu, horietako bakoitzaren buru hurrengo banaketatik aukeratutako irakasle bat izango da eta bere betebeharrak ahoz jakinaraziko zaizkio. Zerbitzu horretan txanda zorrotza ezarriko da. Zaintzaile bat ere izendatuko da, eta ondorengo betekizun hauek izango ditu: ariketa batetik bestera pasatzeko seinalea eman, beste irakasleek euren betekizunak betetzen dituzten aztertu eta maisua ordezkatu bat-batean alde egin beharko balu.
4. Irakasgai guztiek, irakurketa eta idazketa izan ezik, hiru atal izango dituzte: 1. buruz esatea edo azaltzea; 2. esandakoaren inguruko galderak; 3. atal praktikoa.
5. Irakaskuntza mota hori aldi bereko sistema eskatzen denean egingo da. Irakasleak antolaketa guztietan irakasterik ez duenean, arlo edo irakasgai bera azaltzean txandakatzen saiatuko da.
6. Ahal dela, mutilek hasieran gauzaren ideia edo ezagutza bereganatzea saiatuko da, hitzez azaltzea ondoren eta, azkenik, idaztea irakasketa-arloak hala eskatzen badu.
7. Mutilek irakurtzen eta ozen esaten dutenaren zentzua uler dezaten saiatuko da, bai hitz zehatzen esanahia argituz, bai esaldi osoena ere, bere heziketa mailaren arabera.



Tuteran hezkuntza publikoa XVIII. mende hasieran hasi zen. 1802an Gramatika Eskola bat eta lehen hizkien hiru eskola zeuden. 1856an Castel Ruizeko eraikinean eskola publikoak jarri ziren eta bertan jarraitu zuten 1977an "Griseras" Eskola Publikoa ireki zen arte. Argazkian, Castel Ruiz Eskoletako aurrealdea ikus dezakegu, Manuel Castel Ruiz apaizaren ondareari jarraiki eraiki zirenak, Tuterako ikasleek doan ikasteko aukera izan zezaten.

8. Mutil batek galdetutakoari erantzuten jakingo ez balu, hurrengo mutilak egingo du eta horrela bestearen lekua irabaziko du. Inork erantzunik ematerik ez balu, maisuak zeharkako baliabideak emango dizkie erantzuna asma dezaten. Eta hori eginda ere erantzunik ez balego, maisuak erantzuna emango du eta argi azalduko du mutil guztiek errepika dezaten.
9. Ahoz irakaskuntzari eta diziplinari buruzko ohartarazpenak egingo dira, Probintziako Ikuskariaren bisitan ezarritakoari jarraiki.

Tutera, 1848ko uztailaren 8a.

Sinatua: Luciano Velasco. Zuzendaria.



1845an, Francisco eta José Huartek eskola bat ireki zuten Iruñean. Hasierako urteak Xabier Aldapako 2. zenbakian zegoen lokalean pasa zituzten. Ondoren, 1855an, kale bereko 88. zenbakira pasa ziren. 1899. urte inguruan zentroa behin betiko lekura pasa zen, Kale Nagusiko 54. zenbakira.

Iruñeko “Huarde Hermanos” Eskola Nafarroako eskola pribatu laikorik garrantzitsuena zen. 1869an urrezko domina jaso zuen eta elizako, hezkuntzako eta udaleko agintarien testigantza ohoragarriak jaso zituen. Tuterako Castel Ruiz Zentroaren modura, “Barne Araudi” bat zuen, eta horretan jasota geratzen ziren zentroko antolaketa eta pedagogia irizpideak²².

Eskolak kalitatezko heziketa ezberdina eskaintzen zuen, Frantziatik ekarritako pedagogia berri batekin. Iruñeko eta Nafarroako zenbait herritako burgesiako ikasleak joaten ziren. Argazki hau “Hermanos Huarde” Eskolako jolastokian egina da. Argazkiaren erdialdean, eserita, José Huarde Callús jauna ikus dezakegu, 1895-1896 ikasturtean. Gonzalo Huarde Solchagak utzitako argazkia.



Iruñerako Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Eskolaren Zuzendaritzarako, Erregimenerako eta Ordena Onerako Araudi Berezia onartu zen 1842ko martxoaren 19an. Bere lehenengo artikuluan esaten zuen:

Hiru maisuak, euren laguntzaileen laguntzarekin, horrela banatuko dira: bi maisu eta laguntzaile bat irakurtzeko eskolan eta maisu bat eta bi laguntzaile idaztekoan.

XIX. mendean zehar, Iruñeko mutilen Eskola Publikoa San Frantziskoko komentua egon zen eraikinean zegoen eta neskena Dominiken komentuan.

Iruñeko Udalera liberalak iristean, eskola gehiago irekitzeko aukera sortu zen. 1831n hiru eskola zeuden hirian, mutilentzako bi eta neskentzako bat; 1843an 13 eskolara igo zen kopurua eta 1892an 26ra. Horietako 7 publikoak ziren, 17 laiko-pribatuak eta 2 erlijioso-pribatuak.

22. F. J. EMA FERNÁNDEZ, *Educación y sociedad en Pamplona durante la segunda mitad del siglo XIX (1845-1898)*, Iruña, 1999, 178-228. orr.



Guraso batzuek uste zuten kulturaren funtsezkoa zena beste metodo batzuen bidez ikasten zela, eta eskola ez zela benetan erabilgarria. Hori dela eta, haurren laguntza eskatzen zen soroetako eta baserrietako lana egiteko, beraz, eskolako absentismoa arazo larria bilakatu zen. Argazkian Artaitzeko (Untziti) haurrak ikus ditzakegu, nekazaritza lanetan laguntzen. 1910-1920. Joaquin Ahechuren Bildumako argazkia.

2.3.3. Bertaratze-maila eta eskola-matrikulazioa

Azpimarratu behar da 1857ko Instrukzio Publikoko Lege Orokorrek 6 urtetik 9 urtera arte soilik ezarri zuela derrigorrezko lehenengo hezkuntza. Nafarroan aldiz, Erresuma gisa, 5 urtetik 12 urtera arte derrigorrezko eskolatzea eskatzen zen. Araudi hori Nafarroako Gortek 1780-81an onartutako 42. Legearekin indarrean jarri zen.

Pilar Sernak egindako ikerketek argitzera ematen dute Nafarroa oraindik Erresuma zenean, bertaratze altua zegoela Iruñean. Era berean, baieztatu dezakegu Nafarroako beste zonalde batzuetan bertaratzea oso baxua zela.

XX. mendean zehar, ikuskarien idatzietan ikus daiteke kexu zirela ikasleak oso gutxitan joaten zirelako eskolara. Hori dela eta, gurasoak eta tokiko batzordeak eskolak ixtearekin mehatxatzen zituzten arazo horri konponbiderik ematen ez bazioten.

Ikasle gehienak maiztasun gutxirekin joaten ziren eskolara eta askok joateari uzten zioten urteko zenbait garaitan, batez ere landa-eremuetan.

Eskolako absentismo tasa altuek, oro har, arrazoi ekonomikoak zituzten atzean, batez ere nekazaritza eta abeltzaintza eremuetan ematen baitziren, garai horretan Espainia pobrezian murgilduta baitzegoen.

Bertaratzean eragin ezkorra izan zuen beste arrazoietakoa bat hezkuntzaren doakotasun eza izan zen. Txirotzat hartzen ez ziren gurasoek, tokiko batzarren arabera, maisu-maistrari diru kantitate bat eman behar zioten, 1938ko Someruelos Legeak eta 1857ko Moyano Legeak ezartzen zuten bezala. Doakotasuna ordaintzerik ez zuten familien haurrentzat soilik aurreikusten zen.

Gainera, zenbait gaixotasunek eta horiek hartzeko beldurrak ikasgelak erdi hutsik utzi zituzten. Bereziki gogorra izan zen epidemietako bat 1865eko eta 1885eko kolera-epidemia izan zen. Kaltetutako herri gehienetan eskolak itxi zituzten.

Eskolako matrikulazioari dagokionez, Madozen *Hiztegi Geografiko-Estatistiko-Historikoa* (1845-50) liburuko informazioaren eta eskolako inbentarioetan jasotako datuen arabera, eskolak askotan gainezka egon ziren, ehun ikasletik gertu zeuden ratioekin. Batzuetan ratio horiek gaintzen zituzten eta, zenbaitetan, baita bikoiztu ere. Baina Nafarroan ere baziren eskola asko, batez ere osatugabeak edo mistoak, 40 ikasleen ratioa gaintzen ez zituztenak. Esaterako, Larraintzarren, 1900an, 30 ikasle joaten ziren eskolara; Autzan, 1898an, 32 ikasle; Iratxetan, 1898an, 17 ikasle eta Sunbillan, 1898an, 40 ikasle.

Mendearen azken laurdenean, ez ziren apenas eskola publikorik sortu eta hori dela eta, zentro askotako ikasle kopurua oraindik ere oso ugaria zen. 1883ko otsailaren 23ko Errege Dekretuaren argitalpenaren ostean, maisu-maistrek ikasleen zerrendak tokiko batzarretara bidali behar izaten zituzten eta, era berean, batzar horiek Lehen Hezkuntzako Heziketa Batzordera. Zerrenda horiek ikasle kopuru handia agertzen eta desberdintasun nabarmenak herrien eta neska eta mutilen artean.

Mende bukaeran, ratioa oraindik ere oso altua zen. Ziraukiko eskolan, 1896an 126 ikasle zeuden matrikulatuta; Leitzakoan, 1900an, 90 ikasle; San Martin Unxekoan, 1895ean, 116 neska eta 136 mutil; Oibarren, 1895ean, 117 ikasle eta Corellako eskoletan, 1883an, 165 mutil eta 175 neska.

Oro har, ondorioztatu dezakegu Nafarroako herrietako ikasgelen batez besteko ratioa 30 eta 110 ikasle artekoa zela, gutxi gorabehera.

Matrikulatutakoen kopurua handia izan arren, eskolako huts egitea oso altua zen. Nombelak 1868an emandako datuen arabera, eskolara matrikulatutako mutilen %21,1 eta nesken %17,83 joaten zen. Hau da, balizko ikasleen %38,97a joaten zen²³. Eskola-absentismoa orokortua zegoen probintzia osoan, batez ere landa-eremuetan.

23. J. NOMBELA, *Crónica de la Provincia de Navarra*, 1868, p. 81.



XIX. mende bukaeran, Murchanteko Udalak bi laguntzaileen soldata ordaintzen zuen, Margarita Lorente maistra titularra (goian, erdialdean) lagun zezaten irakaskuntza-lanetan. Murchanteko Historia eta Kultura Elkartek utzitako argazkia.

Hezkuntza derrigor egiteko tokiko eta probintziako agintariek hartutako neurriek ez zuten emaitza praktikorik eman. Moyano Legeak, 8. Artikuluan, ondorengo hau agintzen zuen:

Eskolara joateko betekizuna bete ez dutenek, herrian bertan edo ondoko herrian eskola izanik, agintarien ohartarazpena jasoko dute eta bi eta hogeireal arteko isuna ordaindu beharko dute.

Zigor hori indarrean egon zen, etenik gabe, mende osoan zehar baina ez zuen emaitza onuragarririk izan, aurretik ikusi ditugun absentismo-datuen arabera.

Azpimarratu behar da, ondorengo eskola hauetan, maisuek zein maistrek laguntzaileen laguntza izateko aukera izan zutela ikasgelako eguneroko lanean laguntzeko: Iruña, Cascante, Peralta, Corella, Erriberri, Zarrakaztelu, Mendabia, Mendigorria, Murchante, Gares, Alesbes, Lizarra, Viana eta Tuteru. Udalek irakasle laguntzailea ordaintzen ez zuten eskoletan, maisu-maistrek ikasle nagusiengana jotzen zuten laguntzaile lanak egiteko. 1917an udalek laguntzaileei esleitutako diru-kopurua 500 pezeta eta 1375 pezeta artekoa zen. Iruñeko Udalak adibidez, San Frantziskoko Udal Eskoletako laguntzaileak ordaintzera zuzentzen zuen diru-partida bat.

2.3.4. Eskola-azterketak. Sarien eta zigorren sistema

XIX. mendeko lehenengo erdialdean, eskola publikoetako azterketen inguruko araudia agertu zen eta, aldaketa batzuegatik izan ezik, indarrean jarraitu zuen beste mende erdiz, 1913an azterketak ezeztatu ziren arte.

Azterketa publikoak Nafarroa erresuma zenean ezarri ziren. Nafarroako Lehenengo Hizkien Eskolen 1831ko Arautegi Orokorrak, 8. izenburuan, azterketa partikularrei eta publikoei egiten zien erreferentzia eta 9. izenburuak sariei eta zigorrei; ikaslerik bikainenek diru kantitate xume bat edo ikasteko liburuak jasotzen zituzten eta irakaslearen “laguntzaile” estatusa lortzen zuten. Jarrera, zentzu edo neurri onarengatik nabarmentzen zirenek “zaindari” estatusa lortzen zuten eta maisu-maistrarekin batera siltasunarekin eta ordenarekin zerikusia zuten zereginetan jarduten zuten.

Ondoren, azterketak arautu zituzten, bai 1838ko Araudian baita Instrukzio Publikoko 1857ko Legean ere.

Eskola tradizionalen azterketa mota bikoitza egiten zen: pribatua, klaseko koadernoetan egindako lanaren arabera maisu-maistrek euren ikasleen lanaren garapena aztertzen zutena eta publikoa, tokiko agintariak egiten zutena eskolaren “nondik norakoak” eta maisu-maistraren “etekina” ezagutze aldera.

Azterketan udaletxeetan egiten ziren, ekainean edo uztailean, tokiko batzordeen eta gurasoen aurrean. Ebaluazioa ondorengo hauek aztertuz hasten zen: kristau-ikasbidea, testu baten irakurketa, kaligrafia, kalkulua, lanak eta bestelako ikasgaiak. Azterketak egin aurretik, Batzordean azterketaren programa jasotzen zuten maisu-maistren eskutik, eta baita ikasleei egin behar zizkieten galderak ere.

Azterketa publikoekin bi helburu lortu nahi ziren. Batetik, oinarrizkotzat jotzen ziren ezagutzak erdiesteko ikasleak suspertzea eta motibatzea. Eta, bestetik, maisu-maistraren lana epaitzea irakaskuntzarekin zerikusia zuten alorretan: ikasgelako ordena eta garbitasuna, lortutako ikasleen bertaratzea, diziplina, ikasleek eskuratutako ezagutzak, etab.

Maisu-maistrek eta tokiko batzordeek sarien eta zigorren sistema bat ezartzen zuten, alde batetik eskola-probestea, ohiko bertaratzea eta jarrera ona sustatzeko, eta bestetik, ahalegin falta, eskolara ez bertaratzea eta jarrera txarra zuzentzeko.

Eskolek eta udalek ikasleei eskaintzen zizkieten sariak, orokorrean, eskolarako eta asialdirako materialak ziren. Gehien erabiltzen zen sarietariko bat puntuak ematearena zen, hainbat gauzarengatik trukatzeko ahal zirenak:



San Martin Unxeko Eskolako azterketen programa, 1847.
 San Martin Unxeko udala



Bukaerako azterketetarako erabiltzen zen orlaren eredu. Saturnino Calleja argitaletxea, Madril, 1910.

Argazki honetan Santacarako maisua eta bere ikasleak ageri dira. Maisuak Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoetako Irakasle-Lanari emandako domina darama bularrean. 1908. Santacarako Udalak utzitako argazkia.



Ikasleek bestelako sari erabilgarrienengatik trukatzeko zituzten puntuak eta txartelak.



txartelak, irudiak, inskripziodun dominak, merituari saria, ahaleginari saria, higienari saria, herritartasunari saria, orlatutako planoak, otoitz-liburuak eta arrosarioak, liburu hezigarriak, kuxtatilak, laboreak eta zenbait objektu, esaterako, buru-hausgarriak, koadernoak, marrazkiak, etab. Zenbait udalerrietan, Iruñean edo Tuteran esaterako, Aurrezki Kutxak sari batzuk eskudirutan ematen zizkien ikaslerik onenei.

Sarien ematea seriotasun handiarekin egiten zen. Orokorrean, sariak udaletxeetan ematen ziren eta ondoren, tokiko batzordeek iragarki-taularen bidez ematen zuten horren berri.

Zenbait tokitan, maisu-maistrek zilarrezko domina bat eskuratzen zuten horrelako egoera berezietan eta ekitaldi ofizialetan, azterketa publikoetan es-

aterako, nabarmenkeriaz erakusteko. Domina hori lepoan zintzilikatzen zen, zetazko lokarri hori-gorriarekin. Txanpon formarako egokitutako ezkutu nazionala grabatuta zuen aurrealdean, eta inguruan: “Alfonso XIII. Sustapen Ministerioa”. Dominaren atzealdean, “Venite ad me” hitzak grabatuta zituen eta inguruan “Instrukzio Publikoko Zuzendaritza Orokorra. Lehen Hezkuntzako Irakaslea”.

Maisu-maistrek domina eskolako aurrekontutik dirua aterata lor zezaketen, 1894ko martxoaren 14ko Errege Dekretuak esaten zuen bezala. Kontsul-tatutako hainbat inbentariotan, maisu-maistrek domina hori erosi izana adierazten zuten.

Ikaslerik txalogarrientzako beste sari bat ikasgelan lehenengo lekuetan esertzeko ohorea ematearena zen, **Koadernoan** eta **Ohorezko Liburuan** bere izena idatziz, izan ere bertan ikaslerik langileenen eta saiatuenen izenak idazten baitziren.

Jarraian ikusiko dugun Ohorezko Liburua 1847koa da eta Cascanteko Eskola Publikoaren jabetza da. Sariak bi taldetan banatzen ziren: ahaleginarenak eta jarrerarenak.

Curriculumeko ikasgaietako ahaleginari zegokionez, irakasleek eta Cascanteko Hezkuntzako Tokiko Batzordeak ematen zituzten sariak bost kategoriatan sailkatzen ziren. Lehenengo saria jasotzen zuten ikasle horiek Ohorezko Liburuan “Urrezko Dominaren” kategorian agertzen ziren eta bigarren saria jasotzen zutenek “Domina Txikia” jasotzen zuten. Hirugarrenek “Liburutxoak”, laugarrenek “Tintontziak” eta bosgarrenek “Idazlumaren heldulekuak”. Kategoria horiek jasotzen zituzten sari materialei egiten zieten erreferentzia.

Jarreraren inguruko sariei dagokionez, hutsik gabeko jarrera zuten ikasleek sariak eta diplomak jasotzen zituzten eta Ohorezko liburuan hiru kategoria bereizten ziren: “Merezimenduzkoak” notarik altuena lortu zuen ikaslearentzat, “Meritu onekoak”, bigarren nota erdietsi zutenentzat eta “Merituzkoak” hirugarrenak.

Zigorrek bigarren maila bat osatzen zuten. Ezarritako jarrera eta ahalegin arauekin bat ez zetozen ikasleei, Tokiko Batzordearen aurrean, maisu-maistregandik aurretik jaso zituzten puntuak edo txartelak kentzen zizkieten eta “Desohorearen” koadroan haien izenak idazten zituen. Bestelako zigorren artean ondorengo hauek zeuden: ikasgelan giltzapetzea, jatekorik gabe uztea, azken eserleketan jartzea, besoak gurutze moduan jarrita egotera behartzea edo publikoki errieta egitea. Oso gutxitan jasotzen ziren gorputz-zigorrek ekitaldi horietan.



Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoetako Irakasle-Lanari emandako dominen aurreko eta atzeko aldeak.



Cascanteko Eskola Publikoetako Ohorezko Liburua, 1841. Cascanteko Eskola Publikoak utzitako irudiak.



Tokiko Batzordeek ikasleak saritzeko azterketa publikoetan banatzen zituzten liburuak.

Junta local de Instrucción pública

DE

Pamplona.

Esta Junta en la sesión celebrada el día 12 del actual ha acordado, teniendo en cuenta lo que preceptúa el Reglamento vigente para la primera enseñanza, que los exámenes de las Escuelas públicas tengan lugar en los días y horas que à continuación se expresan:

El día **16** del corriente en la Escuela Superior de niños à cargo de D. Félix Serrano, en la Escuela Superior de niñas à cargo de Doña Juana Lopez de Goicoechea y en la elemental de niñas à cargo de Doña Laureana Lyaralar.

El día **17** en las secciones elementales de niños y de niñas à cargo de D. Juan Isidro Garcia y de D.^a Angela Lopez de Goicoechea respectivamente, y en la elemental de niñas de la calle de la Merced, à cargo de D.^a Paula Lugea.

El día **18** en la elemental de niños del Vinculo à cargo de D. Raimundo Alonso, y en las de igual clase de niñas de la calle de la Estafeta à cargo de D.^a Felisa León y de niños de la calle Calderería à cargo de D. Nemesio Calvo.

El día **19** en las Escuelas elementales de niñas de la calle Mayor, à cargo de D.^a Presentación Lahora, de niños de la calle de Javier à cargo de D. Salvador Diaz y de niñas de la calle San Francisco à cargo de D.^a Mauricia Unciti.

El día **20** en las dos Escuelas de párvulos à cargo la una de D.^a Joaquina Ezcurra, y la otra de la calle de Javier à cargo de D. Agustín Roy.

Los ejercicios daràn principio todos los días señalados à las nueve de la mañana.

La Junta excita nuevamente à los padres e interesados de los niños escolares à que acudan à estos ejercicios públicos cuyo fin es estimular la aplicación del niño y dár à conocer su aprovechamiento.

Pamplona 13 de Junio de 1902.

El Presidente de la Junta local,
JOAQUÍN VIÑAS Y LARRONDO.

Hezkuntzako Tokiko Batzarretan azterketa publikoen datak argitaratzen zituzten udaletxeetako iragarki-tauletan edo bandoen bidez. Iruñeko Instrukzio Publikoko Tokiko Batzarrak ikasleei ematen zizkieten inprimakien bidez egiten zuten. A.M.P-ak utzitako argazkia.

Jarraian, gure eskualdeko udal artxibategietan kontsulta ditzakegun azterketa publikoetako bat deskribatzen da:

Erronkariko hiribilduko Eskoletako mutilen eta nesken azterketa orokorrak. 1872. urtea²

Ekitaldia goizeko zazpi eta erdietan hasi zen mutilen eskolan eta hamabietan bukatu zen. Tokiko agintariak eta maisuak mutilen garbitasuna eta txukuntasuna ikuskatu ostean, ikasleei klaseko Irakaskuntza-Programa osatzen zuten hainbat ikasgairen inguruan galdetu zitzairen: Historia Sakratua eta bere doktrina; Irakurketa: prosa, bertso-lerroak eta eskuizkribua; idazketa; aritmetika; gramatika eta ortografia; nekazaritza eta geografia fisikoa.

Ekitaldia José Puyol ikasleak maisuaren izenean emandako hitzaldiarekin bukatu zen eta Batzordeak eta maisuak ezarritako hamalau sariak banatu ziren.

Arratsaldean neskek egin zuten azterketa. Edukia antzekoa zen. Berritasun gisa, azpimarratu beharra dago Batzordeak ikasleek aurkeztu zituzten joste-lanen “oparotasunarekiko eta aniztasunarekiko” agertu zuten interesa.

Sariak banatu ostean, maistrak agur hitzaldi txiki bat eman zuen. Erronkariko Hezkuntzako Tokiko Batzarrak aktan herriko mutil eta nesken maila onaren berri eman zuen eta maisu eta maistrei euren profesionaltasuna eskertu zien.

Zenbait tokiko batzarrek maistrei sariak banatzen laguntzeko herriko pertsona ospetsuak izendatzen zituzten, “Zentsore” izenekoak, 1887an Lizarran egin zen bezala.

Blasa Morales andrea, Victoria de Miguel andrea eta Marcelina Lacunza andrea maistren ikasle diren eta Eskola Publikoetako Zentsoreek euren joste-lanengatik saritu dituzten nesken zerrenda.

Zentsoreek saritzen zituzten joste-lanak ondorengo hauek ziren ziren: kakorraz-lanak, joskintza, tapizeria, galtzeta eta joste-lanekin lotutako bestelakoak.

Aipaturiko batzordeek ikasleek lortutako ikasketa-mailaren inguruan egiten zituzten balorazioak ez zetozen bat, batzuetan, ikuskariak eskolak bisitatzeko egiten zituztenekin. Oro har, Bisita-Liburuan idatzitako batzordeetako balorazioak ikuskariak adierazitakoak baino onberagoak ziren.

Iruñean eta Lizarran, esaterako, sarien banaketa Iruñeko Antzoki Nagusian edo Lizarrako Lizeoan egiten ziren, hurrenez hurren, eta zenbaitetan eskualdeko Gobernadore Zibila joaten zen.

Atal honekin bukatzeko, San Martin Unxeko Hezkuntzako Tokiko Batzarren Agiria ikus dezakegu, 1896ko abuztuaren 2koa. Atal bakoitzari zegokion lehenengo sariak baino ez dira atxikitzen.

<i>Relación de los niños que deben ser premiados en el día de la fecha, por los conocimientos que manifestaron en los exámenes que tuvieron lugar en los días 13 y 14 de Julio último, en la escuela que dirige D. Francisco Echávarri.</i>				
<i>Nº</i>	<i>Nombres</i>	<i>Premio</i>	<i>Concepto</i>	<i>Sección</i>
1	<i>Marcelino Valencia Muruz</i>	<i>Diploma de Mérito</i>	<i>Sobresaliente</i>	9ª
8	<i>José Martínez Berrade</i>	<i>Diploma renacentista</i>	<i>Sobresaliente</i>	8ª
11	<i>Dionisio Gridilla Leoz</i>	<i>Diploma religioso</i>	<i>Sobresaliente</i>	7ª
15	<i>Eleuterio Lerga Muruzabal</i>	<i>Medalla de plata</i>	<i>Notable</i>	6ª
19	<i>Miguel Sada Moreno</i>	<i>Manual de la Piedad Cristiana</i>	<i>Sobresaliente</i>	5ª
23	<i>José Muruzabal Villanueva</i>	<i>Pequeño Devocionario</i>	<i>Buena conducta</i>	4º
28	<i>Pablo Gorria Lerga</i>	<i>Recreo del Cristiano</i>	<i>Asistencia regular</i>	3º
30	<i>Vicente Martínez Berrade</i>	<i>Recreo del Cristiano</i>	<i>Aprovechamiento en Catecismo y Lectura</i>	2º
33	<i>Longines Blanco Berrueto</i>	<i>Pequeño Devocionario</i>	<i>Aprovechamiento en Catecismo y Lectura</i>	1º

Egunero erabiltzeko materiala lortzea, hala nola papera, tinta, idaz-lumak, arkatzak, gomak eta klarionak, maisu-maistrei zegokien. Material hori herriko hainbat hornitzailei erosten zieten. Materialak zehatzagoak zirenean, Nafarroako beste argitaletxe edo liburudendetara jotzen zuten. Garai horretako Iruñeko liburudendarik ospetsuenak ondorengo hauek izan ziren: Lorda, Bescansa, Sixto Díaz Espada, Aramburu, Tiburcio Iriarte, Erice y García, José Labastida y Erasun, Aramendía eta Onsaló; Tafallan: Valero, Albéniz eta Mari-món; Tuteran: Subiran inprenta, Tudelana liburudenda, Viuda de Castilla e Hijos eta José Saldaña; Lizarran: Eloy Ugalde. Estatu mailan, Madrileko Saturnino Calleja liburudenda etaartzelona Esteben Paluzie izan ziren.

2.3.5. Irakasleen formakuntza. Biltzar pedagogikoak

XIX. mende bukaeran, Irakasle-lan aktiboa Eskola Normalekin lotzeko eta, aldi berean, alor horren inguruan zeuden berritasunak zabaltzeko, Eskola Normalek biltzar didaktikoak antolatzen zituzten, garaiko kezka pedagogikoen isla izan zirenak.

Bi formakuntza bide zeuden. Lehena eskola-aldizkarien eta bestelako testu pedagogiko eta legegileen ugaritzearekin lotuta egon zen. Baliabide horiek metodologia pedagogiko berriak zabaltzeko bide garrantzitsuak izan ziren, batez ere gure probintziako herrietan eta herrixketan sakabanatuta zeuden irakasleentzat. Askotariko gaiak jorratzen zituzten testuak agertzen ziren: hezkuntza, hainbat irakasgai irakasteko esperientzia berritzaileak, lege-xedapenak, eskoletako gorabeheren eta arduradunen inguruko informazioa, hainbat aldarrikapen (soldatak maiz ez kobratzearena, adibidez), eskola-materialaren egoera txarra, eskoletako egoera txar eta osasungaitza, agintarien gehiegikeriak, “eskubide pasiboak”, bidegabeko espediente arbitrarioak, etab.

Nafarroako irakasleek formakuntzarako eta eguneratzerako erabili zituzten liburu, aldizkari eta buletin artean aipagarrienak: *Plan y Reglamento General para las Escuelas de Primeras Letras del Reino de Navarra*; *La escuela de instrucción primaria*, Ruedarena (1850); Ascarzaren *Anuario del maestro*, (1901); *Boletín Oficial de la Junta de Primera Enseñanza de Navarra* (1871); Florencio Onsaloren *Reglamento “Paseos escolares”* eta *Manual del Maestro*, (1897); Solanaren *Registros*; *Boletín de Legislación Escolar* (1904); eskola aldizkariak, esaterako *Anales de Primera Enseñanza*, *Faro de la Infancia* (1889), *Escuela en Acción*, *Educación*, *Escuela y Hogar* (1893), *Magisterio Navarro* (1879), *Faro Escolar* (1894), *Amante de la Infancia*, etc.

Nafarroako maisu-maistrek formakuntzarako zeukaten beste bidea Biltzar Pedagogikoen bidez egin zen, bai Espainian baita Nafarroan ere. Eskolaoparren arautzea zela eta ezarri zituzten. Biltzar horietan pedagogiarekin eta eskola-inguruarekin lotutako gaiak eztabaidatzen eta aztertzen ziren. Helburua lehen hezkuntzako maisu-maistren kultura orokorra eta lanbide heziketa osatzea zen.

1887ko uztailaren 16ko Legeak irakasleentzako oporrak eta biltzar pedagogikoak ezartzen zituen. Hitzaldiak irakasle-lana eguneratzeko lehenengo eredu sistematikoa izan ziren. Normalean udako oporren hasieran edo bukaeran egiten ziren biltzarrok eta horien antolaketa Eskola Normalen ardurapean zegoen, Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzaren laguntzarekin, azken honek programa prestatzen baitzuen. Txostengileak maisu-maistrak izaten ziren, Normaleko irakasleak edo ikuskariak, eta azalpen baten ostean eztabaida bat egiten zuten.

Nafarroan, Reyes Berruezo irakasleak egindako ikerketen arabera, biltzarrek 1887an egin ziren lehenengoz eta 1901ean azkenengoz.

Prentsak azpimarratu zituen biltzarren artean, Lizarran, Tuteran eta Iruñean egindakoak izan ziren.

“Lizarrako Biltzar Pedagogikoak” 1896ko abuztuko azken astean egin ziren. Santiago Arnal ikuskariaren eta Los Arcoseko irakasle zen Guillermo Zubieta-ren laguntzarekin antolatu ziren, Lizarrako barrutiko “Asociación Monte Pio Profesional”-ak bultzatuta²⁴.

“Tuterako Biltzar Pedagogikoak” Santiago Arnal ikuskariak zuzendu zituen. Barrutiko maisu-maistra guztiek parte hartu zuten. Biltzar horietatik nabarmentzekoa Sustapen Ministerioari maisu-maistren talde batek bidalitako idatzia izan zen. Idatzian, ostegun arratsaldeetako Eskola Paseoak derrigorrezkoak izatea eskatzen zuten²⁵.

Beste biltzarrek Iruñean egin ziren. Maisu-Maistren Eskola Normalak antolatu zituen. Horietatik aipagarrienak 1888ko uztailean egin zirenak izan ziren, Nafarroako Gobernadore Zibilaren bertaratzearekin. Gobernadoreak Nafarroako biltzarrek goraiatu zituen eta irailaren 1ean zirkular bat argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialean irakasleen birziklapenean eta eguneratzean ikastaro horiek zuten garrantzia azpimarratzeko. Aldi berean, Artaxoako Udala goraiatu zuen maisu-maistrei biltzar horietara joateko dirua emateagatik. Beste udalerriak gauza bera egitera bultzatu zituen²⁶.

Biltzar horietan guztietan hainbat ondorio atera ziren eta eskola berritzeko behararen inguruko lanak egin ziren. Antolaketarako eta metodologiarako bide berriei ekin zitzaion. Edukiak curriculumeko edukiekin lotutako gai didaktikoekin harremana zuten, oinarritzko eta goi-mailako irakaskuntza-planetan jasotakoak. Jorratutako beste gai batzuk higieñarekin, hezkuntza-politika-rekin eta emakumearen heziketarekin lotuta zeuden. Ostegun arratsaldeetako Eskola Paseoak ezarri ziren, Santiago Arnal Nafarroako ikuskariak bultzatuta. Hala ere, formakuntza-eredu hori ez zen eraginkorra izan.

Nafarroan, biltzarrek ez ziren urtero egin, bai antolaketa Batzordearen kudeaketa arazoengatik bai eta aurrekonturik ez zegoelako ere. 1902. urtetik aurrera horiek antolatzeari utzi zitzaion. Biltzar horietatik eskolarekin arduratutako eta eskolarekin konpromisoa hartu zuten maisu-maistrak, irakasleak eta ikuskariak atera ziren. Horien artean, ondorengo hauek aipatu behar dira:

24. *Eco de Navarra*, 1-9-1896.

25. *El Liberal Navarro*, 27-5-1896.

26. *El Tradicionalista*, 19-8-1888.

Nafarroako irakasle-lanaren aldizkari pedagogikoa, irakasleen eta hezkuntzaren eskubideak defendatu nahi zituen. Pedro Díaz Muñoz Eskola Normaleko irakasleak sortu zuen eta aldizkariaren zuzendaria ere izan zen. Iruñean argitaratzen zen, hilabetean hirutan.

Año I. Pamplona 7 de agosto de 1894. Núm. 7.

EL FARO ESCOLAR.

Revista dedicada á defender los intereses y derechos de la enseñanza y de los Maestros.

Director: D. PEDRO DÍAZ MUÑOZ, Profesor Normal.

<p>PRECIOS DE SUSCRIPCIÓN.</p> <p>Un año. 5 pesetas. Semestre. 3 " =</p> <p>Número suelto, 0,25 céntimos.</p> <p>PAGO ANTICIPADO.</p>	<p>SE PÚBLICA LOS DIAS 7, 17, Y 27 DE CADA MES.</p> <p>La correspondencia al Director, Calle de la Estafeta, núm. 20, piso 3.º</p>	<p>PUNTO DE SUSCRIPCIÓN.</p> <p>Imprenta y librería de Don Nemesio Aramburu, Belae- rías, 14, Pamplona.</p> <p>Se admiten anuncios y consignados</p>
---	--	--

LA ESCUELA NEUTRAL.

Como consecuencia de la enseñanza obligatoria, deducen algunos tratadistas de pedagogía la *neutralidad* de la escuela, sosteniendo que en la escuela obligatoria no debe hablarse de Religión sino en el sentido más lato y sin particularizar culto determinado.

No parece tan difícil enunciar esta proposición como llevarla á la práctica con feliz resultado; por eso creemos que ningún maestro de buena voluntad y mediana inteligencia sea capaz de patrocinar tamaño absurdo, y más bien nos inclinamos á que esa hipótesis sea una simple parodia de la sostenida en la duda cartesiana. Mas como la palabra *obligatoria* ofrece alguna ambigüedad, no estará de más que hagamos alguna distinción que sirva de base para rechazar ó admitir esa tan peregrina teoría, que á la verdad, expuesta de un modo tan

escueto, la consideramos en terreno muy resbaladizo.

En efecto; hemos de empezar por negar el falso supuesto de que la enseñanza sea obligatoria, al menos en el sentido en que lo entienden los revolucionarios. Concedámonos de buen grado al Estado legalidad para obligar á que los niños reciban la primera enseñanza: reconozcamos también el deber ineludible que los padres tienen de proporcionar enseñanza á sus hijos; pero no admitiremos que el Estado tenga ni pueda tener derecho á obligar la asistencia á sus escuelas, aunque éstas fuesen eminentemente católicas. La Iglesia (á quien presentan tan tirana,) nunca se ha creído con este derecho á violentar la patria potestad; y claro está que no siendo obligatoria la asistencia á las escuelas públicas, ya no sale la consecuencia de que tales escuelas deban ser neutras. Pero como uno de los medios más idóneos para

Pedro Lino Munarriz, Arguedaseko maisua; Santiago Arnal, ikuskaria; Dionisio Ibarlucea, Lizarrako maisua eta ondoren Normaleko irakaslea; Ramón Bajo, Dolores Lacart, Azagrako maistra, Fermina Garcia, Alesbeseko maistra, Casimiero Izquierdo, Deikazteluko maisua, Félix Serrano, Normaleko Praktiketako Eskoletako zuzendaria, Hilario Ayala, Tebaseko maisua eta Germán Larraz, Makirriaineko maisua.

2.4. Hezkuntzaren ikuskapena

XIX. mendean zehar hezkuntzaren ikuskapenean garapena egon zen, baina ezarri zitzaion helburuan aldaezin jarraitu zuen: Nafarroako Lehen Hizkien Eskoletako hezkuntzaren kontrola, alegia.

Funtzio hori aurrera eramanean zuten erakundeak eta pertsonak ondorengo hauek izan ziren, hurrenez hurren: Umezurtzen Aitak, Superintendentea, Hezkuntzako Batzorde Nagusia, menpeko batzordeak, Instrukzio Publikoko Lurralde Komisioa, Instrukzio Publikoko Lurralde Batzordea, tokiko batzordeak eta, azkenik, Hezkuntza Ikuskaritza. Azken hori hezkuntzaren aholkularitza, kontrol eta ebaluazio prozesuan funtsezko erakundea izan zen 1849. urtetik aurrera.

Instrukzio publikoaren ikuskapena eta kontrola modu instituzionalean egin zen 1770-81ko Gortek 41. Legea arautu ostean. Legeak Superintendenteari eskoletako eta irakasleen zuzendaritza eta zaintza lanak bere esku utzi zizkion, hain zuzen.

Udalek kargu horretarako ezarritako funtzioak maisu-maistrak kontrolatzea, ikasleak eskolara joaten zirela kontrolatzea eta seme-alabak eskolara bidaltzen ez zituzten gurasoei isuna jartzea ziren. Superintendenteak ikasleei eskolara ez joateko baimena emateko eskumena zuen, beti ere gurasoek edo tutoreek bidezko arrazoi bat ematen bazuten.

Euren jarduera aurrera eramanean ahal izateko, eskolak bisitatzeko eta “errol-da” eskutan, ikasgelan zeuden umeak “berriro zenbatzeko” eskumena zuen superintendenteak. Bertaratze-falten berri ematen ez zuen maisu-maistrari isuna bikoitza jartzen zion.

Nafarroan 1828-29 urteetan egin ziren azken Gorteen 22. Legea argitaratu ostean, instrukzio publikoaren ikuskapena Hezkuntza Batzorde Nagusiaren eskuetara pasa zen, hori baitzen Nafarroako hezkuntzaren organo eta arduradun nagusia, eta batzorde horren menpe zeuden tokiko batzarren laguntza jaso zuen.

Someruelos (1938) eta Moyano (1938) Legeak onartzean, Nafarroan, Espainiako probintzietan bezala, Oinarrizko Instrukzioaren Batzordea (1838-42), ondoren Instrukzio Publikoko Lurralde Batzorde izatera pasa zena, probintziako irakaskuntza publikoaren kontrolaren arduradun bilakatu zen tokiko batzarrekin eta Ikuskaritzarekin batera.

Baina, zalantzarik gabe, Ikuskaritza Profesionala izan zen organorik garrantzitsuen irakaskuntzaren ikuskapen prozesuan. 1849ko martxoaren 30eko Errege Dekretuak instituzionalizatu zuen. Zerbitzu hori sortzean,

Nafarroako Lehen Hizkien Eskola Normalek, 1831ko Erregimen Zaharrak sortutakoak, Lehen Hezkuntzako Eskola Normalari bidea eman zioten. Argazkian Nafarroako Irakasle-Lanaren Eskola ikus dezakegu, 1860an eraikitakoa. 1885ean San Frantziskoko eraikin zahar batera eraman zuten eskola. Informazioa eta argazkia M^a Esther Guibertek idatzitako *Historia de la Escuela Normal de Navarra (1831- 1931)* liburukoa da.



Sustapen Ministerioak eta, ondoren, Instrukzio Publikoak, adituen eskutik eta hezkuntzaren alorrean eskarmentua zuten pertsonen eskutik, kudeaketan zer gertatzen zen ezagutu nahi zuen.

1849ko maiatzaren 20ko Araudian, funtzioak zehaztu ziren eta baita ikuskariak eskoletara bisitak egiten dituztenean erabili behar zuten uniformeare. 1850ko ekainaren 28ko Arauan zehazten da janzkera:

[...] galtza urdinak zilarrezko galoiarekin alboan, kolore bereko kasaka brodatuarekin lepoan, zerrendan eta eskumuturretan; txaleko eta gorbata zuriak.

Probintziako ikuskari bakarra zegoen, eta horrek irakasleen lanaren noizbehinkako ikuskaritza egiteko aukera baino ez zion ematen. Nafarroako Hezkuntza Batzorde Probintzialeko lehenengo Ikuskaria (“Ynspector”) Jorge García Medrano izan zen, 3000 pezeta jasotzen zituena urtero, 1849ko maiatzaren 26ko Errege Arauan agertzen denaren arabera. Kargua 1862an utzi zuen, Ciudad Realeko Eskola Normalaren zuzendari izendatu zutenean.

Kargu hori Pedro Vicuñaek hartu zuen 1868a arte. Ondoren, beste hainbat ikuskari izendatu zituzten: Marcelino Palacios, Valeriano Goñi eta Gorgonio Parra. Azken hori 1875etik 1892ra arte egon zen karguan eta berak egin zuen Mapa Geográfico Estadístico Escolar de Navarra mapa, probintziako eskolen lehenengo mapa, 1888koa, eskolen egoera geografikoa eta bere azterketa estatistikoa jasotzen zuena.



Iruñeko Eskolapioak 1894an sortu ziren. Hasieran Sarasate Pasealekuko eraikin batean egon ziren. 1932an, aldiz, Erriberri kalean dagoen egungo zentrora joan ziren, interes Historiko-Artistiko gisa izendatutakoa. 1936ko gerran zehar ikasgelak erreketean kuartel gisa eta preso politikoentzako kartzela gisa erabili ziren. 1899. Sanciñena ahizpek utzitako argazkia, 1899.


XIX. mende amaieran eta xx. mende hasieran, ideia pedagogiko eta eba-luatzaile berriak zituzten ikuskariak iritsi ziren: Santiago Arnal Ramos, José Gómer Grávalos, Magín Recio eta Luis Jorge de Pando. Horiek guztiak maisu izan ziren aurretik eta eskola liburuak eta materialak egitegatik eta argitaratzeagatik nabarmendu ziren.

Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzak lan garrantzitsua egin zuen eskola-kultura berria eratzeko. Eskoletara egiten zituzten bisitak probestuz, ikuskariek maisu-maistrei jakinarazten zieten legearen eta pedagogia aginduen eskakizunetara egokitu behar zituztela euren irakasle-lana. Orientabide horiek askotan maisu-maistra batzuen kultura tradizionalaren irizpideekin talka egiten zuten.

Irakaskuntza Publikoaren kontrola eta fiskalizazioa XIX. mendean zehar botere publikoen lehentasunezko helburua izan zen, bai karlisten aldetik baita liberalen aldetik ere. Ikuskaritzak erabilitako sistema maisu-maistrek eta, batzuetan, tokiko batzordeek, bete behar zituzten galdetegietan oinarritzen zen. Galdetegi horiek mendean zehar biderkatu ziren. Helburua, zalantzarik gabe, agintariak hezkuntza hobetzeko eta kontrolatzeko zuten grina zen.



1828an Nafarroako Erresumako Errege Batzorde Nagusiak Los Arcoseko eskaera onartu zuen bertan zentro erlijioso bat ezartzeko. Hortik aurrera, eta XX. mende erdialdera arte, Karitateen Alabak mutilen eta nesken hezkuntzaz arduratu ziren Lehenengo Jaunartzera arte, eta nesken hezkuntzaren arduraz lehen hezkuntza amaitzen zuten arte. Lehenengo etapa horren ostean, mutilak eta neskak banatzen ziren eta ondorioz, mutilak hiru maisurekin eta neskak hiru maistrekin geratzen ziren. Udal eskolak Kaputxinoen komentuan egon ziren Mendizabalen desamortizaziotik XX. mende erdialdera arte. 1961ko uztailaren 25ean sei ikasgela eta maisuentzako hiru etxebizitza zituen eskola-esparrua ireki zen Lazaro kalean (egun eraikin horiek hainbat bulego hartzen dituzte: Mankomunitatea, Aterpea, Atalaya Elkartea, etab). Maisuak Filomeno Garayoa, Félix Zabala eta Ricardo Conde jaunak izan ziren. Nesken irakaskuntzaren maila guztiak Karitateen Alaben esku zeuden, eskola berrian hiru gela zituztenak. 1976-77 ikasturtean Los Arcoseko “Santa Maria” Eskualdeko Eskola bilakatu zen, eta Lana ibarreko, Kodes Ibarreko, Berrotzako... desagertutako eskoletako ikasleak bere gain hartu zituen²⁷.



Astete Aitaren *Kristau-lkasbidea* (1802-1958) eta *Bigarren Liburu Berria* (1833-1919), Nafarroako Hezkuntza Batzorde Nagusiarenak, Nafarroako eskoletan gehien irauin zuten liburuak izan ziren.

27. *Panorama* bildumatik ateratako argazkia, 33.zk. “Los Arcos” Bildumatik ateratako argazkia, 71.orr.

3. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK

- **1781.** Nafarroako Erresumako Gorteen XLI. Legea: “Erresuma honetako mutilen eta nesken eskolak banatzeko erabakiak eta maisuek eta maistrek izan behar dituzten ezaugarriak”.
- **1805.** Espainian lehenengoz “Zuhaitzaren Festa” ospatu zen Villanueva de la Sierran (Cáceres).
- **1812.** Cadizeko Konstituzioa, “La Pepa” ezizenez ezaguna.
- **1814.** Erregimen Zaharrera itzulera Fernando VII.aren eskutik.
- **1817.** Iruñeko Udaletxean Nafarroako lehenengo azterketa publikoak egin ziren.
- **1828-29.** XXI. Legea, Nafarroako Erresumako Lehen Hizkien Irakaskuntza Publikoari buruzkoa.
- **1829.** Abuztuaren 18an Hezkuntzako Batzorde Nagusia eratu zen, Benito Antillón diputatua buru zuela.
- **1831.** “Nafarroako Erresumako Lehen Hizkien Eskolentzako Plangintza eta Araudi Orokorra”.
- **1832.** Maisuentzako Lehenengo Hizkien Eskola Normalak sortu ziren Lizarran, Faltzesen eta Iruñean.
- **1833.** Maistrentzako Lehen Hizkien Eskola Normala Iruñean, Eskeko Monjek zuzendutakoa. Erresumako Errege Kontzejuak eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiak *Silabario* eta *Nuevo Libro Segundo de los Niños* liburuak onartu zituzten.
- **1836.** Abuztuaren 22an Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren azken Saioa egin zen.

- **1838.** Lehen Hezkuntzako Irakaskuntzaren Legea, Soremuelos Markesaren Lege gisa ezagutzen zena. Madrilen lehenengo Eskola Normal Zentrala sortu zen, “Juan Bautista Virio” izenpean. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak bere eskumenak Hezkuntzako Probintzia Batzordeari eman zizkion (1838-42).
- **1839.** Urriaren 25eko Legea, Nafarroako eta Baskongadetako foruak berresten zituena.
- **1840.** Nafarroako Maisuentzako Eskola Normala. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako lehenengo Institutua Tuteran sortu zen.
- **1841.** Lege Itundua, Nafarroako foruak Monarkiako batasun konstituzionalarekin bateratzen dituen. Maria Kristinak Esparteroren erregeordetzaren alde abdikatu zuen.
- **1843.** Isabel II.a Espainiako erregina izendatu zuten. Iruñeko Udalak Nafarroako Haurrentzako lehenengo Eskola sortu zuen “Pitillas” izenarekin.
- **1845.** Iruñeko Bigarren Hezkuntzako Probintzia Institutuaren irekiera (Gurutze Enparantzan).
- **1847.** Nafarroako Maistren Eskola Normala.
- **1848.** Bigarren Karlistada
- **1849.** Hezkuntza Ikuskaritza sortu zen. Ekainaren 7ko Errege Arauak eskolatan nekazaritza irakasteko betekizuna ezartzen du.
- **1851.** Urte horretako Konkordatuak Elizaren eragina eta boterea handitu zuen, ez soilik irakasleen lanean, baizik eta liburuen eta hezkuntza zentroen ikuskaritzan ere.
- **1857.** Isabel II.aren agintaldian Sustapen ministroa izan zen Claudio Moyano Samaniegoren Instrukzio Publikoko Legea. “Moyano Legea” izenez ezaguna, irakaskuntza arautzen zuen legea izan zen. Mende bat baina gehiago egon zen indarrean (1857-1970).
- **1868.** Isabel II.a Erreginarekin erorketa. Lehen Hezkuntzako Instrukzio Lege berria. Irakaspenerako askatasuna aldarrikatu zuen dekretua.
- **1870.** Amadeo I.a Espainiako Errege izendatu zuten.
- **1872.** Karlisten matxinada eta Karlos VII.aren sartzea Nafarroan. Moyano Legea ezeztatu zen eta maisu-maistren proposamen-izendapena berrezarri zen.
- **1873.** Espainiako Lehenengo Errepublika, Moyano Legeak Nafarroan maisuen eta maistren izendapenen inguruan ezarritakoa deuseztatzen duena.
- **1874.** Alfonso XII.a Espainiako Errege izendatu zuten. Moyano Legea berrezarri zen. Uztailaren 29ko Legea, foru-erregimena ezeztatzen duena.

- **1875.** Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren berrezarpena, Lizarran egoitza duena. Alfonso XII.ak, Isabel II.aren semea, monarkia berrezarri zuen. Krausismoaren jaiotza, ILEaren eta Bigarren Errepublikako hezkuntzaren iturria.
- **1876.** Irakaskuntzaren Erakunde Librea (ILE) mugimendu pedagogikoa sortu zuen Francisco Gines de los Riosek.
- **1877.** E.D., apirilaren 22koa, maisu-maistren maila arautzen zuena. Uztailaren 18ko Legea, maisu-maistrei erretirorako eskubidea onartzen ziena.
- **1882.** E.D., apirilaren 4koa, maisu-maistren erretiroaren araudia eguneratzen zuena. Museo Pedagogiko Nazionala sortu zen.
- **1883.** Uztailaren 7ko Agindua, udalei maisuen eta maistren arteko soldata parekatzea agintzen ziena.
- **1885.** Alfonso XII.a hil zen. Maria Cristinaren erregeordetza.
- **1887.** Uztailaren 16ko Legea, maisu-maistren erretiro, alarguntza eta zuztasun pentsioak arautzen zituen.
- **1892.** Errege Agindua, eskolako udalekuak bidezkotzen zituen, karitatezko obra eta obra aberkoi gisa aitortutakoak.
- **1893.** Nafarroan Gamazada sortu zen.
- **1894.** E.A., martxoaren 14koa, zenbait ospakizun eta ekitaldi ofizialetan irakasleek erakus zezaten zilarrezko domina ematen duena.
- **1898.** Administrazio Foru Kontseilua sortu zen.
- **1899.** E.A., maiatzaren 5koa, Nafarroako Maisu-Maistren Oinarrizko Eskola Normala Goi-Mailakora igotzen duena.

BIGARREN ATALA:
**XX. MENDEKO
LEHEN HERENEN
HEZKUNTZA-POLITIKA**



4. HEZKUNTZA FUNTZIO PUBLIKO GISA (1900-1931)

XX. mende hasieran, Espainian garai zailak bizitzen ari ziren; egoera ekonomiko, politiko eta soziala gogorra zen eta atzerapen kultural nabarmena zegoen aberatsagoak ziren herrialdeekin alderatuta.

1898an kolonien azken hondarrak galtzeak, analfabetismo maila altuarekin batera, protesta erregenerazionistak ekarri zituen, Espainiako sisteman aldaketa sakonak aldarrikatzen zituztenak herrialdea pairatzen ari zen krisia konpontzeko irtenbide bakar gisa. Boterea lortzeko liberalen eta kontserbadoreen artean liskarrak egon arren, alde ezberdineko politikariek, irakasleek, literatoek eta kritiko erreformistek, denek batera, azpimarratzen zuten gizar-tearen eta eskolaren egoera larria zela Espainiako gaitzik nagusia eta berehalako neurriak eskatzen zituzten. Angel Matok idazten duen bezala, Joaquin Costaren “Eskola eta Jaki-tokia” lema garai horretako Espainiako atzerapena bikain laburbiltzen du “... bere oraina eragotzi eta etorkizuna hipotekatzen zuen, Europako beste herrialdeetatik urrunduz”²⁸.

Egungo historialariak bat datoz xx. mendearen lehen herena modernizazio pedagogikoaren alditzat hartzeko, Espainiako kulturaren “zilarrezko aroa” deiturikoa. Bat datoz ere egungo proposamen pedagogikoen jatorria XIX. mendeko azken urteetan eta xx. mendeko lehen herenean izan zela baieztatzean.

28. A. MATO, *La Escuela de Ayer en Gijón (1900-1970)*, 2001, 11.orr.

1900. urtean Espainiako populazioaren %63 analfabetoa zen, baina 1930erako ia 20 puntu jaitsi zen kopuru hori. Nafarroan analfabetismoa %40aren mugan zegoen 1903an eta soilik ikasteko adinean zeuden umeen %70 joaten zen eskolara Florencio Onsalo Instrukzio Publikoko Atal Probintzialeko Nagusiak 1902an egin zuen txostenaren arabera. Hori ikusita, 1914an Aldundiak helduentzako eskolak ezartzera derrigortu zituen eskolak zituzten udalerriei eta eskola horietako maisu eta maistrei gaueko klaseak ematera behartu zituzten. Udalek konpromisoa hartu zuten maisu-maistren soldataren laurdena baino txikiagoa ez zen diru-kopurua ordaintzera.

Garai horretan Espainiako Hezkuntza Sistematan egon ziren aldaketak askotarikoak izan ziren eta helmen handikoak. Lehen Hezkuntzara mugatuz gero, hori baita jorratzen ari garen eremua, azpimarratu nahi ditut 1900eko Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako Ministerioaren sorrera eta Romanones Kondeak bultzatutako curriculumaren asmo handiko berritzea, lehen hezkuntzako eskolaren funtzionamendua sakonki aldatze aldera. 1910ean Instrukzio Publikoko ministro izendatu zuten eta bere idatzietako batean ondorengo hau kontatzen zuen:

“Espainian dauden 2.500 eskoletatik 10.000 alokatutako lokaletan daude, horietariko asko bestelako erabilera publikoetarako bideratutako eraikinen ondoan: ospitaleak, kartzelak, hiltegiak, ukuiluak, dantza-aretoak edo kafetegiak”.

Azpimarratu beharreko beste mugarri bat legeak derrigorrezko oinarrizko hezkuntzarako adina luzatu izana izan zen: 1909an 12 urtera arte eta 1923an 14 urtera arte.

Bestalde, garai horretan ere zenbait oinarri pedagogiko zabaltzen joan ziren, Irakaskuntzako Erakunde Libre (ILE)²⁹ eta bere inguruak egindako etengabeko lanari esker. Gainera *Eskola Berria* izeneko mugimendua agertu zen, irakaskuntza aktiboa, soziala eta inguruarekin lotutakoa defendatzen zuena.

Mende hasierako pedagogiaren aire berritzaile horiek praktika berritzaileak txertatu zituzten, esaterako; irakurketaren eta idazketaren irakaskuntzarako metodo berriak, eskola-ibilaldiak, zuhaitzaren eguna, interes guneak edo eskulanak. Horiek guztiak berrikuntza pedagogikorako hainbat proiektu eta programekin batera garatu ziren. Eskolaren eraldatze-gaitasunean konfiantza

29. ILE Giner de los Riosen eta katedratiko talde batek 1876an sortu zuten mugimendu pedagogikoa izan zen. Izaera berritzailegatik eta hezkuntza-kalitatearengatik nabarmendu zen jarraian. Krausismoan oinarrituta, pedagogia aktiboaren alde egiten zuen eta, paradajikoki, bere Rousseauian erlijiotasunarengatik, pedagogiaren, laizismoaren eta konfesionaltasunaren arteko topaketarengatik. Ikasleen Egoitza, Nesken Egoitza, Ikasketen Zabalkuntzarako Biltzarra, Eskola-Estudia, Museo Pedagogiko Nazionala eta Natur Zientzien Institutu Nazionala izan ziren Irakaskuntzako Erakunde Libreari esker sortutako erakundeak.

zuten pertsona asko erakarri zituzten berrikuntza horiek eta azpimarragarriak dira Decrolyko³⁰ interes-zentroa, Montessori metodoa³¹, Cousineten³² talde lanaren metodoa eta Freineten³³ teknikak. Baina, izandako aldaketen artean, bada garrantzia berezia duen bat Espainiako hezkuntza sisteman izan zuen garrantzia eta eraginarengatik. Eskola graduatuaren instituzionalizazio eta hedapena izan zen, hain zuzen ere. Prozesu hori mende horretako lehen herenean eman zen, bere eragin praktikoak errepublika garaia iritsi arte nabaritu ez baziren ere.

Aldi horretako korrante pedagogikoei dagokienez, bitara murriztzazakegu. Alde batetik, Irakaskuntzako Erakunde Librearen korrante liberala, laikoa eta oinarri krausista zuena (Giner de los Rios, Cossío, Luzuriaga...). Bestetik, korrante kontserbadorea, konfesionala (Rufino Blanco, Ruiz Amado, Poveda...), XIX. mendearen azken hamarkadan eta XX. mendeko lehen herenean gorakada nabarmena izan zuena batez ere ordena erlijiosoetako zentro pribatuak suspertu zirelako. Hori guztia, noski, jarrera klerikala eta antiklerikala zutenen arteko liskarren artean. Bi jarrera antagoniko ziren, botere publikoen eta eliza katolikoaren artekoa alegia, irakaskuntzaren kontrola defendatzen zutenak, hezkuntzarako eskubidearen inguruko ideia kontrajarriekin. Errepublika iristean ez zen arazoa konpondu, Estatuaren laiktasuna aldarrikatu baitzen.

Zoritxarrez, hezkuntzaren alorrean bi belaunaldi horietan egindako ahalgin ikaragarria Gerra Zibilarekin apurtu zen, zalantzarik gabe gure historiaren hondamendirik handiena.

30. Decroly (1871-1932), Belgikako pedagogoa, medikua eta irakaslea. Bere metodologia erreferentea izan zen irakasle berrien formakuntzan. Metodo memoristikoen eta diziplina gogorraren kontrakoa, talde lanaren aldeko apustua egin zuen.

31. Maria Montessori (1870-1952), italiar pedagogoa, psikologoa, filosofoa eta medikua izan zen. Umearen garapen faseak errespetatuz umearen garapen naturalean oinarritutako metodo pedagogikoa sortu zuen. Bere filosofia berak esandako hitz hauekin laburbil dezakegu: "Nire kabuz egiten lagunduidazu eta egiten ikasiko dut". Beraz, ikasleak, metodo horrekin, bere gaitasunak lan librearen eta espezializatutako material didaktikoaren bidez bereganatzen ditu.

32. Roger Cousinet (1881-1973), eberre irakaskuntza metodoari esker, talde lanaren ordezkaria izan zen. Eskolari bestela lan egiteko modua eskaini zion. Metodo horrekin umeek gelatik kanpo egiten zuten bat-bateko jarduera eskolara eraman nahi izan zuen.

33. Célestin Freinet (1896-1966), Montaigne, Rousseau eta Pestalozzik babestuta eta Itsas-Alpeetan maisu gisa zuen eskarmentuari esker, ondorengo esaldi hau idatzi zuen: "Hezkuntza ez da eskola mota bat, bizitzaren obra bat baizik". Hori dela eta, pedagogia naturala eta aktiboa, ikasgelako liburutegia, imprenta, eskolako egunkaria edo eskutitz trukaketak II. Errepublikako didaktikarik iraultzaileenean bilakatu zen, Erregimen Zaharreko eskolatik jasotako metodo zahar eta norabide bakarrekoen kontrakoa.



XX. mende hasieran Zarrakazteluko Udal Eskoletan bi unitate zeuden. Mutilen unitateko burua José Gay zen eta neskena M^{re} Ángeles Herrera. Zarrakazteluko Udal Eskola Graduatuak 1913ko martxoaren 13an zabaldu ziren. Eskola berriek garaiko higiene-arauei eta pedagogia berriei erantzuten zieten. Hori dela eta, eskola graduatu bat zuen lehenengoetariko udalerrria izan zen Zarrakaztelu. 1965ean eskola talde berri bat egin zen, sei unitaterekin eta maisu-maistrentzako 6 etxebizitzarekin. Eskolak eta Ospitaleak, Udalak 1928an eraiki zituenak eta Jesusen Bihotzeko Ahizpa Frantziskotar Hirugarrendarren ardurapean zeudenak, 7 urtera arteko bi sexuetako ikasleak jasotzen zituen. Eta hurrengo argazkian José gay jaunaren ikasle talde bat, 1013. Antonio Villafrancaren bildumako irudia.



5. NAFARROAKO INSTRUKZIO PUBLIKOA

Estatuan bezala, xx. mendeko lehenengo hamarkadetan Nafarroan ere eskola ulertzeko moduetan aldaketa sakonak egon ziren. Tokiko eta probintziako erakundeak, hezkuntza aldaketa horiek gure probintzian zegoen egoera sozialera egokitzeko, askotariko neurriak txertatzen joan ziren: pedagogikoak, sozialak eta legegileak.

5.1. Neurri pedagogikoak

Hezkuntzan eragin handiena izan zuten berritasun pedagogikoen artean, Felix Serrano Zabalak 1903an hasitako irakaskuntzaren graduaziorako lehenengo saiakerak izan ziren. Serrano Zabala Normaleko Praktiketako Eskolako zuzendaria zen eta garai horretan San Frantziskoko Udal Eskolak ireki zituen 1905ean.

Graduazio prozesua motela izan zen. Nafarroan ez zegoen eraikin berririk eta, gainera, irakasle-lanak bere irakaskuntza praktikak aldatu behar izan zituen. Zuzendariaren irudia agertu zen, eskolak laborategiekin, gimnasioekin eta liburutegiekin hornitu zituzten eta, batez ere, irakasleari bere lankideekin izan behar zuen koordinazioa sustatu zen, maila bakoitzari zegokion curriculum zehaztu aldera.

Víctor Juan, Huescako “Museo Pedagogikoko” zuzendariaren hitzak:

Irakaskuntzaren graduazioarekin, esan daiteke, eskolak maisu-maistren erabakien esku zeuden artisau-tailerrak izateari utzi ziotela eta adin bereko ikasle taldeekin “seriean” lan egiten zuten fabriketan bihurtu zirela.

Iruñeko “San Frantziskoko” Udal Eskolak 1905eko maiatzaren 9an ireki ziren. Orubean frantziskotarren komentu ohia zegoen, aurretik eraitsi zena. Makrozentro bat zen, 17 gela graduatu, 290 leiho, 2500 beira eta 100 ate zituen, Julián Arteaga arkitektoaren proiektuaren arabera eraikitakoa. Eraikin nagusia harrizkoa zen eta bestea adreilu gorrikoa. Eraikin horrek hezkuntza metodo eta metodo higienista berrien betekizunei erantzuten zien eta hiru solairutan banatutako 3000 metro koadro zituen. Ikasgelek oinarritzko hornidura zuten eta, bertako eskola inbentarioaren arabera, nahikoa tresna eta objektu modernoak zituzten.

Eskola publikoa izateaz gain, San Frantziskok estatus berezia zuen: Irakasle-Lanaren Eskola Normaletara Erantsitako Eskolak ziren, maisu eta maistra berrien prestakuntza praktikoaren arduradun zirenak. Sortu zirenetik, Udal Eskolak ikasketarako, formakuntzarako eta bizitzarako prestakuntzarako espazio izan ziren. Hori guztia zela eta, jarduera akademikoaz gain, bestelako hezkuntza zerbitzu eta zerbitzu sozialak barne hartu zituzten, esaterako: eskola-kantinak, eskola-jantzitegia, udalekuak, Aste Pedagogikoko egoitza Errepublikan zehar, dantzarien egoitza, Eliz mutilen eta Kantarien Eskola, Arte eta Lanbide Eskola, Eskola Zerbitzu Medikoa, etab.

Iruñeak garai horretan 28000 biztanle inguru zituen eta analfabetismoa %40ra iritsi arren, Estatukoarekin alderatuta 20 puntu baxuagoa zen. Eskola-adineko ikasleak 3600 ziren, hiriak zituen 39 eskoletan banatzen zirenak (19 publikoak ziren eta 20 pribatuak). Iruñeko San Frantziskoko Eskola Publikoak utzitako argazkia.



Bestalde, mugimendu higienisten eta ideia pedagogiko berrien eraginak irakasteko eta ikasteko bide berriak txertatu zituen. Aipagarrienen artean atari zabaleko eskolak izan ziren.

Nafarroan, eskola mota horretako zentrorik esanguratsuenak Arrotxapeako “Ave Maria” Udal Eskolak izan ziren (Iruña). Bere metodologiak eskola gelatik ateratzean eta atari librean irakastean zuen oinarria. Eskala handiko Espainiako mapa lurrean, errege hispanikoen genealogia San Salvatoreko sakristiako paretan, arbel beltzak eskolako fatxadan eta gelatik kanpo ematen ziren zenbaketa, irakurketa eta zientzia klaseak oraindik ere gogoratzen dituzte eskola horretako ikasle ohiek. Heziketa musikala ere sustatu zuten eta 28 musikari zituen banda sortu zuten.

Zuhaitzaren eta Txoriaren Eguna, Liburuaren Eguna eta eduki curricularrak zituzten **Eskolako Ibilaldiak** izan ziren azpimarratu beharreko berrikuntza pedagogikoetariko batzuk, maisuen eta maistren lana agerian jartzen lagundu zutenak.



Iruñeko “Ave Maria” Udal Eskola ohiak 1915eko martxoaren 21ean eraikitzen hasi ziren eta 1916ko apirilaren 2an bukatu. Sortzailea San Lorenzoko parrokoa izan zen, Marcelo Celayeta jauna, metodologia aktiboa sustatu zuena: eskolak atari librean jasotzea, jolasa ikasketa metodo gisa txertatzea, eta antzeppen historikoak, geografikoak eta linguistikoak egitea. Ezarritako ideia pedagogikoak Aita Manjonen ideiekin bat zetozen. XX. mende hasierako berrikuntza pedagogiko nagusienetarikoa izan ziren. 1956an Patronatuaren Eskoletan bilakatu ziren, Elizaren menpe zeudenak baina Udalaren babesa zutenak. A.M.P.k utzitako argazkia.

Goiko argazkian “Ave Maria” eskoletako ikasleak ikus ditzakegu, atari librean letrak eta zenbakiak ikasten, Hauxe argazki berezia da bertan ikusten den eszenan XX. mendearren lehenengo hamarkadetan egon zen haurtzaroaren eta ikasketaren garapena argi ikus daitekeelako. Gelditasunaren eta estatismoaren sinonimo ziren banku luzeen eta bi pertsonentzako ikasmahaien aurrean, argazkian irakaskuntza-ikasketa prozesu berria ikus dezakegu, umeen interes eta motibazioetara egokitutakoa. A.M.P.

Zuhaitzaren Festa Foru Aldundiak 1899an ezarri zuen izaera rousseauniarreko jarduera zen, jatorri birsortzaile argia zuena. Santiago Arnal Nafarroako ikuskari eta maisuaren “Cartilla Forestal” argitalpenaren bidez sustatu zen jarduera. Argitalpen horretan “Zuhaitzaren Egunaren” ingurukoak jasotzen ziren, bai eta haztegien sorkuntza eta probintziako mendien basotzea ere.

“Zuhaitzaren eta Txoriaren Festaren” ospakizuna Iruñean, 1928an. Argazkian Magdalenako Udal Eskoletako neska-mutilak zuhaitzak landatzen eta txorientzako kabiak jartzen ikus ditzakegu Magdalenako lursailetan. A. M. P-k utzitako argazkia.



Magdalenako Udal Eskolak 1928ko urtarrilaren 8an inauguratu ziren.

Inaugurazio-ekitaldian Genaro Larrache Iruñeko alkatea udal agintariekin zein agintari erlijioso eta militarrekin batera egon zen.

Eskolako lehenengo maistra ere egon zen, Ijurra andereñoa, 60 ikaslerekin batera. Eraikinak hiru pabilioi zituen. Lehenengo, ezkerretik hasita, haurren eraikina zen; erdiko pabilioian mutilak zeuden eta azkenekoan neskak.

60ko hamarkada erdialdean itxi ziren eskolak eta ikasleak auzoko beste eskoletan banatu ziren.

Egun, eraikina Txantreako Eguneko Zentroa eta Ospitalea da. A. M. P-k utzitako argazkia.





Araudiak agintzen zuen eskoletako atean honako testua zuen kartel bat jartzeko: *Haurrak, ez kendu txiei berenb askatasuna; ez torturatu eta etz haien kabiak txikitu. Jainkoak sari ematen die txoriak babesten dituzten hurrei, eta legeak debekatzen du kabiak txikitu eta umeak kentzea, 1896ko irailaren 19ko legea. Aizpurgiko eskola unitarioaren kartela (Nabaskozeko Udalaren kontzejua).*

Nafarroan, Zuhaitzaren Festak bere gailurra jo zuen Primo de Riveraren diktadurarekin. Ospakizun hori, zenbaitetan, gizabidezko balioak zein balio aberkoiak sustatzeko erabili zuten zenbait udalek. Etxarri Aranatzen (1928) edo Sartagudan (1928) Zuhaitzaren Festa somatenekoekin eta euren banderarekin batera ospatzen zuten³⁴.

Iruñean Zuhaitzaren eta Txoriaren Festa urtero ospatzen zen handitasun osoarekin. Ikasleak euren maisu-maistreakin aurretiaz Udalak aukeratutako lorategi edo lursailera joaten ziren. Horietan, zuhaitzak landatu eta kabiak jartzen zituzten txoriek euren kumeak haz zituzten. Udalak, Gobernadore Zibilarekin eta probintziako agintariek batera, ikasleei sariak banatzen zizkion. Gainera, askaria ere ematen zitzaien. Ekitaldian Pamplonesa Udal Bandak eta Ave Mariako bandak jotzen zuten.

34. Somatena talde paramilitarra zen, su-armak eramateko eta erabiltzeko baimena zuten bizilagun talde batez osatua.

Irudian Milagroko lehenengo eskolak ikus ditzakegu. Horietan Joaquín Corti maisua eta Adela Gracia maistra aritu ziren irakasten.

Biek Zuhaitzaren Egunaren antolaketa parte hartu zuten. Udalerriko eskolako ratioa, 1908an, 238 ikaslekoa zen, bi udal gelatan eta Gurutzaren Alaben eskolan banatuta. Egun, eraikin horretan Correoseko Bulegoak eta Udal Liburutegia daude.


1933ko maiatzaren 7an Eskola Nazional berriak ireki ziren, Victor Eúsa arkitektoak diseinatutakoak. Bi atal zituen: neskentzako bat, goiko aldean, eta mutilentzako beste bat, behealdean. Egun, eraikin horretan Auzo Etxea eta Haur Hezkuntzako eskola daude. Udalak utzitako argazkia.



Nafarroako maisu-maistrek erabilitako testuliburuak "Eskola-Ibilaldiak" eta "Zuhaitzaren Eguna" prestatzeko.



Eskola-Ibilaldiak Nafarroan Arnalek hezkuntzaren alorrari egin zion beste ekarpen bat izan zen. 1897ko otsailaren 22ko zirkular baten bidez (otsailaren 24koa NAO-n) ezarri ziren. Nafarroako eskoletako ohiko jarduera zen, ostegun arratsaldetan egiten zena. Irakasleek oso gustukoak zituzten. Horrela, adibidez, 1927ko irailaren 26an, Erriberriko maisu ziren Honorio Gilek eta Octavio Goyak Udalari 100 pezetako diru-laguntza eskatu zioten Eskola-Ibilaldiko gastuak



Iberoko (Oltza Zendea) ikasle ohien testigantzen arabera, maistrak, bere eskola-programazioan, “Eskola Ibilaldiak” inguruko hainbat lekutara egitea aurreikusita zuen, ostegun arratsaldetan normalean. Argazkian Iberoko ikasleak ikus ditzakegu, maistrarekin batera, Izkueko Sarbil mendilerrora (Oltza Zendea) egindako txangoan, 1920. A.R.G.NA-k utzitako argazkia.

betetze aldera. Maisu horiek emandako arrazoiaren artean, jarduera hori zela “... batez besteko bertaratzea %8 igo da eta jarrera nabarmenki hobetu da”.

Azken mailetako ikasleek ibilaldietan ikusitako guztia deskribatzeko eta irakaslearen oharrak idazteko koaderno bat zuten. Bestalde, maisuek “Ibilaldien eta Txangoen Erregistroan” horiek egin ziren egunak, ikasleen izenak, lekuak eta nahi adina ohar idazten zituzten.

Aipagarria den beste hezkuntza berritasun bat “Umeentzako Aurrezki-Libretak” ezartzea izan zen, Arnalek Aldundiari eta Estatuko “Mutualitate eta Eskola-Esparruei” proposatutakoa. Ekimen horien guztien bidez Nafarroako ikasleen aurreikuspena eta aurrezte sustatu nahi zen.

Mutualitatearen artean Nicolás Jiménez maisuak zuzentzen zuen Alesbesko “La Herbartiana” Eskola Mutualitatea nabarmenena da. Eskola-esparruei dagokienez Francisco Navaridasen erlezaintza da azpimarragarria, Ekai-Zuhatzuko eskolakoa.


Alesbesko Eskola Nazionalako ikasgela, 1928-30. Pelayo Sanchez, Nicolas Jimenez eta Pablo Olmos maisuek "La Herbartiana" Eskola-Mutualitatea sustatu zuten herrian. M^{re} Jesús Sánchezek utzitako argazkia.



Francisco Navaridas maisuaren ikasleak Ekai-Zuhatzuko Eskola Mistoko Erlezaintzako Esparruan. 1922. Miguel Ángel Navaridasek utzitako argazkia.




Arguedaseko Aurrezki Kutxa 1917an ireki zen. Eskaintzen zituen zerbitzuen artean "Umeentzako Aurrezki Kutxa" libreta zegoen. Horrekin Arguedaseko ikasleek eta euren familiek aurreztu zezaten sustatu nahi zen. Libreta bat irekitzeko nahitaezkoa zen gutxienezko bost zentimoko diru-sartzea. Kantitate horiengatik %3ko interesa sortzen zen urtero. Libreta hau Luis Setas Aragonena da, Arguedaseko Eskola Nazionalako ikaslea. 1920.





1930eko irailaren 21ean argazkian ikus dezakegun Satrustegiko (Arakil) eskola-eraikina inauguratu zen. Ikasle mistoentzako ikasgela bat zuen eta Magdalena Barasoain maistra titularrarentzako etxea. Ekitaldi berean Erlezaintza-Eskola inauguratu zen, Francisco Navaridas³⁵ buru zuena, erlezaintzako ustiapenetan teknikaria eta Ekai-Zuhatzuko maisua. Miguel Ángel Navaridasek utzitako argazkia.



Irudietan Francisco Navaridasen liburuak ikus ditzakegu: *Las hijas del sol y de las flores* eta *Una historia de la iglesia para niños*, argitaratu gabea.

35. Francisco Navaridas, (Samaniego, Ávila, 1892 - Iruña, 1976). Maisua eta filosofia eta letretan lizentziatua. Ondorengo udalerrri hauetako maisua izan zen: Etxauri, Oronotz Mugairin, Ekai-Zuhatzun eta Erratzun (Nafarroa); Alcofea (Zaragoza) eta Irun (Gipuzkoa). Iruñean institutuko katedratiko gisa aritu zen eta, bere denbora librean, Kale Nagusiko Uharte Anaien Eskola pribatuan irakatsi zuen. Errepublikan zehar Hezkuntzako Batzorde Nagusiak bere kontra errepresaliak hartu zituen eta bere katedratik ezgaitu zuen. Erlezaintzarekin eta Antzinako Historiarekin lotutako formakuntza ikastaroetan txostengilea izan zen eta Nafarroako Aste Pedagogikoan ere parte hartu zuen. Hainbat eskola-liburu idatzi zituen: *Las hijas del sol y de las flores*, *José Luis, vida de un campesino*, *Los ladrones de Guevara*, *Los mártires de Samaniego* eta *Historia de la iglesia para niños*. Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako Ministerioaren eskutik zilarrezko domina jaso zuen Erlezaintzaren alorrean egindako lanengatik.

5.2. Neurri sozialak

Berritzaile sozial eta higienistek erakutsitako interesari esker, eta xx. mende hasierako eskola-ikuskaritzan eta mediku-ikuskaritzan, antropometrian eta paidologian izandako aurrerapenekin batera, garai horri “Umearen Mendea” izendatu zitzaion.

Bestalde, ume batzuek pairatzen zuten txirotasuna, pobrezia eta zenbaite-tan gosea zela eta, erantzukizun sozialak bere gain hartzeko beharra ikusi zuten Nafarroako erakundeek. Gai horretako ekimen batzuk ondorengo hauek izan ziren:

- Bideko Ama birjinaren edo Olatz-Txipiko Erreformatorioa sortzea, familia-babesik ez zuten haurrentzat eta jokabide kriminala zuten haurrentzat (1924).
- Iruñeko Nafarroako Familiaren Etxea sortzea (1929), ezgaitasun psikikoak zituzten gazteentzat.
- Babesik gabeko haurrak zein familia arazoak edo arazo sozialak zituzten haurrak hartzen zituzten bestelako erakundeak sortzea: Erruki-Etxea, Umezurtz-Etxea, Abandonatutako Umeen Etxea, Ama Miresleak edo Oblatuak izan ziren.

Gainera, eskolak bere funtzio soziala bete zezan, Maistren Eskola Normalak, Maria Ana Sanzen eta Uharteren³⁶ zuzendaritzapean, eskolako lana osatzen zuten erakundeen sorrerara bultzatu zuen:

- 1908an Iruñeko San Frantsizko Eskoletan lehenengo Eskola-Kantina sortu zen.
- 1913ko uztailaren 3an Nafarroako lehenengo Eskola-Udalekuak antolatu ziren Larraintzarren (Ultzamako), Arbillagarena etxean. Probintziako osasun ikuskaria zen Manuel Jimeno Egurvide mediku higienistak sustatuta, Maria Ana Sanzen eta Florencio Onsalo Normaleko eskolako irakaslearen laguntzarekin. Bertako lehenengo zuzendaria Juan Espinal Larraintzarreko maisua izan zen, Fermina Zulategui andereñoaren laguntzarekin.
- 1925ean Eskola-Jantzitegia sortu zen.

36. María Ana Sanz (Irañeta, 1868 - Iruña, 1936). Irakaslea eta Maistren Eskola Normaleko zuzendaria. ILEaren ideien jarraitzailea, bere bizitza profesionalean horiek zabaldu zituen, ez bakarrik hezkuntzaren alorrean baizik eta bestelako jarduera osagarrietan ere: Eskola-Kantinak, Udalekuak, Eskola-Jantzitegia, Etxearen Eskola, etab. Emakumeen sustapenaren eta hezkuntzaren aldeko apustua egin zuen eta “Nafarroako Eskola Normalaren Emakumezko Ikasle Ohien Elkartea” sortu zuen 1920an.




Erruki-Etxeko mutilak Iruñeko Udaletxearen aurrean, 1932. Mutilek atez ate limosna eskatzen zuten. “Hacer la demanda” (eskaera egitea) esaten zitzaion herritarren artean. A.M.P.-ren argazkia.



“Bideko Ama birjinaren” Erreformatorioa, jendeak “Olaz-Txipi” gisa ezagutzen zuena. Kaputxino Hirugarrendarrak izan ziren lehenengo arduradunak, 1924tik 1940ra. Ondoren, 1953. urtera arte, Toribio Beroizen eta zaintzaile talde baten esku egon zen. Azkenik, La Salleko Anaiek, Aldundiarekin kontratu bat sinatu ostean, 1954tik 1979an itxi zen arte zuzendu zuten erreformatorioa. Egun, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zentroa da. Martín Ahechuk utzitako argazkia.

XX. mendearen lehen herenean aurrera eraman ziren eskolaz kanpoko ekimenek zein ekimen sozialek, tokiko eta probintziako erakundeek eta hezkuntza erakundeek sustatukoak, Nafarroako ikasleen osasuna eta bizi-kalitatea nabarmenki hobetzen lagundu zuten eta, aldi berean, eskola absentismoa ikaragarri jaitsi.



Nafarroako udal eta probintzia agintariak derrigorrezko hezkuntzari emandako bultzadak haurtzarorako osasun-neurriak eta neurri sozialak ezartzea ekarri zuen, besteak beste, eskolako ikuskaritza medikoa, udalekuak eta izaera antropometriko eta paidologiakoa zuten beste neurriak. 1913an Nafarroako lehenengo Udalekuak sortu ziren Larraintzarren (Ultzama), eta bertan neska eta mutilak batera bizi ziren³⁷. 1920an, Iruñeko alkate zen Arraiza jaunak Hortz-Higienearen Zerbitzua sortu zuen eta derrigorrezko jarri zuen udal eskola guztietan. Programa horren arduraduna José Clavero maisua eta odontologoa izan zen.

5.3. Neurri legegileak

Garai horretako neurri legegileen artean ondorengo hauek dira azpimarragarriak: **azterketa publikoak kentzea**, maisu-maistren **Proposamen eskubidea** udalei aitortzea; maisu-maistren **soldataren arautzea**, **Eskola-Eraikinen Bulego Teknikoa** sortzea eta **Irakasle-Lanaren Estatutuaren** argitalpena.

5.3.1. Azterketa publikoak kentzea

Azterketa publikoak kentzea Instrukzio Publikoko Ministerioak 1913ko maiatzaren 5eko Errege Dekretuaren 24. artikuluan eta ekainaren 5eko Errege Arauan ezarritakoaren bidez hartutako beste neurri bat izan zen. Eskola tradizionaletik zetozen azterketa horiek kritika gogorrak jaso zituzten ILEko pedagogoen eskutik anakronikotzat eta pedagogiaren kontrakotzat jotzen baitzituzten.

Alternatiba gisa, zentroek ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak jasotzen zituzten Eskola-Erakusketak antolatu zituzten. Erakusketa horien osagarri gisa, tokiko batzordeei Eskola-Memoria aurkeztu behar zitzaion, egindako lanak, izandako emaitzak eta eskolan izandako oztopoak jasotzen zituen.

Graduatutako eskola taldeetan idatzizko azterketak egiten ziren maila aldaketak zehazteko, Iruñeko San Frantziskoko Udal Eskoletan, Tuterako Castel-Ruiz Eskolan edo Lizarrako Eskola Nazionaletan egiten zen bezala. Horietan guztietan, Florencio Onsaloren txostenaren arabera, “pedagogia modernoak sustatzen zituen prozedurak praktikatzen eta entseatzen ziren”.

Azterketa publikoak kentzean udal asko kexatu ziren. Esaterako, Garesko tokiko batzordeak, 1915ean, *Diario de Navarra*-ren bidez³⁸ protesta egin zuen, azterketa publikoekin ados zeuden udal guztiei idatzizko kexua Foru Aldundiari bidaltzera gonbidatuz.

Zenbait alkatek ez zuten argi, Tuterako alkateak esaterako, eta 1914ko ekainaren 18an Iruñeko alkateari hiriko azterketen eta sarien inguruko informazioa eskatu zion. Ekainaren 19an, Iruñeko alkateak Udalbatzak 1913ko maiatzaren 5eko Errege Dekretuko 12. artikuluan ezarritakoa betetzea erabaki zuela jakinarazi zion, hau da, azterketarik ez egitea eta umeei sariak ez ematea.

37. Nafarroako Instrukzio Publikoko Batzorde Probintzialak antolatutako lehenengo udalekuen memoria, 1914. 6-12 orr.

38. *Diario de Navarra*, 1915eko abuztuaren 6an.

Maisuek eta maistrek normaltasunez onartu zuten azterketak kentzea. Kontsultatutako Eskola-Memorien artean ikus daiteke ados ez zeuden bakarrak Lesakako, Tuterako, Garesko eta Cadreitako maisu-maistrak izan ziren. Horiek, tokiko batzordeekin batera, bukaerako azterketak zirela eta ematen ziren sariak kentzea erabaki zuten. Tuteran, Elvira España maistrak 1915ean egindako Eskola-Memorian ondorengo hau esaten zuten:

Ez dut Memoriarekin bukatu nahi gure lanari jarri dizkioten oztopoak aipatu gabe, azterketak eta sariak kentzea, alegia.


Eskola-Memoriak tresna baliotsuak izan ziren garai horretako eskolen egoeraren berri izateko. Memoria horietan, maisuek eta maistrek euren beharrik, kexuak, iradokizunak, metodologiak eta eskolako emaitzak jakinarazten zituzten. Oro har, maisu-maistrek euren udalei eskola-erakinen hobekuntzak eskatzen zizkieten, baita eta materiala berritzea, aurrekontu gehiago izatea eta eskola-absentismo maila altuari aurre egiteko neurriak ere.

Ikasturte amaieran egindako Eskola-Erakusketak garai horretako ikasleek gogoratzen dituzte. Prentsak azpimarratutakoak ondorengo hauek dira: Iruñeko Konpañia, Kaldereria eta San Frantziskoko eskolak, (1917-1924-1926), Lodosa (1924), Mendigorria (1925), Orisoain (1926), Faltzes (1926), Leitza (1926), Zangozako Karitatearen Alabak (1927), Kaseda (1928) Lerin (1929), Etxaleku (1929), Peralta (1929), Alesbes (1929), Aberin (1928), Azagra (1930), Uharte Arakil (1932), Lizarra (1933), Cadreita (1933), Castejon (1933) y Cortes (1935).

Horietan guztietan, maisuek eta maistrek tokiko agintariei eta familiei ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak erakusten zizkieten: koadernoak, eskola-egunerokoak, eskulanak eta, bereziki, nesken joste-lanak.


Eskola-erakineki zegokienez, azpimarratu behar dira alor horretan izandako aurrerapenak, Florencio Onsalok bere txostenean jasotzen duen bezala. Hala ere, zenbait herritako eskolek ez zituzten beharrezko higie-neurriak betetzen. Esaterako, Erriberriko nesken eskolako maistra zen Mercedes Bejaranok, 1927ko Eskola-Memorian, udalari bere kexua helarazi zion eskolan nesken zako komunik ez zegoelako. Beste maisu eta maistra batzuk euren udalei ikasgela handiagoak eskatu zituzten, izan ere udalerrri askotan 100 ikasle baino gehiago zeuden eta ikasleak ikasgeletan pilatuta zeuden. Egoera hori ondorengo eskola hauetan eman zen: Corella (1908), Arguedas (1913), Cabanillas (1915), San Martin Unx (1916) eta Zirauki (1928).

Maisu-maistrek euren Memoretan jasota uzten zuten beste arazoa eskola-absentismoa izan zen. Ume gehienak ez ziren maiz joaten eskolara eta horietako batzuk urteko zenbait sasoitan joateari uzten zioten, batez ere landa-



Eskolako sariak banatzea ohikoa izan zen XIX. mendeko eta XX. mende hasierako eskoletan eta udaletxeetan.

1914an azterketa publikoak kentzean, zentroek Hezkuntzako Tokiko Batzordeei "Eskola-Memoriak" aurkeztu behar zizkieten, eskolarekin lotutako guztia jasotzen zutenak. Irudietan, Elvira España Tuterako maistraren eta Fermin Larranz Ziraukiko maisuaren eskola-memoriak ikus ditzakegu.



eremuetan. Bertaratze-maila %45ekoa zen batez beste 1917an San Martin Unxeko mutilen eskolan,; %50ekoa Garraldako nesken eskolan 1909an; %43koa Ziraukiko mutilen eskolan 1929an eta %65koa Luis Gil maisuaren eskolan 1930ean.

Eskola-absentismoarekin amaitzeko, maisuek eta maistrek tokiko agintariei iradokizunak egiten zizkieten euren Memoretan. Seme-alabak lan egitera behartzen zituzten gurasoak zigortzea zen horietako bat, esaterako. Ikasleek euren lana amaitzen zutenean klase partikularrak jasotzeko euren burua eskaintzen zuten maisu eta maistrak ere baziren.

Kontsultatutako eskola-memoriei dagokienez³⁹, irakasle asko metodo tradizionaletara gogor heldu arren, beste batzuk irakasteko moduak berri-tzen joan zirela nabarmendu behar dut. Euren eskola memorietan ondorengo kontzeptu metodologikoak agertzen dira: *intuiziokoak, galdeketa, analitikoak, orokorrak, sintetikoak, ziklikoak, kontzentrikoak, aktiboak, ideia-bisualak, fonetikoak... eta baita gauzen inguruko lezioak, aldizkako lezioak, behatze-lezioak, interes-guneak, zuhaitzaren eta txoriaren eguna eskolako ibilbideak, zentzumen heziketa, esperimentazioa, Decroly, Montessori, Freinet, etab kontzeptuak ere.*

Carmen Áriz Elcartek, Tafallako maistrak, 1930eko bere Eskola-Memorian ondoko hau idatzi zuen:

Nire metodologian [...] berbalismo antzutik eta hitzen gehiegizko erabileratik ihes egiteko dut. Ez dut esaldirik uzten azalpenik eman gabe, emandako ezagutzen erabilgarritasunari kantitateari baino gehiago erreparatuz, eta beti ere Montaigneren esaldia gogoan izanik: "Hobe da ongi osatutako buru bat ongi betetakoa baino".

39. Kontsultatutako Eskola-Memoriak Andosilla, Arguedas, Bera, Cabanillas, Cadreita, Zirauki, Corella, Estella, Garralda, Melida, Erriberri, Zangoza, San Martin Unx, Tafalla, Tuterako eta Uxueko eskola nazionalak dira.



1893an, Nagoreko (Artzibar) eskola-bertaratzea %54koa zen. 53 ikasle zituen orotara eta batez beste 29 ikasle joaten ziren eskolara⁴⁰. Madozen arabera (*Hiztegi Geografikoa*), 1847an, Nagorek Eskola Osatugabe bat zuen eta bertara bi sexuetako 50 eta 60 ikasle inguru joaten ziren. *Espaniako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, herriak 45 ikasleko ratioa lortu zuen, Artzibartik, Asnotzetik eta Gurpegitik zetozen ikasleak barne hartuta. 1958an 12 ikasle zeuden (Artzibarkoak eta Osakoak barne). Eskola 1964an itxi zuten eta ikasleak Agoitzeko Eskualdeko Eskolara joan ziren. Argazkian Nagoreko eskola mistoko ikasleak ikus ditzakegu, Nicomedes Minondo maisuarekin batera. 1906. Gerardo Huartek utzitako argazkia.

Moisés Morlés Ginerrek, San Martin Unxeko maisua, 1917ko bere Eskola-Memorian idatzi zuen:

Herri honetan ardoa ekoizten denez, Irakaskuntza Plana ardogintzaren eta nekazaritzaren inguruan egiten saiatu da.

5.3.2. Udalen Proposamen Eskubidea

Nafarroako Gortek 1780. urtetik aurrera aldarrikatutako legeen arabera, maisu-maistren izendapena, euren soldatak eta lehen hezkuntzari zegokion guztia Nafarroako udalen eta udalbatzen esku zegoen.

Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren 1831ko martxoaren 26ko Araudiak izendapen-prozedura ezarri zen, Batzordeak aurretik aukeratutako hiruren artean egiten zena. Hiru horietatik, udalak zortzi eguneko epea zuen bere ustez egokiena zen maisu-maistra izendatzeko. Eskumen hori ez zuen soilik Nafarroak, Estatuan zehar ere zabaldu zen 1838 Someruelos Legeari esker.

40. GERARDO HUARTE, *Cruce de Caminos. Nagore (Artzibar)*. Fundación Navarra Cultural, 2015, 215.orr.

Nafarroa Estatuko probintzia bilakatu zenean, foru-arazoak 1857ko Moyano Legea aldarrikatu zenean sortu ziren, izan ere, Legeak ezartzen zuten arabera, maisu-maistren izendapena Estatuak egingo baitzuen. Foru Aldundiak 1841eko Lege Itunduan ezarritakoaren kontrakotzat jo zuen, lege horretako 6. artikuluan esaten baitzuen probintziako udalek eskumena izango zutela legeria berezia zehazteko. “Proposamen Eskubidea” deiturikoa zen horietako kasu bat, hau da, tokiko erakundeek Probintzia Administrazioari euren udalerrietako eskoletan irakatsiko zuten maisu edo maistra baten izendapena proposatzeko eskubidea. Udalek maisu eta maistri ordaintzen baitzieten, egoki jotzen zuten maisu edo maistra ere aukeratzea.

Moyano Legea argitaratu eta hurrengo 30 urteetan zehar, Lege horrek ezartzen zuen izendapenik ez zen egin. Seiurteko iraultzaileak hezkuntza alorreko udal eskumenak errespetatu zituen. Hala ere, Berrezarpenean, berriro ere maisu-maistrak izendatzeko arazoak hasi ziren. 1874ko uztailaren 29ko Errege Dekretuak ezarri zuen izendapen horiek 1857ko Instrukzio Publikoko Legearen 182. artikuluan ezarritakoarekin bat egingo zirela. Hortik aurrera, udalek ezin zituzten izendapenak gehiago kudeatu eta liskar berriak sortu ziren Administrazio Zentralarekin. Liskarrok 1914. urtera arte iraun zuten, Estatuak udalen Proposamen Eskubidea apirilaren 8ko Errege Dekretuaren bidez berriro onartu zuenean. Arazoak beste behin sortu ziren Primo de Riveraren diktadurak 1923ko Irakasle-Lanaren Estatutua bertan behera utzi zuenean.

Hain zuzen ere, 1923ko Irakasle-Lanaren Estatutuaren harira, Nafarroako udalek Proposamen Eskubidea izateari utzi zioten. Arazoa konpondu zen Lehen Hezkuntzako Zuzendari Orokorrek 1928ko abenduaren 13an argitaratu zuen Errege Aginduarekin, Nafarroako herri guztietako Lehen Hezkuntzako Tokiko Batzordeen alde egiten zuena.

Errepublikako gobernuek Proposamen Eskubidea errespetatu zuten. Frankismoan Nafarroako Erresumako eskubide zaharra errespetatu eta onartu zuten 1945eko Legean eta 1957ko Nafarroako Estatutu Pribatiboan. Nafarroako tokiko erakundeek, 1990. urtera arte, foru-berezitasun gisa, probintziako eta nazioko agintariei euren udalerrietako eskoletan lan egiteko egokitzat jotzen zuten maisua edo maistra aukeratzeko eskubidea mantendu zuten. Data horretatik aurrera, Nafarroari hezkuntza eskumenak besterendu zitzaizkion eta, beraz, orain Foru Erkidegoko Administrazioa da hezkuntzaren kudeaketaren arduraduna.

Garai horretan zehar nafarrek euren foru-eskubideak defendatzeko egin zituzten protesta ugariak izan ziren eta neurri batean, Aldundiak bideratu

zituen, Estatuarekin egindako negoziazioen ardura hartu baitzuen. 1927an eta 1928an Nafarroako udal guztiek Aldundira bidali zituzten idatziak aipagarriak dira. Eskaera pertsonalak ere egon ziren, Lizarrako “Ekimenen eta Turismoaren Sindikatuak” edo Pedro Uranga abokatu ospetsuak egindakoak esaterako. Bi eskaera horiek Primo de Rivera Generalari zuzenduta zeuden eta horietan Nafarroako foru-izaera aldarrikatu eta Proposamen Eskubidearen inguruan laguntza eskatzen zioten.

5.3.3. Maisuen eta maistren soldataren arautzea

Soldatari zegokionez ere, Estatuarekin arazoak sortu ziren. 1900ean Instrukzio Publikoko Ministerioa sortu zen eta 1901ean Errege Dekretu bat argitaratu zen, Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoetako langileen eta materialen ordainketa aurrerantzean Estatuak, eta ez udalek, bere gain hartuko zuela ezarri zuena.

Nafarroako erregimena ez zen bateragarria xedapen horiekin, Nafarroako udalak salbuesten baitzituen orokortasunean ezarritakotik, eta 1900eko urriaren 25eko Errege Dekretuaren bidez irakasleen soldata zuzenean ordaintzeko baimena eman zitzaien.

Hori dela eta, 1904ko urtarrilaren 17an, Zaragozako Unibertsitateko errektoretzak, Nafarroako irakasleen soldata izoztu zirela eta, eta horrek Estatuko beste irakasleekin alderatuta suposatzen zuen bidegabekeriagatik, Nafarroako Lehen Hezkuntzako Batzorde Probintzialera jo zuen maisu-maistren soldata igo zezaten.

Eskaera ez zuten ongi jaso zenbait sektoretan, ez soldaten igoerarengatik, baizik eta agindua foru-erregimenean muturra sartzen zuelako. Errektoretzak Estatuko eskola publikoetako maisu-maistrentzat gutxieneko 500 pezetako soldata ezartzen zuen Aurrekontuen Legea aplikatu zuen. Baina Nafarroan, Estatuak ez zuen Lehen Hezkuntzako eskola bat bera ere ordaindu, ondorioz, eta lege hori ez zen aplikatuko.

Kontraforua egon arren, Diario de Navarra, 1906ko urtarrilaren 31an, Nafarroako maisu-maistren bidegabekeriarekiko elkertasuna adierazi zuen eta berriemaileak hauxe idatzi zuen:

Nafarroako maisuak eta maistrak ez dira beste probintzietako beren lankideak baino egoera okerragoan egon behar. Beraz, ez da bidezkoa, zuzena edo egokia, ez maisu-maistrarentzat ez eta hezkuntzarentzat ere, probintzia honetako maisu-maistrei betekizun eta ahalegin handiagoak eskatzea.

Antzeko hitzak erabili zituen Onsalok bere txostenean, gure probintziako maisu eta maistren egoera bereziari buruz Aldundiari arreta deitu zionean. Nafarroa eta Araba 500 pezeta baino gutxiago jasotzen zituzten probintzia bakarrak ziren. Gure probintzian zehazki, 262 maisu-maistrek 500 pezeta baino gutxiagoko soldata zuten. Onsaloren arabera:

Nafarroan 625, 825 edo 1100 pezetako soldata jasotzen duen maisuak edo maistrak, beste edozein lekutan 781, 1031 edo 1375 pezeta kobratzen ditu, hurrenez hurren⁴¹.

Beste zenbait gairi dagokienez, 1912ko martxoaren 21eko Errege Arauak Nafarroako maisu-maistrak lekualdatzeen lehiaketa orokorretik kanpo utzi zituen. Baina 1913ko Instrukzio Publikoko Ministerioak Nafarroako maisuei eta maistrei aukera eman zien Irakasle-Lanaren Maila Orokorrean sartzeko, lekualdatze lehiaketa orokorraren bidez beste probintzia batera joan nahi zuten horiei aukera emanaz. Horretako, askotan, irakasle-lana uztea edo beste probintzia batera lekualdatzea eskatu zuten. Mende hasierako lekualdatze lehiaketen arabera, gure probintziako eskola asko irakasle gabe geratu ziren.

Azkenik, 1914an, Estatuak Nafarroan lan egiten zuten maisu-maistren soldaten ardura bere gain hartu zuen, Estatuko beste probintzietan egiten zuen bezala. 1914ko apirilaren 8ko Errege Dekretua argitaratu ostean, Espainiako probintzietan lanean ari ziren Nafarroako maisu eta maistren maila-igoera ezeztatu zen, Estatuko aurrekontuetan horiek asetzeko kopururik ez zegoelako. Hori dela eta, Aldundiak Gobernuari esan zion beharrezko kopurua ordainduko zuela Estatuko aurrekontuetan kreditu nahikoa esleitu arte, Nafarroako maisu-maistrek, normala zen bezala, 1911tik besteez zuten soldata bera izan zezaten, maila-orokorrean betetzen zuten lekuarekin bat.

Eskaintza hori 1915eko maiatzaren 11ko Errege Arauan onartu zen eta Aldundiak kopuru desberdintasun hori ordaindu zuen emandako jarraibidei jarraiki. Errege Arau horretako 6. artikuluan hurrengo aurrekontuetan betekizun hori betetzeko kreditua barne sartuko zela hitzeman zen, baina ez zen horrela izan eta Aldundiak 1918 arte desberdintasun horiek ordaintzen jarraitu zuen. Nafarroako maisuek eta maistrek euren nominekin arazo ekonomikoak izaten jarraitu zuten Estatuko lankideekin alderatuta. Horrela jakinarazi zion Aldundiari Manuel Yabar Arcaya Nafarroako Maisu-Maistren Elkarte Probintzialeko Lehendakariak:

41. F. ONSALO Y UROZ, *Memoria relativa al estado de la Instrucción Primaria de Navarra según los resultados del curso 1902 á 1903*, Iruña, 1903, 24. or.

... Espainian soldata desberdintasun horiek kobratu ez dituzten bakarrak Nafarroako maisuak eta maistrak izan dira, 1918ko uztailaren 22ko Legeak hala ezartzen ez bazuen ere. Askotan entzun diogu Aldundiari esanez Nafarroako maisu-maistrei ez zitzaiela kalterik egingo probintziako funtsetatik kobratzeagatik. Hitz horiek gordetzen ditugu eta benetan espero dugu Aldundiak ez dezala onartu, garairik okerrenetan ere, alde egin ez zuten maisu-maistrek Espainiako beste irakasleek baino gutxiago kobratzea [...].

Antzin, 1919ko apirilaren 1a.

Azkenik, 1919an, Estatuak bere gain hartu zituen maisu-maistren soldatak.

Administrazio Zentralak Nafarroako maisu-maistren soldata bere gain hartu ostean, Lehen Mailako Irakasle-Lanaren Maila Orokorrean sartu ziren maisu-maistrak. Nafarroako maisu-maistrak barne hartzen zituen Zaragozako Unibertsitate-Barrutiko Irakasle-Laneko irakasleak maila orokorraren arabera sailkatuta zeuden eta, aldi berean, sei kategoriatan banatuta. Mailaz igotzeko Ministerioaren aukeramenaren bidez egiten zen. xx. mende hasieran, lehenengo mailako irakasle batek urtean 4000 pezeta kobratzen zituen eta, aldiz, seigarren mailako batek 1650 pezeta.

5.3.4. Eskola-Eraikinen Bulegoa

XIX. mendean zehar eta xx. mende hasieran, zenbait udalerrik euren baliabideekin eta euren ekimenari esker eraiki zituzten eskolak. Beste udalerrri batzuk gizarte ekimenen, fundazioen, patronatuen edo bizilagun ospetsuen laguntza izan zuten, batez ere Ameriketara emigratu zuten horiena. Horiek guztiek herrian eskola eraikitzen eta mantentzen lagundu zuten.

Hezkuntzarekin lotutako fundazio eta ongile horien artean, ondorengo hauek daude: 1734an, Juan Bautista de Iturralde eta Manuela de Munarriz Murilloko markesek zilarrezko 85.000 dukat eman zituzten Arizkuneko (Baztan) maisuaren soldata ordaintzeko. Juan Manuel Espoz y Vergasa presbiteroak, 1796an, mutilentzako eskola bat eta neskentzako beste bat sortu zituen Makirriainen (Ezkaabarte) eta 1894an Jose Garcia Goyenak Indietatik 6000 duro bidali zituen, Tafallako maisu-maistra bakoitzari 90 duro emanaz. 1824an, Ripalda andreak Zangozan erakunde bat ordaindu zuen: Karitatearen Ahizpen esku zegoen eskola publikoa eta Nafarroako beste herritako neskek jasotzen zituen barnetegia. Miguel Antonio Euguik, Indietako sarjentu nagusia, Bizkarretako (Elortzibar) eskola ordaindu zuen 1875ean. 1823an, Miguel Tomás Aristegik bere testamentuan Iraizotzeko eta Larraintzarreko eskolak diruz laguntzeko diru-kopuru bat utzi zuen. Ciriaco Moreak Garaioako Eskola Mistoa eraikitzeko donazioa egin zuen. Antonio Arostegi Goyeneche

Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, Pitillasen 145 ikasle zeuden, bi sexuetakoak, eskola publikoko bi unitatetan banatuta. Urtebete geroago, Jesusen Alaben Kongregazioa iritsi zen Pitillasera eta 1962ra arte egon zen. Irudian Pitillaseko "San Jose" Eskola ikus dezakegu, Jesusen Alaben zuzendaritzapean. José M^º Muruzabalek utzitako argazkia.



de Aribek, 1911n, Garraldan eskola publikoa eraikitze dohaina egin zuen eta 1922an Iruñeko Salestarren obrak ordaindu zituen. Landio Layun Madrilko Gorteetako diputatuaren eta Teresa Villanuevaren seme-alabek Ihabeneko (Basaburua) eskola ikaragarria eraiki zuten 1923an. Untzueko eskola 1911n eraiki zen bertakoak ziren baina Argentinan bizi ziren Arizu anaien ekarpenari esker. Elbeteako (Baztan) eskolak Francisco Goyeneche Echandi-
ren babesa izan zuen, Mexikora emigratutako herrikidea. Mexikon bizi ziren Erratzuko (Baztan) bizilagun batzuk eskola ordaindu zuten 1905ean. Kubatik, Esteban de Ancilek Gaiarreko eskola ordaindu zuen 1898an. Pitillaseko San Jose eskola (1909) Gasteizko gotzain zen Cadena y Eleta Pitillaseko herritar ospetsuaren babesari esker eraiki zen. Hiriberriko eskolak 1923ko ekainaren 29an eraiki ziren Joaquina Huarte Anza andereak emandako funtsei esker. Rafael Alcocer Armendarizeko 60.000 pezeta eman zituen Jaitzeko eskolaren mantenuerako. Cornelia Lecuona Garbisuk "Otxogarrieneako" errenta guztiak eman zituen Lesakan doako eskola eraiki zezaten. Gendulaineko kondeak, 1910an, Gendulaineko eskola herriari eman zion.



Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an Ihabenen (Basaburua) bi sexuentzako lehen hezkuntzako eskola zegoen eta bertan 20 ikaslek ikasten zuten. 1908an, eskolako matrikula 67 ikaslera igo zen, Beramendi, Itsaso, Jauntsarats eta Udabetik zetozen ikasleak barne. Eskola 1923an eraiki zuten Landio Leyún eta Teresa Vilanuvaren seme-alabek. Proiektua Manuel Ruiz de la Torre probintziako arkitektoak egin zuen eta lanen zenbatekoa 75.000 pezetakoa izan zen. Eskola horretako lehenengo maistra titularra Juana Larraya izan zen. Eskolako eraikinean maistraren etxea ere bazegoen, eta legeriak ezartzen zituen baldintza higieniko-pedagogiko guztiak betetzen zituen. Eraikinaren sarreran ondorengo esaldi hau dago: “Ihabeneko Aucenea deituriko auzo-etxe hau bertako jabeak izan ziren Landio Leyun eta Teresa Villanueva beren gurasoei eskaintzen diote euren seme-alabek [...], jatorrizko etxea zaharberritu eta egokitu ostean 1923ko irailaren 8an eskola bihurtzeko”.

1975ean Ihabeneko eskola-unitate mistoa itxi zen. Bertako azken maistra Josefita Sasturain izan zen. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak eskolako eraikina Basaburuako bailaran kendutako eskoletarako erabili zuen.



Irudian Garaioako Udaletxea eta Eskola ikus ditzakegu. Erdialdean, Ciriaco Morearen irudia, Garaioako indianoa, Argentinan aberastu ostean eraikin hori ordaindu zuena. Eskola 1974an itxi zen. Argazkia 1953an egin zen, Loreta Urruticoechea Echaniz maistra titularra zelarik. S.I.E.



Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an, Legardan (Izarbeibar) Eskola Osatugabea zegoen, 28 mutilekin eta 18 neskekin. 1908ko Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an bi sexuetako 59 ikasle zeuden.

XX. mendeko lehenengo urteetan Eskola udalekoa zen etxe pribatu batean zegoen. Egun, eraikin hori udaleko biltegi bat da. Legardan eraiki zen lehenengo eskola-eraikina 1928an izan zen. Bere ongilea Cecilio Azcárate izan zen, eskolaren mantenuerako ere diru kopuru handia eman zuena. Ignacia Barrenechea Udaltzako Eskola horietako lehenengo maistra izan zen eta Pilar Goñi azkena. Eskola 1975ean itxi zen eta bertako ikasleak Garesko Eskualdeko Eskola Publikora joan ziren ikastera. Argazkian Cecilio Azcárate ikus dezakegu, erdialdean, txapelarekin eta makilarekin, bere senideez, agintariez eta herriko bizilagunetz inguratuta. Argazkia Legardako eskola ireki zen eguneko da. Nicolas etxeak utzitako argazkia.

Bestelako ekimen sozialak: Etxarri 1611, Uxue 1731, Urdazubi 1752, Peralta 1782, Elo 1792, Beuntza 1795, Otxobi 1807, Izaba 1808, Irurita 1816, Otsagabia 1817, Ustarrotz 1820, Zugarramurdi 1820, Cabanillas 1820, Betelu 1820, Larraintzar 1823, Ledea 1827, Iruña 1837, Iraizotz 1840, Betelu 1842, Los Arcos 1842, Ekala 1844, Ziga 1849, Aranatz 1849... Ekimen horiek maisu-maistren soldata ordaintzen lagundu eta zenbait eskolen bizi-raupena bermatu zuten.



Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoan* agertzen den bezala, 1847an, Uitzin (Larraun) bazegoen eskola bat, udaletxe, taberna eta ostatu gisa erabiltzen zen eraikin berean. Bi sexuetako 20 ikasle joaten ziren eskolara. Hogeitahamar urte beranduago, 1877an, José Mariano de Iriarte y Osambela Uitziko indianoak irudian ikus ditzakegun eskolak eraiki zituen, parrokia-elizaren eta Osambela etxearen artean zeudenak. 1880an, Karitateen Ahizpek komentu bat sortu zuten eraikin horretan eta nesken eta umeen eskolako arduradunak izan ziren. Egun, eraikina udalekuetarako erabiltzen da. Larraun bailarako Bildumako argazkia.



1908an, Uitzin (Larraun) bi sexuetako 64 ikasle zeuden, hiru eskola-unitatetan banatuta: mutilen bat, nesken beste bat eta bi sexuetako haurrena. Azken bi unitate horiek Karitateko Ahizpek zuzentzen zituzten. Argazkian Uitziko maisua bere ikasleez inguratuta ikus dezakegu. Larrauneko argazki-bildumako argazkia.

XIX. mende erdialdean, Untzuek 50 ikasle zituen Eskola Mistoa zuen udalak alokatutako etxe batean. Eraikina zaharra zen eta egoera txarrean zegoen. Udaleko txostenean irakur dezakegun bezala, 1893ko azaroaren 1ean, "eskolak berehalako hobekuntzak behar zituen". 1911ko apirilaren 30ean, alkateak bizilagunei jakinarazi zien udaletxea eta eskola Argentinan bizi baina herrian jaiotako Balbino Arizu Labianori eta bere anaiei esker eraikitako eraikin berrira mugitu zirela. 1969an nesken eskola-unitatea betirako ezeztatu zen eta 8 neska eta 10 mutil zituen Eskola Mistoa bihurtu zen. Eraikina 1970an eraberritu zen, baina hamarkada amaieran eskola ixtean, ikasleek Tafallara joan behar izan zuten. Irudian Untzueko eskola eta frontoia ikus ditzakegu. 1911-1915. A.R.G.NA-k utzitako argazkia.



Atzean, irudi erlijiosoen ondoan, erlojua ikus dezakegu, eskolako almanakarekin batera egunen eta eskola-denboren erritmoa zehazten zuena. Erabili ziren materialak modernoak eta kalitatezkoak izan ziren. Nabarmendu behar dira Anselmo Argonz iruindarraren mahaiak, patentatuko modeloak zirenak eta Zaragozako Erakusketan saria jaso zutenak. Untzueko Eskola Mistoko gelako barrualdea, 1911-1915. A.R.G.NA-k utzitako argazkia.





Espainiako *Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, Garraldan mutilentzako Oinarrizko Eskola bat eta neskentzako beste bat zegoen, osotara herriko 71 ikasleak barne hartzen zituztenak. 1970an eskola-unitate mistoa zegoen, 21 mutilekin eta 9 neskekin. Garraldan "Ntra. Sra. de Orreaga" Eskualdeko Eskola Publikoa ireki zenean, Aezkoako ibarrako, Erroko, Auritzeko eta Luzaideko ikasleak hara joan ziren. Irudian José Velasco Hernández maisua bere ikasleekin batera ikus dezakegu 1922an. Eskola horiek 1911ko ekainaren 6an ireki ziren. Herriko indiano eta ongile zen Antonio Aróstegui Goyenechek ordaindu eta herriari eman zizkion eraikinok. Eraikinak eskola eta maisuarentzako etxea zuen. Eraikinaren sarreran brontzezko esker-plaka ikus dezakegu: Garraldak bere seme kutunari, Antonio Aróstegui Jaun Txit Gorenari, Eskola honetako sortzailea, 1911" A.R.G.NA-k utzitako argazkia.



Argazkian Garraldako mutilen eskolako ikasgela ikus dezakegu, 1922an. Azpimarragarriak dira Anselmo Argonz zurgin iruindarrak diseinatutako bi pertsonentzako ikasmahaiak. Bere diseinuek Zaragozako Erakusketan zilarrezko domina jaso zuten eta brontzezkoa Bilboko Lehiaketan. Kontuan hartzekoa da, baita ere, ikasgelaren atzeko aldean dagoen koadro-erreturua. Erreturua Garraldako Antonio Arostegi indiano eta mezenasari dagokio, herriko mutilen eskolako sustatzailea eta ongilea izan zena.

1855ean, Francisco Joaquín de Iriarteren babesari esker, Gartzaineko (Baztan) Eskola Nazional Mistoa ordaindu ahal izan zen. Madozen Hiztegiaren arabera, 1845ean Gartzainek oraindik Lehen Hizkien Eskola zuen, bi sexuetako 48 ikasleekin osotara eta 70 arto eta gari erregurekin eta 60 errealekin hornituta zegoen. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an oraindik udalerrian bi sexuetako 35 ikaslerentzako Eskola Osatugabea zegoen. Irudian, Gartzaineko (Baztan) eskola-eraikina ikus dezakegu. 1957.



Gartzaineko Eskola Mistoko ikasgelako barrualdea. Frankismo garaian ateratako argazkia, 1957an.



1823an, Iraizotzen (Ultzama) eskola polit bat zegoen, Zigandako Miguel Tomás de Arístegui indianoak eraikitakoa. 1845ean, Madozen arabera, herri horretan Lehen Hizkien bi eskola zeuden; mutilena, 50 ikaslerekin (Alkotzekoak eta Arraitzekoak barne) eta neskena, 30 ikaslerekin. 1908an, bi eskolak Eskola Osatugabe edo Misto bihurtu ziren eta bi sexuetako 44 ikaslek ikasten zuten han. Eskolarako diru-hornidura “Iraizotzeko Maisutza” fundazioari eta herrietako ordainketei esker betetzen zen. Irakaskuntza ofizialki instituzionalizatu zenean, bestelako jarduerak finantzatzen hasi ziren: joste-lanak, jantzigintza edo kultura orokorra. 1927an, Ongintzaren Batzorde Probintziala Fundazioa kudeatzen hasi zen. Irudian Iraizotzeko (Ultzama) Eskola Mistoia ikus dezakegu, 1924an eraikitakoa.



Espainiako *Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an Lizasok ez zuen Lehen Hizkien eskolarik eta herriko ikasleek Larrainzarreko eskolara joan behar zuten. Lehenengo argazkian Lizasoko (Ultzama) Eskola Mistoia ikus dezakegu, 1910eko azaroaren 11an irekitakoa. Proiektua Serapio Esparza arkitektoak egin zuen. Herriko semea zen indiano aberats baten babesari esker egin zen eta ondoren, udalari eman zitzaion.




Bizkarreta-Gerendiaineko (Erro) eskola Erroibarren eraiki zen lehenengo eskola izan zen. 1775ean Miguel Antonio Eugi Indietako sarjentu nagusiak 5.980 peso bidali zituen eskola eraikitzeko eta Erroibarreko herri guztietako neska-mutilei kristau-doktrina eta gazteleraz hitz egiten irakatsiko zien maisu baten soldata ordaintzeko diru-kopurua ere eman zuen. Ongileak hala nahi zuelako, Eskola mistoari "San Miguel" izena jarri zioten. "Bizkarretako Maisutza" Fundazioaren eraikinak 180 m²-ko Eskola-Etxea eta 224 m²-ko baratzia zituen. 1952an enkantean jarri zituzten eta titulartasuna Ángel Dufor Azparreni eman zitzaion, Bizkarretako Kontzejuko lehendakariari. Fundazioak lortutako diru-kantitatea izen-emate izendunetan inbertitu zuen. Eskola 1970ko hamarkada erdialdean itxi zen.



Elbeteko (Baztan) Eskola Mistoa herriko semea zen eta Mexikon bizi zen Francisco Goyeneche Echandik diruz lagundu zuen. Eskolan bi sexuetako 45 ikaslek ikasten zuten. S.I.E.



Pascual Madozek bere *Hiztegi Geografikoan* erakusten duen bezala, 1847an Erronkarin Lehen Hizkien Eskola zegoen, bi sexuetako 50 ikaslerekin. Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an 6 eta 12 urte arteko 97 ikasle zeuden eskolan. Argazkian frontoia eta Erronkariko Udal Eskolak ikus ditzakegu. Bi eraikin horiek, 1898an eraikitakoak, Julian Gayarre Erronkariko abeslariak ordaindu zituen. Julián Gayarre Fundazioak utzitako argazkia.




1796an, Makirriane (Ezkabarte) Juan Manuel Espoz y Vergasa presbiterioak "Makirriane Maisutza" sortu zuen eta herrirako Makirriain, Aderitz, Eusa, Orrio, Zildotz, Garrues eta Anotzeko mutil eta neskontzako eskola aurreikusi zuen. Hasieran, Patronatua herrian bizi zen eta ondoren, Nafarroako Ongintzaren Batzordeak kudeatu zuen. Eskola horretako erakunde osagarri gisa, 1913tik aurrera Eskola-Kantina martxan jarri zen. Irudian Makirrianeko eskola-eraikinaren planoak ikus dezakegu. 1911. Nafarroako Administrazio Artxiboak utzitako argazkia.

Olaztiko Eskola Publikoak 1925eko irailaren 29an ireki ziren. Eskola-Multzoa euskal estiloko eraikin bikaina izan zen. Hiru modulu zituen: erdiko eta garaiago zegoena, Olaztiko arma-ezkutua zuena eta, alboetan bi pabilioi, bi estalperekin bakoitzaren albo batean. Sociedad Cementos Portlandek ordaindu zituen eta Udalarari eman zizkion. Eraikina Alzugaray arkitektoak egin zuen eta lanek 120.000 pezetako kostua izan zuten. Eskola horretako lehenengo maisu eta maistra titularrak Julián Argote eta Francisca Cabodevilla izan ziren. 1960ko hamarkada hasieran, erroldatutako 400 ikasleak bertan hartu ahal izateko, Udalak Aldundiari eskola berriak eraikitzeke proposamena luzatu zion. 1964an Eskola-Multzo berria ireki zen, herriko ikasle guztiak har zitzakeena. Eraikin berriak bata bestearen ondoan zeuden bi eraikin zituen: batean eskolak zeuden eta bestean maisu-maistren etxebizitzak. Argazkian Olaztiko lehenengo Eskola-Multzoa ikus dezakegu, 1925ean. Galleren argazkia.



1909ko Eskola-Estatistikaren arabera, Castejoneko bi sexuetako 80 ikasle zeuden. Castejoneko Kooperatibako Eskola udalerriko lehen eskola izan zen, behintzat ezagutzen den lehenena. Crescencio de Valek zuzentzen zuen eta ordainpekoa zen. 1920 eskola pribatu hori itxi eta "Compañía del Ferrocarril del Norte" k, herrian eskolarik ez zegoela eta, "Trenbidearen Eskolak" ordaindu eta eraiki zituen, euren langileen seme-alabentzat. Hasieran, mutilen eskola egin zen Apaizaren auzoan (1) eta, ondoren, neskena, Makinen Gordailuan (2) zegoena. Beste ikasleek zuten aukera bakarra Corellako Eskola Nazionalak izan ziren. Castejoneko Argazki-Bildumako irudia.



XX. mendeko lehen herenean beren langileen seme-alabentzako eskolak eraiki zituzten enpresak egon ziren. Esaterako, 1925ean Olazti Portland Cementos enpresak eraiki zituenak edo Castejoneko eskolak, 1927an, trenbide-konpainiak ordaindu zituenak.



1927ko uztailaren 3ko Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera Castejon Udalbatza izatera pasa zen, Corellatik administratiboki bereiziz. Hori dela eta, udalerriko lehenengo Eskola Publikoak sortu ziren Udaletxeko eraikinean. Eskolak bi ikasgela zituen (mutilentzat bat eta neskentzat beste bat) eta maisu-maistrentzako bi etxebizitza. Eskola eraiki bitartean, Casa Grandeko lehen solairuan lokalak prestatu ziren klaseak emateko. 1932an, Castejoneko Udalak, Estatuaren eta Aldundiaren laguntzarekin, Eskola Nazional berriak ordaindu zituzten, Arteaga arkitektoak diseinatutakoak. Eskolek mutilentzako hiru ikasgela eta neskentzako beste bi zituzten. Horretaz gain, museoa, liburutegia, gimnasioa, etab ere bazeuden. Eraikin hori, Udaletxera atxikita dagoena, Kultur Etxea da gaur egun. 1959an Eskola-Multzo berria eraiki zen Renfeko etxeen aurrean, baina 1963an, Diario de Navarrako berriemailearen arabera, eskolak oraindik estreinatuta gabe zeuden eraikina guztiz hondatuta baitzegoen. Garai horretan, Castejoneko 3 maisu, 5 maistra eta eskola pribatu bat zegoen, "Jesusen Bihotzeko Misiolari Agurgarriena", hain zuzen ere. Castejon Argazki-bildumako argazkia.

Espanian zegoen eskola-eraikinen gabezia arintze aldera, Hezkuntza Ministerioak 1920ko azaroaren 23ko Errege Dekretuan Estatuak udalerrien laguntzarekin ordainduko zituen eskola-eraikinen sistema ezarri zuen.

Horretarako, **Eskola-Eraikinen Bulego Teknikoa** sortu zen, Antonio Flórez arkitektoak zuzendutakoa. Azken horrek klimaren araberako hainbat eredu egin zituen, proiektuak egingo zituzten arkitektoentzat orientabide izan zitezkeen. Bulego Teknikoak egindako orientazio tekniko horiek eskola-eraikinen inguruko guztia arautzen zuten: kokapena, orientazioa, zabalera, aireztapena, argiztapena eta berotze-sistema. Orientabide horietan aurretik agertzen ez ziren zenbait espazio aurreikusten ziren: komunak, zuzendariaren bulegoa, laborategiak, etab.

Nafarroan, eraikuntza berriak Bulego Teknikoak ezarritako arauetara egokitu ziren, baita Fundazioko Eskolak ere, baina araudi hori ez zen nahikoa izan eskola-plazen eskasia konpontzeko.


1920an, Nafarroako Hezkuntza Ikuskaritzak maisu-maistrei euren eskoletako azpiegitura baldintzen inguruko informazioa eskatu zien. Jasotako erantzunak ikusita, ondoriozta dezakegu udaletakoak ziren eskola-eraikinak, herriaren erdialdean zeudenak, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran eraiki zirela⁴².

1920 eta 1923 artean, hau da, Primo de Riveraren diktadura baino lehen, eraikuntzarako aro berri baten oinarriak finkatu ziren, Gerra Zibila arte indarrean egon zirenak. Diktadura aurreko garai hori oso emankorra izan zen eskola-eraikinei dagokionez. Estatuan, osotara, 4.000 eskola sortu ziren.

Primo de Riveraren diktadura iristerakoan, Nafarrokoa udalen finantzia-zio-politika indartu zen eta euren udalerrietan eskolak eraiki zitzaten eskatu zitzairen. 1928ko Nafarroako Udal Administrazioaren Araudian udalei eskolak eraikitze eta mantentzeko betekizuna ezarri zitzairen. Hala ere, Estatuak eskola-eraikinen eraikuntzari eman zion bultzada ez zen nahikoa izan Nafarroako gizarteak eskatzen zuen eskola-plazen beharrari erantzuteko.

Ondorengo herri hauetan eskolak eraiki ziren XX. mendearen lehen herenean: Aldaba, Arizu, Arizkun, Aranatz, Arraitza, Arre, Auza, Aguilar kodes, Antzin, Agoitz, Bakedano, Belaskoain, Beltzuntze, Beriain (Galar), Betelu, Buñuel, Caparroso, Etxaleku, Etxarren Arakil, Elso, Eraso, Erratzu, Eslaba, Erro, Espartza Galar, Eugi, Funes, Faltzes, Garde, Gartzain, Irañeta, Iraizotz, Iribas, Irurita, Irurtzun, Lantz, Lekunberri, Leitza, Lerin, Lizaso, Lizarraga (Izagaondoa), Murillo el Cuende, Mutiloabeiti, Reta (Izagaondoa), Otsagabia, Orreaga, Ukar, San Adrian, Oderitz, Uskartze, Alesbes, Hiriberri, San Adrián, Sartaguda, Satrustegi, Dorrao, Tabar, Ihaben, Zizur Txikia...

42. Eskola-eraikinen inguruko 67 txosten horiei esker, badakigu 64 udaletako jabetza zirela, bi eliza-parrokiakoak (Tirapu eta Puiiu), eta bat alokatutakoa zela (Arizkun). A.A.N.-k eta zenbait udalek emandako informazioa.



XIX. mende erdialdean Astrainen (Zizur Zendea) Eskola Osatugabea zegoen dagoeneko eta bertara bi sexuetako 40 ikasle joaten zirela. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an bi sexuetako 58 ikasle jasotzen zituen Eskola Osatugabea zegoen. 1970eko. hamarkadaren hasieran, Astrainek bi eskola zituen: Mutilen eskola, Cándido Euguik zuzendutakoa, eta neskena, Inmaculada Cosioren zuzendaritzapean. Bi eskolak 1973an itxi ziren eta ikasleak Barañainen hasieran eta beranduago Zizurrera joan ziren ikastera. Irudian Astraingo eskola bateratuaren planoak ikus dezakegu, udalerriko maisuak Ikuskaritzari bidalitakoa. 1920. Nafarroako Administrazio Artxiboa.



XIX. mende erdialdean, Garden (Erronkari) Eskola Mistoa zegoen, 40 ikasle zituen eta 2.000 errealekin hornituta zegoena. 1908an, bi sexuetako 84 ikasleko eskola-errola zegoen eta maisu bakarra zuten. 20ko hamarkada erdialdean eskola-matrikula igo zela eta, bi eskola sortu ziren, bata mutilentzat eta bestea neskeentzat. Argazkian Gardeko Eskola Nazionalak ikus ditzakegu, arau pedagogiko berriei jarraiki (komunak, bainugela, etab), 1930an eraikitakoak. 1964an, eskola-matrikula jaitsi zela eta, berriro Eskola Mistoa egin zuten. 1970-71 ikasturtean, 11 neskek eta 22 mutilek ikasten zuten bertan. 80ko hamarkadaren hasieran eskola itxi zen eta ikasleak Erronkariko "Julián Gayarre" Eskualdeko Eskolara joan ziren ikastera. "Txuribeltzean" Elkarateak utzitako argazkia.

Nafarroako lehenengo haur eskola Iruñean sortu zen 1834an, "Pitillas" izenpean. Nafarroan, haur eskolak ez ziren derrigorrezkoak beraz, soilik funts publikoak zituzten udalek izan zitzaizkiren eskola mota horiek. Ikasgela horietaz arduratzen ziren pertsona partikularrak ere egon ziren, familien laguntza ekonomikoari esker aurrera aterata zirenak. Argazkian, San Adriango nesken haur eskola ikus dezakegu, Paca andrea zaintzailearekin. 1926. San Adriango Liburutegiak utzitako argazkia.





San Adriango lehen Udal Eskolak XIX. mendean ireki ziren. Udaletxeko eraikinean zeuden eta neskontzako eskola bat eta mutilentzako beste bat zeuden bertan. Bigarren eskolak San Adriango Markesak utzitako lurretan eraiki ziren. 1925eko irailean inauguratu zituzten eta 1980an eraitsi. Eraikinak lau unitate zituen, mutilentzako bi eta neskontzako beste bi, bai eta maisu-maistrentzako etxebizitzak ere. Hala ere, Lorenzo García-ren eta Antonia Martínez-en eskola-unitateek baino ez zuten funtzionatzen. Inaugurazio ekitaldian, Eladio García ikuskariak berehala bi maisu-maistra berri izendatuko zituela agindu zuen. 1957an, hirugarren eskolak eraiki ziren "Eras Bajas" izenez ezagunak, eta 1976an "Alfonso X el Sabio" Eskola-Multzoa ireki zen. Frankismoan zehar Aholku Oneko Ahizpa Frantziskotarrak herrira iritsi ziren eta horien ostean, Bordeleko Mojak, 1975a arte egon zirenak. San Adriango Liburutegiak utzitako argazkia.



Aholku Oneko Ahizpa Frantziskotarrak 1896an sortu ziren, María Teresa Ama Nagusia buru zutela. Hala ere, 1947ra arte ez ziren San Adrianera iritsi. Celos Muerza Garbayo filantropo ospetsuak sustatutako eta ordaindutako Babes-Etxe-Eskolan gelditu ziren. Ahizpa Frantziskotarrek Babes-Etxearen eta "San Máximo" eta "Santa Celestina" Eskolaren ardura hartu zuten eta haur eskolako nesken heziketaren arduradunak izan ziren. 1963an herria utzi zuten Madrilera sortu berri zen eskola batera joateko. Urte horretan, Bordeletik iritsitako moja batzuk hartu zuten Babes-Etxearen eta Eskolaren ardura eta herrian 1975a arte egon ziren. Egun, haur eskola laikoa da. San Adriango Liburutegiak utzitako argazkia.

Cintruenigoko mutilen Eskola-Eraikina, Kaputxinoen enparantzan zegoena, 1928ko irailaren 16an ireki zen. Rio Alhmako markesek utzitako lurretan eraikitakoa, hiru gela, maisuentzako bulegoak, osasun-zerbitzuak, eskola-museoa eta liburutegia zituzten. Materialak modernoak ziren, Eskola-Eraikinen Bulegoak ezarritako xedapenekin bat zetozenak. Cintruenigon gorakadan zegoen industrializazioa zela eta, Kaputxinoen Eskola-Multzoa txiki geratu zen eta bi zentro berri eraiki behar izan zituzten: Lehenik "Otero Navascués" Eskola Nazionalak, eta ondoren "Otero Navascués" L.H.ko zentroa. Nesken heziketa pribatua San Vicente Paul Karitatearen Ahizpen esku zegoen. Cintruenigoko Udalak utzitako argazkia.



Sartagudako eskola ohien eraikuntza 1927an hasi zen, José Lasheras Martínez alkate zenean. Alkateak eskola-eraikin berria egiteko konpromisoa hartu zuen, herrian eskolatze arazo larria konpontze aldera. Eskola-multzo berria 1928an bukatu zuten. Eraikinak, Mariano Arteaga arkitektoaren proiektuaren arabera, hiru eskola-unitate zituen eta maisuentzako hiru etxebizitza. Zentro berria ez zen martxan jarri 40ko hamarkada amaiera arte. 1954an Udalak Víctor Eusak diseinatutako proiektu berria aurkeztu zuen haur eskola eta maisuaren etxea eraikitzeko. Eskola-Multzo ohia eraisten ari zen eta, 1967an, Udalak eskoratu eta birmoldatu behar izan zuen. Sartagudako Eskola Nazionalen inaugurazioa eta bedeinkapena 1928ko ekainaren 24an izan zen. Ekitaldi horretan Vícto Cordón alkatea, Udalbatza, Somateneko kideak, Infanterriko Duke Txit Gorenaren ordezkariak, Hezkuntzako ikuskari nagusia, maisu-maistrak eta elizako agintariak egon ziren. Erdialdean Sartagudako eta Nafarroako ezkutua daude eta, horien artean, ondorengo inskripzioa: "Cristina de Arteaga" Eskola Nazionalak⁴³. Argazkietan eskola multzoa eta haren aurrealdea ikus ditzakegu. Julio Sádabak utzitako argazkia.

43. Cristina Arteaga Felguera moja jeronimoa, idazlea, historialaria eta poeta izan zen. Bere aita Santillana Markesa, Infanterriko Dukea eta Sartagudako lurren eta etxeen Jauna izan zen.

5.3.5. Irakasle-lanaren Estatutua

Maisu-maistren eskubideen eta betebeharren arautzea 1923ko Irakasle-Lanaren Estatutuan jaso zen. Estatutuak administrazio kontu guztiak arautzen zituen: irakasle kidegoan sartzea, euren etxebizitzaren, eskola almanakaren, lizentzien edo erretiroaren inguruko araudia...

Estatutua onartu bezain laster, lehenengo banaketak egon ziren irakasle-leen artean. Alde batetik, administrazioarekin desadostasunak zeuden, izan ere irakasle batzuk eskubide osoko mailan zeuden baina, besteei, bitarteko irakasleei, eskubideak mugatu zitzaizkien. Bestetik, arazo ideologikoak zeuden. 1929an Nafarroako Maisu-Maistren Elkarte Katolikoa sortu zen, Francisco Jiménez Equisoain lehendakari zela. Alternatiba ideologiko gisa, Nafarroako Lehen Hezkuntzako Irakasle-Lanaren Elkarte sortu zen, Cleto Rojo sozialista buru zuela. Frankismo garaian, Irakasle-Lanaren Estatutua, 1947ko urriaren 24tik aurrera, Lehen Hezkuntzako Irakasle-Lan Nazionalaren Estatutua izatera pasa zen.

Baina, baieztatu al daiteke estatuko, probintziako eta udaletako agintariak ezarritako neurri pedagogiko, sozial eta legegile horiek eragin onuragarria izan zutela Nafarroako eskoletan?.

XX. mendeko lehenengo urteetan, irakasleek euren antzinakoengandik jasotako kultura enpirikora lotuta jarraitu zuten eta, beraz, ezarritako neurriek ez zuten emaitzarik ekarri. Aldiz, 20ko hamarkadatik aurrera, eskolak eta bere arduradunek aldaketa kualitatiboa eman zuten irakaskuntza ulertzeko moduei zegokienez.

Berrikuntza eta eraberritze pedagogikoen artean, ondorengo hauek aipa ditzakegu: “Plan 14”tik zetozen irakasle- belaunaldi berriak; irakaskuntzaren profesionalen erakunde sindikalak; Altsasun, Irurtzunen, Lizarran, Agoitzen, Tafallan eta Lerinen egindako formakuntza ikastaroak; Nafarroako liburutegi ibiltaria, garai horretan (1921-1931) Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzak sustatutakoa.

1930eko otsailean Lerinen egindako “Ikastaro pedagogikoa” probintziako prentsak gehien nabarmendu zuen ikastaroa izan zen. Ernesto Marcos ikuskaria eta Mariano Sáez Morilla Normaleko irakaslea izan ziren antolatzailerak, Nafarroako Irakasle-Lanaren Elkarte Probintzialaren laguntzarekin. Ikastaroan egindakoa “Plan y Programa de la Primera Enseñanza” liburuan argitaratu zituzten ondoren. Mariano Sáez Normaleko irakasleak hitzaurrean aitortzen zuen bezala, Nafarroako maisu-maistrek azaldutako aurkezpen

Espainiako *Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an Lerinek 355 ikasleko eskola-errola zuen, lau eskola-unitatetan banatuta: mutilentzako bi eta neskentzako beste bi. Ikasle kopuru handiari aurre egiteko, Udalak eskola-multzo berria eraikitzeke agindua eman zuen, “Primo de Rivera Eskola Nazional Graduatua” izenekoa. 1928ko abenduaren 9an ireki ziren. Eskola-multzoak sei unitate zituen, maisu-maistrentzako etxebizitzak eta bestelako aretoak, sekulako gimnasioa esaterako. Víctor Eusa arkitektoak diseinatu zuen. Eraikin berriak haur eskolako hezkuntza osatu zuen, Santa Anako Ahizpen zuzendaritzapean zegoena 1909tik, eta baita Ikastetxe Pribatuarena ere, 1926an ireki zena. 1968an Eskola-multzoa atxikitako beste eraikin batekin handitu zen. 1985ean eraberritu zen eta bere izena aldatu zuen. Geroztik, HLHIP “Doña Blanca de Navarra” izena du.



didaktikoak berritzaileak izan ziren eta metodologia aktiboa eta metodo didaktiko berriak zabaltzeko baliagarriak izan ziren:

“Oraingoz, “Ikastearen Pedagogiak” “Irakastearen Pedagogia” klasikoa ordezkatzen ari dela argi ikusten da. Umeak ikasi behar duena maisu-maistrak irakasteko duen ikuspuntuaren gainetik dago”⁴⁴.

Ikastaroa baliagarria izan zen irakaskuntza aktiboaren aldekoak ziren Nafarroako zenbait maisu-maistrek euren proposamen didaktikoak, antolakuntzakoak eta metodologikoak aurkezteko. Ikastaroan azaldutako programak, lezio-tipoak, gauzen inguruko lezioak, etab, Nafarroako geografiako beste sektore batzuetara iritsi ziren. Ondorengo txostengile hauek azpimarragarriak izan ziren: Vicente Navarra Faltzesko Eskola Nazionalako zuzendariaren “Ura 10-11 urteko haurrentzako edari gisa”; Enrique Goicoa Aribeko eskola nazionalako maisuak “Espainiako iparraldeko eskualdea” izeneko txostena aurkeztu zuen; Ernesteko Marcos Rodríguezek, Hezkuntzako ikuskaria, “Esnea 7 urteko haurrentzat” izeneko txostenari buruz hitz egin zuen; Justo Labiano, Peraltao maisuak “11 eta 13 urte arteko haurrentzako azaleko neurriak” aurkeztu zituen; Julián Lapuente Arbizuko maisu nazionalak “2. mailako haurren eskola-zenbaketaren ezagutzaren berrikustea” aurkeztu zuen; Toribio Láinez Gilek,

44. Plan y Programa de la Primera Enseñanza, 6. or.



Lerineko eskolako maisua eta ikasleak, 1930. Agustín Garnicak utzitako argazkia.

Cintruenigo maisuak: “Edateko ura, ur destilatua”; Gerardo Ábrego Amezketa-tako maisu nazionalak: “Intsektuak 11 eta 13 urte arteko haurrentzat” eta Narciso Ripa Irunberriko maisuak: “12 eta 13 urte arteko haurrentzako liburukiak”.

Garai horretan zehar alde handia egon zen landa-eskolen eta hiriko eskolen artean, bai eta publikoen eta pribatuen artean ere.

Pribatuak selektiboak izan ziren eta berrikuntza pedagogikoak eta zerbitzu hobeak txertatzeko baliabideak zituzten.

Aldiz, eskola publikoek, gehienak landa-eremuetan zeudenak, ez zuten baliabide nahikorik, ikasleak ikasgeletan pilatuta zeuden eta, ondorioz, salbuespenak salbuespen, ez ziren hain harkorrak izan hezkuntza arloko aldaketak txertatzeko eta sustatzeko.

Nafarroako ikastetxe erlijiosorik garrantzitsuenak ondorengo hauek izan ziren: Tuterako Jesuitak 1601, Iruñeko Eskeko Moja Dominikak 1873, Los Arcoseko Karitatearen Alabak 1828, Tuterako Mariaren Konpainia 1687, Tafallako Eskolapioak 1883, Lekarotzeko Kaputxinoak 1888, Iruñeko Domingotarrak 1915, Iruñeko Jesusen Alabak (Teresianak) 1918, Iruñeko Marista Anaiak 1903, Tafallako Gurutzearen Alabak 1888, Alesbesko Aita Karmelitak 1893, San Jose-ren Alabak 1895, Sortzez Garbiaren Alabak 1876, Iruñeko Ursulatarrak 1894, Sorkundearen Amak 1904, San Vicente Paulen Alabak 1900, Buñueleko Ama

Lekarotzeko “Nuestra Señora del Buen Consejo” Kaputxino Aiten Eskola Erlijosoa Llevaneras aitak sortu zuen 1888ko apirilaren 22an, eraikitzeo materialetan zein lursailetan jasotako hainbat donaziori esker. Ikastetxea “Espainiako eta itsasoz bestaldeko misioetan Apaiztegi Serafiko Kaputxinoa” izateko sortu zen. 1962an sute bat egon zen eta horrek ikastetxe berria azkar eraikitzeo beharra ekarri zuen, 1967an ireki zena. Baina, garai oparo baten ostean, ikastetxea itxi behar izan zuten fraile kaputxinoen eskasiarengatik. Zentroak baliabide material eta didaktiko modernoak zituen, Historia Naturalerako edo Fisikarako laborategiak esaterako eta baita eguneratutako hainbat gailu ere. Egun, Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea eta Gazteentzako Aterpea daude bertan. Ikastetxeko ikasgela bateko argazkia, Aita Kaputxinoen Artxiboak utzitakoa, 1910.



Frantziskotarrak 1910 eta Cascanteko Ahizpa Karmelitak 1864. Baziren zentro pribatuak ere, Iruñeko Huarte Anaien Ikastetxea edo Tuterako Vizcaíno Ahizpen Ikastetxea, esaterako. Zentro pribatu horiek dirudunen artean izan zuten garrantziarik handiena.

XX. mendeko lehen herenean aurrera eraman ziren neurri horiek direla eta, bi gauza egiazta ditzakegu. Alde batetik, alor pedagogiko, sozial eta legegilean haurtzaroarekiko zaintzan eman ziren hobekuntzak. Eta, bestetik, Nafarroako jendarteak hezkuntzarekin agertu zuen sentsibilizazio soziala eta eskolako postuetan, pribatuetan zein publikoetan, eskaera handia ekarri zuena.

45. Honen harira, goraipatu behar da Lekarotzeko (1851) Joaquín Plaza Iturraldearen lana. Lekarotzeko eta Arraitzeko maisua izan zen eta Llevaneras aitarekin batera Ikastetxea sortu zuen, donazioak kudeatuz, lursailen lagatzea negoziatuz eta, bere diruarekin, Ikastetxeko kaputxinoen hilerria ordainduz.



Maristak 1903an iritsi ziren Iruñeara. Alokaturako hainbat lekutan egon ostean (Nabarrera 21., Eslaba 1. eta Sarasate Pasealekua 15.) euren ikastetxea eraiki zuten Navas de Tolosa kaleko 29. zenbakian, "San Luis" Ikastetxea deiturikoa. 50ko hamarkadaren bukaeran, San Luis ikastetxea eraitsi eta Maristek ikastetxe berria eraiki zuten Galizia Etorbideko lursailean. 1958an bukatu zuten eraikuntza eta 1960ko maiatzean ireki zuten. Egun, Maristarren "Santa María la Real" Ikastetxea berriro ere lekuz aldatu dute eta Sarrigurenera eraman. Argazkian, Iruñeko San Luis Ikastetxeko Anai Maristak ikus ditzakegu, 1922. Anai Maristen artxiboek utzitako argazkia.



Domingotarrak Atarrabiara 1915ean iritsi ziren eta Berrio-Ochoako eskolatan instalatu ziren (Apaiztegi Misiolaria), "Besta Jira" kasino zaharra zegoen lekuan. Bertan, 1924ra arte egon ziren. Ikastetxean Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza irakasten zuten, baina soilik mutilei. Flores aita Lehen Hezkuntzako arduraduna zen eta Celestino aita Bigarrenekoa. Ondoren, 1943an eraikitako zentro berri batera joan ziren. Atarrabiako bestelako irakaskuntza erlijiosoa "Amor de Dios", "La Presentación" eta "Sagrado Corazón" (Erreparaziokoak) ikastetxeek osatzen zuten. Argazkian Atarrabiako Domingotarren Ikastetxeko ikasleak eta irakasleak ikus ditzakegu. Atarrabiako Udalaren argazki Artxiboek utzitako argazkia.

HOJA DE SERVICIOS

Provincia de Navarra Escalafón de Maestros de Escuelas Públicas

Número 113 EN 2 del Escalafón general. Categoría _____ Heber anual de _____ pesetas.
26.794 (1) _____ Escalafón.

D.ª Josefina Arza Larrea
 natural de Lizasoain (Navarra) nacido en 8 de marzo de 1914
 Edad _____ años, posee título de Maestra Nacional de Primaria en Lizasoain expedido con la nota de _____ en 31 de Octubre de 1934, y se halla registrado en esta Sección al folio _____, núm _____ del libro _____ correspondiente.

Otros títulos que posee: _____

Medrid.-Editorial Iberoamericana, S.A., Mod. 743

DESTINOS <small>que desempeña o ha desempeñado en el pueblo y provincia que se expresan</small>	FORMA <small>en que obtuvo la Escuela</small>	SUELDO		FECHAS									SERVICIOS											
		Pesetas	Cts.	DEL NOMBRAMIENTO			DE LA POSESION			DEL CESE			EN LA CATEGORIA		EN PROPIEDAD		INTERESOS							
				Día	Mes	Año	Día	Mes	Año	Día	Mes	Año	Clase	Grado	Día	Mes	Año	Día	Mes	Año				
Lizasoain (Alfaro)	Interina	3,000		1	Marzo	1932	3	Marzo	1932	31	Marzo	1932								2	11	28		
La misma	Mejora sueldo	5,000		22	Enero	1940	1	Enero	1940	13	Febrero	1940										8	13	
Mues (Masera)	Propietaria	5,000		16	Septiembre	1942	1	Agosto	1942	31	Febrero	1943				1	5							
Mendaza	Suplente	5,000		26	Enero	1944	1	Enero	1944	31	Febrero	1944				1	"							
La misma	Ascenso	6,000		22	Enero	1945	1	Enero	1945	6	Noviembre	1945	Pro.			"	10	6						
Id.	5-1-45 licencia	3 meses		7	Febrero	1946	30	Septiembre	1946							"	7	25						
Mues (L. Masera)	Propietaria	6,000		28	Septiembre	1946	1	Octubre	1946	31	Febrero	1946				"	3	"						
La misma	Ascenso	7,200		10	Noviembre	1947	1	Enero	1947	31	Febrero	1948				2	"							
La misma	Ascenso	8,500		26	Abril	1949	1	Septiembre	1949	31	Agosto	1950				1	8							
Lizasoain (Masera)	Propietaria	8,500		6	Junio	1950	1	Septiembre	1950	31	Febrero	1950												
La misma	Mejora sueldo	10,760		16	Marzo	1951	1	Enero	1951	31	Febrero	1951				3	"							
Id.	Ascenso	16,000		19	Julio	1954	1	Enero	1954	31	Marzo	1954				2	5							
Id.	Mejora sueldo	18,420		25	Junio	1956	1	Junio	1956	31	Febrero	1956				2	7							
Id.	Ascenso	23,700		28	Abril	1959	1	Enero	1959	31	Febrero	1959				1	"							
Id.	Mejora sueldo	25,620		24	Febrero	1960	1	Enero	1960	31	Agosto	1960				"	8							
Agaita (Lizasoain)	Propietaria	25,620		11	Agosto	1960	1	Septiembre	1960	30	Septiembre	1961				1	9							
Id.	Ascenso	27,600		30	Noviembre	1961	1	Octubre	1961	30	Septiembre	1962				4	"							
Id.	de Retiro	78,694 sueldo p. trienio		1	Octubre	1964	31	Octubre	1964							1	1							
Id.	8 trienios	102,336		2	Noviembre	1964	1	Noviembre	1964	31	Febrero	1964				"	2							
Id.	de Retiro	107,296		25	Noviembre	1964	1	Enero	1965	31	Agosto	1965				1	8							

Suma y sigue

1.º ó 2.º Escalafón.

Zerbitzu Orrian irakaslearen lan-bizitza agertzen zen eta legezko agiri gisa erabiltzen zen lekualdatze lehiaketetan eta erretiroan. Orri horren erabilera XIX. mende amaieratik dator.

6. MENDE HASIERAKO ESKOLA

XX. mende hasierako Espainiako eskolak oraindik ere osasungaitzak, anakronikoak eta pedagogiaren kontrakoak ziren. Eskolak ez ziren heziketa-prozesua aurrera eramateko prestatutako eraikinak, lokal batzuk baizik eta ondorioz, orokorrean, ez zeuden behar bezala egokituta.

Eskolen erradiografia hori, gehiegizkoa eta katastrofista eman arren, baieztatu egin zen mende hasieran Nafarroako eskolen egoerari buruz Instrukzio Publikoko Ministerioak eta Nafarroako Foru Aldundiak argitaratu zuten txostenean.

Espainiako Lehen Hezkuntzaren (landa-eskolak batez ere) egoerari buruzko lehenengo erreferentzia Instrukzio Publikoko Ministerioaren 1899ko *Informe sobre la Enseñanza Primaria*-n aurki dezakegu. Txostenean, hauxe esaten zen hitzez hitz:

“[...] 30.000 dira, gutxi gorabehera, Lehen Hezkuntzako eskolak. Ez dira asko; ezta gutxi ere. Baina, a zer nolako eskolak diren gehienak! Ukuilu kalamastrak eta soldatarik jasotzen ez duten maisu-maistrak! Oso gutxitan joaten dira ikasleak eskolara, milioi erdi ikasle baino ez, eta horietariko gutxi batzuek baino ez dute irakurtzen eta idazten [...]”.

Bestalde, Nafarroako Aldundiak, Nafarroako eskolen benetako egoera ezagutze aldera, 1902an maisu eta maistrei eta Tokiko Batzordeei galdetegi bat bidali zien.

Emaitzak baloratzeko arduraduna Florencio Onsalo Uroz Nafarroako Hezkuntzako Administrazio Saileko burua izan zen. Onsalok egindako txostenean argi agertzen da Nafarroako eskola-eraikinen %80 botatzeko moduan zegoela, lokal antihigienikoak baitziren. Horietariko gehienek ez zuten komunik eta komuna zegoen eskola gutxi horietan oso egoera txarrean zegoen.

XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran, Funesek Udaletxe Enparantzan zeuden bi eskola zituen, egun liburutegia dena. Lehenengo solairuan nesken Oinarrizko Eskola zegoen eta, gainean, mutilena. 30ko hamarkadan "Sancho el Noble" Eskola Nazionalak eraiki ziren eta 1932an abiarazi ziren. Haur eskola 1920. urtean hasi zen. Irudian Funeseko mutilen eskolako ikasleak ikus ditzakegu, Román Mintequiaga Garbayo maisuarekin, herriko elizaren atarian. 1890. Cintruenigoko "Proyecta, Comunicación y Marketing" enpresak utzitako argazkia.



Eskola gehienek ikasgela gisa erabiltzen zen gela bakarra zuten eta oso txikiak ziren hara bertaratzen ziren ikasle guztiak barne hartzeko. Gainera, sabaiek hiru metroko altuera baino gutxiago zuten. Ohikoa zen ikasgelaren ondoan kartzela edo animalien hiltegia egotea. Egoera hobean zeuden eskola-erakinak Tafallako eta Tuterako zonaldeetan zeuden eta egoera kaskarrean zeudenak Agoitzeko barruti judizialekoak ziren.

Probintziako eskola publikoen eraikinak 535 ziren, horietatik 474 udal-takoak edo diruz laguntzen zituzten fundazioetakoak eta 61 alokatutakoak. Horietatik 124 ontzat jotzen ziren, 93 ertainak eta 86 txarrak. Onsalok uste zuen maisu-maistrak oso onberak izan zirela eskola-erakinak baloratzekoan eta zientzia pedagogikoen inguruan ezarritako arauen ezjakintasunari eta euren uste propioei leporatu zien balorazio hori. Onsaloren ustez, maisu-maistrek eurenak baino okerrago zeuden eskolak hartu zituzten erreferentziatzat.

Materialak oso urriak ziren, egoera txarrean zeuden eta zaharkituta. 1902-03 ikasturtean eskola-materialean inbertitutako kantitatea ez zen nahikoa izan Onsaloren aburuz. Aldundiak 59.849,06 pezeta eman zituen, hau da, 1,50 pezeta urteko eta ikasleko. Aurrekontu makal horrekin, oinarrizkoa eta suntsikorra zen materiala baino ezin zuten erosi. Aldiz, ezin zituzten testuliburuak edo eskolako altzariak berritu, jada zaharkituta eta urratuta zeudenak.

Mende hasieran, 623 eskola zeuden, gehienak unitarioak, eta horietan 645 maisu eta maistrek lan egiten zuten. Eskola horietatik 63 pribatuak ziren eta 11 erlijiosoak.

Hezkuntzako Administrazioak Irakasleen ezegonkortasunari ere aurre egin behar izan zion garai horretan. 1902-03 ikasturtean martxan zeuden eskolen %20 guztiz edo zati batean itxita egon ziren irakaslerik ez zutelako eta irakasleak zituzten eskola horien % 25 beren langileak aldatu zituzten ikasturtean zehar.

1902an matrikulatutako irakasleak 38.262 ziren. Horietatik 19.720 mutilak ziren eta 18.542 neskak. Eskolako asistentzia %66,8an zegoen. 24 ikaslara iristen ez ziren 44 eskola zeuden eta 69k ikasgelako 100 ikasle baino gehiago zituzten. Onsalok, bere txostenean, esaten zuen: “Nola liteke maisu edo maistra batek 100 haur bere gain hartzea eta euren garapen fisiko, intelektual eta moralaz arduratu behar izatea?”

Irakaskuntzaren inguruko emaitzak zirela eta, Onsalo ez zetorren bat Tokiko Batzordeek Aldundiari bidali zizkieten galdetegietan egindako balorazioarekin. Izan ere, galdetegietan jakitera eman zuten soilik 45 eskolatan emaitzak urriak edo baliogabeak izan zirela, eta horietariko 35etan emaitzak ez zirela arruntetik pasa. Garai horretako irakaskuntzaren alderdi ezkorrak askotarikoak ziren eta irakasleen mugikortasun handiarekin, irakasle falta edo epidemiak zirela eta eskolak ixtearekin, ikasleen bertaratze irregularrarekin, eskola-eraikin egokien faltarekin, material eskasiarekin eta memorismoan eta errepikapenean ainguratutako metodologiarekin lotzen ziren.

XX. mendearen lehen herenean hasitako hezkuntza-praktiken modernizazio pedagogikoa zenbait eskoletako itxura aldatzen joan zen, eskola gehienek oso oinarrizkoak ziren hezkuntza-praktikak eskaintzen jarraitu zuten arren.

ILEko ideia berritzaileak, Madrilako Museo Pedagogikoaren bidez emandakoak, urriak eta motelak izan ziren eta ez zuten maisu eta maistren asmatu eta kultura enpirikoa ordezkatu.

XX. mendearen lehenengo hamarkadako klaseak XIX. mende bukaerako antzekoak ziren. Ikasgeletako paretetan oraindik ere silabarioaren horma-irudi handiak, arau moralak, batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa taulekin lan egiteko taula zenbatzaileak eta Espainiako historiako eta Historia Sakratuko irudiak zintzilikatzen ziren. Arbelak egurrezko astoetan jartzen ziren, mahaiak luzeak ziren, tintontziak sartzeko zuloekin, eta jarleku luze zuriak zeuden hiru, lau, bost eta baita 10 ikasle ere horietan esertzeko. Ikasleen aurrean, irakaslearen oholtza zegoen eta, horren atzean, gurutzea, Sorkunde Garbia, Estatuko Buruaren erretretatua eta egunero sartzean eta ateratzean errezitatzen zituzten otoitzak.

Irudian Ziraukiko eskola ohia ikus dezakegu. Argazkian antzeman dezakegun bezala, sarrerako atean, eskuinaldean, eskolako ezkutua zegoen. Eskolaren egoera tamalgarria zela eta, Ziraukiko Udalak, Aldundiaren laguntzarekin, eskola berriak eraikitzea erabaki zuen. 1963ko irailaren 16an ireki ziren. Eraikinak 5 ikasgela zituen, 2 mutilentzat, 2 nesKentzat eta haur eskolarako beste bat. Maisu-masitrentzako etxebizitzak ere baziren. Inaugurazio ekitaldian, agintariez gain, zentroko 150 ikasleak egon ziren euren maisu eta maistrekin: Carmen Altares, María Pilar Nuin, Cecilia Aguinaga, Epifanio Goñi eta José María Hermoso de Mendoza.



Pablo Antoñana idazle ospetsuak, San Frantziskoko Eskolen 100. Urteurrena zela eta izan genuen elkarrizketa batean, XX. mende erdialdeko Nafarroako eskoletan zegoen utzikeriari buruz ondorengo hau esan zidan:

Espartzan (Zaraitzun) apurtutako beirak zituzten leihoak zeuden eta negua iristean paper zatiak jartzen zituzten hotzetik babesteko (...) El Buston (Lizarraldea), osasungaitza eta antihigienikoa zen eraikin bat topatu nuen: leihoak oso-oso estuak ziren, horietatik nekez sar zitekeen argi naturala (...) Ablitaseko eskolako atea ez zuen sarrailarik eta horren ordez giltzarrapo bat zegoen (...) Viana, Azuelo eta Ziraukiko eskoletan paretak zarakartsuak ziren eta baldintza oso txarrean zeuden.

Garai horretako lehenengo urteetan eskolara joan zirenen testigantzek adierazi zidaten curriculumak tradizionaltzat hartzen ziren diziplinek osatzen zutela (irakurketa, idazketa eta lau arauak), erlijioarekin batera eta nesken kasuan, joste-lanekin. Beste ikasgaiak, berrienak, apenas ematen ziren. Unamunorentzat, mende hasierako eskola, “oinarrizko eskola eskasa eta xumea zen, berehalako kirurgia eta babes morala, materiala eta zientifikoa behar zuena”⁴⁶.

Orain arte landu dugun garai horretan irakasteko modu berriak eta material berriak sortu ziren eta curriculumeko irakasgai guztiak eman ziren.

46. J. M.^a HERNÁNDEZ DIAZ, *La humilde escuela primaria en la Salamanca de Unamuno*, 224. or.



Iruñeko San Frantzisko Eskoletako ikasgela bat, 1929. San Frantzisko Eskolak utzitako argazkia.



Legardako (Izarbeibar) eskola zaharreko ikasgela. Erdian Legardako eskolako ikasleak ikus ditzakegu: Cecilio Larumbe, Joaquín San Martín eta José Luis Villanueva. Atzean, xix. mendeko zenbait tresna eta material, esaterako Isiltasunaren eta Ahaleginaren koadroa, Ohorearen eta Desohorearen koadroak, esaldi moralak eta irakaskuntzarekin lotutako hainbat irudi. Irudia Casa Primak utzitakoa da.



1908ko urtarrilaren 25eko Errege Dekretuak eskola-erakin guztietan armarrri nazionala jartzeko eta bandera jasotzeko betebeharrak ezarri zuen. Argazkian Kasedako mutilen eskolan jarri ziren Espainiako banderaren eta ezkutuaren bedeinkatze ekitaldia ikus dezakegu, 1924. Bandera zeraman ikaslea Pablo Larraz Apesteguía zen. Luis Solak utzitako argazkia.

6.1. Irakaskuntzarako materialaren berritzea

1901eko urriaren 26ko Dekretua, Lehen Hezkuntzako irakasgaien edukiak gehitzeko argitaratu zena batez ere, garai horretako beste berrikuntza aipagarri bat da. Lehen Hezkuntzarako ezarritako irakasgai berriak Moyano Legeak oinarrizko hezkuntzarako aurreikusten zituenak ziren. Gainera, bestelako irakasgaiak ere lantzea proposatzen zen: eskulanak, gorputz ariketak, kantua, higienezaren eta gizakiaren fisiologiaren oinarrizko ezagutzak. Irakaskuntza hiru mailatan banatzen zen: haurrentzako heziketa, oinarrizkoa eta goi-mailakoa.

Bestalde, curriculumak zabaltzeak izaera birsortzailea zuten helburuak, edukiak eta jarduerak curriculumean txertatzeko aukera eman zuen. Eduki horien artean ondorengo hauek nabarmentzekoak dira: “balio aberkoien gorespena”, Lehen Hezkuntzan lantzen saiatu ziren balioak izan ziren eta eskola nazional izena eskolei eman zitzaizkien; bandera eta ezkutu nazionala eskola-erakinetan jartzeko derrigorotasuna; eskolan ereserki aberkoiak abestea; Kixote derrigorrez irakurri behar izatea; gorputz heziketa eskola-programan txertatzea; Aberriaren Liburuaren hedapena; aurreztearekin lotutako edukiak lehenestea eta Zuhaitzaren Festa ospatzea. Neurri horiek agintariak eskolako jardura guztietan izaera nazionala txertatzeko zuten nahia islatzen zuten, Aberriaren birsokuntzarako pizgarri izango zirenak.

Aldarrikapen aberkoien testuinguru horretan, 1910ean, Iruñeko Udalak Santiago Gadearen “Catecismo Patriótico. La jura de la bandera” liburuaren 50 ale eskuratu zituen, eta bukaerako azterketetan domina lortzen zuten ikasleentzat banatzeko eskoletara bidali zituen.

1924an, Itzaltzuko (Zaraitzu) maisuak bandera nazionalik ez zuenez, herritarren artean funtsak jaso zituen eskolarako bandera bat erosi ahal izateko.

Berritasun pedagogiko horiek guztiek Instrukzio Publikoko Ministerioa irakaskuntzarako material berriak sortzera eraman zuen, bai eta irakasle-lana egiteko plan berriak diseinatzea ere, gaitasun profesionala hobetze aldera. Plan berri horiek gorenera iritsi ziren 1914an Maisu eta Maistrentzako Ikasketen Benjamín Plana onartu zenean.

Eskolako materialei dagokienez, garapena oso motela izan zen. Aurreko mendeko eskuizkribuak eta testuliburuak, jarlekuak bezalaxe, kontsultatutako inbentario askotan agertzen dira oraindik ere.



Ororbiako mutilak Domingo García Chueca maisuarekin, gimnasiako taula bat egiten. 1924. Ororbiako Kontzejuak utzitako argazkia.



Sartagudako "Cristina de Arteaga" Eskola Nazionaleko ikasgela. Paretan aberria goraiatzeko esaldia ikus dezakegu, erlijioarekin batera, Primo de Riveraren diktaduraren oinarritzko bi ardatzak izan zirenak. 1930.

Hala ere, “XIX. mende erdialdean hasitako modernizazioak eta eskolako ekipamendurako industriaren garapenak arrazionaltasun, funtzionaltasun, aniztasun eta moldagarritasun maila altuak lortu zituzten”⁴⁷.

Irakasle-lanak kontzeptu pedagogiko berriak garatzen eta irakaskuntza graduatua egonkortzen zituen heinean, eskola-material berriak agertu ziren, bai eta sail-ziklikoak, hastapen-liburuak eta irakurketa intentsibokoak eta liburu espezifikoak ere.

6.1.1. Sail-ziklikoak, hastapen-liburuak eta irakurketa trinkokoak eta liburu espezifikoak

XIX. mende amaieran testuliburuak urriak ziren eta oso ezagunak ziren testuak berrargitaratzera mugatu ziren. Gurasoek erabili zituzten testuliburuekin ikasten zuten seme-alabek (noski, edizio ezberdinetakoak ziren). Erabiltzen ziren oinarritzko testuak silabarioei, katoiei, kristau-ikasbideari, idazketa laginei eta irakurketa liburuei zegozkien. Kontsultatutako inbentarioen artean oraindik ere Erregimen Zaharreko liburuak aurki ditzakegu: Olivanen *El libro segundo de la Junta Superior de Educación*, *Guía del artesano*, *Guía de la mujer*, *El libro de los niños*, *Manual de agricultura*, Velascoren *Historia Sagrada*, Parravicinire *Juanito*, Callejaren *El pensil de las niñas*, *El pensamiento infantil*, etab.

Sail-ziklikoak hiru mailetarako eta laburpena, sintesia eta tratatua lantzeko zailtasun eta sakontasun jarraia zuten sekuentzia gisa aurkezten ziren liburuak ziren. Batez ere gramatika eta matematikak irakasteko erabiltzen ziren.

20ko hamarkada erdialdean argitaratutako **hastapen-liburuek**, euren eduki eta metodologian, irakurketaren eta idazketaren aldi bereko ikasketak jasotzen zuten: Rodríguezen *Rayas*; Dalmauren *El primer manuscrito*; *El Camarada*; Seijasen *Catón metódico*; Arocaren *Catón*, Calleja argitaletxekoa; Homsen *Cartillas*, Hernandoren *Blanco, Norma y Tutor*; *El silabario*; Iturzaeta, Caballero eta Hernando laginak eta kaligrafia koadernoak. Testu horiek guztiek, Fleuriren eta Astete Aitaren *Catecismo histórico*-rekin batera, hastapen-material ospetsuenak izan ziren.

47. A. COSTA RICO, *El ajuar de la escuela. Escuela Ilustrada de la escuela en España*, Escolano, 2006, 209.or.



Irakurketa trinkoko testuliburuaren ugaritzeak, Espainiako Calleja, Paluzie, Hernando, Dalmau, Seix Barral, Hijos de Santiago Rodríguez, eta Nafarroako Aramburu argitaletxeen bidez zabaltzen ari zirenak, irakurketan jada hasitako ikasleen irakurketa-garapena ahalbidetu zuen. Gainera, tresna baliotsua izan ziren curriculumean ezarritako irakasgai berriak irakasteko. Irakasgai aipagarrienak gizalegea, filosofia eta higiena, natur zientziak eta geografia eta historia izan ziren. Horien inguruan hainbat material, interes-gune eta bestelako metodologiak sortu ziren, poliki-poliki curriculumena txertatzen joan zirenak.

Interes pedagogiko handia dute giza gorputzaren eta higienearen inguruan sortu ziren liburuak, horma-irudiak eta laminak: Ascarzaren *El hombre*; Hernando eta Dr. Lelievrearen piezetako *Atlas de anatomía*; Ascarzaren eta Monlauren *Nociones de fisiología e higiene*; harri-kartoizko piezak giza gorputza zatika banatzeko; Dalmauren bildumak eta alkoholismoaren, tabakismoaren, paludismoaren, tuberkulosiaren... inguruko irudiak materialik adierazgarrienak izan ziren.

Natur zientziek ere garrantzia handia izan zuten eskola-dukietan. Paretetan zintzilikatzen zituzten irudiek eta horma-irudiek, laborategiek, gailu teknologikoek, eskola-museoek eta natur zientzietako bulegoek ikasleei fosilen, landareen, mineralen eta intsektuen askotariko bildumak eskaintzen zizkieten. Natur Zientzien irakaspenerako erabilitako testuliburu esanguratsuenen artean ondorengo hauek daude: Dalmauren eta Colomben *Lecciones de cosas*; Xandriren *Los centros de interés*; Ascarzaren *Cielo, Zoología y Botánica*; Espasa Calperen *Libros de la naturaleza*; Charentónen *Las ciencias en la escuela* eta Osésen *La vida, el mundo y sus cosas*.

Geografia irakasteko gehien erabili ziren baliabideak mapak eta esferak izan ziren. Kontsultatutako inbentario guztietan probintzietako mapen askotariko ereduak, mapa nazioanalak eta munduko beste lekutakoak, planisferioa barne, aurki ditzakegu. Ibarlucearen Nafarroako mapa nahiko zabaldua zegoen probintzian zehar. Erabilienak Vidal, Lablache, Paluzie, Dalmau eta Seix Barralena izan ziren. Cintruenigoko mutilen Eskola Graduatutako zuzendaria zen Toribio Láinez Gilek egindako mapa mutuak asko gomendatu zituzten Lerinen egin zen maisu-maistren ikastaroan, mapa horien eduki pedagogiko bikaina baitzen. Lur-globoak askotariko forma, tamaina eta materialetakoak ziren. Aldiz, esfera armilarrak, arbelezko esferak, astrolabioak eta telurioak ez ziren inbentario guztietan agertzen.

Historiaren irakaskuntzarako irudiak eta mapa historiakoak erabiltzen ziren. Saturnino Callejaren irudiak gure probintzian gehien erabili zirenak



Mapa de Navarra, Dionisio Ibarlucea y Unchalo⁴⁸ Lizarrako maisuak egindakoa, eta *Compendio de geografía de Navarra*, Geografía ikasteko, Nafarroako eskoletan eta ikastetxeetan erabilitako materialak izan ziren. *Compendio de Geografía de Navarra* Leonardo Rojas Goicoechearen erromantzea agertzen da: “La noble y antigua Vasconia”, Nafarroako ikasleek ozen irakurtzen edo abesten zutena XIX. mendean zehar eta XX. mendean hasieran.

izan ziren. Era berean, erlijioaren, Historia Sakratuaren eta kristau-ikasbidearen inguruko material asko sortu zen. Inbentarioetan horien inguruko material asko agertzen da, esaterako Saturnino Callejaren *Láminas de Historia Sagrada* edo aginduen, sakramentuen, zeruaren eta infernuaren eta bekatu nagusien inguruko irudiak, adierazkortasun eta kolore bikainekin. Baliabide horiek guztiek “irudi batek mila hitz baino gehiago balio du” axioma berreszten zuten.

48. Dionisio Ibarlucea (Lizarran, 1831 - Bilbo, 1903). Oinarrizko eta Goi-Mailako maisua. Lizarran hasi zen lanean eta ondoren Logroño, Iruñeko eta Bilboko Eskola Normaletako irakaslea izan zen. *El amante de la Infancia* aldizkariaren sortzailea izan zen. 35 argitalpen baino gehiago argitara atera zituen. Horien artean, aipagarrienak: *Compendio de la Historia de España*, *Compendio de Historia de Navarra*, *Nociones de Historia Sagrada*, *Nociones de agricultura*, *Nociones de urbanidad*, *Silabario*, *El sol de la infancia*, *Gramática para niños*, etab. Behin baino gehiagotan saritu zuten testuliburuaren inguruan egindako lanarengatik.



Historia irakasteko Saturnino Callejak argitaratutako irudia.



Irakaskuntza aktiboak eskoletan maneiatu zitezkeen materialak txertatu zituen, esaterako "Gizon zatigarria" eta giza gorputzaren inguruko hainbat irudi. Cadreitako Eskolako Museoa.



Liburu espezifikoak: entziklopediak, gizalege-liburuak eta eskola-eskuizkribuak.

Entziklopediak xx. mendeko 20ko hamarkadan erabiltzen hasi ziren. Maila zehatz bateko irakasgai guztiak barne hartzen zituzten eskuliburuak izan ziren. Calleja, Carlos Dalmau, Martín Alpera, Cami, Hijos de Santiago Rodriguez, Ascarza eta Solanarenak izan ziren erabilienak Nafarroako eskoletan eta oinarritzko mailaren, maila ertainaren eta goi-mailako mailaren arabera sailkatuta zeuden.

Gizalegeari buruzko liburuak xviii. mendean hasi ziren erabiltzen. Ikaske-ta-planaren irakasgai berezia zen garai horretan. xix. mende bukaeran eskoletara mutilentzako eta neskentzako ohitura onen liburuak iritsi ziren, eta ikasleei moralitatearen, bertutearen eta zenbait protokolo eta higie-ne jarraibideren inguruko arauak azaltzen zizkieten. Une bakoitzean izan beharreko jarrera egokia edo mahaian, bisitetan edo elizan nola jokatu behar zuten oso argi azaltzen zuten liburuak eta binetek, eta maisuek eta maistrek asko erabili zituzten euren ikasgeletan. Gizalegeari buruzko tratatu berezi horiek beti eskura izan zituzten aberatsenek. Baina Estatuak hezkuntza hiritar guztien artean zabaldu zuenean, arau horiek eskolan ere sartu ziren. Oztantasuna, esanekotasuna eta ordena sozialari errespetua liburuetan jasotzen ziren eta mutil eta neskei irakatsi behar zitzaizkien.

Eskola-eskuizkribuak xix. mende hasieran erabiltzen hasi ziren eskoletan eta erabiltzeari utzi zioten xx. mende erdialdetik aurrera. *La Guía de la mujer para niñas* eta *Guía del artesano para niños* izan ziren gidarik ospetsuenak gure probintzian. Eskuizkribuek bizitza pertsonal, sozial, zibil eta erlijiosoari buruzko informazio asko jasotzen zuten, bai eta merkataritza-bizitzari buruz ere. Gainera, horiek irakurtzea hezigarria eta moralizatzailea zela uste zuten.

Garai horretan agertu ziren eskola-liburuak ugariak eta askotarikoak izan ziren. Irakasleek eskaintza zabala zuten. Oraindik ere, Nafarroako familia askok garai horretako liburuak gordetzen dituzte. Ondorengo hauek izan daitezke aipagarrienak: *Kixote*, *La cartilla foral*, *Lecturas de oro*, *Cervantes educador*, *Reglas de urbanidad para chicas y para chicos*, Iriarteren *Fábulas*, Samaniegoren *Fábulas*, *Flora*, *El faro de las niñas*, *La niña instruida*, *El ideal de una niña*, *La perla del hogar*, *Alborada*, *El ciudadano*, *Corazón*, *Fábulas educativas*, irakurketarako lehenengo, bigarren eta hirugarren liburua, *Vida y fortuna*, *La escuela y la patria*, *Virtud y patria*, *El mentor*, *Geografía de Navarra* por Ibarlucea, *Economía doméstica*, *España y su historia*, *Joyas literarias*, *El tesoro de las escuelas*, *La cartilla gimnástica infantil*, etab.

Aipaturiko testu horien artean eskoletan derrigorrez “Kixote” eta “Cartilla Gimnástica” irakurri behar ziren.

1912ko urriaren 12ko Errege Arauak, 11. artikuluan, ezartzen zuen maisu-maistrek egunero irakurri eta azaldu behar zirela ikasleei Cervantesen obren pasarteren bat, horien artean bere obrarik garrantzitsuenak. Azkenik, 1920ko urriaren 6an argirataratutako Errege Dekretuan “Kixote” obra eskoletan derrigorrez irakurri behar zela ezarri zen “esaerak, oharrak eta egiak biltzen dituen obra” zelako.

Cartilla Gimnástica Infantil 1924an sortu zen, uztailearen 18ko Errege Dekretuaren bidez. Txartela Armadako Gimnasia-Eskola Nagusiak sortu zuen eta estatu osoko maisu eta maistrei zuzenduta zegoen. Lingen gimnasia suediarrentz bideratuta zegoen eta edukiak ume-jolasetan, gimnasia-hezigarrian, aplikazio-gimnasia, kirol- eta kirol-jolasetan oinarrituta zeuden.

6.1.2. Eskola-tresneria. Eskola-altzarien berriztatzea

XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako eserleku zaharretan 5, 8, 10 edo ikasle gehiago esertzen ziren eta horiek, poliki-poliki, haurren ezaugarri antropometrikoetara egokitzen ziren altzariengatik aldatzen joan ziren.

Berriztapenaren bide horretan, agintariak ekimenak sustatu zituzten material zaharrak ikasleen heziketa-ezaugarrietarako zein ezaugarri fisikoetarako arrazionalagoak, funtzionalagoak eta moldagarriagoak ziren materialekin ordezkatzeko.

Paidologia eta medikuntza adituen arabera, irizpide pedagogiko berrietarako gehien egokitzen zena banakako ikasmahaia zen. Baina, desabantailak zituzten ikasmahaia horiek. Alde batetik, espazio asko izatea eskatzen zuten eta gogoan izan behar dugu garai horretan ikasleak ikasgeletan pilatuta egoten zirela. Bestetik, bi pertsonentzako mahaiak baino garestiagoak ziren.

Hori dela eta, bi pertsonentzako ikasmahaia gehien zabaldu zirenak izan ziren. Altzarien berriztatzea motela izan zen. Frankismoaren lehenengo urteetan, oraindik ere eserleku zaharrak erabiltzen zituzten eskolak zeuden..

Santiago Arnal y Ramos, Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikuskaria, Hezkuntza Administrazioak ezarritako proposamen pedagogiko eta higienistetara eserleku-mahaiak egokitzeko lehenengo eraberritzailenetariko bat izan zen. Mahai-banku bat diseinatu zuen, higie eta pedagogia aginduen onurak ekonomiarekin, soiltasunarekin eta funtzionaltasunarekin lotzeko. Probin-tziako eskola askotan erabili zen bere eredua. Zehazki, 1898an Erriberriko Udalak mahai-bankuak (Arnal sistema) eskuratu zituen herriko eskola publikoeta-

Irudian mahai-bankua ikus dezakegu, Anselmo Argonz iruindarrak diseinatu zuena eta Zaragozako Erakusketan eta Bilboko Lehiaketan saritu zutena.



rako eta Iruñeko Udalak gauza bera egin zuen Kale Nagusiko nesken oinarrizko eskolarako. Nesken mahaiek joste-lanak eusteko gehigarri txiki bat zuten.

Alor horretan egindako beste ekimen bat 1906an Instrukzio Publikoko Ministerioaren arau tekniko-higienikoetara bete-betean egokitzen zen mahai-bankua sortzea izan zen. Lurrera torlojututako bankua zen, taularen eta eserlekuaren arteko distantzia egokiarekin ikasleak erraz sar eta atera zitezten. Eredu horrek, Pellejerias kalean tailerra zuen Aselmo Argonz asmaitzaile iruindarrak esaten zuenaren arabera “eskatzten eta gomendatzen ziren Pedagogia eta Higiene baldintza guztiak betetzen ditu”.

Eredu horretako lehenengo mahaiak ondorengo eskola hauetan erabili ziren: Iruñeko Konpainia kaleko San Frantzisko eskoletan eta Kaldereria kaleko Eskola-Multzoan; Alesbesko Karmeliten Ikastetxean; Garraldako mutilen eskolan eta Untzueko Eskola Mistoan.

Madriko Museo Pedagogikoak gomendatzen zituen bi pertsonentzako mahaiak, eserleku biragarriekin eta lurreko saretarekin, besteak baino gehiago eskatu zituzten eskoletan. Oinak hotzetik eta hezetasunetik babesten zituzten mahai-bankuak ziren.

Bestetik, Eskola Berriko mugimendu paidozentrikoak, ikaslea bere ezagutza propioaren eraikitzaile hartzen zuena, metodologia aktiboak eta anitzak ekarri zituen, bai eta, poliki-poliki, Decroly, Montessori, Freinet... metodo ospetsuen txertatzea ere. Hori dela eta, irakaskuntza tradizionalak protagonismoa galdu zuen eta eskola-zentro berriek euren fisionomia aldatu behar izan zuten instalazio modernoak eta heziketa-espazio berriak txertatzeko. Esaterako: areto-gelak, laborategiak, tailerrak edo museoak. Eskola batzuetan lehenengo gailu elektronikoak jaso zituzten: proiektoreak, irrati-gailuak, laborategiko materiala, etab



Ezkurrako Eskola Mistoko ikasgela, 1956. Ikasmahaiak bi pertsonentzat ziren (Museo Pedagogikoaren eredu) eta 1933an erosi zituzten.

XX. mendearen lehen herenean erabilitako eskola-materialak XIX. mende amaierako inbentarioetan agertzen ziren berak ziren. Beranduago, tresna berriak txertatzen hasi ziren ikasgeletan. Nabarmenenak ondorengo hauek lirateke: erlojua kutxarekin, Alfonso XIII.aren edo Erregeordearen irudia, Pio X.aren edo Pio XII.aren irudia, ezkutu nazionala latorrikozko eskolaren inskripzioarekin, zorrozteko makina, koloretako arkatzak, paperlodia, ikatz-ziriak eta koloretako klarionak, pertsona batentzako edo birentzako mahaiak (Museo Pedagogiko Nazionalaren eredu), mahai lauak lau lekurekin eta banakako aulkiak, hainbat modelotako armairuak, koloretako arbel-ziriak, kartoizko banakako arbelak, Pestalozzi euskarriak altuera ezberdinetako mapa eta irudientzat, egurrean zizelkatutako alfabetoak, letra larriak eta letra xeheak, kartoizko letren kutxa, kalkomaniak, sindetikon hodiak, telurioa, Elzeviriana inprimategiko eta Bartzelonako Camí liburutegiko kosmografoa eta esferak (armilarra, lur planetakoa, zerutarra eta kopernikarra), estalki biragarria zuten beirazko eta eztainuzko tintontziak, baskulak eta sistema metrikoaren koadro berriak, Seix y Barral, Vidal de la Blanche, Saturnino Calleja, Aguilar, Paluzie eta Damaren mapa berriak, Botellaren Espainiako erliebearen mapak eta Dionisio Ibarlucearen Nafarroako mapa, astronomiako irudien bilduma, letoizko pisuen jolas-bilduma, lehorren eta likidoentzako neurriak, figura geometriko ebakigarri arrakalatuen bilduma, egurrezko gorputz geometrikoen bilduma, geometriaren koadro sinoptikoa, zinkeko gaina-



Iruñeko "Catalina Labouré" Ikastetxea.



Telurioak eguzkiarekiko lurraren eta ilargiaren mugimendua ikusteko aukera ematen zuena. Ablitaseko "San Babil" Ikastetxe Publikoko telurioa.



Iruñeko "Vázquez de Mella" Eskola-Multzoan erabilitako mikroskopia.



Iruñeko "José M^a Huarte" Eskola Nazionala.



Iruñeko "San Juan" Eskola Nazionala.

zalen bilduma, kartaboiak, erregelak, marrazketa-lumak, zirkulu erdiak, dm^3 desmuntagarriak, Dalmauren egurrezko kuboen bilduma, fisika eta kimikako bulegoak, zinta metrikoak, historia sakratuaren, nekazaritzaren, historia naturalaren, Espainiako historiaren... irudien bilduma, gaixotasunei buruzko koadroak (tuberkulosia, alkoholismoa, paludismoa, haur hilkortasuna, antibenereoa, baztanga...) arau higienikoen bilduma, hiritartasunari buruzko koadroa, Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako Ministerioak egokitutako kutxatila eskulanetarako, josteko makinak eta idazmakinak, ikus entzuzko baliabideak: proiektzio-argiak, gorputz opakuen proiektorea, gela ilunak, gramofonoak, gramolak, zinematografoak, fonografoak, proiektzio-makinak, etab.



XIX. mendeko eta XX. mende hasierako eskola tradizionalan, eskoletan ikasgela bakarra zegoen eta bi sexuetako ikasleak elkarrekin egoten ziren. "Eskola osatugabeak" esaten zitzaizkien eta maisu edo maistra bakarra egoten zen. Argazkian Añezkarreko Eskola Osatugabeko ikasleak ikus ditzakegu Miguel José Oderiz maisuarekin (1927). 1941ean, Nafarroako Hezkuntza Batzarde Nagusiak eskola osatugabeek "eskola misto" izena jasotzea ezarri zuten, maistrak arduradun izanik. Urte horretatik aurrera, herriko maistra titularra Concha Sarasola Gorricho izan zen eta hogeitaz egon zen bertan. Añezkarreko Kontzejuko argazki-bildumako irudia, Luis Mirandak utzitakoa.



Irudian, 1945ean eraiki zuten Añezkarreko eskola ikus dezakegu. Eraikuntzak 50.000 pezetako kostua izan zuen. Eskola horretara Oteizako, Elkarteko eta Larragetako ikasleak ere joaten ziren. 1975ean, Hezkuntzako Batzarde Nagusiak eskola itxi zuen. Añezkarreko Kontzejuko argazki-bildumako irudia, Luis Mirandak utzitakoa.



Santa Teresako Konpainiaren, "Teresiarren", Ikastetxea Iruñera 1912an iritsi zen. Mesedeetako komentuan sartu ziren, Apezpikuaren enparantzan, eta egunero Irakasle-Laneko Eskolara joaten ziren 20 barneko neska zituen. 1918an, Santa Teresako Konpainia Ezpeletako jauregi zaharrera mugitu zen, Kale Nagusiko 65. zenbakira, eta bertan haur eskolako, lehen hezkuntzako eta batxilergoko eskolak ematen hasi ziren. Eskaera handia zela eta, Ikastetxea txiki geratu zen. Hori dela eta, 1974-75 ikasturtean Ermitagaina auzoko zentro berrira joan ziren. Irudian, Kale Nagusiko Ikastetxe zaharreko ataria.

Madozen arabera, 1847an Arronitzek bi eskola zituen: mutilen eskola, 107 ikaslerekin, eta neskena, 109 ikaslerekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an eskola-errola 218 ikaslekoa zen, bi eskolatan banatutakoak. 1964an eskolak itxi ziren eta ikasleak egun "La Balsa" Ikastetxe Publikoa dagoen Eskola Nazionalerara bidali zituzten. Irudian nesken eskola zaharra ikus daiteke. Egun, mediku-kontsultategia dago bertan.



Arronitzeko mutilen eskola zaharra. Herriko irakaskuntza pribatua "La Milagrosa" ikastetxean jasotzen zen, Karitateen Ahizpek zuzentzen zutena.



Arronitzeko mutilen eskolako ikasgela. 1940.





Cruz Zugarramurdi maisua
Mezkiritzeko Eskola Mistoko bere
ikasleekin, 1952an. Erroibarko
“Elutseder” Elkartek utzitako
argazkia



Mezkiritzeko (Erroibar) Eskola
Nazionala, 1927an irekitakoa
eta 70ko hamarkada erdialdean
itxitakoa. S.I.E.



Pascual Madozen *Hiztegi
Geografikoaren* arabera 1847an
Uskartzek Lehen Hizkien Eskola
Mistoa zuen, 16 ikaslerekin.
Espainiako Eskola-Estatistikaren
arabera, 1908an ikasle kopurua
40ra igo zen, Uskartze, Izize eta
Galozeko ikasleak kontuan hartuta.
Argazkian Uskartzeko eskola ikus
daiteke, udalak xx. mende hasieran
eraiki zuena. Eskola 1972an itxi zen.
Egun, etxe partikularra da. 1940.

1956an, Erroko udalerrriak zituen eskolatze arazoak zirela eta, Udalak eskola berriak eraiki zituen.

Eraikinak bi solairu eta maisu-maistrentzako bi etxebizitza zituen. Egun, landa-eskola da eta ondoko herrietako ikasleak hartzen ditu. Argazkian Erroko Eskola Mistoko ikasleak ikus ditzakegu, 1920an. Erroibarko "Elutseder" Elkartek utzitako argazkia.



Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an, Auritzen Eskola Osatugabe edo misto bat zegoen, 50 ikaslerekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera 6 eta 12 urte arteko 60 ikasle zeuden eta bi eskola zituen herriak. Neskena, 15 ikaslerekin, 1887an sortu zuten behin-behinean. 1970an oraindik ere bi eskola unitate zeuden: neskena 15 ikaslerekin eta mutilena 18rekin. Argazkian, Fructuoso Elcano maisua bere ikasleekin ikus dezakegu. 1923. Joxepe Irigarozek utzitako argazkia.





Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Iberok Eskola Osatugabea edo Mistoia zuen, 21 mutil eta 15 neskekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, 60 ikasle zituen, 6 eta 12 urte artekoak eta oraindik ere Eskola Osatugabe mistoa zuen. Argazkian Iberoko eskolako ikasleak ikus ditzakegu 1922an. A.R.G.NA-k utzitako argazkia.



Iberoko Eskola Mistoko ikasgela (1920-1930). Irudian, Madrileko Museo Pedagogikoak gomendatzen zituen bi pertsonentzako ikasmahaiak ikus ditzakegu, baina baita aurreko garaietako mahai luzeak ere, 5 edo 8 ikasle elkarrekin esertzeko. A.R.G.NA-k utzitako argazkia.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Lesakak mutilentzako eskola zuen, 60 ikaslerekin, eta neskentzako beste bat, 40 ikaslerekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an herriak 179 eskola ume zituen, 6 eta 12 urte bitartekoak, eta bi eskola zituen. 1970ean, udalerrriak 10 eskola-unitate zituen, 8 publikoak eta bi erlijioso-pribatuak, 132 neska eta 157 mutil osotara hartzeko. Irudian Lesakako ikasle talde bat Gernikako Arbolaria bisita egiten.



Lesakako irakaskuntza erlijiosoa Letraneko Erregelapeko Kalonjeen esku egon zen mutilei dagokienez ("Santa María" ikastetxea) Karmeldar Misiolari Oinutsen ardurapean nesken kasuan ("Santa Teresita" ikastetxea). Udal haur eskola Karmeldar Agurgarri Oinutsen esku zegoen eta 1970 arte egon ziren bertan. Kristo Erregearen Ahizpa Mirabeek haur hezkuntza euren gain hartu zuten. Karmeldar Oinutsak Lesakako haur eskolako ikasleekin. 1956.. M. Maia.



Lesakako "Santa María" Ikastetxea, Letraneko Erregelapeko Kalonjeen ardurapean, Otxogorriena etxean zegoen, Cornelia Lecuona Garbisuk 1923an etxe horretako errenta guztiak eman zituenean bertan doako eskola eraiki zezaten. Irudian "Santa María" Ikastetxeko ikasleak ikus ditzakegu 1962an. Egun, ikastetxean "Tantirumairu" Ikastola dago. Modesto Maiak utzitako argazkia.



7. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK


- **1900.** Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako Ministerioa sortu zen. Cartagenan lehenengo eskola graduatuak ireki ziren.
- **1901.** Urriaren 26ko Dekretua, “Romanones Plan” gisa ezagutu zena, curriculum-a zabaldu zuena. Romanones kondeak, Instrukzio Publikoko Ministroa garai horretan, Eskola Normal zaharrak desagertzeko eta horiek Bigarren Hezkuntzako eraberritutako Institutuetan txertatzeko agindua eman zuen.
- **1902.** Alfonso XIII.ren erregealdia.
- **1904.** Haurtzaroaren Babeserako Legea argitaratu zen. Pedagogiako lehenengo katedra sortu zen.
- **1905.** Irakaskuntzaren graduazioa. San Frantziskoko Udal Eskolen inaugurazioa.
- **1907.** Ikaskesten Ezarpen Bartzordea sortu zen eta beken politika ezarri zen. Horri esker, hainbat irakaslek eta ikerlarik atzerrian ikasteko aukera izan zuten: Isidoro Sayés Corellako maisua; Eladio García, Hezkuntzako Ikuskaria eta Juana Ontañón eta Mariano Sáez Morilla, Normaleko maisu-maistrak izan ziren nafarren artean adierazgarrienak. Helduentzako gaueko klaseak arautu ziren.
- **1908.** Iruñeko Lehenengo Eskola-Kantina ireki zuten San Frantzisko Eskoletako eraikinean. Urtarrilaren 25eko Errege Dekretuak eraikin publiko guztietan bandera igotzeko betebeharra ezarri zuen.
- **1909.** Ekainaren 23ko Hezkuntza Legeak 12 urte arteko derrigorrezko hezkuntza ezartzen zuen. Irakasle-Lanaren Goi-Mailako Ikasketen Eskola sortu zen Madrilen.

- **1910.** Romanones Kondeak, Instrukzio Publikoko Ministro zelarik, Eskola Publikoek aurrerantzean Lehen Hezkuntzako Eskola Nazional izena jaso zezaten ezarri zuen. Martxoaren 8ko Errege Aginduak Batxilergoan eta Unibertsitatean emakumeen matrikula libre baimendu zuen. Abenduaren 27ko “Giltzarrapo Legea”, Canalejasen gobernuak Espainian ordena erlijiosoen hedapena gelditzeko ezarritako legea.
- **1911.** Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusia sortu zen.
- **1912.** Instrukzio Ministroak, Santiago Alba, Kixotea derrigorrezko irakurketa gisa ezarri zuen. Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak, estatu mailan, eskolentzako Liburutegi Ibiltariak sortu zituen azaroaren 22ko E.D.an ezarritakoaren arabera. Martxoaren 21eko Errege Aginduak Nafarroako maisu eta maistrak lekualdatze lehiaketa orokorretik kanpo utzi zituen.
- **1913.** Ikuskaritzaren teknifikazioa. Maiatzaren 5eko Errege Dekretuaren bidez azterketa publikoen eta sarien sistema ezeztatu zen. Nafarroako Lehenengo Udalekuak sortu ziren. Nafarrek estatuko gobernuaren aurka protesta egin zuten, gobernuak eskola publikoetan kristau-ikasbidea librea eta aukerakoa izatea nahi zutelako.
- **1914.** Nafarroako udalen “Proposamen Eskubidea” onartu zen. Estatuko esleipena aurrekontu nazionaletan irakasleei ordaintzeko. Aldundiak herri guztietan helduen eskolak sortzeko betebeharra ezarri zuen. Irakasle-lanerako Ikasketen Plan berria, “Benjamin Plana”.
- **1915.** Urtarrilaren 5eko Errege Dekretua, Espainian Zuhaitzaren Festa derrigorrez ospatzeko.
- **1918.** Azaroaren 6ko Errege Dekretuak Estatuaren eta Aldundiaren arteko Ituna ezarri zuen. Graduatutako eskolen araudia.
- **1919.** Irailaren 20ko Dekretua, Eskoletako Mutualitateen sortzea arautzen zuena.
- **1920.** Eskola-Eraikinen Bulego Teknikoa martxan jarri zen. Iruñean “Euskal Ikasketen II. Biltzarra” ospatu zen, irakaskuntzara bideratutakoa, batez ere.
- **1921.** Nafarroako Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzako Liburutegi Ibiltaria (1921-1931).
- **1922.** Otsailaren 4ko Errege Dekretua, eskola graduatuetan Eskolako Liburutegiak sortzearen ingurukoa. Lorenzo Luzuriagak *Revista de Pedagogía* aldizkaria sortu zuen.
- **1923.** 14 urte arteko derrigorrezko eskolatzea. Primero de Riveraren diktadura. Irakasle-Lanaren Umezurtzen Ikastetxea. Irakasle-Lanaren Estatutua,

maiatzaren 18koa. Udalek maisuak eta maistrak aukeratzeko zuten eskubidea bertan behera geratu zen.

- **1924.** Umearen Gimnastika Txartelaren argitalpena Zuzendaritza Militarren eskutik, eskoletan derrigorrezkoa zena.
- **1925.** Nafarroa osoan Eskola-Jantzitegia sortu zen.
- **1926.** Urriaren 7ko Errege Dekretua, Liburuaren Festa ezartzen zuena.
- **1927.** Instrukzio Publikoko Ministerioak Eskola-Eraikinen Saila sortu zuen. Nafarroako Familia Gurasoen Elkarte Katolikoa urriaren 15ean sortu zen.
- **1928.** 1928ko abenduaren 13ko Errege Araua, Nafarroako Hezkuntzako Tokiko Batzordeei maisu-maistren izendapena proposatzeko eskumena ematen ziena. Otsailaren 3ko Nafarroako Udal Administrazioaren Araudia.
- **1930.** Primo de Rivera generalaren dimisioa.

HIRUGARREN ATALA:
**HEZKUNTZA BIGARREN
ERREPUBLIKAN
ETA GERRA ZIBILEAN
(1931-39)**



8. BIGARREN ERREPUBLIKA NAFARROAN

1930eko hamarkadaren hasieran, Espainiako hezkuntza sistema oso egoera larrian zegoen. Estatuak esku hartze txikia zuen hezkuntzari zegokionez, eta Eliza Katolikoaren jokabidearen menpe zegoen. Utzikeria publikoa garaiko analfabetismoan islatu ziren: estatuko populazioaren % 42a eta Nafarroako % 29a analfabetoa ziren. Horren harira, Francisco Gine de los Ríosek ondorengo hau esaten zuen: “Gure herriko birsokuntza politiko-sozialari interesatzen zaizkion arazoetatik, hezkuntza nazionala da gutxietsiena dagoena zalantzarik gabe”⁴⁹.

Horrela, II. Errepublika Espainiako historiako saiakera demokratikorik handiena izan zen eta hezkuntza ideia birsortzaileen ardatz nagusia izan zen. Ideia horien artean ondorengo hauek daude: eskolak berehala eraikitzea, hiru zikloetako sistema bateratzailea egitea, pedagogia aktiboaren eta parte hartzailearen sustapena, hezkuntza laikoa sortzea, elebitasunaren onarpena eta udalekuak, kantinak eta, batez ere misio pedagogikoak bezalako jarduerak sustatzea.

Hori guztia dela eta, gobernuak Lehen Hezkuntzaren unibertsalizazioaren eta hezkuntza sistema publiko, laiko eta demokratikoaren aldeko apustu argia egin zuen. “Errepublika eskolari esker salbatutako da”, “Eskola Errepublikaren ezkutua da”, “Espainia eskolari esker askea izango da” bezalako aldarriak botatzen hasi ziren Marcelino Domingo, Rodolfo Llopis edo Lorenzo Luzuriaga garaiko teorikoak.

49. M.^a A. IGLESIAS, *Maestros de la República*, Madril, 2006, 4. or.

Erregimen errepublikarra gobernura iristean, Nafarroan, gobernuaren aginduz, Batzorde Kudeatzailea sortu zen, errepublikarrez eta monarkikoez osatutakoa eta Constantino Salinas Jaca Altsasuko medikua lehendakari zuena. Era berean, 1931ko abenduaren 11n Kudeatzaile Probintzialak Nafarroako Kulturaren Kontseilua sortu zuen.

Erakunde horien biez, Lehen Hezkuntzak bultzada indartsua jaso zuen eta horrek Nafarroako eskola-antolaketan eragina izan zuen. Udalek maisu eta maistrak izendatzeko zuten eskubidea onartzearekin batera, “Nafarroako Instrukzio Publikoko Kontseilu Probintziala” sortu zen eta ondorengo neurri hauek aurrera eramane zituen: irakaskuntzan aritzen ziren erakunde erlijiosoek laguntza ekonomikoa kendu zuten, eskola-eraikinen plana egin zuen, eskola-egutegiak, helduentzako klaseak eta irakasleentzako Aste Pedagogikoak antolatu zituen.

8.1. Hiru errepublika batean

Errepublika 1931ko apirilaren 14an hasi eta 1936ko uztailaren 18an bukatu zen, Franco jeneralaren altxamendu militarren ondorioz. Epe horretan izaera politiko ezberdineko hiru aldi egon ziren, ezkerreko edo eskuineko gobernuekin, eta horrek hezkuntzan hartutako neurrietan eragina izan zuen.

Azañaren lehenengo Biurtekoa (1931-33) argi eta garbi garai erreformista izan zen, aurreko garaiko ideia kontserbadoreekin apurtu zuena. Hezkuntzaren alorreko proiektu errepublikar berriak Irakaskuntzako Erakunde Librearen eta Eskola Berriaren programa sozialistan inspiratu zen.

Konstituzioa onartu bitartean, errepublikako lehenengo gobernuak bere lehenengo neurriak premiazko dekretuen bidez hartu zituen. Lehenengo neurria 1931ko apirilaren 29ko Ministro-Aginduaren bidez hartu zuen, Estatu plurala eta desberdintasun linguistikoak zituen onartzen zuena (ikasleen ama hizkuntza errespetatzen zen) eta Instrukzio Publikoko Kontseilu buru Unamuno izendatu zuten.

Errepublikarrek hartutako beste neurrien artean laiktasunaren ezarpena izan zen, eta ondorioz, erlijioa eskoletan debekatzea. Xedapen horrek ezinegona sortu zuen Nafarroan eta eskola talde politiko eta ideologikoen helburu nagusia bilakatu zen, hezkuntza erlijiosoaz eztabaiden muina zelarik. Alde batetik, alde katolikoarentzat, indartsuena Nafarroan, erlijioa euren ideien ardatz nagusia zen. Bestetik, alde errepublikarrean, eskolaren izaera konfesionala oztopo zen eskola zibila, askea eta sekularizatua lortzeko.




II. Errepublikak hezkuntza laikoaren eta ikastetxe erlijiosoak publikoengatik ordezkatzearen alde egin zuen. Argazkian, Iruñeko Maristen “San Luis” ikastetxe ospetsuko ikasle talde bat ikus dezakegu, Errepublikan “Liceo Eslava” izatera pasa zena. Ikastetxeko zuzendaria pertsona zibil bat izan zen, Joaquín Ezquieta Arce, hain zuzen ere. Errepublika garaian, Maristek klaseak ematen jarraitu zuten baina, horretarako, abituak utzi eta sekular gisa jantzi ziren. Ikastetxeak irakaskuntza erlijioso eskaintzen zien ikasleei gurasoek hala eskatzen bazuten. Iruñeko Maristen Ikastetxeko Artxihoak utzitakoa argazkia, 1934.

Horregatik, gure probintzian oihartzun handiena izan zuten neurriak erlijioarekin lotutakoak izan ziren: kristau-ikasbidea kentzea, ikasgeletako ikur erlijiosoak kentzea, Jesusen Lagundiaren deuseztapena, kalera ateratzeko prozesio erlijiosoek baimena eskatu behar izatea eta festa erlijiosoak edo gorde beharrekoak ezabatzea, San Frantzisko Xabier eguna, esaterako.

1932ko urtarrilaren 23an Jesusen Lagundiaren desagitea agindu zen eta urte bereko ekainaren 2an Konfesioen eta Kongregazio Erlijiosoen Legea atera zuen. Ikastetxe Erlijiosoek ezin zuten erkidegoko erakunde propio gisa funtzionatu, sozietate independente gisa eratu behar ziren. Beraz, zentro erlijioso horiek jabetza publikokoak izatera pasa ziren, Elizak horiek erabiltzeko baimena izan arren.

Nafarroan, ikastetxe erlijioso horiek funtzionatzen jarraitzeko aukera izan zezaten sozietate pribatu gisa eratu ziren. Horrela, Tafallako Eskolapioen ikastetxea “Tubalés” Lizeoa bilakatu zen; Ablitaseko “Hermanas de Nuestra Señora de la Consolación” Ikastetxea “Santa María Magdalena” Kultur Elkartean; Larragan, “Hijas de la Caridad San Vicente Paul” Ikastetxea “Nuestra Señora de Gracia” elkartean; Tuteran, “San Francisco Javier” Ikastetxea (Jesuitak), Bigarren Hezkuntzako Institutuan; Lekarotzen “Ntra. Sra. del Buen Consejo” Ikastetxea, “Liceo Lecároz S.C”.-n; Zangozan, “Hijas de la Caridad de Paúl” Ikastetxea, “Cultural de Sangüesan”; Atarrabian, Ama Dominikak “Liceo Albertino” Mutua Sozietatean...

Murchanteko Kotsolamenduaren Ahizpen ikastetxea 1916an ireki zen eta 90ko hamarkada arte egon zen irekita. Errepublika garaian "La Cultural Murchantina" izena jaso zuen. Irudian haur eskolako haurrak ikus ditzakegu. 1932. Historia y Cultura Elkarrekin utzitako argazkia.



Aurretik aipatu dudan bezala, gobernu errepublikarrak hezkuntza laikoa sustatu zuen. Ikur erlijiosoak ikasgeletatik kentzeak eta Tuterako Jesusen Lagundiaren desegiteak Nafarroan osoan protestak ekarri zituen eta manifestaldien bidez egin ziren: arrosarioa errezatze prozesioak, funtzio erlijioso irain-ordeak, manifestaldiak, prentsara bidalitako idatziak, kantika erlijiosoak eta askotariko esaldiak, Jesusek gurutzean esandakoak bezalakoak: "Egarri naiz", "Aita, barkaiezu, ez dakite zer egiten ari diren" eta "Zatozte kristauak, gurtz dezagun Gurutzea, goraipa dezagun mundua salbatu zuen Gurutzea" esaldi ospetsua, etab.

Komunikabideetan oihartzun handiena izan zuten protesten artean ondorengo hauek nabarmendu behar dira: Irakasle-Laneko ikasle katolikoek euren ikasgeletako Sortzez Garbiaren irudiak Gobernu Zibilak kendu zituelako egindakoa; Sada, Zirauki, Lantz, Nazar, Arguedas eta Gesalatz bailarako herriek eta Barasoaineko ikasleek egindako prozesioak, maisu-maistrak eta tokiko zenbait agintari buru zirela, eskoletako ikur erlijiosoak elizetara eramanez. Diekartzelu, Los Arcos, Irunberri eta Arraitzako udalek Gobernadore Zibilaria eta Gobernu presidenteari bidalitako eskutitzak, eskoletatik ikur erlijiosoak kendu zituztelako kexatuz. Burlata, Beriain, Nagore, Funes, Ibero, Ablitas, Igantzi, Muruzabal, Imarkoain eta Eneritzeko ikasleek amek antolatutako manifestazioak eskola publikoetatik gurutzeak kentzearen kontra. Tuterarrek udaletxearen jesuitei egin zieten agur omenaldia "kristoak, kristoak!"



Xabierreko Ikastetxe Apostolikoa Villahermosako dukesak sortu zuen 1902an. Bigarren Errepublikan zehar, Mariaren Lagundia kanporatu eta bere ondasun guztiak konfiskatu zituztenez, Ikastetxea eta Xabierreko Gaztelua Nafarroako Gobernadore Zibilak itxi zituen. Ikastetxe horretako ikasleak Zangozara joan behar izan ziren, Karitateen Ahizpena zen "La Gotera" izeneko etxetzar batera. 1937an Xabierre itzultzeko baimena eman zitzaizen. Jesusen Lagundiak 1970an itxi zuen. Egun, "Espiritualtasunaren Etxea" da. Xabierreko Artxiboak utzitako argazkia.



Bigarren Errepublikan, Irunberriko San Bizente Paulekoaren Karitatearen Alaben komentua izenez aldatu eta "La Cultural de Lumbier" deitu zen. Irudian karitatearen Alaba horiek 1800.etik aurrera gobernatu zuten ospitalea ageri da. 1830ean neskendako eskola bat sortu zuten. Esteban Labianok utzitako argazkia.

Bigarren Errepublikan, Fustiñanako Ama Kontzeptzionisten ikastetxea izenez aldatu eta "Liceo de la Peña" deitu zen. Irudian Ama Kontzeptzionistak ikusten ditugu Ikastetxeko patioan, Gorengo Amak bisita egin zieneko batean, 1965ean. "Proyecta, Comunicación y Marketing de Cintruénigo" enpresak utzitako argazkia.



Ahizpa Karmelitik Cascantera 1864an iritsi ziren eta 1965 arte egon ziren. Errepublika garaian ikastetxeak "Cultural de Cascante" izena jaso zuen. "Beata Vicenta María" Ikastetxe publikoak utzitako argazkia.





Ahizpa Ursulatarrak Iruñera 1891ko irailaren 17an iritsi ziren. Euren lehenengo eskola San Anton kaleko 68. zenbakian egon zen. 1894an Navas de Tolosa kaleko 27. zenbakian zegoen zentro berrira joan ziren. Errepublika garaian Daniel Nagore, Familia Gurasoen Elkarteko Katolikoaren presidentea eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiko lehendakaria izan zen zentroko titularra. Azkenik, gaur egungo egoitzara mugitu ziren, Agoitz kaleko 1. zenbakira. Jesusen Ahizpa Ursulatarrak utzitako argazkia. 1940.

oihukatuz. Murchanteko eskolari egindako erasoak, herriko alderdi kontserbadoreenak buru zirela, ama katolikoaren babesarekin, eta maisu eta maistrak jo eta iraindu zituztenak ama katolikoaren babesarekin egindakoa⁵⁰.

Kasu bereziak ere egon ziren, esaterako: Ziraukiko umeei uko egin zioten ikasgelan sartzeari horietan gurutzea kendu zutelako. Zufiako gurasoek hartutako jarrera, euren seme-alabei kristau doktrina euren etxeetan irakastea adostu zutenean. Vianako “Señoras de la Conferencia de San Vicente Paul” emakumeek, herriko kaleak zeharkatu eta etxe partikularretan sartuz zirenean protesta-manifestazioa sortzeko helburuarekin. Manifestariak bortizki sartu ziren ikasgeletan, maisua iraindu eta gurutzea jartzera behartu zuten. Manifestariak beirak apurtu eta tintontziak lurrera bota zituzten. Gobernadore Zibilak San Vicenteko Biltzarra bertan behera utzi zuen eta 250 pezetako isuna jarri zien.

Errepublikako gobernuak Familia Gurasoen Elkarte Katolikoarekin izandako liskarrari aurre egin behar izan zion. Elkartek Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoaren Legeari kontra egiteko ahalegin guztiak egin zituen eta Nafarroako irakaskuntza erlijiosoaren ordezkatzeko arduraduna zen Batzorde Mistoari presio handia egin zion. Agintari errepublikarrei egindako erasoak

50. *Navarra 1936. De la esperanza al terror*, Altaffaylla, II. liburukia, 94. or. Murchanteko alkateak, 1933ko martxoaren 1ean *Diario de Navarrara* bidalitako eskutitz batean salaketa ezeztatu zuen.

Mendigorriako haur eskola
 Karitatearen Alaben esku zegoen.
 Errepublika garaian “Nuestra Señora
 de Andión” izena jaso zuen zentroak.
 Irudian haur eskolako ikasleak
 mojekin batera ikus ditzakegu. 1930.
 Alfredo Murok utzitako argazkia.



latzak izan ziren eta sortutako presio soziala ikaragarria. Hain izan zen gogorra, ezen Nafarroan ezin izan zela xedapen hori bere osotasunean txertatu. Aizpun jaunak argi utzi zuen hori Diputatuen Kongresuan (1933): “Nire herrialdean (Nafarroa) Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoen Legea erasotuko dute, baina ez dute beteko”.

Familia Gurasoen Elkarte Katolikoak egindako jardueren artean ondorengo hauek azpimarratu behar ditugu: maisu-maistra lanpostua bete nahi zutenen ezaugarri moral eta erlijiosoen inguruko informazioa udalei ematea, zentro batzuetan ezarritako laikotasunaren kontra Ikuskaritzan eta Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusian jarritako salaketak, zenbait ekimen pribaturi emandako babesa, Lodosako Parrokia Zentroa eraikitzea, esaterako. Iruñeko ikasleek kristau-ikasbidea jasotzeko doako klaseak (mutilek “San Francisco Javier” (Teresianak) ikastetxean jaso zituzten eta neskek Kale Nagusiko “Huarte Hermanos” ikastetxean). Justo Garrán diputatu erriberritarak 1935ean ordaindu zituen Erriberriko Eskola Katoliko berriak eta sortzez Gorozinekoa zen Juan Albizu y Sainz de Murieta apaizak bere aurrezkiekin herriko egoitza-eskola eraiki zuen. Apaiz ongilearen arabera “ekimen horren helburua ikasleak egunero Zurukaineko eskolara joan zitezten ekiditea eta

hezkuntza erlijiosoa ematea zen, batez ere kristau-ikasbidea, horrela herrian zegoen hutsune erlijiosoa saihesteko”.

Eliza ere ez zen atzean geratu, eta Familia Gurasoen Elkarte Katolikoak bezala, bere baliabide eta tresna guztiak erabili zituen Gobernuaren ospea zikintzeko. Elizetan egiten ziren sermoietan “sakrilegioari” buruz hitz egiten zuten eta seme-alabak eskola katolikoetan matrikulatzera bultatzen zituen gurasoak. Prediku-aulkitik, erlijioa, orokorrean, jazarrita zegoela zabaldu zuten eta, ondorioz, erregimen sekular eta erreformista berria ez zettorrela bat Nafarroa katoliko, apostoliko eta erromatarrarekin.

Historialari batzuek errepublikanismoaren politika laizistaren akatsak nabarmendu zituzten. Esaten zuen politika hori txertatzea larria zela eta ez zirela kontuan hartu Nafarroako jendartearen ohitura eta pentsamoldeak.

Bestetik, jarduera erlijiosoak kentzean eta errepublikarren ideiekin bat zetozen festa nazionalak inposatzean, Nafarroako Batzorde Probintzialak eskola-egutegia aldatu behar izan zuen.

Eskola-egutegiari zegokionez, Kontseilu Probintzialek egutegiak egite-rakoan kontuan hartu behar zituzten irizpideak ezarri zituen. Eredu gisa, hemen dugu garai horretan Nafarroan ezarri zen azken Eskola-Egutegia.

1935-1936 IKASTURTERAKO ESKOLA-EGUTEGIA NAFARROAN	
Klase-egunak	229
Ikasturtean dauden igandeak	42
Festa nazionalak: urriaren 12a (Arrazaren eguna), otsailaren 1a, apirilaren 14a (Errepublika aldarrikatu zenean) eta maiatzaren lehena (Lanaren Festa).	4
Neguko oporrak (abenduarien 23tik urtarrilaren 6ra, biak barne).	15
Udaberriko oporrak (egungo Aste Santua)	6
Udako oporrak (uztailaren 2tik abuztuaren 31ra, biak barne).	61
Tokiko Kontseiluek jarritako festa egunak.	8
GUZTIRA	365 egun

Errepublika garaian, oporrek derrigorrezko hiru aldi zituzten. Udaberriko oporrak apirilaren 1etik 14ra, udakoak uztailaren 15etik irailaren 11ra eta negukoak, abenduaren 23tik urtarrilaren 1era.

Azken Eskola-Egutegi horretan ikus dezakegun bezala, festa erlijiosoak Errepublikak ezarritako festa nazionalengatik ordezkatu ziren. Horri dagokionez, Eliza Katolikoarentzat jai egun ziren egun batzuetan zenbait ikasle ez

ziren eskolara joan, derrigorrez joan behar zuten arren. Hori dela eta, tokiko kontseiluek ikasle horien gurasoei 5 pezetako isuna jarri zieten seme-alabak eskolara ez bidaltzeagatik. Bestalde, joera kontserbadoreko tokiko kontseilu batzuetan gertaera erlijioso garrantzitsuenekin bat zetozen euren 8 jaiegunak aukeratu zituzten.

Hezkidetza Errepublikak txertatu zuen beste berritasun bat izan zen. Lehenengo aldiz hezkuntzaren historian, eskola-bizikidetza mota berria abiarazi zen, mutilak eta neskak ikasgela berean eta programa berarekin berdintasunean integratuz.

Hezkidetza derrigorrezkoa ez zen arren, zentro batzuetan naturaltasunez ezarri zuten. Horrela adierazi zuen Madrileko Francisco Giner Eskola-Multzoko zuzendari zen María Sánchez Arbósek:

Hamabi mailatan ezarritako hezkidetzak ez du arreta deitu. Ez mutilak, ez neskak, ezta familiak ere ez ditu harritu, are gehiago, naturaltasunez egokitu dira⁵¹.

Hala ere, Nafarroan, neskak mutilekin elkartzeko prozesu berritzaile hori institutueta eta Eskola Normalean derrigor gisa ezarri zuten. Lehen Hezkuntzan, harrigarria izan arren, ez zen aplikatu eta aurreko garaietan bezala jarraitu zuten, hau da, mutilak eta neskak bereiziz. Eskola-eraikin berrietan ere bi sexuentzako eskolak eraiki ziren.

Eskola-Eraikinen Programa Errepublikako gobernuak hasi zuen beste neurri garrantzitsu bat izan zen. Erregimen berriak eskolen sortzeari eta maisu-maistren soldaten hobetzeari eman zion bultzada ez zuen parekorik izan. 1901 eta 1923 artean 5.563 eskola prestatu zituen eta ia 4.000 1924 eta 1929 artean. Errepublikarrek lehenengo bi urtekoan 7.000 eskola eraikitzea aurreikusi zuten, eta baita aurreikuspen hori bete ere. Era berean, hurrengo lau urtekoan beste 5.000 eraiki zituzten urtero. Aurreko 30 urteetan soilik 11.128 eskola ireki ziren, hau da, 366 urteko. Konparaketak agerian uzten du egindakoa. Aldi berean, langileen kopurua handitu zen eta maisu-maistrentzako 7.000 plaza berri sortu ziren. Euren soldata ere hobetu zuten.

Nafarroan, eskoletan ematen zen pilaketa eta eskola-plazen eskasia errealitate bat zen. Aldundiak ez zuen bere aurrekontuetan eskola-eraikinak eraikitzeko ardura hartzen. Hori dela eta, Hezkuntzako Ikuskarien Batzordeak, 1931n, 173 eskola berri eraikitzeko eskaera egin zuen. 1932ko azaroan jada 92 eskola nazional eraiki zituzten. Horrela jakinarazi zion Lehen Hezkuntzako

51. MARÍA SÁNCHEZ ARBÓS, *Mi diario*, Gobierno de Aragón, 2000, 124. or.

Kontseilu Probintzialak Pedro López Madrileko Ikuskari Nagusiari Nafarroan egin zuen bisitan.

Azkenik, eskola-eraikinen eskasia zela eta, Aldundiak hainbat kudeaketa neketsu egin zituen estatuarekin eskola-eraikinak berrehun udalerritan baino gehiagotan eraikitzeko.

1934ko ekainaren 15eko Errege Dekretua, eskola-eraikinen ingurukoa, argitaratu zenean, Aldundiak “Hitzarmen Berezien” sistemari heldu zion eta Estatutik %50eko diru-laguntza jaso zuen eskolak eraikitzeko. %10a altxor probintzialak ordaintzen zuen eta gelditzen zen %40a udalerriek.

Nafarroako udalek eskolak eraikitzeko eskaera urtero irailean egin zezaketen, horrela ezarri baitzuen Errepublikako gobernuak. Ondorengo udalerrri hauetan aurreikusitako eskolak eraikitzea Errepublika garaian:

Arguedas, Agorreta, Ablitas, Artaxoa, Abartzuza, Oibar, Arrieta, Arronitz, Azagra, Astitz, Barbarin, Beartzun (Baztan), Berriogoiti, Cabanillas, Cadreita, Zarrakastelu, Cascante, Kaseda, Castejón, Cintruénigo, Corella, Zudaireko eta Hondarribiako udalekuak, Eraso, Egues, Elortz, Eratsun, Eritze, Lizarra, Eugi, Goizueta, Ibiriku, Igoa (Basaburua), Ilarregi (Basaburua), Iruñeko San Juan eta Vázquez de Mella Ikastetxe Nazionalak, Fitero, Garinoain, Ledea, Lodosa, Los Arcos, Irunberri, Makirriain, Milagro, Murillo del Fruto, Obanos, Ororbia, Azkoien, Pitillas, Doneztebe, Valtierra, San Martin Unx, Subiza, Atarrabia, Tafalla, Tuteru, Urrotz, Unanua, Igantzi, etab.

Garaiko datuek 100 irakasleren eta 500 ikasgelen falta erakusten zuten. Gainera, Nafarroako 200 eskolatan baino gehiagotan eskola-eraikin berriak eraikitzea beharrezkotzat jotzen zen.

Nafarroan 1931-1933 aldian 187 Eskola Nazional eraiki ziren⁵².

Unitarioak			Mistoak		Graduatua		
Mutilak	Neskak	Haurrak	Maisuak	Maistrak	Mutilak	Neskak	Haurrak
72	65	17	13	10	8	2	0

52. *Boletín de Educación Nacional*, 1. zb.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografiko-Estatistiko-Historikoaren* arabera, 1847an Obanosen lehen hizkien bi eskola zeuden. Mutilena, 1.280 erreal kuartorekin eta maisuarentzako 1.160 erreal kuarto eta 130 gari erreku baino gehiagorekin eta beste 20 erregurekin bere laguntzailearentzat. Eta neskena, 621 erreal kuartorekin maistrarentzat. Guztira 170 ikasle zeuden; 100 mutil eta 70 neska. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an udalerrian 168 ikasle zeuden, udaletxeko eraikinean zeuden oinarritzko bi eskolen artean banatuta. Errepublika garaian, argazkien ikus dezakegun Eskola-Multzoa eraiki zen. “Bikainak bezain apartak”, horrela deskribatu zituen garaiko prentsak Obanoseko Eskola Nazional berriak 1933ko uztailearen 9an inauguratu zirenean. 1.076 metro koadroko lursailean eraikitakoak, bi atal eta bi jolastoki zituzten, sexu bakoitzarentzako bana. Komunak, liburutegia, museoa, bilera-aretoa eta Madrileko Museo Pedagogikoak gomendatutako material curricularrak zituzten, 1935eko abenduaren 9ko Gacetan eskola berrietarako ezartzen zituen materialak, hain zuzen ere.



Lehenengo “biurteko berritzaile” horretan zehar, Irakaskuntzako Erakundea Libre eragile nagusia zelarik, haurrentzako zein nagusientzako **Misio Pedagogikoak eta Eskola-Liburutegi Ibiltariak** sortu ziren⁵³, kultura lekurik ezkutuenetarako eramateko askoekin eta, horrela, zegoen analfabetismoa leuntzeko (nafarren hirutik bat analfabetoa zen).

Misio Pedagogikoen Patronatua Mariano Saénz Leoncio Urabayen Eskola Normaleko irakasleek kudeatu zuten Nafarroan eta Rosaura López ikuskaria proiektuaren laguntzaile izendatu zuen Ikuskarrien Batzordearen babesarekin.

Nafarroan egin zen misio pedagogikoetako bat Federico García Lorcak **La Barraca** bere konpainiarekin egindakoa izan zen. Iruñean zein Lizarran egin zituen ikuskizunei buruz Nafarroako komunikabideek ez zuten ezer aipatu, sekulako arrakasta izan arren. 1933ko abuztuaren 23an, Iruñeko Udalak doan utzi zien Gayarre Antzokia “Barracakoei” hainbat antzezlan taularatu zituzten:

53. 1935ko *Estadística de Escuelas Graduadas*-en arabera, Nafarroak 18 eskola graduatu zituen eta horiek ziren eskola-liburutegiak zituzten bakarrak. Eskola horiek ondorengo udalerrri hauetan zeuden Artaxoa, Buñuel, Zarrakaztelu, Cintruenigo, Lizarra, Faltzes, Lerin, Milagro, Iruña, Zangoza, Tutereta eta Alesbes. Nafarroako Ikuskarrien Batzordeak Vicente Navarro izendatu zuen Eskola-Liburutegien arduraduna izateko, bai eta probintzian Liburutegi-Ibiltariak antolatzeke ere. Nafarroako Ikuskaritza Batzordearen Akten Liburua. 1933-1969, 4. orria.



Iruñeko "San Juan" Eskola Nazionala sarrera ataria eta jolastokia, 1935ean ireki zirenak. A.M.P.



Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an, Ilarregin (Basaburua) ez zegoen lehen hizkien eskolarik eta, beraz, ikasleek Eltzaburuko (Ultzama) eskolara joan behar zuten. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an Ilarregik oraindik ere ez zuen eskolarik. Herriko ikasleak Auzako, Eltzaburuko edo Suarbeko eskoletara joaten ziren. Argazkian Ilarregiko lehenengo eta azken eskola ikus dezakegu, 1933an irekitakoa eta 70ko hamarkadaren erdialdean itxitakoa. Ikasleek Ihabeneko eskolan ikasi zuten ordutik aurrera. S.I.E.

1847an, Ororbiak Eskola Osatugabe bat zuen, bi sexuetako 40 eta 45 ikaslerekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, herrian 65 ikasle zeuden eta bi sexuentzako Eskola Osatugabea zegoen. Eskola 1933ko maiatzaren 3an ireki zen. Beheko solairuan ikasgelak zeuden eta goikoan maisuaren etxea. 80ko hamarkada hasieran eraitsi ziren eskolak Ororbiako Kontzejuak eraikitzeko. Ikasleak, hortik aurrera, Orkoieneko Eskualdeko Ikastetxera joan ziren ikastera. Ororbiako Kontzejuak utzitako argazkiak.



Iruñeko “Nuevo Ensanche” Eskola-Multzoa 1934an eraikitzen hasi zen eta 1936ko irailean ireki zituen ateak, Gerra Zibila jada hasia zenean. Frankismoan zehar “Vázquez de Mella” Eskola-Multzoa izena jaso zuen. “Vázquez de Mella” eskola publikoak utzitako argazkia.



Lope de Vegaren bertso-lerroak, Cervantesen satirak eta Antonio Machadoren erromantze bat. Lizarran, Fuenteovejuna antzeztu zuten. Bertan, Lorcak Argentinan egin zituen adierazpenen arabera, “konpainiako kamioiek harrikadak jaso zituzten, baina antzezlana bukatu zenean, txalotu egin zuten”⁵⁴. untzioak klase herritarrari zuzenduta zeuden batez ere eta doakoak ziren.

54. FUENSANTA ONRUBIA, *Nafarroako Antzerki Eskolako Aldizkaria*, 10.zk, 1998ko ekaina. 6. eta 7. orr.



1934ko urtarrilaren 20an Ibirikuko (Eguesibar) Eskola Mistoa ireki zen, Mariano Lampreave Ikuskari Nagusia eta Nafarroako Kontseilu Probintzialeko lehendakaria, Blanca Bejarano zentroko ikuskaria, Juan Larrea alkatea, Felisa Eslava maistra eta gurasoak eta ikasleak inaugurazioan egon ziren.

Eskola-Liburutegi Ibiltarien Zerbitzua Luis Cernuda poetak eta María Moliner filologoak koordinatu zuten eta 5.000 landa-liburutegi baino gehiago sortu zituzten. Nafarroak 77 liburu-sorta jaso zituen eta probintzia osoan banatu ziren, landa-eremuetan ere irakurtzeko aukera eskainiz aurretik horrelakorik izan ez zutenei.

Lehenengo biurteko berritzaile horren ostean, Bigarren Biurteko Kontserbadorea etorri zen. 1933ko azaroko Errepublikako Gorteetako bigarren hauteskundeetan emakumeek bozkatzeko aukera izan zuten eta Gil Robles CEDA alderdi eskuindarraren eta Lerrouxen Alderdi Erradikalaren arteko gobernu koalizioa sortu zen. Hauteskunde horietan, mugimendu katolikoak, karlismoak eta kleroak bidalitako errepublikarren kontrako mezuek Eskuinaren Blokearen erabateko garaipena ekarri zuten. Nafarroa eskuinak aulki guztiak lortu zituen probintzia bakarra izan zen. Hori dela eta, garai horretan hartutako neurriekin aurreko biurtekoaren lan legegilea desegiten saiatu ziren. Eskola-eraikinen eraikuntza moteldu zen eta, aldi berean, Lehen Hezkuntzako eskoletako hezkidetzak ezabatu ziren, “maisú-maistrei eta ikuskariei Lehen Hezkuntzako Eskola Nazionaletan hezkidetzaren ezarpena debekatuz”. (1934ko abuztuaren 1eko Agindua).

Hondarribiko udalekuak 1935ean ireki ziren. Haien lehenbiziko zuzendaria Clara Villanueva andrea izan zen. Gerran, ospitale izateko moldatu ziren, eta, aurrerago, Espainia gorritik zetozen pertsonendako aterpe izateko. Nafarroako Udalekuen Patronatuak 1938ko maiatzaren 5ean ireki zituen berriz udalekuak. Argazkian Nafarroako haur talde bat ageri da Hondarribiko udalekuetan 1954ko udan. José Miguel Elcuaz Paternainek, Villafrancako eskolaren ikasleak utzitako argazkia.



1. Angel Daniel Aranda Arrondo-2. José Miguel Elcuaz Paternain-3. Alfredo Lasheras Cerdán-4. Daniel Sáez Maimón

Zudaireko Udalekuak 1934an inauguratu zituen Industria eta Merkataritza Ministroa zen Rafael Aizpunek. Lehenengo zuzendaria Dominica Ariz maistra nazionala izan zen. Egun, "Las Améscoas" Eskualdeko Ikastetxe Publikoa dago bertan eta Larragoa, Eulate, Aranaratxe eta Amekoabarrenako herrietako ikasleak joaten dira. S.I.E.



Bigarren aldi errepublikar horretan, Foru Aldundiak eta Nafarroako Aurrezki Kutxak, zenbait ikasle nafarren osasun baldintzak zein baldintza higienikoak hobetze aldera, Eskola-Udalekuetako Nafarroako Patronatua sortu zuen eta, ondoren, bi eraikin egin: Zudairekoa, “San Miguel de Excelsis” izenekoak. Urbasako mendilerroan zegoen eta 80 mutil eta neska har zitzakeen. Eta Hondarribikoa (Gipuzkoa), “Blanca de Navarra” izenekoak, Kantauri itsasoaren aurrean zegoena eta 128 ikasle har zitzakeena. Bi eraikin horiek Víctor Eusa arkitektoak egin zituen.

Udalekuetara 8 eta 12 urteko arteko haurrak joateko ziren eta, helburua, bere Araudian ikus daitekeen bezala, ondorengo hau zen: “eskola-oporretan klase xumeetako haurren bizitza higienikoa indartzea eta sustatzea, garapen normala izan dezaten”. Ikasle bakoitzak txartel bat zuen eta horretan azaltzen zen zentroan sartzen zenetik ateratzen zen arte bere pisuan izandako garapena. Laburbilduz, Donostiako⁵⁵, Hondarribia eta Zudaireko Udalekuek familia xumeetako haur askori itsasoan edo mendian oporrak pasatzeko aukera eman zieten.

Fronte Popularrak garaipena lortzean, 1936ko otsailaren 16an, hezkidetzaren berrezarri zen, eskola-eraikuntzak bultzatu ziren eta lehenengo biurtekoan hezkuntzaren alorrean hartuko neurriei berriro ekin zitzaizkien.

Nafarroa eskuinak aulki guztiak lortu zituen probintzia bakarra izan orainoan ere, 1933ko hauteskundeetan gertatu zen bezala. Garai mugitua izan zen, sumin sozialean eta intolerantzia oinarrituta, bi aldeetako erradikalen artean banatu zena. Bigarren biurtekoan abiarazi ziren ikastetxe erlijiosoak berriro ere itxi zituzten protesta antiklerikalak zirela eta, eta kontrolatu gabeko zenbait talde tenpluak erretzen eta elizgizonak bahitzen eta baita hiltzen ere hasi ziren. Hilabete horietan izan ziren liskar larriek Fronte Popularrak proposatutako hezkuntzako erreformak geldiarazi zituzten. 1936ko uztailaren 18ko zorigaiztoko altxamendu militarren atarikoak izan ziren.

55. Donostiako itsas-udalekuak Lehen Hezkuntzako Kontseilu Probintzialak antolatuta zituen. Zuzendaritza, antolaketa eta garapena Ikuskaritzaren esku egon zen. Udalekuetako Ikuskari-Zuzendariak Mariano Lampreave eta Blanca Bejarano izan ziren Caparrosoko Pedro Rubio eta Girgillaoko M^a Luisa Nicolás maisu-maistra laguntzaileekin batera. 1933ko uztailaren 27an inauguratu ziren eta 22 mutil eta 18 neska egon ziren bertan abuztuaren 27ra arte. Nafarroako Ikuskaritza Batzordearen aktak, 1933-1969, 17. orria.

8.2. Maisuak eta maistrak Errepublika garaian

Bigarren Errepublikako Instrukzio Publikoko lehenengo ministroa izan zen Marcelino Domingok, erregimen berria “maisu eta maistrentzako Errepublika”⁵⁶ gisa definitu zuen. Agintari errepublikarrentzat maisu-maistrak gizar-tea eraldatu nahi zuen hezkuntzaren “arima” eta “eragileak” ziren.

Nik, jaun andreok, aitortu behar dut maisu-maistrengan fede apurtezina dudala. Emaidazue maisu-maistra on bat eta berak inprobisatuko du eskolarako lokal bat horrelakorik egongo ez balitz, berak asmatuko du irakaskuntzako materiala, berak egingo du eskola-bertaratzea bikaina izatea. Baina emaiozue, aldi berean, merezi duten begirunea⁵⁷.

Aurretik aipatu den bezala, agintari errepublikarrek analfabetismoarekin bukatu nahi zuten eta hori dela eta, garrantzia handia eman zioten eskolak eraikitzeari. Hala ere, eskola-eraikinek ez zuten ezertarako balio eskola horiek abian jartzeko eta edukiz hornitzeko maisu eta maistra trebeak ez bazeuden. Horrela jaso zuten 1931ko irailaren 29ko Dekretuaren hitzaurrean:

Maisua-maistra izanik hezkuntzarako lehenengo faktorea, edozein erreforma bertan behera geratuko litzateke maisu-maistrak eskola bere ispiritua barruan eramango ez balu. Eskolak eraikitzeke premia zegoen, baina are premiazkoagoa zen maisu-maistrak sortzea; eskolak beharrezko materialez hornitzeko premia zegoen, baina are premiazkoagoa zen maisu-maistrak gaitzea [...]; Eskolako hierarkia igotzea premiazkoa zen, baina are premiazkoagoa zen gizarte demokratiko berri horretan maisu-maistrari zegokion hierarkia ematea.

II. Errepublika maisu-maistrak duin egin zituen erregimen bakarra izan zen, bai prestakuntza mailan, 1931ko Plan Profesionalaren bidez, bai eta alor ekonomikoan ere, euren lanaren aitortzarekin bat zetorren soldataren igoerarekin.

Boterera iritsi berritan, Bigarren Errepublikako Gobernuak hartutako lehenengo neurria maisu-maistren soldata igotzearena izan zen, mendetan zehar gosea pairatzera kondenatuta egon ostean. Errepublika garaian zehar, maisu-maistra batek 4.000 pezeta kobratzen zituen urteko, beste administrazioetako funtzionarioek baino askoz gehiago.

56. Datu adierazgarri gisa, 1931n Espainian 36.680 maisu-maistra zeuden eta 1936an 56.893 zeuden dagoeneko.

57. MANUEL B. COSSÍO, *Actas del Congreso Nacional Pedagógico*, Madril, 1882.

Testuinguru horretan, zenbait maisu eta maistra ideia errepublikarrek bat zetozen alderdi politiko eta sindikatuetera afiliatu ziren: Nafarroako Irakasle-Lanaren Elkartera, Cleto Rojo sozialista buru zela, edo UGTra, bere afiliatuen artean Nicolás Jiménez, Sixto García, Julia Álvarez, Toribio Láinez... bezalako maisu ospetsuak zituen.

Errepublikak ezarritako neurriekiko eskertza gisa hartu zuten maisu-maistrek jarrera errepublikazalea, besteak beste euren bizi-eta lan-baldintzak hobetzeagatik edo euren lanarekiko adeitasuna adierazteagatik.

Hala ere, Nafarroan, maisu eta maistra gehienak katolikoak eta kontserbadoreak ziren, ikasketa plan tradizionaletan trebatutakoak eta zaila egiten zitzairen ideia berritzaileak, politikoak zein pedagogikoak, onartzea. Beraz, Nafarroako irakasle-lana Errepublikaren alde agertu zela esatea ez da erabat egia.

8.3. Maisu eta maistrentzako prestakuntza

Errepublikan zehar agintariak ez ziren soilik maisu-maistren hobekuntza ekonomiko eta sozialaz arduratu. Ahalegin handiak egin zituzten irakasle guztien prestakuntza hobetzeko, Estatuak alde batera utzitako landa-irakasleak barne. Irakasleen prestakuntza Nafarroako Instrukzio Publikoko Kontseilu Probintzialaren lehentasunezko helburua izan zen.

Hiru mugarri garrantzitsu egon ziren maisu-maistren birziklapenarekin lotuta: Aste Pedagogikoa, Lankidetzaren Pedagogikoko Zentroak eta Ikuskaritza formakuntzan egindako lana.

Lehenengo biurteko errepublikarrean, Lehen Hezkuntzako Kontseilu Probintzialak eta Nafarroako Irakasle-Lanaren Elkarreak 1932ko irailaren 4tik 11ra irakasle-lana hobetzeko jardunaldi profesionalak antolatu zituzten. **Nafarroako Aste Pedagogikoa** izena jaso zuten eta 750 irakasle bertaratu ziren. Ekitaldi horretako burua Mariano Sáez Morilla Normaleko irakasle sozialista izan zen eta bestelako laguntzaileak ere izan zituen. Horien artean azpimarragarrienak: M^a Ángeles Fernández de Toro, Ernesto Marcos eta Mariano Lampreave ikuskaria; Francisco Navaridas maisua eta Rosaura López maistra-ikuskaria; Cleto Rojo Pérez Nafarroako Irakasle-Laneko Elkarre Probintzialeko lehendakaria eta Leoncio Urabayen Normaleko irakaslea. Jardunaldi horietan maisu eta maistra askok parte hartu zuten. Fernando de los Ríos Instrukzio Publikoko Ministroak eta Rodolfo Llopis Lehen Hezkuntzako Zuzendariak inauguratu zituzten.

Programa askotarikoa izan zen eta bat zetorren Errepublikaren hezkuntzaren alorreko ikuspegiarekin. Landutako zenbait gai ondorengo izenburu hauek izan zituzten: eskola aktiboa eta natur zientziak; eskolatik eskolarentzat; soberan dauden eskolak eta faltan ditugun eskolak; Errepublikako ideal pedagogikoak eta irakurketa ideo-bisuala.

Zalantzarik gabe, jardunaldietako nabarmenena hizlari gehienek garatu zuten metodologia decroliarra eta eskola-jarduera guztietan inplizituki zegoen hezkuntza moralaren kontzeptua izan ziren. “Irakaspen mota” guztiak eskema horri jarraiki egin ziren. Beraz, hizlariak aurkezten zuten metodologia irakaspen praktiko batekin zetorren, izan ere bertaratutakoek behatuz, aztertuz, eztabaidatuz, erabiliz eta bisita didaktikoen bidez ikasi behar zuten.

Bestelako irakaspenen eta interesguneen artean ondorengo hauek nabarmendu beharko lirateke: “Komuna”, Otsagabiako Benita Imízcoz maistrak, Jesús Jiménez Arizkuneko maisuak eta Pedro Rubio Caparrosoko maisuak emandakoa; “Kafea” interesgunea, Justo Labiano Azkoieneko maisuak, Apolinaria de Carlos Lizarrako maistrak eta Narciso Ripa Irunberriko maisuak emandakoa; “Telegrafoa” interesgunea Nicolás Jiménez Alesbeseko maisuak emandakoa eta “Dentsitatea”, Gabriel Valentín Oibarko maisuak emandako irakaspena.

Jardunaldi horietan zehar, Nafarroako irakasleek garaiko hezkuntza alorreko pertsona ospetsuak entzuteko aukera izan zuten, esaterako: Martí Alpera, Lorenzo Luzuriaga, Pedro Arnal, Fernando de los Rios, Vicente Valls...

1933ko maiatzaren 8an, Lehen Hezkuntzako Kontseilu Probintzialak, Ikuskaritzarekin lankidetzan, prestakuntzarako deialdi berria egin zuen, landa-maisu-maistrentzat zuzendutakoa bereziki: “Landa-maisu-maistrentzako hobekuntza ikastaroa”⁵⁸. Ikuskariak, Normaleko irakasleek eta maisu eta maistrek eman zuten ikastaroa. Gaiak alde teorikoen eta irakaspen praktikoaren ingurukoak izan ziren. Ikastaro horretan landutako gaitegia ondorengo hau izan zen: “Eskola-museoak eta natura zientzietako metodologia”, “Eskola-koadernoak”, “Eskola-liburutegia”, “Eskola-egunerokoa”, “Gizalegearen irakaspena haur nagusientzat” eta “Eskulanak irakasgai guztietarako”.

58. Nafarroako Ikuskaritza Batzordearen akten liburua, 1933-1969, 6, 7, 8 eta 9. orrialdeak.



Nafarroako Lehen Hezkuntzako Irakasle-Lanaren Elkarteak Lehen Hezkuntzako Kontseilu Probintzialarekin batera lan egin zuen irakasleen prestakuntzan. Astero El Magisterio Navarro aldizkaria argitaratzen zuten. Aldizkariko bi zuzendariak Mariano Sáez Morilla⁵⁹ eta Cleto Rojo Pérez⁶⁰ izan ziren.

59. Mariano Sáez Morilla, sortzez Albacetekoak, Nafarroako Eskola Normaleko maisua, abokatua eta katedratikoa izan zen. Nafarroan hezkuntza eta kultura zabaltzen lagundu zuen bere ekimenekin. Egindako jardueren artean nabarmenenak; PSOE taldeko Iruñeko Udaleko zinegotzi izatea, Ikasketen Zabalkunderako Batzordeko bekaduna, *El Magisterio Navarro* aldizkariko zuzendaria, *El Pueblo Navarro* egunkari liberaleko erredaktorea, Nafarroako Misio Pedagogikoetako eta Lerineko prestakuntza ikastaroetako arduraduna eta bultzatzailea, Eskola Batzordeko lehendakaria eta Nafarroako UGTko irakaskuntza alorreko sortzailea eta lehenengo lehendakaria. Avilán atxilotu zuten eta Ostitzen (Nafarroan) hil zuten 1937ko otsailaren 10ean.

60. Cleto Cristobal Rojo Pérez Los Arcosen jaio zen 1884an. Maisu gisa lanean egon zen Mendabia, Etxarri Aranatzen, Asiainen eta Arriatzun. Nafarroako Lehen Hezkuntzako Irakasle-Laneko Elkarte Probintzialeko lehendakaria izan zen eta baita "Fraternidad" Sorospen Mutualitateko ere. Hainbat komunikabideetarako artikulua idatzi zituen: *Diario de Navarra*-n, Teruleko Asociación Lehen Hezkuntzako aldizkarian eta *Magisterio Navarron*. Horetan guztietan irakasle-lanaren aldarrikapenak eta Errepublikako hezkuntza proiektua defendatu zituen. Irurtzunen eta Lerinen egin ziren ikastaroak antolatzen lagundu zuen, baita Nafarroako Aste Pedagogikoan ere. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak gogorki kritikatu zuen, atxilotzeko eta kondenatzeko jarraibideak eman zituen.

Eunateko (Muruzabal) ermitara egindako bidai kulturala. Ikastaroa ikasleak Hezkuntzako Zuzendari nagusia zen Rodolfo Llopisekin⁶¹ eta Miss Argentinarekin joan ziren. Navaridasek utzitako argazkia.



Nafarroako Aste Pedagogikoko prestakuntza ikastaroko maisuak eta maistrak Orreagako Kolegio-Eliza bisitatzen. Erdian, Fernando Ríos Instrukzio Publikoko Ministroa dago⁶². Navaridasek utzitako argazkia.



61. Rodolfo Llopis Ferrándiz (Callosa de Eusarriá, 1895 - Albi, Frantzia, 1983). Gorteetako diputatua izan zen II. Errepublikan zehar, Lehen Hezkuntzako zuzendari nagusia izan zen eta Largo Caballeroren gobernuko idazkari ordea. Buruzagi sozialista eta pedagogoa izan zen. Espainia osoan lehen hezkuntzako eskolen eraikuntza eta ekipamendua zabaltzeagatik ezaguna izan zen.

62. Fernando de los Ríos Urruti (Ronda, 1879 - New York, 1949). PSOEko militantea 1918tik. Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako ministroa izan zen lehenengo biurtean. Madrileko unibertsitateko instalazio berriak inauguratu zituen, baina ez zuen lortu Errepublikak aldarrikatzen zuen irakaskuntza bateratuaren proiektua sendotzea.




Manuel Laguna Buitrago⁶³, Corteseko maisua, bere ikasleekin. 1934. Corteseko udalak utzitako argazkia.



Berako mutilak Lehen Jaunartzea egin zuten egunean. 1933. Berako Liburutegiak utzitako argazkia.

63. Don Manuel Laguna Buitrago (Zaragoza 1904 - Alacant 1972). Corteseko (Nafarroa) maisua eta Nafarroako Hezkuntzako Ikuskaria. Nafarroako ikuskaria izan zen hogei urte horietan zehar hainbat kargu izan zituen: ikuskari-nagusia, Alfabetatze Kanpainako eta Eskola-Elikadurako Zerbitzuko koordinatzailea, Instrukzioko Maila Minimoen egilea eta Eskola-Eraikinen Batzordeko kidea. Alemaneko eta ingeleseko irakasle izan zen Iruñeko "Principe de Viana" Institutuan eta Pedagogia Terapeutikoko ikastaroetan parte hartu zuen. Jesús Laguna Peña bere semea Hezkuntzako kontseilaria, Normaleko irakaslea eta Hezkuntzako ikuskaria izan zen.

“Lerineko ikastaroa”, 1930an, eta “Nafarroako Aste Pedagogikoa”, 1932an, garai horretan egin ziren prestakuntza ikastarorik garrantzitsuenetako batzuk izan ziren. Bietan berrikuntza didaktikoak eta antolakuntzakoak txertatu zituzten⁶⁴.



Azkenik, 1935eko ekainaren 8tik 3ra, San Frantziskoko Udal Eskoletan “Haur eskolako maistrentzako prestakuntza ikastaroa” eskaini zen. Txostenak ikuskariek eta maisu-maistrek egin zituzten. Ikastaroa Nafarroako Kultura Kontseiluak diruz lagundu zuen eta ondorengo gai hauek jorratu zituzten: “Marrazkiaren bidezko irakurketarako eta idazketarako hastapenak”, “Umeak etxean ikusten dituen gauzen inguruko elkarrizketa”, “Umeen zentzu kromatikoa”, “Kalkuluaren hastapenak”, “Lezio praktikoak”, etab.⁶⁵

Errepublikak maisu-maistren formakuntzarako erabili zituen beste tresnak **Lankidetzaren Pedagogikarako Zentroak** izan ziren. 1932ko abenduaren 2ko Dekretuan ezarri ziren eta, era berean, Ikuskaritzaren funtzioak berrantolatatu eta indartu ziren.

64. Ernesto Marcos Rodríguez, Salamancako maisua eta Nafarroako ikuskaria 1921ean. *Plan y Programa de la Primera Enseñanza* liburua egilea, garaiko Europako metodologia berriak eta Eskola Berriko hezkuntza proiektuko ideia berriak txertatzeko gogor lan egin zuen. Alderdi Sozialista Erradikaleko lehendakaria izan zen. Erregimen berriko agintariek zigortu zuten.

65. Ikastaroa Ikuskaritzak Madrileko haur eskolak bisitatzeko antolatutako “Ikasbidaira” joan ziren ikuskariek eta maistrek eman zuten. Bidai horretako antolatzailea Francisca González izan zen. Berarekin batera joan ziren haur hezkuntzako maistrak ondorengo hauek izan ziren: Dominica Ariz, Iruñekoa; Juliana Goñi, Iruñekoa; Adelaida Ortega, Tuterako; Agustina Villanueva, Alesbeskoa, eta Genoveva Ibañez, Obanosekoa. Nafarroako Ikuskariren Batzordeko Akten Liburua, 1933-1969, 39. eta 40. orrialdeak.



Tuterako Lankidetza Zentroak Madriler, Escorialera, Valentziara eta Toledora egin zuen ikasbidaia. Irudian ondorengo hauek ikus daitezke: Blanca Bejarano (Ikuskaria), Fiteroko Avelina Pérez; Valtierako M^a Dolores Zuasti; Tuterako Rosario Aldaz; Corellako Felisa Unzué; Cintruenigoko María Camaño; Arguedaseko Juan José Gárriz eta Alejandro Fernández; Ribaforadako Carmelo Caballero eta Cabanillaseko Diómedes M^a Soto. Nafarroako Hezkuntza Ikuskaritzako Aldizkaria VII-VIII eta IX.zk, 1935. urtea.

Zentro horietako plangintza eta koordinazioa Ikuskaritzari zegokion. Maisuak eta maistrak horietan antolatzen ziren ezarritako eremuen arabera. Hilean behin biltzen ziren eskolako lanarekin zerikusia zuten gaiak lantzeko. Ikasketa teknikoak eta materialak trukatu ziren eta informazio-hitzaldiak, irakasgaiak sortzeko prozesuak eta ikasbidaia izan zituzten mintzagai.

Lankidetza Zentroek egin zuten ekimenetako bat, Tuterako Lankidetza Zentroarekin batera, Madriler, Escorialera, Toledora edo Valentziara egingako ikasbidaia izan zen. Bidai hori Blanca Bejarano ikuskariak koordinatu zuen eta Aldundiaren eta Tuterako aldeko zenbait udalerriren diru-laguntza jaso zuen.

Bestelako bidaiak ere egon ziren: Altsasuko Lankidetza Zentroko maisu-maistrek Santanderrera egin zuten txangoa, Vicente Navarro ikuskaria koordinatzaile zelarik, edo Lizarraldeko maisu-maistrek, Rosaura López buru zelarik, Logroñora, Madriler, Toledora, Escorialera edo Burgosera egin zuten bidaia. Eta Lizarrako Lankidetza Zentro horrek “Cosas de Navarra” liburua argitaratu zuen, Rosaura López ikuskariaren laguntzarekin.

Bidai horietan jasotako prestakuntza probintziako beste irakasleei ere zabaltzen zitzairen, izan ere ekitaldi horietan parte hartu zuten maisuek eta maistrek prestakuntza ikastaroak antolatzen baitzituzten. Gainera *Nafarroako Hezkuntza Ikuskaritzako Aldizkarian* ere argitaratzen zituzten horiek egindako lanak.

Benetan nabarmengarria da Nafarroan Errepublikako ideal berritzaileak txertatzeko borrokan aritu ziren maisu-maistren ahalegina. Irakasleen Zentro horietako bat gehin dinamizatu zuen maistretako bat Julia Álvarez Alesbesko maistra izan zen. Eredu gisa, Ikuskaritza Batzordera bidali zuen idatzia dugu, Zentroetan egindako lan pedagogikoa azpimarratzen zuena eta, aldi berean, Irakaskuntzako Langileen Elkarte Probintzialeko lehendakari gisa, baimena eskatzen zuena Alesbesko Lankidetzako Pedagogikoko Zentroan eskualdeko maisu eta maistrentzako ekitaldi bat egiteko.

Ikuskaritza 1933ko ekainaren 19ko ohiko bilkuran bildu zen, Mariano Lampreave⁶⁶ ikuskari nagusia buru zela. Julia Álvarezren eskutitza aztertzea eta horri erantzutea izan zen gai ordenako atal bat.

Aktan Ikuskarien Batzordeak bereziki baloratu zuen “Julia Álvarezren gogoberotasun profesional handia” eta bere eskaera ukatu zuen “Alesbesko ekitaldi horretarako deitutako maisu eta maistrak gehiegi zirelako”⁶⁷.

Julia Álvarez Errepublikako berrikuntza pedagogikoekiko konpromiso handia erakutsi zuen maistretako bat izan zen. ¡*Socialistas!* Astekarian “Eskola eta bizitza” deituriko atal bat zegoen. Artikuluetan irakaskuntza laikoa, errepublikarra eta bakarra defendatzen zen. Julia Álvarezek gogor lan egin zuen oinarri errepublikarrak txertatzeko, eta ezarritako legeriarekin bat ez zetozen jarduerak salatu zituen. Salaketen artean, Nafarroako Lehen Hezkuntzako Kontseilu Probintzialera bidalitako protesta-eskutitz bat dago:

Julia Álvarez andreak, Alesbesko maistra nazionala, ondorengoa adierazi nahi dizue errespetu osoz:

Nafarroako Irakaskuntzako Langile Profesionalen Elkarteko lehendakari gisa ohar bat jaso dut, eta eskutitz horren benekotasuna aitortzen dut. Oharrean ohartarazi zait iragan urrian Zangozako Sada herriko maisu nazionala hil zela eta geroztik ez dutela eskola horretarako bitarteko maisurik bidali. Eta herriko apaiz jaunak, baimenik duen ere jakin gabe, eskola nazionaletan irakasten hasi dela, Kristau Doktrina programan txertatuz eta izaera ezkertiarreko bizilagunen seme-alaben kontra jazarpen argia eta frogagarria eginez. Ulertzen dut, bada, arazo garrantzitsua dela eta Kontseilu Probintzialak parte hartu behar duela [...] ezohiko gertaera horiek zuzentze aldera. Iruñean, 1933ko abenduaren 29an. Sinadura eta zigilua.

66. Mariano Lampreave Compains (Itzaltzu, 1883 - Iruña, 1948). Pitillaseko maisua eta Nafarroako ikuskari-nagusia (1931-1948). *Mi Sendero, Manuscrito para niños y niñas y Novedades Matemáticas* eskola-testuak idatzi zituen.

67. Nafarroako Ikuskarien Batzordeko Akten Liburua, 1933-1969, folios 15. eta 16. orrialdeak.



Errepublikako irakasleen kontrako errepresioa basatia izan zen. Baina maistren kasuan are gogorragoa izan zen. Izan ere, hiri txikietan eta herrietan ez zitzairen barkatu gizarteak emakumeei ezartzen zien eredu tradizionala apurtu izana. Argazkian, Julia Álvarez Alesbesko maistra ikus dezakegu hezkidetzan aplikatzen, 1932an. Álvarezek Iruñeko San Frantziskoko Udal Eskoletan antolatu zen Lanen eta Eskola Materialen Erakusketan parte hartu zuen 1932an. Alicia Rudik utzitako argazkia.

Zangoza, Elizondo edo Viana bezalako udalerrri garrantzitsuenetan neskontzako eskola publikorik ez egotea ere salatu zuen hainbat komunikabidetan.

Era berean, bere curriculumean Espainiako emakumezko lehen Gobernadore Zibila izatea jasotzen da, bai eta Gorteetako parlamentaria izatea, Valentziako lehenengo auzialdiko epailea, Espioitzaren eta Goi-mailako Traizioaren Epaimahaiko magistratua eta Madrileko Hezkuntzako ikuskaria ere.


Alesbesko udalak, herri horretan jaio baitzen 1904an, maistra eta abokatu gisa egindako bere lana aitortu nahi izan du eta herriko Kultura Etxeari bere izena eman dio.

Fermín Pérez-Nievas Borderas Tuterako kazetariak egindako ikerketen arabera, gerra ostean Frantzian erbesteratu zen eta, ondoren, Mexikon. Han hil zen 44 urte zituela, erabateko anonimatuan.

Eta, azkenik, azpimarratu behar da Errepublikako Gobernuak ikuskariei eman zien papera, ez baitzizkien soilik funtzio fiskalak esleitu, baizik eta izatera teknikoagoa eta berritzaileagoa zituzten funtzioak ere. 1932ko Dekretuan ikuskaritzaren funtzio berria eratu zen, “ikuscaria eskolara” hurbiltzen zuena. Ikuskaria hainbeste desiratzen zen hezkuntzaren erreformarako giltzarri gisa agertzen da 1933an Llopisek egindako baieztapenean:

Ikuskariak berrikuntza pedagogikoaren eragile aktiboak eta aurrerapenaren arduradunak izan behar dira.

Irudian ikus ditzakegun aldizkarien harpidetza Nafarroako eskola eta ikastetxe gehienek zuten. Lehenengoa Nafarroako Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzak argitaratu zuen eta, bigarrena, Estatukoak.



Hori guztia dela eta, ikuskariak Errepublika garaiko maisu-maistren ardatz egituratzaile, motibatzaile eta prestatzaile gisa aitortzeko hainbat adierazle egon ziren, esaterako: irakasleentzako prestakuntza ikastaroen diseinuan eta plangintzan egin zuten lana, Lankidetzako Zentroetako koordinatzaile papera, Hezkuntzako Aldizkaria hilero argitaratzea, eskaini zuten laguntza psikopedagogikoa edo maisu-maistren Plan Profesionaleko praktikan egin zuten tutoretza lana.

Hezkuntzako Aldizkaria irakasleen prestakuntzan funtsezko baliabide bat izan zen. Izaera pedagogikoa zuen aldizkaria zen, Ikuskaritzako Batzordeak, maisu-maistren laguntzarekin, diseinatutakoa eta egindakoa. Aldi errepublikar motz horretan interes eta ardura pedagogikoak zabaltzeko tresna izan zen eta irakasleen esperientziak partekatzeko baliabidea. 1935. urtean zehar lau liburuki argitaratu ziren. Ondorengo atal hauek jasotzen zituen aldizkariak: doktrinaren inguruko gaiak, gai praktikoak, Lankidetzako, Ikuskaritza eta Eskola Normaleko zentroak, herrietako hobekuntzak, Kontseilu Probintzialaren inguruko informazioa, ohar orokorrak eta gomendatutako bibliografia⁶⁸. Errepublikako agintariek beste Hezkuntza Aldizkari bat argitaratu zuten estatu mailan, Nafarroako Ikuskaritzak argitaratutakoaren osagarri zena.

68. Nafarroako Ikuskaritza Batzordeko Akten Liburua, 1933-1969, 25. eta 26. orrialdeak.



Argazkian Irene Larragueta Gil, Atarrabiako maistra, 1932-33 ikasturteko bere ikasleekin ikus dezakegu. Maistra Udalean kargu publikoa izan zuen herriko lehenengo emakumea izan zen. Errepublikako agintariek “Merituari” diploma eman zioten eta Atarrabiako Udalak, Agustín García bere senarraren lana aitortzeko, herriko kale bat eskaini zion. Atarrabiako Udalaren Argazki Artxibategiak utzitako argazkia.

8.4. Eskola Bigarren Errepublikan

Eskola errepublikarra Konstituzioaren 48. Artikuluan diseinatutako eskola-programetan oinarritu zen, eskola-jarduera gidatzen zituena: “Irakaskuntza laikoa izango da, lana izango da jarduera metodologikoaren ardatza eta gizakien arteko elkartasun idealetan oinarrituko da”.

Ondoren, Errepublikako agintariek, 1932ko urtarrilaren 12ko Arauaren bidez, ondorengoa aipatu zuten:

Eskolaren misioa herrialdea eraldatzea da [...] horrela, monarkiaren mendeko izatera behartu dituztenak Errepublikako hiritar jakitunak izango dira.[...] Eskolari bizitza berri bat eman behar zaio.

Hori dela eta, programa errepublikarrak hezkuntzaren eta gizartearen arloko askotariko ideia, proiektu eta gogoeta jasotzen zituen, ILEak eta Eskola Berriak aldarrikatu zituztenak.

Iraultza pedagogiko hori aurrera eraman ahal izateko, ordutegi zaharrak, programa zaharkituak eta metodo tradizionalak albo batera utzi eta, horiek, genero berdintasuna lortzeko sistema demokratiko baten interesguneetatik, metodologia ludiko, aktibo eta partehartzaileengatik eta antolaketa-sistema malgu eta modernoengatik ordezkatu behar ziren. Eskola, herriko bizit-



Hezkidetzak ez zen zentro guztietan orokortu, Errepublikako agintariak hori nahi izan zuten arren. Zentro gehienetan, mutilak eta neskek bereizita zeuden. Irudian eskola-erakinetako fatxadetan jartzen zituzten ezkuak ikus ditzakegu. Cadreitako museoa.

za sozialaren ardatza izan zedin, bere inguruarekin lotuta egon behar zen. Laburbilduz, Rodolfo Llopisek (1933) esaten zuen bezala, eskola “tresna berritzailea izan behar zen” eta ez “atzoko gizakiaren jarraituko zuen sistema”.

Errepublikako hezkuntza egoera zein egoera politiko berriak Nafarroako eskoletan izan zuen eragina dela eta, hainbat ondorio atera ditzakegu maisu-maistren ahozko testigantzei erreparatzen badiegu. Nafarroan garai horretan lan egin zuten maisuen eta maistren arabera, euren bizitza profesional zein pertsonalean eragin handiena izan zuten gertaerak ondorengo hauek izan ziren: ikasgeletatik ikur erlijiosoak kentzea (maisua-maistra askok onartu zuten ikurrok gogoz kontra kendu zituztela), kristau-ikasbiderik ez egotea gelako programazioan, ez eta sartzeko eta ateratzeko otoitzik ere, eta soldataren igoera. Hala ere, oso gutxi aipatzen dituzte egon ziren garbiketak eta errepresaliak.

José Antonio Balduz Cristóbalek, Erdotzaingo maisua Errepublika garaian, 2003an egin zioten elkarrizketa batean esaten zuen:

Baina nola ez ginen ba maisuak eta maistrak errepublikarrak izango Errepublikak hain zuzen ere atera baigintuen pobreziatik eta gure lanari merezitako duintasuna eman baitzion!⁶⁹.


Errepublikako Gobernuak ezarritako neurri pedagogikoen txertatzeari dagokionez, maisu-maistrak ez ziren horien alde edo kontra jarri, salbuespenak salbuespen, baina ekimen positibo gisa gogoratzen dituzte prestakuntza planak, bereziki Lankidetzak Pedagogikoko Zentroak, eta Misio Pedagogikoen zentroetan banatu zituzten liburu sortak. Horietako maisu eta maistra batzuk ondorengo hau esaten zuten:

Garai horietan, gurasoek Errepublikako irakaskuntza mota kritikatzeko zuten ludiogegia zelako eta haien ustetan hezigarria ez zelako. Euren seme-alabei esaten zieten: eskolara ez da jolastera joan behar, ikastera baizik!.

Baina, hala eta guztiz ere, Lankidetzak Pedagogikoko Zentro horietan “eskola indartzeko” hezkuntza praktika berriak eztabaidatu ziren. Hori zen behin eta berriro eskola errepublikarreko maisu eta maistrek errepikatzen zuten kontsigna: Sainz (1931), Basteiro (1932), Llopis (1933), Luzuriaga (1934), Almendros (1934), besteak beste.

Errepublika garaiko eskolak, modu orokortuan ez bazen ere, hainbat alderdi pedagogiko lantzen zituen, esaterako: naturaren behaketan oinarritutako irakaskuntza aktiboa eta esperimentalak, metodologia berriak txertatzea,

69. F. MIRANDA *et al.*, *Villava, ocho siglos de historia*, Atarrabiako Udala, 2006, 374.orr.



Garai horretan Nafarroan argitaratutako liburuak.

Cousineten ideiak praktikara eramatea, Montessori metodoa, globalizazio decrolyarra edo Freineten eskola kooperatiboa.

Nafarroako eskoletan, batzuetan izan ezik, ez zen aldaketa nabarmenik egon irakasten zituzten edukietan, ez eta erabiltzen zituzten baliabide didaktikoetan ere. Maisuek eta maistrek ez zuten denbora nahikorik izan horrenbeste berrikuntza pedagogiko hain epe motzean barneratzeko.

Beraz, onartu beharra dago, ez zirela asko izan eskolan txertatutako berrikuntza metodologikoak, neurri batean arazo ekonomikoak eta liskar politiko larriak zirela eta.

Bestalde, ikuskariak eurek ere, Ikuskarien Batzordeko aktetan, Nafarrako landa-eskoletan aurkitzen zuten utzikeria eta mespretxua agerian uzten zuten. Kexu ziren eskola mota horietan oso zaila zelako eskola aktiboan ezarritako arau metodologikoak aplikatzea.

Kontsultatutako eskola-koaderno batzuetan egiazta daiteke Nafarroan interesguneak, eskola-museoa, eskola-egunerokoa, irteera kulturalak eta erre-gistro paidologikoak lantzen zituzten maisuak eta maistrak egon zirela. Fitero, Cintruenigo ea Alesbesko eskola publikoak eskola berritzailearen adibiderik argienak dira. Gainera, Alesbeko eskolan nekazaritza-esperimentaziorako lursail bat zuten, ikasgela-antzoki bat klasikoen antzezlanak antzezteko eta, urtero, Osasunaren eta Liburuaren Eguna ospatzen zuten.

Garai horretako maisu-maistrek ezagutzera eman zuten beste arazoetako bat eskola-absentismo maila altuarena izan zen. Hezkuntzako Ikuskari zen



Bigarren Errepublika aldarrikatzean, ikur monarkiko tradizionalak ideia errepublikarekin bat zetozen ikurrekin ordezkatu ziren. Irudian *Errepublikaren Alegoria* ikus dezakegu, ikasgeletako paretetan zintzilikatu zena.

Vicente Navarrok, 1934ko urtarrilaren 12ko saioan, Ikuskarien Batzordeari proposatu zion eskola-asistentziaren datuak hobetzeko neurriak bilatzea. Navarro jaunak Batzordeko beste kideei proposatu zien euren eremuetako tokiko batzarrek eta maisu-maistrek ikasleen bertaratze maila baxuari aurre egiteko erabiltzen zituzten irtenbideak jasotzeko hurrengo saiorako, proposamenak eta irtenbideak jasoko zituen txosten bat egite aldera. Eredu gisa, Vicente Navarrok Toribio Láinez Gil⁷⁰ Cintruenigoko zuzendariak erabiltzen zuen taktika:

Eskola honetan, hamar urte baino gutxiagoko haurrek bertaratze maila arrunta dute. Hamaika urtetik aurrera, maisua eskuzabala izaten da ikasleen bertaratzen ez direnean, baina soilik uzta jasotzeko bi garaietan, eta ikasle horien gurasoek erabakitzen dute zer egin⁷¹.

Valtierrako ikuskariak Ikuskarien Batzordera bidali zuen idatzian herri horretako udalak analfabetismoarekin bukatzeko egindako lan ona goraiatu zuen. Valtierrako udalak 1931ko urriaren 10ean argitaratutako bandoan, Moisés Bobadilla alkateak sinatutakoa, erregimen berriak hezkuntzarekiko zuen ardura agerian uzten da.

Jakinarazi nahi dut, Lehen Hezkuntzaren onurarako, ondorengo hau jakitera eman nahi dudala: eskola nazional batean matrikulatutako haurrak bertara maiz eta puntualtasunez joateko betebeharra du, ikasturteko eskola-egun guztietan... Soroetan lan gehien dagoen garaietan, eta beti ere nik onartzen badut, 11 urtetik aurrerako haurrek eskolara ez joateko baimena izango dute familia laguntzeko egun berezi horietan. Egundorietan ezingo dira guztira hamabost baino gehiago izan eta soroetan laguntzeko garaia ezingo dira hiru baino gehiago izan ikasturte batean.

Eskolara joateko betebeharra, alorreko tokiko erakundeak agindutakoaren arabera, alkateak ezarriko du. Ikaslea bertaratzen ez den lehenengo aldiaren ohartarazpen bat jasoko du eta ondoren guraso, tutore edo haurren arduradunak direnei 5, 10 eta 20 pezetako isuna ezarriko zaie ikaslea eskolara joan ez bada eta horretara behartuta baldin bazegoen.

70. Don Toribio Láinez Gil Ambelen (Zaragoza) jaio zen 1898an eta Alesbesen hil zen 1936an. Irakasle-Lana Zaragozan ikasi zuen. Aragoi eta Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin ostean, Cintruenigora joan zen eta mutilen eskolaren zuzendaritza hartu zuen. Lan handia egin zuen bere ekimen pedagogiko, sozial, politiko eta kulturei esker. Irakaskuntzaren alorrean, buru kalkulua eta geografia irakasteko teknika berritzaileak asmatu zituen. Autolaguntzako fitxategi matematikoa sortu zuen eta multikopista patentatu zuen. Bere mapa mutuak hezkuntzako agintariak gomendatu zituzten zuten eduki pedagogiko baliotsuarengatik. Lerinen eta Iruñean egindako prestakuntza ikastaroetan txostengilea lanak egin zituen. Eremu sozialari dagokionez, Eskolako Kantinak antolatuta, prestatu eta kudeatu zituen. Politikari dagokionez, PSOEko afiliatua izan zen, tokiko taldeko idazkaria izan zen eta baita UGTkoa ere. Bere lorpen handienetako bat Mutilen Eskola zinema, antzezlanak, gaueko klaseak... egiteko erabili izana izan zen. Tiroz hil zuten Alesbesen. Bere ohorean kale batek bere izena du herrian.

71. Nafarroako Ikuskaritza Batzordearen akten liburua, 1933-1969, 21. orr.



“José Escudero” Fiteroko Udal Eskoletako ikasleen eskola-koadernoak, 1932-1933 ikasturtekoak.

Blanca Bejarano Alesbesko Ikuskariak bere udalerrian erabilitako sistema azaldu zuen:

Alkateak ikasleen ez bertaratzea salatzen zuen eta gurasoei duro bateko isuna jasotzen zuten. Gurasoei behartzen zitzairen, baita ere, gaitasuna zuten pertsonak hartzera euren seme-alabei klaseak emateko. Maisu-maistrek ikasle horiek ikasitakoaren garapena egiaztatzen zuten ezohiko azterketen bidez.

Udalek eskola berrietarako lortu behar zituzten materialen eta altzarien zerrenda Ikuskaritzak ezartzen zuen 1935eko abenduaren 9ko Gacetan ezarritakoaren arabera. Ikasgeletan zeuden tresna gehienak xx. mendeko lehenengo herenean jada erabiltzen zirenak ziren. Eskola berriak eskola-liburutegiekin, bi pertsonentzako ikasmahai modernoekin eta baita haur eskolarako mahai berriekin ere hornituta zeuden. Beste eskolentzako tresnen eta liburuen hornidura oso oparoa izan ez zen arren, Nafarroako eskola gehienetara iritsi zen.

Errepublikako garai horretan gehitu zituzten tresnen eta liburuen artan *Alegoría de la República* (Pradilla) nabarmendu dezakegu, bai eta hiru koloretako bandera eta Misio Pedagogikoen banatu zituen liburu-sortak ere. Nafarroan, eskolako inbentario eta aurrekontuen arabera, Nafarroako egileen liburuak ere erabili zituzten, esaterako: García Ezpeletaren *Geografía e Historia de Navarra*; Rafael Querejetaren *Navarra, lecturas*; Nafarroako Irakasle-Lanak argitaratutako *Cosas de Navarra*; Leoncio Urabayenen *Atlas y geografía de Navarra*; Félix Sesma Catalánen *Trabajos en alambre*; Mariano Lampreaveren *Novedades matemáticas*; Fragaren *Aritmética*; Florencia argitaletxeko *Cartilla A, E, I*, eta Navaridasen *Las hijas del sol y de las flores*.

Murillo el Cuendeko Mutilen Eskolako ikasgela, Inocencio Pascual Ardanaz maisuarekin. Atzean, gurutzearen ordezkari jarri zuten *Errepublikaren Alegoria* ikus dezakegu.



Murillo el Cuendeko nesken eskolako ikasgela. Atzean Errepublikako presidentearen, Niceto Alcalá Zamoraren⁷², irudia ikus dezakegu, Alfonso XIII.aren irudiarengatik ordezkatu zena. Ikasgelako maistra Águeda Guillermo Osés izan zen, indarreko araudia bete eta gurutzea eta bestelako ikur erlijiosoak ikasgelatik kendu zituena. 1936an lanik eta soldatarik gabe utzi zuten epe mugagabearen.



72. Niceto Alcalá Zamora II. Errepublikako presidente izendatu zuten talde politiko guztien adostasunarekin eta 1931ko abendutik 1936ko apirila arte karguan egon zen. Bere irudia eskola publiko guztietan zegoen.

8.5. Euskararen irakaskuntza Nafarroan

XVIII. mendeko Borboien zentralismoak euskararentzako zein estatuko beste hizkuntzentzako atzerapauso handia eragin zuen.

Euskarak, beraz, gaztelaren inposaketa jasan zuen monarkia zentralizatuile horren esku. Euskararen historia, Bigarren Errepublikako parentesi horretan izan ezik, errepresioaren eta debekuaren kronika da.

Nafarroako Gorteen XLI. Legearekin, eremu elebakar euskaldunetan gaztelari ateak zabaldu zitzaizkion agintariak profil elebidunik ez zuten maisu eta maistrak eremu horietara bidaltzerakoan.

Hori dela eta, Nafarroako Erresuma zaharreko eskoletan erabiltzen zen hizkuntza gaztelera izan zen. Irakasle-Laneko azterketak ere gaztelera egiten ziren.

Andrés Martín Badostaingo abadeak 1839an herrian gertatutakoa gogora ekartzen zuenean errealitate horren testigantza adierazgarria jaso dezakegu:

herria euskalduna zen eta euskara gaztelera baino gehiago hitz egiten zen. Eskolan maisua jarri zuten arte, orain dela hamasei urte inguru (1823) eta geroztik gaztelera sustatu da eta bi hizkuntzak hitz egiten dira”, J.M. Jimeno Juriok ateratako testuaren arabera⁷³.

1872an, Louis Lucien Bonaparte filologo frantziarrak, Euskal Herriko landa eta herrietatik ikerketa zorrotzak egin ostean, euskalkien mapa ospetsua egin zuen. Ikus dezakegu, beraz, “lingua navarrorum” Lizarra-Tafalla-Zangoza leertatik iparralderantz zabaltzen zela.

Hizkuntza batek herri bat definitzen du, bizitzaren aurrean norbanakoaren eta taldearen portaera azaltzen du, izateko eta pentsatzeko modua deskribatzen du, tradizioa, kultura, sentipenak... adierazten ditu.

Latinak, frantsesak eta gaztelera hasieratik izan zuten Administrazioaren, agintarien, Elizaren, burgesiaren... onspena. Gaztelera jendearen bizitzetan, enparantzetan, dendetan, eskoletan... sartzen hasi zen. Euskara baserriko eta eskulangileen, jurnalarien eta nekazarien esparrura mugatu zuten. Agintariak gaztelera hitz egiten entzuten zituztenez, nafar asko uzkurtuta eta umiliatuta sentiarazi ziren. “¡Habla en cristiano!” izaten zen askotan udaletxera sartzean entzuten zuten lehenengo esaldia. Beraz, euskaraz ere ez zuten idazten, horretarako hizkuntza jasoak baitzeuden.

73. R. JIMENO ARANGUREN y J. L. NIEVA ZALDOZA, *Enseñanza pública en Pamplona. Cien años de las escuelas de San Francisco (1905-2005)*, 108. orr.

Errepublika garaian, gorabehera politikoen hamarkada luzeen ostean, euskarak itxaropen aldia bizi izan zuen. Sektore batzuen oztopoak oztopo, euskara kulturaren hizkuntza bihurtzeko nahia irakaskuntzara ere iritsi zen. Horrela jaio ziren lehenengo ikastolak. Nafarroan sortu zen lehenengo ikastola Iruñekoa izan zen (1932-1936), bigarrena Lizarran ireki zen (1933-1936) eta hirugarrena Elizondo-Baztanekoa izan zen (1935-1936). Argazkian Iruñeko Ikastolako ikasgela ikus dezakegu. Eskola Mistoa izan zen, Karlos III.a etorbidean zegoena eta ondoren Eskolapioen etxabeetara pasa zena. María Viscarret Navaz maistra zen burua. 1933. Presentación Viscarretek utzitako argazkia.



Kontstatutako eskola-inbentarioen eta -aurrekontuen artean ez dugu euskararen inguruko erreferentzia bakar bat ere aurkitu. Francisco Sotok egindako ikerketen arabera, “Nafarroan euskaraz argitaratzen ziren eskuliburu bakarrak Kristau Doktrinarenak izan ziren”⁷⁴.

Nafarroako eskoletako euskararen aldeko aldarrikapena Nafarroa erresuma zenetik dator. 1820an Zugarramurdiko Sor Joaquina Benita de la Cruz Fundazioak, bere araudiko bigarren atalean, ezarri zuen herriko eskola publikoetan (bat mutilentzat eta bestea nesKentzat) “maisuek eta maistrek euskaraz eta gazteleraz hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izan behar zutela”⁷⁵.

Beran, 1833an, Francisca Antonia Irazoquik aurkeztutako memorian azaltzen du María Antonia Elizechearen gaixotasunaren ondorioz, Antxopleña bere etxean neskak borondatez jasotzen hasi zela. Neska horiei idazten, irakurtzen “eta kristau doktrina bi hizkuntzetan irakasten zien, bai eta brodatzen, oxkarratzen, galtzeta egiten eta neskei zegozkien bestelako joste-lanak egiten ere”⁷⁶.

74. F. SOTO ALFARO, *Manuales escolares de primera enseñanza editados en Navarra de 1800 a 1912*. Universidad Nacional de Educación a Distancia. Madril 2005, 294.orr.

75. M^a R. GÁRRIZ YAGÜE, *Las maestras de escuelas de niñas en Navarra durante el Antiguo Régimen*, VII Congreso General de Historia de Navarra, (2011), 477.orr.

76. M^a R. GÁRRIZ YAGÜE, *ibidem*, 476.orr.



Ustarrotzeko udalak, 1855eko urtarrilean, Valentina Cortesiaren memoria atsegin handiz jaso zuen, herri horretan neskontzako eskola egin zezaten eskatzen baitzuen:

Aurkezpenean azaldu du irakasle gisa egiten duen lana iruzurrezkoa izango zela euskara alde batera utziko balitz, izan ere, herriko neskek ez baitakite gaztelera⁷⁷.

XX. mendearen hasieran, iparraldeko maisu-maistren zenbait memoriak “Irakaslearen lana oztopatu duten” atalean adierazi zuten irakaskuntza-prozesuarekin jarraitzeko oztopo handi bat zela ikasleek gaztelera ez jakitea. Adibidez, Leitzako maisu zen Pedro G. Arreguik 1911ko uztailaren 14an Lehen Hezkuntzako Tokiko Batzordeari aurkeztu zien memorian esaten zuen:

Eskola hau zuzentzen duen maisuak adierazi du Kristau Doktrina eta Historia Sakratua irakasteaz gain, arreta berezia eskaini diola gaztelera irakasteari, eskolara doazen ikasleek hizkuntza hori ezagutzen ez dutelako, euskara baita euren ama hizkuntza.

Tokiko Batzorde batzuek Instrukzio Publikoko Batzordeari euskaraz hitz egiten zuten irakasleak eskatu zizkieten. 1890an, Goizuetako Tokiko Batzordeak eskola-absentismoa eta emaitza txarrak maisuak euskararen inguruan zuten ezjakintasunari leporatzen zion..

Errepublika garaian lehenengo ikastola sortu zen Iruñean. 1931ko urriaren 16an, Pablo Archancok, María Viscarret Navazen izenean, Iruñeko Udalarari Eskola Mistoa Karlos III.eko egoitzako 21. zenbakian irekitzeko baimena eskatu zion. 1932ko azaroaren 16an, María Viscarretek udalari baimen berria eskatu zion eskola handitzeko. 1933ko azaroan, bigarrenez eskola handitzeko

Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an, Erratzun (Baztan) lehen hizkien eskola osatugabe bat zegoen, 55 mutil eta 26 neskekin. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 93 ikasle zeuden bi eskola-unitatetan banatuta. Lehenengo argazkia nesken eskolakoa da, eta bertako maistra María Viscarret izan zen 1957an. Bigarren argazkian mutilen eskola ikus dezakegu, 1905ean udalak eraikitakoa, baina Mexikon bizi ziren zenbait herritarren dirulaguntza jaso zuena.

77. A.G.N. C/ 218321.

Anizeko (Baztan) Eskola Mistoa, 1957. Marichu Lizarrondo maistra bere ikasleekin ikus dezakegu. Marichuk, elkarrizketa informal batean, esan zidan frankismo garaian debekatuta zegoela euskaraz hitz egitea eta euskarazko liburuak erabiltzea. Maistrak utzitako argazkia.



Euskararen Sustapenerako Sailak, Viana Printzea Erakundearen barruan, euskaraz hitz egiten zuten ikasleei Nafarroako Aurrezki Kutxaren diplomak eta libretak ematen zizkien herri batzuetan. Euskara erabiltzeko sari sustagarria zen. Aldundiak Santiago Urrutia mezkiriztarrari emandako diploma 1958an. Diputazioak Sagrario Alemán Astiz ikasleari emandako diploma. Sagrario Alemanek utzitako argazkia.

baimena eskatu zuen zentroan bi maila gehiago sartzeko. Udalak baimena eman zion eta María Viscarretrek bi sexuetakoko ikasleak Eskolapioen Ikastetxe-ko etxabeetara eraman zituen⁷⁸. Horixe izan zen emakume abertzaleen talde batek sortu zuen lehenengo ikastola. Emakume horien artean María Viscarret, Catalina Alastuey eta Julia Fernández Zabaleta aipagarrienak izan ziren. Ikastola horretako lehenengo maistrak Petra Aspíroz, Miren Saizar eta Pilar Alba izan ziren⁷⁹.

Belaunaldietan zehar esan izan da “euskararekin ez dagoela inora joaterik”, “ez duela ezertarako balio”. Guraso euskaldun askok, lotsatuta, pentsatzen zuten euren seme-alabek gaztelera ikasi behar zutela haiek baino garrantzitsuagoak izan zitezten.

Administrazioak ere zeregin berezia izan zuen gaian. Ikasleak eskolara joaten hasten zirenean euskaraz baino ez zekitenez, ez zen erraza izan Goizuetan edo Lesakan euskaraz zekiten maisu eta maistren plazak betetzea.

Edonola ere, euskararekiko errepresioa askoz gogorragoa izan zen frankismo garaian eta eskoletan debekatu egin zen, ikasle askoren ama hizkuntza

78. A.M.P. Legajos 56, 57, 58 eta 60.

79. ELLAS, *Las mujeres en la historia de Pamplona*. Iruñeko Udala, 1998, 144.orr.



Marichu Lizarrondok, Irakasle-Laneko Plan Profesionaleko maistra, euskarazko hainbat liburu erabiltzen zituen, horien artean *Xabierto*. Marichuk esandakoaren arabera, errepublikako agintariak eskolatzearen lehenengo urtetan ama hizkuntzan irakastea baimentzen zuten. Parrokoek kristau-ikasbidea euskaraz irakasten zuten eremu euskaldunear.

izan arren. Euskararekiko errepresioa askotan iraingarria eta basatia izan zen. Ikasgeletan edo jolastokian euskaraz hitz egitea debekatu zen eta “ez dut berriro euskaraz hitz egingo” ehun aldiz kopiatzea bezalako zigorrak ezarri ziren. Baina zigorrik finduena “eratzunarena” izan zen. Euskaraz hitzen bat esaten zuen ikasleak eraman behar zuen. Ikasleek euren artean elkarri zaintzen zioten euskaraz ez hitz egiteko eta, horrela, astearen amaieran eratzun “beldurgarriarekin” ez amaitzeko. Euskara gorrotatzen ikasteko asmakizun gaiztoa.

Egoera gogor horrek frankismoko lehenengo bi hamarkadetan zehar jarraitu zuen. Garai horren eraginak euskararen erabilera sozialaren inoiz ez bezalako atzerakadari lagundu zion.

Vianako Printzea Erakundearen barruan Euskararen Sustapenerako Saila sortu zen, Foruaren Hobekuntza onartu zen eta euskararen zonifikazio linguistikoa egin zen. Horrekin agerian uzten da Administrazioa arazoaren jakitun izaten hasi zela⁸⁰.

80. Euskal hiztunen alfabetatze kanpaina *Kili-Kili, Lan Ta Lan* koadernoekin hasi zen eta 3.500 ikaslek erabili zituzten.

Sartzeko (Zaraitzu) Eskola Mistoko mutilak eta neskak, Ibiltzietako ikasleekin batera eta Felisa Eslava maistrarekin. 1931. "Txuribeltzean" Elkarateak utzitako argazkia.



Eskolak eragin nabarmena izan zuen eremu euskaldunean egon zen euskararen galeran. Ikastolak sortu aurretik, gaztelera eskolako hizkuntza zen, baita Elizondo bezalako herri euskaldunetan ere. Irudian Elizondoko mutilen eskola ikus dezakegu. 1970tik herriko Ikastola da.



9. NAFARROA ETA GERRA ZIBILA

Gerra guztiak bezala, Espainiako azken gerra zibila basatia izan zen. Baita Nafarroan ere, militarki matxinatu zena. “Jainkoaren eta Espainiaren defentsan”, “Ez da gerra bat, Espainia salbatzeko Gurutzada Santua baizik”, “Gizon bakarra izango balitz bezala, Nafarroak Mola babestu zuen”. Horiek dira, 1936ko uztailaren 19an, Nafarroako prentsak eman zituen titularrak, eta eskoletara, institutueta eta Irakasle-Lanaren Eskolara zabaldu zituenak.

Espainia barruko borrokak joera eta ñabardura ezberdinak hartzen joan ziren heinean, Nafarroan, herritar gehienak, Errepublikaren kontra zeuden eta horrek azaltzen du Altxamendu Nazionalera atxiki izana. Uztailaren 18an hasi zen altxamendua eta 21ean, Foru Aldundiak Mugimendu Nazionalera bere atxikimendua adierazi zuen.

9.1. Nafarroako Foru Aldundian ezarritako hezkuntza-neurriak

Franco Jeneralaren tropen atxikimenduekin Foru Aldundiak tabula rasa egin zuen ordura arte indarren zegoen Errepublikako Konstituzioak ezarritako legezko araudiari zegokionez eta konstituzioaren kontrakoak ziren eskumen legegileak bere gain hartu zituen. Hezkuntzari dagokionez, ondorengo hau adostu zuen 1936ko uztailaren 27an:

- 1.- Ikasgeletan gurutzea jartzea lehentasunezko leku batean oraindik horrelakorik egin ez duten udalerrietan.
- 2.- Eskola guztietan irakaskuntza katolikoa berrezartzea.

- 3.- Hezkuntza katolikoaren, Aberriaren batasunaren edo autoritatearen printzipioaren kontrakoa den irakaskuntzarik ez da onartutako.
- 4.- Erlijio-ordenek zuzentzen zituzten eta iraganean itxi zituzten eskola eta ikastetxe guztiak berriro irekiko dira.
- 5.- Hezkidetzak debekatzen da.
- 6.- Maisuen eta maistren izendapenak berrikusiko dira.

Idea horiek eragingarri egiteko eta foru-erregimena ezartzeko, Aldundiak, Nafarroako Lehen Hezkuntzaren antolaketa eta erregimenaren inguruko guztia bere gain hartzeko asmo tinkoarekin, 1936ko abuztuaren 11an Hezkuntzako Batzorde Nagusia lehengoratzera erabaki zuen. Gainera eskumen guztiak eman zizkion hezkuntzaren alor guztietan. Batzordearen lehendakaria José Gómez Itoiz izan zen eta talde homogeen bat sortu zuen, karlismoarekin eta nazionakatoizismoarekin bat zetorrena.

Batzorde horrek egindako lehenengo agiria 1936ko apirilaren 14koa izan zen *Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren prebentzioak Nafarroako Lehen Hezkuntzako eskolak berehala abiarazteko*.

Elizetara, udaletara eta eskoletara bidali zen agiria, eta derrigorrezkoa izan zen bertan azaldutakoa betetzea. Irakaskuntzarako gida izan zen gerra osoan zehar. Hezkuntzari zegokionez, agiri horren edukiak ondorengo hau esaten zuen:

- 1.- Nafarroan emango den irakaskuntza katolikoa izango da zentro guztietan.
- 2.- Irakaskuntza katoliko gisa ulertzen duguna Eliza Katolikoaren doktrina eta praktika guztiekin bat datorrena da. Gainera, irakaskuntza hori nagusiki hezi-garria izango da eta nagusiki aberkoia. Ondorioz, maisu eta maistrek ez dituzte soilik Kristau-Ikasbideko eskolak emango, baizik eta bestelako irakasgaiak ere izaera aberkoiarekin eta erlijiosoarekin landuko dituzte, gure arbasoen hezkuntza sendotzeko eta hezkuntza horren oinarriak tinko ezartzeko.
- 3.- Zentro guztietatik hezkidetzak kenduko da, eskola mistoetan izan ezik. Neurri hori helduen klaseetan ere hartuko da eta soilik gizonezkoak joan ahalko dira eskola horiek jasotzera.
- 4.- Klaseak, salbuespenik gabe, irailaren lehenengo egunean hasiko dira.
- 5.- Klaseak hiru orduz emango dira goizean eta bi orduz arratsaldean.
- 6.- Irakaskuntza-planak 1901eko urriaren 26ko Errege Dekretuan ezarritako irakasgai guztiak barne hartuko ditu, eta egunero Kristau-Ikasbidea eta Historia Sakratua irakatsi beharko dira.
- 7.- Klaseak Sarrerako eta Irteerako ohiko otoitzekin hasiko dira, aurretik gurutzaren keinua egin ostean. Aitagure eta Agurmaria batekin bukatu dira otoitzak.
- 8.- Maisuek igandeetan eta gorde beharreko egunetan mezetara joateko zuten ohitura zaharra berrezartzen da.

9.- Eskola-oporrak bere garaian zehaztuko dira eta berdina izango dira lehen hezkuntzako zentro guztietan. Ostegun arratsaldeetan ez da klaserik egongo aste horretan jaiegunik egongo ez balitz.

10.- Nesken irakaskuntza feminitatearen kontzeptu kristaun oinarrituko da, xumetasunaren, etxeko ekonomia eta higiearen eta joste-lanen garapena lortze aldera. Nesken hezkuntza etorkizunean ama edo etxekoandre gisa ikasleak prestatzera bideratuko da. Garrantzitsuagoa da emakumearen prestakuntza berezia jasotzea eta ez gizonezkoenak diren bestelako eremu okerretan sartzera daraman prestakuntza jasotzea.

11.- Ikasturte amaieran azterketak eskola guztietan egingo dira eta Tokiko Batzordeak buru izango dira.

12.- Heldu den irailaren lehenengo egunean, lehenengo klasea hasterakoan, agintariak eta bizilagunak bertaratuko dira, jada ikasgeletan merezi duen lekua berreskuratuta, Gurutzeari irain-ordea eta atxikimendua erakusteko ekitaldian parte hartzeko. Ezingo da erlijioso ez den ikurrik erakutsi.

13.- Heldu den irailaren lehenengo egunean irakaskuntzarako orain arte erabili diren liburu guztien aukeraketa zorrotza egingo da. Horretarako, alkatea, parrokoa eta maisuak bilduko dira eta elizako agintarien onespina ez duten liburu guztiak baztertuko dira.

Agiri horretako 12. puntuan ezarritakoaren arabera, Nafarroako herri guztietan, modu batean edo bestean, ikur erlijiosoak eskoletan berriro jartzeko ekitaldiak ospatu ziren.

Alesbesko udala Batzorde Nagusiak ezarritakoa aplikatzen prestuena izan zen. 1936ko abuztuaren 1ean, gurutzeak eskola publiko guztietan jarri ziren. Birjarpen ekitaldia horrela ospatu zen: “udalbatza osorik elizara joan zen, eta apaizekin eta udaleko bandarekin batera, eskoletara joan ziren. Bando bidez bizilagun guztiei gonbitea luzatu zitzaien”⁸¹.

Milagroko udala ere bizkorra izan zen. 1936ko abuztuaren 30ean, Foruen Enparantzan eskoletan gurutzeak jartzeko ekitaldia ospatu zen. *Diario de Navarra* berriemaileak horrela deskribatu zuen:

Goizean kanpaiak jotzen hasi ziren, eliza lepo zegoen eta 1200 jaunartze eman ziren. Herriko enparantzan aldare bat eraiki zen. Falangeko kide batek, Erreketeen beste batek eta CEDAko kide batek, fusila eskutan, aldarearen aurrean formatu zuten. Aurrean eskola nazionaletako mutilak euren maisuekin eta Gurutzearen Ahizpen eskoletako neskek zeuden. Meza amaitzean eta ikasgeletan jarriko ziren gurutzeak bedeinkatu ostean, bertaratutako guztiek (margaritak, pelayoak eta CEDAko kideak) ikasleekin eskoletara abiatu ziren, eta jendearen txaloak eta kantak jaso zituzten. Behin eskoletara iristerakoan, agintarien eta ikasleen hitzaldiak

81. FÉLIX MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, *Historia de Villafranca de Navarra*, Pamplona, 1983, p. 642.

egin ziren. Arratsaldeko bostetan, talde guztiek berriro formatu zuten eta elizara itzuli ziren arrosarioa errezatzera⁸².

Iruñean, “Gurutzeari irain-ordea eta atxikimendua erakusteko” ekitaldia irailaren batean egin zen. *Diario de Navarra*, irailaren 2ko edizioan, horrela deskribatu zuen ekitaldia: “ikasturteko lehenengo egunean Gure Berreroslearen irudia Iruñeko eskola guztietan jartzeko ekitaldi hunkigarria ospatu zen”.

San Frantziskoko Eskola Nazionaletan ekitaldia horrelakoa izan zen:

Goizeko 8,30tan San Lorenzoko elizan jaunartze orokorreko meza ospatu zen Tomás Mata Iruñeko alkatearekin eta San Frantziskoko Eskoletako Zuzendariarekin batera. Meza amaitzean, haurren prozesioa egin zen, erreketek eta falangistak buru zirela. Horien atzean, Ekintza Katoliko Femeninoaren bandera eta gurutzea eramaten zuten neska-mutilek, euren gurasoek eta maisu-maistrek desfileatu zuten. Balkoiak banderekin eta oihal zintzilikariekin apainduta zeuden, eta jendeak etengabe txalotzen zuen. Balkoietatik loreen euria erori zen gurutzeen gainean, haurren prozesioak kantika erlijiosoak abesten zituen bitartean. San Frantziskoko eskoletara iristean, aretoan eta galerietan elkartu ziren guztiak eta agintariek hitz batzuk esan zituzten. Ekitaldia amaitzerakoan, maisu eta maistra bakoitza bere ikasleekin joan ziren ikasgeletan gurutzea jartzera, ikasle bakoitzak irudiari musu eman ondoren⁸³.

Garai horretan egin ziren beste jarduera aberkoien artean “Gerra Zibileko Nafarroako Soldaduaeren Gabonsaria” da aipagarria, pertsona ospetsuen Batzorde batek zuzendutakoa, Familia Guraso Katolikoaren Elkarteko buru eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kide zen Daniel Nagorearen lehendakaritzarekin.

Horretarako, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak 1937ko irailaren 7ko bilkuran Nafarroako hezkuntzako zentro publiko eta pribatu guztietan “Soldaduaerentzako Gabonsarirako” bilketa egitea onartu zuen. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak eskoletara bidali zuen jakinarazpenean ondorengo hau esaten zuen:

Soldaduaeren Gabonsaria erakundeak barne hartzen duen izaera tradizionala eta goxotasuna dela eta, atzeguardia behartzen du bere izaera aberkoia eta familiarra gazteen buruetan gordetzera, gure indar borrokalariak egiten ari diren egitandi heroikoaren ikaspenerako eta gogoetarako baliagarria izan dadin.

82. *Diario de Navarra*, 1936ko irailaren 3a.

83. *Ibidem*, 1936ko irailaren 2a.



Eliza Estatuko irakaskuntza laikoa izatearen aurka egon zen. Nafarroan gurutzea goraiatzeko hainbat manifestaldi egon ziren, irudian ikus dezakeguna bezalakoa. Irudian Tomás Mata Iruñeko alkatea hiriko agintariz eta ikaslez inguratuta dago, ikasgeletan berriro jarriko zituzten gurutzeekin. *Diario de Navarra*ko artxiboak utzitako argazkia.

Nafarroako eskola gehienek dohainak eskudirutan eta objektu erabilgarrietan egin zituzten, Gabonetan bando nazionalako soldaduek turroiekin, mazapanekin, zigarroekin, ardoarekin eta eskola batzuetan egindako jantziekin ospa zitzaten. Ekimen hori bi urtez luzatu zen, 1936tik 1937ra. Udalek, eskolek eta pertsona eta erakunde pribatuek euren ekarpena egin zuten ekimena aurrera eramanez ahal izateko. Gainera, maisuek eta maistrek egoera hori probestu zuten ikasgeletan ekintza aberkoi gisa lantzeko.

Ondoren, 1937ko ekainaren 12an, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak eskolei, tokiko agintariei eta prentsari zirkularrak bidali zizkien ikasturte amaieran “hotsandiko eskola-ekitaldi patriotiko ospatzeko”.

Ekitaldi horretan derrigorrez ikasle, irakasle, tokiko erakunde eta guraso guztiak parte hartu behar zuten eta gonbidapen berezia jasotzen zuten gerran elbarritutakoek. Ekitaldi horrek ikasturte amaierako azterketak eta erakusketak ordezkatzeko zituen eta helburu gisa ondorengo hau zuen: “Gure Gudaroste Loriatsuari eta Espainia Berri nahigabetu eta garaileari maitasunezko ordaina egitea bere ahaleginarengatik eta bere seme kuttunen odolarengatik”.

Nafarroako eskola eta ikastetxe guztietan aipaturiko ekitaldi hori ospatu zen ekainaren 29an eta 30ean.

Horretarako, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, 1936ko ekainaren 22an, “Otoitz Aberkoia” onartu zuen, Eladio Esparza Aguinaga konposatutakoa⁸⁴, Nafarroako eskola guztietan ikasturte amaierako festan irakur zezaten:

Jesusen bihotza, ez dugu ikasturtea bukatu nahi Zuri otoitz egin gabe, zuk gure onerako dena egiten baituzu. Esan zenuen, Jauna, Zeruen Erreinua umeena zela. Orain gure eskolako lanak bukatu ditugula, guk, haurrok, egiten dugu otoiz hau eta eskatzen dizugu, Jauna, zure ontasunean, gerra hau amai dadila berriro ere gure eskolak ireki daitezten. Emaiguzu zure bakean oinarritutako garaipena, zaindu ezazu gure Buruzagi loriatsua eta gure soldadu heroikoak, aska itzazu gure presoak eta onbihurtu gure etsaiak, Espainiaren etsaiak direnak ere. Goiargitu gure agintariak eta maisuak. Bereziki eskatzen dizugu, Jauna, zorigaitzokoak, erbesterratuak edo umezurtzak diren ume horiek guztiak babestea eta egizu, Jauna, horrenbeste odol isuri ostean gure anaiek zure hitz liluragarriak bete ditzaten: Espainian erreinatuko dut! Amen.

Jarduera hori gerran eta gerraondoan zehar egiten jarraitu zuten. Adibide gisa, Valtierran horretarako egin zen programa dugu. Goizeko zortzietan meza egon zen, jaunartze orokorrarekin. Apaizak gerran hildakoengatik erresponstu bat errezatu zuen. Ondoren, ikasleak, irakasleak, gurasoak eta tokiko agintariak “Union Cultivadorako” aretora joan ziren eta ondorengo programa hau bete zuten:

Valtierrako ikasturte amaierako festan ospatuko diren ekitaldien programa”.

- 1.- Zuzendarien agurra eskola-taldeari.
- 2.- José Saguésen hitzaldia.
- 3.- “Los gnomos” antzezpena haur talde baten eskutik (kantua eta mimika).
- 4.- “Las fuentes de la vida” Joaquina Bobadillaren eskutik.
- 5.- “Tos paicemos iguales”, Josefina Pérezen eskutik.
- 6.- “A los mártires de la guerra” Benita Rodrigoren eskutik.
- 7.- Banderari kantatzea.
- 8.- “El último adiós de un hijo”, Pilar Gambarteren eskutik.
- 9.- “Viva España”, Carmen Zapateriaren eskutik.

84. Eladio Esparza Aguinaga, (Lesaka, 1888 - Iruña, 1961). Bere jaioterriko udaleko idazkaria izan zen. Idazlea eta hainbat komunikabidetako kazetaria. *Diario de Navarra*ko zuzendari orde gisa, Estatu Kolpearen partaide izan zen. Arabako gobernadore zibila izan zen eta politikan epe motz batean aritu ostean, jarduera kulturaletara eta kazetaritzara itzuli zen. *Príncipe de Viana* aldizkariko zuzendaria izan zen eta Nafarroarekin lotutako hainbat liburu idatzi zituen: *Blanca de Navarra* (1947), *Nuestro Francisco Javier* eta *Pequeña historia de Pamplona* (1940).

- 10.- “La guerra ha terminado”, Asunción Castillejoren eskutik.
- 11.- Francori ereserkia.
- 12.- “A Navarra”, Josefina Resaren eskutik.
- 13.- “La voz del Caudillo”, M^a Jesús Garcíaen eskutik.
- 14.- “Mi Capitana”, Concha Ibáñez en eskutik.
- 15.- Agurra alkatearen eskutik.

Valtierra, 1939ko ekainaren 29an. Garaipenaren urtea.

Gerra Zibilean zehar, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak Lehen Hezkuntza publikoan egin zuen lan gehiena. Horrela laburbiltzen du Reyes Berruezok bere idatzi batean:

Errepublikako hezkuntzaren eraginarekin bukatu nahian eta hezkuntza katolikoa lortze aldera, maisu-maistren gaitasun morala, irakaskuntzaren edukiak eta prestakuntza gertutik zaindu zituen, eta eskolako giro erlijiosoa eta aberkoia lortzeko lan egin zen. Testuinguru horretan ulertzen da irakasleen garbiketan jarri zen ahalegina, baita eta liburuak eta liburutegiak zentsuratzeko eta maisu-maistrentzako prestakuntza ikastaroak zorrotz prestatzeko ahalegina ere⁸⁵.

Azkenik, Estatu Berriaren izaera totalitarioa eta zentralista zela eta, eta Hezkuntza Nazionaleko Ministerioaren sorrerarekin 1938an, Batzordearen autonomia mugatu zen eta eskumenak galdu zituen hezkuntza arloan.

9.2. Nafarroako Irakasle-Lanaren errepresioa

Urteetan zehar eta maila guztietan, Irakasle-Lana ideologia disolbatzaileen eraginpean egon da. Goitik behera berrikusi behar dira instrukzio publikoko langileak irakaskuntzaren erabateko berrantolaketa egin aurretik

José María Pemán (Estatuko Kultura eta
Irakaskuntzako Batzorde Teknikoko lehendakaria)

Arrazoi politikoengatik irakasleek garai guztietan jasan dituzte zigorrak eta errepresioa eta zigorra. 1834ko apirilean, Iruñeko Udalak, Erregeordeak eskatuta, Isabel II.ak ezarritako erregimenaren aldekoak ziren lehen hizkietako maisu-maistrak eskoletatik bereizi zituen, horien artean Ezequiel Torrecilla maisu ospetsua.

869an Nafarroako beste maisu batzuk bere kargutik ere kendu zituzten Konstituzioari zin ez egiteagatik. 1870ko martxoaren 23ko Erresumako Erregeordearen Dekretuak, 2. atalean, eta uztailaren 20ko Aginduak agintzen zuten

85. REYES BERRUEZO ALBÉNIZ, *Política Educativa en Navarra: 1931-1939*, Nafarroako Gobernua, Iruña, 1991, 175. orr.

Konstituzioari zin egin behar zitzaioela. Maisu horiek Pedro Lino Munárriz y Velasco Arguedaseko maisua, Dionisio Ibarlucea Lizarrako maisua eta Buena-ventura Burgui Cadreitako maisua izan ziren, besteak beste.

Ondoren, zigortutako maisu horiek guztiak euren lanpostuetara itzuli ziren 1873an Karlos III.a agintera iritsi zenean.

Karlismoaren garaipenarekin, Anastasia Montoya Ferrerek, Deikazteluko maistra, Karlos VII.ak ezarritako Konstituzioari zin egiteari uko egin zion, baina karlisten porrotaren ondoren, 1876an maistra gisa lan egiten hasi zen berriro.

Atal honi dagokion aldiari dagokionez, Nafarroako irakasle-lana garaiko sistema politikoaren jomugan egon zen. Bigarren Errepublika iristean eta, bereziki, lehenengo biurtekoan, Lehen Hezkuntzako Kontseilu Probintzialak hainbat maisu eta maistra zigortu zituen laikotasunaren kontra zeukaten jarrerera erradikalarengatik, bereziki gurutzeak kentzearekin eta Tuterako jesuitak kanporatzearekin zerikusia zuten kontuetan. Zigortutako irakasleen artean, Elvira España eta Teófilo Martínez Tuterako maistra eta maisua egon ziren. Ondoren, Altxamendu Nazionala hastean, Batzorde Nagusiak bieie ezarritako zigorra bertan behera utzi zuen. 1937ko otsailaren 5eko saioan, Batzordean ondorengo hau adostu zuen:

espediente pertsonaletik ezabatu dadila kontrako edozein ohar eta egindakoarengatik zorientzen zaie. Gainera, Administrazioko Sailari eskatzen zaio kendutako zenbatekoak itzultzea”. (Estatuko Kultura eta Hezkuntza Batzorde Teknikoak berretsitako akordioa).

Errepublikako gobernuak ere Nafarroan lanean ari ziren hainbat irakasle-lana eta soldata kentzea agindu zuen.

Fronte Popularraren garaipenarekin, ehundaka apaiz euren irakasle-lanetik baztertu zituzten eta, era berean, Altxamendu Nazionala gertatzean, Errepublikak altxatutako funtzionarioak prestutasunez kargutik kendu zituen. Neurri hori ez zen Nafarroan ezarri.

Errepublikaren arabera, maisua eragile modernizatzailea zela. Horregatik, agian, altxamendu militarren ondorengo hilabeteetan maisuek eta maistrek jasan zuten sarraski eta garbiketa prozesu bortitza uler daiteke. Mola jeneralak, 1934an Sanjurjori bidalitako eskutitz batean, argi utzi zuen Espainiako irakasle-lanari buruz pentsatzen zuena:

[...] maisu eta maistra gehienak gizarte-maila baxuetatik datoz edo Azañaren garaian izendatu zituzten eta erradikal sutsuak dira. Ikusiko dugu ea nola dagoen gazteria hamar edo hamabost urte barru”

Garai horretan zehar, Foru Aldundiak, Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren bidez, premiazko neurrien artean Errepublikaren aldeko maisu eta maistren garbiketa ezarri zuen.

Hori dela eta, Nafarroako irakasle-lanarentzako garairik lazgarriena, zailentzarik gabe, Franco Jeneralaren erregimena izan zen. Bigarren Errepublikako gobernu demokratikoaren aurkako Altxamendu militarra hasi eta hilabete batera, Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako maisu eta maistren kontrako garbiketa hasi zen. Irakasleek ez zuten errugabetasun-presuntziorik izan, erruduntzat jo zituzten denak, eta errugabeak zirela Hezkuntzako Batzorde Nagusiari sinestarazi behar izan zioten.

Batzordeak irakasleen datuak jasotzeko jarraitu zuen metodoari dagokionez, maisu eta maistra bakoitzaren fitxa egin zuen ondorengo hauek jasoz: erlijiotasuna, moralitatea, prentsa (zein egunkari irakurtzen zuten) eta kidetze politikoa. Irizpide horien arabera hiru zigor mota ezarri ziren: zerbitzutik behin betiko bereiztea, lana eta soldata epe mugagabea kentzea eta eskola galtzea eta beste eskola batera bidaltzea.

Zigor ekonomikoak ere jarri zirenez, Batzorde Garbitzaileak irakasleei zigorrekin kendutako dirua alde nazionalako hildako maisuen familiei ematea proposatu zuen.

Errepresalia sorta horren barruan, iraingarria zen beste metodo bat sartu zuten: “atxikimendu aberkoiaren” adierazpena sinatu behar izatea, hain zuzen ere. Juan Erenchun Onzalo Aurizberriko maisuak, eta *Eskema Geografiko-Historikoen* eskola-liburuaren egilea, errepresaliak ez jasotzeko adierazpen hori sinatu behar izan zuen maisuetako bat izan zen, Nafarroako beste hainbat maisu eta maistrek egin behar izan zuten bezala. Adierazpen horren edukia ondorengo hau zen:

Espainia hotsandiko uneak jasaten ari da, ideal erlijioso sakratuen eta Errege Katolikoek batu zuten Aberriaren maitasun sainduaren aldeko borrokan.

1. Adierazten dut ideia aberkoiek Espainiako odol hilezkorra defendatutako ideal santuenetan kalte handia sortu dutela eta sortzen ari direla. Espainiak integritate erlijioso nahi du Eliza Katolikoaren espiritu eta irakaskuntzei jarraiki, bai eta nazio-lurralde osoa Espainiako zilegizko agintarien menpe egotea ere. Hori dela eta, soseguz hausnartu ostean, nire barre-barrenetik nire ideia eta jarrera aberkoien atzera-egite zintzoa egin nahi dut. Izan ere, ideia eta jarrera horiek guztientzako kaltegarriak dira, baina batez ere maisu publiko batentzat.

2. Hori dela eta, akats aberkoi horietan guztietan atzera egiten eta sutsuki atxikitzen naiz sistema espainiolistara, fede katolikoaren batasunarekin, Espainiako batasuna bilatzen eta eskatzen duena, edozein unetan eta egiten dudana edozein jardueratan, nire ikasleei erakusten berritutako Aberri honek bere seme zintzoen beharra duela. Viva España!

Nafarroako Irakasleen garbiketa eta zigorrei dagokienez, salbuespenak salbuespen, hasierako sententziak bertan behera utzi edo aldatu ziren. Adibidez, “Jaingoikoaren eta Aberriaren” aldeko “Liberazio” gudarostean edo gudaroste “Nazionalean” izena eman zuten maisuei zigorra kendu zieten: Carmelo Caballero Medrano Ribaforadako maisua, Alfredo Pérez Albeniz Arronitzeko maisua, Luis Echeverroa Aranguren Zangozako maisua...

Batzuei Hezkuntza Batzorde Nagusiak hasierako sententzietan egindako aldaketek edo moldaketek onura egin zieten. Euren sententziaren zati bat barkatu zitzaien, batez alde ekonomikoari zegokionez. Maisu eta maistra horien artean ondorengo hauek zeuden: Abilio Bezunartea Turrillas, Murillo del Frutoko maisua; Daniel Pascual Machín, Ledeako maisua; Juan Otano Liberal, Azkoieneko maisua; Félix Sesma, Tafallako maisua; Leopoldo López Barco, Sartagudako maisua; Isabel Navaz, Funeseko maistra, Amelia Garro García, Aribeko maistra...

Sententzien berrikuspen batzuetan, irakasle-lanean aritzeko gaitasun-gabetze txostenetan arintzeak egon ziren, Manuel García Rodríguez Uharte Arakileko maisuaren kasuan bezala. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, bere kasua berrikustean, ondorengo txosten hau egin zuen::

Manuel García Rodríguez jaunaren berrikuste txostena ikusi ostean, eta Irakas-kuntzaren Langileen Batasun Orokorreko kide izan arren, 1934an utzi zion kide izateari eta semea bat galdu gure Gurutzada Santuaren defentsan. Hori dela eta, ezarri zitzaion kargugabetze zigorra arintze aldera, Batzordeak bere funtzioak birgaitzen dizkio, baina ezingo du Nafarroan maisu gisa lanik.

Hezkuntzako Batzorde Nagusiak eskatuta Estatuaren Administrazio Zentralak ezarritako zigorretan aldaketak izan zituzten maisuak eta maistrak egon ziren. Hala ere, beste batzuentzako, Burgosen egoitza zuen Estatu Berriko Batzordeari Hezkuntza Batzordeak egindako gomendioek ez zuten ezertarako balio izan. Adibide gisa, Alesbesko Pelayo Sánchez Garderena dugu, Lerineko maisu zena eta Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorrak Bartzelonara derrigorrez eta behartuta bidali zuena 1939ko otsailaren 23an. Nafarroako Batzorde Nagusiak Hezkuntza Nazionaleko Ministerioari jakinarazi zion izendapen hori bertan behera utzi behar zuela maisua Alesbesko alkatea izan zelako Errepublika garaian eta hortaz, ezin zelako “eragin gorri-separatistaren pean zegoen lurraldeko eskola batean egon”. Estatuko Administrazioak Batzorde Nagusiaren gomendioari entzungor egin zion eta Pelayo Sánchez Bartzelonako probintziara bizitzera joan behar izan zen.

Hezkuntzako profesional asko ere espetxeratu zituzten, esaterako Rosaura López eta Blanca Berajano ikuskariak edo Leandro Hualde Izabako maisua.



Daniel Pascual Machín Ledeko bere ikasleekin Asuncionekeko elizaren atarian. Daniel Pascualek erregimenak zigortutako maisuetako bat izan zen. 1933. P. J. Mendivek utzitako argazkia.

Batzuk Nafarroatik eraman zituzten, adibidez Cadreitako maisu zen Alvaro Gella, Eustaquio Dirasson Biurrun Artaxoako maisua edo Francisca González⁸⁶. Zalantzarik gabe, kaltetuenak fusilatutako 37ak izan ziren, horien artean Camino Oscoz Iruñeko maistra, Toribio Láinez Gil Cintruenigoko maisua, Marcelo Jiménez ikuskaria...⁸⁷

Bizirik jarraitu zuten zorioneko horiek, Administrazioarekin auzitan ibili ziren 50ko hamarkada erdialdera arte. 1952tik aurrera, agintariak espedientetan zigor txikiak zituzten maisu eta maistrei oposaketetan eta lekualdatze lehiaketetan parte hartzeko baimena eman zieten. Beste batzuk 1977. urtera arte itxaron behar izan zuten urratutako euren eskubideak onartuta ikusteko.

Nafarroako Gobernuko Memoria Historikoaren Sailak berriki egindako ikerketaren arabera, 344 maisu eta maistra zigortu zituzten eta 35 erail.

Estatu mailan, irakasle-lanean egin zituzten garbiketak adierazgarriak izan ziren. Mariano Pérez Galvánen arabera, 1931an Espainian 36.680 maisu eta maistra zeuden eta altxamendua hasi zenean, 1936an, 51.593 ziren dagoeneko. Azken horietatik %29,2 behin betiko kanporatu zituzten. Hau da,

86. Maisu eta maistren garbiketa eta errepresalien inguruko informazioa A.A.N.tik atera ditut.

87. *Navarra 1936. De la Esperanza al terror*, Altaffaylla, I. alea, 17.orr.

Julio Serrano Miró eta Marcelino Zaratiegui, Tafalla eta Kasedako maisuak hurrenez hurren. Biak afusilatu zituzten matxinatuen kontrako ideiak zituztelako. Alaffayla Kultur Taldea argitaletxeak eta Rosa Izizek utzitako argazkia.



hiru maisu-maistratik bat kanporatu zuten, kontua hartu gabe aldi baterako zigortutakoak, zigor ekonomikoak jasan zituztenak, urtetan zehar erbesteratu zirenak, etab.

Garbiketek eskola-liburutegiei ere eragin zieten. “Eskola-liburutegi guztietan garbiketa egin da”, “Burkide, judaismoa, masoneria, marxismoa eta separatismoa jazarri behar dituzu. Suntsitu eta erre euren egunkariak, aldizkariak, liburuak eta propaganda”. Horiek izan ziren 1936ko irailaren 1ean Nafarroako prentsak erabili zituen titularrak eskolen irekieraren bezperan.

Eta horrela egin zuten, Batzorde Nagusiaren agiriaren 13. atalean adierazitakoari jarraiki: “Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren prebentzioak Nafarroako Lehen Hezkuntzako eskolak berehala abiarazteko”. Tokiko parrokoek, alkateekin eta maisu eta maistrekin batera, liburu asko bota zituzten, bereziki Errepublikako Misio Pedagogikoen Patronatutik eskola-liburutegietara bidalitako horiek.

Adibidez, besteak beste, ondorengo liburu garrantzitsu hauek debekatu zituzten: *Cuentos de Navidad*, Pardo Bazánena; *Años y leguas*, Gabriel Mirórena; *La Celestina*, Rojasena; *Episodios Nacionales*, Galdósena; *Tres ensayos sexuales*, Marañónena; *Cañas y barro* eta *La Barraca*, Blasco Ibáñezena, etab. Batzorde Garbitzaileak ikasgeletatik kendu zituen testuen artean hauek dau-

de: *Educación cívica*, *Ascarzarena*; *Los Centros de interés*, Xandrirena; Camiren entziklopediak; *Lecturas históricas*, Albert Thomasena, etab.

Cascante liburuak garbitzeari oihartzun handia eman zion herrietako bat izan zen. Diario de Navarrako berriemaileak ondorengo hau idatzi zuen:

Ikasturtea hasi aurretik, tokiko erakundeek, maisu-maistren laguntza eraginkor-
rarekin, eskola-liburutegien garbiketa zorrotza egin zuten eta horietatik hau-
rrentzako kaltegarriak izan zitezkeen liburuak eta liburuxkak kendu zituzten.

Ondoren, Alkate Jaunak bando bat argitaratu zuen eta bizilagunei agindu zien
erlijioaren kontrako liburuak, nobelak, liburuxka pornografiakoak edo zilegi-
zko sentimendu espainiar tradizionalarekin bat ez zetozen liburuak entregatze-
ko. Laster iritsi ziren alkatearen bulegora izaera ezberdinetako liburu eta paper
ziztrinak; Biblia protestantetik Galdósen “Episodios Nacionalesen Zumalaca-
rregiraino”. Tartean baziren Tolstoiren edo literatura moderno pornografikoko
liburuak ere [...]. Behin bizilagunak plazan bildu zirenean, alkateak Errepubli-
kako konstituzioaren ale bat erre zuen eta horrekin batera han pilatutako liburu
guztiak, jendeak pozaren pozez txalotzen zuen bitartean⁸⁸.

Errepublika garaian festa eta ospakizunetan ere aldaketak egon ziren,
esaterako Arrazaren Eguna, neguko udak, Errepublikaren eguna, Lanaren
Festa, etab. Beste jaiegunengatik ordezkatu zituzten: Hispanitatearen egu-
na, Gabonetako oporrak, Buruzagiaren eguna, Kemenaren eguna, Fedearen
eguna, Minaren eguna, José Antonio Primo de Riveraren heriotzaren eguna,
Eroritako Ikaslearen eguna, etab.

Laburbilduz, garbiketak atzerapauso ikaragarria izan zen Eskolarentzat,
irakaskuntza ulertzeko moduarentzat eta, azken finean, garai horretan hazi
ziren neska eta mutilen hezkuntzarentzat.

88. *Diario de Navarra*, 1936ko irailaren 5a.

9.3. Irakasleentzako formakuntza ikastaroak

Eskola errepublikarra desegiten hasi zenean, agintari nazional eta probintzialak “irakasle berriaren” birziklapena antolatzen eta diseinatzen hasi ziren. Erreferentzia gisa erregimen berriak eta Eliza Katolikoak ezarritako oinarriak hartu zituzten.

Prozesu hori 1937ko uztailaren 17ko Aginduarekin hasi zen. Estatuko Batzorde Teknikoko Kultura eta Hezkuntza Batzordeak eremu nazionaleko probintziak Espainia Berriko maisu eta maistrentzako formakuntza ikastaroak antolatzeraz bultzatu zituen.

Nafarroan, hasieran, formakuntza kontu horietan protagonismoa Familia-Guraso Katolikoek Elkarteak eta Maisu eta Maistra Katolikoek Elkarteak izan zuten.

Bi elkarteek “Katekesiaren Pedagogiaren eta Kultura Erlijiosoaren Ikastaroa” antolatu zuten 1937ko martxoan. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak ikastaroa antolatzeko 1.000 pezetako diru-laguntza eman zituen 20 beka bana zitezela. Francisco Jiménez Equísoiainek, San Frantziskoko eskoletako maisua eta Maisu-Maistra Katolikoek Elkarteko lehendakaria, antolatu zuen ikastaroa.

Aurrerago, Hezkuntzako Ministerioa, Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren laguntzarekin, Nafarroako irakasle-lanaren formakuntzaren arduraduna izan zen. Bi erakundeek antolatu zituzten ikastaroen artean aipagarriak dira “Irakasle-lanaren formakuntzarako Ikastaroa”, “Lehen Hezkuntzarako Orientabide Nazionalerako Lehenengo Ikastaroa” eta “Lehen Hezkuntzako Irakasle-Lanaren orientaziorako eta hobekuntzarako Ikastaroa”.

“Irakasle-Lanaren Formakuntzarako Ikastaroa” Iruñean egin zen 1937ko abuztuaren 30etik irailaren 11 arte eta izaera ofiziala izan zuen, Estatuko Batzorde Teknikoko Kultura eta Irakaskuntza Batzordeak prestatu baitzuen. “Novedades” antzokian egin zen inaugurazio saioan 1.200 maisu eta maistra bertaratu ziren eta Juan Guerendiáinek egin zuen irekiera hitzaldia Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren izenean. Programaren gai nagusiak erlijioa, aberria eta maisu-maistra izan ziren.

1938ko martxoaren 16an osatu zen Francoren lehenengo gobernu eta “Lehen Hezkuntzako Orientabide Nazionalen Lehenengo Ikastaroa” antolatu zuen Nafarroan. Ikastaroa Iruñean egin zen, ekainaren 1etik 30era. 400 maisu bertaratu ziren, “diziplina espedienterik gabekoak, mobilizatuta ez zeudenak eta akats fisikorik gabekoak”. Horien artean Nafarroan lan egiten zuten 90 maisu-maistra egon ziren. Parte hartzaileek bitarteko gisa eskoletan egoteko eta bestelako irakaskuntza-postuak lortzeko lehentasuna izan zuten.

Sabino Videgáin Teniente Koronelak eta Orgaz Jeneralak zuzendutako ikastaroak 1936ko altxamenduaren ostean sortutako Eskola Berriko oinarri ideologikoak ezarri nahi zituen. Landutako gaiak ondorengo hauek izan ziren:

- a) Bizitzaren zentzu erlijioso eta militarra. b) Aberri espainiarra. c) Hezkuntza politikoa eta nazionala. Mugimendu nazionalaren jatorria eta zentzua. F.E.T.-aren eta J.O.N.S.-en doktrina politikoa d) Antolaketa soziala. Lanaren eskumena. e) Haurren irakaskuntzaren metodologia. f) Gorputz heziketari, anatomiari, fisiologiari eta higienari eta gorputz heziketaren psikologiari buruzko oinarritzko ezagutza teknikoak.

Azkenik, behin gerra amaituta, Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiak “Lehen Hezkuntzako Irakasle-lanaren orientabideetarako eta hobekuntzarako Ikastaroa” antolatu zuen Iruñean 1939ko irailaren 3tik 12ra. Edukiak hiru ataletan banatu ziren: Kultura erlijioso, Espainiako Historia eta Orientabide pedagogikoak eta filosofikoak. Irailaren 9tik 11ra arte soilik jardun espiritualak egin zituzten. Antonio Añoveros eta Manuel Arcaya maisuekin egon ziren eta Joaquín Goiburu eta Julián Espelosín maistrekin.

Nafarroako irakasle-lanak garai horretan jaso zuen formakuntza bi ataletan laburbil daiteke. Alde batetik, emandako hitzaldi guztietan etengabe agertzen ziren erregimenak ezarritako eduki erlijiosoak, aberkoiak, giza-legezkoak eta fisikoak. Eta bestetik, Administrazioak eta Elizak irakasleen jokabide moral, politiko eta erlijiosoaren gainean zuen kontrola.

Hori dela eta, erregimen berriak diseinatutako eskolak profil berritua eta berezia zuten maisuak eta maistrak behar zituen. Hau da, alde batetik, Mugimendu Nazionalaren balioak itsu-itsuan jarraitzera eramango zituen grina aberkoia eta, horrekin batera, eta kemen berarekin, bizitzako ekintza guztietan izaera eredugarri eta erlijioso sakona.

Víctor Juan Borroyk, Huescako Museo Pedagogikoko zuzendaria, garai horretan Espainiako irakasle-lanak jaso zuen formakuntza horrela laburbiltzen du:

“Lan hori egiteko ez zen beharrezkoa ongi prestatutako irakasleak izatea. Irakasle manakorrak eta uzkurruak behar ziren, energiaren eta lanaren zatirik handiena Estatu Berria egiaztatzen bideratuko zuena. Ondorioz, Aberriaren zerbitzura zeuden maisuak eta maistrak zati batean monjeak eta beste batean soldaduak izan behar ziren”⁸⁹.

89. VÍCTOR M. JUAN BORROY, *La tarea de Penélope. Cien años de Escuela Pública en Aragón*, Biblioteca Aragonesa de Cultura, Zaragoza, 2004, 125.orr.

Nafarroako lau mutil euren egurrezko fusilarekin "Gerraren jolasera" jolasten. Argazkia Iruñean bizi zen Gerardo Zaragüeta Zabalo argazkilariak egin zuen Altxamendu Nazionalaren garaian.



9.4. Eskola Gerra Zibilean

Gerra Zibilak iraun zituen hiru urte horietan zehar, bi Espainiek guda ideologiko batengatik egin zioten aurre elkarri eta inor ezin izan neutral geratu, ezta haurrak ere. Errepublikako gobernuaren esku zeuden eremuetan bonbardaketak eta gerraren estutasunak pairatu zituzten eta, Franco Jeneralaren eremu nazionalan, gatazka hain suntsigarria ez izan arren, gerrak ere beldurra eta segurtasun eza ekarri zuen. Gerra Zibila, Espainiako gerra, pentsamenduaren eta hezkuntzaren porrota izan zen.

Gerraren eta pobreziaren testuinguru horretan, hala ere, Nafarroako haur gehienek eskolara itzultzea, gerra garaian eta ondoren, normaltasunez hartu zuten. Batzuk gerra arazo eta ezusteko handirik gabe bizi izan zuten. Beste batzuk, euren tragedia pairatu zuten, baina hazten eta jolasten jarraitu zuten. Hala ere, ideia errepublikarrak zituzten senideen jazarpena sufritu zuten haur horientzat eskolara itzultzea ez zen sekula gauza bera izan. Ikasle ohi askok, euren testigantzetan, baieztatzen dute gerran zehar eta horren ondoren eskolara itzultzea benetako kalbarioa izan zela:

“Uztarria, geziak eta Francoren irudia lehentasunezko lekuan zeuden ikasgelan; “Cara al sol edo Oriamendi abesten zen”; “sartzean eta ateratzean derrigorrezkoa zen otoitz egitea eta otoitz egiten ez zekienak ordaintzen zuen”; “errepublikaren

zilegitasuna defendatzen hil ziren horiek ez zituzten herrira ekartzen lurperatzeke”; “Militar itxurako giro hori, agindu aberkoi eta erlijiosoz betetakoa, behin betiko ezarri zen ikasgeletan”...

Garai horretan nazionalkatolizismoak, karlismoak eta nazionalsindikalismoak bultzatutako haurren agerraldi aberkoi asko egon ziren. Adibidez:

Garinoaineko neska eta mutilok, Ángel Otazu gure lehenengo martiriaren heriotzaren berri izan genuenean, kalera atera ginen lore bila erramu-gurutze bat eskaintzeko⁹⁰.

Ororbiako hurrek euren eskola-sariei uko egin zieten diru hori Gudaroste Nazionalaren aldeko diru-bilketa popularrari emateko⁹¹.

Alloko hurrek litxarkeriak erosteko euren gurasoek emandako txanponak eman zituzten eta 137,50 pezeta jaso zituzten. Diru hori gure Udalak Espainia Korazatua eraikitzeke irekitako harpidetzara eman zutena⁹².

Armañantzasko Eskola hurrak (Lizarraldea), inguruan zuten gerra-giroaren eraginpean, prentsaren bidez, “gitzatxar marxista hori suntsitzen ari zirenei” agurra bidali zieten⁹³.

Azkoieneko Eskola Nazionala eta Ospitale Santuko ikasleek prentsa-ara eskutitz bat bidali zuten Gudaroste Nazional Loriatsuko tropekiko elkartasuna erakusteko:

[...] Gudaroste Nazional Loriatsuak helburu gisa behin betiko pizti komunista zapaltzea du, gure bi jantzi baliotsuenak lapurtu nahi zizkigunak: Erlijioa eta Aberria.⁹⁴

Horietako haur batzuk, helduek akuilatuta, Azkoieneko agintariek herriko emakume batzuk kaskamotz utzi zituztenean bertan egon ziren eta eurenkin batera prozesioan ibili ziren herri osoan zehar⁹⁵.

María Olaecha Gartaingo maistrak (Baztan), 1938an bere ikasleekin eskola-ekitaldi aberkoi-erlijioso bat egin zuen, Alderdi Nazionalako herriko hildako eta zauritutako soldaduen alde⁹⁶.

90. *Pensamiento Navarro*, 1937ko apirilaren 21a.

91. PABLO GUIJARRO SALVADOR, *Ororbia: mil años de historia*, 158.orr.

92. *Diario de Navarra*, 1937-7-16.

93. *Navarra 1936. De la Esperanza al terror*, Alaffaylla, II. alea, 235.orr.

94. *Diario de Navarra*, 1936-11-3.

95. JOSEFINA CAMPOS ORDUÑA, *Los fusilados de Peralta, la vuelta a casa* (1936-1978), 159.orr.

96. *Diario de Navarra*, 1938-7-16.

Tafallako ikasle talde bat pelaioz jantzita. Altaffaylla Kultur Taldeko argialetxeak utzitako argazkia.



Burlatako haurrek jai aberkoia ospatu zuten 1936-37 ikasturtea amaitzean eta poesiak errezitatu eta hainbat kantika abestu zituzten. Fulgencio Sánchez maisuak ekitaldia itxi zuen gizakiaren hiru maitasun sakratuak aipatuz: erlijioa, abertzaletasuna eta familiaren maitasuna.

Erregimenaren aldetik errepresaliak jasan zituztenen seme-alabek Espainiako Falangeak antolatutako jantokietara bazkaltzera joan behar zirenean pairatzen zuten umiliazioa kontatzen zuten.

Eskola-jantoki horiek 1936ko urrian abiarazi ziren, gerrako biktimei laguntza eskaintzeko eta arreta berezia emanez tropa frankistek fusilatutako edo espetxeratutakoen seme-alabei. 1940an, Neguko Laguntza delakoa, maiatzaren 17ko dekretuaren bidez, Gizarte Laguntza bilakatu zen, Espainiako ekintza sozial guztia zentralizatzeko asmoarekin sortutako erakundea. 1974ra arte egon zen martxan, Gizarte Laguntzako Institutu Nazionalak ordezkatu zuenean.

Iruñean, Neguko Laguntzako jantokiak 1936ko urtarrilaren 3an ireki ziren. Jantoki horretara 350 neska eta mutil joaten ziren, arratsalde eta guez, Olimpia antzokiko etxabeetara edo Arrotxapeako eskoletara⁹⁷.

97. *Diario de Navarra*, 1938-7-16.



Eliza eta Estatua eskutik joan ziren Diktadura osoan zehar. Azkoieneko pelaio eta margariten taldea, Andrés Troyas parrokiako laguntzailearekin batera.



Garraldako mutilen eskolako ikasleak José Velasco maisuarekin eta Félix Aiesa apezarekin. 1936-37 ikasturtea.

Aurizberriko haurrak, "pelayo" jantziarekin. 1936-1939. urte tarte hartan zenbait familiak Flecha edo pelayo jantziekin jantzen zituzten haurrak, orduko gerra testuinguruak agintzen zuen moduan. Erroibarko "Elutseder" elkarteak utzitako argazkia.



Etxalarreko nesken eskola, 1939. Edurne Elizagoien Ariztegik utzitako argazkia.





Irudian Olimpia zinema-antzokia ikus dezakegu, 1936an Espainiako Falangeak konfiskatu zuena "Gizarte Laguntzako" jantokia jartzeko. Bazkaldu aurretik, hurrek otoitz egin behar zuten eta amaitzean "Cara al Sol" abestu, beti gazte falangistez lagunduta. Frankismoan zehar, Udalak ikasturte amaierako sariak banatzeko erabili zuen. A.M.P.-k utzitako argazkia.

1937an aldirik gorena izan zuen, 40 jantoki baitzeuden probintzia osoan. Espainiako Falangearen eta JONSen Ordezkaritzak 22 jantoki berri aurreikusituen. 2.00 mutil eta neska izan ziren horien onuradun eta milioi bat anoa baino gehiago banatu ziren. Jantoki gehienak handitasun handiarekin inauguratu zituen Fermín Sanz Orriok, Espainiako Falangeko Prentsaburu Probintzialak. Espainiako Falangeko agintariek euren mintzaldietan azaltzen zuten jantokiok Estatuak behar handiena zutenen esku jartzen zituen baliabide berriak zirela. Erregimenak ez zituen karitatezko beste obra soiltzat hartzen, baizik eta justizia sozialaren inguruan zituen euren idealak gauzatzeko tresna.

Nafarroako "Neguko Laguntzako" lehenengo jantokiak ondorengo udalerrri hauetan ireki ziren: Arguedas, Sesma, Cintruenigo, Irunberri, Valtierra, Martzilla, Cadreita, Esa, Ororbia, Galbarra (Lanako bailara), Olazti, Altsasu, Azkoien eta Villafranca.

Nafarroan, eskola-jantokiak 1908tik martxan zeuden "Eskola-kantinak" izenpean. Gerra Zibila hastean, udalek eta Aldundiak, euren oinarriari leial, kantinak berrabiarazi zituzten. Adibide gisa, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak udalei 1936ko abenduaren 2an bidalitako zirkularra dugu. Gutun horretan jakinarazten zitzairen Aldundiak gastuen %50a bere gain hartuko zuela kantinak berriro irekitzen zituzten herrietan edo eskola-jantoki berriak sortuko zituzten horietan.

Santakarako "Gizarte Laguntzako" jantokia, 1938. Santakarako udalak utzitako argazkia.



Lerineko Gizarte Laguntzako jantokiko inaugurazioa. Agintariak jantokira joaten ziren ikasleekin batera agertzen dira. 1939. Agustín Garnicak utzitako argazkia.



1937an, Ama eta Haurra Babesteko Obra Nazional Sindikalistak, Gizarte Laguntzako zuzendariak sortutakoa, umeentzako jantoki, hartzaindegi, umezurtzentzako etxe eta udaleku sare handia sortu zuen. Garai horretan, Nafarroan, Urbasa, Auritzeko eta Zumaiako (Gipuzkoa) udalekuak sortu ziren. 30 ikasleko multzotan joaten ziren eta 25 egun igarotzen zituzten han.



Gerran zehar eta ondoren, Nafarroako margaritek eta geziek osasunarekin eta gizarte laguntzarekin erregimenak antolatutako jarduera guztietan lagundu zuten. Argazkian Azkoienero Gizarte Laguntzako emakume talde bat ikus dezakegu Neguko Laguntza jantokira joaten ziren ikasleentzako janaria prestatzen, Eskola Nazional zaharretan zegoena. Alfredo Medranok utzitako argazkia.

1937ko udazkenean, Gizarte Laguntzako Ordezkaritza Probintzialak “Borrokariaren Berokia” sortu zuen. Kanpaina Nafarroako emakumeei zuzenduta zegoen, neguko jantziak egin zituzten alde nazionalen borrokan ari ziren soldaduentzat. Tokiko eta probintziako erakundeek, bai eta nesken eskola batzuk ere, kanpaina arrakastatsua izaten lagundu zuten.

Irakasleei dagokienez, Foru Aldundiak Altxamendu Nazionalari emandako babes itsua zela eta, zenbait irakaslek kolpe militarra gogoz hartu zuten. Izan ere, Gurutzada Nazionalako idealek, eurentzat, hain gogokoak zituzten erlijioaren eta aberriaren batasunaren edukiak berriro eskola-curriculumena txertatzea zekarten. Beste batzuk aldiz, bereziki errepublika babestu zuten maisu eta maistrak, frankismoaren garaipenarekin matxinatuen biktimak izatera pasa ziren.

1931ko Plan Profesionaletik zetozen irakasleek euren Eskola Normalean jasotako interes pedagogikoak alde batera utzi behar izan zituzten. Horietako batzuk, urteak geroago, oraindik ere gogoratzen zituzten Hezkuntzako Batzorde Nagusiak irakasleekin egindako purgak.

Nafarroako zenbait udalerritan, Tuteran esaterako, Falangearen uniformea jantzita zeramatzaten maisuak egon ziren. Hori dela eta, Tuterako Gerako Batzorde Zentralak (karlista) Hezkuntzako Batzorde Nagusiari zenbait



Amparo Navarro Arroqui, Iruñeko Principe de Viana Institutuan batxilergoa ikasten ari zenean, bere aisialdian Gizarte Laguntzako jantokietan eta udalekuetan laguntzen zuen. Amparo Navarro Uharteko Eskola Nazionalako zuzendaria izan zen. Bigarren irudian Gizarte Laguntzako gazteek erabiltzen zuten ikurra, "No haya hogar sin lumbre, ni español sin pan" (Ez dago etxerik surik gabe, ez eta espainiarrik ogirik gabe). Maistrak utzitako argazkia.

maisur jantzi militarrekin eskolara joatearen egokitasunaren inguruan informazioa eskatu zion. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, 1936ko irailaren 9an egindako saioan, ondorengo hau jakinarazi zuen::

Hausnartu ondoren, maisuek eskola-orduetan edozein uniforme eramatea debekatzen dugu.

Akordio hori ez zen gauzatu Falange eta Erreketeak batu ziren arte. *Diario de Navarra* 1938ko abuztuaren 21ean argitaratu zuenaren arabera. FETeko eta JONSetako Nafarroako Zuzendaritza Probintzialak euren afiliatuei uniforme egunerokotasunean eramatea debekatu zien.

Gerra garaiko eskola-bizikidetzari dagokionez, Margarita Aranaz Azkoieneko maistrak ondorengo hau gogoratzen zuen bere idatzietan:

Eskoletako bankuetan nazionalen eta errepublikarren seme-alabak elkarrekin eseri behar dira. Mutil bakoitzarentzat, bere aita heroï bat da.

Gerra dagoeneko piztuta zegoenean, Aldundia argi eta garbi alde nazionalaren alde jarri zen, eta une oro saiatu zen eskolak irekita mantentzen, beti ere ikasleentzat arriskutsua ez bazen eta baldintzek baimentzen bazuten. Ahalgin handiak egin ziren ikasgelak irekitzeko garaiko zailtasunak zailtasun: maisurik ez egotea gerrara joan zirelako, material eskasia, bonbardaketen arriskua, etab.

Gerra Zibilean eskolek nolabaiteko normaltasunez funtzionatu zuten, agintari militarrek horietako batzuk konfiskatu zituzten arren euren tropek ostatu hartzeko. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, 1937ko azaroaren 17an, egoeraren jakitun, Nafarroako udal eta kontzeju guztiei jakinarazpen bat bidali zien klaseak emateko baldintza onean zeuden lokalak egokitzeko. Cadreitako, Faltzeseko, Azkoieneko, Alesbesko eta Iruñeko San Frantzisko, Konpainia, Kaldereria eta Errotazar eskoletan haurrek eskolara joateari utzi zioten. Zenbait herritan, Cadreitan esaterako, udaleko agintariak ikasleak eta maisurak eta maistrak hartzeko lokalak egokitu zituzten.

Joaquina Machiñena Alesbesko maistrak ondorengo hau idatzi zuen bere eskola-egunerokoan:

Haurrak nire irakasteko modura egokitu direnean, klaseak bertan behera utzi behar ditut, eskolak agindu militarren bidez konfiskatzen baitizkigute

Margarita Aranaz Azkoieneko maistrak 1938ko irailaren 12an idatzitakoaren arabera:

Alkate jaunak, Buruzagi militarrek eskatuta, eskolak itxi zituen gerrako aldi batean zehar, soldaduentzako ostatu izateko eta, ondoren, ospitale gisa egokitzeko.



1908an, Azkoienen bi sexuetako 410 ikasle hartzen zituen lau eskola-unitate zeuden. Kale Nagusiko Udal Eskolen egoera tamalgarria zela eta, eskola unitate berriak eraikitzea premiazkoa zen. 1932an hasi ziren Eskola Nazionalak eraikitzen, irudian ikus ditzakegunak. 1935an inauguratu zituzten eta 1979an eraitsi. Gerra Zibilean soldadu nazionalentzako ostatu gisa erabili zituzten. "San Juan Bautista de Irurzun" Azkoieneko Eskola Publikoak utzitako argazkia.

Gerran zehar, Nafarroako zenbait eskolek ez zuten irakaslerik izan horietako asko, euren borondatez, erreketean tertzioetara edo milizia falangistetara batu baitziren. Hezkuntza Saileko Nagusiak, Benigno Janín, bere txostenetako batean, baieztatu zuen mugitutako maisuak edo borondatez joandako maisuak 91 zirela 1939ko urtarrilaren 16an. Mobilizatutako maisu horiei Batzorde Garbitzaileak zigortutako maisuak gehitzen badizkiegu, egoera oso larria zen. Ez zegoen irakaslerik. Hori dela eta, Nafarroako eskola askotan, lanpostu hutsak irakasleak ez ziren langileekin bete zituzten.

Gerrako lehenengo aldian, nolabaiteko koordinazio eza egon Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren eta Hezkuntzako Ordezkaritzaren artean. Alde batetik, Batzorde Nagusia, 1936ko abuztuaren 29an egindako izendapen berrietan, ohartu zen Gudaroste Nazionaleko frentetean zeudela izendatutako batzuk. Egoera hori balio handikotzat hartu zen plaza ematerako orduan. Baina, maisu horiek eskoletara joaterik ez zuten, irailaren 1ean, Batzordeak euren familiei jakinarazi zien egoera horren berri udaletan eman behar zutela, maisu horiek euren eskoletara joateko aukera izan arte egoera konpontze aldera. Era berean, adostu zen mobilizatutako maisuen kargu hartzea 1936ko irailaren 1ean egitea.

Faltzesko Lehen Hizkietako Eskola Nafarroako Erresuma zaharrea zeuden lau Eskola Normaletako bat izan zen. Ehun urte beranduago, zehazki Primo de Riveraren diktaduran, eskola-eraikin bikaina eraiki eta 1929ko irailaren 22an ireki zen. Eskola-Multzoak garaiko material tekniko eta pedagogikorik onenak jaso zituen. Eskolak egitea 167.000 pezetako kostua izan zuen eta Mariano Arteaga arkitektoak diseinatu zituen. Inaugurazio ekitaldian erretiratutako Eustaquio Aldasoro omendu zuten eta Gobernadore Zibilak Alfonso XII.aren Gurutzea eman zion. Gainera, Eladio García Hezkuntzako Ikuskari Nagusia ere omendu zuten, herriko seme kutun izendatu zuten eta eskola berriei bere izena eman zieten. Gerra Zibilean zehar Faltzeseko "Eladio García"⁹⁸ Eskola Nazional zaharrak ospitale gisa erabili ziren. Egun, Kultura Etxea, Erretiratuen Elkartea eta Liburutegi Publikoa daude bertan. Fernando Mendívilek utzitako argazkia.



Bestalde, Hezkuntzako Ordezkaritzak, maisuen eskasia arintze alde-
ra, borondatez mobilizatutako maisu guztiei gutuna bidali zien hilabeteko
epean euren lanpostuetan lanean hasteko, 1936ko urriaren 23ko Aginduak
ezarritakoaren arabera. Maisuek entzungor egin zioten Estatuko Administra-
zioko jarraibideei, buruzagi militarrek euren postuak uztea debekatu zietela
argudiatuz. Maisu talde handi batek euren lanpostuetara joateko ezezko hori
argudiatu zuten esanez grin aberkoi neurrigabea zutela.

Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, 1937ko ekainaren 12an eskoletara eta
Hezkuntzako Tokiko Batzordeetara bidalitako zirkularrean, maisuek eta ikas-
leek gerran zehar pairatutako egoera horrela deskribatzen zuen:

Denek ezagutzen dugun egoera dela eta, eta gerra luzatzen ari denez, gure eskole-
tako bizitza etengabe aldatzen ari da maisu titular, bitarteko eta ordezkoen etenga-
beko mugimenduarekin. Beraz, eskolako lanak bere balio metodiko nagusia galdu
du eta ezin izan du bere pedagogia aplikatu [...].

98. Eladio García Martínez Faltzesen jaio zen 1886an. Elizondoko maisua, Nafarroako ikuskaria eta Madrileko ikuskari-nagusia. Bere bizitza profesional luzean zehar irakasleen formakuntzarako ikastaroak eman zituen eta irakaskuntzarekin lotutako txostenak eta liburuak argitaratu zituen. Ikasketak Handitzeko Batzordearen bekarekin Frantzia eta Belgika bisitatu zituen eta bi herrialdeetako lehen hezkuntzaren antolaketaren inguruko txostena egin zuen.



Gerran zehar, Nafarroako udal batzuk maisu-maistren etxeak utzi zituzten Espainiako Falangeko edo Erreketeen egoitza izateko. Argazkian Villamayor de Monjardineko maistraren etxea ikus dezakegu, 1937ko martxoaren 27an Udalak Espainiako Falangeari eman ziona.



Beriainen (Galar), Nafarroako herri askotan bezala, maisu-maistrek bizileku bat izaten zuten berentzat, jeneralean Udalaren jabetzako etxe bat.



Faltzesko nesken taldea herri guztiak maite eta baloratzen zuten Ávara Álvarez maistrarekin. Udalak, bere memoria aitortzeko, egungo Eskola Publikoari bere izena jarri zion 1976an. Haur eskolako eta neska batzuen irakaskuntza Faltzeseko Ospitale Santuan ematen zen eta Karitateen Alaben esku egon zen 1975 arte, irakaskuntza utzi zuten arte⁹⁹.

99. Hemen jasotako informazioa: F. Soto Alfaro, "Escuela y política en Falces (1925–1936)", *Falces, Castillo y Estrella*, 4.zk.

9.4.1 Sasoiko eskolak

Sasoiko Eskolak lehen aldiz 1857an agertu ziren, Instrukzio Publikoko Legearekin batera. Helburu nagusia landa-eremuetako eskolatzeari laguntzea zuen, batez er, egoera geografiko korapilatsua zela eta, ikasleak garraiatzea zaila zen herri horietan.

1937an, Estatuko Administrazioaren baliabide eskasia zela eta, Foru Aldundiak, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak hala eskatuta, Sasoiko 23 Eskola sortu zituen¹⁰⁰.

Sasoiko Eskola horiek ondorengo erregimen honen arabera funtzionatzen zuten:

- Klase horiek azaroaren 15etik apirilaren 14a arte irauten zuten, beste hilabeteetan zehar gertuen zituzten Eskola Nazionaletara joateari utzi gabe.
- Aldundiak hilero ematen zien diru-kopurua 200 pezetakoa zen, bestelako ordainsaririk gabe. Eskolaren beste materialak eta eskolaren mantentze-lanak udalari zegokion.
- Egunero bi saio emango ziren, hiru ordukoa bakoitza.
- Egunero derrigorrez bete beharreko eskola-curriculumak ondorengo irakasgai hauek osatzen zuten: Kristau-Ikasbidea eta Historia Sakratua; Aritmetika eta Geometria; Irakurketa, Idazketa eta Joste-lanak neskontzat. Txandakako egunetan, Geografia eta Historia eta Gizalegea eta Higienea.
- Irakaskuntza maistren esku egoten ziren, aurretik alkatearen, apaizaren eta Guardia Zibilaren derrigorrezko txostena aurkeztu ostean.
- Ikuskaritzak gomendatzen zuen eskola-inbentarioak ondorengo liburu eta material hauek barne hartzea: gurutzea, Espainiako bandera makilarekin, Sorkunde Garbiaren koadroa, Buruzagiaren irudia, Elizbarrutiak ezarritako Lehenengo Jaunartzeko kristau-ikasbideak, arbela eta ondorengo liburu hauen ale bana: Solanaren *Rayas*, *Catón Seijas*, *Lecturas infantiles*, Bustamanteren *Para mi hijo*, *Manuscritos*, *Mi sendero*, *Lecturas de oro* eta maila bakoitzerako entziklopediak, lumen kutxak, labanak, arbel-ziriak eta arbelak markoarekin, “Hispania” arkatzak, Nafarroako eta Espainiako mapa, hiztegiak, tintontziak, egutegia bere takoarekin, tintaren hautserako paketeak, orriak eta libretak. Familiek mahaiak eta aulkiak ematen zituzten.

100. 1937ko urtarrilaren 15eko akordioari esker, ondorengo herri hauetan sortu ziren sasoiko eskolak: Loza, Beramendi, Itxaso, Orokieta, Ziga-Zirraure, Zozaya, Azpa, Sarasibar, Zuriain, Guendualain, Lizarrusti, Nobeleta (Lizarra), Anotz, Muskitz, Itza, Errekamaieta (Leitza) Erasote (Leitza), Albiasu, Alli, Madotz, Najurieta, Ozkoidi eta Pekotxeta (Luzaide). 1937ko urriaren 8ko akordioaren arabera, Larrageta, Olazt, Zidotz-Untzu eta Mendiola-Almandotzeko eskola sortu ziren, eta 1938ko urriaren 11ko akordioarekin Suso (Arano), Aizarotz, Gaztelu, Lizarrabengoa, Erantsus eta Markalainekoak.



Zugarramurdiko "Echartea" Sasoi Eskola Daintziart familiaren "Pikatxarreko borda" baserrian zegoen. Egun, eraikin hori ez dago bertan bizitzeko moduan. Irudian tokiko agintariak, ikasleak eta Teresa Sánchez maistra ikus ditzakegu. 1942.



Zozaiako (Baztan) Sasoiko Eskola. 1942.

1947an, Sasoiko Eskolek Ministerioaren laguntza ofiziala jaso zuten eta horrek gure erkidegoan eskola horiek sendotzea ekarri zuen. Izan ere, urte horretan bertan, 1.166 eskola martxan zeuden Nafarroan: 66 sasiokoak, 12-15 ikaslerekin, 18 udal eskolak eta 1.082 eskola nazionalak. 1962-1974 urteetan zehar, 4 eta 5 ikasle artean zituzten 347 eskola zeuden Nafarroan.

Inguruko herrietan eskolarik ez zuten landa-eremuetako ikasleen eskolatzean sasoiko eskolek egindako ekarpena oso positiboa izan zen. Sasoiko Eskolek irekita jarraitu zuten 1990an Nafarroak hezkuntza eskumenak lortu eta sare publikoan sartu zituen arte.

Maisu edo maistrentzat ostatu hartzea, batzuetan, zaila izaten zen, batez ere ikasgela bakarra zuten eskola-eraikinetan. 1957an, Madotzeko bezalako Sasoiko Eskola batzuk itxi behar izan zituzten ez zutelako maistrentzako bizitzeko lekurik. Argazkian Madotzeko (Larraun) Sasoiko Eskolako ikasleak euren maistrarekin ikus ditzakegu. 1941.



1940an Arlegiko (Galar) Sasoiko Eskola sortu zen. Eskola Valentín Echevarría eta Juana Azcanoren etxeko beheko solairuan zegoen. Ikasle falta zela eta, Hezkuntzako Ministerioak 1974an itxi zuen. Argazkian Arlegiko lehenengo Sasoiko Eskola ikus dezakegu, 1940an. Ana Echeverría utzitako argazkia.





Baigorriko Sasoiko Eskola, Iruritan (Baztan). 1950.



José Martínez Barceló¹⁰¹, Cadreitako mutilen eskolako maisu titularra Gudaroste Nazionalak deitu zuen borroka egitera joateko. Bere lekua Modesto Eza Aristeguik hartu zuen. Argazkiak José Martínezen ikasleak Modesto Eza bitarteko maisuarekin ikus ditzakegu, 1938an. Irakasle titularra gerratik itzuli zenean, Modesto Eza Martzillara joan zen eta berrogei urtez egon zen han lanean.

101. Don José Martínez Barceló, Cadreitako maisua, herri berean irakasten zuten Victoria Almarza eta Rufina Gracenea maistrak bezala, 1931ko Errepublikako Plan Profesionaletik zetozen eta ospe profesional handia izan zuten. Beste ikasketa-planetatik zetozen maisu-maistren testigantzek Errepublikako Plan Profesionalaren lan-prestakuntza ona goraipatzen dute. Ikasleek ere profesional horien lanarekiko laudorioak izan zituzten. Informazio gehiagorako kontsultatu Guillermo Iriarte *La Escuela y los Maestros de ayer* en Cadreita liburua, Cadreitako Udala, 2014.

Cadreitako maistra
Julia Gascoñana andrearen
ikasleak, 1936



Gerra Zibilaren ostean, Fronte Nazionalen egon ziren maisu batzuk Hezkuntzako Batzorde Nagusiari gerra aurretik betetzen zituzten postuak eskatu zizkioten. José Martínez Cadreitako maisuak instantzia bidez egin zuen pezeta bateko zerga-zigilu batekin eta 50 zentimoko beste batekin. Zigiluetako dirua Irakasle-Laneko umezurtzen Babeserako Batzordera bidaltzen zen. Eskoletan diru-bilketak eta bestelako bilketa jarduerak egiten ziren, esaterako haurren jaialdiak. Jasotako diruaren kopuru handi bat Irakasle-Laneko Umezurtzen Ikastetxeko Fundaziora bideratzen zen. Diru horrekin ordaindu ziren Madrileko “Chamartín de la Rosa” Ikastetxea eta Zaragozako “El Pilar” ikastetxea.



10. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK

- **1931.** Bigarren Errepublika ezarri zen. Gorteetako Hauteskunde orokorrak. Errepublikako Konstituzioa, Gorte Konstituziogileek onartutakoa abenduaren 9an. Apirilaren 29ko Dekretua (30eko Gacetan), haur eskoletako zein lehen hezkuntzako irakaskuntza soilik gazteleraz edo katalanez izango zela ezartzen zuena. Maiatzaren 6ko Dekretua, (9koa Gacetan). Maiatzaren 39ko Dekretua (30an Gacetan) Misio Pedagogikoen Patronatua sortzen zuena eta Irakasle-Laneko Eskola Normalak berritu zituen, hezkidetzaren erregimena berrantolatuz eta maisuak zein maistrak irakasle izendatuz. “Irakasle-Lanaren Plan Profesionala” ezartzen duen dekretua. Nafarroako Lehen Hezkuntzako Kontseilu Probintziala sortu zen.
- **1932.** Abenduaren 2ko Dekretua (7koa Gacetan) Lehen Hezkuntzako Ikuskaritza organikoki garatu zuena. Abuztuaren 31ko Dekretua, Nafarroako udalen proposamen-eskubidea berrezarri zuena. Iruñean “Nafarroako Aste Pedagogikoa” ospatu zen. Lankidetzaren Pedagogikoko Zentroak sortu ziren. Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorren martxoaren 7ko Aginduak (18koa Gacetan), eskola-egutegiaren inguruko irizpide orokorrak ezarri zituen. Espainiako Irakasle-Lan Pribatuko Elkartearen Federazioa sortu zen. Instrukzio Publikoko Ministerioaren menpe zeuden zentroetan Erljioko irakasgaia kentzea 1932ko maiatzaren 12ko Dekretuaren bidez.
- **1933.** Ekainaren 2ko Legea (3koa Gacetan), Erljio Konfesio eta Kongregazioena, erakunde horien hezkuntzan aritzeko eskumena indargabetzen zuena. Ekainaren 7ko Dekretua (8koa Gacetan), batzar mistoak sortu zituen ordena erlijiosoaren hezkuntza-zentroak ordezkatzeko. Nafarroako Batzorde Misto Probintziala Lehen Irakaskuntzako Zuzendaritza Orokorrak izendatu zuen uztailaren 12an. Eskuinaren garaipena (CEDA) eta Espainiako Falangearen sorrera.

- **1934.** Falangearen barruan “Sección Femenina” delakoa sortu zen.
- **1935.** Ikuskaritzak Nafarroako Hezkuntzako Aldizkaria argitaratu zuen.
- **1936.** Franco Jeneralaren altxamendua eta Gerra Zibilaren hasiera. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak ezarritako neurriak Nafarroako lehen hezkuntzako eskolak abiarazteko. Udalen proposamen-eskubidea berrezarri zen. Jesusen Lagundiaren berrezarpena.
- **1937.** Hezkuntzako Batzorde Nagusiak Sasoiko Eskolak sortu zituen. Eskola-Liburutegien garbiketa. Franco Jeneralak San Fernandoren Gurutzea eman zion Nafarroari Altxamendu Nazionalen laguntzeagatik.
- **1938.** Iruñeko Lehen Hezkuntzako Orientabide Nazionalen Ikastaroa. Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Araudia onartu zen. Tafallako Institutua itxi zen eta horren ordez Eskolapioek ikastetxea ireki zuten. Maiatzaren 3ko Dekretua, 1932ko urtarrilaren 23koa indargabetu zuena, Jesusen Lagundiaren deuseztatzeari buruzkoa. Martxoaren 19ko BOEn Pedro Segura Kardinal Primatuari Irakasle-Lan Nazionalaren lehenengo maila eman zitzaion.
- **1939.** “Nafarroako Lehen Hezkuntzako eskoletako eta ikastetxeetako asistentziaren inguruko” arautze proiektua, irailaren 6ko BOEn. Erantzukizun Politikoen Legea, otsailaren 13ko BOEa.

LAUGARREN ATALA:
HEZKUNTZA
FRANKISMO GARAIAN:
HEZKUNTZAREN
ATZERAKADA, GELDIALDIA
ETA GARAPEN MOTELA
(1940-1970)





Erregimeneko agintariak gerran zein gerraostean hartutako neurrien artean Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiak 1936ko abuztuaren 14an egindako txostena nabarmendu behar da, eta Estatu mailan, 1945eko Lehen Hezkuntzako Legea. Bi agiriok beste edozein irakasgairen gainetik erlijioaren nagusitasuna aldarrikatzen zuten eta, bestetik, Aberriaren bikaintasunak eskola-curriculumean txertatzeko beharra ezartzen zuten.



11. ESTATU BERRIAREN LEHENENGO URTEAK

Espainako Gerra Zibiletik irabazle atera zen Estatuak, hasieran, jarrera totalitarioa hartu zuen. Beraz, ez da harritzeko frankismoko lehenengo urteetan Espainiako politika eta, bereziki Nafarroakoa, ondorengo bi ezaugarri hauengatik nabarmentzea: Errepublikak hezkuntza arloan egindako lana goitik behera suntsitzea eta hezkuntzaren inguruan arau-multzo bat aldarrikatzea, hezkuntza doktrinamendu politiko eta erlijiosoaren oinarria izan zedin.

Lehen Hezkuntzako Legea garai horretan argitaratutako legerik garrantzitsuena izan zen. Lehen Hezkuntza bi etapatan banatzen zuen: orokor bat, sei urtetatik hamar urtera eta, aukerakoa, hamar urtetik 12 urtera. Horrela, bi ikasle mota bereizten ziren: lehena hamar urte betetzean Batxilergoa ikasten jarraitzen zutenak eta bigarrena lan mundura bideratutakoak, hamabi urte arte eskolan jarraitzen zutenak. Bazegoen ere derrigorrezkoa ez zen etapa bat, Hastapen Profesionala deiturikoa, 12 urtetatik 14ra.

Lege horrek ezagutzak hiru ataletan banatzen zituen: 1. instrumentalak (irakurketa, idazketa eta kalkulua), 2. formakuntzakoak, eduki erlijiosoak, espiritu nazionala deiturikoa prestatzera bideratutakoak, geografia eta historia barne, batez ere Espainiakoa, eta 3. izaera intelektualekoak (hizkuntza, matematikak eta gorputz heziketa barne hartzen zituztenak). Ezagutza osagarrien artean natura-zientzien hastapena edo izaera artistiko edo erabilgarria zutenak zeuden (musika, kantua, marrazketa, eskulanak eta emakumeentzako joste-lanak).

Lehen Hezkuntzako Udal Batzordeak eta Ikuskaritzak jarduera horiek guztietan eskoletan betetzen zirela zaintzen zuten. Lege horrek sexuen bereizketa ekarri zuen eskoletara: eskola kopuru handiagoa ezarri zuen, eskola bat 250 biztanleko. Gainera, era berean, jarduera osagarriak eta ongintzako



Gerraostean Nafarroako Hezkuntza Batzorde Nagusiak gomendatutako liburuak.

erakunde sozialak sortu zituen zentroetan, esaterako, haurrentzako liburu-tegiak, talde artistikoak, zinema-hezigarria, haur-egunkariak eta batez ere, Frente de Juventudes edo Sección Femenina delakoen udaleku eta aterpetara joatea. Lehenengo aldiz Eskolatzte-Txartela eta Oinarrizko Ikasketen Ziurtagiria ezarri ziren derrigorrezko hezkuntzaren egiaztagiri gisa. Era berean, Legeak jarduera berriak egiteko agindua eman zuen, esaterako eskola-mutualitateak edo eskolako jantzitegia, bai eta eskola-mediku zerbitzua eta jantoki zerbitzua ere.

Frankismoaren hasierako urte horietan, Erregimena kontrolatutako hezkuntza sistema eta Mugimendu Nazionalaren oinarri eta balioekin bat zetorren gobernu eta gizartea sortzen saiatu zen. Ondoren, frankismoak egoera berri bati egin zion aurre, faxismo gogorrenetik urruntzeko izaera sinbolikoko neurriekin eta indar osoa jarriz erregimenaren osagai katolikoan. Horrela hasi zen, beraz, frankismoaren bira estrategiakoa: nazionalsindikalismoak eta falangeak lekua utzi zioten nazional-katolizismoari eta Elizari. Erlijioak “arrazaren”, “odolaren” edo “lurraren” jatorrizko faxismoaren ideiak ordezkatu zituen eta, poliki-poliki, espainiartasunak katolikotasunarekin bat egin zuen.

Hori guztia dela eta, dekretu bidez praktika erlijiosoak eta aberkoiak inposatu ziren, bai eta sexuen bereizketa, diziplina autoritarioa, memorizazioan eta errepikapenean oinarritutako metodo tradizionalak eta ikur erlijioso eta

politikoak berriro txertatzea ere. Eskola-testu berriak berrikusi, konfiskatu eta idatzi ziren. Liburu horietan ikasleek gizona kristaua eta espainiarra zela ikasten zuten eta emakumea zintzoa, otzana, txukuna eta etxeckoia. Gorria, aldiz, lapurra eta hiltzailea zen.

Gerran, maisuek eta maistrek Ikuskaritzari baimena eskatu behar zioten bidaiatu ahal izateko. Ikuskaritzak baimen-ziurtagiriak ematen zizkien, Nafarroako Gobernu Zibilaren Ordena Publikoaren Idazkaritzaren 1939ko ekainaren 20 Arauak ezartzen zuen bezala. Gerra amaitu ostean, behin irakasleen espedienteak aztertu eta gero, bakoitzaren egokitasun-txostena egiten zuen, zegokion txartelarekin.

Maisuen eta maistren garbiketa handia zela eta, frankismoak irakasleen eskasia konpondu nahi izan zuen eta, horretarako, mugatutako oposaketan bidez, erregimenarekin lotutako eta hutsik gabeko izaera erlijioso eta aberkoia zuten maisuak eta maisuak ez zirenak (militarrak, apaizgaiak, ikasleak eta bestelako langileak) aukeratu zituen.

Nafarroako maisu gudari ohiek pribilejiozko egoera izan zuten euren lana egiteko. 1939ko ekainaren 5ko NAOko 120. zenbakian, Aldundiak, Hezkuntza Batzorde Nagusiak proposatuta, ondorengo eman zien:


“[...] mobilizatu zituzten bitarteko maisuei Liberazio Mugimendu Nazional Lorratsuak hasitako gerrara joan aurretik eskola berera itzultzeko baimena”.

Hori dela eta, Batzorde Nagusiak udaletara bidali zituen maisu horien izenak eta agirietan zehazten zuen Aberriaren aldeko borrokan elbarritutakoa zen, militarra zen edo gerrarekin lotutako beste edozein bereizgarriarik zuen. Udalek, euren proposamenetan, lehentasuna eman zieten maisu horiei.

Aurrerago, estatu mailan, Hezkuntzako Ministerioak 1940ko ekainaren 3an Agindu bat argitaratu zuen (NAOko 22koa). Aginduan adierazten zuen gerrako merituak kontua hartu behar zirela ikasleak ziren maisuei eta gradu profesionaleko irakasleei lana emateko. Lehentasunezko ordena horrela zegoen antolatuta: a) Aberriaren aldeko borrokan elbarritutakoak. b) Behin-behineko ofizialak edo ofizial osagarriak. c) Espetxean gatibu egondakoak. d) Gerrako biktima nazionaleko umezurtzak.

Nafarroan, 1940ko uztailaren 6ko Aginduaren arabera (uztailaren 12koa BOEn), Armadako 23 ofizial izendatu zituzten praktikako irakasle gisa. Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorrek maisu bilakatutako ofizial horientzako formakuntza ikastaro bat antolatu zuen, abuztuaren 15etik irailaren 15era. Batzordeak Administrazio Ziurtagiriak eman zizkien maisu gisa lan egin ahal zezaten, 1940ko uztailaren 19ko Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Oroko-

Aldeko garbiketa agiria, Nafarroako
Hezkuntzako Batzorde Nagusiak
Enrique Goicoa Arillari emandakoa.



rraren zirkularrean ezarritakoaren arabera (1940ko uztailaren 6a BOEn). Praktiketako urtea amaitu ostean, Eskola Normaletan maisu titulua lortzera behartuta zeuden.

1945eko Legea argitaratu ostean, oposaketen deialdia espainiar guztientzat ireki zen, noski, portaera publiko eta pribatu egokiaren ziurtagiriak zutenentzat soilik. Ziurtagiriak emateko arduradunak apaiza, Guardia Zibilaren komandantea eta alkatea ziren. Mugimenduaren atxikipen-ziurtagiria izatea ere derrigorrezkoa zen, FET-eko eta JONS-etako Zuzendaritza Probintzialak ematen zuena. Irakasle-lanean jardun ahal izateko eskatzen zen beste betekizun bat Frente de Juventudes delakoaren Oinarrizko Irakaslearen titulua izatea zen maisuentzat eta Hogar y Juventudes (Etxea eta Gazteria) delakoaren Oinarrizko Irakaslearen titulua maistrentzat.

Azkenik, 1947an Irakasle-Lanaren Estatutua onartu zen, maisu-maistren bizitza profesionalarekin lotutako administrazio kontuak arautzen zituena, esaterako, nola sartu irakasle-kidegoan edo etxebizitzan, lizentzien eta erretiroen araudia.

12. ERREGIMENAREN BULTZADA TEKNOKRATIKOA

Gerra ondoren, nazionalsindikalismoak eta Elizak, ohitura eta erabilera sozialei dagokienez, eliza ultrakontserbadorea sustatu zuen; xenofobia atzerrikoari zegokionez eta ukitu faxistekin eskola-jardueretan. 50ko hamarkadatik aurrera, lehenengo garaiko frankismoaren gainbehera hasi zen. 1959an ia erabat agortu zen, garapen-politikei eta teknokraziaren garaipenari esker. Garai horretan, eskola gerraosteko ostrazismotik ateratzen hasi zen eta, jendarteak bezala, jarrera irekiagoa hartu zuen.

Ruiz Jiménez Hezkuntzako Ministroaren izendapenak, herrialdean ematen ari ziren aldaketa ekonomiko eta sozialekin batera, irekieren eta berrikuntza pedagogikoen ziklo berri bat ekarri zuen. Zentzu horretan, eskola zegokion lekuan jarri nahi zituzten hainbat neurri azpimarratu dezakegu. Neurri horiekin Europako herrialde batzuetan gertatzen ari ziren aurrerapen ekonomiko eta sozialekin bat egin nahi zen, baina jarrera ideologikoa eta politikoa bat ere aldatu gabe.

Garai horretan ezarri ziren neurri garrantzitsuenen artean 1953ko **Lehen Hezkuntzako Galdetegi Nazionalak** izan ziren, curriculumean berrikuntza garrantzitsuak ekarri zituztenak. Izan ere, hezkuntzaren historian maisu-maistren jarduera didaktikorako jarraibideak eman nahi izan zituen lehenengo agiria izan zen. Edukiak diziplinen arabera antolatzen zituen eta horiek garatzeko orientabide pedagogikoak eskaintzen zituen. Gogoan izan behar dugu ordura arte eskola-ezagutzaren eta curriculumeko plangintzaren aukeraketa manualistikaren eta irakaslearen gaitasunaren bidez arautzen zela, eskola-programak antolatzeko Galdetegi Nazionalak agertu ziren arte (Escolano, 2011).



Frankismoaren garai horretan irakasleek kontsultatutako eskola-aldizkariak.

Era berean, 1963ko apirilaren 23ko Ministro-Aginduak (29koa BOEn), **Promozio mailak** zehaztu zituen. Maila horien arabera, maisu-maistrek, ikasturte amaieran, hezkuntzako edozein sei mailetarako promozioa egiten zuten. Gainditzen ez zuten ikasleek, maila errepikatu behar zuten.

Ondoren, 1965ean, **Galdetegi Nazional Berriak** argitaratu ziren, CEDODEP-ek egindakoak (Lehen Hezkuntzako Orientabidearen eta Dokumentazio Didaktikoaren Zentroa). Horiei esker, curriculuma berritu zuten eta irakasgaien eta kurtsoen arabera antolatu zuten. Galdetegi horien argitalpenak entziklopedien eta irakasgaien araberrako testuliburuaren behin betiko amaiera ekarri zuen.

Eskola-postuen urritasuna eta eskolen egoera txarra zela eta, Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak, Foru Aldundiaren laguntzarekin, eskola-kontzentrazioak sustatu zituen **Eskola-Eraikinen Planen** bidez.

Lankidetzeta Pedagogikoko Zentroak (CCP) 1957ko urtarrilaren 23ko Ministro-Aginduak sortu zituen, 1933an, Errepublika garaian, funtzionatzen hasi ziren arren. Barruti bereko zentroetan aldizkako bilerak egiten ziren, ikuskariak zuzendutakoak, eta horietan materialak, esperientziak, ikasketak-estrategiak eta eskola-antolaketa-erako sistemak partekatzen ziren. Zentro horietan egin zituzten aipaturiko Galdetegi Nazionalak. Gainera Hezkuntza Administrazioak proposatzen zituen ideia berritzaileak maisu eta maistrei ekartzen zizkieten, esaterako: irakurketaren eta idazketaren aldi bereko irakaskuntza, udalerrri oinarritzat hartuta historia eta geografiaren diziplina arteko ikasketa, lehen hezkuntzan natura-zientziak irakastea...

1958an **CEDODEP** zentroa sortu zen, Adolfo Maílloren zuzendaritzapean, lehen hezkuntzako antolakuntzan eta metodologian berritasunak txertatzeko asmoz. Eskola modernizatzeko zeregina zuen erakundea izan zen. Zentro horrek irakasleentzako jarraibide tekniko eta pedagogikoak diseinatu eta planifikatu zituen. Jarraibide horiek “Vida Escolar” aldizkarian zehaztu ziren eta Espainiako eskolen arteko adierazpen tresnarik onena izan zen. 1980an argitaratzeari utzi zioten eta “Comunidad Escolar” aldizkariarengatik ordezkatu zuten. Curriculumaren modernizazioarekin, CEDODEP-ari esleitutako lana, eta Ikerketa eta Esperimentazio Pedagogikoko Zerbitzua eta Eskola-Psikologiako eta Orientazio Profesionaleko Zerbitzuaren sorrerarekin batera, lehen hezkuntzan etorkizun berria antzematen hasi zen.

60ko hamarkada erdialdean, erregimenaren krisiaren lehenengo urteetan, muin antifrankista sakona zuten berrikuntza pedagogikorako mugimenduak hasi ziren. Kataluniako **“Rosa Sensat” Maisu-Maistren eskola** (1965) eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako **“Adarra” taldea** (1969) mu-



Espainiako Irakasle-Lanaren Zerbitzuko (SEM) prentsa atala *Servicio* aldizkaria izan zen. Nafarroako Hezkuntza Aldizkaria Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren eta Ikuskaritzaren informaziorako eta doktrinamendurako tresna izan zen. 60ko hamarkadatik aurrera, maisu eta maistrentzako agendak agertu ziren, eskolako erregistro eta almanaka gisa ere erabiltzen zirenak.

gimendurik garrantzitsuenak izan ziren. Euren aldarrikapenen artean ondorengo hauek zeuden: hezkidetza, eskola anitz eta ez autoritarioa, formakuntza berezitua, metodo pedagogiko berriak, etab.

Neurri horiek guztiak eskolak berritzeko eta eraldatzeko baliagarriak izan ziren. Une gorena 1970ko Hezkuntzako eta Hezkuntza-Erreformaren Finantzaketarako Lege Orokorra aldarrikatu zutenean iritsi zen.

Lege horrek hezkuntza orokortu nahi zuen, bai eta jarduera profesionalerako prestatu eta hezkuntza-aukeren berdintasuna lortu ere. Maila berean (OHO) 6 eta 14 urteko ikasle guztiak bildu zituen eta, lege horren bidez, gizartea hezkuntzarekiko konpromisoa handiago izan zezan prestatu zuen. Kalitatezko hezkuntza sistema demokratiko bat lortzeko ahalegin guztiak egin ziren. Era berean, lau urtetako Batxilergoa sortu zen (BBBeko hiru eta UBiko bat) eta ikasleak 14 urte betetzean adarkatze bat proposatu zen, horrela hiru gradutako Lanbide Heziketa (LH) sortuz. Hala ere, ez zegoen oso lotuta garai horretako lan merkatuarekin.



Frankismoan ikasgai magistralak ematen ziren, arbelaren eta liburuen laguntzarekin baino ez. Batzuetan, irakasleek jarduera parte hartzaileagoen alde egin zuten, aire zabaleko ikasgaiak edo landetara txangoak bezalakoak. Horietan ikasleek behaketa, intuizio eta aurkikuntza gaitasunak garatzen zituzten. Argazkietan Alesbesko neskek eta mutilak ikus daitezke aire zabaleko eskola jasotzen. 1954-55 ikasturtea.



“Haurra, ezagutu Nafarroa” programa Iruñeko Udal Aurrezki Kutxak bultzatzen zuen. Radio Requeték emititzen zuen, aita Ramiro zuzendari. Argazkian San Frantzisko eskoletako eta Maisutza Eskola Normaleko rondallaa ageri da. 1968. Iruñeko San Frantzisko Ikastetxe publikoak utzitako argazkia.

13. NAFARROAKO HEZKUNTZA-POLITIKA

Gerra Zibila amaitu ostean, Estatu berriak Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusia berretsi zuen, eta hezkuntzako arloko zenbait eskumen eman zizkion, 1941eko ekainaren 9ko Batzorde Nagusiko Araudian jasota agertzen den bezala: “Batzordea Nafarroako irakaskuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako guztia antolatzeko eta zuzentzeko arduraduna izango da”. Hala ere, jarduerasparru hori “Nafarroan onartutako eskumenetara” mugatu zen.

Ondoren, Estatu berriak lehen hezkuntzari zegokion Nafarroako Erregimen Pribatiboa onartu zuen, 1945eko uztailaren 17ko Lehen Hezkuntzako Legean eta 1970ko Hezkuntza Legean berretsi zen bezala. Beraz, horien arabera, arazoak bertan behera gelditu ziren. Aitorpen horrekin, Nafarroak, hezkuntza arloan, emate mugatuak zituela esan nahi zuen. Hori dela eta, Estatu Administrazioak eskumen osoa zuen Espainian eta, ondorioz, Nafarroan ere. Bi administrazioek, orokorrean, lankidetzaren harremana izan zuten. Estatuak administrazio eta hezkuntza alorrak arautu eta betetzen zituen eta Aldundiak Administrazio Zentralarekin modu osagarrian lan egiten zuten.

Frankismoaren garai horretan, Nafarroak hezkuntza-politika esanguratsua garatu zuen eta horrek hezkuntza-zerbitzuen hobekuntza ekarri zuen. Hobekuntza horretan zenbait ekimenek garrantzia handia izan zuten: 1946an eskola-eraikinen inguruan Estatuarekin sinatutako akordioa, 1945ean Nafarroako gormutuen Eskola Probintziala sortzea edo Tuterako Lehenengo Eskola Babestua sortzea.

1945eko Lehen Hezkuntzako Legeak eskola-unitate bat egon behar 250 biztanleko egon behar zela ezarri zuen (ordura arteko ratioa eskola bat 500 biztanlekoa zen). Horrek Nafarroa osoan eskola kopurua asko igotzea ekarri zuen, besteak beste eskola-eraikinen planei esker.

Nafarroako eskola-eraikinak Hezkuntza Nazionalako Ministerioak ezarritako araudiaren barruan zeuden. Hala ere, Foru Aldundiak, hezkuntzan zituen bere eskumenak baliatuz, Estatuarekin lan egin zuen Eskola-Eraikinen hitzarmenen bidez.

Hori dela eta, Nafarroako Foru Administrazioak eskola-eraikinak sustatu zituen. Lehenetsuneko helburuetako bat zentroen sarea sortzea izan zen Nafarroan irakaskuntza baldintza onetan jasota emanahalizateko. Hezkuntza politikaren barruan eskolak bultzatzeko jasotako diru-laguntzak sar ditzakegu, Estatuarekin sinatutako hitzarmenean zehaztu zirenak.

1946ko apirilaren 26ko dekretuak bi administrazioen arteko lankidetzaren oinarriak ezarri zituen eta horren bidez, beste probintzien aurretik jarriko zuen eskola-zentroen eta maisu-maistrentzako etxebizitzaren azpiegitura eman zitzaion Nafarroari. Eskola-eraikuntzen plangintza Hezkuntzako Ministerioak egingo zuela adostu zen eta %50a ordainduko zuela. Beste %50a Aldundiak ordainduko zuen eta udalek lursailak emango zituzten.

Irakaskuntza mailakatzeko beharrak, eskola bateratuen matrikulazio baxuarekin eta udalerririk askotako jaitziera demografikoarekin lotuta, Eskola-Kontzentrazioen Planari eta aurrerago Eskola-Eraikinen Programari bidea eman zion. Plan horiek aurrera eramateak arazoak sortu zituen udal batzuekin eta, beraz, Foru Aldundiak hartu behar izan zuen guztiaren protagonismoa.

1962ko dekretu batek eskola bateratu eta graduatuak zuzendari beraren zuzendaritzapean egotea ezarri zuen. Hori, landa-eremuetako eskola-errol-daren jaitzierarekin batera, eskola askoren birmoldaketa edo horien desagertzea ekarri zuen.

Horretarako, “119 eskola-kontzentrazio txiki aurreikusi ziren 299 udalerrietatik 2.358 ikasle eramateko”¹⁰².

Nafarroako lehenengo eskola-kontzentrazio “txikiak” 1963. urtekoak dira, eta horien artean ondorengo hauek aurki ditzakegu:

Agoitz. Arrieta, Uritz, Nagore eta Urdiritzeko eskolak batu zituen

Urrotz. Lizoain, Urotz, Beorlegi eta Oskaritzeko eskolak batu zituen.

Zubiri. Urtasun, Agorreta eta Saigotseko eskolak batu zituen.

Erro. Olondritz, Aintzioako eta Esnotzeko eskolak batu zituen.

Elo. Izko, Idotzin, Otao eta Abintzaoko eskolak batu zituen.

102. J. R. MUGICA NAVARRO, (1996). *Concentraciones Escolares en Navarra: 1966-1985*. ruñea. Nafarroako Gobernuak. 136. orr.



Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an Cabanillasek mutilen eskola bat zuen, 25 ikaslerekin, eta nesken beste bat, 10 ikaslerekin. 1908an 80 ikasle zeuden herriko bi eskoletan banatuta. Cabanillaseko Eskola Nazionalak, 1956.



Eskola-eraikinetako aurrealdean jartzen zen eskola-plaka.

1960-70ko aldi horretan, Nafarroan Lehen Hezkuntzako 1.522 eskola-unitate zeuden (haur eskolak eta hezkuntza bereziko eskolak kenduta). Horietatik 1.144 estatukoak ziren eta 378 estatukoak ez zirenak. Azken horietatik 325 eskola-unitate itxi ziren. Ikuskaritzaren eta Batzorde Nagusiaren irizpidea izan zen ahalik eta eskola-unitario gehien mantentzea, maistra baten zaintzapean egongo ziren eskola mistoak bilakatzeko. Matrikulazioa nahikoa ez bazen, eskola ixten zen eta ikasleak beste eskola-kontzentrazio batera, Egoitza-Eskola edo gertuen zeuden eskola-unitateetara joaten ziren.

1960ko Eskola-eraikinen Plan Probintzialarekin 26 eskola eta maisu-maistrentzako 37 etxebizitza eraiki ziren; 1962ko Planarekin 58 eskola eta 56 etxebizitza eta 1964-65 ikasturterako Batzordeak 37 eskola eta 26 etxebizitza eraikitzea onartu zuen.



Hiriberri Artzibarreko eskola mistoko aurrealdea, 1957. 1960an eskola itxi zen eta ikasleak Arrietako eskolara joan ziren. S.I.E.



Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, Arrietan (Artze), 1847an, 43 ikasle zituen Eskola Osatugabe bat zegoen, 900 errege-lur zituena. 1908an, bi sexuetak 64 ikasle zeuden eta oraindik ere eskola bat zegoen. 1957an Arrietako eskola misto bilakatu zen, baina 1964an itxi egin zuten. Ikasleak Agoitzeko Eskualdeko Ikastetxera joan ziren. Irudian Arrietako eskola-eraikina ikus dezakegu. 1957. S.I.E.

1969ko apirilaren 2ko Hitzarmenean Aldundiak proiektuak egiteko, diru-laguntzak emateko eta lanak zuzentzeko konpromisoa hartu zuen. Eta, era berean, Hezkuntza Ministerioaren diru-laguntzaren eta bukaerako zenbatekoaren arteko aldea finantziatzeko ardura hartu zuen. Ondorengo herri hauetako Eskualde-Eskolei lehentasuna eman zieten: Gares, Lizarra, Los Arcos, Zangoza, Agoitz, Doneztebe eta Irurtzun. Ondoren, Elizondoko eta Tafallako eskolei lehentasuna eman zitzaizkien. Aipaturiko eskola-kontzentrazio horiek, Egoitza-Eskolek (garraioa ezinezkoa zenean) eta Eskualdeko Ikastetxeek kalitatea eman zioten hezkuntzari, eta hezkuntzaren graduazioan, irakasleen bereizkuntzan eta giza baliabideen erabilera egokian islatu zen.

Aldundiak ere eskola-plangintza horretan parte hartu zuen sakabanatuta bizi ziren familiei ekonomikoki lagunduz, hau da, ostaturako, jantokirako eta garraiorako diru-laguntzak emanez. Laguntza horiek Egoitza-Eskoletako ikasleei ere eman zitzaizkien¹⁰³. Horrela, adibidez, 1964an, gertuen zegoen

103. Sakabanatutako ikasleentzako arreta Egoitza-Eskolen bidez eskaintzen zen. Ondorengo hauek dira azpimarragarriak: Elizondo, Atarrabia (M.M. Dominicas eta RR. del Amor Misericordioso), Iruña (M.M. Josefina), Zudaire (San Miguel Exelsis), Doneztebe, Lizarra eta Garralda.



Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, Zubirin (Esteribar), 1847an, ikasle bakoitzak ordaintzen zuen gari-erregu erdiarekin ordaintzen zen Eskola Osatugabea zegoen. 1908an, eskolan bi sexuetako 83 ikasle zeuden. 1963an, Zubiri izan zen Nafarroako eskola-kontzentrazio txiki horietako bat eta, Eugikoak izan ezik, Esteribarreko ikasleak hartu zituen. Egun, erromesentzako aterpea dago eraikin horretan. Zubiriko kontzejuak utzitako argazkia.

eskolatik bi kilometrora bizi ziren 500 ikaslek baino gehiagok eskolatzerako zailtasunak zituzten eskola-garraiorik ez zutelako. 349 ikasle oinez joaten ziren (batzuk 6 kilometro baino gehiago) eta beste 15 ez ziren eskolara joaten¹⁰⁴.

Nafarroan ofizialki sortu zen lehenengo kontzentrazioa Ultzamako Larraintzarreko Eskualde-Eskola izan zen. 1965ean inauguratu zen (1965ko abuztuaren 24ko BOEa) eta bere irekierak automatikoki Ultzamako Udaleko eskolak ixtea ekarri zuen: Larraintzar, Eltso, Eltzaburu, Auza, Ilarregi, Iraitzotz, Gerendiain, Urritzola, Alkotz, Arraitz eta Lizaso.

Bailarako eskaintza pribatua Alkotzeko “Iriarte” Babes-Etxeak eta Larraintzarreko “Nuestra Señora del Pilar” Ikastetxeak osatzen zuten.

104. J. R. MÚGICA NAVARRO, *Las Concentraciones escolares en Navarra: 1962-1985*. Estudios de Pedagogía y Psicología, 4.zk, UNED, 1992.



Eltsoeko eskola (Ultzama).



Auzako eskola (Ultzama).



Beramendiko eskola (Basaburua)



Lehenengo irudian Eltzaburuko (Ultzama) eskola-eraikina ikus dezakegu. Bertan “Maestría y Rosario” fundazioa 1789an lanean hasi zen, Juan José Yaven eta Martín Erviti ongileei esker, 2.000 dukat eman zituztenak. 1847an eskola misto gisa erabiltzen jarraitu zuten. Eskola horretara Ilarregi, Suarbe eta Auzako ikasleak ere joaten ziren. 1927an, eskola nazional bihurtu zuten eta bertan jarri zuten Eskola-Kantina.

Bigarren irudian Gelbentzuko (Odieta) Eskola Nazionala ikus dezakegu, 1953an ireki zutena. Eraikinean eskola eta maistrarentzako etxebizitza zegoen. Proiektua Casimiro Díaz arkitektoak diseinatu zuen. Eskola horretako maistra, 1953an, Áurea Razquin izan zen. S.I.E.



Arraitz eta Ostitzeko (Odieta) eskola mistoak. S.I.E.

1976an inauguratu zituzten Elizondoko “San Francisco Javier” Eskualde-Eskolak eta Egoitza-Eskolak¹⁰⁵ Baztango bailaran itxitako eskolak ordezkatu zituzten, Elizondoko mutilen eta nesken eskola barne. Egun, Egoitza-Eskola Musikako Udal Eskola da.



Bearzungo eskola mistoa eta bertako ikasgela (Baztan), 1957.

105. 1968an, aldi baterako, eskualdeko mutilentzako barnetegi gisa erabili zen Arizkuneko (Baztan) Jesuiten eraikina, Elizondoko Egoitza-Eskola egin zen arte. Nafarroako Ikuskarien Batzordeko Akten Liburua, 1933-1969, 316. orr.

XIX. mendean zehar eta xx. mendearen zati handi batean, Anizeko (Baztan) ikasleak Berroetara (Baztan) joaten ziren ikastera. Anizeko lehenengo eskola osatugabea 20ko hamarkada erdialdeko da. Frankismoan Eskola Nazionala eraiki zen, irudian ikus dezakeguna. 70ko hamarkada erdialdean itxi zen eta ikasleak Elizondora joan ziren ikastera.



Doneztebeko Eskola Nazionalak 1953ko abuztuaren 3an inauguratu ziren. Eraikitzeko lanek 766.500 pezetako kostua izan zuten: horietatik 326.000 Estatuak eman zituen, 163.000 Aldundiak eta bestea udalak. 1974an ikasleak "San Miguel de Santesteban" eskola-kontzentziora joan ziren, Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Saldias, Doneztebeko Urrotz, Beinza-Labaien, Donamaria, Narbarte, Legasa, Gaztelu, Eratsun, Oiz eta Oieregiko ikasleekin batera. Irakaskuntza pribatua San Vicente Pauleko Karitatearen Ahizpen "Sagrada Familia" Ikastetxean ematen zen. Irudian Doneztebeko Udala ikus dezakegu, 1953an eskola ohiak zeuden tokian.



Zudaireko eskola-kontzentrazioak Ameskoako ibarrean itxitako eskole-
tako ikasleak hartu zituen.



Pascual Madozen *Hiztegi geografikoan* agertzen den bezala, 1847an 18 ikasle joaten ziren Zudaireko (Ameskoabarrena) Eskola Osatugabera. 1908ko Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, bi sexuetako 43 ikasle zeuden. Irudian 1945eko martxoaren 19an inauguratutako Zudaireko Eskola Nazionala eta bere pabilioi nagusia ikus dezakegu. S.I.E.



Barindanoko (Ameskoabarrena) eskola mistoa eta ikasgela. S.I.E.



Artatzako eskola mistoa (Ameskoabarrena) .S.I.E.



Ekalako eskola mistoa (Ameskoa).

Lizarrako “Remontival” Eskola-Kontzentrazioa 1974an inauguratu zen. Administrazioak emandako baliabideak ondorengo hauek izan ziren: 50 irakasle, jantokirako 800 leku eta Egoitza-Eskolarako 100 leku. 1.500 ikasle joaten ziren hara, inguruko hainbat herritakoak.

Irudian, Arteagako (Lizarralde) Eskola Mistoa ikus dezakegu, 1974an itxi zena. S.I.E.



1909an Elizagorriako eskola eraiki zen bi sexuetako 28 ikasle bertara joan zitezkeen. Frankismoan zehar bi eskola-unitate egon ziren, bat mutilentzat eta bestea nesKentzat. 1963an eskola misto bilakatu zen eta 70ko hamarkada erdialdean itxi zen. Ikasleak Mendabiako eskolara joan ziren. Lehenengo argazkian Elizagorriako eskola ikus dezakegu, 1957an, eta bigarreanean, azken promozioiko ikasleak Anabel Romero maistrarekin. 1974-75 ikasturtea.



Arbeitzako eskola (Allin).



Armañantzaseko eskola (Lizarraldea).



Villamayor de Monjardineko eskola mistoa (Lizarraldea). S.I.E.



Mendazako eskola (Lizarraldea).



Irudietan El Bustoko (Lizarraldea) eskola mistoa eta Arizaletako (Deierri) eskola mistoak ikus ditzakegu. Biak 70ko hamarkadaren hasieran itxi zituzten.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoan* agertzen den bezala, 1847an Olagueko (Anue) Eskola Osatugabera bi sexuetako 50 ikasle joaten ziren. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an 69 ikasle zeuden, herriko bi eskoletan banatuta; bat mutilentzat eta bestea nesKentzat. 1964an Eskola Bateratua Eskola-Kontzentrazio bilakatu zen Anue ibarrean itxitako eskoletako ikasleak hartzeko. Irudian Olagueko mutilen eskola ikus dezakegu.



Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoan* agertzen den bezala, 1847an Aritzun (Anue) ez zegoen lehen hizkien eskolarik. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an bi sexuetako 20 ikasle zeuden herrian eta eskola osatugabean ikasten zuten. Irudian Aritzuko Eskola Mistoa ikus dezakegu, 70ko hamarkada erdialdean itxi zutena.





Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoan* agertzen den bezala, 1847an Etulainek ez zuen lehen hizkien eskolarik eta herriko ikasleak Olagueko eskolara joaten ziren. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, herrian bi sexuetako ikasleak hartzen zituen Eskola Osatugabea zegoen. Irudian Etulaingo (Anue) eskola ikus dezakegu, 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorra argitaratu ostean itxitakoa.



Burutaingo eskola
(Anue).



Egozkueko eskola (Anue).



1974an, eskola-kontzentrazioak, Beteluko Eskola zaharrean, Araitz ibarreko eta Errazkin, Lezaeta eta Beteluko ikasleak hartu zituen. Goiko argazkian Jesusa Erro, Beteluko eskola zaharreko maistra, bere ikasleekin ikus dezakegu. 1943. Eta eskuinetara, Beteluko eskola zaharra. Amaya Apalauzak utzitako argazkiak.



XIX. mende hasieran, Agoitzek lehen hizkien eskola zuen, 2.400 errealek zituena. Mutilen eskolara 60 ikasle joaten ziren eta neskenara 30. Azken eskola horretako maistrak 1.100 errealeko soldata zuen. 1908an, Agoitzek bi sexuetako 200 ikasle baino gehiago zituen, baina maisu bat eta maistra bat izaten jarraitzen zuen. Hori dela eta, 1927an udalak eskola berriak eraikitzeke agindua eman zuen. Ikasgela berriak udaletxeke eraikinean zeuden: bi mutilentzat, Vicente Navarro eta Amancio Fernández maisuen esku, eta beste bi neskentzat, Silvina Zuasti eta María Erdozain maistrekin. 1960-61 ikasturtean herrian 6 eskola-unitate zeuden: 2 mutilentzat, 2 neskentzat eta 2 misto. Eskola horietara 140 mutil eta 146 neska joaten ziren. 1977ra arte egon ziren udaletxeke eraikinean eta ondoren "San Miguel" Eskualdeko Ikastetxera mugitu ziren. Agoitzeko Eskualdeko Eskola berriak Artzibar, Orotz-Betelu, Longuida, Urraulbeiti eta Urraulgoiti, Lizoain eta Izagaondoa ibarretako eta herrietako ikasleak hartzen ditu. Lehenengo argazkian udaletxean zeuden Eskola Nazionalak ikus ditzakegu. Bigarrean, Eskualdeko Eskola. Salva Gutiérrezrek utzitako argazkiak.



1977an, Artaitzeko eskolara Zenborain, Zabaltzeta, Zuatzu, Indurain eta Artaitzeko ikasleak joaten ziren. Maistra titularra Aitziber Martxueta zen. Egun, Eskola "Erromanikoaren Interpretaziorako Gela" da. Artaitzeko ikasleak Agoitzeko Eskualdeko Eskolara joaten dira, Untziti ibarreko ikasleak Noainera ikastera joan arren. Joaquín Ahechuk utzitako argazkia.



Artaitzeko (Untziti) eskola mistoa eta ikasgela. Petra Uhalde bere ikasleekin 1929an. Joaquín Ahechuk utzitako argazkia.



Badakigu 1555an jada lehen hezkuntzako eskola zegoela Tabarren (Urraulbeiti). Maisuak bere lana sakristau eta organista lanarekin bateratzen zuen. Hala ere, Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an Tabarrek ez zuen lehen hizkien eskolarik. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, herrian eskola osatugabe bat zegoen bi sexuetako ikasleekin. Eskola kontzeju-etxeko gela batean zegoen, elizaren aurrean, aldi berean maistraren etxea zena (lehenengo argazkia). Eskola-eraikin berriaren eraikuntza 1921ean egin zen. Elizara atxikita zegoen. “La escuela” ezizenez ezagutzen zen herrian (bigarren argazkia). Beranduago, 1953an, Eskola berria eta maisuarentzako etxebizitza eraiki ziren. Baina, 1970ko Hezkuntzako Lege Orokorra ezartzean, eskola itxi zen eta ikasleak Irunberriko Eskola Nazionalerara joan ziren. M^a Jesús Arocenak utzitako argazkiak.



Tabarreko eskola mistoko ikasgela. 1957. S.I.E.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoan* agertzen den bezala, 1847an Retako (Izagaondo) eskola mistora bi sexuetako 30 ikasle joaten ziren. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, Retan ez zegoen lehen hizkien eskolarik eta haurrak Ardanatzeko eskolara joaten ziren. Irudian, Retako eskola mistoa ikus dezakegu. 1960. S.I.E.





Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, Leitzan bi eskola zeuden, mutilen bat eta nesken beste bat. Osotara 220 ikasle zeuden eskola horietan. 1917an Udal Eskolak eta maisu-maistrentzako etxebizitzak udaletxeko lehenengo solairuan zeuden. 1934an, udalbatzak ikasleak Gorritzaran, Erasote eta Erreka-Maietako auzoetan zeuden hiru eraikinetara bidali zituen. 1956an, eraiki ziren azkenik hiru eskolak zegozkien etxebizitzekin, bana auzo bakoitzarentzat. Irakaskuntza pribatua Ahizpa Frantziskotarren esku zegoen “Nuestra Señora del Perpetuo Socorro” Ikastetxean. 50 urtez lanean egon ostean, 1965ean eskola ixtea erabaki zuten. Kontzentrazio-prozesua hasi zenean, udalak eman zuen lehenengo urratsa auzoetako eskolak ixtea eta ikasleak herrira bidaltzea izan zen. Ikaslerik nagusienak udaletxeko eskola zaharretara joan ziren eta gazteenak mojen eraikinera. 1969-70 ikasturtean zehar, eskola-kontzentrazio prozesua amaitu zen eta Erleta Eskualdeko Ikastetxea martxan jarri zen, Leitzan, Areso eta Ezkurrako ikasleekin. Ikastetxeak 11 eskola-unitate zituen, denak publikoak. Horietara 221 neska eta 196 mutil joan ziren. Zenbait guraso Ahizpa Frantziskotarren komentu zaharrean San Miguel Ikastola sortzeko elkartu ziren.



Leitzako mutilen eskolako ikasgela. 1955.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoan* agertzen den bezala, 1847an Lantzek lehen hizkien eskola zuen, 20 neska eta 10 mutilekin eta 1.000 erregu-lurrekin. 1908an, bi sexuetako 52 ikasle zeuden, maisu bakar baten zaintzapean. Historian zehar, Lantzeko eskola hainbat eraikinetan egon zen: Anzoetxea, Karakotxea eta Barbenea etxeetan. 1917an, ikasleak Anzoetxeatik irudian ikus dezakegun eskolara pasa ziren. 1948 aldera, ikasle kopurua modu esanguratsuan hazi zenez, Udalak lokal bat (Garaikoetxea) prestatu behar izan zuen ikasleak eta maisu berria han egon zitezten. Eskola misto bilakatu zen 1960an. 1970ean eskola horretara 4 neska eta 6 mutil joaten ziren.



Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoan* agertzen den bezala, 1847an Ezkurran udaletxean zegoen eskola osatugabe bat zegoen. 30 mutil eta 10 neska joaten ziren bertara eta maisu bakarra zuten, udaletxeko idazkari lanak egiten zituena aldi berean. Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, herriak 1908an 60 ikasle baino gehiago zituen. Irudian Ezkurra eskola mistoa ikus dezakegu. 1955.



Zentro gehien izan zituzten eskualde-barrutiak Lizarra (20), Elizondo (19), Altsasu (11) eta Bera (10) izan zire¹⁰⁶.

Iruñerriko eskolak itxi zirenez eta oraindik ere ingurabideko eskolak eraiki gabe zeudenez, ikasleak Iruñeko eskola nazionaletara joan behar izan ziren, esaterako Vázquez de Mella, Cardenal Ilundáin, Víctor Pradera edo José Vila eskoletara, kontzentrazio gisa funtzionatu zutenak.

106. J. R. MÚGICA NAVARRO, (1996), *Concentraciones Escolares en Navarra: 1966-1985*, Iruña, Nafarroako Gobernua, 350.orr.



50eko hamarkadan Iruñeko ikasle kopura igo zenez, eskola-multzo berriak eraiki zituzten, gehienak falangisten eraikuntza erraldoiak oinarri hartuta. Eskola horiek jasotzen zituzten izenak frankismoko edo karlismoko gertakizunekin edo irudi doktrinalekin lotuta zeuden. Garrantzitsuenak ondorengo hauek izan ziren: El Alcázar (1959), Víctor Pradera (1952), Federico Mayo (1957), Cardenal Ilundáin (1963), José Vila, Ana Mariana Sanz (1963) eta Nicasio Landa (Echavacoiz) (1964). Alde Zaharreko eta Bigarren Zabalguneko irakaskuntza pribatu erlijiosoak ondorengo hauen esku zegoen: Teresiarrek, Eskolapioak, Salestarrak, Maristak, Jesuitak, Karmeldarrak, “María Inmaculada” ikastetxea, Dominikak, “Santo Ángel de la Guardia” ikastetxea, “Sagrado Corazón” ikastetxea eta Kaputxinoak. Argazkian Iruñeko Martin Azpilicueta eskola-multzoa ikus dezakegu, Konpainia kalean zegoena eta 1953an ireki zutena.




50eko. hamarkada hasieran Donibaneko auzoan Eskola Nazionalak zeuden, lau eskola-unitaterekin: mutilentzako bi eta neskentzako beste bi. 60ko hamarkadaren hasieran, auzoa hazten hasi zen eta udala eskola-multzo berri bat eraikitzeko plangintza egiten hasi zen. “José María Huarte” eskola-multzoak, 60ko hamarkada erdialdean eraikitakoa, neurri batean eskolatze-arazoa konpondu zuen. Auzoko eskaintza pribatua “María Santísima del Huerto” ikastetxearen (1957) eta Jainkozko Probidentziaren Frantziskotar Misiolarien esku zegoen. José María Huarte Ikastetxe Publikoak utzitako argazkia.



Celayeta etorbideko San Pedro auzoko “Cardenal Ilundáin” eskola-multzoa 1963an ireki zen. Hasieran 500 ikasle zituen, 12 mailatan banatuta: 6 mutilentzat eta 6 neskentzat. Ikasleak hiru eraikinetan banatu ziren: egoitza nagusia zen eraikin berrian (Cardenal Ilundáin), Lavaderoseko eskolan eta Errotazar kalean zegoen Carbonillako eskolan. Publikoak ez ziren beste aukerak “Esclavas del Sagrado Corazón” (1954) eta “Colegio de la Compasión” (1955) ikastetxe erlijiosoak izan ziren. Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoak utzitako argazkia.

Iruñeko “V́ctor Pradera” Eskola Nazionala 1952ko azaroaren 15ean inauguratu zen. Hasieran “Escuela de la Milagrosa” izena jaso zuen eta, ondoren, “V́cto Pradera” (1954ko maiatzaren 25eko ministro-aginduan agertzen denaren arabera). Eskola-multzoak zortzi maila zituen: haur hezkuntzako bi, mutilen hiru eta nesken beste hiru. Francisco Garraes arkitektoaren zuzendaritzapean eraiki zen zentroa eta 2.220.000 pezetako kostua izan zuen. Auzoko eskaintza pribatua Karitatearen Alaben “Santa Catalina Labouré” ikastetxe erlijiosoaren, eta “Misioneras del Sant́simo” Sacramento Ikastetxearen esku zegoen.



1937an, Iruñeko Erletokieta kaleko Udal Eskola Publikoek hiru ikasgela zituzten: mutilena, neskena eta haurrena. “Hotelito” gisa ezaguna zen txalet batean zeuden eskolak. Lehenengo argazkia: “V́ctor Pradera” eskola-multzoa eraikitzen zen bitartean, udalak Źsimo Ortizi Mochueloko auzoan (Arrosadian) zituen lokalak alokatu zizkion soilik mutilentzako ikasgelak izan zitezen (1951). Bigarren argazkia: Neskak Erletokieta bideko eskoletara joaten ziren (1937). A.M.P.

Errepublikara garaiaren eraikitzen hasitako eskola-erakin batzuk ez ziren erabili Gerra Zibila amaitu arte. Esaterako, Cadreitako, Sartagudako, Elortzeko eta Iruñeko (Sanduzelaiko hondartza, Untzutziki eta La Carbonilla) eskola-multzoak.



Iruñeko "La Carbonilla" eskola zaharrak 1930ean eraiki ziren baina 1944ko otsailaren 22an inauguratu ziren. Zentroak "Cardenal Ilundain" eskoletako ikasleen zati bat jaso zuen. 1975ean, Hezkuntza Bereziko Errotazar Ikastetxeak 4 ikasgela sortu zituen zentro horretan. A.M.P.



Iruñeko Gipuzkoa Etorbideko Untzutziki udal eskolak gerran zehar italiar soldaduek atsedean hartzeko egokitu ziren. Sanduzelaiko eskolen menpe zeuden administrazioari zegokionez. Udalak eraitsi zituen pisuak egiteko (Buztintxuri) eta ikasleak Sanduzelaiko eskoletara joan ziren ikastera. A.M.P.



Untzutzikiko eskola zaharren inaugurazioa, 1944ko otsailaren 22an. Ekitaldira ondorengo agintari hauek joan ziren: Antonio Archanco alkatea, Eusebio Balduz San Salvadorreko Elizako parrokoa, Mariano Lampreave Ikuskari nagusia, Ramiro Aramburu Irakasle-Laneko eskolako zuzendaria, M^{re} Ángeles Barriola zentroko ikuskaria eta agintari militarrek.

Iruñeko Errotazarreko Udal Eskolek, XX. mende hasieran sortu zirenean, hiru ikasgela zituzten: mutilena, neskena eta haurrena. 1965ko abenduaren 12ko ministro-aginduekin, zentroak unitate kopurua handitu zuen eta baita bere modalitatea ere; hasierako 3 ikasgela horietatik 6 ikasgelatara pasa ziren eta zentro arrunta izatetik hezkuntza bereziko zentroa izatera pasa zen, "Errotazar" Hezkuntza Bereziko Zentroa hain zuzen ere. Zentrorra desgaitasun larria zuten ikasleak joaten ziren, batez ere desgaitasuna psikikoa zutenak. Errotazar Zentroko sustatzaileak Miguel Urmeneta Iruñeko alkatea eta Irakasle-Laneko Eskola Normaleko zuzendari zen José M^a Ruiz de Ojeda izan ziren. Iruñeko Udal Kutzak ordaindu zuen kopuru handiena. Zentroak 10 unitate zituen, 6 Errotazarren eta lau "La Carbonilla" udal eskoletan. Irudian Errotazarreko eskolak ikus ditzakegu 1950ean. Egun, eraikin horretan Udaleko Eranste Sozio-Laboraleko Taldea dago. Julio Cíaren argazkia. Iruña. A.M.P.



Iruñeko Sanduzelaiko Hondartzako udal eskolak 1936an hasi ziren eraikitzen. Lanak 1938an bukatu ziren baina 6 urtez itxaron behar izan zuten eskolak inauguratzeko, 1944ko otsailaren 22ra arte, hain zuzen ere. Sanduzelaiko oraingo eskola publikoa 1972an abiarazi zen. Egun, eraikin hori Tasubinsa enpresako lan-zentro gisa erabiltzen da. A.M.P.





Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, Taxoaren (Aranguren), 1847an, lehen hizkien eskola zegoen, bi sexuetako 20 ikaslerekin eta 1.000 gari-erreguko hornidurarekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, oraindik eskola osatugabea zegoen herrian, bi sexuetako 22 ikaslerekin. Argazkian Taxoareko (Aranguren) Eskola Nazionala ikus dezakegu. 1950.



Madozen arabera, 1847an Olatz-Olatz Txipian (Eguesibar) bi sexuetako 26-30 ikasle arteko lehen hizkien eskola zegoen, 30 gari-anegarekin hornituta. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, Olatzek ez zuen eskolarik eta herriko ikasleak Uharteko Udal Eskoletara joaten ziren ikastera. Argazkian Olatzeko (Uharteko) eskola mistoa ikus dezakegu. 1957.

Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an, Murietan lehen hizkien eskola zegoen, bi sexuetako 20 ikasleekin eta 72 gari erreguren hornidurarekin. 1908an, eskolan 59 ikasle zeuden eta maisu bakarra. 1920tik aurrera, Murietak herriko bi eraikin desberdinetan zeuden bi eskola zituen: mutilena, egungo "La Cambra" eraikin eraberrituan eta neskena, parkearen eta errepidearen artean zegoen etxetzarran (orain eskorta da). Irudian ikus dezakegun eskola-eraikin berria 1953ko maiatzaren 31n inauguratu zen. Ekitaldian, Valero gobernadore zibila, Larrainzar foru diputatua, Ajona alkatea, Félix Albizu parrokoa eta M^{re} Ángeles Barriola zentroko ikuskaria egon ziren. 1970ean, eskola mistoko unitate bakarra zuen, 7 neskarekin eta 13 mutilekin. Patxi Cervantesek utzitako argazkia.



Otsagabiako eskola zaharrak 1929ko irailaren 9an inauguratu ziren eta laster txiki eta zaharkituta geratu ziren. Udalak eskola berriak eraikitzea erabaki zuen, eta 1959ko irailaren 9an ireki zituzten eskola berri horiek. Eskola horien proiektuak Ramón Urmenetak diseinatu zituen eta 800.000 pezetako kostua izan zuten. Eraikinak bi eskola-unitate eta maisuarentzako etxebizitza barne hartzen zituen. Inaugurazioan udaleko eta probintziako agintariak egon ziren. Bilboko gotzaina zen Pablo Gulpide Beodek bedeinkatu zituen eskolak. Udalak udalerriko adopziozko seme izendatu zuen. Egun Interpretazio Zentroa eta Turismo Bulegoa dauden bertan. Eskolak itxi zirenean, ikasleak Otsagabiako Eskualdeko Eskolara joan ziren, Zaraitzuko herrietan itxitako eskoletako beste ikasleak bezala. Otsagabiako udalak utzitako argazkia.

Kasu berezia da Zuñigako, Genevillako, Cabreroko eta Marañoongo eskola bateratuena. Herri horietako eskolak itxi zirenean, ikasleek Araban zegoen Santikurutze Kanpezuko eskola-kontzentrazioa joan behar izan zuten.



Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Zuñigak eskola osatugabea zuen, 6 eta 12 urte arteko bi sexueta 53 ikaslerekin. Eskola-multzo berria Primo de Riveraren diktaduran eraikitzen hasi zen baina Bigarren Errepublika iristean, 1931n, inauguratu zuten. Eraikinak bi ikasgela zituen: ezkerrean neskena, Gregoria Reyes maistrarekin, eta mutilean eskuinaldean, Cirilo Collado maisuarekin. Irudian Zuñigako eskolako jatorrizko eraikuntza-proiektuaren marrazkia ikus dezakegu, Arturo Mateos arkitektoak 1938ko urriaren 27an egin zuena. Lanak 1931ko martxoaren 15ean hasi ziren. Udalbatzak onartutako aurrekontua 25.071 pezetakoa zen. Zuñigako "Arkijas" Elkarteak utzitako argazkia.



Zuñigako eskola nazionala itxi zenean, ikasleek Arabako Santikurutze Kanpezuko eskola-kontzentrazioan ikasten jarraitu zuten. Zuñigako eskoletan irakasten aritu ziren azken maisu-maistrak Javier Ocariz eta Rosario Barandalla izan ziren. Egun, eraikin horretan taberna bat dago. Argazkian Zuñigako eskola nazionala ikus dezakegu. 1957.

Beste kasu berezi bat Berbintzanako eta Miranda Argako herriena da. 1972-73 ikasturtean biek eskola kontzentrazio txikia osatu zuten, autobus garraioarekin. Berbintzanako 2., 6., 7. eta 8. mailako ikasleak Mirandara joaten ziren. Aldiz, Miranda Argako 3., 4. eta 5. mailako ikasleak Berbintzanara joaten ziren ikastera. Egoera hori ez zuen Hezkuntzako eta Zientzietako Ministerioak onartu, baina bai Ikuskaritza Probintzialak, eta “Eskola-Moldaketa” gisa izen-datu zuen ¹⁰⁷. Ekimen horrek 5 ikasturtez jarraitu zuen, 1976-77 ikasturtera arte, hain zuzen ere.

Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Berbintzanak 112 ikasle zituen, neskontzako ikasgela bat eta mutilentzako beste bat zituen eraikinean ikasten zutenak. Argazkian 1961eko abuztuaren 17an ireki ziren Eskola Nazionalak eta maisu-maistrentzako etxebizitzak ikus ditzakegu, Berbintzanako udalak utzitako argazkia.



Ignacio Álvarez Muruzábal
Berbintzanako maisua, Natur
Zientzietako irakasgaia irakasten.
1962. Berbintzanako udalak utzitako
argazkia.



107. “Eskola-Moldaketa”. Izen hori Ikuskaritzaren aktetan agertzen da 50ko hamakardatik aurrera. Irakasle kopurua ikasleen matrikulaziora moldatzean eta egokitzean zetzan, ikasle kopurua etengabe jaisten zihoalako, hasieran landa-eremuetan eta geroago hirian.



Pascual Madozen arabera, XIX. mendearen erdialdean, Berak mutilentzako eskola zuen, 80 ikaslerekin, eta neskentzako lau eskola pribatu. XX. mendean zehar, eskolak herriko hainbat eraikinetan sakabanatuta egon ziren: Uxanen, Dornakun, Zalain-Zokon eta Musika Eskolan (Legia kalean) mutilen eskola eta Udaletxean neskena. 1973an eskola-kontzentrazioa hasi zenean, ikasleak "Ricardo Baroja" Eskualdeko Ikastetxe Nazional Mistora joan ziren ikastera. Ikastetxe horrek Bera eta Lesakako auzoetan eta Igantzin, Arantzan eta Etxalarren itxitako eskoletako ikasleak ere hartu zituen. Argazkian Berako udaletxea ikus dezakegu, nesken eskola zegoen tokia. Irakaskuntza pribatua ondorengo hauen esku egon zen: Eskolapioak 1891tik 1943ra; Maristak 1967 arte eta Karitateen Alabak, 150 urte baino gehiago pasa zituztenak Beran. Rosa Errandoneak utzitako argazkia.



Berako Eskola Nazionaleko neskak, Gloria maistrarekin batera. Eskola Udaletxean zegoen. 1940. Rosa Errandoneak utzitako argazkia.



1960an, Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak Uxaneko (Bera) Landa-Eskola mistoa ofizialki onartu zuen. Irudian Uxaneko ikasleak ikus ditzakegu, M^a Jesús Urdaniz maistrarekin. Berako Liburutegiak utzitako argazkia.



Irudian, Dornakuko (Bera) haur eskola pribatua ikus dezakegu. Eskola horretara bi sexuetako ikasleak joaten ziren eta kapera kapilaua zen maisua. Argazkian eskola-eraikina eta horretara atxikita dagoen kapera ikus dezakegu. Bi eraikinak 1925ean eraiki ziren Fernanda Errandonearen diru-laguntzarekin.

Bereziki aipatu behar dira eskola eraikinetan ez zeuden eskola-kontzentrazioak, esaterako: Lekunberriko Barriola Hotela, Zudaireko Udalekuak edo Lizarrako Santo Domingoko komentua.



1847an, Madozen arabera, Lekunberri lehen hizkien bi eskola zeuden. Mutilena, 30 ikaslerekin, eta neskena, 20 ikaslerekin. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, hiribilduan 80 ikasle zeuden, bi eskolatan banatuta. Eskolak "Ostatuzarra" izeneko eraikinean zeuden, kontzeju eta kartzela gisa ere erabiltzen zirenak. Argazkian Manuela Iriarte maistra bere ikasleekin ikus dezakegu. Larraungo Kultura Etxeak utzitako argazkia.



Irudian 1950ean eraiki ziren Lekunberriko Eskola Nazional zaharrak ikus ditzakegu. 1974an "Larraun" izeneko eskola-kontzentrazioa sortu zenean, ikasleak Barriola Hotelera joan ziren, eskola-eraikin gisa egokitu zutena. Larraunen itxitako eskoletako ikasleak ere bertara joaten ziren. Egun, eskola-eraikin berriak Ibarberri Ikastetxe Publikoa izena du.

Madozen arabera, 1847an Baraibarren (Larraun) ez zegoen lehen hizkien eskolarik. xx. mende hasieran hasi zen Eskola Osatugabea edo Mistoa funtzionatzen, bi sexuetakoko 49 ikaslerekin. "Sagrado Corazón" Ikastetxea 1953an ireki zenean, Eskola Nazionala itxi zen. Ondoren, Lourdeseko Andramariko Karitatearen Alaben (frantsesak) esku egon zen ikastetxea. Ikastetxe hori 1965ean itxi zenean, ikasleak Lekunberriko eskola-kontzentrazioara joan ziren. Argazkian, Baraibarreko eskola mistoko ikasleak bere maistrarekin ikus ditzakegu. 1929.



1730an, jatorriz Aldatzekoa (Larraun) zen Martín Iribarren merkataria mexikarra, diru-kopuru garrantzitsua eman zuen mutilen irakaskuntzaz arduratuko zen maisuaren etxebizitza ordaintzeko. Iribarrenen helburu berari jarriki, Juan Martín Juanmartiñerak beharrezko funtsak eman zituen bere jaioterrian eskola bat eraiki zezaten. Eskola-eraikina elizaren ondoan zegoen, Juanmartiñenaren jabetzakoa zen Barbanea etxeko lursailean. Eskolak neskentzako eta mutilentzako ikasgelak zituen, baita maisu eta maistren etxebizitzetarako leku nahikoa ere. Eskola 1829ko irailaren 11n ireki zen. Madozen arabera, 1847an, Aldatzen eskola osatugabea zegoen, Aldatz, Etxarri eta Arruiztetik zetozen bi sexuetakoko 40 ikaslerekin. 1908an, eskola ratioa 53 ikaslara igo zen, baina 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorrekin, eskola itxi zen eta ikasleak Lekunberriko Eskualdeko Eskolara joan ziren ikastera. Argazkian Aldazko eskola zaharrak eta maisu-maistren etxeak agerori dira. Puri Mugirot utzitako argazkia.



Alliko eta Albiasuko sasoiko eskolak 1937an sortu zituen Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiak. 70ko hamarkadaren hasieran itxi zituzten, eta ikasleak Lekunberriko eskola-kontzentrazioira joan ziren.



Alliko (Larraun) sasoiko eskolako maistra, Juanita Arangoa andrea bere ikasleekin. Arretxea etxeak utzitako argazkia.



Albiasuko sasoiko eskola. Irudian Oquiñeta, Argaña eta Arguiñarena familiak ikus ditzakegu euren seme-alabekin eta maistrarekin. Elena Michausek utzitako argazkia.

José María Jimeno Jurío, Noingo maisua, bere ikasleekin batera, Kultura Etxe ohian zegoen eskola-eraikinean (1945). José María historialari, etnografo eta maisu ospetsua izan zen. Bere lan bikainaren aitortpen gisa, sari ugari jaso zituen, aipagarrienak Sabino Arana Fundazioarena edo Nafarroako Gobernuak, 2015ean, hilondoan emandako Urrezko Domina. Roldán Jimeno Aranguren bere semeak utzitako argazkia.



Noingo eskola ohia (Kultur Etxea zaharra) txiki geratu zen herriko ikasleak barne hartzeko eta udalak eskola-multzo berria eraikitzea erabaki zuen. Eskola Nazional berriak 1953ko irailaren 29an ireki ziren. Eraikinak bi ikasgela eta bi etxebizitza zituen. Egungo "San Miguel" Eskualdeko Eskola eraiki zenean, ikasleak zentro horretara eraman zituzten, Elortzibarreko, Ibargoitiko eta Untzitiko ikasleak ere hartu zituena. Argazkian 1953an eraiki zen eskola-eraikina ikus dezakegu. Egun, Musika Eskola da.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Elortzen lehen hizkien eskola zegoen, bi sexueta 17 ikaslerekin eta 800 gari erregurekin hornituta. Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, oraindik ere 29 ikasle zituen eskola osatugabea zegoen herrian. Argazkian Elortzeko (Elortzibar) eskola ohia ikus dezakegu, 1934an inauguratu zena eta Dorotea Arbe maistra titulartzat izan zuena.





Mendabian, 1847an, lehen hizkien bi eskola zituen: mutilena, 120 ikaslerekin, eta neskena, 117 ikaslerekin. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 542 ikaslara iritsi ziren, lau eskola-unitatetan banatuta: mutilentzako bi eta neskentzako beste bi. Frankismoan, Mendabiako “Virgen de Legarda” Eskola-Multzoa eraiki zen eta 1961-62 ikasturtean martxan jarri zen. Izena herriko zaindariaren omenez jarri zioten eta zentrora doan kaleak Crispiniano Echeverría izan du, hil arte herrian egon zen maisu txalogarriaren omenez. Irakaskuntza pribatua “Nuestra Señora de los Dolores” Ikastetxearen esku zegoen. Mendabiako HI-k utzitako argazkia.



Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Uharte Arakilen (Sakana) lehen hizkien eskola zegoen, bi sexuetako 60 ikaslerekin. Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, ikasleak 134 ziren eta bi eskola-unitatetan banatu ziren. Irudian ikus ditzakegu Uharte Arakileko Eskola Nazionalak 1955eko irailaren 11n ireki ziren. 1970ean, herrian 3 eskola-unitate zeuden: 2 publiko eta pribatu bat. Eskola horietan 35 neskek eta 44 mutilek ikasten zuten. Egun, “San Miguel” Ikastetxe Publikoak Lakuntzako, Arbizuko, Arruazuko eta Irañetako ikasleak ere jasotzen ditu.



Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Altsasun 350 ikasle zeuden, herriko 8 eskoletan banatuta: lau eskola publiko eta lau ikastetxe pribatu eta erlijioso. “Domingo Lumbier” eskola-multzoa 1945ean inauguratu zen Altsasu. 1998an itxi ziren eta 2000. urtean eraitsi. 1960an, eskola horietako ikasleak Intxostiako Zabalgunean zegoen eskola-multzora bidali zituzten. Hala, 1960an Altsasun bi eskola-multzo zeuden: mutilentzako bat eta neskentzako beste bat. Hastapenetako eraikin horrek aldaketak jasan zituen, bai instalazioetan baita izendapenean ere. Hasieran “Domingo Lumbier” izena jaso zuen, ondoren “Navarro Villoslada” eta, azkenik, “Zelandi Ikastetxe Publikoa”. Eskaintza pribatua “Nuestra Señora de la Compasión” Ikastetxearen esku zegoen, haur eskolak eta nesken heziketaz arduratzen zena (1951-1999), eta baita Aita Kaputxinoen esku ere. Bihotz Santuen Misiolariek seminarioko mutilek arduratzen ziren batez ere.

Iruñeko Huarte eskolako ikasleak.
Egun eskola hori zegoen lekuan
gaztetxea dago. Eskola Nabarrera
plazan zegoen. Mutilentzako Huarte
eskola Donibane plazan zegoen.
Joaquín Ahechuk utzitako argazkia.



Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, Uhartean (Iruña) bi eskola zeuden: mutilena, 80 ikaslerekin, eta neskena, 40 ikaslerekin. Irudian ikus ditzakegun Uharteko Eskola Nazional ohiak 1946ko irailaren 1ean ireki ziren. Eskola-multzoa beheko solairuan zegoen. 4 ikasgela zituen, neskentzako bi eta mutilentzako beste bi, eta maisu eta maistrentzako 4 etxebizitza.



Uharteko maisu-maistren etxea, 1946.



1967an Uharteko (Iruña) “Virgen Blanca” Eskola-Multzoa handitu zuten. Beheko solairuaren gainean, beste bi solairu eraiki ziren. 70ko hamakardan, herrian 10 eskola-unitate publiko eta 2 pribatu erlijioso zeuden. Guztira, 152 neskek eta 170 mutilek ikasten zuten horietan. Garrai horretan sortu ziren Garraio Zerbitzuak eta Eskolako Jantokia Esteribarren, Lizoainen, Arriasgoitin eta Eguesen itxitako eskoletako ikasleentzat. Joaquín Ahechuk utzitako argazkia.



Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Lakuntzan (Sakana) lehen hizkien eskola zegoen, bi sexuetako 51 ikaslerekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an herrian 121 ikasle eta bi eskola-unitate zeuden. Argazkian Lakuntzako Eskola Nazionalak ikus ditzakegu (1952). Jatorrizko eraikin horrek ez zuen asko iraun eta 1958an eraberritu eta lehenengo solairu bat eraiki zen. Ordutik aurrera, eskolak “Luis Fuentes” Ikastetxe Publikoak daukan itxura izan du. 1970-71 ikasturtean, eskola-multzoak lau eskola-unitate zituen, 74 neska eta 54 mutilekin.

Lergan, 1847an, lehen hizkien bi eskola zeuden: mutilena, 120 ikaslerekin, eta neskena, 117 ikaslerekin. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 542 ikasle zeuden, lau eskola-unitatetan banatuta: mutilentzako bi eta neskentzako beste bi. 1970-71 ikasturtean 20 neska eta 15 mutil hartzen zituzten bi eskola unitate zeuden. Argazkian Lergako Eskola Bateratuko ikasleak ikus ditzakegu Jaime eta Julia maisu eta maistrarekin. 1969. Jaime Rolíndez Fonollosak utzitako argazkia.



Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Fontellasen udal eskola osatugabe bat zegoen, 36 ikaslerekin, eta haur eskola pribatu bat. 1970ean, herrian oraindik ere eskola mistoa zegoen. Egun, eraikina jarduera kulturalak egiteko erabiltzen da. 1998an, zentroa itxi zuten eta ikasleak "Virgen del Rosario" Ikastetxe Publikora joan ziren. Argazkian, 1962ko urriaren 2an ireki zuten eskola-eraikin ohia ikus dezakegu. Marcelo Guibert arkitektoak diseinatutako proiektuaren arabera, eraikinean ikasgela bat zegoen beheko solairuan eta maistrarentzako etxebizitza lehenengo solairuan. 715.000 pezetako kostua izan zuten lanek. Maribel Agorretak utzitako argazkia.





Madozen arabera, 1847an, Olletan lehen hizkien eskola zegoen bi sexuetakoko 44 ikaslerekin eta 1.000 erregulurrekin eta 50 gari erregurekin hornituta. 1908an, eskolan bi sexuetakoko 37 zeuden. Argazkian 1967an itxitako Olletako Eskola Mistoa ikus dezakegu.

Gerran zehar eta frankismoaren lehenengo aldian, maisua zuten eskola mistoak maistrei esleitzen zitzaizkien maisu kopuru txikia zela eta. Egueseko Eskola Mistoko ikasgela. Maistra bi sexuetakoko ikasleekin ikus dezakegu. Eskola 1973an itxi zuten.



XIX. mendearen erdialdean, Etxalarrek eskola osatugabea edo mistoa zuen, 58 mutilekin eta 39 neskekin. 1908an 170 ikasle izatera iritsi ziren, horregatik unitate berria eraiki behar izan zuten. Orduetik aurrera, mutilek ikasgela bat zuten eta neskek beste bat. Etxalarreko eskola ohien eraikina Leandro Aramaza filantropoak herriari eman zion. Irudian 4ko. hamarkada hasierako Etxalarreko ikasleak ikus ditzakegu. Edurne Elizagoien Ariztegi utzitako argazkia.

Nafarroako eskola batzuetan eman zen beste berezitasun bat Eskola-Patronatuaren erregimena izan zen. Berezitasuna zen eskola sustatzeaz arduratzen zen Eskolako Lehen Mailako Kontseilua zutela. Gainera, kontseilu horrek Administrazioari zuzendaritzaren eta irakasleen izendapenak ere proposatzen zizkion.

Patronatuaren erregimena zuten eskolak eta ikastetxeak ondorengo hauek izan ziren: Lizarrako “Hijas de María Inmaculada”, “Nuestra Señora del Puy” eta “Colegio San Benito” Ikastetxeak; Iruñeko “Ave María” eskolak, “El Pilar” Ikastetxea, “Hijas de Jesús” Ikastetxea, “Santa María la Real” Egoitza-Eskola, “Santa María Goretti” Ikastetxea, “Santa Teresa” Haur-Eskola, “Esclavas del Sagrado Corazón” Eskolak, Seminario Metropolitano Prestakuntzarako Eskola eta Errotazarreko Hezkuntza Bereziko eskola; Iberon, Hezkuntza Bereziko Isterria Ikastetxea eta Tuteran, “San Francisco Javier” (Lourdes) eta “Santa Ana” Eskola Babestuak.

Argazkian, Tuterako “Santa Ana” Eskola Babestuak ikus ditzakegu, Eskola-Patronatuaren erregimena zutenak eta erdi barnetegia zirenak. Mutilentzako hiru atal eta zuzendari bat zuten. Eskola horiek Francisco Salinas Quijada Udaleko zinegotzi ospetsua zen kudeaketari esker eraiki ziren, eskolatu gabeko ikasleak eta jarrera arazoak zituzten ikasleak jasotzeko helburuarekin.

1944an ireki ziren, Ospitaleko baratzan. 1949an Hiltegi zaharrera (Iruñeko errepidea) mugitu ziren. 1974an itxi zituzten.



Tuterako “Santa Ana” Eskola Babestuetako ikasgela.

1954-55 ikasturtean, Tuterako udalak nekazaritza esperimenezko eremua sortzeko lursailak eman zituen. Gainera, erlauntzak eta ezta ateratzeko beharrezko materialak ere eman zizkien.

Joaquín Aramburu, Eskola Pedagogikoetako maisua, proiektu horren aitzindaria izan zen.





Arestian aipatu dugun bezala, sarien banaketa oso ohikoa zen. Argazkian, Tuterako "Santa Ana" Babestutako Eskolen sari-banaketa ikus dezakegu (1956). Luis María Marín Royoren bildumako argazkia.



Pascual Madozen arabera, XIX. mendearen erdialdean, Vianan mutilentzako bi eskola zeuden, 6.730 erregu-lurrekin hornituta, eta nesken beste bi, 588 erregu-lurrekin. Haurrek "La Gradilla" mojen eskolan ikasten zuten. Lehen jaunartzea egin ostean, mutilak Serapio Urria kalean zegoen mutilen eskolara joaten ziren eta neskek "mojengana". XX. mendearen erdialdean, mutilen eraikinaren egoera tamalgarria zela eta, Vianako Udalak, Foru Aldundiaren laguntzarekin, eskola berriak eraiki zituen. Eskola-multzo berria 1961eko apirilaren 2an ireki zen. Udalak "Ricardo Campano" izena jarri zion, herriko maisu ohiak egindako lan garrantzitsuaren omenez. Eraikinak hiru nabe eta maisuentzako etxebizitzak zituen. Zentro horrek ez zuen zorte handirik izan bere egoera tamalgarria zela eta. Horregatik, 1969an Ikuskaritzari jakinarazi zitzaion eraikina arriskuan zegoela. Miguel Zapater Cornejo ikuskariak Zentroari eta udalari jakinarazi zion Hezkuntzako Ministerioak eskualdeko eskola eraikitzea aurreikusi zuela. Argazkian, Vianako eskola zaharrak ikus ditzakegu (1957). Karitatearen Alabek (1858-2008) Vianako hezkuntza-eskaintzan osatzen zuten. 150 urtez egon ziren herrian irakasten eta haur eskolaz eta 14 urte arteko nesken irakaskuntzaz arduratu ziren. Félix Cariñanosek utzitako argazkia.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Sesman lehen hezkuntzako mutilen eskola zegoen, 65 ikaslerekin. Maisuak urteko 3.200 errege-lur jasotzen zituen. Nesken eskolara 60 ikasle joaten ziren eta maistrak 1.100 erregeal jasotzen zituen. 1908an, eskolan bi sexuetako 200 ikasle zeuden herriko bi eskoletan banatuta. XX. mendearen zati handi batean zehar, mutilen eskolak ospitale zaharrean egon ziren, egun dauden lekuaren ondoan. Ondoren, horietan maisuentzako etxebizitzak eraiki zituzten. Sesmako Eskola Nazionalak 1963ko maiatzaren 15ean inauguratu zituzten. 6 eskola-unitate eta maisu-maistrentzako sei etxebizitza zituzten. Irudian, Sesmako mutilen eskolako ikasleak ikus ditzakegu, Alfredo maisuarekin (1960). Sesmako Virgen de Nieves Ikastetxe Publikoko Isidoro Muñoz zuzendariak utzitako argazkia.



Sesmako nesken eskola udaletxearen etxabeetan zegoen (1960). 1963an “Virgen de Nieves” eskola-multzoz berrira joan ziren. Sesmako Virgen de Nieves Ikastetxe Publikoko Isidoro Muñoz zuzendariak utzitako argazkia.

Eskolak ixtean, askotan, banakakoei saldu behar izan zitzaizkien eraikinak. Askotan, zoritxarrez, utzikeria eta hondatze denboraldi baten ostean, betiko desagertu ziren. Kasu oso gutxitan, itxiera aldi baterako baino ez zen izan.

Hala ere, itxitako zenbait eskola udalek berriro ireki dituzte gizarte eragileek erabil ditzaten. Ondorengo herri hauen kasua da: Berroeta (Baztan), Allo, Sorauren, Berriogoiti, Fontellas, Elortz, Egues, Arteaga, Zuñiga, Untzue, Lerga, Eslaba...



Alloko eskola zaharrak, udalak kultur jardueretarako utziak. Montse Aedok utzitako argazkia.



Astizko (Larraun) etxe-eskola zaharra. Gaur egun turistentzako aterpetxea da. Aterpetxeak utzitako argazkia.



Lizarragako (Izagaondoa) eskola mistoa, 1955. Barneko eta kanpoko argazkia. Egun, etxebizitza partikularra da.



Bi irudi hauetan Artariaingo (Orbaibar) eskola, maistraren etxea eta ikasgela ikus ditzakegu. Egun, maistraren etxea apartamentu turistikoa gisa erabiltzen da eta eskola etxebizitza partikularra da. 1964an eskola itxi zen eta ikasleak Garinoinera eta, ondoren, Tafallara bidali zituzten.



1908an, Badostainen eskola osatugabea zegoen, 6 eta 12 urteko arteko bi sexueta 66 ikaslerekin, Sarrigurenetik eta Mutiloatik etortzen ziren ikasleak barne. 1953ko apirilaren 12an Badostaineko Eskola Nazionalak inauguratu ziren. Eraikitze-lanetarako kopuruaren %50a eman zuen Estatuak, Aldundiak %25a eta gainerakoa kontzejukoak. 1953ko maisu eta maistra titullarrak Urbán Zudaire eta María Soledad Sanz izan ziren. Inaugurazioan Kontzejuko eta Nafarroako indar biziak egon ziren. Rosario Osácar eta Modesta Elíak irakurritako poesiak txalotu zituzten eta Gobernadore Zibilak saritu zituen. 1969an nesken eskola itxi zen eta eskola misto bilakatu zen. Egun, eskola itxita dago eta eraikina Kontzejuko erabilera anitzeko areto gisa erabiltzen da.



Soraurenko (Ezkabarte) eskola, XX. mende hasieran eraikitakoa. Aurrerago, udalak eskola-eraikin berria eta maisuarentzako etxebizitza eraiki zituen. Eskola-eraikin berriaren inaugurazioa 1960ko urriaren 2an izan zen. Egun, "La Posada" jatetxea da.



Berroetako (Baztan) eskola mistoa eta maisuaren etxebizitza. 1930eko maiatzaren 12an inauguratu ziren. Egun, erromesen aterpea da.



XX. mendean ia osoan zehar, Napariko (Urraulgoiti) ikasleak Murelo-Longidako eskolara joaten ziren. 1908an, Naporin eskola osatugabea zegoen bi sexuetako 27 ikaslerekin, Orradre eta Iso herrietako ikasleak barne. Eskola 60ko hamarkadan itxi zen. Azken maistra titularra Josefina Ongai Huarte izan zen. Irudian Eskola eta Napariko maistren etxean ikus ditzakegu, 2005. Faustino Calderónen bildumako argazkia.

XX. mendearen hasieran, Berriogoitin ez zegoen Lehen Hezkuntzako eskolarik eta herriko ikasleak Berriobeitiko eskola publikora joaten ziren, Aitzoain, Lotza eta Ballariaingo ikasleak bezala. Berriogoitiko eskola Errepublikara garaian eraiki zen eta 70ko hamarkada erdialdean itxi. Egun, eraikinaren zati bat etxebizitza partikularra da eta bestea Kontzejuko egoitza.



Azagrako "Hermanas de la Consolación" Ikastetxe erlijiosoa 46 urtez irekita egon zen (1914-1960). 60ko hamarkadatik aurrera, ikastetxe erlijioso horretako ikasleak "San Isidro" Eskola Nazionaletara bidali zituzten. Azagrako udalak utzitako argazkia.



Azagrako udal eskolak 1786koak dira. XX. mendearen hasieran, Azagran bi eskola unitate zeuden, biak udaletxean; neskontzako bat, Dolores Lacart maisuaren esku, eta mutilentzako beste bat, Francisco Arbeloaren esku. 1929ko urtarrilaren 23an La Barcako etorbidean zegoen eskola-multzoa eraiki zen. 1952an San Isidroko Eskola Nazionalak eraiki ziren eta higiene eta osasun baldintza txarrengatik itxita zegoen La Barca Etorbideko Eskola-Multzoko ikasleak hartu zituzten bertan. "Francisco Arbeloa" Eskola-Multzo berria 1980an ireki zuten.



Zizurreko eskola batez ere eskola mistoa edo osatugabea izan zen, 1860-1892 aldian izan ezik. Garai horretan bi udal eskola egon ziren, mutilena eta neskena. 1892an eskola berriro misto bilakatu zen, 1957ra arte, bi ikasgela zituen eskola berria eraiki zen arte. Argazkian ikus ditzakegun Zizurreko eskola zaharrak, Erretiratuen Elkartea gisa berrerabili ziren. 1970an sakabanatuta eta etxabeetan zeuden lau-eskola unitate zituen Zizurrek. Goiko mailetakoa bi unitate Barañainera eraman zituzten eta bertan egon ziren 1979ra arte, “Camino de Santiago” eskualdeko eskola abiarazi zutenean. Zentroak ondorengo herri hauetatik zetozen ikasleak ere hartu zituen: Zizur Txikia, Sagues, Gendulain, Undio, Paternain, Astrain, Zabaltza, Larraia, Zarikiegi, Subitza, Gazolatz... Irudian, Zizurreko eskola zaharrak ikus ditzakegu.



Teresa Onieva maistra bere omenaldiaren egunean, 1957an Zizurreko maistra 1920tik 1957ra izan zen. Bere lanarengatik aintzatetsia eta estimatua, udalak herriko alaba kutun izendatu zuen 1946an, eta 1957an nesken eskolari “Teresa Onieva” izena jarri zioten. Garai horretako beste maisu eta maistra batzuk Jesús Bergasa, Alberto San Martín eta Teresa Zabalza izan ziren.

Espartza Galarko ikasleak, 1945.
Sole Iriarte Nuinek utzitako
argazkia.



XIX. mendearen erdialdean, Espartza Galarren eskola mistoa zegoen, 28 mutilekin eta 14 neskekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an bi sexuetak 50 ikasle zeuden, Arlegiko ikasleak barne. 1930ean lehenengo eskola-eraikina eraiki zen. Ondoren, 1960an, eskola berriak eta maisuarentzako etxebizitza inauguratu ziren. Bi eraikinen kostua 733.000 pezetakoa izan zen. 1968an bi eskola-unitate zituen eskola bateratua zen. 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorraren ostean, eskola itxi zen eta ikasleak Zizurreko Ikastetxe Publikora joan ziren ikastera. Egun, bi eskolak eraitsita daude. Argazkian Espartzako lehenengo eskola-eraikina ikus dezakegu, 1930ean.



Madozen arabera 1845ean Garesen bi eskola zeuden. Mutilen eskolan 200 ikaslek ikasten zuten osotara, eta maisu bat eta laguntzaile zeuden. Nesken eskolan 150 ikaslek ikasten zuten eta maistra batekin eta laguntzaile batekin egoten ziren. xx. mendearen hasieran, eta garai historikoaren arabera, Gareseko ikasleen zati batek (haurrak, mutilak eta neskak) "Casa del Vínculo" Udal Eskoletan ikasi zuen. Orokorrean, nesken derrigorrezko hezkuntza eskola horietan eman zen. Egun, eraikin horretan Turismo Bulegoa eta Erakusketa Aretoa daude. Mutilak eskola nazionala edo Julián de Menak sortutako eskoletara joan zitezkeen. Udal eskolak elizaren eraikin zahar batean zeuden, "La Primicia" deituriko eraikinean, Santiago kaleko 5. zenbakian. De Mena Eskolak kale nagusiko eraikin batean zeuden, Errepublika garaia arte agustindarren esku zeudenak. 1964an, udalak San Pedroko Eskola Nazionalak eraikitzen hasi zen, Arga ibaiaren ondoan. 5 eskola-unitate eta maisu-maistrentzako bost etxebizitza zituzten. Eraikina Cándido Ayestaránekin diseinatu zuen eta 1.000.000 pezetako kostua izan zuen. Egun, Erretiratuen Elkartea da. Eraikin horiek guztiak itxi zituzten Gareseko Eskualdeko Ikastetxe Publikoa 1976an ireki zutenean. Edurne Aizcorbek utzitako argazkia.



"Santa Ana" Karitatearen Alabak Garesera iritsi ziren 1912ko urtarrilaren 16an ospitalearen eta haur eskolaren ardura hartzeko. Euren egoitza ospitale ohian zegoen (ikus Gareseko 2. argazkia). Garesen bestelako ordena erlijiosoak ere egon ziren: Aita agustindarrak, kale nagusiko eskolan zeudenak; "Madres Reparadoras del Sagrado Corazón de Jesús, Las francesas" delakoak, Mena Fundazioan zeudenak; Adorazioko mirabeak; "Padres Reparadores, Alemanes" delakoak (1919) eta "Padres Corazonistas" delakoak. Argazkia "Santa Ana" Karitatearen Alaben haur eskolakoa da, 1920. Edurne Aizcorbek utzitako argazkia.

1814an, Villatuertan, Compaired herriko doktorearen informazioaren arabera, bi sexuentzako eskolak udalaren eraikin ohian zeuden. 1893an uholde batek udal eraikina suntsitu zuen. 1925ean Udaletxea berreraiki zen eta aurreko eskolek baino baldintza higieniko eta pedagogiko hobek zituzten eskolak eraiki ziren. Ikasleak 1990era arte egon ziren bertan, "San Veremundo" Ikastetxe Publikoa eraiki zen arte. Haurren hezkuntzarako eraikina, udalaren ahaleginak ahalegin, 1946ra arte ez zen eraiki. Eskola berria udaletxeko etxabeen jarri zuten. Irudian herriko neskek eskola zaharren eraikinaren ondoan ikus ditzakegu. Luis Mañeru Sanz de Galdeanok utzitako argazkia.



XX. mendearen hasieran, Mendigorriako eskolak udaletxearen ondoko eraikinean zeuden: mutilak solairu batean eta neskek beste batean. 1908an 117 ikasle zeuden, bi ikasgelatan banatuta. 1964an Udalak eskola-erakin berria eraikitzea erabaki zuen, lau eskola-unitaterekin eta irakasleentzako lau etxebizitzarekin. Egun, Liburutegia dago bertan. Garai horretan 125 ikasle egon ziren eskoletan. Bi maisu zeuden, Luis Aldave eta Pedro Mari Amóstegui, eta bi maistra, Josefina Beramendi eta M^a Luisa Erdozáin. Argazkian Mendigorriako gazte talde bat ikus dezakegu, lehenengo eskolen ondoan. Alfredo Murok utzitako argazkia.





XIX. mendearen erdialdean, Azuelon (Lizarralde) lehen hizkien eskola zegoen, bi sexuetako 35 ikaslerekin. Maisuak urtero 80 gari erregu jasotzen zituen. XX. mendearen lehenengo herenean, udalak hiru solairutako eraikin batean eskola prestatu zuen, udaletxea, aroztogia eta ziega zeuden eraikin berean, hain zuzen ere. Ezkerreko argazkian lehenengo eskola ikus dezakegu, erdikoan, sarrerako atean zegoen portzelanazko Jesusen Bihotza eta hirugarrenean lehenengo eraikin eraberritua. Egun, kultura etxea, areto-taberna, liburutegia eta informatika zentroa daude bertan. Azueloko "Santa Engracia" Elkarteko Bildumako argazkia.



Azueloko eskola nazionala, 1959an eraikitakoa. Azueloko "Santa Engracia" Elkarteko Bilduma. 2015.

Azueloko eskolako baldintza higienikoak tamalgarriak ziren. Pablo Antoñana idazleak bere garaian esan zuen "eskolako paretak zarakartsuta zeudela eta barrualdea baldintza negargarrian zegoela". Hori dela eta, Jaime Díaz de Cerio Ruiz alkateak, 1959an, eskola berria eraikitzea erabaki zuen Eskola-Eraikinen Plan Nazionalaren laguntzarekin. Eraikinean horren berri ematen duen plaka oraindik ere ikus daiteke. Egun, Udaletxea da. Eskola berria 1960ko azaroaren 2an inauguratu zen. Aurreikusitako lanek 348.145 pezetakoa kostua izan behar zuten, baina eraikina amaitzean 400.000 pezetara igo zen. Maistra titularra Francisca Ruiz Díaz de Cerio zen. 1976an eskola itxi zen: eskolako 20 ikasleak eta Bienvenida Lacalle Zuñiga maistra Los Arcoseko "Santa María" Eskualdeko Ikastetxera joan ziren. Azueloko eskolako ikasgela. 1940.




Francisca Ruiz Díaz de Cerio maistra bere ikasleekin, 1960.
"Santa Engracia" Elkartek utzitako argazkiak.




Bienvenida Lacalle Zúñiga maistra bere ikasleekin, 1976.
"Santa Engracia" Elkartek utzitako argazkiak.



Madozen arabera, 1845ean Oteitzan bi eskola zeuden, eta 20 ikasle bakoitzean. 1908an, bi sexuetako 115 ikasle zeuden. Irudian Oteitzako azken Eskola Nazionalak ikus ditzakegu, 1945eko irailaren 29an inauguratu zirenak eta hamarkada batzuk beranduago itxi zituztenak ikasleak "El Salvador" HLHIP-ra bidali zituztenean. Egun, eskuinean dagoen eskola, neskena alegia, liburutegia eta ludoteka da. Ezkerreko eskola, mutilean, egun Correoseko bulegoa eta erabilera anitzeko gelak jasotzen ditu. Irakaskuntza pribatua, hasieran, Mariaren Zerbitzarien esku egon zen eta, ondoren, Errukiaren Agurgarrien esku. Bi erlijio-ordenek "Nuestra Señora" Eskola-Ospitaleko arduradunak izan ziren. José María remírez Urdiainek utzitako argazkia



Pascual Madozi esker, badakigu XIX. mendean Artaxoan bi eskola zeudela: mutilentzako bat eta neskontzako beste bat. 1888an lehenengo udal eskolak eraiki ziren, “Corralizas” Batzordeak egindako kudeaketei esker. 1908an lau ikasgelatan banatutako 309 ikasle zeuden: neskontzako bi eta mutilentzako beste bi. 1925ean, Artaxoan zeuden eskolatze arazoei aurre egiteko, udalak bigarren solairu bat egin zuen udal eskoletan. 1965eko Eskola-Eraikinen Planaren bidez, eskola-multzo berria eraiki zen, 4 ikasgela berrirekin eta maisu eta maistrentzako lau etxebizitzarekin. Zentro hori bota eta lursailak banako bati saldu zizkion udalak. 1981ean egungo “Doña Urraca” Ikastetxe Publikoa eraiki zen eta herriko ikasle guztiek ikasten dute bertan. Lehenengo irudian José María Jimeno Juríok egin zuen Azokaren enparantzako eta Artaxoako udal eskoletako marrazkia da. Bigarren irudia 1965ean eraikitako eskola-multzoa da¹⁰⁸. Bigarren argazkia Jerusalén Bañalesek utzitakoa da.



1863an Artaxoara Karitatearen Alabak iritsi ziren. 150 urtez egon ziren herrian eta haur hezkuntzaren eta nesken hezkuntzaren ardura hartu zuten, baita eta ospitalekoa ere. 1960an, nesken 2 gela eta haurren 3 zaintzen zituzten. Hala, neskek “Colegio del Ángel” Ikastetxean eta Aguaux etxeko eskoletan ikasi zuten. Mojek bestelako lan sozialak ere egin zituzten, esaterako, Eskola-jantokiaren, Eskola-jantzitegiaren eta Egoitza-etxearen ardura. Ikastetxea eraitsi egin zen, Nafarroako Gobernuak kultura-ondasuneko eraikintzat jo arren. Irudian, Artaxoako “El Ángel” ikastetxe zaharrekoa da. José María Jimeno Juríoren argazkia.

108. JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO, *Merindad de Olite. Historia de Artajona*. VI. liburukia, 374. orr.

Madozen arabera, 1847an Larragan lehen hizkien bi eskola zeuden: mutilena, 18 ikaslerekin eta urtero 3.500 errege-lur jasotzen zituen irakaslearekin, eta neskena, 40 ikaslerekin eta urtero 790 erreal kuarto jasotzen zituen maistrarekin.

1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, herrian 230 ikasle zeuden. Frankismoan zehar, udalak Eskola Nazional berriak eraiki zituen. 1963an, Larragan 130 mutilek ikasten zuten, José Bustingorri, Honorio Chocarro eta Jesús Cáncer maisuen zaintzapean, eta 20 neska, Julia Arbillos maistrarekin. Argazkian Larragako alkatea eta Ramón San Miguel maisua ikasleekin batera ikus ditzakegu. 1923. Larragako "La Fototeca" Elkarte Kulturalak utzitako argazkia.



"San Vicente Paul" Karitatearen Ahizpak 1904ko irailaren 26an iritsi ziren Larragara ospitaleko ardura hartzeko. Errepublikan zehar, "Hijas de la Caridad" ikastetxea itxi zen eta horren ardura "Nuestra Señora de Gracia" elkarteak hartu zuen. 1963an, ikastetxera 250 neska joaten ziren, 6 ikasgelatan banatuta eta 3 eta 7 urteko arteko haurrentzako "haur-ikasgela" bat ere bazegoen betan. Ikastetxeko Ama Nagusia Sor Emilia zen. 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorren ostean, mojek zentroa itxi zuten. Argazkian Larragako "Hijas de la Caridad" ikastetxeko ikasleak ikus ditzakegu. Larragako "La Fototeca" Elkarte Kulturalak utzitako argazkia.





Madozen arabera, 1847an Carcarren lehen hizkien bi eskola zeuden: mutilena, 70 ikaslerekin, eta neskena, 25-30 ikaslerekin. Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Carcarren 250 ikasle zeuden. Eskola publikoak udaletxe zaharreko lokaletan zeuden eta, gainera, Arriba plazan zeuden Rural Kutxako lokaletan nesken eta haurren ikasgela bana zegoen. Eskola zaharren egoera tamalgarria zela eta, udalak berriak eraikitzea erabaki zuen. 1952an eskola berrien proiektua egiten hasi zen eta 1959ko irailaren 26an inauguratu zen. Carcarreko eskola-eraikin berriak 4 eskola-unitate eta irakasleentzako lau etxebizitza zituen. Obrek 700.000 pezatako kostua izan zuten; 500.000 pezeta Batzordeak eman zituen eta gainerakoa udalak. Herriko irakaskuntza pribatua "Santa Casilda" Ikastetxeak eskaintzen zen "Hermanas Terciarias Capuchinas de la Madre del Divino Pastor" delakoen zuzendaritzapean. Herrian 1941etik 1954ra arte egon ziren. 1954an aipaturiko moja horiek herria utzi eta "Religiosas de la Misericordia de Moissac" deituriko moja frantsesak 1966ra arte egon ziren. Argazkian, Carcarreko udaletxe ohia ikus dezakegu, eskola zaharrak zeuden lekua. 1940. Eduardo Mateo Gambartek utzitako argazkia.

Eskola-eraikin eta kontzentrazioen inguruko atal honekin amaitzeko, aipatu behar da eskola-kontzentrazio prozesua 60ko hamarkadan hasi zela eta 1970ko Hezkuntzako Lege Orokorraren ostean, eskualdeko zentro berriak sortu eta eskola bateratu eta mistoak itxi zirela.

Garai horretako beste alderdi baikor bat Aldundiak, Hezkuntzako Ministerioarekin batera, analfabetismoa eta eskola-absentismoarekin bukatzeko egindako ahaleginak izan ziren. Alfabetatze kanpainak eta sasoiko eskolek, zein helduentzako eskolek, aurretik inoiz lortu ez ziren heziketa eta asistentzia mailak lortu zituzten.

Gerraostean gizarteak pairatzen zuen gosearen eta pobreziaren testuinguru horretan, eskola-absentismoa handitzen joan zen. Gurasoek ez zituzten haien seme-alabak eskolara joatera behartzen. Hori zela eta, Nafarroako Aldundiak,

eskola-absentismoarekin bukatzeko, 1939ko irailaren 6ko NAOn **Lehen Hezkuntzako Eskola eta Ikastetxeetara joateko Araudia** argitaratu zuen. Araudi horretan, zehatz-mehatz azaltzen ziren eskolek jarraitu behar zituzten arauak eta gurasoek seme-alabak klasera bidaltzeko betekizuna. Hori egin ezean, bost faltako 5 pezeta ordaindu behar zituzten.

Tokiko Batzordeek eskumena zuten Araudia betearazteko eta, aldi berean, zehazteko zein familiatan zen beharrezkoa seme-alaben laguntza etxeko edo landako lanetan.

Garai horretan zehar, Administrazioak arreta handia jarri zuen irakasleen birziklapenean. Horretarako, hainbat formakuntza ikastaro antolatu zituen. Horien artean, azpimarragarriak ondorengo hauek lirateke: Alfabetatze Programetako helduen klaseko maisuei zuzendutakoa; Sasoiko Eskoletako mais-trentzako ikastaroa; Hastapen Profesionaleko klaseak ematen zituzten mai-suentzako ikastaroa; “Elikadura Heziketa”, “Pedagogia Terapeutikoa”, “Haur Hezkuntza”, “Heziketa Fisikoa” espezialitateetan diplomatutako irakasle-entzako ikastaroa, eta azkenik, “OHOk bigarren etapako” irakasleentzako ikastaroa.

Administrazioak irakasleen formakuntza sustatzeko erabiltzen zituen bestelako baliabideak IGIak, HEZIak eta *Nafarroako Hezkuntza Aldizkaria* izan ziren.

Azken baliabide hori Hezkuntzako Batzorde Nagusiak berrargitaratu zuen 1950ean. *Hezkuntzako Aldizkaria*, probintziako Lehen Hezkuntzako organoa, Ikuskaritzaren tresna gogokoena izan zen zirkularrak bidaltzeko eta iritzi artikuluen bidez maisu-maistrak doktrinatzeko. 162 aldizkari argitaratu ziren. 1968an azken edizioa atera zen.

Badirudi Administrazioak ezarritako neurri horiek guztiek espero zuten eragina lortu zutela, 1957an ikuskariak adierazi zutenaren arabera. Ikuskaritza Kontseiluak, 1957ko apirilaren 5ean, gure probintziako analfabetismoaren inguruan ikuskariak egindako ikerketa aztertu zuen. 40.456 ikasleko eskola-populazioaren %0,84a soilik zen analfabetoa. Ikuskaritzaren azterketaren arabera datu on horiek bi arrazoiri esker lortu ziren. Lehena, Nafarroako herrietan eskola nazional zein pribatuen kopuru nahikoa ezarri izana. Eta, bigarrena, Sasoiko Eskolak sortzeak emandako emaitza bikainak¹⁰⁹.

109. *Nafarroako Ikuskaritza Batzordeko Akten liburua*, 1933-1969, 144 eta 155.orr.

XIX. mendean eta xx. mendearen aldi luze batean Administrazioari horrenbeste buruhauste eman zizkion Nafarroako eskola-asistentzia frankismo garaian ia bere osotasunean konpondu zela zirudien. Hala adierazten dute Ignacio Blasco Vitaleraren lehendakaritzapean Nafarroako Ikuskaritza Kontseiluko Aktan jasotako datuek 1967ko ekainaren 8an:

Jasotako datuen arabera, badirudi asistentzia, oro har, oso ona dela. Herri gutxitan egon dira irregulartasunak¹¹⁰.

Udalekuak baliabide preziatuak izan ziren ikasle nafarrek itsasoan edo mendian opor osasuntsuak izan zitzen. Errepublika garaian irekitako Hondarribiako eta Zudaireko udalekuetara Biurrun-Olkotzeko¹¹¹, Larraintzarreko eta Aiegiko Mater Dei udalekuak gehitu zitzaizkien.

60ko hamarkada bukaeran eta 70ko hamarkada hasieran eskolan egon ziren hezkuntzako aldaketa, berrikuntza eta erreformen artean ondorengo hauek aipatu beharko genituzke:

- Hezkuntza mistoaren erregimena (hezkidetza) modu experimental eta jarraian berrabiaraztea¹¹².
- Ikuskaritzako Kontseiluaren eskola-zentro experimentalen aukeraketa OHOk 5. mailarako 1970-1971 ikasturtean¹¹³, OHOa mailaz maila ezarri arte.
- Ikastolak sortzea eta berriro irekitzea¹¹⁴.

110. *Ibidem*, 291 eta 292. orr.

111. Biurrun-Olkotzeko Ondarra Fundazioko udalekuak, Hondarribiako eta Zudairekoa bezalaxe, Nafarroako Aurrezki Kutzaren diru-laguntza jasotzen zuten. Udalekua tuberkulosia zuten haurrentzat 1944an sortutako sendategi zaharrea zegoen. Urte gutxiren bueltan, gaixotasun hori arazo izateari utzi zion eta 1961ean haurrentzako udalekua sortu zuten. 1968an, Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzako Kontseiluak Hezkuntzako Batzorde Nagusiari eta Nafarroako Aurrezki Kutzari proposatu zion egokia izango zela udaleku hori egoitza-eskola bihurtzea. Proposamenak ez zuten aurrera egin eta eraikina drogaren menpe zeuden pertsonentzako errehabilitazio-zentro bilakatu zen. Egun, zentroa utzita dago. Nafarroako Ikuskaritza Batzordeko Akten liburua, 1933-1969, 329.orr.

112. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, 60ko hamarkadaren amaieran, zenbait kasutan, hezkidetza baimendu zuten, Hezkuntzako Lege Orokorrean hori jasota egon ez arren. 1969an dekretu bat argitaratu zen, zentroetan erregimen mistoko ikasleekin lehenengo esperientziak baimentzen. Araudi hori eraginkor egiteko, Nafarroako Ikuskaritza Kontseiluak, 1969ko urriaren 13ko saioan, "Irakaskuntza erregimen mistoa" ezarri zuten aurretik hala eskatu zuten zentroetan. Burlata, Lizarra, Leitza, Tuter, Vázquez de Mella (Iruña), Aranatz, Sada eta Andosillako eskolak izan ziren erregimen hori aplikatzen lehenengo eskolak.

113. OHOk 5. maila egiteko lehenengo zentro experimentalak ondorengo hauek izan ziren: Iruñeko M^a Ana Sanz, José M^a Huarte, Vázquez de Mella, El Alcázar, Cardenal Ilundáin eta Federico Mayo, Getzaurre, Zangoza, Corella, San Adrián, Ultzama, Olazti, Leitza, Lizarra eta Altsasuko zentroak.

114. 976ko apirilaren 2ko D.F.N.ren akordioaren arabera, Nafarroan 37 ikastola zeuden, 3.110 ikaslerekin osotara.

- Lankidetzaren Bereziko Zentroak irekitzea, Lankidetzaren Pedagogikoko Zentroen barruan sartu zirenak¹¹⁵.
- Ikus-entzunezko tresnak erabiltzea irakaskuntzarako baliabide metodologiko gisa.
- Heziketa Fisikoko, Pedagogia Terapeutikoko eta Hizkuntzetako plazak sortzea ikastetxeetan¹¹⁶.
- Eskolaz kanpoko jardueren zerbitzua ezartzea, familia-gurasoen elkarteekin eta eskola-elkarteekin lankidetzan¹¹⁷.
- Helduen alfabetatzearen zerbitzu teknikoa sortzea eta sustatzea¹¹⁸.
- Ikuskariak koordinatutako “Txostenak” ezartzea, 1970eko Hezkuntzako Legea planifikatzeko, garatzeko eta sustatzeko. Garrantzitsuen artean ondorengo hauek daude: Zentroen Plangintza eta Antolaketa; Zentroen, Irakasleen eta Ikasleen Ebaluazioa; Haur Hezkuntzako Hezkuntza; Hezkuntza Berezia; Hezkuntza Iraunkorra; Helduen Hezkuntza; Irakasleen Hobekuntza¹¹⁹; Zerbitzu Osagarriak; Eskola-Jantokia; Egoitza-Eskolak, Udalekuak eta Eskola-Garraioa.

115. Pedagogia Terapeutikorako Lankidetzaren Bereziko Zentro bakarra “El Alcázar” Eskola graduatuan zegoen (Iruña), Francisca Sagüés Salaren zuzendaritzapean, Carmen Mina Ibero idazkariarekin eta Andrés Muñoz Garde liburuzainarekin. Zentro horretara hezkuntza bereziko unitateak zituzten irakasleak joaten ziren. Era berean, haur eskolako maistrentzako Lankidetzaren Bereziko lau zentro sortu ziren: Tuteran bat, “Nuestra Señora de Lourdes” Ikastetxe Nazionalaren zuzendariaren ardurapean, eta hiru Iruñean, hiriburuko Eskola Nazionaletako hiru zuzendarien ardurapean: Marisol Tejedor Aramburu, M^a Pilar Zabalza Oroz eta Mercedes Iribarren Reta.

116. 1964an, Nafarroan Pedagogia Terapeutikoko irakasleentzako ikastaro bat antolatu zen. Ikastaro horren ostean, Lehen Hezkuntzako zentroetan gela bereziak sortu ziren. Zentro horiek “El Alcázar” (ikasle hipoakusikoen hezkuntzaz arduratzen zena) “Cardenal Ilundáin” eskola nazionalak eta “Nicasio Landa” ezgaitasun intelektuala zuten ikasleentzako zentroak izan ziren, guztiak Iruñekoak. 1968an hezkuntza bereziko unitate berriak ireki ziren: 3 Tuteran eta beste bat Lizarran. Abuztuko 1979/14 Hezkuntzako Lege Orokorrearekin, hezkuntza sistema hezkuntza berezira hurbiltzen saiatu ziren. Lege horren artikuluko batean zentro arruntetan hezkuntza bereziko unitateak sortzeko beharra adierazten da. Hortik aurrera, Nafarroako hainbat zentrotan hezkuntza bereziko unitateak ezarri ziren beharrak zituzten ikasleentzat. Ikasle horiek ezgaitasun psikiko arina edo neurritzkoa zuten eta Hezkuntza Bereziko Zentro Espezifikotan ikasten zuten.

117. *Nafarroako Ikuskaritza Batzordeko Akten liburua*, 1933-1969, 46. orr.

118. Helduen alfabetatzean egindako lan onarengatik saritu zituzten erakundeak eta irakasleak ondorengo hauek izan ziren: Baztango Udala, Lizarrako “María Inmaculada” Patronatutako Eskola-Zentroa eta Angelina Gúrpide Ibarrola, Josefa Labiano Basarte eta Sor Pilar Baixera maistrak.

119. Irakasleentzako egin ziren ikastaroen artean 1974ko “Belgikako Ikasbidaia” azpimarratu daiteke, Matematika Modernoko ikastaro batean parte hartzeko egin zena.



“Sanatorio Ondarra” delakoaren inaugurazioaren argazkia, Biurrun-Artederreta ondoan, 1944. Nafarroako Artxibo Nagusiak utzitako argazkia.

60ko hamarkada erdialdean hasitako curriculumaren modernizazio eta kontrolerako prozesua 1971ean gailurrera iritsi zen *Orientaciones pedagógicas para los programas y planes de estudio de la E.G.B.* planarekin. Kontzeptu pedagogiko berriak txertatu zituen, esaterako: gutxieneko lorpen maila, hezkuntza pertsonalizatua, adierazpen eta esperientzia alorren arteko irakaskuntzaren bereizketa, ebaluazio jarraia, etapako helburu orokorren araberrako eta irakasgai bakoitzeko helburu espezifikoaren irakaskuntza, globalizazioa, diziplinartekotasuna, proiektuen metodoa, irakaskuntza sintetikoa... Horiek guztiak, Lege Orokorrak hezkuntzan eta irakaskuntzan txertatu zituen adibide batzuk dira. Horiei esker, Eskola berria sortu zen.

Hala ere, Erregimenak frankismoaren azken garaian ezarritako hezkuntzako erreforma horiek, Errepublikara garaian gertatu zen bezala, eremu pedagogiko eta ikerketa-eremuetan ezarritako kultura pedagogiko eta zientifikoaren ekarpenak soilik izan zituzten kontuan, botere politikora lotutakoak, alegia. Baina irakasleen kultura enpiriko-praktikoa edo artisau-kultura ez zen kontuan izan hezkuntzako estrategia berri horretan eta horrela, errepikatu ziren hezkuntza sistemaren erreforman historikoki eman diren desadostasunak (Escolano, 2001).

1978ko Konstituzioa egin ostean, marko politiko berria ezarri zen eta, Nafarroari dagokionez, 1982ko Foru Hobetzeari buruzko Legea egin zen. 47. Artikuluan Nafarroari erabateko eskumena eman zion hezkuntzari zego-kionez, noski, Estatuak gordetako eskuduntzen mugarekin.

Uharteko eskolako (Iruña) nesken ikasgela, 1969. Telebista maisu-maistrek erabilitako baliabideetako bat izan zen.



Lankidetzaren Pedagogikoko Zentroak 1957an berriro irekitzean, haize bolada freskoa izan zen Nafarroako landa-irakasleentzat. Ikuskariak izan ziren zentro horietako benetako sustatzaileak eta une oro saiatu ziren gainbeheran zegoen irakasleen gogo berpizten. Argazkian Aurora Medina de la Fuente¹²⁰ ikuskaria Tuterako Lankidetzaren Pedagogikoko Zentroko maisuekin ikus dezakegu. 1957.



120. Aurora Medina de la Fuente, (Montalvo, Cuenca, 1910 - Madril, 2007). Maistra, pedagogo eta ikuskari ospetsua, Espainiako Haur Hezkuntzako irudi eztabaida ezina eta garrantzitsua izan zen. Bere bizitza profesionalean zehar, hainbat zentrotan karguak izan zituen, Madrileko hainbat eskola-taldetako zuzendaria izan zen, Nafarroako ikuskaria, filosofiako irakaslea, Haur Hezkuntzaren Aldeko Nazioarteko Erakundearen lehendakaria Espainian, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko ordezkaria eta Madrileko ikuskari zentrala. Hainbat testuliburu idatzi zituen, horien artean Nafarroako eskoletan asko irakurtzen zen *Las aventuras de Juan José*.

14. FRANKISMO GARAIKO ESKOLA

14.1. Sarrera

Arestian aipatu dudan bezala, frankismoaren lehenengo urteetan, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak eskumenak galdu zituen, Gerra Zibileko lehenengo urteekin alderatzen badugu. Hezkuntzako Ministerioak, Lehen Hezkuntzako Zerbitzu Nazionalaren bidez, beste probintzietan zegoen hezkuntzako araudi bera ezarri zuen.

Romualdo de Toledo y Torresek, Zerbitzu horretako zuzendaria, eremu nazionaleko probintzia guztietara zirkular bat bidali zuen 1938ko apirilaren 5ean eta horretan agerian uzten zuen erregimen berriaren hezkuntza politika. Zirkular horren edukia bi atalen inguruan antolatzen zen. Alde batetik, formakuntza erlijioso eta aberkoiaren lehentasuna eta, bestetik, Errepublikako hezkuntza politikaren edozein zantzu sistematikoki baztertzea.

Hori dela eta, 40ko hamarkadako Eskola Nazionala ideia aberkoi eta erlijiosoen inposaketan eta Errepublikako agintariak ezarritako hezkuntza araudia ezabatzean oinarritu zen.

Garai horretan, egoera ekonomiko latzaren testuinguruan esaten zuten “eskolak pobrezia materialaren eta oparotasun espiritualaren artean egingo zuela bidea”. Errepublikaren aurkakoek “Plazerraren pedagogia” zeritzoten hori “ahaleginaren, diziplinaren, ordenaren, zorrotasunaren eta borroka aszetikoaren pedagogiarengatik” ordezkatu zuten ¹²¹.

121. F. LÓPEZ MARTÍN, en A. BENITO ESCOLANO, *Historia Ilustrada de la Escuela en España*, 2006, 431. orr.

Eskola-argazkia gertaera garrantzitsua zen ikasturtean zehar. Mutilak eta neskak, ongi txukunduta eta jantzirik politenekin, banderaren, maparen edo arbelaren aurrean, edo ikasmahaiaren gainean, jartzen ziren argazkia ateratzeko. Goiko aldeko lehenengo argazkian Tuterako “Elvira España” Eskola Nazionaletakoa ikasle bat ikus dezakegu; bigarrenean Perla Herce, Cadreitako Eskola Nazionaletakoa ikaslea; hirugarrenean Guillermo Iriarte, Cadreitako Eskola Nazionaletakoa ikaslea eta azkenekoan Fernando Lezaun, Iruñeko Eskolapioetakoa ikaslea.



Ondorioz, eskoletan XVIII. mendeko metodo pedagogikoetara itzuli ziren, memorismoan eta diziplina guztien ahopekako kantuan oinarritzen zena. Horrela deskribatzen zuen Antoio Machadok bere olerki batean:

Y todo un coro infantil / va cantando la lección / mil veces ciento, cien mil / mil veces mil un millón.

Buruz ikasten eta buruz errepikatzen ziren biderkatze taulak, ibaiak, mendiak, Espainiako golkoak eta lurmuturrak, probintzia guztietako hiriburuak, animaliak, landareak eta mineralak. Buruz ikasten ziren Historia Sakratuko pasarteak, bai eta Errege Katolikoekin, Errege Godoekin, Viriatorekin eta Agustina de Aragon edo Don Pelayorekin lotutako pasarteak ere. Eta noski, buruz ikasten ziren baita ere kristau-ikasbidea, ortografia arauak, etab.

Erregimeneko agintariek ezarritako ahaleginaren eta nekearen pedagogia horrek irakasleak zorrotasunaren eta autoritarismoaren inguruko arauak berriro hartzera eraman zituen. “Letra odolarekin sartzen da” lema zaharra 60ko hamarkada arte ohiko jardunbidea izan zen gure eskoletan. Irakasleek erregelekin, erakuslearekin, uhalekin, adaxkekin edo euren eskuekin askotariko zigorrak ematen zizkieten ikasleei: zaplastekoak, ipurdikoak, belarrietatik

indarrez tiratzea, ostikoak, erregelarekin kolpeak ematea gorputzeko hainbat ataletan, denbora luzez liburuak eusten egotea gurutzearen posizioan, etab. Zigorren sistema horrek askotariko kopiaketak (adibidez 100 aldiz koadernoan zerbait idaztea), familiei jakinaraztea, oinarririk gabeko emaitza txarrak jasotzea, biraoak... ezartzen zituen. Horiek guztiak, azken finean, autoritatea inposatzeko eta arauen haustea zigortzeko estrategiak ziren. Zigor psikologikoak ere ezartzen ziren, oso zehatzak zirenak, esaterako ikasleari “astoaren belarriak” jartzea, Jesusen Bihotzean orratzak iltzatzea klaseko jarrera txarra bazen, etab.

Sariak, aldi berean, ohorezko sariak, laudorioak, txartelak, puntuak, liburuak, nota onak, etab. ziren. Laburbilduz, Cerezo Manrique anaiek (2004) aipatzen zuten bezala, zigortzearen eta saritzearen arteko dialektika erabili zen “umeen jarrera akademikoa eta morala moldeatzeko” mekanismo gisa.

14.2. Eskolako Almanaka

Eskolako Almanaka urtero egiten zen agiria zen, Ikuskaritza Kontseiluak egindakoa, 1952ko irailaren 4ko Ministerio-Aginduan ezarritakoaren arabera (hilabete horretako 22ko BOEn), eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiak onartutakoa.

Lege horren 41. artikulua ezartzen zuen ikasturteak gutxienez 240 eskola-egun izan behar zituela, klimaren baldintzen eta herriko baldintza sozialen arabera banatutakoak. Eskola-lanaldia bost ordukoa zen, goizeko eta arratsaldeko bi saioetan banatuta. Ostegun arratsaldeetan ez zegoen klaserik. Ikasturtea iraila erdialdean hasten zen eta uztaila erdialdean bukatu. Egutegi horretan, eskola-egunak izango zirenak ezartzen ziren, igandeak eta Elizak jarritako gorde beharreko egunak eta botere politikoak ezarritako egunak izan ezik: Buruzagiaren eguna, Garaipenaren Festa, Bateratzearen Festa, etab. Guztira, 11 egun ziren. Gabonetako 16 opor egunak, Aste Santuko 9ak eta udako oporretako bi hilabeteak ere kontuan hartzen ziren. Tokiko festak ere gogoan hartzen ziren eta lau eta hamaika egun artekoak izan zitezkeen. Bestetik, eskolan oroitzapenezko 11 festa seriotasun handiz ospatzera behartzen zen: Calvo Soteloren irudiaren goraiatzea, Kristo Erregearen bezpera, Eroritako Ikaslearen festa, Tradizioaren Martiriak, San Fernandoren oroitzapenezko eguna eta Bateratzearen eguna, besteak beste.

Ekainaren 27tik 30era ikasturte amaierako eguna ospatzen zen eskola publiko eta pribatu guztietan (1940ko maiatzaren 28ko Hezkuntzako Tokiko Batzordeen araudiko 10. artikuluko 3. atala).



San José de Calasanz irudia zuen eskola-zigilua. Horien bidez, Irakasle-Lanaren mutualitatea ordaintzen laguntzen zen.

Erregimenak inposatutako jai horien artean garrantzitsuenetariko bat San José de Calasanz eguna izan zen, Irakasle-Lanaren patroia, maisu eta maistren lana aitortzen zuen festa. Azaroaren 27an ospatzen zen, derrigorrez, Hezkuntza Nazionaleko Ministroak agindu ostean (1957ko urriaren 24ko Ministro-Agindua) eta **Maisuaren Eguna** gisa izapidetu zuena. Helburua ondorengo hau zen:

Hezkuntza-balioak beti gogoan hartzea eta ohoratzea, eta gizartean, hezkuntzaren lanarekin lotuta, erantzukizunaren zentzua esnaraztea, batez ere gurasoei, agintari eta erakunde kulturaleri.

Urtero, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak Hezkuntzako Tokiko Batzarrei zirkular bat bidaltzen zien Ministro-Aginduan ezarritakoaren berri emanez eta euren udalerrietan Maisuaren Eguna berotasun handiz ospatzera bultzatuz. Orokorrean, herri guztietan ekitaldia mezaren inguruan antolatzen zen, agintarien, familia-gurasoen eta ikasleen parte hartzearekin.

Nafarroari dagokionez, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, S.E.M-ren “Sección Femenina” eta “Frente de Juventudes”-en laguntzarekin, Maisuaren eguneko ekitaldia Irakasle-Lanaren eskolako areto nagusian antolatzen zuen. Gobernadore Zibila buru izaten zen eta ekitaldia amaitzean, agintari zibil eta militarrek hainbat sari ematen zizkieten Nafarroako irakasleei.

Iruñeko Udal Kutxak, Nafarroako Aurrezki Kutxak, “Sección Femenina”-ako eta “Frente de Juventudes”-eko ordezkariak eta udal batzuk sariak dirutan ematen zituzten. Irakasle-Lanaren eskolak, espediente onenak zituzten bi izangairi maisu eta maistra titulua doan ematen zien. Azkenik, Alfonso X. Jakintsuaren domina edo “Orden de Cisneros”-eko domina jartzen zieten Ikuskaritzak proposatutako maisu eta maistrei.

Adibide gisa, 1967ko azaroaren 27an ospatu zen San José de Calasanz egunean, Irakasle-Laneko ikaslerik bikainei Maisu-Maistra titulua doan eman zieten. “Blanca de Navarra” maistren Irakasle-Laneko eskolak Carmina Fernández Fernández proposatu zuen eta “Huarte de San Juan” eskolako maisuek Antonio Sola Alayeto.

Laburbilduz, Eskolako Almanaka agiri baliagarri izan zen irakasleentzat, horren bidez hezkuntza-sistema berregiteko aukera ematen zuelako.

14.3. Eskolako hornidura

Gerraostean, Nafarroako eskola publikoek, batez ere landa eremuetakoek, ez zituzten baldintzak betetzen euren lana behar bezala egiteko. Idatziz zein



Ikasturtea hasten zenean, maisu-maistrek irakasgaien denborabanaketa arbelean idazten zuten ikasleek euren koadernoetan kopiatu zezaten. Argazkian Tuterako "Elvira España" Eskola Nazionalakako maisu zen Teófilo Martínez Montorioren irakasgaien banaketa ikus dezakegu, 1965-66 ikasturtea. Teófilo Martínez Nafarroan Alfonso X. Jakintsuaren domina jaso zuen lehen maisua izan zen.

ahoz jasotako testigantza guztiek material eta tresna zaharkitu eta urrien berri ematen digute. Eskola-aurrekontua frankismoaren lehen garai horretan ez zen ikasleko bost pezetara iristen. Urte horietako eskola-inbentarioan irakaslearentzako mahai bat, egoera txarrean zeuden ikasmahaiak, arbela, liburu gutxi zituen armairua, lur-globoa, mapak, klarionak, tinta, papera, estufa eta derrigorrezkoak ziren irudi erlijioso eta aberkoiak (Francoren irudia, Sorkunde Garbiaren irudia eta Espainiako bandera) aurki zitezkeen. 50ko hamarkadako azken urteetako inbentarioetan, xx. mendeko berezko materialak aurki zitezkeen: koadroak, irudiak eta bestelako tresnak, arbela txikiak, esaterako.

Baina eskola guztiek ez zuten material eskasia hori pairatzen. San Franziskoko Eskola Nazionalak, Irakasle-Lanaren Eskola Normalera atxikita zeudenak, baliabide gehiago zituzten, bai eta zenbait ikastetxe erlijiosok ere. Garai horretan, ikastetxe erlijiosoak Nafarroako herrietatik zabaldu ziren eta paper garrantzitsua jokatu zuten hezkuntzaren alorrean. Hala, 1965ean adibidez, 64 ikastetxe erlijioso unitateko 3.235 pezetarekin diruz lagundu ziren.

Klaseak ere ezberdinak ziren zentroaren izenaren arabera: nazionala edo pribatua (erlijiosa). Ikastetxe pribatuetan ikasle gehienak sarrera frogaren bidez sartzen ziren eta Batxilergo arte horietan ikasten jarraitzen zuten. Uniformea eramaten zuten, irakasle erlijiosoak zituzten eta hezkuntza ez zen doakoa. Bestetik, eskola nazionalak sarrera frogaren egiten zuten ikasleak prestatzen ziren. Beste ikasle guztiek hamabi edo hamalau urtera arte ikasten jarraitzen zuten.

Frankismoan zehar eskola erlijiosoak Nafarroan zehar hedatu ziren eta Iruñean bildu ziren, eskolara joateko adinean zeuden ikasle kopuru handiena bertan baitzegoen. Orokorrean, eraikin handietan zeuden eskola horiek, eta ikasgelak, espazio komunak, egoitza edo barnetegia eta patioak zituzten. Argazkian Iruñeko "Sagrado Corazón" Ikastetxea ikus dezakegu, 1945ean. Zentroa 1938an ireki zen. 1957an Ikastetxera erantsitako doako eskola eraiki zuten. Ikastetxeak askotariko material eguneratuak zituen. Paretetan banakako arbelak ikus ditzakegu, idazketaren edo matematikaren irakaskuntzarako erabiltzen zirenak. Isabel Valdelomar Solak utzitako argazkia. 1945.



Eslabako eskolako ikasgela. 1950.



Aitzitik, landa-eskoletan baliabide gutxi eta zaharkituak zituzten, Armañanzas (Lizarraldea), Aritzu (Anue) eta Eslabako eskoletan ikusiko dugun bezala.



Pascual Madozen *Hiztegi geografiko*, historiko eta estatistikoaren arabera, Armañantzasen (Lizarraldean) lehen hizkien eskola bat zegoen 1847an, bi sexuetako 27 ikaslerekin. Maisuak urteko 300 errege-lur eta 100 gari errege jasotzen zituen, sakristian eta udaletxeko idazkaritzan lan egiteko betebeharrarekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an 78 ikasle zeuden, baina eskolak oraindik ere maisu bakarra zuen. Argazkian, Armañantzaseko eskolako ikasgela ikus dezakegu. 1969an eskola misto bilakatu zen eta 70eko hamarkada erdialdean itxi zuten. Ikasleak Los Arcosera joan ziren ikastera.



Argazkian material eskasia eta mahai luze zaharkituak ikus ditzakegu, XIX. mendeko materialak alegia. Aritzuko (Anue) Eskola Mistoko ikasgela, 1945.

Ikastetxe erlijiosoek, zenbaitetan, ikastetxe pribatu gisa funtzionatzen zuten, Teresiarren edo Jesuiten kasuan bezala. Beste ikastetxe batzuk doakoak ziren, Salestarren ikastetxea edo Karitateen Alaben ikastetxeak bezalaxe. Kasu berezia izan zen Iruñeko “Sagrado Corazón” ikastetxearena. Ikasle dirudunei kobratzen zien, eta horiek “ikastetxera” joaten ziren. Doan joaten ziren ikasleak “eskolara” joaten ziren, Ikastetxera atxikitako eraikinera, alegia. Argazkian San Juan Boscoren salestarrak ikasleekin ikus ditzakegu Txantrean. 1954. David Mariezkurrenak utzitako argazkia.



Iruñeko “San Miguel” Kontzilio-Apaiztegia 1777ko maiatzaren 5ean inauguratu zen eta garaiko Iruñeko gotzaina zen Juan Lorenzo de Irigoyen y Dutarik sortu zuen. 1897an 760 apaizgai zeuden bertan. Solairu berria eraiki zen Dormitaleria kalean, baina eraikina laster zaharkitua gelditu zen beraz, xx. mendeko hogeigarren hamarkadan, eraikin berria eraikitzen hasi zen. Proiektua Víctor Eusa arkitektoaren planoei jarraiki eraikitzen hasi zen 1931ko urriaren 1ean eta 1936ko maiatzean bukatu zen. Gerra Zibilak inaugurazioa atzeratu zuen eta azkenean 1939ko maiatzean egin zen. Gerran zehar “Alfonso Carlos” Ospitaleko egoitza izan zen. 1963an handitu zen, apaizgaiak mila baino gehiago baitziren. Elizbarrutiko Apaiztegiak hiru eskola-unitate izan zituen, Patronatuaren erregimeneko hiru maisu nazionalen zuzendaritzarekin. 1970ean itxi ziren unitateok. Egun eraikinean apaizgaiak, Ikasketa Teologikoen Goi-Mailako Zentroa, Zientzia Erlijiosoen Goi-Mailako Institutua, Apaiztegiko liburutegia eta gotzainen egoitza daude bertan. Miguel Larrambeberere Zabalak emandako informazioa. Patxi Mendibururen argazki-bildumako argazkia. 1961.



Frankismoaren lehenengo urteetan, irakaskuntzaren eta ongintzaren arteko hainbat erakundek lanean jarraitu zuten. Erruki Etxea, Oblatak, Muruzabaleko “Nuestra Señora de los Dolores”, “Sagrada Familia” babes-etxea, Olatz-Txipi eta “Niño Jesús” babes-etxea izan ziren erakunderik adierazgarrienak. Argazkian Erruki Etxeko edo “Mecako” nesken eskola ikus dezakegu, Karitateen Alaben zuzendaritzapean zegoena. Mutilen eskolak izaera ofiziala zuen eta zerbitzu komisioan zegoen maisu nazional baten ardurapean zegoen. Erruki-Etxea zaharren egoitza eta mutilentzako egoitza-eskola izan zen urte luzez. Erruki-Etxearen argazki-artxiboko argazkia. 1932.



Iruñeko Aita Kaputxinoek 1940ean hasi zuten euren ibilbidea. Urte horretan “San Antonio” Ikastetxea eta Komentua inauguratu zituzten. Argazkian “San Antonio” ikastetxeko ikasleak ikus ditzakegu San Antonioko haur kantarien dominekin jantzita. Aita Kaputxinoak Paulino Lezaun, Jesus Cañas (etxeko aita nagusia) eta Felipe de Barañain dira. 1940. Aita Kaputxinoen argazki-bildumako argazkia.

San Frantziskoko Eskoletan, ikasgeletan material ugari egon arren, oraindik mantentzen zituzten mende hasierako mahaiak. Silverio Imízcoz maisua klasea ematen 1945ean. Agustín bere semeak utzitako argazkia.



14.3.1. Eskola-altzariak

XX. mende hasierako eserleku luzeak poliki-poliki berriagoak ziren altzariengatik ordezkatu ziren: bi pertsonentzako ikasmahaiak, mahai lauak eta, zentro batzuetan, banako ikasmahaiak. Desagertzen joan ziren, baita ere, maisu-maistra ikasleengandik banantzen zuen balaustradadun plataforma antipedagogikoak.

Ikasleek, batzuetan, bizkarralderik gabeko ikasmahaiak edo banku luzeak erabiltzen zituzten. Tiraderan zorroa edo esku-saskia, entziklopediak, kristau-ikasbidea, tiragomak, puxtarriak, kromoak, zibak, tortolosak, komikiak, etab. Gordetzen zituzten. Mahaiaren gainean koadernoak eta idazketarako materiala jartzen zituzten.

Ikasmahaiak taula okerra zuen idaztean gorputzaren jarrera errazago egokitzeke. Ikasleen kokapena ez zen ausaz egiten. Maisuak edo maistra bikoteak konbinatzen saiatzen zen, izaerak, gaitasun intelektualak eta lanerako ohiturak orekatuz.

Ikasmahaietan zulo bat edo bi egoten ziren tintontziak eusteko. Tintontziak orokorrean toskazkoak izaten ziren, bain baita bakelitalazkoak, gomazkoak, berunezkoak edo beirazkoak. Tintontziak betetzea bereziki gustuko zuten ikasleek eta irakaslearen mugimendu arduratsuak arretaz jarraitzen zituzten. Mende hasieran, tinta erretzeko alkoholarekin eta hautsekin egiten zen. Ondoren,



Berroetako (Baztan) eskola mistoko ikasgela, 1957. Argazkian maisu-maistren mahaia ikus dezakegu, plataforma baten gainean eta balaustrada batekin inguratuta.

uretari disolbatzen ziren barratxoak agertu ziren. Tintontzien bi aldeetan zulo biribil eta luzeak zeuden, zotz-ontziak, luma-muturrak eta ikasleek kaligrafia ariketak egiteko erabiltzen zituzten ebakiak uzteko. Orbanen, zirriborroen eta “pelicán” xukagarrien urteak ziren. Hori dela eta, mahaiak noizbehinka garbitu behar ziren. Garbitzeko, urarekin busti eta lixa edo beira batekin eskuilatzen ziren.

Kaligrafiarako koaderno eta lagin bereziak erabiltzen ziren. Kaligrafia ezberdinetarako lumak edo luma-muturrak lumatxoarengatik ordezkatu zitezkeen. Luma-muturrak askotarikoak ziren eta letraren arabera erabiltzen ziren. Ospetsuenak espainiarrak edo ingelesa ziren. Letra biribila edo gotikoa apainduretarako edo errotulaziorako gordetzen ziren. Bruno, Dalmau y Hernando kaligrafia-metodoak erabilienak izan ziren.


Gerraostean paper eskasia egon zenez, ikasleek banakako arbela edo arbel-ziria erabili behar izan zuten, lerrodun paperan lantzen zen kaligrafia tradizionalaren kaltetan.

Arbel txikiak Galiziatik ekartzen zituzten harrizko ohol errektangularrak ziren, egurrezko listoiekin ertzetan. Arbel txikia harrizko ohol errektangularra zen, egurrezko listoiez inguratuta. Listoietako batean arbela-ziria eusteko zulo bat zegoen. Ikasleek idazten zutenean horrenbeste kirrinkatzen zuen, hozkia sortzen zuela. Ume txikiek gurinezko arbel txikiak erabiltzen zituzten, bigunagoak eta erosoagoak zirelako. Klarionik ez zegoenean, igeltsu zatiak erabiltzen zituzten.

Uharte Arakileko eskolako ikasgela.
Ikasmahaien gainean toskazko
tintontziak ikus ditzakegu. 1955.



Idazketarako erabiltzen ziren materialak. Eskola xumeetan banakako arbelak eta arbel-ziria erabiltzen ziren, hitzak idazteko, kontuak egiteko eta marrazki txikiak egiteko aukera ematen zutenak. Arbel txikiak materialik funtzionalenak ziren. Ez ziren inoiz higatzen ezta orbanekin zikintzen ere, koadernoak ez bezala. Erraz ezabatzen ziren eta nahi adina gainera, listu pixka batekin edo trapu batekin igurtziz. Arazoa zen erraz apurtzen zirela. Cadreitako Eskola-Museoa.



Kontsultatutako inbentario batzuetan ikus daiteke ikasleek banakako kartoizko arbelak zituztela, esaterako Sadan (1908) eta Erriberrin (1927). Arbel txikiak askotariko materialezkoak ziren (harria, kartoia eta letoia), bai eta tamaina ezberdinekoak ere.

Banakako arbelak edo arbel txikiak aurreko mendeko materialetatik iraun zuten tresna gutxienetarikoz batzuk izan ziren. Hala ere, 50ko hamarkadatik aurrera, ez ziren gehiago erabili osasunarentzako kaltegarriak baitziren, horien gainean listua botatzen zelako eta ondoren trapu batekin igurtzen zirelako.

Banakako arbelen erabilera, behin betiko, 70ko hamarkadaren hasiera desagertu zen. Boligrafoaren erabilera orokortu zen, luma eta eskolan bertan egindako tinta ordezkatu zuena.



Zubietan (Doneztebe), 1847an, bi sexuetako 21 ikasle zituen eskola osatugabea zegoen. 1908an 61 ikasle zeuden. 1970-71 ikasturtean, herrian bi eskola-unitate publiko zeuden. Horietara 21 neska eta 35 mutil joaten ziren. Argazkian Zubietako eskolako maistra eta bere ikasleak ikus ditzakegu, arbel txikian ariketak egiten. 1950. Amaya Apalauzak utzitako argazkia.



San Frantziskoko eskolak. Clinia maistraren klasea, 1950. Ikasle bakoitzak banakako arbela bat zuen.

Tripode baten gainean jarritako arbela edo paretan iltzatutako arbela irakasleek erabili zituzten beste tresna batzuk izan ziren. Eskola guztiek arbela bat edo gehiago zituzten. Hulezkoak edo egurrezkoak ziren. Arbela eskola-jardueraren funtsezko ardarza zen, ikasgelan estrategikoki kokatzen zena denek ikusi ahal izateko. Arbelean data, arau esaldi erlijioso, aberkoi edo moralak, lezioa, zenbaketak eta maisu-maistrek egindako marrazkiak jartzen ziren.



Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an, Arizkunen (Baztan) lehen hizkien bi eskola zeuden: mutilentzako bat, 100 ikaslerekin, eta neskentzako beste bat, 50 ikaslerekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, eskola-errola 108 ikaslekoa zen, eraikinak zituen bi eskola-unitateetan banatuta. Irudiak Arizkuneko mutilen ikasgela ikus dezakegu. 1957.





Tuterako "Elvira España" Eskola Nazionalako ikasgela. Teófilo Martínez Montorio maisuaren klasea. 1956.

Landa-eremuetan, mojen ikastetxe erlijiosoei haur eskolaren eta 14 urteko arteko nesken irakaskuntza egokitzen zitzairen batez ere. San Bizente Paulen Karitatearen Alaben ikasleak, 1928, Irunberri. Esteban Labianok utzitako argazkia.





Eskola-materiala eramateko zorro mota ezberdinak zeuden. Kartoizkoak, larruzkoak, plastikozkoak, egurrezkoak edo latorrizkoak izan zitezkeen. Ikasleek zorroetan entziklopedia, kristau-ikasbidea, ogitartekoa, "Alpino" margoen Kutxa, 2ko arkatza eta "Milán" borragoma eramaten zuten. Cadreitako Eskola-Museoa (partikularra).



Argazkian kalkulua irakasteko erabiltzen ziren abako mota ezberdinak ikus ditzakegu. Cadreitako Eskola-Museoa (partikularra).

Zenbakien eta sistema hamartarraren ikasketa arbelean, arbel txikietan eta, batez ere, abakoetan ikasten zen, unitateak, hamarrekoak eta ehunekoak ozen kantatzen. Biderketa-taula buruz ikasteko modua ozen abestea zen, koru monotono eta errepikakorrean, egunez egun etengabe errepikatzen zena. Zenbaketak egiteari denbora dezente eskaintzen zitzaion. Irakaslearen lanik garrantzitsua zenbaketak berrikustea, akatsak aurkitzea eta arkatz gorritz markatzea zen.

60ko hamarkadaren amaieran curriculumean zenbait berrikuntza txertatu ziren, eskolari irudi berria eman zizkietenak. Cuissenaireren koloredun zenbakiak, Hull eta Dienesen bloke logikoak, Mackinder txarteak, F.Papy minikonputadorek, Bailonen kalkulurako erregeletak eta teknologia berriek ez zuten soilik eskola-metodologian eraginik izan, baizik eta zentroetako azpiegiturretan ere.



Ikasle bakoitza bere zorroarekin edo esku-saskiarekin joaten zen eskolara. Lehenengo argazkia Artzibarreko udalak utzitakoa da, bigarrena Alesbesko J.M. Elcuazek utzitakoa eta azkena Corellako Jesús Melladok utzitakoa.



Espainiako mapak ikasgela guztietan zeuden. Askotarikoak ziren, materialaren eta ikasketagaiaren arabera. Fisikoak, politikoak, komunikaziokoak, ekonomikoak, mutuak, probintziakoak ... ziren eta hulezkoak, igeltsuzkoa, ohialezkoak, etab. izan zitezkeen.



50eko hamarkadaren erdialdean eman zen irekiera sozioekonomikoak isla "arina" izan zuen eskolako materialetan. Ikuskaritzak, *Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Aldizkariaren* bidez, zentroi material pedagogiko eta altzari berriak proposatzen zizkien. Esaterako: bolumen, gaitasun, pisu edo aleen neurrien jolasak, dezimetro kubiko desmontagarriak, balantzak, Cuissenaireren koloredun zenbakiak, franelogramen bilduma, fisika, kimika, argazkigintza eta hizkuntzetarako ekipamendua, adierazpen plastikoa eta formakuntza preteknologikoa, irrata eta magnetofonoa bezalako musika-gailuak, josteko, lisatzeko eta idazteko makinak, irrati-kasetak, ikuspegi finkoko proiektoreak,



Eskulanez formakuntza profesionalaren hastapenak sustatzen lagundu zuten, baita ikaslearen formakuntza osoari ere eta, gainera, curriculumeko beste irakasgaietarako zeharkako baliabideak izan ziren. Argazkietan, Alesbesko Eskola Nazionalan erabilitako materialak ikus ditzakegu. 1965. M^a Jesús Sánchez Alesbesko maistrak utzitako materiala.

elektrofonoak, Super 8 filmen proiektorea, mapa mutuak, erliebedun mapak, fotokopiagailua, multikopista, botika-kutxa eta kirol-material ugari. Horietako material batzuk aurretik erabili ziren, baina orain bertsio modernoagoan erabiltzen hasi ziren.

Lehen Hezkuntzako Galdetegi Nazionalen argitalpenak, Irakasleen Lan-kidetzaren Zentroen eta CEDODEParen sorrerarekin batera, antolakuntzaren, metodologiaren eta curriculumaren orientabide berriak ekarri zituen. Hala, formakuntza prozesu eraginkorretarako eskola-material berriak txertatu zituzten eskoletan.

Eskola berrientzako altzarien hornikuntza ez zegokion soilik udalei. Hezkuntzako eta Zientzietako Ministerioak (MEC), 1952ko irailean argitaratu zuen Lehen Hezkuntzako Legeari jarriki, eskoletan altzari eta material berriak eskatzeko arauak zehaztu zituen. Ministerioak eskaintzen zituen ikas-mahaiak banakakoak edo hainbat eserlekukoak ziren. Materiala metalezkoa, egurrezkoa, plastifikatua eta koloreztatua zen. Material bereko banakako aulkiak ere eskaini ziren. Berrikuntzak bestelako altzariengan ere eragina izan zuen: eskegailuak, armairuak eta arbelak.

Material pedagogikoari dagokionez, jauzi handia eman zuen 60ko hamarkadatik aurrera. MEC-ak, berrikuntza teknologiko eta pedagogikoak txertatzeko ahaleginean, hainbat argitaletxeren laguntzarekin, katalogoak argitaratu zituen, hezkuntza-maila ezberdinetara egokitzen zirenak eta aurreko garaietako materialek baino kalitate hobea zutenak. Bide horri jarraiki, CEDODEP-ak *Guía* argitaratu zuen 1967an, eskolek nahitaez izan behar zuten material didaktikoaren gida: metro tolesgarri bat, oinarritzko balantza bat, iparrorratza, mailua, kurrikak, artaziak eta erregela sorta bat, kartaboia eta eskuaira, besteak beste.

60ko hamarkadaren erdialdean formakuntza preteknologikoari eman zitzaion bultzadak zentro batzuetan proiektu berriak sortzen lagundu zuen.

60ko hamarkadaren erdialdean, eskola-antolaketa ulertzeko norabide aldaketa garrantzitsua egon zen. Gabriel Tortajadak, Cadreitako maisua, askotariko metodologiak erabiltzen zituen bere ikasleak suspertzeko: eskola-lehiaketak, eskola-baratza, talde lanak, etab.



Esaterako, Kutxa teknologikoak, hazitegi esperimentalak edo eskolako baratza.

1967an, Nafarroako Ikuskaritzak hainbat zentrori 272 lan-liburu sorta eman zizkion, bai eta eskola-multzoetako 15 liburutegiri eta landa-eremuetako 44 liburutegi ibiltariei ere. Material guztia “Aukeren Berdintasunerako Funts Nazionalaren Inbertsioen V. Planetik” zetorren. Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorrak, Aukeren Sustapenerako Funts Nazionalaren Patronatuaren ordezkariaren bidez, Nafarroan ondorengo hauek ere banatu zituen: 6 eta 8 urte arteko neska-mutilentzako 1.660 liburu sorta; 8 eta 10 urte artekoentzako 1.340 eta 10 eta 12 urte artekoentzako 1.250.

Ikasgeletan irratia sartzea modernizazioaren ezaugarri argia izan zen, eta irakaskuntzan ikus-entzunezko baliabideen zabalkundearen atariko. Irrati horietan ondorengo programa hauek entzuten zituzten eskoletan: “Radio Escuela”, “Radio Televisión Española”¹²², “Misión Rescate”, “Alerta General”, “España vista por los escolares”¹²³ eta “Mantenga limpia España”.

122. Radio Television Españolak 1969an Madrilen ospatutako lehiaketan, Tuterako “Nuestra Señora de Lourdes” ikastetxeok 2. saria eskuratu zuten. Hori dela eta, Nafarroako Lehen Hezkuntzako Ikuskaritza Batzordeak “Voto de gracias” delako bat eman zion Patronatuari eta “Puntu” bat Javier Salcedo Corral maisuari.

123. “España vista por los escolares” Lehiaketa Nazionalarekin lotutako lanak baloratzeko Batzordeak Faltzeseko Eskola Graduatuko eta Iruñeko Maristen Ikastetxeok lanak aukeratzea erabaki zuen, 10 eta 14 urte arteko taldekoak eta 6 eta 10 urteko taldekoak, hurrenez hurren.

Handik gutxira, telebista agertu zen eskoletan. 1969an, Hezkuntzako Ministerioak 30 telebista eman zituen elebidunak ziren Nafarroako zentroetan jartzeko.

1970ean, Ministerioak Irurtzango Eskola Graduatuari zinema-proiektore bat eman zion. Aurreikusitako eskualdeko eskola eraikita ez zegoenez, Ikuskaritza Batzordeak, zinema-proiektorea, mailegu gisa Getzurreko bi eskola-kontseiluei ematea adostu zuen, azpiegitura bikainak baitzituzten¹²⁴.

14.3.2. Testuliburuak

Garai horretan eskoletan agertu ziren lehenengo liburuak, eskola-liburuetan garbiketa egin ostean, xx. mendearen lehenengo herenean erabili ziren berak izan ziren. Gurasoek eta seme-alabek egile berdinen testuliburu eta entziklopedia berak erabili zituzten ikasteko. Horiek guztiek erregimenak ezarritako hiru kontrolak inprimituta eraman behar zituzten: “nihil obstat”, Elizaren “imprimatur” eta zegokion ministerioaren baimena. Kontrol horietan ikasgelan jakinarazi behar ziren edukiak eta balioak zehazten ziren. Eduki politiko eta aberkoi sakona zuten, Hezkuntzako Kontseilu Nazionalaren bidez agintariak ezartzen zuten bezala.

Lehen Hezkuntzako lehenengo Galdetegi Nazionalak 1953an sortu baino lehen, helburuak, edukiak eta jarduerak eskuliburuak edo eskola-entziklopediek zehazten zituzten. Data horretatik aurrera, testuliburuak lehenengo galdetegietan jasotako programa eta orientabide didaktikoetara egokitu behar izan ziren. 60ko hamarkadaren amaieran aldaketa sakonagoa eman zen, ikasgaiko eta mailako gutxienekoak ezarri zirenean eta 1965eko Galdetegi Nazional Berriak egin zituztenean.


Irakurtzen ikasteko silabatan zatitzen eta letraka esaten jarraitzen zen, ikasleen adin mentalerako ulergaitzak ziren hitzak erabiliz: *Rayas*, *Camarada*, *Parvulitos*, *Ardilla*, *Colasín*, *Palau*, *Amiguitos*, etab. izan ziren txartelik erabilienak. Ikasleek maisuaren edo maistraren mahaia inguratzen zuten, isilik, bakoitza bere txartelarekin, lezioa errepasatuz. Banan-banan, ahoz ozen esaten zuten ikasitakoa. Irakasleak zuzentzen zien eta beste lezio batekin has-tea edo errepikatzea erabakitzen zuen. Irakurle berrientzako, txartel batetik bestera pasatzea (lehenengo zatitik bigarrenean) izugarritzakoa arrakasta izaten zen.



Landa-eskoletako material eskasia zela eta, maisu eta maistra batzuk ikasketa-prozedura burutsuak garatu zituzten. Irudian Guillermo Iriartek 1968an diseinatutako “konektorea” ikus dezakegu. Irakurketaren eta kontzeptuen ikasketarako erabiltzen zen.

124. Nafarroako Ikuskarien Batzordeko Aktak, 1969-1977, 46 eta 47.or.

50eko hamarkadaren erdialdean, maisuak edo maistrak irakasgai guztiak ematen zituen, apaizaren esku zegoen kristau-ikasbidea izan ezik. Hori dela eta, eskolara soilik bi liburu eraman behar ziren: entziklopedia eta kristau-ikasbidea. Bigarren irudian ikus dezakegun kristau-ikasbidea 1958an Katekesiaren eta Irakaskuntzaren Apezpiku-Batzordeak egin zuen. Data horretatik aurrera, Aita Asteteren eta Ripaldaren kristau-ikasbideak argitaratzeari utzi zioten.



Irakurketa-mekanismoak erdietsi ostean, taldekako eta txandakako irakurketarekin hasten ziren ikasleak eta erritmoa galtzen zuenak zigorra jasotzen zuen. Buruzko irakurketan ere testu zaharkituak eta euren adinerako egokiak ez zirenak erabiltzen ziren, esaterako: *Lecturas de oro*, *Manuscritos*, *Inventiones e inventores*, *Lecciones de cosas*, *Vida y fortuna*, *Cabeza y corazón*, *Alboradas*, *El Quijote*, *Deberes*, *Cosas de Navarra*, *El hombre*, *El cielo*, *Fábulas*, *Samaniegorenak* edo *Iriarterenak*, etab.

Nafarroako eskoletan irakurtzen ziren liburu gehienak Ikuskaritzak edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak gomendatutakoak edo inposatutakoak ziren. Oro har, erregimenaren balioak goraiatzeko erabiltzen ziren: Jaingoi-koa, Aberria, agintea, familia, diziplina, adorea eta sakrifizioa. Hezkuntzako agintariak, balio horiek zabalduz, ordena politiko eta sozialarekiko ikasleen ontzatasuna, esanekotasuna eta doktrinamendua lortu nahi zuten.

Gehien erabili zen testuetako bat Entziklopedia izan zen. Eskuliburu hori izan zen urte askotan zehar eskolako liburu bakarra, eta informaziorako baliabide bakarra etxea askotan.

Silabarioen, txartelen, katoien... bidez irakurtzen ikasi zuten ikasle horiek, ondoren, entziklopediarekin hasten ziren. Aurreko atalean aipatu dudan bezala, entziklopediak xx. mendeko 20ko eta 30ko hamarkadetan agertu ziren eta 60ko hamarkadara arte iraun zuten. Testuliburua gogorra, ekonomikoa, erabilerraza zen, oso ongi koadernatuta zegoen, azal gogorrak zituen eta irakasleen onarpena zuen. Finean, irauteko asmoz egindako liburua zen.

Anai-arreba batetik beste pasatzen zen, arropa bezalaxe. Hori dela eta, egun aurkitzen diren entziklopedia gutxi horietan beste liburuetan baino gehiago hauteman daiteke denboraren eta erabileraren aztarna.

Edukiak lau mailatan banatzen ziren: oinarrizkoa, lehenengo maila, bigarrena, hirugarrena eta Formakuntza Profesionala, 15 urte bete arte ikasten jarraitzen zuten ikasleentzat. 1953an, testuliburuak eta entziklopediak Lehen Hezkuntzako Galdetegi Nazionalera egokitu behar izan ziren. Hori dela eta, argitaletxeek zentroei erabilgarritasun handiko material pedagogikoak eskaintzen zizkieten, ikaslearentzako koadernoak, irakaslearen liburuak eta horma-irudiak esaterako.






Asko erabili zen entziklopedia bat Antonio Álvarezena izan zen. Berez, Nafarroan hedapen handiena lortu zuena izan zen. 1952 eta 1965 artean 167 edizio argitaratu ziren eta 30 milioi ale baino gehiago saldu. Eskuliburu horiek ikasi beharreko gai guztiak jasotzen zituzten: erlijioa, Historia Sakratua, gaztelera, aritmetika, geometria, geografia, Espainiako historia, eta natura zientziak. Liburuaren azken zatian, bi gai zeuden. Lehena mutilentzako formakuntza politiko-nazionala zen eta, bestea, neskentzako familia-formakuntza eta formakuntza soziala. Hala ere, entziklopedien inperioa gutxinaka-gutxinaka eraisten joan zen 1964an ikasgaiko eta mailako gutxienekoak onartu zirenean eta 1965ean Galdetegi berriak agertu zirenean. Data horretatik aurrera, entziklopediak argitaratzeari utzi zioten eta irakasgai eta maila bakoitzerako liburu berriak agertu ziren, bai eta material berria ere: unitate didaktikoak, lan-fitxak, laminak, irakasleentzako gida didaktikoak, etab.

Entziklopediaren arrakastak irakurketa liburuen argitalpena bultzatu zuen, elementu eta eduki oso heterogeneoak zituztenak. Liburu horiek *Lecturas*, *Viajando por España*, *Lecciones del padre*, *Vida y fortuna*, *Fábulas educativas*, *Rayos de luz*, *Camino*, *Invenciones e inventores*, etb. izan ziren.

Garai horretan Nafarroan gehien erabili ziren entziklopediak ondorengo hauek izan ziren: Antonio Álvarezena, Edelviveseko FTD, Dalmauren *Estudio*, Hijos de Santiago Rodríguezen *Enciclopedia Escolar*, Solanaren *Delante*, *Fundamentos*, etab.

Eskola zaharretik zetozen berriazko beste liburu batzuk gizalegearen tratatuak eta eskola-eskuizkribuak izan ziren. Frankismoaren lehenengo urteetan oraindik liburu horiek erabiltzen ziren. 60ko hamarkadatik aurrera, horiek erabiltzeari utzi zitzaion.

ENTZIKLOPEDIAK





60ko hamarkada erdialdeko hezkuntzako erreformek, bai eta entziklopedien gainbeherak ere, testuliburu mota berriei bidea ireki zieten, esaterako unitate didaktikoetako testuliburuak edo gaiaren araberakoak.


14.3.3. Eskola-koadernoak

Ikasleei ez zitzairen koadernoan idazten uzten papera probestu ahal izateko gutxieneko trebetasun maila lortu arte. Bitartean, euren arbela txikietan praktikatzen jarraitzen zuten, arbeletik edo eredu batetik kopiatzen zituzten astamakilak, biribilak, grekak eta grafiak behin eta berriro errepikatuz. Ondoren, koadernoak eta arkatza erabiltzen zen. Orokorrean, maisuek eta maistrek ikasle bakoitzari eredu pertsonalizatua idazten zioten koadernoan, lerroak agortu arte errepikatzen zena.

Eskolako pedagogia tradizionala, oraindik ere urte askoz, kopiatzeko eta errepikatzeko teknika mekanizistetara lotuta egon zen. Koadernoak herri-kulturaren tresnak ziren, garaiko eredu sozialak eta moralak erakusten zizkigutenak. Era berean, une zehatz batean eskola bakoitzean garatzen ari ziren eskola-praktiken inguruko informazioa ematen ziguten.

Esku artean dugun garai horretan, frankismoaren lehenengo urteak alegia, egunero idatzizko ariketa bat egin behar zen, gai erlijioso, aberkoi edo gizalegezko gai batekin lotutakoa. Idatzi gehienak ereduak kopiatzeko ziren. Testuak idazteak ez zuen bermatzen kopiatutako edukiak berenganatzen zirenik, soilik “landu” zirela ziurtatzen zuen. Hori dela eta, koadernoak ez ziren erabiltzen ikasleek euren izaera kritikoa askatasunez adierazteko. Guztiz kontrakoa, irakasleak aukeratutako edukiak eta buruz ikasi beharrekoa indartzeko erabiltzen ziren.

Koadernoan agertzen ziren testuak eskema beraren arabera egiten ziren. Maisuak edo maistrak data eta egun horretako agindua idazten zuen: erlijioso, politikoa edo etikoa. Gaia azaldu ostean, arbelean testu bat eta zegokion



Espainian, 60ko hamarkada arte, eskoletan eta ikastetxeetan ikasleek ezin zuten ezkerreko eskuarekin idatzi koadernoetan. Batzuek jarrera hori defendatzen zuten ezkerrekin idazteak zituen eragin satanikoengatik (diestra-siniestra). Beste batzuk, izendapen horren ñabardura politikoan babesten ziren. Irakasleek “disfuntzio” hori (Erregimenaren agintarien arabera) saihesteko askotariko metodo errepresiboak erabili zituzten, esaterako erregelarekin ezkerreko eskuan kolpeak ematea ikaslea ezkerreko eskuarekin idazten hasten zenean edo esku hori lotzea eskuin eskua erabil zezan. Neurri horiek, eskuin-ezkerti bilakatzen ziren. Irudian ikus ditzakegun eskola-koadernoak Cadreitako Eskola Nazionalekoak dira (lehenengo biak) eta, hirugarrena, Tuterako “Elvira España” Eskola Nazionalekoa.

marrazkia kopiazen zuen. Ikasleek, ondoren, arbelekoa kopiazen zuten. Azkenik, maisuak edo maistrak ikasleak kopiaztutakoa zuzentzen zuen, eta emaitza edo zegozkion iruzkinak idazten zizkien.

Marrazkiak hasieran arkatzez egiten ziren, eta batzuetan kalko-papera erabiltzen zen. Gero, tintazko luma-muturrarekin berriz pasatzen zen eta, azkenik, koloreetako arkatzekin koloreztatzen zen. Ikasleek koadernoetan kopiazen zituzten marrazkien artean, mapak, animaliak, landareak, ezkutuak, banderak, irudi geometrikoak, gazteluak eta erlijioarekin eta izaera aberkoiarekin zerikusia zuen guztia. Datu bitxi gisa, frankismoaren lehenengo garai horretako koadernoak berrikusiz, gerrako mapak eta planoak aurkitu dira. Baina ez soilik Espainiako Gerra Zibilekoak, baizik eta Alemaniako frontee-takoak ere, nazismoarekin lotutako herrialdeen ikasketa lehenetsiz (Italia edo Japonia, esaterako).

Marrazkien, egoeren eta esaldien bidez, hiztegia, oinarrizko kontzeptuak, rol sexualak eta sozialak eta jokabideak ikasten ziren. Irudiek, neurri batean, garai bakoitzeko entziklopedien eta testuliburuaren ereduak jarraitzen zituzten.

Diktaketa oinarrizko osagaia zen koadernoetan, zenbaketak bezalaxe. Buruz eta modu errepikakorrean ikasitako ortografia arauen (*m-a p* aurretik, *b-a* eta *v-a*...) etengabeko errefortzua egiten zen. Akatsak zuzendu ondoren, maisu-maistrak ikasitakoa berresteko, kopiaketa amaiezinak agintzen zituen.



Eskola-koadernoetatik jasotako irudiak.

Ohikoa zen maisuek eta maistrek arbelean, helburu moralizatzailearekin, aho-korapiloak, igarkizunak, asmakizunak eta atsotitzak kopiatzea ikasleek, koadernoan kopiatu ostean, buruz ikas zitzaten.

Zenbait argitaletzek eskola-koadernoak argitaratu zituzten. Horien artean aipagarrienak Calleja, Santillana, Edelvives eta Rubio izan ziren. Azken argitaletxe horrek argitaratutakoen artean, horiak ziren matematikako koadernoak eta kaligrafiako koaderno berdexkak zeuden. Ikasleek bi koaderno izan ohi zituzten: horietako bat koaderno “zikina” zen, zuzenketak egiteko erabiltzen zena, eta bestea “garbia”, bertan zuzendutakoa garbira pasatzeko. Koadernoan ikasgelan edo etxean egindako jarduera guztiak agertzen ziren: laburpenak, kopiaketak, irudiak, diktaketak, matematikako problemak...

14.3.4. Berokuntza eskola-eraikinetan

Irakasleen kezka materialetako bat neguan ikasleak hotzetik babestea zen (su-ontzi edo estufekin) eta udan berotik babestea (leihoentzako gortinekin). Izan ere, maisu-maistren arduretako bat ikasleek larunbatetan eramaten zuten egurrekin edo ikatzarekin sua pizturik mantentzea zen. Horrela zegoen araututako udaletako araudietan. Adibidez, Garaioako Udalak (1806) zehaztu

Zuñigako (Lizarraldea) ikasgela.
1950.



zuen “Eskolako su-behari indarra eman behar zaionean [...] mutil guztiek goizean enbor bat eramán behar dutela eta neskek arratsaldean”¹²⁵.

Araudi guztiek jasotzen zuten udalek eta kontzejuek derrigorrez eskaini behar zutela berokuntza euren eskuduntzako eskola-eraikinetan. Ikuskaritza Publikoko Batzarrak zein Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, behin baino gehiagotan, tokiko agintariei gogorarazi behar izan zieten arau hori bete behar zutela

XIX. mendean zehar, Nafarroako Ikuskaritza Publikoko Batzordeak behin baino gehiagotan jakinarazi zien Zangoza, Añorbe, Mañeru... bezalako udalei ez zietela nahikoa egur edo ikatz ematen euren udalerrietako eskolei.

Errepublika garaian, egur eskasia zela eta egondako protestengatik, Ikuskaritza Batzordeak 1934ko urriaren 24an batzorde bat izendatu zuen, Rosaura López buru zuela, Aldundiko Lehendakari ordearekin bilera bat eskatzeko. Bilera horretan lortu nahi zen eskola-eraikinen berokuntza eta zaintzaren inguruko 1934ko ekainaren 15eko Ministerio-Aginduaren 29. artikuluan ezarritakoa Aldundiak udalei betearaztea.

125. A.G.N., Sec. Inst. Públ, leg. 3, carp. 21.



Lakuntzako nesken eskolako ikasgela. Estufaren orde, tximinia bat jarria zuten (ikusi ezkerrean). 1952.

1934ko azaroaren 2an, Nafarroako Foru Aldundiak “Lehen Hezkuntzako Irakaskuntzako Eskoletako berokuntza eta garbiketa zerbitzuen zirkularra” bidali zien udalei eta kontzejuei. Zirkular horretan gogorarazten zitzairen eskola-eraikinak “higiene, garbiketa eta zaintza egoera bikainean egon behar zirela, eta inplizituki, baita berokuntza ere”.

Frankismo garaian, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak udalei eta tokiko kontzejuei zirkular bat bidali zuten 1945eko Lehen Hezkuntzako Legearen 52. artikuluan ezarritako gogoraraziz: “Eskola-eraikinaren zaintza, bai eta horren garbiketa, berokuntza eta zaingoa, edonor delarik jabea, udalerrinari dagokio”.

Eskola-eraikinak eraikitzeke arau teknikoek 14 gradu zentigraduko tenperatura gomendatzen zuten arren, errealitatea zen eskola gehienak hozkailuak zirela. Hori dela eta, ikasleek burdinurtuzko estufa (kanoiekin edo xaflazko hodiekin egindakoa) gertu izan nahi zuten beti.

Estufaren piztearen inguruan protokolo bat zegoen. Sarrerako otoitzen ostean, eta behin ikasleak eure lekuetan eseri ondoren, neguan, estufa pizten zen. Lan hori maisuak eta maistrak egiten zuen, ikasle helduenen laguntzarekin. Udalak egurra eman ohi zuen. .

Estufa zerrautsekin betetzea ikuskizun galanta zen. Estufaren erdian makil bat jartzen zen eta, ondoren, zerrautsarekin betetzen hasten zen. Estufa beteta zegoenean, piztu egiten zen. Batzuetan, begiak gorritzen zituen kea sortzen zen.

Emilia Azcárate, Anitzeko (Baztan) eskolako ikaslea eta Marichu Lizarrondo maistraren ikasleak, ondorengo hau esaten zuen:

Maistrak, ikasleek estufarako egurra ekar zezaten “koloreetako” txartelak ematen zizkien, bakoitza zenbaki batekin. Hilabete bukaeran, maistrak zozketa egiten zuen eta sariak ematen zizkigun, gehienetan gozokiak edo estanpak.

Normalean, estufa ikasgelako erdialdean zegoen, edo tiroarekin leihoe-tako beiretatik aterata. Administrazioak, arrazoi estetikoengatik, estufa albo batean eta irteera bertikalagoarekin egotea gomendatzen zuen. Errekuntzarako materiala esne-bidoi hutsetan gordetzea ere gomendatzen zuen.

Eskola batzuetan su-ontziak zeuden. Su-ontzi txikiak edo saretak erabiltzen ziren. Su-ontzi txiki horiek mugikorrak ziren, ilintiaz edo txingarrez betetakoak, txingarrak kitzikatzeko iraultzen zirenak. Ikasleek euren etxetatik eramaten zituzten- Luis Antonio Montes Andía, “Plaza de la Cruz” ikastetxeko zuzendari ohia, bere liburuan deskribatzen du Oteitzako eskolan jasaten zuen hotza (1920):

Hotza indartzen zenean, lankide batzuk eramaten zituzten estufa txiki eramangarriekin berotzen ginen, saretak deiturikoak. Txikiak ziren, egurrezko helduleku batekin. Goiko aldean, nagusientzat, arrabio bat oso erabilgarria izaten zen¹²⁶.


Nafarroako herri batzutan, ikasleek, berotzeko, “ruejo” deiturikoak eramaten zituzten eskoletara. Harri beroak ziren, poltsikoetan edo bularraldean sartzen zirenak. Abundio Cipriainek, Carcarreko maisua, bere garaian esan zigun su-ontzi txikiak normalean neskek eramaten zituztela eta mutilek “ruegoak”. Su-ontzi txikiak eskuz egiten zituen senideren batek. Sofistikatuena maistrek eramaten zituzten.

Aurretik aipaturiko Eskola-Eraikinen Planekin, eskola-eraikin berriak berokuntza sistema modernoekin hornitu zituzten.

126. *Memorias de un chico de pueblo*, 42.orr.



Arrabioa, umeentzako su-ontzi txikia edo maistraren su-ontzia XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako ikasleek eta maisu-maistrek berotzeko erabili zituzten baliabideak izan ziren. Garai horretan hotz handia jasaten zuten eta ospelak oso ohikoak ziren.



Pascual Madozen arabera, 1847an, Cascanten lehen hizkien bi eskola zeuden. Mutilena, 89 ikaslerekin, eta neskena, 45 ikaslerekin. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, bi sexuetako 355 ikasle zeuden herrian, bost eskola-unitatetan banatuta. Hiru publikoak ziren; mutilen bat, nesken beste bat eta hirugarrena bi sexuentzako haur eskola. Beste bi unitateak ikastetxe pribatuak ziren: haur hezkuntzako eta neskena. Ahizpa Karmeldarren esku egon ziren bi horiek 1966ra arte.

XX. mende hasieran, "Claustros de la Victorian" zeuden Cascanteko Udal Eskolak. Ondoren, ikasleak "Gorría" eskoletara eraman zituzten. 1965eko irailaren 9an "Santa Vicenta María López y Vicuña" Eskola-Multzoa inauguratu zen, argazkian ikus dezakeguna. Inaugurazio ekitaldian, udalak eskertza pergamino bat eman Nafarroako Gobernadore Zibila zen Carlos Arias Navarriori, eta Carlos Díaz Varela Jenerala herriko seme kutun izendatu zuen. Eskola-multzo hori Nafarroako Erriberako eskola-kontzentrazio bakarra izan zen. Gainera Tulebras eta Novallaseko (Zaragoza) ikasleek ere ikasten zuten bertan. Instalazioetan material eguneratua eta berokuntza sistema modernoak zeuden. 1968an, herrian 13 eskola-unitate zeuden, denak publikoak eta guztira 174 mutil eta 241 neska zeuden.



Pascual Madozen arabera, 1847an, Aurizberrin lehen hizkien eskola bat zegoen, bi sexuetako 42 ikaslerekin eta 960 errealeko diru-kopuruarekin. 1912an eraiki zen herrian lehenengo eskola-eraikina. Bi ikasgela, maisuarentzako etxebizitza eta kontzejuarentzako aretoa zeuden eraikinean. Irudietan eskola eta maisu-maistrentzako etxebizitza gisa erabili diren eraikin ezberdinak ikus ditzakegu. Ezkerraldeko lehenengo eraikina egungo Aurizberriko eskola da. S.I.E.



Irudian Aurizberriko mutilen eskolako ikasgela ikus dezakegu (1960). Berogailuak estufa ordezkatu zuen.

14.3.6. Eskola-erregistroak

Nafarroa erresuma zenean, erregistro-liburu bat zegoen eta bertan eskolan ikasten hasten zen egunaren berri ematen zen, izen-abizenak, adina, gurasoen izena, parrokia eta helbidearekin batera.

Liberalen garaipenarekin eta hezkuntza unibertsalizatzeko zeukaten lehentasun horren harira, xx. mendeko hezkuntza-administrazioak eskolen nondik norakoak kontrolatzeko kudeaketa sistema ezarri zuen. Kontrol hori egonkortzen joan zen eskola ere egonkortzen joan zen heinean. Eskola-matrikulazioaren gorakada, irakaskuntza ulertzeko modu berriak agertzea eta eskola-curriculumaren zabaltzea aipaturiko araudia bidezko zuten eragileak izan ziren.

Ia ehun urtez, eskolen kudeaketarako eta administraziorako agiri berak erabili ziren, eskola-inbentarioetatik eta aurrekontuetatik ondorioztatu daitekeenaren arabera. Ikuskariak, eskola bat bisitatzen zutenean, **eskola-erregistroa**, matrikula eta asistentzia erregistroak, oinarrizko ikasketen ziurtagiriak, kontabilitate-koadernoak, bisiten liburua, eskola-inbentarioa, eskolatze-txartelak, kontseiluaren bileren aktak, etab. eskatzen zituzten. Erregistro horiek guztiak maisu-maistrak gordetzen zituen. xix. mendeko eskola batzuetan zigilu propioa zeukaten. Eskola-txartelak eta eskola-ziurtagirien erregistroa xx. mendeko lehenengo herenaren amaiaren ezartzen hasi ziren.

Agiri horiekin lortu nahi zena, alde batetik, irakaslearen jarduera antolatzea eta kontrolatzea zen eta, bestetik, eskola edo zentro bakoitzeko lekukotasuna utzi.

Garai horretan erabili ziren erregistroen artean ondorengo hauek ditugu: ikuskariaren bisiten liburua, matrikulazioaren eta asistentziaren liburua, eskolatze-txartela, Lehen Hezkuntzako eskolatze-liburua eta Oinarrizko Ikasketen Ziurtagiria.

Hezkuntzako Ikuskaritza 1849an sortu zenetik, ikuskariak, eskoletara egiten zituzten bisitetan, indarreko arauak betetzen zirela egiaztatzen zuten bai eta ikasleek jasotako heziketa, eskolako baldintza materialak eta irakaslearen lanaren egokitzapena ere. Bisitaren ostean, ikuskariak **bisiten liburuan** (eskola guztiek derrigorrez izan behar zuten agiria) maisu edo maistrari egingandako ohartarazpenak, goraipamenak eta gomendioak islatzen zituen. Txosten horiek egiteari utzi zioten 60ko hamarkadatik aurrera.

Garai horretan, Ikuskaritzari eginkizun hirukoitza egokitu zitzaion. Lehenik, ikuskari bakoitzaren berariazko eginkizunak bete behar zituen, esaterako eskolako funtzionamendu burokratiko eta teknikoaren kontrola. Bigarrenik,

Pilar Preciado Leónek utzitako
Oinarrizko Ikasketen Ziurtagiria.






Estatu berriko ideien doktrinamendua irakasleei helarazi behar zizkien. Eta, azkenik, politika nazional katolikoaren barruan “apostolu” lanak egitea.

Eskolatzetxartela eta **Lehen Hezkuntzako eskolatzeliburua** behin betiko ezarri ziren eskoletan 1949an eta 1965ean, hurrenez hurren. Lehena eskolara joateko adinean zeuden ikasle guztientzako agiri ofiziala zen, eta bertan zehazten ziren, hiruhilero, ikasturte bakoitzeko eskola-emaitzak. Era berean, familiek informazioa jasotzen zuten bide horretatik. *Eskolatzeliburua* ikasle bakoitzaren ikasketen historia pertsonalizatuaren lehenengo erregistroa izan zen.

Ikastetxe erlijiosoek gurasoei informazioa luzatzeko berezko Buletina zuten. Maisu-maistrek edo zuzendariek emaitzak baliozkotzen zituzten Hezkuntzako Ordezkaritzaren bulegoetan.

Oinarrizko Ikasketen Ziurtagiria derrigorrezkoa zen bozkatu ahal izateko, nahitaezkoa zen zerbitzu militarerako, Estatuko, probintzietako edo udaletako Administrazioetan edozein postu izateko eta lan kontratu bat izateko.



Oinarrizko Ikasketen Ziurtagiria lortzeko azterketak egiteko 14 urte baino gehiago izan behar ziren. Froga horiek CEDODEP-ak egiten zituen. Bi zatitan banatzen ziren, guztiz berezitura zeudenak. Lehenengo zatian ulermenezko irakurketa, diktaketa, idazketa eta kalkulu problemak eta ariketak aztertzen ziren. Bigarreanean, oinarrizko kulturarekin lotutako 50 galderari erantzun behar zitzairen, eta bi marrazki egiten ziren; bata naturala eta bestea iradokitua.

Eskola-zentroetako ikasgela bakoitzean otoitzen bi koadro zituzten, bat sarrerako otoitzearekin eta bestea irteerakoarekin. Paretetan zintzilikatuta egoten ziren eta 50ko hamarkada arte erabili ziren. Argazkian Zangozako "Hijas de la Caridad" Ikastetxean zegoen "Al entrar en la Escuela" (eskolan sartzean) koadroa ikus dezakegu.



14.4. Formakuntza erlijioso

Frankismoko lehenengo urteetako hezkuntza erlijioso ez zen soilik egunerokotasunean (kristau-ikasbidea, Historia Sakratua eta sarrerako eta irteerako otoitzak) ikasgelan ematen ziren edukietara mugatzen. Izan ere, formakuntza hori inplizitua eta beste irakasgaiekiko eta eskolako jardueretikiko eta eskolaz kanpoko jardueretikiko zeharkakoa izan behar zen. Eskola-almanakan, mai-suek eta maistrek euren ikasleekin ekitaldi erlijioso eta aberkoietara joateko zuten derrigortasuna jasotzen zuten.

Era berean, 1945eko Hezkuntzako Lege Orokorrean zehazten zen: "Erlijioak eskolako lanarengan eta giroarengan eragina izango du, espiritualtasun sakoneko giroan umearen garapena sustatuz"

Lege horretatik abiatuta, Eliza Katolikoak Erregimenarengan izan zuen eragina erabatekoa izan zen. Lehenik, Nafarroa osoan ikastetxe erlijiosoaren sarea zabaltzea lortu zuen. Bigarrenik, berezko balio sistema inposatu zuen Eskola Nazionalean. Helburua eskolan eta gizartean erlijioaren lehentasuna gordetzea zen.

Garai horretako eskola-egutegian Erregimenak ezartzen zituen festa erlijioso eta aberkoi asko zeuden. Jarraian, jarduera erlijioso garrantzitsuenak aipatuko dira.

14.4.1. Maiatza

Maiatza jaietz betetako hilabetea zen. Adibidez, naturak eskaintzen zituen loreak jasotzen ziren Ama Birjinari eskaintzeko. Kantikekin eta udaberriko eguzkipean, Ama Birjinei eskaintza egiten zituzkien ermitetan, elizetan eta baita eskoletan ere.

Gerra Zibilean, Lehen Hezkuntzako Zerbitzu Nazionaleko Zuzendari-zak 1937ko apirilaren 9ko BOEn argitaratu zuen zirkularrean jarraibideak ematen zituen maiatzean Ama Birjinari lore eta kantiken eskaintza eskoletan egiteko.

Urte horretan bertan, José Gómez Itoizek, Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiko lehendakariak, eskola nazionaletako eta udal eskoletako ikuskari eta maisu-maistrei beste zirkular bat bidali zien, gogoraraziz Mariaren Hilabetea Sorkunde Garbiaren irudiaren aurrean ospatu behar zutela:


Historian zehar, Andre Mariarenganako debozioa etorkizuneko gure belaunaldien elementu osagarria eta sendogarria izan da. Garaipenaren bigarren urte honetan, heldu den maiatzean, eskoletan egiten diren otoitzek inoiz menderatu ez duten gure Buruzagiaren nahiak jasoko dituzte.

Jarduera hori frankismo osoan zehar egin zen. Bere koreografiak ondorengo prozesu hau jarraitzen zuen:

1. Ikasleak eskolara sartzean eta ateratzean “Agur Maria” esan eta maisu-maistrek “Sortzez garbia” erantzuten zuten. Jarraian, Ama Birjinari kantu bat abesten zioten. Gehin abesten ziren kantuak “Venid y vamos todos con flores a porfía, con flores a María, que Madre nuestra es”, *Madre mía que estás en los cielos* eta *Estrella de los mares* izaten ziren.

Hilabete horretan zehar, arbelean Ama Birjinarekin lotutako gaiak agertzen diren: maiatzeko egun bakoitzerako pentsamenduak edo arau moralak, poesiak, olerkiak, kantuak edo istorio txikiak. Maisuek edo maistrek ikasleek arbelakoa koadernoan garbi kopiatzen zutela ziurtatzen zuten. Ikuskaritzak maisu-maistrei ondorengo liburu hauek erabiltzea gomendatzen zien: La Hormiga de Oro argitaletxearen *Mes de Mayo*; Marcos Aitaren eta Mariano Lampreaveren *Flores de María*; Nafarroako Ikuskaritzaren *Escuela Primaria a la Inmaculada Concepción de María*; Juan Rey Aitaren *Vida de la Virgen* eta Josefina Álvarezaren *Virgenes de España*.

2. “Lore espiritualaren” aukeraketa osagarri hezigarri garrantzitsutzat hartzen zen. Gai horren inguruan askotariko jarduerak antolatzen ziren: gaixorik zegoen klasekide bat bisitatzea, askaria ez jatea eta behartsu bati ematea,



“Maiatzean” zehar Nafarroako irakasleek kontsultatuko liburuak.

ohearen aurrean Kredoa edo hiru agurmariak besoak gurutze moduan jarrita otoitz egitea, ordua jotzean Ama Birjina agurtzea, burua makurtzea bere izena entzutean, etab.

3. Zelaietan loreak jasotzen ziren eta Ama Birjinari eskaintzen zitzaizkion, bai banaka zein binaka edo taldeka. Gero, loreak lorontzi batean jartzen ziren.
4. Hilabete horretan zehar egunero Arrosarioa errezatzen zen.
5. Ikasle bakoitzak bete zituen “lore espiritualen” oharra eramaten zuen. Maisuak edo maistrak jasotzen zituen hilabetearen azken egunean Ama Birjinari eskaintzeko.
6. Azkenik, Ikuskaritzak gomendatzen zuen hilabete horretan zehar herriko santutegiko Ama Birjina bisitatzeko txangoak antolatzea, bai eta probintziako eta aberriko Ama Birjina garrantzitsuenei ere omenaldiak egitea.

Maiatzean aldare txiki bat jartzen zen eskoletan Ama Birjinaren omenez. Eremu geografikoaren arabera, ekitaldi horrek hainbat izendapen jasotzen zituen: Mariaren hilabetea, Loreen hilabetea, etab.

14.4.2. “Santa Infancia”ko itsulapikoak

Urrian zehar, eliza katolikoak Misioen Hilabetea ospatzen zuen. Hilabete hori aukeratu zen urrian Amerikako kontinentea aurkitu zutelako eta ebanjelizazioaren historian atea berriak ireki zituelako. Urriko azken aurreko igandea “Misioen Nazioarteko Eguna” zen eta ospakizunen unerik gorenena zen.

Egun hori Domund egunaren izenarekin ezaguna da. Festa erlijiosoa eta jarduera pedagogikoa zen, baina bilketarako helburuarekin. Pio XI.aren *Divini illius magistri* entziklikak, **Sinesgabeen seme-alaben umeen bataioa, salbatzea eta hezkuntza** izenburua zuena, bultzatu zuen egun jarduera hori.

Elizak, ikastetxe erlijiosoek eta eskola nazionalek antolatzen zuten “Santa Infancia”-ko itsulapikoen banaketa. Herritarren artean, itsulapiko horiek “chinito” izenez ezagunak ziren, portzelanazkoak zirelako. Aurrerago, plastikozkoak izan ziren

Haurrek, limosnaren truke, pegatina bat ematen zuten, eta horrela bilketan parte hartu zuten katoliko onak identifikatzen ziren. Itsulapikoak eskoletara eramaten ziren, eta txanponak zenbatu ostean, zenbatekoa grafiko orijinalen bidez irudikatzen zen, normalean termometro baten irudiarekin, ikasgelen, ikastetxeen eta herrien arteko lehia sustatzeko.



Diru-bilketetan erabiltzen ziren hainbat material: Domunda (chinitos), "eskaera" (Erruki-Etxea), Gizarte Laguntzako eta eskola-aurrezpenarena. Cadreitako Eskola-Museoak utzitako argazkia.



Teófilo Martínezek, Tuterako "Elvira España" eskola-multzoko maisua, arbelean jartzen zuen herriko eskola publikoek Domundean bildutako zenbatekoa. Irudian, 1961. urteko diru-bilketa ikus dezakegu.



Zigako (Baztan) nesken ikasgela. Atzealdean sarrerako eta irteerako otoiak ikus ditzakegu. Maistren mahaian Domunderako itsulapiko bat ikus daiteke.

Domund egunaren ospakizuna Andosillan. José Miguel “Puskasek” utzitako argazkia.



Maisuek eta maistrek igandeetako “aste-sariaren” zati bat Domundari ematera animatzen zituzten ikasleak. Izan ere, euren hitzetan, dirua “sinesgabeentzat” zen, hau da, misiolariak ume sinesgabe asko bataiatu, hezi eta elikatu ahal izateko. Erakundearen egoitza Gasteizen zegoen. Domundean parte hartzen zuten maisu eta maistra asko saritzen zituzten lekualdatze lehiaketetarako puntuak emanez.

Iruñeko elizbarrutia misioetarako diru gehien ematen zuen bigarren probintzia zen. Lehena Donostiko elizbarrutia zen.

14.4.3. Apaiz-bokazioen eguna

1951ko martxoan, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak ondorengoa hau esaten zuen zirkular bat bidali zuen ikastetxeetara:

Hezkuntzako Batzorde Nagusiak erabaki du Nafarroako Lehen Hezkuntzako Zentro Pribatu zein Ofizial guztietan derrigorrez Apaiz-Bokazioen eguna hila-betan behin ospatzea.

Apaiz-bokazioen eguna, hilero, Apezpikutzak Hezkuntzako Batzorde Nagusiarekin batera antolatzen zuen. Helburu bikoitza zuen: alde batetik, Elizarentzako funtsak biltzea eta, bestetik mutil eta neskek erlijio-bokazioaren inguruan sentikor bihurtzea.



Garai horretan bokazio-erlijiosoak ugaritu ziren, batez ere nazionalkatolizismoaren debozio mistikoarengatik eta Espainiako gizartea pairatzen ari zen zailtasun ekonomikoengatik. Jesusen Alabak (Jesuitinak) Pitillasen egon ziren garai horretan (1909-1962), Herriko 21 erlijioso sartu ziren ordena horretan. José M^a Muruzabalek utzitako argazkia.

Ikasturtea amaitzean, ohikoa zen ikasgeletara fraideak joatea proselitismoa egitera, talentu berriak erakartzeko asmoz. Estanpa txikiak banatzen zituzten eta euren eskolek eskaintzen zituzten onuren inguruko hitzaldi sutsuak ematen zituzten. Cándido aita salestarra; Amador Aita, Jesus Haurraren karmeldar oinutsa; Julián Lara aita, eskolapioa; Simeón Izquierdo anai marista, Ricardo Melé anai konbonianoa; Marino Zugasti aita domingotarra eta Simón aita, Agustindar Errekoletoa izan ziren fraiderik ospetsuenak.

Egiten zen beste mandatu bat erlijiosoei ethez etxe laguntzearena zen, askotan limosna eske. Orokorrean bizilagunek parte hartzen zuten, dirua edo janaria emanaz. Jarduera horietan gehien parte hartu zuten ordena erlijiosoak ondorengo hauek izan ziren: Alesbesko Karmeldarrak, Iruñeko Kaputxinoak, Erriberriko Frantziskotarrak, Tafallako Pasiotarrak, Behartsuen Senidetxoak, Zuriak, Mariaren Mirabeak eta Karitatearen Alabak

Neskei zegokienez, ordena erlijiosoak ez ziren orokorrean euren eskolera joaten. Mojen ikastetxe erlijiosoak Nafarroa osoan zabalduta zeuden eta egiten zuten doktrinamendua etengabekoa zen.

Landa-eremuetako familia xume askotan, seme-alaben hezkuntza bermatzeko zuten aukera bakarra horietako bat apaiztegira edo ikastetxe erlijiosora bidaltzea zen. Familia ugarietan erraza zen gutxienez bititza erlijiosoa aukeratu zuen seme-alabaren bat aurkitzea. Irakaskuntzako profesional asko apaizen, fraideen eta mojen babesari esker jaso zuten formakuntza.

Ikastetxe erlijiosoak zeuden herrietan, ikasleak lau urterekin joaten ziren horietara, batzuk baita hiru urterekin ere. Ikastetxe horietan egun Haur Hezkuntza deritzoguna jasotzen zuten. Mojek irakurketaren, idazketaren eta kalkuluaren inguruko oinarriko kontzeptuak irakasten zizkieten eta Lehen Jaunartzerako prestatu. Ondoren, ikasleak Eskola Nazionalera joaten ziren. Irakasleek urtean zehar ospatzen ziren prozesioetan ikasleak lagundu behar zituzten. Argazkian Cadreitako mutilak ikus ditzakegu, Lehen Jaunartzeko jantziarekin, Corpus Christiaren egunean, Jesusen Bihotzaren Amekin batera. 1957. Neskak ere prozesioan joaten ziren baina mutilengandik berezita.



Amaren eguneko txartela, Estrellita Iriarterena.



Garai horretako ikasleek oso gogoan dituzten izaera erlijiosoko beste jardueretako batzuk ondorengo hauek izan ziren: Lehen Jaunartzea, Sendotza, Gabonetako jaiotzaren prestakuntza, Amaren eguna, Misioen eguna, Arrosarioaren eguna, Aita santuaren eguna, Gotzainaren eguna, Parrokoaren eguna, Aste Santua, herriko ermitara egiten ziren erromeriak ...



Kristau-ikasbidearen ikasketa derrigorrezkoa zen eskoletan. Hala ere, Lehen Jaunartzearen eta Sendotzaren prestaketa apaizei zegokien eta, bigarren mailan, maisu-maistrei.



Pio X. Aita santuak 1910ean baimena eman zuen 7 urtetik gorako haurrek jaunartzea hartzeko. Hasieran, jaunartzeak ospakizun pertsonalak ziren, gurasoekin eta jaunartzea jasotzen zuenarekin soilik. Baina, gutxinaka-gutxinaka, orokortzen joan ziren eta taldeka egiten hasi ziren. Igokundearen eguna aukeratu zen ospakizun horretarako, baina baita Corpus Christi eguna edo Trinitatearena ere. Lehen Jaunartzearen eguna oso egun berezia zen ume guztientzat. Lehenengo argazkian Guillermo Iriarte Emilio eta Felicitas "Ita" bere gurasoekin ikus dezakegu, 1955an. Bigarrrenean Carmen Medrano, 1962an.



Jaiotza jartzea ospakizun handia zen. Ikasle guztiek parte hartzen zuten jaiotzaren prestakuntzan, etxean zein eskolan. Urte batzuk beranduago desagertzen joan ziren eta horren ordez koloreetako bolak, argiak eta serpentinak jartzen hasi ziren. Argazkian Cadreitako nesken eskolako Sara Cruz maistren ikasleek egindako jaiotza ikus dezakegu (1955). Teresita Preciadok utzitako argazkia.

Tuterako “Elvira España” Eskola-Multzoko mutilak Teófilo Martínez maisuak arbelean egindako marrazkiak kopiatzen. Teófilo Martínezen argazki-bildumako argazkia. (1965).



Herriko ermitara egiten ziren erromesaldiak oso ohikoak ziren Nafarroako herrietan. San Pedroko ermitara, Alesbesen, apirilean, maiatzean eta ekainean egiten ziren erromesaldiak. Lehenak “San Pedro huevero o culequero” izena jasotzen zuen. Bigarrenak “San Pedro natillero” eta argazkian ikus ditzakegu neskak natillak eramaten.

Azkenak “San Pedro segador” izena jasotzen zuen, eta erromesek lehenengo galburuak eskaintzen zizkieten Sainduari. José Miguel Elcuazek utzitako argazkia. 1956.



Aste Santua opor garaia zen eskoletan. Egun horietan antolatzen ziren ekitaldi erlijiosoetan parte hartu behar zuten neska-mutiek: Pasioaren eta Kristoren heriotzaren oroitzapena, Pizkundea eta Zeruetara igotzea. Elizara bisitak egitea eta maisu-maistrekin prozesioan joatea gomendatzen zen, batez ere Ostiral Santuan eta Erramu-Igandean. Zazpi Hitzetako sermoia ekitaldi erlijioso garrantzitsuenetariko bat zen. Orokorrean kanpotarrak ziren apaizek ematen zuten predikua eta eliza lepo egoten zen. Ostiral Santuan baraua egitea edo elikagai batzuk ekiditea ohikoa zen Aste Santuan. Irudian Jesusen gurutziltzaketaren marrazkia ikus dezakegu, Lodosako eskola nazionaletan 1953an egindakoa. Cándido Sainz de Vicuña, herriko maisua, utzitako irudia.





Eskola jai eta ospakizun erlijiosoetara oso lotuta egon zen erakundea izan zen. Argazkian Etxalarreko bizilagunak Iñarretako Gurutzearen aurrean ikus ditzakegu. 1945. Edurne Elizagoien Ariztegiak utzitako argazkia.



Mutil gehienek lehenengo ogibidea meza-mutilarena izan zen, apaizak jarduera erlijiosoekin lagunduz. Mezetan apaizari aldarean lagundu behar zitzaionean, meza-mutilek latinez erantzun behar zuten. 60ko hamarkada arte, mezak hizkuntza horretan egiten ziren eta apaizak fededunei bizkarra ematen ziren mezan zehar. San Adriango Liburutegiak utzitako argazkia.

Misioak normalean kanpotarrak ziren apaizek predikatzen zituzten. Herrian lau edo bost egunez egoten ziren, hainbat zeregin erlijioso eginez, esaterako: pulpitutik predikatzea, kaleetan egiten zen Via Crucisera joatea edo aitortza lanak egitea. 60ko hamarkadaren amaieran misioak egiteari utzi zitzaion. Argazkian Melidako haurrak ikus ditzakegu antzezlan bat egiten, auto sakramental batean modura, 1962an herrian egin ziren misioak ospatzeko. Ramón Garde Astarriagak utzitako argazkia.



1938ko otsailaren 11n Nafarroan "Aita Santuaren Eguna" ospatu zen, "Divini Illius Magistri" entziklikaren egilearen, Pio XI.a Aita Santuaren Koroatzearen XVI. urteurrena ospatzen zelako, hain zuzen ere. Francisco Navaridas eta Joaquina Lorda Erratzuko (Baztan) maisuak eta maistrak antzeppen bat antolatu zuten egun horretarako, "San Pedroren kartzela" deiturikoa. Miguel Ángel Navaridasek utzitako argazkia.





jmelcuaz, año 1962. lugar : explanada CASTILLO DE JAVIER - FOTO CEDIDA POR FERNANDO FRAILE
 MICHAELA SANTAMARIA-NIEVES FUERTES-MARI FELI ALFARO-JESÚS SOLA-ANTONIO MUÑOZ-FRANCISCO JAVIER DEL BARRIO-JESÚS BURGUI (CHANI)
 MIGUEL ANGEL LAS NAVAS- FÉLIX GARDE- JOSÉ LUIS MALO- JAVIER MUÑOZ- CONCHITA PELÁEZ- JESÚS PELÁEZ- JULIÁN DEL CARMEN- FERNANDO FRAILE
 JOSÉ ANTONIO MUÑOZ- JULIO ZARDOYA- VÍCTOR MORENO (VITÍN)

Frankismoan zehar urtero Aita Santuaren eguna ospatzeko ohiturarekin jarraitu zuten. Argazkian Alesbeseko ikasleak ikus ditzakegu Xabierreko Gazteluan Aita Santuaren eguna 1962an ospatzen.



Haur Ama Birjinaren prozesioa Murchanten. Historia y Cultura Elkarateak utzitako argazkia.

Maisu-Maistren Elkarte Katolikoak parte-hartzea aktiboa izan zuen Nafarroako irakasleen formakuntzan, batez ere Gerran eta frankismoan zehar.



14.4.4. Maisu-maistrentzako formakuntza erlijiosoko ikastaroak

Frankismo garaian formakuntza erlijiosoaren Administrazioak gehien eskaintzen zuen formakuntza eta, aldi berean, irakasleek gehien eskatzen zutena.

Estatuan gai horren inguruko askotariko ekintzak egin ziren. Elizak Espainiako Irakasle-Lanaren Misioen Formakuntzaren Astea antolatu zuen. Oviedo, Gasteiz, Salamanca, Valladolid, Santander, Valentzia, Santiago de Compostela eta Iruña izan ziren agintari nazionalak aukeratu zituzten egoitzak.

Nafarroan, San Frantzisko Xabierren jaiotzaren IV. Mendeurrena 1952an ospatzen zela eta, Espainiako Irakasle-Lanaren Misioen Formakuntzaren VIII. Astea ospatu zen irailaren 15etik 21era. Espainia osotik 600 maisu, maistra eta ikuskari baino gehiago etorri ziren. Aldundiak gastuak ordaindu zituen, 15.000 pezeta baino gehiago emanaz. Manuel Laguna Hezkuntzako Ikuskari Nagusiaren hitzetan, hitzaldiak erlijiosotasunez beteta zeuden. Ondorengo hauek izan ziren horietako batzuk: *San Francisco Javier y las Obras Misionales Pontificias*, *Rasgos para una pedagogía misional*, *La obra de la Santa Infancia y la Escuela*, *Los heraldos del Evangelio* y *La Cruz o la hoz y el martillo*.

Laburbilduz, garai horretan irakasleen birziklapen espituruala etengabea izan zen, bai Nafarroako Maisu-Maistren Elkarte Katolikoaren eskutik bai erretiro espiritualen bidez ere.

14.5. Formakuntza Aberkoia

Jakina denez, frankismoaren lehenengo urteetan, zentro publiko zein pribatuetan, eskola egun guztietan maisu-maistrek Mugimendu Nazional Lorratsuaren pasarteren bat edo Gurutzadetako pertsonaia adierazgarriren bati buruzko oroitzapenezko lezioa azaldu behar zuten.

Garai horretan eskola-almanakara hainbat festa aberkoi gehitu ziren, esaterako: José Antonioren erailketa (azaroak 20), Eroritako Ikaslearen Eguna (otsailak 9), Tradizioaren Martiriak (martxoak 10), Garaipenaren Eguna (apirilak 10), San Fernandoren eguna (maiatzak 30)... Ospakizun horiek ere eskola egunetan prestatzen ziren.

1945etik aurrera nazional-sindikalismoak sustatutako jarduera guztiak izen bakarrarekin izendatu zituzten, “Formación del Espíritu Nacional” deiturikoa (Espiritu Nazionalaren Formakuntza) eta sexuaren arabera programa ezberdina zuen.

Frente de Juventudes delakoaren Irakaskuntzako Saila zen arduraduna, ikuskariekin batera, eta formakuntza aberkoia kontrolatzen eta gainbegiratzen zuen. Frente de Juventudes delakoa eskoletan egotea 1940ko abenduko Legeak ezarri zuen eta, batez ere, 1945eko Lehen Hezkuntzako Legeak. Lege horretan, “Formación del Espíritu Nacional” delakoarekin lotutako irakaskuntza ezartzen zuen.

Nafarroako Frente de Juventudes-eko Ordezkaritza Probintzialak zentroein programak zein horiek garatzeko jarraibideak ematen zizkien, 1959ko abenduaren 4ko BOEk jasotzen zuen bezala.

“Formación del Espíritu Nacional” delakoa formakuntza teorikoa eta praktikoa zen, Mugimendu Nazionalaren kredoaren azterketa jasotzen baitzuen liburu falangistetan. Aldi berean, jarduera dinamikoagoak ere egin ziren, esaterako: banderak igotzea eta jaistea, ereserki aberkoiak elkarrekin abestea, errenkadatan formatzea eta gimnastika-taulak egitea.

Maisuek eta maistrek Frente de Juventudes-eko ordezkarietarako parte bat bete behar zuten hileroko eta bertan zehatz-mehatz azaltzen zituzten egindako jarduerak: banderarik zegoen zentroan, zein ordutan igotzen zen, Erorien otoitza errezatzen zen, ekitaldi horretan abesten ziren ereserkiak, hilabete horretan ezarritako agindua, Juventudes de Franco delakoaren parte ziren lankideak eta “Horma Irudia” eta “Txandakatze Koadernoak” delakoekin lotutako jarduerak.

Izaera aberkoia eta formakuntzakoia zuen beste ekitaldi bat Iruñean ospatu zen **XLVIII. Orientazio Pedagogikoaren Astea** izan zen. Nafarroako

SEM-ek antolatu zuen 1952ko apirilaren 28tik maiatzaren 4ra eta 1.100 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Horien artean Nafarroako elizako eta hezkuntzako agintari ospetsuenak, bai eta agintari militarrek ere. Landu ziren gaien artean ondorengo hauek azpimarra ditzakegu: “Arima garaikidea eta erlijioa”; “Erljioaren oparotasun pedagogikoa”; “Haurrak kristau-ikasbidera hurbiltzeko moduak”; Maisuaren moral profesionala”; “Eskola eta bizitza”; “Kantua eskolan”; “Eskolako hizkuntza”; Mutualitateak eta aurreikuspeneko eskola-barrutiak”...

Ikasbide eta hitzaldiez gain, zentro ofizialetara zein interes kultural eta artistikoa zuten zentroetara bisitak antolatu ziren, bai eta zinema-sesioak, musika-gauak... ere. Komunikabideek gehien nabarmendu zuten jarduera kulturala ikastaroko ikasleek Xabierreko gaztelura egindako bisita izan zen.

Eskoletan formakuntza aberkoia lantzeko erabiltzen ziren baliabideak askotarikoak ziren. Ondorengo hauek dira horietako batzuk:

14.5.1. Bandera igotzea eta jaistea

Zentro nazional eta ikastetxe guztiak Espainiako bandera igotzera eta jaistera eta *Marcha de Oriamendi* edo *Cara el Sol* abestera behartuta zeuden. Banderak lehentasunezko lekua zuen, ikasgela barruan edo eskola-eraikinean, eta jarrera ona zuen edo oso saiaturia zen ikasleari bandera igotzeko eta jaisteko ohorea ematen zitzaion. Bandera igo eta jaitsi ostean, beharrezko otoitzak egiten ziren eta zentro batzuetan ikasleei sariak emateko ekitaldia egiten zuten. Ekitaldi hori aste edo hiruhileko bakoitzeko lehenengo eskola egunean egiten zen.

Jarduera hori 60ko hamarkada bukaera arte egiten jarraitu zen. Izan ere, 1968ko urriaren 28an Hezkuntzako Batzorde Nagusiak Lehen Hezkuntzako eskola eta ikastetxeetara zirkular bat bidali zien maisu-maistrei gogoraraziz Banderaren Ekitaldia astero edo hiruhilero egiteko betekizuna zutela.

14.5.2. Txandakatze koadernoak

Txandakatze Koadernoak nazional-katolizismoak eta Frente de Juventudes-ek sustatutako metodo pedagogikoa izan zen, ikasleen izaera erlijioso eta aberkoia sendotze aldera. Maisu-maistra guztiek derrigorrez egin behar zuten, eskola nazionaletan zein pribatuetan.

Guztien artean egiten zen koaderno bat zen, ikaslez ikasle txandakatzen zena. Urtero, eskola bakoitzak Frente de Juventudes-eko ordezkarietara bidali



Frente de Juventudes-eko ordezkarrak, 1957ko irailaren 11ko zirkularren bidez, Txandaketa Koadernoan egiteko betekizuna ezarri zuen eskola eta ikastetxeetan. Irudian Tafallako Eskola Nazionalan egindako Txandakatze Koadernoan ikus dezakegu.

behar zituen koaderno horiek. Ordezkaritzan ikuskariek koadernoak aztertu eta lanik onenak saritzen zituzten. Irakasle askoren hitzen arabera, ezarritako sariren bat jasotzeko nahitaezkoa zen koadernoan Frente de Juventudes-eko jarduerak agertzea: banderak igotzea eta jaistea, Gurutzadan eroritakoei omenaldia, abestiak zegozkien hitzekin, gai aberkoiak, asteko aginduak, eskolako ibilaldiak, Heziketa Fisikoko taulak, etab.

Zalantzarik gabe, Txandaketa Koadernoan Espiritu Nazionalaren Formakuntzarekin eta Heziketa Fisikoarekin lotuta irakasle bakoitzak egiten zituen jarduerak Ikuskaritzak eta Frente de Juventudes-ek ezagutzeko baliabide grafiko eta pedagogiko garrantzitsuena izan zen.

Jarduera bakoitza Koadernoan erregistratzen zen, eta lan bakoitza egin zuen ikaslearen izen-abizenak eta sinadura agertzen ziren.

Ikasle guztiak Txandaketa Koadernoan parte hartu behar zuten arren, baina pikarokeria handia zegoen sistema horren inguruan. Ikaslerik onenak aukeratzen ziren eta horrela ikuskaria ez zen jabetuko zentro horretan bazirela euren adinerako eskatzen ziren ezagutzak eta gaitasunak ez zituzten ikasleak.

Frente de Juventudes-ek Carcarreko maisu zen Abundio Cipriáini emandako diploma, Eskolako Horma-Irudian egindako lan bikainarengatik. Abundio Cipriáinek utzitako diploma.




Argazkian Cascanteko bizilagunak ikus ditzakegu Nafarroako Eskola Onenari Sari Probintziala ospatzen, 1965ean Frente de Juventudes-ek herriko eskola nazionalari eman ziona. Cascanteko Eskola Publikoak utzitako argazkia.



Espiritu Nazionalaren eta Heziketa Fisikoaren formakuntzan gehien nabarmentzen ziren maisu-maistrei ematen zitzaizkien sariak nazionalak zein probintzialak ziren. Sarituei, diruaz gain, lekualdatze lehiaketetarako puntu gehigarriak ematen zizkieten.

Frente de Juventudes-arekin lotutako beste jarduera batzuk, eta sariak ere jasotzen zituztenak, Horma-irudiak, Luis María Sobredo Saria eta Eskola Onenari Sariak ziren.



Ideologia politikoaren sustapena ikasleak oso gazte zirela hasten zen. Azkoieneko eskola nazionaltako maisu zen Jaime Sánchez Osések emandako gimnastikako klasea. Alfredo Medranok utzitako argazkia.

Abestiak, gimnastika-taulak, jolasak eta arbelean idazten zituzten aste-roko aginduak formakuntza aberkoia eskoletan sustatzeko erabili ziren beste baliabide batzuk izan ziren.

Eskoletatik, Frente de Juventudes-ekin eta Sección Femenina-ren lankidetzarekin, neska-mutilak Zudaireko eta Montejurrako (Nafarroa), Calatañazor eta Covaladako (Soria), Hondarribia eta Orioko (Gipuzkoa)... udalekuetara bidaltzen zituzten. Horietan ikasleak “geziak”, “pelayoak” eta “kadete” gisa sailkatzen zituzten. *Cara al sol*, *Isabel y Fernando*, *Prietas las filas* eta *Montañas Nevadas* abestiak egunero abesten ziren udalekuetan.

1945eko Lehen Hezkuntzako Legeak 1. Ataleko 6. Artikuluan ondorengo hau esaten zuen hitzez hitz:

Lehen Hezkuntzaren misioa, diziiplina zorrotzaren bidez, espiritu nazional indartsua lortzea eta etorkizuneko belaunaldietako arimetan Aberriaren poztasuna eta harrotasuna txertatzea da, Mugimendu Nazionalaren eta bere erakundeen arauekin bat.

Baina, hala ere, Heziketa Fisikoa bigarren mailako ikasgaitzat hartu zuten irakasleek eta ikasleek. Izaera martziala zuten ariketa-taulen bidez egiten zen soinketa mota hori. Zuzendutako jolasak eta lezio-ipuina ere Heziketa Fisikoko programaren barruan sartzen ziren. Dena den, izaera lehiakorra zuten kirolek zuten garrantzia handiena, esaterako: futbola, eskubaloia edo boleibola. Neskek gimnastika erritmikoa egiten zuten, armonia eta erritmo gehiago zuena eta dantza herrikoietan oinarrituta zegoena.

Frente de Juventudes-eko Buru Probintzialak Nafarroako eskola eta ikastetxeetako zuzendariari gomendatu zien "Mandos" aldizkariari harpidetu zitezten. Bigarren irudian *Boletín Informativo de la Delegación Provincial de Juventudes de Navarra* aldizkaria ikus dezakegu, aldian-aldian zentroetara bidaltzen zutena.



Estatuan ez bezala, Nafarroan José Antonioren irudia ez zegoen orokortuta ikasgeletan. Karlistek gogoz kontra onartu zuten Bateratze Dekretua, 1937an Falangearekin batu zituena, alegia. Gerra amaitu ostean, Falangeak espazio politiko guztia bete zuen. Hori dela eta, falangearen eta erreketen arteko aurkakotasuna eskoletara ere iritsi zen eta zentro batzuetan Falangearen sortzailearen irudia ikasgeletan jartzeari uko egin zioten. Hala ere, Erriberan, José Antonio Primo de Riveraren presentzia orokortuta zegoen.

Aipamen berezia merezi du Historiaren irakaskuntzak, ezer baino lehen Espainiako Historiaren irakasgaia zena. Edukietan Espainia Inperialaren baliokristau eta aberkoien alde borrokatu zuten erregeen, buruzagien eta beselako pertsonaien segida ikasten zen. Batez ere ondorengo egitandi hauekin lotutakoak: Errekonkista, aurkikuntzak eta batez ere Altxamendu Nazionala, "buruzagiaren irudiak Espainiaren kontra zeuden gorrien eta errepublikarren aurkako Espainia handi eta libre baten garaipena" irudikatzen zutenak.

Eduki horiek lantzeko liburuak askotarikoak izan ziren: *Libro de España, España es así, Yo soy español, Así quiero ser, Glorias hispánicas...*, mutilentzak eta *Guirnaldas de la Historia, Agustina de Aragón...* nesKentzat.



Castejongo “Geziak”, “pelayoak” eta “kadeteak” euren familiei agur esan Frente de Juventudes-ek antolatutako udalekuetara joan aurretik. Juan José Sanzek utzitako argazkia.



Cadreitako mutilak OJEko¹²⁷ Montejurrako udalekuetan (Ulzama). 1974. José M^a Goñi Militinok utzitako argazkia.



Frente de Juventudes-en Sotolengoko (Soria) udalekura iristean seiko taldeak antolatzen ziren. Talde bakoitzari kanpin-denda bat esleitzen zitzaion. Argazkian Cadreitako eta Valtierraiko ikasleei esleitutako kanpin-denda ikus dezakegu. 1956.

127. *La Organización Juvenil Española (OJE)* (Espainiako Gazteen Erakundea) 1960an sortu zen. Gazteriaren Ordezkaritza Nazionalaren barruan egon zen, Frente de Juventudes-eko derrigorrezko erakunde ohiak eta *Falanges Juveniles de Franco* hautazkoak barne hartu zutenean. Hautazko izaera zuen erakunde berria izan zen. Mugimendu Nazional Frankistaren zati zen, baina izaera irekiagoa zuen, diktaduraren azken urteetako jarrerarekin bat zetorrena.

1940. eta 1970. urte artean ikasi genuenok, frankismoaren amaieran “bigarren mailako” ikasgaitzat hartzen zirenak ikasi genituen: Erljioa, Heziketa Fisikoa eta Espiritu Nazionalaren Formakuntza. Gimnastikarekin, Heziketa Fisikoa ere deiturikoa, belaunaldi berriei nazionasindikalismoaren balioak buruan sartu nahi zitzaizkien. Argazkian Elizondoko “El Pilar del Sagrado Corazón” Ikastetxeko ikasleak gimnastika-taula bat egiten ikus ditzakegu. Emilia Azcáratek utzitako argazkia. 1956.




Nafarroako Eskola Normaleko Irakasle-Laneko emakumezko ikasleek Gizarte Laguntza egiten zuten Berako edo Leitzako udalekuetan. Elizako Irakasle-Lana ikasten zutenak Iruñeko “San Benito” Sección Femenina-ren (Emakume Sekzioa) Ikastetxean egon ziren. Emakumeei ematen zitzairen diplomak “Gizarte Zerbitzu” izena jasotzen zuen eta derrigorrezkoa zen irakasle-laneko oposaketetan parte hartzeko.



Irakasle-Laneko gizonezko ikasleek udalekuak Montejurran (Nafarroa), Escorialen (Madril) edo Espinos de los Monterosen (Burgos) egiten zituzten. Frente Nacional de Juventudes-ek ezarritako frogak gainditzen bazituzten, “Oinarrizko Irakasle Titulua” jasotzen zuten, irakasle izateko eta oposaketetan parte hartzeko derrigorrezkoa zena.



FORMAKUNTZA ABERKOIRAKO LIBURUAK. 1940- 1970



Neskek ezkontzara bideratutako heziketa jasotzen zuten eta eskolan euren arrea prestatzen zuten ezpainzapiak eta eskuoihalak brodatuz, galtzerdiak konponduz, botoiak edo oihal-zuloak josiz... Baina, batez ere, inposaketaren bidez hezitzen zituzten, Adela Ripa maisuak egiten zuen bezala, esaterako. Neskak heldutzeko eta mundua ezagutzeko grina sustatzeko erabiltzen zituzten inposaketa horiek. Argazkian Cascanteko eskola nazionaltako nesken ikasgela ikus dezakegu “Proyecta, Comunicación y Marketing” enpresak utzitako argazkia.



14.6. Hezkuntza berezitua. Segregaziotik hezkidetzara

XX. mende hasieran mutilak eta neska zentro ezberdinetara joaten ziren, eta horietan euren hezkuntza ikuspegi ezberdinetatik bideratzen zen. 1901eko Ikasketa Plan berria bera zen bai neskentzat zein mutilentzat, baina neskek oraindik ere ordu asko eskaintzen zizkieten joste-lanei.

Errepublikara garaian hezkidetzara ezarri zen zentroetan (osotasunean aplikatu ez zen arren) eta bi sexuentzako hezkuntza-proiektu bera prestatu zen. Frankismoa iristean, hezkidetzara debekatzea izan zen hartu zen lehenengo hezkuntza-neurria..

1936ko uztailaren 27an, Aldundiak gurutzea eskoletan berriro jartzeko dekretua atera zuen eta 5. artikuluan ondorengo hau esaten zuen:

“Eskoletan hezkidetzara debekatzen da, eskola mistoetan izan ezik. Debekua ere helduentzako eskoletara zabaltzen da eta horietara soilik gizonezkoak joan ahal dira”.

Hala, soilik arrazoi ekonomikoengatik baimentzen zen eskola mistoetan neskak eta mutilak elkarrekin egotea baina, noski, jolasetan, ariketa fisikoetan eta eskola-edukietan mugak jarritz.

Franco generalaren erregimen berriak berehala ezabatu zuen hezkidetzara moralaren eta ohitura onen kontrakoa zelako eta “emakumezkoaren berezko



Joste-lanak egiten zituzten bitartean, maistra batzuk, eskolako irakaskuntzak indartze aldera, neskei biderketa taulak, ibaiak, mendiak, otoitzak... ahopeka kantatzera behartzen zituzten. Biribilean esertzen ziren, estufaren aurrean. Cadreitako Eskola-Museoa.

lanak eta betebeharrak barregarri uzten zituelako”. Erregimenaren arabera, Jainkoak eta naturak emakumeari patu zoragarria eta lan garrantzitsua esleitu zioten: “Ama izatea, etxea aurrera ateratzea, seme-alabak zaintzea eta senarrari men egitea”. Katolizismo atzerakoiaren oinarri pedagogikoak gailendu ziren eta Sección Femenina-k, Falangearen besoa, publikoki berrestu zuen emakumea naturalki gutxiago zela eta gizonari erabateko mendetasuna zor ziola.

Testuinguru horretan, nesken hezkuntza mutilen hezkuntzatik ezberdina zen eta Erregimenak emakumeari ematen zion eredu soziala errepikatuz bideratuta zegoen.

Orain dela mende askok, Fray Luis de Leonek “La Perfecta Casada” bere obran (Emazte Perfektua) Espainiako emakumearen irudia eta rol “naturalak” deskribatzen zituen. Bere hitzen arabera emakumea otzana, ahula eta senarrarekiko mendekoa zen eta etxetik kanpoko edozein parte hartzetik kanpo zegoen::

“Naturak ez zuen emakumezkoa zientziak ikasteko ona egin... soilik ogibide soil baterako prestatu zuen. Horregatik, adimena mugatu zion...”

Hori zen iraganean Espainiako emakumeei buruz zegoen iritzia, Errepublikak, eskoletako hezkidetzarekin, ezabatu nahi izan zuena.

Beraz, Sección Femenina-k eta Acción Católica-k (Ekintza Katolikoa) eraiki zuten emakumearentzako hezkuntza sistema eta eredia, naturak eman zion paperari jarraiki. Pilar Primo de Riverak ondorengo hau esaten zuen (1940):

“Emakumeak ez du inoiz ezer aurkitzen, sortzaile gaitasuna gizonentzat gorde du Jainkoak. Guk gizonak egiten dutena nola edo hala interpretatzea besterik ez dugu”.

1941eko urrian, Heziketa Fisikoko eta Politikoko irakasgaiak emateko betekizuna ezarri zen eta etxeko-lanetako irakasgai guztiak bateratu ziren, Lehen zein Bigarren Hezkuntzako eskoletan “Etxea” izen orokorraren pean. Irakasgai horrek etxeko ekonomiako, joste-lanetako, eskulanetako, sukaldeko eta musikako oinarritzko ezagutzak barne hartzen zituen.

1945eko Lehen Hezkuntzako Legeak indarreko arauak berrestu zituen: “Emakumezkoen lehen hezkuntza etxeko bizitzarako eta artisautzarako prestatuta dago”, eta 20. artikuluan esaten zuen:

Haur eskolak eta eskola mistoak beti maistren esku egongo dira. Hala ere, salbuespen gisa, eskola horien ardura ezkonduetako maisuek har dezakete euren emazteak etxeko eta joste-lanen irakaskuntza femeninoaz arduratu ahal badira.

Mutilen eta nesken arteko desberdintasuna errealitate nabaria zen. Izaera maskulinoaren lehentasuna eta nesken arteko material berezituaren argitalpenak derrigorrezkoak ziren eskola guztietan. Eskola-eraikinetan nesken eta mutilen ikasgelak bereizten zituen plakak zeuden. Jolastokira joatea, errenkada egitea, mezetara joatea eta bestelako jarduerak bereiztuta egiten zituzten.

Ondorioz, mutilen eta nesken arteko hezkuntza berezituaren inguruko liburuak eta materialak argitaratu ziren. Eduki berezituaren arabera, gizonak adimentsuak, indartsuak, oldarkorrak eta dinamikoak ziren. Emakumeak aldiz, otzanak eta ahulak. Garaiko liburu eta entziklopedietan hamaika familia eta eskola-irudi ikus daitezke, eta horietan mutilak ikasten, irakurtzen edo kirola egiten ikus ditzakegu eta neskek brodatzen edo etxeko lanak egiten.

1970eko Hezkuntza Lege Orokorra argitaratu ostean, eskolak eta ikas-tetxeak zentro mistoak bilakatzen hasi ziren eta emakumeentzako bereziki ziren ikasgai horiek curriculumenetik desagertzen hasi ziren.

Garai horretan, nesken eta mutilen jolasen artean ere ezberdintasunak egon ziren. Orokorrean, mutilek futboleak, “astoan”, ziban, uztaian, frontoian, errekan, lau ertzetan... jolasten zuten.



Mutilen eta nesken arteko banaketa zorrotasun handiz egin zen eskoletan, elizan, jolasetan... Argazkian nesken eta mutilen jolastokien arteko banaketa-horma ikus dezakegu Faltzeseko eskola nazionalan. Mutilak ate batetik eta neskek beste batetik sartzen ziren, Erregimeneko agintariek ezartzen zuten bezala. Fernando Mendívilek utzitako argazkia.



Tortolasetan modu ezberdinetara jolasten zen herriaren arabera: "Zapatero remindón", "Pasa pasa Nicolasa", "Barro, la sala", tortolasak airean, tortolasak pelotarekin...

Neskek, oro har, tortolasetan, yo-yora, ikusi makusira, soka saltora, lau ertzetan, panpinekin... jolasten zuten. Horietako jolas askok euren kantak ere bazituzten: *Al cocherito leré, Dónde vas Alfonso XII, Al pasar la barca, Dónde están las llaves, Mambrú se fue a la guerra, Dónde está mi cojita, El nombre de María, Soy la reina de los mares...*

Neurri txikiagoan, neskek eta mutilek zenbait jolas partekatzen zituzten. Ezagunenak zapiaren jolasa, harrapaketa, Anton Pirulero, ezkutaketa edo "medikuetara" jolastea... ziren..



TBO-a garai horretako aldizkari oso ospetsua izan zen. Mutilek zein neskek erosten zuten.



Mutilen komikia



Nesken komikia.

Mutilak oso ekologikoak ez ziren eta, baita etikoki okerrak ere ziren jolasetan ibiltzen ginen batez ere landa eremuetan: kabiak hartzea joatea, errekan zopak egitea, harrapakagailuak gelditzea, baratzetatik fruituak lapurtzea, ibaian bainatzea, igelak harrapatzea...

Neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zutenean ez zuten soilik ongi pasatzen, baizik eta euren izaeraren garapenarekin estuki lotuta zegoen jarduera bat aurrera eramaten zuten. Umeen jolasak gure kulturaren zati dira. Hala ere, gure jendaratean eman diren aldaketa sakonek ia desagerrarazi dituzten jolas mota horiek.

Komikiak ere tradizio handiko dibertimentua ziren. Neskei bideratuta zeudenak bertutean eta ezkontzan ordainsaria zituzten bizimoduak irudikatzen zituzten: *Azucena*, *Florita*, *Chupita*, *Ardillita*, *Las Tres Hadas*, *Lolita*, *Mariló* edo *Sissí* izan ziren ospetsuenak.

Aldiz, mutilentzako komikiek Erregimenak ezarritako jarraibideak irudikatzen zituzten. Hau da, gizonak espainiarrak eta, batez ere, kristauak izan behar ziren. Indarra, adorea, trebetasuna eta garaipena ziren komiki horiek jasotzen zituzten balioak, esaterako: *Roberto Alcázar y Pedrín*, *Guerrero del Antifaz*, *Capitán Trueno*, *Jabato*, *Pequeño Luchador*, *El Cachorro eta Hazañas Bélicas*. *TBO*, *Jaimito*, *Pulgarcito* bezalako aldizkariak ere irakurtzen ziren, bai eta ipuin klasikoak ere, Andersen edo Grimm anaienak esaterako. Bildumazaletasuna gure aisialdiko zati garrantzitsu bat zen. Komikiak eta kromoak¹²⁸ batez ere biltzen eta trukatzeko ziren.

128. Kromoak merkeak ziren eta askotariko gaitakoak. Jolasik ohikoena multzo batean alderantziz jartzea eta esku ahurrekin buelta ematen saiatzea zen. Buelta emandako horiek irabazten zenituen.




Eskola ratioa oso baxua zenean, eskola batzuk "misto" izatera pasatzen ziren. Eskola horiek maistra baten ardurapean egoten ziren, baina 1952ko apirilaren 4ko Ministro-Aginduaren ostean, udal eta kontzejuei maisu edo maistra bat proposatzeko aukera eman zitzaien. Argazkian Aritzuko (Anue) eskola mistoko ikasleak ikus ditzakegu Hermenegildo Alejaldre maisuarekin. 1956. Mikelezek utzitako argazkia.



Arguedaseko "Hijas de La Cruz" ikastetxeko neskek "Patio de mi casa" kanta abesten. Argazkian mojen ikastetxeko jolastokia ikus daiteke. 1952. Udalak utzitako argazkia.

MUTILENTZAKO ETA NESKENTZAKO
LIBURUAK. 1940- 1970



14.7. Elikaduraren Eskola-Zerbitzua eta Eskola-Zerbitzu Medikua

Elikaduraren eskola-zerbitzua 1954ko urriaren Ministro-Aginduaren bidez osatu zen (abenduarien 3an BOEn) ondorengo helburu honekin:

Berez edo estatuko zein erakunde pribatuekin batera, eskoletako orientabide dietetikoan laguntzea, berau antolatzea, banatzea eta beharrezko baliabideak eskaintzea Eskola-Zentroetan Elikadura Osagarria ezartzeko eta horren erregistroa eta jardueren estatistika egiteko.

Zerbitzu hori 1945eko Lehen Hezkuntzako Legearen 47. artikuluan jasota zegoen, ikasleen elikadurari erreferentzia egiten ziona.

Hezkuntza Ministerio Nazionalaren menpe zegoen, Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorraren bidez. Madrilen zuen egoitza nagusia eta probintzia guztietan ordezkariak zituen.

Nafarroan Manuel Laguna Hezkuntzako ikuskaria izan zen ordezkaria eta Probintziako Kontseilu Teknikoaren laguntza jaso zuen. Kontseilu horretako burua Laguna bera zen eta José Viñés Nafarroako Osasuneko burua eta Julio Asiain diputatua izan ziren batzordekideak. Kontseiluak emandako jarraibideak Ordezkaritza Probintzialaren bidez eraman ziren aurrera. Sei ataletan zegoen banatuta ordezkariak hori: “Elikaduraren heziketa”, “Elikadura-osagarria”, “Eskolako jantokiak”, “Eskolako baratzak”, “Eskolako landetxeak” eta “Eskolako Kluba”.

Saila bakoitzaren zuzendaritzan Lehen Hezkuntzako ikuskari bana zegoen. Rafael Gurrea Indurain, Elikaduran diplomatua, zen programaren beteazale nagusia.

Gehien zabaldu ziren programak “Elikadura-osagarria” eta “Eskolako jantokiak” izan ziren.

Lehenengoari dagokionez, aipagarria da Nafarroako ikasleen artean izan zuen eragina, izan ere Estatu Batuek emandako esne-hautsa, gazta eta gurin gazia jateko aukera izan baitzuten.

1954 eta 1963 urte artean Ameriketako Estatu Batuek, esnekietan zuten soberakinak aprobetxatze aldera, azpigaratutako herrialdeekin eta amerikarren lagunak ziren herrialdeekin hitzarmen bat ezarri zuten urte horietan zehar esne-hautsa, gurin gazia eta gazta emateko.

Programa Ameriketako Caritasen bidez bideratzen zen, Espainiako Caritasen lankidetzan. Erregimenak ez zuen uste amerikarren laguntza ongintza obra bat zenik, baizik eta izaera pedagogikoaren, sozialarekin eta hezkuntzarekin lotutako programa gisa.



Eskola-Elikadurako Zerbitzuak (S.E.A.) Iruñeko eta Tuterako biltegi probintzialetan gordetzen zuen Elikadura-Osagarria. Argazkian Iruñeko “Vázquez de Mella” Eskola Nazionalaletako biltegi probintziala ikus dezakegu, Teobaldo kaleko 13. zenbakian. Elikadura-osagarriaren banaketa Javier Arbeloa maisuaren esku zegoen, elikaduran diplomatua zena.



San Frantziskoko Udal Eskoletako laguntzaileak eta maistrak esne-hautsa prestatzen. Atzean, ezkerretik, zentroko maisu eta maistra bakoitzarentzako esneontziak ikus ditzakegu.

Neurri horrek eskola nazionalaletan, udal eskoletan eta zenbait ikastetxe pribatutan izan zuten eragina.

Nafarroan, Manuel Laguna, Aurora Medina, León Minondo eta Julio Gurpegui bezalako ikuskariak, eskoletara bidaltzen zituzten zirkularren bidez eta baita Hezkuntzako Aldizkarian argitaratzen zituzten artikuluen bidez ere, Estatu Batuek herri txiroekiko erakusten zuten handitasuna eta eskuzabaltasuna azaltzen zuten. Gainera, “elikadura-osagarri” zeritzotenaren (esne-hautsa, gurina eta gazta) elikadura ontasunak goraiatzeko zituzten.

Eskola-Elikadura Zerbitzuaren arauak oso zorrotzak izan ziren eta ikuskariek aldi-aldi gainbegiratzen zituzten. Aipaturiko “osagarriaren” jasoketa udalei zegokion, eskola bakoitzean zegoen maisu-arduradunaren baimenarekin. Maisu edo maistra horrek Eskola-Elikadura Zerbitzutik jarraibide zehatzak jasotzen zituen elikagaiak gordetzeko eta banatzeko moduaren inguruan eta zehatz-mehatz idazten zuen egunero erabilitako kantitateak gero, hilero, txosten bat egin ahal izateko. Era berean, arduraduna zen maisu-maistra bakoitzak egunero osagarri hori jasotzen zuten ikasleen zerrenda bat zuten. Hiruhilean behin, Ordezkaritzara onuradun izan ziren ikasleen zerrenda bidaltzen zuten eta bertan ikasleen pisua, neurria, perimetro torazikoa eta onuradunen haztearekin lotutako beste edozein datu idazten zituzten.



Tuterako "Elvira España" Eskola-Multzoko Tokiko Batzordea, maisu eta maistrekin batera, esnearen banaketa ikuskatzen. 1955. S.I.E.

Hauts-esneko kartoizko bidoiek 110 kiloko pisua zuten eta Iruñeko eta Tuterako biltegi probintzialetan jasotzen ziren. Elikadura-osagarri hori 27.000 haurrek jasotzen zuten egunero.

Bederatzi litro ur epel bakoitzeko kilo bat esne-hauts jartzen zen. Ez zen beharrezkoa ura irakiten egotea, esnea jada esterilizatua zegoelako. Ikasle bakoitzak prestatutako esne horren litro laurdena jasotzen zuen, 30 gramo gazta eta 10 gramo gurin gazi.

1963an, Iruñean esnea litro laurdeneko banakako botiletan hasi ziren banatzen, Copelechek prestatutakoa.

Esnea jolas-orduan edo arratsaldean banatzen zen. Prestaketa benetako erritua zen: maisu-maistrak su txiki elektriko baten gainean zegoen urez betetako lapiko erraldoi batean botatzen zituen hautsak eta makil batekin bueltak ematen zizkion pikorrak desagertzen ziren arte. Paparra ateratzen zenean hasten zen maisu-maistra esnea banatzen.

1954tik 1960ra arte Nafarroan banatu ziren Elikadura-osagarriaren kantitateak hauek izan ziren: 614.094 kg esne-hauts; 200.313,60kg gazta eta 10.983,40 kg gurin gazi. Elikadura-osagarriak harrera ona izan zuen eta 1955ean onuradun ziren 832 haurretatik 38.529 umera pasa zen 1956an.

Iruñeko "Federico Mayo" Eskola-
Multzoa.



Funeseko eskola nazionaltako
neskak jolas-orduan esnea
prestatzen eta banatzen. Ana M^{re}
Los Arcosek utzitako argazkia. 1963.



Iruñeko "María Auxiliadora"
Ikastetxea. 1956.





Argazkian Iruñeko “Federico Mayo” Eskola Nazionalerako jantokia ikus dezakegu. Jantoki horretan 300 ikasle bazkaltzen zuten eta amerikarren esne-hautsa esne botilatxoengatik ordezkatu zuten Nafarroako lehenengoa izan zen. Botilatxo bakoitzak litro laurden esne zuen eta 1,60 pezeta kostua. Ikasleak pezeta bat ordaintzen zuten eta falta zen zenbatekoa Estatuak. “Federico Mayo” eskola-multzoa 1957an ireki zen Txantreako auzoan. Zentroko zuzendaririk ospetsuenak Enrique Goicoa (mutilen atalerako) eta Mercedes Iribarren (nesken atalerako) izan ziren. Auzoko hezkuntza eskaintza Magdalenako Udal Eskolek (1928), “Mariana Sanz” Eskola-Multzoak (1963), “Madres Canosianas” Ikastetxeak, (1962), “Madres Salesianas” Ikastetxeak (1955), “Don Benito” Frente de Juventudes-eko Ikastetxeak (1957) eta Madres Jesuitinas” (1965) ikastetxeak osatzen zuten. A.M.P.”

Amerikarrek emandako gizarte laguntza eskertzeko, Nafarroako ikasleek album bat egiten zuten New Yorkeko estatura bidaltzeko. Nafarroako tradizio eta jaien argazkiak eta marrazkiak jaso ziren album horretan. Beste eskuza-baltasun keinu bat 1954an izandako uholde ikaragarrien ostean Ameriketako haurrei laguntzeko emandako 9.676,90 pezeta izan ziren.

Lehen Hezkuntzako Tokiko Batzordea alkateak, zinegotziak, maisuak, aita batek eta apaizak osatzen zuten. Horiek arduratzen ziren, ikuskariekin batera, maisu-maistren lana zaintzeaz.

Eskolako jantokiei dagokienez, aurretik Eskola-Kantinak izena zutenak, XX. mendean sortu ziren eta Estatuak arautu eta suspertu beharreko lantzat jo zen 1908ko otsailaren 7ko Errege-Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Hasieran, Eskola-Kantinek sorospen funtzioa zuten batez ere. Eskoletako matrikulazio suspertzeko bide bat izan zen, batez ere arrazoi ekonomikoak, familia arrazoiak edo distantziarekin lotutako arrazoiak zirela eta, eta laguntza hori jaso ezean, eskolara joango ez ziren haurren matrikulazioa suspertzeko.

1934an, Iruñeko Udal Aurrezki Kutxak Eskola-Kantinak diruz lagundu zituen, udalekin eta Aldundiarekin batera. Horien artean, Cintruénigoko Eskola-Kantina aipagarria da, mutilen eskolako zuzendari zen Toribio Lainez

Iruñeko udalak goseari aurre egiteko eta, aldi berean, eskola-absentismoarekin bukatzeko erabili zuen baliabide bat Eskolako Kantinak izan ziren. Kantinean doako janaria eskaintzen zitzairen ikasleak eskolara joaten baziren.

Gastuei aurre egiteko, “Rifa del Cuto” delakoa (txerriaren zozketa) egiten zen eta horretarako neska-mutilek txartelak saltzen zituzten.

Argazkian 1927-28 ikasturtean agintariak ikus ditzakegu Eskolako Kantinak inauguratzen, San Frantzisko Eskoletako areto nagusian. A.M.P.



Gil eta Petra Ayensa bere emazteak kudeatzen zutena¹²⁹. Jantoki hori doakoa zen eta egunero arazo ekonomikoak zituzten familietako 20 haur bertaratzen ziren.

Frankismoan zehar Eskolako Jantokiak hezkuntza izaera hartu zuen. Estatuak eskola-jantokien araudia, Eskola-Elikadura zerbitzua, Elikaduran Hezitzeko Plana zentroetan ezartzea eta jantoki “Pilotuak” probintzia guztietan ezartzea¹³⁰. Erregimenak jarduera horiei eman nahiz zien izaera sozialaren eta hezkuntza izaeraren adierazleak dira. 1965ean, Nafarroako 1.300 ikaslek, doan, jantoki horien onuradun izan zen bost edo sei hilabetez.

Eskola-Mediku Zerbitzua edo Osasun-Laguntza eskoletan zegoen beste zerbitzu bat izan zen. Medikuek beti egon dira eskolarekin lotuta, Tokiko Batzordeetako kide baitziren. Izurriteak egoten zirenean, eskolak ixten zituzten.

Frankismoan zehar, Iruñeko udalak Eskola-Mediku Zerbitzua San Frantziskoko eskoletan martxan jarri zuen 50ko hamarkada erdialdean. Aurrerago, 70ko hamarkadan, zentro bakoitzari mediku-talde bat esleitu zitzaion.

129. *Cuatro esquinas* aldizkaria, Francisco Alvero Francésen artikulua.

130. 1958an, Iruñeko “Victor Pradera” Eskola-Multzoak lehenengo jantoki “Pilotua” ezarri zuen Nafarroan.



Iruñeko San Franzisko Ikastetxe Publikoak utzitako Osasun Liburuxka.

Mediku-miaketan pisua, neurria, neurri antropometrikoak, itxura fisikoa senideengandik etor zitezkeen gaixotasunak, txertoak eta erradiografiak aztertzen ziren, ikasgeletara bisitak egiten ziren... Osasunaren inguruko datu horiekin, Aurrezki Kutxa Probintzialak sustatzen zituen udalekuetara joango ziren neskak eta mutilak aukeratzen ziren. Euren aurrekari klinikoan arabera, mendira edo itsasora bidaltzen zituzten

Eskolako Osasun eta Higiene Zerbitzuek, 1978ko abuztuaren 25eko Dekretuaren arabera, ondorengo helburu hauek zituzten:

aldizkako azterketa medikuak ikasleei eta irakasleei egitea: eskolan osasun-arloko heziketa ematea, ikasleei, zein guraso eta maisu-maistrei; eskola inguruko osasun baldintza eta baldintza higienekoak, elikadura eta Heziketa Fisikoa aztertzea eta horiek zuzentzeko proposamenak egitea; eskolaren eman zitezkeen gaixotasunen prebentzioa egitea.

Nafarroako Foru Aldundiak 1980eko urriaren 30ean sortu zuen Eskolako Medikuntza eta Higienarako Saila, Nafarroako Osasun Institutuaren barruan zegoena. Zerbitzu hori hasiera batean Iruñean hasi zen lanean, baina gero probintzia osora zabaldu zen. Landa-eremuetan herriko mediku titularraren esku zegoen zerbitzua eta herri handietan udalak zerbitzu medikua kontratatzen zuen. Gauza bera gertatzen zen ikastetxe pribatuetan. Iruñean, lan hori egiten zuten langile finkoak zeuden.

14.8. Mutualitateak eta Aurreikuspeneko Eskola-Barrutiak

Eskola-Mutualitateak xx. mendean sortu ziren. Gacetan 1911ko uztailaren 14an argitaratutako Errege Dekretuaren bidez, eskola-aurrezpenaren sistemarako oinarriak finkatu ziren. 1911ko maiatzaren 11ko Errege Arauak berau arautzen zuen Araudia onartu zuen.

Gazteei zuzenduta zeuden mutualitateak, eskolan ikasten hasi eta 25 urte betetzen zituzten arte luzatzen zireneak. II. Errepublikan zehar mantendu ziren eta Frankismoan sustatu. Horren adibide da 1945eko Lehen Hezkuntzako Legeak 46. artikuluan esaten duena:

Eskola-Mutualitatea derrigorrezkoa da eta Estatuak, aurreikuspeneko erakunde berezien bidez, haurrentzako doteak, erretiroko pentsioak eta eskola-barrutiak sustatuko ditu.

Mutualitateak ikasleentzako aurrezpen-sistemak izan ziren. Eskola-Barrutira lotuta zeuden eta irakasleek txertatzen zituzten Aurreikuspeneko Institutu Nazionalaren bidez. 25 urte bete ostean, interes bereziki, eskolan eta gaztaroan aurreztutako dirua berreskuratu zitekeen edo zahartzarorako erretiro-pentsio bat sortu.

Nafarroan, Eskola-Mutualitateak xx. mendean abiarazi ziren. 1917an Lizarran “El Oratorio” izeneko mutualitatea zegoen; 1919an Lerin, Igantzi eta Satrustegikoak sortu ziren, eta 1921ean, Aste Mutualista ospatu zela eta, Iruñeko Mutualitateak sortu ziren: “Virgen del Camino”, “Ansoleaga”, “Jesús y María” eta “Santa M^a la Real”.

Zenbait mutualitatek funtzionatzeari utzi zioten Gerra Zibilean eta gerraostean, baina frankismoan berriro abiarazi ziren. 50ko hamarkadan Etxarri, Funes, Elizondo, Santakara, Zangoza, Alesbes, Tafalla, Nabaskoze eta Lizarrako mutualitateak sortu ziren. Horietako batzuk gorenara jo zuten sortu eta urte askotara, Altsasuko “Santa Cruz” mutualitatearen kasuan bezala, Enrique Goicoa maisuaren lan bikaina 1950ean Administrazioak saritu zuenean. Antzeko garrantzia izan zuen “Virgen del Camino” mutualitateak, San Frantziskoko Udal Eskoletako Amparo Toro maistrak kudeatzen zuena 1954an.

Hala ere, Aurrezki Kutxen gorakadak eta Gizarte Segurantzaren ezarpenak mutualitateen gainbehera eta desagerpena ekarri zuten.

Eskola-Barrutia izaera sozialeko beste erakunde bat izan zen, Eskola-Mutualitatearen osagarri izateko pentsatutakoa. Eskolara lotutako jardue-

ra kooperatiboa horien helburua ikasleentzako edo eskolarako baliabideak lortzea eta hezkuntzako helburu zehatz batzuk lortzen laguntzea.

Irabazi ekonomikoak horrela banatzen ziren: %30 haurrentzako dote-entzat, kopuru bera gaixotasun, kantina eta eskola-jantzitegiko gastuentzat, %25 maisu edo maistrarentzat eta gainerakoa Barrutiko Gobernu Batzordeak erabakitzen zuen helburuentzat.

Nafarroan batez ere nekazaritza-barrutiak, hegazti-barrutiak eta erlezaintza-barrutiak antolatu ziren. Horiek lantzeko eremuak herriarenak, familiaren batek emandakoak edo eskolaren ondokoak ziren.

Barrutien hedapena, antolatzeko zailagoak zirenez, mutualitateena baino txikiagoa izan zen. Hori dela eta, ez ziren espero ziren onura guztiak lortu. Hala ere, une oso onak izan zituzten, Germán Solak sortutako Etxarri Aranatzeko "San Isidro" barrutiak 1954an sari bat jaso zuenean adibidez.

Frankismoan Eskola-Asegurua sortu zen eta, aldi berean, ikasleentzako mutualitateen prestazioak handitu ziren.


Ikasle bakoitzak Aurrezki-Txartel bat zuen, mutualistek emandako laguntza txikiekin, sortutako interesekin eta Barrutiak emandako etekinekin kopuruz handitzen joaten zena.

Pilatutako diru guztiarekin Zuzendaritza Batzordeak gainbegiratzeko funts komuna sortzen zen, eta funts horren kudeaketaren eta administrazioaren arduraduna Aurreikuspeneko Institutu Nazionala zen. Irakasleak kutxa-liburu edo Kutxa-koaderno bat zuen eta bertan funtsetan egondako sarrerak eta irteerak erregistratzen zituen.

Sortu zirenetik eta 1962an desagertu zen arte, Administrazioa Mutualitateak eta Eskola-Barrutiak sustatzen saiatu zen, bai formakuntza ikastaroen bidez zein parte hartzaileak sarituz.

1921eko maiatzaren 21etik 25era Iruñean ospatutako Aste Mutualista Nafarroako Ikuskaritzak Eskola-Mutualitateen inguruan antolatu zuen lehenengo formakuntza ekimena izan zen. Nafarroa osoko maisuek eta maistrek parte hartu zuten eta, ondoren, euren eskoletako mutualitateak diseinatu, antolatu eta kudeatu zituzten. Ekimen horrek oso harrera ona izan zuen zenbait udalerritan, Azkoienen esaterako. Bertako udalak zilarrezko domina eman zien herriko lau maisuri

Herrian Eskola-Mutualitatea ezartzeagatik sari gisa. Derrigorrezko izan baino lehen ere haiek ezarri zutelako eta herrian aurrezteko eta aurreikuspeneko espiritua sustatu zutelako. Azkoien, 1921eko ekainaren 16a.



“Nekazaritza-modalitateko Hastapen Profesionaleko Ikastaroko” txostengileak eta irakasleak. 1954. Argazkia Maisuen Eskola Normal ohiaren patioan atera zen. A.A.N. utzitako argazkia.



1921ean, Valtierran, Irakaskuntzako Tokiko Batzordeak Domingo García maisua zoriondu zuen herrian Aurreikuspenaren eta Aurrezpenaren Festa antolatzeagatik.

Aurrerago, 1927ko maiatzaren 23ko Errege Arauaren bidez, Ministerioak “Maisu-maistrentzako erlezaintzari buruzko hobetze ikastaroa” antolatu zuen. Miraflores de la Sierran (Madril) izan zen, 1927ko ekainaren 4tik 12ra. Hainbat probintziatako maisu eta maistrak joan ziren, batez ere Eskola-Barrutietako arduradunak Nafarroatik Francisco Navaridas joan zen, Ekai-Zuhatzuko Mutualitateko eta Erlezaintzako Eskola-Barrutiko zuzendaria. Ikastaroa amaitzean, parte hartzaileek ikasitakoa euren probintzietan erakusteko konpromisoa hartu zuten.

Frankismoan zehar, Iruña **Nekazaritza-modalitateko Hastapen Ikastaro Profesionala** antolatu zen 1954ko irailaren 5etik 25era. Parte hartzaileak Mutualitateetako eta Eskola-Barrutiko arduradunak zein hastapen profesionaleko maisuak izan ziren. Antolakuntza Ikuskaritzaren esku egon zen, Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren eta Nafarroako Eskola Normalen laguntzarekin. Daniel Nagore, Leoncio Urabayen, Amparo Toro, Justo Labiano, Julia Troncoso eta Manuel Laguna izan ziren ikastaroko txostengileetako batzuk.



Francisco Navaridasek emandako erlezaintza ikastaroa, Ekai-Zuhatzuko esperimantazio-esparruan. Argazkian Arraiza jauna, Aldundiko lehendakari ordea, ikus dezakegu Erlezaintzako Eskola-Barrutia gainbegiratzen, tokiko eta probintziako agintariekin batera. Agustín Navaridasek utzitako argazkia, 1927.



Altsasuko “Domingo Lumbier” eskola nazionalako mutilen ikasgela. Enrique Goicoa zen ikasgela horretako maisua. Atzean, Eskola-Mutualitatearekin lotutako materiala gordetzeko armairua dago eta, eskuinaldean, jaiotza¹³¹.

131. D. Enrique Goicoa Arillak (Aribe 1908 - Iruña 1991). 1977ko urrian “José Vila” Eskola-Multzoko zuzendaritza utzi eta erretiratu zen. Irakaskuntzari eskaini zion bere bizi osoa. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak emandako lehenengo “Eskertza Boza” berari eman zion. Ondoren, beste hemezortzi “boz” jaso zituen. Jasotako sarien artean Zuzendari Agurgarriaren Sari Nazionala eta Liburutegien Sari Nazionala egon ziren. 17 urtez egon zen Altsasun irakasten, Haroko (Logroño) Eskola Graduatuetaiko zuzendari izendatu zuten arte.



Erriberriko maisu-maistren etxea.
1950



Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an Erriberriin 160 ikasle zituen mutilen eskola bat zegoen eta nesken beste eskola bat, 52 ikaslerekin. Ehun urte beranduago, eskola-multzo bat eta maisu eta maistrentzako etxebizitzak eraiki ziren. “Don Carlos Berdún” Eskola Nazionalen inaugurazioa 1948ko irailaren 12an izan zen. 1980an eskola zaharrak itxi ziren eta ikasleak Erriberriko “Principe de Viana” Eskualdeko Ikastetxe Publikora joan ziren ikastera. Ikastetxe horretara Erriberriko, Beireko Murillo del Cuendeko eta Traibuenaseko ikasleak joan ziren. Herriko irakaskuntza pribatua “San Francisco Javier” Eskola Katolikoaren esku zegoen, Justo Garranek ordaindutakoa (1933-1950); Aita Frantziskotarren esku (1950-1966); “Santo Ángel de la Guarda” Ikastetxearen esku (1955-1968) eta Olite, Beire, Murillo del Cuende y Traibuenaseko ikasleak jaso zituena, “Milagrosa de las Hermanas de la Caridad de San Vicente Paúl” Ikastetxearen esku (1889-1980). 1981ean, eskola zaharren eraikinean Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Estazioaren (EVENA) instalazioak hartu zituzten. Egun, askotan eraberritu ostean, Erretiratuen Zentroa, Correoseko Bulegoa eta García Leoz Musika Eskola daude bertan¹³².

Esperanza Lerga, Erriberriko maistra eta “Niño Jesús” Eskola-Mutualitateko laguntzailea.
1957.



132. Don Carlos Berdún Erriberriko maisurik nabarmenetariko bat izan zen. Herrira 1882an iritsi zen eta 1927ra arte bertan egon zen. Udalak bere lana eskertu zuen bere etxean beti bizitzeko baimena emanaz. Eskola-Multzo berriak bere izena jaso zuen.



Julián Taberero eta Jesús Taberero maisuek Erriberriko Coto Escolar mutualitatea bultzatu zuten. Don Jesús 1957an Erriberriko “Niño Jesús” Eskola-Mutualitateko fundatzailea eta zuzendaria izan zen. Montse Tabereroek utzitako argazkia.



XIX. mendearen hasieran, Etxarri-Aranatzen mutilen eskola bat zegoen udaleko eraikin batean. Bertan 30 mutilek ikasten zuten. 1921ean Eskola herriko enparantzara mugitu zen, Udaletxearen ezkerraldera zehazki. 1965eko urriaren 3an Eskola Nazionalak eta maisu-maistrentzako etxebizitzak inauguratu ziren. Eskola-multzoko berriak sei ikasgela zituen, mutilentzako hiru eta neskentzako beste hiru. Haur eskola Sorkunde Garbiaren erlijiosoen esku zegoen. Eskoletan 148 mutilek eta 164 neskek ikasten zuten eta eskualdeko ikasleak barne hartzen zituen. 1950ean, Germán Salak “San Isidro” Erlezaintza-Barrutia zuzendu zuen eta Micaela Marticorena maistrak “Asunción de María” Mutualitatea. Argazkian Etxarri-Aranatzeko Eskola Nazionalak ikus ditzakegu. 1965.



Muruzabalen (Izarbeibar), 1847an, Eskola Osatugabe bat zegoen, 40 mutilekin eta 10 neskekin. Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, Muruzabalen 58 ikasle zeuden, hiru eskola-unitatetan banatuta: neskena, mutilena eta haurrena (pribatua). xx. mende ia osoan zehar, eskola publikoak soilik mutilak hartzen zituen beraz, neskek eta haurrek “Nuestra Señora de los Dolores” Ikastetxe erlijiosoan ikasten zuten, Karitatearen Ahizpen zuzendaritzapean. 1958an Gregorio Redín maisuak Mutualitateko eta “Nuestra Señora de Eunate” Eskola-Barrutiko zuzendaria izan zen. 1970-71 ikasturtean bi eskola zeuden herrian: publikoa, 13 mutilekin, eta pribatua, 10 neskekin. 70eko hamarkada erdialdean eskola-zentroak itxi ziren eta ikasleak Garesera joan ziren ikastera. Irudietan Muruzabalgo eskola zaharrak ikusten ditugu, eta bai Guillermo Iriarte jaunaren ikasle talde bat ere, Don Jesús M^a López ordeko maisua ere lagun dutela, 1970. Esteban Armendárizek utzitako argazkia.



Manuel Bergera Aldazek, Etxarren-Arakilgo eskolako maisua, 1950ean “San Vicente” Eskola-Mutualitatea eta “Montehermoso” Erlezaintzako Eskola-Barrutia ezarri zituen.



Irurtzungo eskola ohiak “El Gallinero” ezizenez ezagunak ziren. Horietan, 1950ean, José M^a Zanduetak eta M^a Asunción Villanuevak “San Martín Obispo” eta “Santísima Trinidad” Eskola-Mutualitateak zuzendu zituzten, hurrenez hurren. 1971n herriko irakaskuntza masifikatuta zegoen eta ez zegoen leku nahikorik. Kontzejuko aretoan haurrentzako eskola zegoen, 85 ikaslerekin, eta eskola nazionaletan soilik bi eskola-unitate zeuden, 60 ikasle baino gehiagorekin bakoitzean. 1974an Atakaondoa Eskualdeko Zentroa ireki zirenean, arazoa konpondu zen. Zentro berriak Arakil, Goñi, Gulina, Imotz, Olloko eta, noski, Irurtzungo ikasleak jaso zituen. Irurtzungo Udalak utzitako argazkia.



“Sagrado Corazón de Jesús” Eskola-Mutualitatea, Satrustegiko (Arakil) eskola mistokoa. Mutualitatea kudeatu zuen maistra Magdalena Barásoain izan zen. 1920.



Nabaskozen, eskola gisa erabili zen lehenengo eraikina Udaletxea izan zen, 1907an eraikitakoa. Eskolan bi sexuetak 79 ikaslerentzako bi maisu zeuden. 1954an Eskola Nazionalak eraiki ziren, irudiak ikus ditzakegunak. 1970ean eskola nazionaletan lau eskola-unitate zeuden eta 28 neskek eta 33 mutilek ikasten zuten bertan. “San Quirico” y “Nuestra Señora del Pilar” Eskola-Mutualitateak 1921ean sortu ziren. Errepublikan zehar funtzionatzeari utzi zioten, baina 1959an berriro ireki ziren. “San Quirico” Mutualitatea Jesús Cáncerrek kudeatzen zuen eta “Nuestra Señora del Carmen” Mutualitateak izena aldatu eta “Nuestra Señora del Pilar” Mutualitatearen izena jaso zuen, Paula Compainsen zuzendaritzapean. Bigarren argazkian Jesús Cáncer maisua bere ikasleekin ikus dezakegu. 1960.

Francisco Navaridas Ekai-Zuhatzuko Erlezaintzako Eskola-Barrutiko bere ikasleekin. 1922.



Artaxoako eskola zaharretan, Jesús Bañales Mendiak "Padre Madoz" Eskola-Mutualitatea eta Eskola-Barrutia sortu zituen. Hori dela eta, 1962an Ikuskaritzak saritu zuen eta 1973an Alfonso X.a Jakintsuaren Gurutzea jaso zuen. Argazkian Jesús Bañales, Artaxoako maisua, bere ikasleekin ikus dezakegu. Jerusalén Bañalesek utzitako argazkia.





Argazkian Murillo el Cuendeko Eskola Nazionalak ikus ditzakegu. 1930ean ireki ziren eta 1980an itxi. Felisa Iriguibelek "Santa Fe" Eskola-Mutualitatea zuzentzen zuen.



Sartzeko (Zaraitzu) eskola mistoa. 1959an Margarita Muñozek "Nuestra Señora de Arguiloa" Eskola-Mutualitatea ezarri zuen.



Madozen Hiztegi *Geografikoaren* arabera, 1847an Irunberrin mutilen eskola bat zegoen, 120 ikaslerekin eta 4.000 erregurekin, eta nesken beste bat, 150 ikaslerekin. Maistrak urtean 2.000 erreku jasotzen zituen. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an 256 ikasle zeuden, herriko lau eskola-unitateetan banatuta: eskola publikoetako bi eskola-unitate eta beste bi pribatu (neskena eta haurrena) "Joaquín Larregla" Ikastetxean, San Vicente Paul Karitateko Ahizpen esku zeudenak. 1934an Irunberriko Eskola Nazionalak inauguratu ziren, irudian ikus ditzakegunak. Horietan "San Isidro" eta "José Gómez Itoiz" Eskola-Mutualitateak sortu ziren. Lehena Eustaquio Eslava maisuaren esku zegoen eta bigarrena Isabel Urcelay maistraren esku.

1970ean herrian 6 eskola-unitate zeuden: 5 publiko eta pribatu-erlijioso bat. 1981ean eskola horiek itxi ziren eta ikasleak "San Juan" Ikastetxe Publiko berrira eraman zituzten. Errepublikara garaiko eskola zaharrak egun Irunberriko Arroilaren Interpretazio Zentro gisa erabiltzen dira. Esteban Labianok utzitako argazkia



José Rivas, Carmelo Ayerra, M^a Carmen Toni Garzarón eta Miguel Ángel Pérez Vidondo irakasleak, 1966-67. Esteban Labianok utzitako argazkia.



Pascual Madozek bere *Hiztegi Geografikoan* erakusten duen bezala, 1847an Ezkarozeko Lehen Hizkien Eskola Mistoan bi sexuetako 60 ikaslek ikasten zuten. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikoaren* arabera, bi sexuetako 67 ikasle zeuden herrian eta maistra baten esku zegoen eskola osatugabe bat. 1952ko urriaren 1ean Ezkarozeko (Zaraitzu) Eskola Nazionalak inauguratu ziren. Lau ikasgela zeuden eta irakasleentzako lau etxebizitza. 1970-71 ikasturtean eskolan 31 mutilentzako eta 26 neskentzako bi eskola-unitate baino ez zeuden. Egun, eskola itxita dago eta ikasleek Otsagabiako Ikastetxe Publikoan ikasten dute. Argazkia eraikina inauguratu zen egunekoa da. Ezkerraldean nesken eta haurren eskola ikus dezakegu eta erdialdean mutilena. Ezkarozeko udalak utzitako argazkia.



1959an "San Román" eta "Isabel la Católica" Eskola-Mutualitateak sortu ziren Lekarotzen, Esteban Rosellek eta Lucia Cruchagak kudeatzen zituztenak, hurrenez hurren. Argazkian Esteban Rosell maisua bere ikasleekin ikus dezakegu. 1958. Txuribeltzean Elkarteak utzitako argazkia.

MUTUALITATEAK ETA ESKOLA-BARRUTIAK

URTEA	MUTUALITATEA	HERRIA	MAISU/MAISTRA
1917	Oratorio F. de M ^a Inmaculada	Lizarra	Corpus Garín Vergara
1917	La Herbartiana	Alesbes	Nicolás Jiménez
1919	Santa Bárbara	Lerin	Dionisia Divassión
1920	La Santa Cruz	Altsasu	Antonio García
1920	San Isidro	Olaibar (Olabe)	Francisco Arricivillaga
1920	La Medalla Milagrosa	Arrieta (Artze)	Pedro M. Pedrazuela
1920	San Vicente	Aranguren	Pedro Martínez
1920	Ntra. Sra. De las Mercedes	Taxoare	José Games
1920	Joaquín Elizalde	Elo	Mariano Molina
1920	San Miguel	Lodosa	Bernardo de Quirós
1920	Sagrado Corazón de Jesús	Satrustegi	Magdalena Barasoain
1920	Juan Iturralde	Arizkun (Baztan)	José M ^a Soler
1920	Virgen del Soto	Caparroso	Julia Arellano
1920	Santa Fe	Caparroso	Ramón Gimeno
1920	San Andrés	Espartza Zaraitzu	Miguel Velamazán
1921	San Juan	Arazuri	José Jiménez
1921	Ansoleaga eta Virgen del Camino	Iruña	
1921	La Infancia Previsora	Uxue	María Busto
1921	La Virgen de Nieva	Valtierra	Domingo García
1921	La Infantil Uxoense	Uxue	José Chéliz
1921	San Juan Bautista	Bera	Gorgonio San Adrián
1921	San Fermín	Ziordia	Fermín Mendía
1921	Santa Lucia	Ziordia	Amalia Lacalle
1921	Ntra. Sra. De las Mercedes	Santakara	Julia Zarraluqui
1921	Ntra. Sra. De las Mercedes	Santakara	Ricardo Cañizares
1921	San Quirico	Nabaskoze	Esteban Antonio Artajo
1921	Ntra. Sra. del Pilar	Nabaskoze	Josefa Torcal
1922	La Inmaculada	Altsasu	Margarita Garayoa
1922	San Tiburcio	Sunbilla	José Lapuente
1922	San Antonio de Padua	Sunbilla	Eugenia Erviti
1922	San Saturnino	Ustaize	Pedro Llorea
1924		Ekai-Zuhatzu	Francisco Navaridas
1926	La Hormiga	Uharte Arakil	Manuel García
1931	San Miguel	Artaza	Serafín Senosiáin
1944	San Joaquín	Monteagudo	Honorio Galilea
1944	San Pedro Apóstol	Urdiain	Isidro Marchueta



URTEA	MUTUALITATEA	HERRIA	MAISU/MAISTRA
1944	La Purísima	Urotz	Mariana Lecena
1944	Espoz y Mina	Idotzin	M ^a Carmen Toni
1944	San Gil	Eugi	Ignacio Machín
1950	Ntra. Sra. De los Remedios	Etxarri-Aranatz	Germán Sala
1950	Santa M ^a Magdalena	Viana	Sor M ^a Sanz Guerrero
1950	Asunción de María	Etxarri-Aranatz	Micaela Marticorena
1950	Cristo Rey	Tutera	Faustino Saldaña
1950	Reanudación "Herbartiana"	Alesbes	Asterio Ugalde
1950	Inocencio Jiménez	Atarrabia	Irene Larragueta Gil
1950	José Ibáñez Martín	Atarrabia	Agustín García Bordel
1950	El Buen Camino	Igantzi-Bidasoa	Félix Sanz San Vicente
1950	San Martin	Ubani	José Arreba Arija
1950	Sagrado Corazón de Jesús	Satrustegi	Patrocínio Arrazubi
1950	Ntra. Sra. De la Asunción	Tafalla	Ángeles Molina
1950	San Sebastián	Tafalla	Joaquín Aramburu
1950	San Sebastián	Zangoza	José Erdozain
1950	San Francisco Javier	Castejon	Salustiano Vidal.
1950	Santiago Apóstol	Elizondo	Maximino Uriz
1950	San José	Lizarra	Antonio Garayoa
1950	Santiago	Funes	M ^a Josefa Labiano
1950	San Vicente	Igari (Zaraitzu)	Amparo Pérez Anaut
1950	San Vicente	Etxarren Arakil	Manuel Bergera Aldaz
1950	Ntra. Sra. De la Asunción	Mendigorría	Luis Aldave
1951	La Santa Cruz	Altsasu	Enrique Goicoa
1952	Sagrado Corazón de Jesús	Zizur Nagusia	Jesús Bergasa
1953	San Millán	Beire	José Aicua
1953	Santa Catalina	Beire	Blasa Azanza
1954	Santísima Trinidad	Irurtzun	M ^a Asunción Villanueva
1954	Ntra. Sra. De la Barda	Fitero	Carmen Larrea
1954	San Isidro	Tutera	Joaquín Aramburu
1954	San Raimundo	Fitero	Miguel Peñafiel
1954	San Miguel Arcángel	Corella	Julián Sanz
1954	Virgen de Unzizu	Arellano	María E. Busto
1954	José Gómez Itoiz	Irunberri	Isabel Urcelay
1954	San Isidro	Irunberri	Eustaquio Eslava
1954	San Martín Obispo	Irurtzun	José María Zanduetza
1954	Virgen del Camino	Iruña	Amparo Toro



URTEA	MUTUALITATEA	HERRIA	MAISU/MAISTRA
1954	Virgen del Sagrario	Iruña	Concepción Arteta
1954	San José de Calasanz	Berriobeiti	Francisco Díaz de Cerio
1954	Virgen de Idoia	Izaba	Cecilia Galé
1955	San José	Buñuel	Eusebio Quintana Rada
1957	Niño Jesús	Erriberri	Jesús Tabernero
1957	San José de Calasanz	Arguedas	Juan José Garriz
1957	Ntra. Sra. De la Paz	Cintruenigo	Jacinto Puy
1958	Ntra. Sra. De Eunate	Muruzabal	Gregorio Redín
1959	San Román	Ezkaroze	Esteban Rosell
1959	Isabel la Católica	Ezkaroze	Lucia Cruchaga
1959	Santa Fe	Murillo Cuende	Felisa Irriguible
1959	Ntra. Sra. de Ujué	Murillo el Fruto	Fermín Laurez
1959	Santa María	Murillo el Fruto	Pilar García-Falces
1959	Ntra. Sra. De Arguiloa	Sartze	Margarita Muñoz
1959	Ntra. Sra. del Carmen	Nabaskoze	Paula Compains
1961	Santa María	Los Arcos	Sor María Concepción
1961	Virgen del Doneanso	Muru-Astrain	Matilde Soret
1961	Ntra. Sra. del Carmen	Tutera	Ez dago agiririk
1961	Santa Teresa de Jesús	Tutera	Ez dago agiririk
1962	Virgen de los Remedios	Lukin	Ricardo Ajona
1963	Santa Águeda	Undiano	M ^a Carmen Migueliz
1964	Ntra. Sra. de la Asunción	Lerin	Francisco Espinosa

URTEA	BARRUTIAK	HERRIA	MAISU/MAISTRA
1920	(Apícola)	Ekai-Zuhatzu	Francisco Navaridas
1946	Alzana	Altsasu	Miguel Yoldi
1950	San Isidro	Etxarri-Aranatz	Germán Sala
1950	Montehermoso	Etxarren Arakil	Manuel Bergera Aldaz
1950	Virgen de Unzizu (apícola)	Arellano	M ^a E. Busto
1954	San Raimundo	Fitero	Miguel Peñafiel
1954	San Isidro	Tutera	Joaquín Aramburu
1958	Ntra. Sra. de Eunate (agrícola)	Muruzabal	Gregorio Redín
1960	San Martín (avícola)	Ubani	Eduvigis Guilabert
1962	Padre Madoz	Artaxoa	Jesús Bañales

Administrazioak mutualitateei, mutualistei eta maisu-maistrei sariak ematen zizkieten. Mutualitateei eta eskola-barrutiei normalean herriko santu baten izena jartzen zitzairen.

15. AIPAMEN HISTORIKO INTERESGARRIAK

- **1940.** Otsailaren 10eko dekretua (Otsailaren 17koa BOEn), Irakasle-Lanaren Ikasketa-Plana onartu zuena. Uztailaren 13ko Ministerio Aginduak 1931ko Plan Profesionala indargabetu zuen. Espainiako Irakasle-Laneko Zerbitzua sortu zen (SEM). Abenduaren 6ko BOEn Frente de Juventudes-eko Legea argitaratu zuen. Vianako Printzea Erakundea sortu zen, abuztuaren 21eko bilkuran. Hezkuntzako Tokiko Batzordeen Araudia.
- **1941.** Apirilaren 9ko BOEn, “San José de Calasanz” Ikastetxea sortu zuena, Ikerketa Zientifikoen Batzorde Nagusira lotutakoa, desagertutako Museo Pedagogiko Nazionala ordezkatzeko eta ILera lotutakoa. Foru Aldundiak “Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Araudi” berria onartu zuen. Abenduaren 6ko Legea, Frente de Juventudes delakoaren antolakuntzari buruzkoa. Hezkuntzako Kontseilu Nazionala sortu zen, eskola-testuak onartzeko arauak ezartzen zituena, Formakuntza Erlijosokoak, Heziketa Fisikokoak eta Espiritu Nazionalaren Formakuntzarenak izan ezik.
- **1942.** Hezkuntza Nazionalako Batzorde Probintzialak sortu ziren.
- **1943.** Nafarroako udal maisu-maistrei eta maisu-maistra nazionaleri eskupekoak emateko araudia.
- **1944.** Ministerioaren lehenengo aitortza Batzorde Nagusiari, eta ondorioz, Hezkuntzako Batzorde Probintzialaren funtzioak Batzorde horren esku geratu ziren. 1945. Lehen Hezkuntzako Legea (uztailaren 8ko BOE).
- **1946.** Vatikanorekin akordioa, Estatuak Elizari emango zizkion diru-laguntzen ingurukoa. MEC-DFN Eskola-Eraikinen Hitzarmena. NBek erregimen frankistaren nazioarteko isolamendua bultzatu zuen.
- **1947.** Urriaren 24ko Dekretua, Lehen Hezkuntzako Irakasle-Lan Nazionalaren Estatutua onartzen zuena. Sasoiko eskolen sendotze ofiziala. Nafarroako Erregimen Pribatiboa.

- **1951.** Espainia FAOn eta OMEn sartu zen.
- **1950.** Uztailaren 7ko Dekretua (abuztuaren 7ko BOEn), Irakasle-Lanaren Ikasketa Plan berria jasotzen zuena.
- **1952.** Errazionamendu-liburuxkak desagertu ziren. Abenduaren 24ko Ministerio-Agindua data horretatik aurrera gaitasungabetze zigorrak eta gogoz kontrako lekualdaketan bertan behera uzten zituena. Ordura arte euren ideia errepublikarreatatik zigortutako maisu-maistrek hurrengo lekualdatze lehiaketetan parte hartu dezakete. Abenduaren 21eko Dekretua, maisu supernumerarioaren irudia agertu zen, kidegoko semeen maisuen irudia ordezkatzeko zuena eta lehenentasunez landa-eskolak esleitzen ziena.
- **1953. Lehen Hezkuntzako Galdetegi Nazionalak.** Espainia UNESCOn sartu zen. Eskola-Eraikinen Legea. AEBek emandako esne-hautsa banatzen hasi zen. Abuztuaren 8ko Ministerio-Agindua (abuztuaren 25eko BOEn), Lehen Hezkuntzako Mutualitateen Batzorde Probintziala eta Nazionala aukeratzeko arauen eta egutegiaren ingurukoa.
- **1954.** Uztailaren 20ko Ministerio-Agindua, Eskola-Jantokietan Araudia ezarri zuena. Urriaren 24ko Ministerio-Agindua, Eskola-Elikadura Zerbitzua sortu zuena.
- **1955.** Espainia NBen sartu zen. Maiatzaren 3ko Ministerio-Agindua, Nafarroako Eskola-Eraikinen Batzorde Probintzialen antolakuntza Hezkuntza Batzorde Nagusiaren erregimen berezira egokitu zuena. Hezkuntza Ministerio Nazionaleko Idazkaritza Teknikoa.
- **1956. Euskararen Saila** sortu zen Vianako Printzea Erakundearen barruan.
- **1957.** Eskola-Eraikinen Plan Nazionala. Lankidetzako Pedagogiko Zentroak sortu ziren. Urriaren 9ko Ministerio-Agindua, Hezkuntzako Ministerio Nazionalak arau bereziak ezarri zituena Nafarroan eskoletan hornikuntzarako. FEREk (Irakaskuntzako Erlijiosoen Espainiako Federazioak) bere estatutuak onartu zituen.
- **1958.** Espainia Nazioarteko Diru Funtsan (NDF) sartu zen. CEDODEP-ren sorrera.
- **1962.** Eskolen ezabatzea. Eskola-Kontzentrazioak iritsi ziren, Manuel Lora Tamayo, Opus Deiko jarraitzailea, Hezkuntzako ministro izendatu zuten.
- **1963.** Ministerioak irakaskuntzaren zati ziren sei graduetan sartzeko promozio-mailak ezarri zituen. Azaroaren 9ko Xedapena (abenduaren 12koa BOEn), Eskola-Kontzentratuen eta Egoitza-Etxeen ezarpenari buruzkoa. Estatua Alfabetatze Kanpaina hasi zuen, 5.000 maisu-maistrek.

- **1964.** Garapenerako Lau urteko Lehenengo Plana. Legeak derrigorrezko eskolatzea 14 urtera igo zuen. **Irakasgaiko eta Mailako gutxienekoak** ezarri ziren. Martxoaren 3ko Ministerio-Agindua, Lehen Hezkuntzako Eskola Nazionalen kentzeari buruzkoa. Irakaskuntza Pribaturako Hezkuntzako Sindikatuaren sorrera.
- **1965. Lehen Hezkuntzako Galdetegi berriak.** Nafarroako lehen eskola-kontzentrazioa (Larraintzarren, Ultzama). Lehen Hezkuntzako Lege berria. Egoitza-Eskolen sorrera.
- **1966.** Eskola-Kontzentrazioen Batzorde Mistoa. Hezkuntzako Ministerio Nazionala eta Hezkuntzako eta Zientzietako Ministerio bihurtu zen.
- **1967.** 985. Dekretua, apirilaren 20koa, Eskola-Zuzendarien Kidegoa sortu zuena. “Irakasle-Lanaren Ikasketen Planaren” inguruko Ministerio-Agindua. Otsailaren 2ko Dekretua (otsailaren 13koa BOEn), eskolatzea 6 urtetatik 14ra zabaltzen zuena. Azaroaren 10eko Ministerio-Agindua (azaroaren 29koa BOEn), eskola-eraikinei buruzkoa. 1967ko Ikasketa Planaren ezarpena, Gerra amaitu zenetik, lehenengoz, Goi-mailako Batxilergo titulua eskatzen zuen Eskola Normalean sartzeko.
- **1968.** Abuztuaren 10eko Dekretua, irailaren 5eko BOEn, Oinarrizko Ikasketen Ziurtagiria zuten espainiarren eskubideak ezartzen zituen. Urriaren 24ko Ministerio-Agindua (azaroaren 23koa BOEn), Informazio eta Turismoarena, Lehen Hezkuntzako ikasleei “Espainia garbi mantendu” lehiaketarako deialdia egiten ziena. Villar Palasí Hezkuntzako ministro izendatu zuten.
- **1969.** Hezkuntzari buruzko Liburu Zuria. Martxoaren 3ko Ministro-Agindua, Heziketa Fisikoko irakasleak sortzeko.
- **1970. Hezkuntzako Lege Orokorra eta Hezkuntzako Erreformaren Finantzazioa.**
- **1971.** Abenduaren 30eko Ministro-Agindua, zentroetako eraldaketa eta sailkapenari buruzkoa. Maiatzaren 8ko Ministro-Agindua, Eskola-Graduatua lortzearen ingurukoa.
- **1972.** 138. Dekretua, maiatzaren 25eko (ekainaren 10ekoa BOEn), Irakasle-Laneko Eskola Normalak unibertsitatean txertatzeko.
- **1973.** Helduen Hezkuntza Iraunkorraren Programa sortu zen.
- **1975.** Abenduaren 5eko Ministro-Agindua, ikastetxe nazionalak Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko zentroak bihurtuz (OHO).
- **1975.** Azaroaren 20an Franco Jenerala hil zen.

**BOSGARREN ATALA:
BIZITZA
GOGOANGARRIAK**



Azken atal honetako lehenengo atalean, “Iraganeko irakasle-lana” deiturikoan, irakasle-lanean egon den garapenaren deskribapen txiki bat egiten da, epe zehatz batean jazotakoa. Bigarren atalean “Eskolako ibilerak”, hamahiru maisuk eta maistrek euren irakasle-lanarekin lotutako pasadizoz eta ikasketez betetako esperientziak kontatuko dizkigute. Bizitako esperientzia horiei esker, benetan badakite, alor guztietan, maisu edo maistra izatea zer den izatea.

16. IRAGANEKO IRAKASLE-LANA



XX. mendearen lehenengo urteetan ume asko eta baliabide ekonomiko zein hezkuntza-baliabide urriak zeuden. Adibide gisa, ikus dezakegun argazkia daukagu: Blas Bozal Romero Fiteroko mutilen Udal Eskolako maisua ia ehun ikaslez inguratutako dago. 1908an, Fiteron 504 ikasle zeuden, Eskola Publikoen eta Karitatearen Alaben “Santa Ana” Ikastetxearen artean banatutakoak. Irakaskuntza publikoan hiru eskola zeuden: Carlos Vergara maisuaren esku zegoen haur eskola eta beste bi eskola nazional, monasterio zaharrean zeudenak. Horietako bat nesken eskola zen, Juana Vergara maistraren esku zegoena eta bestea mutilena, Don Blas maisuaren esku. Irakaskuntza pribatua Karitatearen Alabek zuzentzen zuten eta “Santa Ana” Ikastetxean jasotzen zen. Bi eskola-unitate zituen: haur eskola eta nesken unitatea. José Miguel Escudero utzitako argazkia. 1905.

Madozen arabera, 1847an, Burgin lehen hizkien eskola osatugabea zegoen, bi sexueta 60 ikaslerekin.

Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Burgin 134 ikasle zeuden, hiru eskola-unitatetan banatuta: mutilena, neskena eta pribatua zen haur eskola. Udalak maisu-maistra bakoitzari 825 pezeta ematen zizkion urteko eta 60 pezeta gehiago etxebizitza-logela kontzeptu gisa. Argazkian Fulgencia Abaurrea Burgiko maisua bere ikasleekin ikus dezakegu. 1905. “Txuribeltzean” Elkarreak utzitako argazkia.



XVIII. mende amaieran, Erregimen Zaharreko maisu-maistrek ez zuten pres-takuntza profesional eta kulturalik irakasle-lana nolabaiteko bermearekin eta ziurtasunarekin burutzeko. Maisu-maistrek irakurtzen, idazten, zenbatzen eta otoitz egiten zekiten, baina ez zuten bestelako ezagutza bereziturik. Uda-lek irakasle-lana burutzeko ziurtagiriak ematen zituzten eta haiek ere argita-ratzen zuten herriko plaza hutsen berri ematen zuen ediktua. Plaza lortu nahi zuten maisu-maistrek zehaztutako epean euren ziurtagiriak aurkezten zituzten. Azkenik, udalek, aurkeztutako hautagaien artean, izendapenak egiten zituzten.

Adibide gisa, Garraldako udalak herriko maisuari egindako kontratua irakur dezakegu (1770-11-21):

“Que aia de enseñar a leer y escribir a todos los niños y niñas que acudieron a la Escuela desde la edad de cinco años asta los doze; como enseñar la doctrina christiana, a los niños y niñas en castellano, todo el año, unos y otros y en las oras acostumbradas, en el inbierno, desde la ocho de la mañana asta las once y las tardes desde a una asta las quatro, y en el Berano por la mañana desde las siete y por las tardes hasta las cinco”.¹³³

(“Bost eta hamabi urte arteko ikasleei idazten eta irakurtzen irakatsi behar die; bai eta doktrina kristaua ere, dena gazteleraz. Urte osoan zehar lan egin beharko du

133. Garralda 1899-1980, *Acciona Garraldako Udala*, 2016, 131. orr.

ezarritako ordutegian: neguan goizeko 8etatik 12etara eta arratsaldeko ordu batetik 4tara. Udan, goizeko 7etatik eta arratsaldetan 5ak artea”)

Ondoren, eta batez ere herri handiagoetan, oposaketan sistema ezarri zen. Puntu gehien lortu zituen maisu-maistra aukeratzeko zuten. Udalek Gaitasun Ziurtagiria eman zieten maisu-maistrei irakasle gisa lan egin ahal zezaten. Batzuetan azterketarik ez ere zuten egiten eta irakasleek udalek emandako baime-nari esker egiten zuten lan.

Nafarroako Erresumako Gorteen 1780-81ean XLI. Legea onartu zutenean (Erabakiak bereiztutako nesken eta mutilen eskolak ezartzeko eta maisu-maistrek izan behar dituzten gaitasunak), jauzi kualitatiboa eman zen maisu-maistren erregularizazioan eta prestaketan. 2. artikuluan agertzen den paragrafo adierazgarria irakur dezakegu jarraian:

Lehen hizkien maisu edo maistra izan nahi duen edonork Elizbarrutiaren lehen hizkien azterketa egin beharko du. Eta Kristau Doktrinaren azterketa egin eta gainditu duela ziurtatuta, Erret Kontseilu Goren honen aurrean aurkeztu beharko da eta bertan, bere bizitzari, ohiturei eta bere odol garbiari buruzko informazioa eman beharko du baita eta ziurtatu bere gurasoek ez dutela lanbide doilorrrik izan ere. Ondoren, bere herriko Justiziari gaitasun horien benekotasuna ziurtatu beharko dizkio.

Elizbarrutiaren aurrean egin behar zituzten azterketez gain, eskolan emango zituzten ezagutza orokorren azterketa gaindu behar zuten maisu-maistrek. 4. artikulua horren inguruan hitz egiten zuen:

Irakurtzeko, idazteko eta zenbatzeko trebetasuna izatea, eta erabiltzen diren letra mota ezberdinak erabiltzeko gai izatea, lehenengoetatik azkenetaraino, eta, gutxienez, bost zenbaketen aleak aurkeztea.


41. legearen baldintza hori ez zen herri txikietan edo baliabide ekonomiko urriak zituzten herrietan eskatzen. Kasu horietan, parrokoaren baimena jaso ostean, irakasteko boluntario gisa aurkezten zirenak onartzen zituzten.

1831ko Nafarroako Erresumako lehen hizkien eskoletarako Plan eta Araudi Orokorren ostean, maisu-maistra tituluak ematen hasi ziren. Titulua lortzeko, Iruñean, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak esleitutako epaimahaiaren aurrean egin behar zen azterketa.

Hautagaien ezagutzen edo ikasketen arabera, maisu titulua lehen mailakoa edo bigarren mailakoa zen eta Errege Kontseiluak ematen zuten ziurtagiria.

Horrek aldaketa nabarmena ekarri zuen lanpostu huts bat lortzerako orduan, izan ere, une horretatik aurrera, ez zen oposaketarik egingo eta udalek Batzorde Nagusiak bidalitako hirukotetik aukeratu beharko zuten maisua edo maistra.

1819an, Francisco Javier Soto lehen hizkien maisuak, maisuak eskatzen zituzten udaletan instantziak aurkeztu zituen. Javier Beunzak utzitako agiria.



Lehen hizkien maistrei zegokienez, Nafarroako Erresuma aitzindaria izan zen Espainian nesken eta mutilen hezkuntza parekatzean. 1780-81eko Gorteen emakumearen hezkuntzaren eta Nafarroan maistrak orokortzearen aldeko sentsibilizazio handia erakutsi zuten. 41. Legearen 12. artikuluan ondorengo hau xedatu zuten:

“Hemendik aurrera, Erresuma honetako hiri, hiribildu eta tokietan soldatapeko maistrak egon behar dira neskek heziketa jaso dezaten”.

Agindu hori ezin izan zen aurrera eraman garai horretan egon ziren gerren-gatik eta xix. mende hasierako krisi ekonomikoarengatik. Beraz, herri askotan ez zituzten nesken eskolak ezarri baliabide ekonomikoen eskasiarengatik.

Maistren formakuntzari zegokionez, euren ezagutzak horrela osatu behar zituzten: “formakuntza praktikoa edo eskuzkoa, etxeko lanak egiteko emakumeak berez izan behar duena: goruan edo tornuan irutea, modu guztietan jostea, galtzerdiak eta galtzeta egitea, eta bestelako trebetasunak eta lanak”.

Euren programazioetan berez emakumezkoenak jotzen zituzten trebetasunak lantzea lehenesten zuten: joste-lana, etxeko ekonomia eta kristau-ikasbidea eta Historia Sakratua. Aldiz, idazketaren eta irakurketaren irakaskuntza ez zen derrigorrezkoa, soilik eskatzen zuten neskei irakasten zitzaielako.

Espainiako lehenengo Eskola Normalak, Agustín Escolanok aipatzen duenaren arabera, burgesia liberala boterera iristean agertu ziren. Estatu liberalak eskola kontrol ideologikorako behar zuen eta hori dela eta, Irakasle-Laneko lehenengo eskolak eta Eskola Normalak sortu ziren, lehen hezkuntza orokortze asmoz irakasleak prestatzeko.

1838ko Lehen Hezkuntzako Legea indarrean zegoen Nafarroa Espainiako Estatuko beste probintzia batean bihurtu zenean. Lege horrek lehen hezkuntzako irakaskuntza zein maisu-maistra izateko betekizunak ezartzen zituen: 20 urte baino gehiago izatea, beharrezko tituluak izatea eta azterketa bat egin behar izatea. Lege horrekin gizonezkoak soilik joan zitezkeen Eskola Normaletara.

1857ko Moyano Legearen argitaratzearekin jauzi kualitatiboa eman zen Lehen Hezkuntzako irakasleen formakuntzan. Hiru maisu mota ezarri ziren: oinarrizkoa, bi urtez Eskola Normalean ikasten zuena, goi-mailakoa, beste urte batez Normalean ikasten zuena eta Normala, Madrileko Eskola Nagusian beste urtebetez ikasi behar zuena.

Goi-mailako Lehen Hezkuntzako maisu izateko, arestian aipaturiko irakasgaiez gain, algebrako, historia unibertsaleko eta naturako ohiko fenomenoenginguruko oinarrizko ezagutzak izan behar ziren.

Aurretik esan den bezala, maistren formakuntza ez zen maisuena bezain garrantzitsua. Jendarteak uste zuen emakumea emazte, ama eta aberkoi ona izateko prestatu behar zela. Beraz, horretarako ez zen beharrezkoa helburu horietatik desbideratuko zituen ikasgaiak ikastea.

Moyano Legearen 71. artikulua arabera, Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Maistra Titulua lortzeko, Maistren Eskola Normalean nesken irakaskuntzarako irakasgaiak ikastea eskatzen zen. Lortu nahi zen tituluaren arabera, oinarrizko edo goi-mailako irakaskuntzakoak ikasten ziren. Oinarrizko hezkuntzako irakasgaiak ondorengo hauek ziren: neskentzako moldatutako Kristau Doktrina eta Historia Sakratuko ezagutzak, Irakurketa, Idazketa, Gramatikako Hastapenak, Aritmetikako Hastapenak (neurrien, pisuen eta moneten legezko sistemarekin) eta sexuari zegozkion Joste-Lanak.

MAISUEN ESKOLA NORMALEKO IKASKETA-PLANA 1857KO INSTRUKZIO PUBLIKOKO LEGEAREN ARABERA (Moyano Legea)	
LEHENENGO MAILA	BIGARREN MAILA
Kristau-ikasbidea kristau-doktrinaren bidez azaldua	Geometria, marrazketa lineala eta lur-neurketa
Historia Sakratuaren hastapenak	Espainiako historiaren laburpena
Irakurketa	Geografiaren hastapenak
Kaligrafia	Nekazaritzaren oinarrizko ezagutzak
Gazteleraren gramatika	Hezkuntzaren eta metodologiaren hastapenak
Aritmetika	Irakaskuntza-praktikak

Nafarroan lan egin zuten maisu eta maistra gehienek beharrezko titulua zuten, udalek zegokion administrazioari bidali zizkieten galdetegien arabera. Hala ere, salbuespenak egon ziren.


Izan ere, Nafarroako eskola batzuetan, zenbait irakaslek (nagusienak), titulurik izan gabe klaseak ematen zituzten. Baina 1857ko irailaren 9ko Moyano Legeak onartutako Gaitasun Ziurtagiriari esker lan egin zezaketen. Legeak, 181. artikuluan, ondorengo hau esaten zuen zehatz-mehatz:

Eskola osatugabeen ardura izateko ez da beharrezkoa Oinarrizko Maisu Titulua izatea. Nahikoa izango da Araudiak ezartzen duen Gaitasun eta Moralitate Ziurtagiria izatea.

Horri dagokionez, Florencio Onsalok eskoletan maisuak egoteko egoera hori bidezkotu zuen argudiatuz, mende hasieran Nafarroan maisu eta maistra nahikorik ez zegoenez, Irakasle-Laneko Eskola Normalek Gaitasun Ziurtagiriak eman behar izan zituztela irakaslerik gabe zeuden eskola osatugabeen ardura hartu ahal izateko. XIX. mende amaieratik aurrera, ziurtagiriak emateari utzi zitzaion. Hauxe da gai horren inguruan Florencio Onsalok zuen iritzia:

Gaitasun Ziurtagiriak ez du berezko aplikaziorik eta soilik erabilgarria da orain dela urte batzuk irakaskuntzan ari direnentzat, horiei ezin baitzaizkie eskolak kenduko.¹³⁴

134. Onsalok Florencio, *Manual del Maestro*, Iruña, 1898.



Oinarrizko Maisu Titulua, 1872an Nafarroako Goi-Mailako Eskola Normalak Joaquín Plaza Iturralde-ri emandakoa. Martín Plaza ("Mattari") bere ilobak utzitako agiria.

Amaiurreko eskolako maisua Manuel Salaverri zen, Oinarrizko Hezkuntzako irakaslea. Titulua 1857ko Moyano Legeak irakasle-lanean sartzeko ezarritako Ikasketan Planaren bidez lortu zuen. Paskual Rekaldek utzitako argazkia.



Hala ere, 1926an, Gaitasun Ziurtagiria zuten 83 irakasle kargutik kendu zituzten Nafarroan. Lehen Hezkuntzako Irakasle-Laneko Elkarte Probintzialak Primo de Riveraren gobernuari irakasle horiek berriro irakaskuntzan sartzeko eskaera egin zion.

Maisuaren eta maistraren irudia beti maitatua eta baloratua izan da, bai eta bere estatus soziala eta jendartean zuen balioa (salbuespenak salbuespen). Baina euren azalean sartzen bagara, euren onespren intimo eta pertsonalak zein profesional gisa zuten balioestek uneko egoera politiko eta sozialen eragina jasan dute.

Isabel II.aren agintaldiaren ostean, absolutistak eta liberalak euren hezkuntza ereduen inguruko dialektikan beste behin murgildu ziren. Horien ondorengoek, kontserbadoreek, moderatuek eta progresistek, gerra zibil ideologiko eta politikoarekin jarraitu zuten. Batzuentzako oinarrizkoena erlijioa zen, besteentzako banakakotasuna eta zientzia. Horietako batek ere ez zuen benetan eskola defendatzen, eta Lehen Hezkuntzako maisuek eta maistrek nola edo hala bizirauten jarraitu zuten udal txiroek ematen zizkieten limosnei esker. Liberalek “askatasuna eta guztientzako eskola” aldarrikapena harrotasunez zabaldu arren, eta burges argiak zirenez, ez zuten inoiz euren Frantziako Iraultza herriarekin eralgi nahi izan. Guztientzako “Instrukzioa” bai, baina benetako “Hezkuntza”, bigarren hezkuntzarekin jarraitu eta Unibertsitatean bukatzen

zena, soilik eurentzat zen, klase dirudunarentzat. Egia da Lehen Hezkuntzako eskolak betetzen hasi zirela, baina egia da ere lan-eskola gehienek eta horietako arduradunek oraindik ere baliabide eta finantzazio urria zutela, politikariek ahaztuta baitzituzten.

Hezkuntzak herri bat definitzen du, identifikatzen du, bere historia eta kultura azaltzen du eta gizataldearen espiritua babesten du. Horien zaindari-rik adierazgarrienak maisu eta maistrak dira eta misio zaila dute. Arazoa da haiek eta balioz betetako euren mailetak jabearekin bidaiatzen dutela beti, hau da, hazten, garatzen eta zentzuz aldatzen den gizartearekin. Baina, aldi berean, gelditu eta hamarkadetan zehar lo egon daitekeena. Zenbat negu pasako zituzten landa-eremuetako gure maisu-maistrek bakarrik eta erabat ahaztuta XIX. mendean! Maisu eta maistra horien irudia, euren zintzotasuna, jatorri soziala, aginte morala... zutena baino gehiago zirenaren menpe zegoen. Jende umilak maisu eta maistra horien beharra zuen, haiek bezala eta haiek batera bizi zirenak, haiek bezala isiltasuna eta beldurra pairatzen zutenak, haiek bezala gose zirenak. Maisu eta maistra horiengana ere edozertarako jo zezaketen: gomendio bat eskatu, eskutitz bat idatzi... Euren bizilagunen begietan gehien zekitenak eta gehien ematen zutenak ziren.

Gobernu kontserbadore eta absolutistekin, XIX. mendeko maisu-maistrak debekatuta zegoenaren lerro gorria ez igarotzeko beldurrez bizi izan ziren. Lanari eta euren eskolei ematen zieten zeukaten guztia, eta isiltasunean pairatu behar izan zituzten bizikidetzak ideiak sustatu baino, kontrakoaren suntsiketa bilatzen zituzten arauak eta legeak. Liberalak boterean egon zirenean, herrietan eta auzorik apalenetan galduta zeuden maisu eta maistrek ez zuten inoiz jakin askatasunari beldurrik izan gabe irakatsi, pentsatu eta hitz egin zezaketela.

Txirotasunean eta bakarrik, XIX. mendeko irakasleak paradoxa bikoitzaren menpe zeuden. Alde batetik, bizitza pertsonal eredugarria, aszetikoa eta moralizantea eskatzen zitzairen. Bestetik, profesionalki burgesiari gehien interesatzen zitzaizkien baloreak irakatsi behar zituzten: errespetua, esanekotasuna, lana, leialtasuna... Garai horretako egunkari profesional batek horrela azaltzen zuen: “Espainiako birsorkuntza gertatzeko lehen hezkuntzako maisua apaiz bihurtu behar da eta hezkuntza erlijio batean”¹³⁵.

1898ko shock nazionalaren ostean, hezkuntzari grina birsorkuntzailearekin begiratu zitzaion, garaiko ezkortasunari aurre egite aldera. Eskola, eskasa eta umila Unamunoren hitzetan, materialetan eta moralean berehalako injezioa behar zuen, zeregin pedagogiko zaharkitua piztuko zuen bizigarri berria:

135. “El Magisterio Aragonés”, *Unión*, 1882ko otsailaren 6a.

irakasle-lan berritua, aldaketa sakon bat. Landa-eskolak hitzak entzuten jarraituko du baina, poliki-poliki, kultura politiko-liberalak hirietako maisu-maistrak estutzen hasi zen eta horiei kalte egiten hasi ziren. Analista guztiak bat datoz esaterakoan xx. mendeko lehenengo urteak bereziki emankorrak izan zirela ikaslearekiko begiruneari, 14 urte arteko eskolatzeari, irakaskuntzaren graduazioari eta maisu-maistren formakuntzari zegokionez. Carlos Mainerren hitzetan, Espainiako kulturaren Zilarreko Aroaren aurrean geundeke.

Hala ere, Nafarroan oraindik gehiengoa zen landa-eremuetako irakasle-lanaren errealitatea ez zen horrenbeste aldatu. Horrela deskribatzen du bere egoera ekonomikoa Fermín Ezpeleta irakasleak:

“Saberjanoseko zorigaiztoko maisua goseak jota hil da! Urteko 250 pezetako soldata bikaina zuen. Esaten dute, gainera, maisuaren senide batzuk baliabide ezagatik goseak jota ere hil direla. Eskandalu handiagorik egon liteke? (Unión, 1890ko otsailaren 2a).¹³⁶

XIX. mendeko azken urteetan, maisuak eta maistrak Estatuko beste funtzionarioekin homologagarria zen kidego profesionala eraikitzen hasi ziren. 1901ean Estatuak euren soldatak ordaintzeko ardura hartu zuen eta ondorioz, maisu-maistrek aspaldi lortu nahi zuten helburua erdietsi zuten: udaletatik bereiztea eta aldiro-aldi, gehienetan, euren soldata urriak jasotzea. Une horretatik aurrera, Estatuak kidego profesional horretako kideei formakuntza eta ziurtagiriak ematen zizkien eta baita hautatu ere. Nafarroan irakasleek 1914ra arte itxaron behar izan zuten, Foru Aldundiak Estatuarekin zuen auzia ebatzi zen arte.

XX. mende hasieran, eta ILEak sustatutako aire berritzaileekin bat, irakasle-lanean jarduteko formakuntza eta titulazio plan berriak agertu ziren.

1914ko abuztuaren 30eko Irakasle-Lanaren Formakuntza Plana, Bergamin Plan gisa ezaguna, esanguratsuena izan zen. Oinarrizko eta Goi-mailako maisu tituluak Lehen Hezkuntzako Maisu titulu bateratzen zituen. Hamalau urte betetzean sarbide-azterketa baten bidez sartzen zen eta ez zen beharrezkoa Baxilergo titulua izatea. Ikasketak lau urtez luzatzen ziren eta garrantzia handia ematen zitzaion irakaskuntzako praktikei. Era berean, Pedagogiako irakasgaia katedrara igo zuten.

Primo de Riveraren diktadura udaberri kultural horren etorkizun handiko aldaketak errotik moztu zituen. Berrero ere, askatasun ezak bizitza eta pentsamendua arriskuan jartzen zuen eta, noski, eskola eta maisu-maistrak. 1923-1930 urteetan zehar, erlijio eta katedra askatasuna ezeztatu zuten.

136. EZPELETA AGUILAR, F.: *Crónica negra del magisterio español*, Madril, 2001, 70.orr.



Irakasle-Laneko 14ko Planeko Lehen Hezkuntzako Maisu titulua.

IRAKASLE-LANEKO ESKOLETAKO IKASKETA-PLANA
(Benjamin Plana)

LEHENENGO MAILA	BIGARREN MAILA	HIRUGARREN MAILA	LAUGARREN MAILA
Erljioa eta Historia Sakratua	Erljioa eta Morala	Gaztelaren gramatika	Espainiako literaturaren hastapenak
Irakurketaren teoria eta praktika	Gaztelaren gramatika	Geografia unibertsala	Espainiako geografiaren zabaltzea
Kaligrafia	Kaligrafia	Aro Modernoko historia	Aro Garaikideko historia
Eskualdeko geografia	Espainiako geografia	Algebra	Zuzenbidearen eta eskola-legeen hastapenak
Antzin Aroko historia	Erdi Aroko historia	Fisika	Kimika
Aritmetika eta Geometria	Aritmetika eta Geometria	Historia Naturala	Pedagogiaren historia
Heziketa Fisikoa	Heziketa Fisikoa	Frantsesa	Fisiologia eta Higienea
Musika	Pedagogia	Pedagogia	Frantsesa
Marrazketa	Marrazketa	Irakaskuntza-praktikak	Irakaskuntza-praktikak
Joste-lanak (maistrak)	Musika	Soinekoen ebaketa eta joste-lan artistikoak (maistrak)	Nekazaritza (maisua)
	Brodatua eta ebaketa arropa zurian (maistrak)		Etxeko ekonomia (maistrak)

Primo de Riveraren diktaduran zehar eraikitako eraikin batzuk eskola-itxurako estilo berezia zuten, esaterako Buñueleko eskolak. 1922an Eskola-Multzo berria aurreikusi zen eta 1914ko urtarrilaren 17an inauguratu ziren, Tarazonako gotzainaren bedeinkapenarekin. 70ko hamarkada arte irekita egon zen, 8 ikasgela eta 8 etxebizitzarekin. Ondoren, ikasleak "Santa Ana" Eskola-Multzora joan ziren ikastera. Egun, eskola-multzo horretan Udal Liburutegia eta erabilera anitzeko aretoak daude. Buñueleko udal-artxibategiak utzitako argazkia.



Ikuskaritzak programetako eduki aberkoi eta erlijiosoen garbitasuna zain-tzen zuen. Beste behin ere, maisuak eta maistrak jomugan egon ziren.

Beti bota militar zakarren pean, zientziaren eta kulturaren zeruan hodei beltzak altxatu dira. Primo de Riveraren diktadurarekin, irakasleek euren burua kontrolatzen dute baina, herriaren aurrean duten irudia ekaitzetik kanpo geratzen da. Zigorrera, beldurrera eta baztertzera itzuli ziren, baina maisu eta maistra horiek, itxaropentsu itxoin zuten zerua ateri arte.

Bigarren Errepublika irakasle-lanak amesten zuen garaia izan zen. Baina, zoritxarrez, esnatze garratza izan zuen. Eskola berriek eta ideal liberal zaharrek sozialismo historikoarekin bat egin zuten.

1931ko apirilaren 14an, Espainia gris, behartsu, analfabeto eta etorkizun gabekoa esnatu zen. Iluntzean, Errepublikaren garaipenak jende askoren bi-hotzak itxaropenez bete zituen. Herri soilak, maisu-maistrek eta bahitutako buru horiek guztiek elkarrekin ospatu zuten askatasunaren festa.

Errepublikak eskola maisu eta maistra onenekin bete nahi zituen. Birziklapen didaktikoko ikastaroak antolatu ziren eta irakasleen soldata igo zen. Irakasle-Laneko ikasketak unibertsitate-ikasketak izatera pasa ziren eta Batxilergoa derrigorrezko ezarri zuten Eskola Normalean sartzeko. Gainera, azken mailan, ordaindutako praktikak egoten ziren. II. Errepublikak sortutako 31ko Plan Profesionalak irakasleei duintasun ekonomikoa eta soziala eman zien.

Maisuaren eta maistraren irudia, gizartearen babesarekin eta formakuntza eta baliabide gehiagorekin, profesionaltasunean eta autoestimuan handitu zen. Gehiago errespetatzen zitzairen eta gero eta harreman estuagoak eta gertukoagoak izan zituzten lan egiten zuten herrietako jendearekin.



Errepublikako maistrek emakumearen irudi tradizionalarekin apurtu zuten. Lehenengoz aske sentitu ziren emakume kultura, independente eta autonomo gisa agertzeko. Nafarroan hori egitea arriskutsua zen, balio tradizional eta kontserbadoreekin talka egiten baitzuen. Argazkian, Nafarroako Irakasle-Laneko Eskolako 1931ko Plan Profesionaleko lehenengo ikasturteko emakumezko ikasleak ikus ditzakegu. Gimnastika klaseak jasotzen ari dira Demetrio Garralda Normaleko irakaslearen eskutik, *Tratado de Educación Física en la escuela* idatzi zuena. Garai horretan, Heziketa Fisikoa Redineko zelaigunean jasotzen zen, Zaldi Zuriko estatutik gertu. Maritxu Lizarrondok utzitako argazkia.

Ikasgela barruan, maisuek eta maistrek, Irakaskuntzako Erakunde Li-break emandako euskarri pedagogiko eta intelektualari esker, ikasleengan jarri zuten indarra. Neska eta mutil bakoitzak sustatu beharreko gaitasunak zituztela ziur zeuden, alde batera utzi gabe euren motibazioa eta autoestimua. Bakarrizketa memoristikoa eztabaida parte hartzailearengatik ordezkatu zuten, neska-mutilak kalera atera ziren Natura-Zientziak ikasteko eta berdintasunean hezitzeko hezkidetzaren berreskuratu zuten. Metodologia modernizatu zen, eta ikasleak bete beharreko putzua izateari utzi zioten izaera eta zentzu kritiko propioa zuten ikasleak izatera pasatzeko... Irakaslea, pedagogiari zegokionez, bere ikasleen gaitasunak esnatzeko, sustatzeko eta pizteko pertsona izango zen.

Baina, hezkuntzaren ikuspegi iraultzaileenak Misio Pedagogikoak izan ziren. Josefina Aldecoak oso ongi deskribatzen zuen bezala, kamioneta kalamastretan, poetak, idazleak eta maisu-maistrak txokorik ezkutukoenera joaten ziren kultura orokortzeko.

Maisuaren eta maistraren irudia ordura arte ez bezala aitortu zuten garai horretan. Babes sozial handia izan zuten, kulturaren erreferentzia ziren, agintea zuten eta jendeak haiengan konfiantza zuen. Profesionalki, euren lana askatasun osoz aurrera eramane zezaketen. Maisu-maistrak Errepublikari leialak ziren Errepublika ere askatasunari leial zelako.

Errepublikan zehar, Nafarroako Irakasle-Laneko Eskolak “Lehen Hezkuntzako Irakasle-Laneko Eskola Normala” izena jaso zuen. Maisuak eta maistrak oso ongi zaindu zituen Errepublikako erregimenak, haiek hezituko baitzituzten etorkizuneko belaunaldiak demokraziaren balioetan. Luis Antonio Paternainek utzitako argazkia.



1931KO IRAKASLE-LANEKO ESKOLETAKO IKASKETA-PLANA (Plan profesionala)			
LEHENENGO MAILA	BIGARREN MAILA	HIRUGARREN MAILA	LAUGARREN MAILA
Filosofiaren hastapenak Psikologia Matematiken metodologia Espainiako Literaturaren eta Gaztelaren metodologia Natura-Zientzien eta Nekazaritzaren metodologia Musika Marrazketa Eskulanak Joste-lanak (maistrak) Hizkuntzen aukerako handitzea	Fisiologia eta Higienea Pedagogia Geografiaren metodologia Historiaren metodologia Fisika eta Kimikaren metodologia Musika Marrazketa Eskulanak Joste-lanak (maistrak) Hizkuntzen aukerako handitzea	Paidologia Pedagogiaren historia Eskola-antolaketa Kontu ekonomikoak eta sozialak Mintegi lanak Espezializazio lanak Etxeko ikasketak (maistrak)	Lehen Hezkuntzako eskoletan ordaindutako praktikak

Grafikoki irakaslearen irudiaren onespén eta ospe soziala ikusteko aukerarik bagenu, zalantzarik gabe Errepublika garaian ikusiko genuke irudimenezko grafika horren gailurrik gailenena. Punturik baxuena, aldi berean, Errepublikaren gainbeherarekin bat etorriko litzateke.

1933an hauteskunde berriak egon ziren eta Gil Roblesen CEDAko eskuina boterera iritsi zen eta batzuk Biurteko beltz gisa izendatu zuten garaia ireki zen. Gobernu berria aurretik hasitakoa gelditzen eta ezeztatzen saiatu zen. Josefina Aldecoak Biurteko Beltza (1933-35) horrela deskribatzen du: “1935 urte grisa izan zen. Gris astuna, mehatxuz betetakoa. Niretzat urte hori izan zena laburbildu beharko banu, hitz gutxitan egingo nuke: “tristuraz eta beldurrez betetako urtea izan zen”. Ondoren, Fronte Popularrak 1936ko otsaileko hauteskundeak irabazi zituenean, ondorioztatzen du: “Amesgaiztoaren amaierak ametsak berpiztu zizkidan: berriz ere hasi beharra zegoen eta irteerarik gabeko tunel baten zehar egindako bidai luzea izan zen”¹³⁷.

Josefina Aldecoaren sufrimendua, beldurra eta itxaropena maisu eta maistra errepublikar gehienek ere sentitzen zuten. Giza eskubideak eta jendarte demokratiko baten oinarritzko zutabeak irakatsi zituzten: justizia, berdintasuna, elkartasuna, askatasuna... eta, sineskor, balio totalitarioen sinesmen fanatikoak irakasteari betiko utziko ziotela uste zuten.

1936ko Fronte Popularraren garaipenarekin itxaropena berpiztu zen eta aurreikusitako proiektuei berriz ekin zitzairen. 1936ko uztailearen 18ko altxamenduak errepresio frankista ekarri zuen. Maisu eta maistra errepublikarrek jasan zuten zigorrik handiena. Errepresioa bereziki azkarra eta argia izan zen haiekin. “Errepublikako birusa gizartean eta gazteen buruetan sartu izana leporatzen zieten. Maisuak eta maistrak politikoki jarrera garbia zuten, aurrerakoiak ziren eta izaera aldarrikatzailea zuten”, azaltzen du Francisco de Luis Martínek, *La FETE en la Guerra Civil Española* liburuko egilea. Maisu-maistrak “hezitzaileen errepublika” horretako bizkarrezurra ziren, askatasunari egunero leihoak irekitzeko bekatu latza egin zutenak.

Maisu batzuk frontera joan ziren euren bizitzak salbatzeko asmoz. Beste batzuek Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren inkisizio iraingarriari aurre egin behar izan zioten. Gerra amaitu ostean, nazional-katolizismoak menpeko eskola eta irakasle otzana ekarri zuen. Hamarkadetan zehar eskola publikoak iluntasun pedagogiko eta sozialean biziraun zuen. Aurreko maisuak eta maistrak kargutik kendu edo erail zituzten, landa-eskolek lotsaz ezkututzen zituzten euren zarpailak eta eskola erlijiosoak berriro berpiztu eta biderkatu egin ziren gainera.

137. ALDECOA, JOSEFINA, *Historia de una maestra*, Editorial Anagrama, Barcelona, 1990, 225.orr.

Argazkian 1914ko Ikasketa-Planeko Nafarroako Lehen Hezkuntzako maisuak ikus ditzakegu, 1931n euren graduazioa ospatzen. Maisu horiek 1931ko Plan Profesionaletik zetozen irakasleekin aldi berean egon ziren. Bi plan ezberdin horietan formakuntza jaso zutenen arteko soldata desberdintasunak desadostasunak eragin zituen. Luis Antonio Paternainek utzitako argazkia.



Frankismoak traumatikoki moztu zituen bizitzak eta askatasuna. Oraindik loratu gabeko mundu baten itxaropena ebaki zuen. Klase menderatzailerak, eliza eta militarrek boterearekin mozkortu ziren. Beldurra eta izua odol egarriz askatasun osoz gailendu zen.

Eskola katoliko eta baztertzaile tradizionalera itzuli zen, sexuen araberrako bereizketarekin, elebakarra eta metodo zaharkituetan oinarritutakoa. Immobilismo moral eta pedagogiko atzerakoienak Erregimenaren ideologia fundamentalista goiargitu zuen. Araudi faxista berriak Errepublika garaiko aztarna oro errotik atera zuen.

Maisu-maistraren irudiak ehun urte atzera egin zuen eta Espainia sako-neko pertsonaia tipikoa izatera pasa zen berriro: goseti, hamaika lanbiderekin biziraun ahal izateko, gaizki ordaindutakoa, formakuntza gutxikoa, begirunerik gabekoa eta abandonatua: “1939an, gerra amaitzean, irakasleak 1930eko erosteko-ahalmenera itzuli ziren gutxi gorabehera: ondoren, 1941ean, 1913. urteko mailara jaitsi zen. Ia hogeita hamar urteko atzerakada”¹³⁸.

Irakasle-Laneko ikasketak zaharkitu ziren eta Errepublika garaiko freskotasuna eta maila galdu zuten. Hurrengo hamarkadetan inork ez zuen gaitasunik izan eskola eta irakasleak aurrera ateratzeko. Irakaskuntza obsesiboki

138. NAVARRO SANDALIOS, R., 1990, *La enseñanza primaria durante el franquismo, (1936-1975)*, Barcelona, PPU, 108. orr.

erlijiosoa eta aberkoia izatera pasa zen berriro, metodo errepikakor eta memoristikoeekin, apatikoa, izaerarik, pentsamendurik eta irudimenik gabekoa. Horrela deskribatzen du ikasle batek gerraosteko eskola:

Denboran gelditutako pakete handi bat, errepikakorra, eternitatea bezain ezeztazina; esanekotasunaren, sakrifizioaren, ezjakintasunaren eta desiren geruza askotan bilduta, arau, diziplina, ordena eta isiltasunarekin lotuta; erlijioarekin, familiarekin eta ezintasunarekin gaiztua eta zigilatua.

Erregimenak maisu eta maistrei eskatzen zien itxura moral eta fisikoa beti izan zen betekizun bat garai horretan. Hori dela eta, 1971ko Plan iritsi zen arte, ezgaitasunen bat zuten irakasleek ezin zituzten ikasketak egin eta funtzionario izateko mediku-txostenak eskatzen zizkieten.

Frankismoan zehar, maisu-maistren gabezia ekonomikoa berriro ere agertu zen. Horretarako, “ozta-ozta” bizi ahal izateko, euren lana beste jarduera batzuekin bateratzen zituzten. Esaterako, herriko kontabilitatea egitea, nekazarien edo kooperatibako idazkaria izatea, klase partikularrak ematea, etab.

1956an, ezarritako soldatak irakasle-mailan sartzean ziren soldatak ziren, hau da, 799 pezeta, 51 hileru. 1960an soldata igoera egon zen, mailetako kategoriak berritzean eta bosturteko sistema ezartzean. 1966ko sarrera-soldata hileko 4.617 pezetakoa zen.

Frankismoan maisuek onarpen sozial handia izan zuten: maisua, apaiza eta Guardia Zibileko komandantea ziren gerraosteko Espainiako herrietako agintaririk esanguratsuenak. Espainia zakar eta baldar horretan, Machadok esaten zuen bezala, maisu-maistrari moralaren eta zientziaren “erredentore” papera egitea egokitu zitzaion.

Udaletxe batzuetan, arazo ekonomiko larrien jakitun, ahal bezain ongi ordaintzen saiatu ziren. Horrela, esaterako, Deierriko udaletan, XIX. mendeko aldi batean zehar: “maisua-maistrei soldata igo zieten, eraikin onak eraiki zituzten eta eskolak material modernoekin hornitu zituzten”¹³⁹.

Frankismo garaian Aurizberriko udalak egur-sortak eman zizkion herriko maisu-maistrari; Eugiko udalak herrian egondako urte bakoitzeko 1.000 pezeta ematen zizkion erretiratutako maisu-maistrari; Garraldan 15.000 pezetako ordainsaria eman zitzaion erretiratzean; Luzaiden, udalak urtero 12.000 pezeta ematen zizkion Batxilergoan sartu ahal izateko 10 urte baino gehiago zituzten ikasleei egunean klase bat emateko; Zubirin, herriko fabrikak, uda-

139. ONSALO Y UROZ, F. *Memoria relativa al estado de la Instrucción Primaria de Navarra según los resultados del curso 1902 á 1903*, Iruña, 1903, 24. orr.

laren laguntzarekin, 12.000 pezeta ematen zizkion; Arizkuneko udalak doako ostatua eta hileru 250 pezeta gehiago ematen zizkion, bere soldata 1.000 pezetakoa baitzen; Irurtzuneko udalak urtero 5.000 pezeta eman zizkion herriko maisu-maistra bakoitzari. Beste herri batzuetan dirua maisu-maistren etxebizitzak txukuntzeko eta berokuntza sistema hobetzeko bideratzen zuten, esaterako Zangozan, Petilla Aragoien eta Arian, besteak beste.

Garai horretan ere, Estatuak irakasle-lanari prebenda endogamikoak eskaini zizkion kidegoko seme-alaba, umezurtz eta alargunentzat; ezkontide-eskubidea¹⁴⁰, etxebizitza-logela, etab.

Egonaldiengatik, “berrikuspen-klaseak” ere deiturikoak, soldata osagarria jasotzen zuten, zehazki 50 pezeta, familiek ordaintzen zituztenak. Martxan jarri ziren 1962-63 ikasturtean, 148/63 Dekretua eta 63/6/30eko Ministerio-Agindua onartu ostean. Modu horretan irakasle-lanaren soldata orekatzen zuten, 1951ko apiriletik egonkortuta zegoena.

Egonaldiekin eskola-ordutegiari beste ordubete gehitzen zitzaion. Arratsaldeko 5etatik 6tara izaten ziren, baina zentro batzuetan eguerdiko 12etatik 13era izaten ziren. Egonaldietara joaten ez ziren ikasleen artean bereizketa sortzen zen, eta beste zenbait arazo ere, esaterako irakasleek testuinguru sozio-ekonomiko handiagoa zuten zentroetara joateko zuten nahia.

Sistema hori bertan behera geratu zen Villar Palasiren 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorrarekin. Lege horrek derrigorrezko eta doako hezkuntza ezarri zuen, eta baita, hamarkada amaieran izan ziren grebengatik, maisu-maistren soldataren duintzea ere.

Garai horretan maisu-maistra titulua lortzeko hiru formakuntza **plan egon ziren: 50ekoa, 67koa eta 71koa.**

Frankismoan hezkidetzaren desagertu zen Eskola Normaletatik eta maisu-maistren irudia guztiz politizatu zen, bera izango baitzen “Inperiotik Jainkorantz” lema zuen Espainia Berriaren ideiak eraikiko zituena. Bigarren Errepublikan izandako aurrerapen pedagogiko eta profesionala Diktadurak eten zuen

140. II. Errepublikaz geroztik Estatuak onartutako figura administratiboa, irakasle senar-emazteak destino berean elkartzeko balio zuena. Irakasleek, oro har, diskriminaziotzat jo zuten eskubide hori eta “derecho de consuerte” gisa ezaguna egin zen haien artean.



Argazkian 50eko Ikasketa-Planeko irakasleak ikus ditzakegu euren 25. urteurrena ospatzen (1967-1992), Irakasle-Laneko Eskola Normaleko irakasle batzuekin batera: Labiano, Zabalza, Guibert, Ruiz de Ojeda, Eraso eta Gutiérrez.



Maisutzako ikasleak ekuatorearen iragaitza ospatzen Iruñeko Vista Bella jatetxean. Miguel Legasak utzitako argazkia.

Frankismo garaian, Irakasle-Laneko Eskolak, gizonezkoenak, "Huarte de San Juan" izena jasotzen zuen. Emakumeek "Blanca de Navarra" Irakasle-Laneko Eskolan ikasten zuten. 1967 eta 1971 artean Nafarroako Irakasle-Lanak bi sexuetako ikasleak jaso zituen. 1971tik aurrera, Nafarroako Oinarrizko Hezkuntzako Irakasleentzako Unibertsitate-Formakuntza Eskola izena jaso zuen.



IRAKASLE-LANEKO ESKOLETAKO IKASKETA-PLANAK. 1950

LEHENENGO MAILA	BIGARREN MAILA	HIRUGARREN MAILA
Erljioa eta bere metodologia	Erljioa eta bere metodologia	Erljioa eta bere metodologia
Gaztelera	Matematikak eta bere metodologia	Espainiako literaturaren historia eta Gaztelaren metodologia
Gaztelaren metodologia	Fisika eta Kimikako metodologia	Espainiako geografia eta historia eta bere metodologia
Matematikak eta bere metodologia	Filosofia	Historia Naturala eta bere metodologia
Espainiako geografia eta historia eta bere metodologia	Psikologia	Nekazaritza
Filosofia	Pedagogia	Musika
Fisiologia eta Higienea	Joste-Lanak edo Eskulanak	Atzerriko hizkuntza
Joste-Lanak edo Eskulanak	Marrasketa eta bere metodologia	Marrasketa naturala
Kaligrafia	Musika	Heziketa fisikoa eta bere metodologia
Heziketa fisikoa eta bere metodologia	Kaligrafia	Irakaskuntza-praktikak
Irakaskuntza-praktikak	Irakaskuntza-praktikak	Formakuntza politiko-soziala
Formakuntza politiko-soziala	Heziketa fisikoa eta bere metodologia	Etxeko irakaskuntza eta bere metodologia (maistrak)
Etxeko irakaskuntza eta bere metodologia (maistrak)	Formakuntza politiko-soziala	
	Etxeko irakaskuntza eta bere metodologia (maistrak)	



Iruñeko “Federico Mayo” Eskola-Multzoko irakasleak Enrique Goicoa Arilla¹⁴¹ zuzendariarekin (erdialdean, lehenengo lerroan). Cortés Urbánek utzitako argazkia.

50eko Plana 45eko Lehen Hezkuntzako Planean inspiratuta zegoen. Gu-txienez 14 urte izatea eta Oinarrizko Batxilergo titulua eskatzen zen irakasle-laneko ikasketak egiteko. 3 ikasturteko iraupena zuen formakuntza horrek.

67ko Plana 31ko Planean inspiratzen zen eta euskarria izan zen 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorrerako. Goi-mailako Batxilergoaren bidez sartzen zen eta hiru maila orokor ikasten ziren. Azkeneko ikasturtean ordaindutako praktikak egiten ziren. Ikasleen %10, euren emaitzen arabera, zuzenean sartzen zen Irakasle-Lanean.

Plan Esperimentala edo 71ko Plana. Plan hori Hezkuntzako eta Oinarrizko Irakaskuntzako Lege Orokorraren ezarpenarekin batera ikasi zen. Irakasle-Laneko ikasketek unibertsitate-izaera zuten. Eskola Normalak OHoko Irakasleen Unibertsitate-Eskoletan bihurtu ziren eta irakasle-lanean jarduten zuenak OHoko irakaslea izatera pasa zen. Hainbat espezialitate ezarri zituen: Gaztelera, Matematikak eta Natura-Zientziak, Giza Zientziak eta Hizkuntza Modernoa. 1977tik aurrera, Haur Eskola eta Hezkuntza Bereziko espezialitateak gehitu ziren.

141. Enrique Goicoa Eskola-Zuzendarien Kidegoko partaidea zen, apirilaren 20ko 985/1967 Dekretua sortu zuena.

Maisutzako hirugarren kurtsoko ikasleak San Frantzisko eskoletako patioan, non irakaskuntza praktikak egiten zituzten, 1964. San Frantzisko ikastetxe publikoak utzitako argazkia.



San Frantziskoko Erantsitako Eskolako maistrak Amparo Toro zuzendariarekin batera. San Frantziskoko Eskoletako Artxibategiak utzitako argazkia.



Oposizio bidezko gaikuntzari zegokionez, hiru maila zeuden: “diezmilistas” (hamarmilakoak), 10.000 biztanle baino gehiagoko herrietan irakasle-lanean jarduteko gaitasuna ematen zuenak, Ama-Eskolakoa eta Haur-eskolakoa eta Pedagogia Terapeutikoa.

Maisuaren eta maistraren irudiari dagokionez, jendartearen jarrera bi aldekoa izan da. Baliabide ekonomikoak eta jendartearen orokorrean urriak zirenean maisuen onarpen soziala zabala zen, herriko zutabe intelektualak ziren. Aldiz, jendarteak eta irakasleek arazo ekonomiko larriak ez zituztenean, ospea eta agintea galdu zuten.



San Frantziskoko Erantsitako Eskolako maisuak Labiano jauna zuzendariarekin. San Frantziskoko Eskoletako Artxibategiak utzitako argazkia.





Alfontso X.a jakintsuaren gurutzea Eusebio Quintana Rada, Buñueleko maisuari eman zioten.

“De bien nacido es ser agradecido” Erregimen Zaharrean maisu-maistrek arbelean idazten zuten esaeretako bat izan zen. Administrazioek eta udalek esaera hori behar bezala erabili zuten maisuak eta maistrak omentzeko.

Herri batzuetan plaka edo oroigarri xume batekin gogoratzen dute maisu eta maistra horien pairamena. Nafarroan, kaleak, eskola-eraikinak, plaka-oroigarriak eta adopzio seme-alabak euren herrietako maisu eta maistrei eskaini zizkieten. Adibide gisa, ondorengo hauek aipa genitzake:

Kaleak: Luis Peñalva, Milagron; Joaquín Corti Calvera, Milagron; Juan Preciado, Cadreita; Maistren kalea, Burlatan; Lino Munárriz, Arguedasen; Sánchez anaien kalea, Villafrancaen; María Viscarret, Berriobeitin; Joaquín Puy eta Agustín García, Atarrabian; Sor Julia Ruiz, Larraga; Cripiniano Echeverría, Mendabian; Toribio Láinez Gil, Cintruenigon; Joaquín Azcárate, Burlatan...

Eskola-Eraikinak: Luis Gil, Zangozan; María Ana Sanz, Iruñean; Ricardo Campano, Vianan; Elvira España, Tuteran; Francisco Arbeloa, Azagran; Teresa Onieva, Zizur Nagusian; Honorio Galilea, Monteagudon; Mardones y Magaña, Murchanten; Álvaro Álvarez, Faltzesen; Lorenzo Goicoa, Atarrabian...

Adopziozko seme-alabak: Carmen Alfaro Jiménez, Zarrakaztelun; José Erdozaín Iribarren, Zangozan; Eladio García, Nafarroako Ikuskari Burua, Faltzesen...

Plaka-oroigarriak: Felisa Echeverría Belzuneguik, Eneritzeko maistra, udalaren eskutik plaka-oroigarri bat jaso zuen herrian 40 urtez irakasten egoteagatik. Francisco Arbeloak plaka-oroigarria jaso zuen Azagran 45 urtez irakasten egoteagatik.

Hezkuntzako Administrazioak ere historian zehar egindako merezimenduzko lanarengatik maisuak eta maistrak saritu zituen. Sariak ekarpen ekonomikoak, dominak, lekualdatze lehiaketetarako puntuak... izan ziren. XIX. mendean zehar saritu zituzten maisu eta maistra batzuk ondorengo hauek izan ziren:

Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Probintzialak emandako zilarrezko domina, Ezequiel Torrecilla, Iruñeko eta Lizarrako maisua (1859).

Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Probintzialak emandako urrezko domina, Pedro Lino Munárriz y Velasco, Arguedaseko eta Tuterako maisua (1865).

Isabel Katolikoaren Gurutzea, Dionisio Ibarlucea, Lizarrako maisua (1872).

Alfonso XII.aren Ordena Zibilaren Zaldunaren Gurutzea, D. Eustaquio Aldasoro, Faltzeseko maisua (1929).

Errepublikako gobernuak ere maisu-maistren lana omendu nahi izan zuen sariak emanez eta, noski, merezi zuten esker ona emanez. 1935eko ekainaren 25eko saioan Nafarroako Ikuskariaren Batzordeak Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Orokorrari “irmotasunari eta merituari”¹⁴² ariak proposatu zizkion. Ondorengo hauek izan ziren sari horien onuradunak:

Merituari saria: Agustina Muruzábal Babace, Faltzeseko maistra; Juana Irene Larragueta Gil, Atarrabiakoa; Sidonio Inchauspe Elizondo, Iruñeko maisua; Alfredo Rioja García, Tuterakoa; Juan Bautista Beriáin Galduroz, Artaxokoa; Narciso Ripa Obanos, Irunberrikoa; Constan-
cia Flor Marcellán, Zuluetakoa (Elortz) eta Bonifacia Ciaurriz Artieda, Muru-Astrainekoa.

Irmotasunari saria: Vicenta Galindo Navarro, Fiteroko maistra; Ma-
ría Mira Rodicio, Orkoienekoa; Carlos Rodríguez Pérez, Lakuntzakoa; Joaquín Corti Calvera, de Milagro; Manuel Lizarraga López-Vailo, Tute-
rakoa; M^a Felisa Saenz Rubio, Barillasekoa eta Apolonia García Lesaca, Otanokoa (Elortz).

Frankismoan zehar (“ogirik egon ezean, sariak ongiatorriak dira”), sari asko eman zitzaizkien maisu eta maistrei. Adierazgarrienak ondorengo hauek izan ziren:

Alfonso X.a Jakintsuaren Gurutzea: M^a Luisa Recalde Azanza, Aoseko maistra; Javier Gamboa Aracena, Alloko maisua; Juan Lacasia Redín, Aizpurgikoa; Eusebio Quintana Rada, Buñuelekoa; M^a Luisa Varea Solar, Cintruenigokoa; Javier Medrano Chivite, Cintruenigokoa; Eulalio Armendáriz Barrena, Lizarrakoa; Julián Varela Lorbés, Faltzesekoa; Saturnino Hernández Jiménez, Faltzesekoa; Felicidad Suescun, Berbintzanakoa; Beatriz Echarte Goñi, Tuterakoa; Teófilo Martínez, Tuterakoa; Ramiro Subirá Cónsul, Olaztikoa; Eduarda Lorea Garde, Ustarrotzekoa; Silverio Imízcoz Nuin, Iruñekoa (San Francisco); Ignacia Fermina Zulategui, Iruñekoa (San Francisco); Pablo Antoñana Angulo, Vianakoa; Cándido Sainz de Vicuña Albéniz, Lodosakoa; Inocencia Echeverría Goñi, Legasakoa; Jesús Bañales Mendía, Artaxoakoa; Circuncisión Rota Berrio, Eugikoa...



Cisnerosen Ordena José Olcoz Pueyo, Cascanteko maisuari eman zioten.

142. Nafarroako Ikuskaritza Batzordeko akten liburua, 1933-1969, 43. eta 44. orr.

Cisneros Ordenaren domina: José Olcoz Pueyo, Cascanteko maisua; Jesús Jiménez, Iruñekoa (Federico Mayo); Mariano Latienda Asiáin, Gareseko maisua; Rosario Inchauspe, Iruñeko maistra; Miguel San Julián Arribillaga, Tebaseko maisua; Agustín Cortés Rueda, Iruñeko maisua (María Ana Sanz)...

Beste sari batzuk, lekualdatze lehiaketa orokorrerako puntuak ematen zizutenak, “**Eskertza Boza**” eta “**Puntuak**” sariak izan ziren. Ikuskariaren arabera, ikasgelan egiten ari ziren lan onarengatik aitortpenak ziren. Saritutako maisu eta maistra batzuk ondorengo hauek izan ziren:

José Velasco Hernández, Garraldakoa; Germán Riezu Echauri, Irunberrikoa; Enrique Goicoa Arilla, Altsasukoa; Jesusa Arbizu Moreno, Orbaitzetakoa; Justo Labiano Zabalza, Iruñekoa; Ana María Echegaray, Murietakoa; M^a Jesús Echegaray, Antzinekoa; Jesús Extramiana Apeillániz, Altsasukoa; Dominica Arbizu Moreno, Orbaitzetakoa; Conrado Ortega Ucedo, Tuterajia; Bonifacia Ciáurriz Artieda; César Mazorra Errea, Añorbekoa; M^a Teresa Inda Sandaluce, Valtierrakoa; Javier Sánchez, Beriainekoa (Galar); Eugenio Echeverría Antón, Valtierrakoa; Rosario Diez Lizarbe, Aurizberrikoa...

Nafarroako Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzako Batzordeak, 1965eko maiatzaren 10ean egindako saioan, Manuela Laguna Buitrago Ikuskari-Buruaren lehendakaritzapean, Nafarroako “**Maisu-maistra Agurgarri**” diplomak emateko baimena Batzorde Gorenari eskatu zion. Proposatutako maisu-maistrak ondorengo hauek izan ziren:

Julia M^a Ibarrola Latasa, Iruñekoa; Faustino Saldaña Cunchillos, Tuterakoa; Pascuala Peña Navarro, Iruñekoa; M^a del Carmen Alfaro Jiménez, Zarrakastelukoa; José M^a Erviti Garde, Izabakoa; Concepción Sarasola Gorricho, Añezkarrekkoa; M^a Jesús Bariáin Zuazu, Caparrosokoa; Javier Múgica Gorricho, Iruñekoa; Adelaida Ortega Ucedo, Tuterakoa; Inocencia Echeverría Goñi, Lesakakoa; Germán Sala Recalde, Iruñekoa; Julián Sainz Guillorme, Corellakoa; M^a Fernanda Jiménez Lorente, Tafallakoa; Epifanio Goñi Gárriz, Ziraukikoa; Antonio Garayoa Imaz, Lizarrakoa; Elena Setuáin Iribarren, Zubirikoa; José Gamboa Arocena, Allokkoa; Jesús Pascual Navascués, Tuterakoa; Margarita Beruete Calleja, Lizarrakoa; Nieves Larumbe Irigoyen, Monteagudokoa; Gloria Rosagaray Mur, Elokkoa; Julián Varela Lorbes, Faltzesekoa; Pedro Tarrafeta Ríos, Altsasukoa; Carmen Rubio Lecia, Altsasukoa; Natividad Mendaza Chandía, Altsasukoa; Edmundo Martín, Tuterakoa eta Eulalio Armendáriz Barrena, Lizarrakoa.



Oibarreko maistrak, Josefina Torcal aragoitarrak, Gabriel Valentín bere senarra bezala, erregimen frankistaren errepresioa jasan zuen. Militante sozialista sutsua, prentsak jaso zituen mitinak antolatu zituen Villafrancakoa zen Julia Álvarezekin batera. Mitin horien berri, batez ere *Trabajadores* aldizkarian eman zuten. Irudian Oibarreko bere ikasleekin ikus dezakegu. 1922. Rosa Izizek utzitako argazkia.

Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, Oibarren 277 ikasle zeuden, hiru eskola unitatetan banatuta: mutilena, neskena (biak publikoak) eta haur eskola pribatua.

xx. mendearen erdialdean Oibarreko eskolak egoera tamalgarrrian zeuden. Hori dela eta, Udalak eskola berriak eraikitzeko erabakia hartu zuen eta bide batez, maisu-maistrentzako etxebizitzak eraiki zituen. Eskola-Multzoaren inaugurazioa 1965eko urriaren 6an izan zen. Ekitaldira udaleko eta probintziako agintariak joan ziren. Eraikinak herriko seme zen Azcarate Aitak bedeinkatu zituen. 1968an herrian 130 mutil eta 160 neska jasotzeko 5 eskola-unitate zeuden, 4 publiko eta pribatu bat, Karitatearen Ahizpen esku zegoena. Argazkian ikasleak Gabriel Valentín Casamayor Oibarko maisu eta alkatearekin ikus ditzakegu (1922). Rosa Izizek utzitako argazkia.



Urte batzuk beranduago, Oibarreko udalak 1936an erail zuten Gabriel Valentín Casamayor maisuaren lana aitortu nahi izan zuen eta herriko Ikastetxe Publikoari bere izena jarri zion. Gabriel Valentínek, Josefina Torcal nesken maistra zen bere emazteak bezala, herriari familia-lotura eta lotura sentimentala zuten.



Pascual Madozek bere *Hiztegi Geografikoan* azaltzen duen bezala, 1847an Orbaizetako (Aezkoa) Eskola Mistora 63 mutil eta 30 neska joaten ziren eta 4.260 errealeko hornidura zuen. *Espainiako Eskola-Estatistikoaren* arabera, 1908an herrian oraindik ere Eskola Osatugabea zegoen, udaletxeko lokaletan zegoena eta bi sexueta 73 ikasle jasotzen zituen. Argazkian Orbaizetako eskola-erakin zaharra ikus dezakegu, 1965ean eraitsi zutena.



1947-1957 aldian, Orbaizetako udalak egun oraindik erabiltzen diren eskola berriak eraiki zituen. Argazkian ikus ditzakegunak dira. 1958an mutilen unitateko maisu titularra Ramón Ortiz Roldán zen, Hezkuntzako Batzorde Nagusiak bere ikasleekin egindako lan onena dela eta omendu zuena. 1965ean Jesusa Arbizuk eta Narciso Villanuevak, eskolako maistra eta maisua, Agoitzeko Alderdi Judzialaren eskutik sari bat jaso zuten, euren ikasleek Oinarrizko Ikasketen Ziurtagiria lortzeko egindako azterketa onengatik. 1969-1970 ikasturtean, herrian hiru eskola-unitate zeuden: mutilena, neskena eta mistoa. Azken unitate hori "La Fábrica" auzoan zegoen.



Irudian Beriaingo (Galar) eskola ikus dezakegu, 1927an eraiki zena. Bertan Javier Sánchez maisuak lan egin zuen eta "Eskertza Boza" jaso zuen bere lan onarengatik.



XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran, Zangozako Mutilen Eskola egungo Parrokia Etxean zegoen. 1890ean eskola berriak zezen plazako lursailetan eraiki ziren, “Mutilen Eskola Nazional Graduatuen” izenarekin. Eskola horien jatorria udalak 1890 eta 1895 urteen artean egindako proiektuetan zegoen. 1925ean eraberritu zituzten, 1930ean aurrealdean berritu zen eta 1974an eraitsi zituzten. Javier Beunzak utzitako argazkia.



1951tik aurrera, Zangoza Mutilen Eskola-Multzoak “Luis Gil” izena jaso zuen, eskolan lan egin zuen eta 1934an erretiratu zen maisu bikainaren omenez. 1967 eta 1974 urteen artean, Eskualdeko Eskola eraikitzeko proiektua garatu zen eta 1977an abiarazi zen eskola berria. Eskualdeko Eskolak inguruan itxitako eskoletako ikasleak jaso zituen: Aiesa, Lerga, Eslaba, Galipentzu, Xabier, Ledea eta Esa. Javier Beunzak utzitako argazkia. 1934.



Pascual Madozek bere *Hiztegi Geografikoan* azaltzen duen bezala, 1847an Murchanten Lehen Hizkien bi eskola zeuden. Mutilenak 60 ikasle zituen eta neskenak 50. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an, 288 ikasle zeuden herrian, lau eskola-unitatetan banatuta: bi publiko eta bi pribatu (bat bi sexuena eta bestea neskena). 60ko hamarkadaren hasieran bi sexuentzako Eskola-Multzoa eraiki zen Murchanten. Ondoren, 1981n, "Mardones y Magaña" Ikastetxe Publikoa martxan jarri zuten. Ikastetxeko izena Murchanteko bi maisu txalogarriren omenez jarri zuten: Fernando Mardones eta Inocencio Magaña. Argazkian Fernando mardones jauna bere ikasleekin ikusten ditugu, 1960an. Murchanteko Historia eta Kultura Elkarteak utzitako argazkia.



Murchanten ikasleek euren hezkuntza lokal askotan jaso zuten. Horietako bat 1776an eraiki zen udaletxe zaharreko beheko solairuan zegoen. Beranduago, kale Berrian maisuarentzako etxebizitza ere bazuen eskola eraiki zen. 1911n, Mutilen Eskola inauguratu zen, irudian ikus dezakeguna. Egun berriro eta handitu egin dute. Udalak Kultura Etxe eta Liburutegi gisa birmoldatu du eskola. Murchanteko Historia eta Kultura Elkarteak utzitako argazkia.

San Vicente Pauleko Karitateko Ahizpak Zangozako nesken eskolatzearen arduradunak izan ziren 1825etik 1972ra arte. Data horretatik aurrera, nesken Lehen Hezkuntzaren ardura Estatuak bere gain hartu zuen. 1972 eta 1977 urteen artean, "Luis Gil" Eskualdeko Eskola-Multzo berria eraikitzen zen bitartean, ikasleak (neskak eta mutilak) "La Inmaculada" Ikastetxera joan ziren ikastera.

Argazkian "San Vicente Paul" Ikastetxea ikus dezakegu. Egun "Sierra de Leire" (Zangoza) Ikastetxe Publikoa da. Mutilen irakaskuntza pribatua Maristen esku zegoen, herrian 1902tik 2002. urtera arte egon zirenak. Sierra de Leire Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak utzitako argazkia.





Lorenzo Goicoa maisu saritua Atarrabiako bere ikasleekin Udal Enparantzan zegoen Mutilen Eskolako atarian (1930). Bere omenez, Atarrabiako udalak 1960ean inauguratu zen Ikastetxe Publiko berriari bere izena jarri zion. Eskola-zentro berriaren proiektua Marcelo Guibert arkitektoak egin zuen eta mutilentzako hiru ikasgela eta neskentzako beste hiru zituen, osotara 350 ikasle jasotzeko. 1.100.000 pezetako kostua izan zuten eraikitze-lanek. "Lorenzo Goicoa" eskola-multzoak Zildotz, Orrio, Makirriain, Oriain eta Anotzeko ikasleak era jaso zituen. 1970ean, Atarrabian 19 eskola-unitate zeuden: 16 publiko eta 3 pribatu-erlijiosoak. Horietan 382 neskek eta 290 mutilek ikasten zuten. Atarrabiako Udalaren Argazki Artxibategiak utzitako argazkia.



Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Atarrabian 196 ikasle zeuden hiru ikasgeletan banatuta: mutilena, neskena eta pribatua zen nesken bat. Argazkian Atarrabiako plazan zeuden eskola ohien atarian atera zen. "Escuela de Abajo" izenaz ezagutzen zen. 1916an inauguratu ziren eta 1927an handitu. Irudian José Antonio Pérez Satrústegui maisua 1971-72 ikasturteko ikasleekin ikus dezakegu. Irakaskuntza pribatua "Amor Misericordiso", "Presentación" eta "Sagrado Corazón" Ikastetxeen esku zegoen. Atarrabiako Udalaren Argazki Artxibategiak utzitako argazkia.



Atarrabiako "Esteban Armendariz" eskola ohiak, "San Francisco Javier" Eskola-Multzoaren aurrean.

1964ko irailaren 9an Monteagudoko Eskola-Multzo berria eta maisu eta maistrentzako lau etxebizitza inauguratu ziren. Garai horretan Manuel Alfaro, Victoriano Baigorri, M^{re} Carmen Fernández, Nieves Larumbe eta Cecilia Oñatevia izan ziren maisu-maistrak. Argazkian Honorio Galilea ikus dezakegu, Monteagudoko maisua, bere ikasleekin (1934). Egun, herriko ikastetxe publikoak bere izena darama. Monteagudoko Udalak utzitako argazkia.



1970ean Nafarroako Ikuskaritza Batzordeak Hezkuntzako eta Zientzietako Ministerioari Ariako eskola mistoak (Aezkoa) 2.500 pezetako saria jasotzea proposatu zuen. Bere kokapena zela eta, hiriburura bidaiatu nahi zuten. Argazkietan Ariako eskola mistoaren barnealdea eta kanpoaldea ikusten ditugu.



Beatriz Echarte Goñik, Tuterako “Elvira España” Eskola-Multzoko maistra, Alfonso X.a Jakitsuaren Ordenaren Gurutzea jaso zuen¹⁴³.



Ardanzko (Izagaondoa) Eskola mistoaren eraikina eta barnealdea. Madozen arabera, 1845ean, Adanatzek Lehen Hizkien eskola osatugabe bat zegoen, 25 ikaslerekin eta 1.300 errealeko hornidurarekin. 1973an Raimunda Echarte Berovia maistrak “Eskertza Boza”¹⁴⁴, Alfonso X.a Jakitsuaren Ordenaren begizta eta 5.000 pezetako saria jaso zuen Aldundiaren eskutik herriko eskolan egindako lan onarengatik.

143. Alfonso X.a Jakitsuaren Ordenaren gurutzea Espainiako ordena zibil bat da. 1939ko apirilaren 11ko dekretuaren bidez arautu zen hezkuntza, zientzian, kulturean, irakaskuntzan eta ikerketan lortutako merezimenduak saritze aldera. Ordenan sartzea Ikuskaritza Batzordeak Batzorde Nagusiari proposatzen zion azken hori baitzen San Jose Calasanz Maisuaren Egunean irakasleei sariak eta dominak ematen zituena.

144. “Eskertza Bozak” Ikuskaritzak maisu-maistrei lekualdatze lehiaketetarako ematen zizkien puntuak ziren, lekualdatze horien bidez hezkuntza sistemaren metodologiaren orokortzea sustatzeko.

1847an, Madozen arabera, Añorben 60 ikasle zituen eskola osatugabea zegoen. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, bi sexuetako 115 ikasle zeuden, eraikin ezberdinetan zeuden bi eskola-unitatetan banatuta: jauregian, kasino, jostunaren etxea eta "Pantaloneraren" etxea. 1944an, herriko enparantzan eskola berriak eraiki ziren. Argazkian, Añorbeko Eskola Nazionaleko ikasleak ikus ditzakegu César Mazorra Errea maisuarekin 1959-1960 ikasturtean. Hezkuntzako Batzorde Nagusiak, "Eskertza Boza" eman zion maisuari bere lan onarengatik. Javier Vicuña utzitako argazkia.



Tebaseko eskola bateratua 1955ean inauguratu zen eta bi eskola-unitate zituen: mutilena eta neskena. Ikasgela bakoitzari atxikita maisu eta maistra bakoitzaren etxebizitzak zeuden. Eskola horretako maisu ospetsuenetarikoa bat Miguel San Julián Arribillaga izan zen. 1969an, Cisneros Ordenaren¹⁴⁵ domina jaso zuen Tebaseko ikasleen heziketan egindako lanarengatik.



145. Cisneros Ordenaren domina Francisco Francok sortu zuen José Luis Arresek, garaiko Mugimenduko idazkari-ministro orokorra, eskatuta.

17. ESKOLA-IBILERA

Iraganeko maisuen eta maistren bizitza gogorra eta zaila izan da. Eskola beti mundu aldakorra izan da, gorabehera politiko, sozial eta erlijiosoen menpe egon dena. Irakasle-lana beti egon da aldaketa politikoen zoriaren menpe eta maisu-maistrak, errege dekretu bidez, gauetik egunera, sistema politiko eztabaidagarrien zaintzaile ideologikoak izatera behartu dituzte.

Jarraian euren bizitzak, gaztaroa eta idealak eskola publikoari eskaini zieten maisu eta maistra horien lagin txiki bat eskainiko dugu, euren lan isil eta gogorrari esker jende askoren itxaropenak bete zituztenak. Bizitza ezberdinak dira, baina adierazle komuna dute: lanarekiko grina, eskolarekiko maitasuna eta euren ikasleengan jarritako amets itxaropentsuak.

Iraganeko maisu eta maistrak joan ziren. Horietako asko ahaztutako eskoletan isiltasunez eta zuhurtziaz bizi izan ziren. Beste batzuen kasuan, abandonatutako artxibategietan euren inguruko erreferentzia lausoak baino ez daude. Edo kolorea galdu duten argazkietan antzeman daitezkeen begiradak. Azkenik, badira gazte hil zirenak, euren bizitza eta askatasun proiektuak basakeria hiltzailearen aurrean defendatu zutenak. Ezin dugu inor ahaztu; euren hezkuntza eta kultura oinordetza belaunaldi askoren memoria historikoan bizirik dirau.

Iraganeko maisu eta maistra askok mundua, gizartea eta hezkuntza bera ulertzeko modu ezberdinak defendatu zituzten. Horretarako arazorik ez zegokeen ideia demokratiko sendoak egon izan balira: errespetua, tolerantzia, askatasuna... Baina XIX. mende osoan zehar eta XX. mende zati handi batean egoera ez zen horrelakoa izan. Kontserbadoreak eta liberalak, errepublikarrak eta nazional-katolikoak mutur bateraezinak ziren, ekaitz sozial bortitzen

Aitzina, maisuen edo maistren lana euren aginte pertsonalean, diziplina zorrotzean eta ikasleek inoiz ezbaian jartzen ez zuten errespetuan oinarritzen zuten. Argazkian Santacarako ikasleak eta beren maistra ikusten ditugu. (1900-1910). Santacarako Udalak utzitako argazkia.



artean lege partidista eta konstituzio alderdikoak ezartzen zituztenak. Eta ekaitz horren erdian, eskolek eta maisu-maistrek tinko eutsi zioten beti.

“Iraganeko” maisu eta maistrei buruz hitz egiterakoan, literaturak zein ikonografiak zigor fisikoa ikasketa sistema gisa erabiltzen zuen irakaslearen eredia nabarmendu dute. Kasu askotan eredu hori benetakoa izan zen, baina ezin dugu ahaztu maisu eta maistra askok euren ikasleak pertsona gisa hartu zituztela.

Hala ere, maisu-maistrek beti guztien errespetua eta aitortpena izan zuten. Herriak maite zituen. Gaizki ordainduta zeuden eta eskola zaharkituak zituzten irakasle horiek, maitatuak eta ohoratuak izaten ziren. Landa-eremuetan, maisu eta maistra horien lana eta onarpen soziala irakasle gisa egiten zuten lanaz harago zegoen. Horiengana jotzen zuten bizilagunek mota guztietako kontsultak egitera.

Eskola-bizitza horien bidez Nafarroako iraganeko landa-eskolaren memoria berreraikitzen saiatu nahi da. Amestutako eta desiratutako eskola hori gogora ekartzen dute, gehienetan aurreikusitako itzaropenei erantzuten jakin ez zuen eskola, hain zuzen ere.



Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an Buñuelen bi eskola zeuden: mutilena, 48 ikaslerekin, eta neskena, 14 ikaslerekin. 1908an bi eskoletan banatutako 230 ikasle zeuden herrian. 1968-69 ikasturtean zehar herrian 8 eskola-unitate zeuden eta 240 mutilek eta 260 neskek ikasten zuten horietan. Eskaintza pribatua Frantziskotar Kontzepzionista Amen esku zegoen eta haur eskolako, nesken ikastetxea eta Ospitalea zuzentzen zuten. Argazkian Buñueleko mutilen eskolako ikasleak Julio Esteban Sarria maisuarekin eta Antonio García Monreal alkatearekin (erdialdean) ikus ditzakegu. 1923. Carlos Ostak utzitako argazkia.



Leizarozko aita kaputxinoen ikasleak eta irakasleak, 1910-11. Aita Kaputxinoek k utzitako argazkia.

EZEQUIEL TORRECILLA (1783-1865)¹⁴⁶

Galdeanon jaio zen (Allineko Ibarra) 1783an jaio zen. Venancio Torrecillaren eta Rosa Ibarlucearen semea zen. 1804an, Lehen Hezkuntzako Maisu titulua lortu zuen, Errege Kontseiluko bi maisu-azterketatzailek maiatzaren 6ko ak-tan jasotzen dutenaren arabera.

Iruñean, 1804ko maiatzaren 2an, nire aurrean, eskribau, Romualdo Zimorra eta Juan Afansión Arrieta hiri honetako Errege Kontseiluak ezarritako Eskoletako maisu-azterketatzaileen aurrean eta Lehen Hizkien maisu gisa zin eginez, aitortzen dute Lehen Hizkien Maisu izateko Ezequiel Torrecillari azterketa egin diote-la. Zehazki letrak esatea, irakurtzea, idaztea eta zenbatzea eskatu zaio, letra mota ezberdinak erabiliz eta zenbaketa arau ezberdinekin. Hori guztia 1781ko Gortee-tako 40. arauaren laugarren kapituluan ezarritakoaren arabera

1818an, Iruñeko kale Nagusiko eskola lortu zuen eta bertan 20 urtez egon zen. Era berean, eskribauen eta aritmetikaren unitateak zuzendu zituen. Urte horretan ere, hezkuntzako agintariei eskoletan erabiltzen ziren liburuak berrikusteko eskaera egin zien, Juan José García bere lankidearekin batera. “Testuliburuen proposamena” 1819an aurkeztu zuen.

1834ko apirilean, Iruñeko Udalak, Erregeordeak eskatuta, Lehen Hizkien Eskoletatik Isabel II.aren erregimen liberalaren aurkakoak ziren maisuak alboratu zituen. Horietako bat Torrecilla izan zen eta Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiari bere egoeraren berri eman zion.

Hala ere, konfiantza froga gisa, Batzordeak maisu-azterketatzaile izen-datuz zuen maisu titulua lortzeko frogak egiteko eta hautagaien aukeraketa egiteko. Hori dela eta, Udalak Torrecilla eta Hezkuntzako Batzordeko laguntzaileak kargutik kentzea erabaki zuen. Hortik aurrera, Torrecillak bere maisu lana kale Nagusiko bere eskola pribatuan garatu zuen eta jendearen artean arrakasta eta onarpen handia lortu zuen.

Gerra Karlistaren amaierarekin bat, 1839ko urriaren 8an, Lizarrako Uda-lari bere historia profesionala aurkeztu zion, mutilen eskola publikoko zuzen-dari postua eskatze aldera. Bere eskaera berehalakoan onartu zuten. Lizarra alde karlistaren gotorleku eta hiriburu izan zen.

146. Ondorengo agiritatik ateratako testu moldatua: Francisco Javier Soto Alfaro, “El Nuevo Libro Segundo de la Junta Superior de Educación de Navarra: un texto casi centenario”, Príncipe de Viana, 2001. José María Jimeno Jurío, “Escuelas de primeras letras en Estella (xvi-xix)”, AGN. 12. paper-sorta, 336. karp.



Lizarrako hezkuntza mendetan zehar udalaren zerbitzua zen. Eskolak, normalean, alokatutako eraikin hondatueta egoten ziren. 1845ean, Mutilen Eskola Publikoak 13.722 erreal zituen hiru maisuei ordaintzeko eta neskenak 2.880 erreal bi maistrentzat. Eskola horietara 230 mutil eta 150 neska joaten ziren. Nesken eskola 1790ean sortu zen eta mutilen eskolak urrezko aroa bizi izan zuen José Belzunce (1801), Ezequiel Torrecilla (1839) eta Dionisio Ibarlucea (1839) maisu ospetsuak horietan irakasle izan zirenean. Eskolako arazoa 1907an konpondu zen, udaletxe berria zeuden Lehen Hizkien Udal Eskolak inauguratu zirenean. 1970ean, Lizarran 21 eskola-unitate zeuden: 18 publiko eta 3 pribatu-erlijioso. Eskola horietan 567 neskek eta 609 mutilek ikasten zuten. Irudian Lizarrako Udaletxea ikus dezakegu, Udal Eskola zaharrak zeuden lekua, hain zuzen.

Lizarrako irakaskuntza pribatua ondorengo ordena erlijioso hauen esku zegoen: Santa Anako Ahizpak (1880), Ama Beneditarren “San Benito” (1960-1971) Ikastetxea, “Nuestra Señora del Puy” elizbarrutiko Ikastetxea (1959), “Verbo Divino” Ikastetxea (1945) eta Aita Eskolapioen eskolak (1893-1959). Argazkian, Eskolapioen eskola ohiak ikus ditzakegu, gaur egun herriko Ikastola dena (1970).

Iruñeko Udalak Ezequiel Torrecilla berriro maisu izendatu zuen 1848an, bere ideia politikoak udalaren kontrakoak izan arren. Baina gutxi iraun zuen izendapen horrek. Hilabete batzuk beranduago, 1848ko abenduan, eta Torrecillarekin hitz egin ostean, Lizarrako Udalak maisu nagusi izendatzea erabaki zuen. Izendapena onartu zuen eta Lizarran maisu izaten jarraitu zuen. Bere laguntzailea Dionisio Ibarlucea izan zen, Nafarroan zein Estatutan ospe handia zuen maisua.

1859an Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Probintzialak Zilarrezko Domina eman zion bere merezimendu profesional eta pertsonalengatik. Bere karreraren bukaeran, arazo ekonomikoak pairatu zituen eta, 1861ean, Isabel II.a erreginari pentsioa eskatu behar izan zion. Badirudi Lizarrako Udalak biziarteko kopuru bat egokitu ziola. Lizarran hil zen 1865ean.

Nafarroako Lehen Hezkuntzaren hobekuntzari Torrecillak egin zion ekarpena garrantzitsua bezain ukaezina izan zen. Garrantzia handia izan zuen Juan José García bere kidearekin eta Iruñeko beste maisu guztiekin batera Nafarroako Gorteetan 1828an aurkeztu zuen memoria, eskoletako gain-behera kritikatzan zuena. Instrukzio Probintzialeko Batzordeak, memoria hori ikusirik, XXII. Legea argitaratu zuen 1828-29ko Gorteetan. Lege horren bidez, Hezkuntzako Batzorde Nagusia sortu zen, Nafarroako hezkuntzaren antolaketan giltzarria izango zena. Torrecillak Batzorde Nagusiarekin lanean jarraitu zuen, batez ere 1831ko Plan eta Araudian.

Ezequiel Torrecilla, irakaskuntzan eta Nafarroako lehen hezkuntza hobetzeko borrokan aritzeaz gain, bere ideiak hainbat liburutan islatu zituen: Horien artean adierazgarrienak: *Elementos de gramática castellana* (1821), *Elementos teórico-prácticos de aritmética* (1826), *Nuevo compendio de la ortografía castellana* (1827) eta *El silabario*.

“Lehen hizkien maisu-maistrentzako plan hezigarria euren lanak hartzen dituen ezagutzen ingurukoa eta euren ikasleei ordenaz, metodo bidez eta argitasunez azaltzeko moduaren inguruko” (1827) plana izan zen Torrecillaren beste ekarpen bat.

Lan horren hitzaurrean hezkuntzaren inguruan zituen ideiak azaldu zituen eta ondorengo hau esaten zuen: “Lehen Hezkuntzaren alde egindako ahalegin batek ere, oso neketsua izan arren, ez du handia iruditu behar, aha-lerin horrek ekartzen dituen onurak zenbatezinak baitira”.

Maisu-maistrei egin zien eskaintzan, liburua idaztera bultzatu zuen arrazoia argitu zuen: Lehen Hezkuntza hobetzen saiatzea, alegia. Lehenengo kapituluak irakasle-lanean aritzen den irudiari eskaini zizkion eta obraren gainerakoa diziplinen tratatua izan zen, metodoak, teknikak, urratsak, ohi-turak... deskribatuz. Metodo berriak eskaini zituen eta irakasgai eta eduki berriak txertatu zituen, Geografia esaterako.

Bere obretako batzuk ez ziren inoiz argitaratu, esaterako *Conocimiento de Dios, de la religión y del hombre*.

Garrantzia handiena izan zuen obra *Nuevo Libro Segundo de los Niños* (1827) izan zen. Liburu hori Nafarroako Hezkuntzako Batzordeak 1833an onartu zuen eta xx. mendearen hasiera arte bere garrantzia mantendu zuen.

Bere ikasleen eta lankideen artean ospe handia izan zuen. Testuliburuetan jasotako bere ezagutza pedagogikoak Nafarroako eskoletan oso kontuan hartu ziren. XIX. mendeko maisu ospetsuenetariko bat izan zen.





**PEDRO LINO
MUNÁRRIZ VELASCO**
(1839-1919)¹⁴⁷

Larragan jaio zen 1839ko irailaren 23an. Bere gurasoak Miguel Munárriz, Etxarrikoa jatorriz, eta Josefa Velasco, Larragakoa, izan ziren. Lehen hezkuntza Tuteran jaso zuen Luciano Velasco bere osabaren zuzendaritzapean. Lehen hezkuntza amaitzean, Tuterako Kontzilio-Apaiztegia sartu zen 1852an. Hiru urtez latinitatea ikasi zuen. Ondoren, apaiztegia itxi zela eta, Erretorika eta Poetika ikasketekin jarraitu zuen eta

“Castell Ruiz” Akademian sartu zen frantsesa eta nekazaritza ikasteko.

17 urte zituenean, Iruñeko Eskola Normalean ikasten hasi zen eta, hiru mailak bukatu ostean, Oinarrizko Lehen Hezkuntzako eta Goi-Mailako Hezkuntzako maisu tituluak lortu zituen. Bi tituluak “Bikain” batekin lortu zituen. 1861ean Bera, Erratzu eta Arguedaseko eskoletarako oposaketak egin zituen. Lehenengo postua lortu zuen eta, Arguedaseko eskola esleitu zitzaion Udalaren izendapenaren bidez. Urte bereko otsailaren 11n kargua hartu zuen.

Iraileko Iraultzaren ostean, kargutik kendu zuten 69ko Konstituzioari zin egiteari uko egin ziolako. Horrek adierazten du bere uste sendoen irmotasuna. Aurrerago, Errege Arau baten bidez, karguan berrezarri zuten.

1880an, Madrileko Egoitzeko Eskola Normaleko Maisu titulua lortu zuen eta 1890ean Iruñeko Eskola Normalaren zuzendaritzarako oposaketak egin zituen Zaragozan. Prozesu horretan hirugarren postua lortu zuen. Maila-igoerako lehiaketaren bidez, Tuterako eskola publikoetako bat lortu zuen 1898an. “Castell Ruizeko” eskoletan egon zen 1906an erretiratu zen arte.

1888, 1889 eta 1890eko Nafarroako Hitzaldi Pedagogikoetan parte hartu zuen. “Aritmetikaren irakaskuntzaren”, “Ortografiaren irakaskuntzaren” eta “Hezkuntza estetikoaren” inguruan mintzatu zen. Bere lanak probintziako prentsak goraiatu zituen.

147. “Memoria del homenaje de gratitud y admiración al Ilustre don Pedro Lino Munárriz y Velasco, Maestro Normal de Primera Enseñanza. Sus discípulos y admiradores” lanetik ateratako eta moldatutako testua, 1910.

Bere ahalegin, ardura eta irakaskuntzan lortutako emaitzengatik aitortua izan zen eta hainbat sari jaso zituen: Nafarroako Batzorde Probintzialak eta Instrukzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak eman zioten “Eskertza Boza” helduentzako doako Gaueko Eskola ezartzeagatik; “Brontzezko Domina” Nafarroako Batzorde Probintzialeko lehiaketa irekian, 1869an; bi “Urrezko Domina” eta “Zilarrezko Luma” bat 1865eko, 1883ko eta 1885eko azterketa bikainengatik; “50 pezetako lehen mailako saria” Gasteizko Erakusketa Pedagogikoan aurkeztutako lanengatik. Era berean, Arguedaseko eta Tuterako tokiko batzarren “Eskertza Bozak” jaso zituen. Ondorengo obra hauek argitaratu zituen:

Reseña Histórica de la aparición de la milagrosa imagen de Ntra. Sra. del Yugo, Arguedasko mugapean gurtua.

Memoria sobre la Ortografía española, 1885-1886ko Aragoiko Erakusketako Lehen Mailako Dominarekin saritutakoa.

Método de lectura, bi ataletan banatuta: *El libro primero de los niños o silabario* 24 karteaz osatua eta *El libro segundo de los niños o lecciones metódicas*, Silabarioko ikasgaiekin batera irakurketa arruntean trebatzen dutenak. Metodo hori, Memoria bezalaxe, erakusketa berean saritu zuten.

Manual de lecciones de primera enseñanza elemental, Romanonesko kondearen Errege Dekretuak agintzen dituen irakasgai gehienak besarkatzen dituenak.

Gainera, hainbat aldizkari profesionaletan kolaborazioak egin zituen, interes pedagogiko handiko lanak argitaratuz. Bere obrarik ospetsuena presartzeko 20 urtez egon zen lanean, *Resumen de la Historia de Navarra* obra hain zuzen ere.

Maisu eta zientzia gizon gisa nabarmendu bazen ere, bere bizitza pribatua ez zen eskasagoa izan. Fernán Caballero idazle ospetsuak bere buruari buruz hitz egiteko erabili zituen hitzak erabil ditzakegu Munarrizen irudiari buruz ere hitz egiteko: “Ezagutza zerbait da, talentua beste zeozer; baina ontasunaren praktika bi horiek baino gehiago da eta jeloskortasuna sortzen ez duen nagusitasun bakarra”.

1919an hil zen Tuteran.

Arguedas, 1910eko irailean
Casimiro Lizalde (Ikasle ohia).





Ángeles Barriola Iruritako bere ikasleekin. Agustín Imízcoz bere semeak utzitako argazkia.

ÁNGELES BARRIOLA GOROSTIETA (1893-1979)

NIRE ARDURAPEKO ESKOLAN EGINDAKO MEMORIA

Urriaren 2ko Dekretuak 9. eta 10. artikuluetan ezartzen du memoria egiteko betekizuna eta beraz, nire eskolan egindako lana barne hartzen duen memorian nire izaera profesionala eta saiatuaren berri xaloki emango dut. Izan ere, izaera horrek nire jokaeraren eskema jasotzen du, eta ezer baino lehen, nire uste sendo pedagogikoei erantzuten die.

Garesen, Irunberrin eta Oronozen bitarteko maistra izan ostean, 1916ko uztailean leian horrenbeste desiratzen nuena lortu nuen. Lehia handiko oposaketa libreetan (egiten nituen lehenak), plaza lortu nuen, urteko 1.000 pezetako diru-kopuruarekin. Dorreko eskola aukeratu nuen, nire aitaren etxetik gertuen zegoen eskola zelako. Eskolna gaztaroak ematen duen gogoberotasunarekin iritsi nintzen eta hain gustura ikasi nuen pedagogia eskolan ahalik eta garbien ezartzeko ametsarekin. Eskola-eraikina ikusteko desiratzen nengoen, baina hara iritsi aurretik eraikinari buruz hitz egin zidatenean, ondorioztatu nuen klasean deskribatzen zizkiguten eskoletatik urrun zegoela. Eskolara iritsi ginen, eta uste bezala, klaseak sabai oso baxua zuen areto txiki batean eman behar nituen.

Argazkian Iruritako Nesken Eskola ikus dezakegu (itxitakoa).
M^a Ángeles Barriola zen eskolako maistra.



Atsekabearen hotzikara sentitu nuen, baina berehala erreakzionatu nuen mutil eta neska musu gorri eta garbi horien aurrean, Murilloren aingeruak bailitzan agurtzen nindutenak. Denak maistra berri, gazte eta maitekorra ezagutzeko irriketan zeuden.

Eskola mistoa zen, Dorre, Zabalegi eta Gerendianeko herrietatik etortzen ziren 60 neska-mutilekin. Nire ahalegin eta gogo guztiekin lan egin nuen eta emaitza bikainak lortu nituen,. Nire kontaketa luzea izan ez dadin, egun zuzentzen dudan eskola honetan egindako lana deskribatuko dut, atalik garrantzitsuena eta luzeena dela uste baitut.

1919ko maiatzaren 1ean Iruritako eskola nire gain hartu nuen. Ikasgela txukuna zen, argi eta aireztapen askorik gabe, jolastokiarekin eta komunarekin. Ikasturte honetan konketak jarriko dituzte. Eskola bateratua da, eta ama hizkuntza euskara da. 5 eta 14 urteko neskak jasotzen ditut eta zenbait ikasturtetan 80 neska izan ditut eskolan. Azken urteotan ez dira 60 baino gehiago, “Oyeneta” baserrian eskola bat sortu dutelako. Ez dugu beste eskoletan erabiltzen dituzten mahai edo aulki modernorik, baina mahai oso onak ditut -bi pertsonentzako bankuak- eta horiekin konformatu behar, eskolarekin hain arduratuta dagoen Erregimen Berria txoko honetaraino iritsi arte. Kargua hartu nuenean, eskola-materiala urria zen. Orain bi pertsonentzako 26 mahai ditugu, ohola jartzeko asto eder bat, proiektioetarako gailu on bat eta dago-kion tripodea, armairu polit bat, liburutegia, eskola-museoa eta josteko eta brodatzeko joste-makina on bat.



Iruritako (Baztan) irakaskuntza 1815etik dator, Miguel Aguerrebere herriko semeak latinitate eskola sortu zuenean. Handik gutxira eskola hori mutilentzako bi eskoletan bihurtu zen; bat Iruritan eta bestea Arizkunen. Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1845ean Iruritan lehen hizkien bi eskola zeuden: mutilena, 60 mutilekin eta maisu eta laguntzaile bat zuena, eta neskena, 40 neskekin, maistra baten esku zeudenak. Bi eskolak Aguerrebere jaunak sortutako Fundazioak ordaintzen zituen. 1908an, 92 ikasle zeuden, herriko bi eskoletan banatuta. Irudian Iruritako Mutilen Eskola ikus dezakegu, xx. mende hasieran eraiki zena. 1920an Silverio Imizcoz zen mutilen maisua, M^a Ángeles Barriolaren senarra.

Eskolara iritsi nintzenean ez zegoen aipatu dudan material hori guztia eta ohartarazi behar dut ez dudala Estatuak ematen duen materialik jaso. Bada, nola lortu dut material hori guztia? Oso erraz. Ilusio handia nuen proiektzio-gailu bat izateko eta nire ikasleei irakaskuntza intuitiboagoa eta atseginagoa egiteko. Nire eskolan alabak ikasten zituen gizon amerikar bat konbentzitzeko hamaika modu aztertu nituen eta azkenik, gizon horrekin izandako elkarrizketa baten ostean, bere ahotik ateratzen entzun nion: “Erosi ezazu eta bidali kontua”. A zer nolako poza, azkenean lortu genuen gailua! Baina egunez korrante elektrikorik ez dugunez, klaseak gauzez egin behar ditugu eta irakaskuntza gehiago zabaldu ahal izateko, baita igandeetan ere. Horrela sortu genituen igandeetako klaseak.

Eskola orduen ostean, aukeratutako neskekin entsaiatzen nuen eta horrenbeste gozatzen zuten neskek ezen jendearen esker onak betetzen zituela gastuak. Beti geratzen zen diru-kopururen bat soberan, eta hori dela eta, behin Frantziara joan nintzen 50 neskekin egun pasa. Geografia eta Historiako lezio interesgarri bat azaldu nien nazioarteko zubian, Biarritzeko hondartzaz gozatu genuen eta poz-pozik itzuli ginen gure etxekoei ikusitakoa kontatzeko irriketan.

Liburuak eta josteko makina bikaina erosi genituen. Eta diru pixka bat lortze aldera (makinak 400 pezeta balio baitzituen), ohe-estalkia satinez margotzeko burutazioa izan nuen. Ondoren, gau-jai batean ohe-estalkia zozketatu genuen eta makinak balio zuena baino diru gehiago lortu genuen. Beste txango batzuetan Mugairiko arrain-haztegira joan ginen, baita Arraitzeko Bentetara ere,

ikasleek Udalekuak bisitatu zituzten. Gainera, postre bikaina eraman genien. Egun, ostegunetan egiten ditugu eskola-paseoekin konformatzen gara.

Eskola-liburutegia, txiki samarra, Udalak eta neskek egindako ekarpenekin aberasten joan zen. Museoa sortzea ere erraza da eskola aktibo batean, nire eskolak ez baitu pezetan bidez lortzen diren bilduma aparta horiek. Ez, gure eskola-ibilaldietan gure leziorako interesgarria izan daitekeen guztia jasotzen dugu. Horrela, askotariko hostoak, harri ederrak, marmolak, igeltsua, garia, irina, neska batek aurkitu zuen txorien kabi bata, buztinekin egindako gorputz geometrikoak, tximeletak, alkoholean gordetako animaliak, landareak, zeta-harrak... ditugu gure Museoan.

Ikasgelako paretak Txanogorritxuren koadro eder batekin, Historia Naturalaren beste batekin eta “Nire oporrak” eta “Garbitasun pertsonala” koadroekin apainduta ditugu. Lurra kolore oso politean dago ezkoztatua, eta batez ere, oso garbia da. Landare asko ditut eta nagusiagoak diren neska bakoitzak berea zaintzen du. Orain dela bi urte zeta-harrak ere hazi zituzten eta horien zeta-kapuluak Museoan gordetzen ditugu. Ez ditugu berriro hazi ez dugulako masustondorik. Neskek, oraindik ere, euren xalotasuna bezain zuria den uniformeak jartzen dute. Deskribatutako hori guztia hain da atsegina ezen klase orduak motz egiten baitira.

Jada aipatu dut nola lortu nuen proiektzio-gailua, josteko makina... baina ez dut alde batera utzi nahi nire lanaren zati bat; nire eskolako antolaketa eta nondik norakoak.

Irurritako neska horiekin izan nuen lehenengo eskola-egunean, agur maitekor baten ostean, euren lekuetan esertzera gonbidatu nituen eta berehala jabetu nintzen antolaketa zortzi ataletan banatuta zegoela. Ikasle berriak aztertzen hasi nintzen eta euren inguruko oharrak eta datuak jasotzen. Beharrezko informazio guztia izan nahi nuen eskola-antolaketa ona egiteko. Egungo Espainiako eskola bateratuaren antolaketa dena delakoa, nire kezka beti izan da talde txikiak egitea, ahalik eta homogeenak, ondoren, ikasgelan egindako ariketen ostean, jarduerak banan-banan prestatzeko. Zortzi atalak lautara murriztu nituen baina guztientzako onuragarria izan daitezkeen lezioetan klase orokorra edo gehienez bi talde egiten ditut. Lau atalak horrela antolatu ditut: 5 urtetik 7ra 1., 7tik 9ra 2., 9tik 12ra 3. Eta 12tik 14ra 4. Noski, askotan adinak ez datoz bat taldeekin, bertaratze txarra, adimen atzerapen... dela eta.

Programak: Egokituta daukat, ez bere osotasunean, programa decrolyarra nire ustez irakasgai guztiak lotzen dituen metodoa delako. Horrela, ikasleek egiten dituzten jarduerak guztien garapen logikoa lortzen da. Baina, nire berezko uste pedagogikoen arabera, metodo horrek ez nau erabat asebetetzen eta nire es-

kolako baldintzetara egokitzen diren beste programa batzuk ere erabiltzen ditut. Hala, metodo decrolyarrak dituen hutsuneak beste programa horiekin betetzen ditut. Konbinazio horrekin, edozein maistra aktibo, bizkor, original eta gauzak, izakiak eta fenomenoak aztertzeko prestatutakoak lan pedagogiko bikaina egin eta emaitza positiboak lor ditzake.

Eskola-ordutegia malgutasunez erabiltzen dut, ez bainaiz inoiz zorroztasunez betetzearen aldekoa izan. Askotan, ordutegia moldatzen dut horrek nire ikasleei eta irakaskuntzari on egingo diola uste dudanean.

Eskolan diziiplina ona egoteko ez zait sekula bururatu gorputz zigorrik edo haurren moralitasuna kaltetu zezaketen zigorrik erabiltzea. Badakigu umeei sentikorra, berria, objektiboa dena interesatzen zaiela, bere zentzuak esnatu eta irudimena bizkortzen dion guztia. Umek jakin-min ase ezina dute, eta hori dela eta, lezioak arretaz, material egokiarekin eta talde bakoitzarentzako partaideen gaitasunetarako egokiak diren ariketak prestatzen ditut. Naturaren senari lagunduz, euren psikologia funtzionala errespetatuz eta neskak lan erabilgarri eta atseginarekin lanpetuta mantenduz, eskolako diziiplina berez etortzen da. Hilerero gurasoei emaitzak ematen dizkiet eta ahalegina puntuekin edo txartelekin saritzen dut. 50 puntu lortzean, arkatz, liburu edo koadernoengatik trukutzen dituzte ikasleek.

Irakaskuntza metodoak, prozedurak eta moduak: dezente irakurri dut Ameriketako, Beljikako eta Alemaniako eskola aktiboari buruz Aldizkari Pedagogikoan. Idatzi horiek orientabide berrien inguruan hausnartzera eramanez ninduten, bokaziozko maistrak ezin baititu horiek albo batera utzi. Baina, aldi berean, maisu-maistrak ez du bere ekimena, originaltasuna eta mugitzen den egoeren ezagutza ahaztu behar. Bere eguneroko lanean lortuko dituen emaitzak dira bere metodoen benetako oinarria.

Labur azalduko dut nire eskolan bizitako lezioetako bat. Ogia, esaterako. Bezperan lezioa prestatu nuen, nire programatxoa eginez eta behar nituen materialak zerrendatuz. Ikasgelara forma eta mota ezberdinetako ogitxoak eramanez nituen: garizkoak, irinazkoak, zahizkoak, gailetak, galburua eta zopa egiteko oreka. Denek parte hartu dezaketen lezioa denez, talde bakarra egiten dut, nahiz eta, aurretik aipatu dudanez bezala, gero taldeka jarduerak bereizi. Materiala erakusten diet, behatzen dugu, ukitzen dugu. Ikusmenaren eta ukipenaren arabera desberdintzen dituzte ogi mota ezberdinak. Ogiaren jatorriaren eta ekoi-zpena zein den azaldu diet eta hortzekin moztu dituzte zenbait gari ale irinaren eta zahiaren zatia non dagoen ikus dezaten. Horrela, zentzuen hizkuntzaren eta hezkuntzaren ariketa on bat egin dugu eta hemen nekazariak jaten duten ogiari buruz hitz egin dute. Gailetak eta eratorriko oreak ere aipatu dira eta horiek

hurrengo lezio batean landuko ditugu. Ondoren, gaiaren inguruko irakurketa egin dugu, esaldi gramatikalak atera ditugu, gero diktaketan idatzi dituztenak, eta gero zenbaketarekin hasi gara. Ariketa hori ez da klase orokorrean egiten gure eskolan. Hastapeneko mailakoei garia, zahia, irina... dituzten kutxatxoak eman zaizkio, eta kutxa bakoitzari prezio bat ezarriz pezetan batuketa egin dute, ogi zatitxoekin egingo balute bezala. Lehen mailakoek galburua, labana eta igitaia marraztu dituzte eta bakoitzari prezio bat egokituz, guztiaren zenbatekoa atera dute. Bigarren mailakoek errotarria eta okinaren endaia marraztu dute eta egunero familia batean ogian gastatzen dutena kalkulatu dute. Hirugarren mailakoek lezioari dagozkion marrazki guztiak egiten dituzte eta Espainian erregearen zereal-uztekin lortzen den zenbatekoa kalkulatu eta garia euren kutxetan erein dute. Herrian irin-fabrikak eta errotak daudenez, horiek bisitatu genituen eta horri esker hidraulikako, mekanikako, elektrologiako... lezio berriak sortu ziren. Idazlana egin zuten eta Klaseko Egunerokoan idatzi zuten.

Irakurketarako, marrazkiaz baliatzen naiz eta horrela, aldi berean marrazten, irakurtzen eta idazten ikasten dute. Marrazkia hastapeneko mailakoek egiten dute, lehenengo mailakoek beste marrazki bat kopiatzen dute (Masriera eta Seix Barraleko metodotik) eta bigarren eta hirugarren mailakoek materialetik kopiatzen dute.

Joste-lanek sekulako lana ematen dute, lehenengo jostura eta puntu errazekak zein joste-lan zail eta modernoek nik neuk irakasten baitizkiet.

Hauxe da, beraz, nire eguneroko lana Iruritako eskola, agian ez beharrezko gaitasun guztiarekin egina, baina bai gogo nekaezinarekin.

Iruritan, 1932ko irailaren 25ean.

Eskolako zigilua eta M^a Ángeles Barriolaren sinadura



Ángeles Barriola Gorostieta Garesen jaio zen 1893ko ekainaren 14an. Nafarroako Irakasle-Lanaren Eskolako Oinarrizko Maistra titulua “Bikain” batekin lortu zuen 1912an. Nafarroako hainbat herritan lanean egon ostean, maistra-ikuskari izendatu zuten 1933ko apirilaren 27ko Ministerio Aginduaren bidez eta Ikuskari Probintzialaren izendapena 1936ko irailaren 12ko Ministerio Aginduaren bidez.

60ko hamarkadaren hasieran erretiratu zen. Ikuskari gisa 447 eskola-unitate izan zituen bere ardurapean, Ikuskaritzako Akten Liburuaren arabera.

Bisitatu zituen eskoletan artean, horietako batzuk aipatuko dira.



Argazkian Azpilikueta (Baztan) Eskola Mistoia ikus dezakegu, 1910ean eraiki zutena. 1968an Mutilen Eskola itxi zen eta Nesken Eskola Misto bihurtu zuten. Maistra bakarren esku egon zen eskola hori.



Arrietako Eskolako barrualdea



Hiriberriko Eskolako barrualdea.

1847an, Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, Zigan (Baztan) Lehen Hizkien Eskola Mistoa zegoen, 30 ikaslerekin.

1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 46 ikasle zeuden. Frankismo garaian, herrian bi eskola egon ziren. Lehenengo argazkian Mutilen Eskola ikus dezakegu eta bigarreanean Nesken Eskola. Bi eraikinak xix. mendearen amaieran eraiki zituzten.



Pascual Madozek bere *Hiztegi Geografikoan* azaltzen duenaren arabera, 1847an ez zegoen Lehen Hizkien Eskolarik Oronozen (Baztan). Aldiz, 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, herrian Lehen Hezkuntzako Eskola bat zegoen, bi sexuetako 52 ikaslerekin, Mugairiko eta Zozaiko ikasleak barne. xx. mendearen hasieran, herrian bi ikastetxe pribatu sortu ziren: "San Martín" Ikastetxea, Anai Maristen esku zegoena, eta "Nuestra Señora del Carmen" Ikastetxea, San Vicente Paul Karitatearen Ahizpen esku. Bi zentroak Martín Urrutiaren eta Carmen Lanzagorta bere emaztearen laguntza jaso zuten. Argazkian Oronoz-Mugairiko Eskola Nazionalak ikus ditzakegu, 1957an.



Ardaitzeko Eskola Mistoa (Erro).



Espotzeko Eskola Mistoa (Erro).



Arizkuneko Nesken Eskolako ikasgela (Baztan). 1957.



Elizondoko Nesken Eskolako ikasgela (Baztan). 1957.

Pascual Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Oderitzzen (Larraun) ez zegoen Lehen Hizkien Eskolarik eta ikasleak Madozeko eskolara joaten ziren. 1908an, udalak bi sexueta 42 ikasle hartzeko lokal bat moldatu zuen. 1972an eskolara 12 ikasle joaten ziren. Alberto Villaverdek egindako argazkian Oderitzeko Eskola Nazionala ikus dezakegu, 1929ko abenduaren 15ean ireki eta 1977an itxi zutena. Herriko ikasleak Lekunberriko Eskualdeko Eskolara joan ziren ikastera.



Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Eslaban Lehen Hizkien Eskola Osatugabea zegoen, bi sexueta 52 ikaslerekin. Eskolak 2.000 errealeko diru-kopurua zuen. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, ikasle kopurua ehunera igo zen eta hori dela eta, Udalak nesken eskola eta mutilen eskola izango zituen eskola-erakin berria eraikitzea erabaki zuen. Frankismoan oraindik ere bi eskola-unitate martxan zeuden, 23 ikaslerekin horietako bakoitzean. Irudian Eslabako Eskola ikus dezakegu.



Olagueko Mutilen Eskolako ikasgela. 1945.





Madozen *Hiztegi Geografikoaren* arabera, 1847an Etxalekun Lehen Hizkien Eskola Osatugabea zegoen, udaletxeko lokaletan zegoena. Eskola horretan 20 mutilek eta 10 neskek ikasten zuten eta maisuak 1.800 erreale jasotzen zituen, maisu gisa eta udaleko idazkari gisa lan egiteagatik. 1908an, *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, bi sexuetako 40 ikasle inguru zeuden, herriko bi eskoletan banatuta: Mutilen Eskola eta 1903an Juan Erviti Cigandak sortutako Nesken Eskola. Eskola 1974an itxi zen eta ikasleak Irurtzungo "Atakaondo" Eskualdeko Eskolara eraman zituzten. Argazkian Etxalekuko (Imotz) Eskola Mistoa ikus dezakegu, 1929ko uztailaren 15ean inauguratu zena. Eskola-eraikinaren beheko solairuan ikasgela eta komunak zeuden eta goiko aldean Jseús Egúskiza maisuarentzako etxebizitza. Obrek 30.000 pezetako kostua izan zuten eta Gerardo Plaza arkitektoaren proiektuaren arabera egin ziren.



Uharte Arakileko haur eskolako ikasgela. 1957.

Joaquina Machiñena Vélez
nortasun pertsonalaren fitxa.
NUPk utzitako agiria.

Escuela Normal del Magisterio primario de Navarra

Ficha de identidad del alumno:

Machiñena Vélez D. María Joaquina
que nació en Pamplona provincia de Navarra
el día 28 de Julio de 1914

Nombre del padre Bernardo Nombre de la madre Jerusalén
Domicilio de los padres Caldería 1-3^{ta} Pamplona
Domicilio del alumno Caldería 1-3^{ta} Pamplona

Se le extiende el carnet el ___ de ___ de 19 ___
Primer visado el ___ de ___ de 19 ___
Segundo > ___ de ___ de 19 ___
Tercero > ___ de ___ de 19 ___
Cuarto > ___ de ___ de 19 ___

Firma
M^a Joaquina Machiñena

OBSERVACIONES matrikulada en primer curso (1934-35)
" 2^a " 35-36

M^a JOAQUINA MACHIÑENA VÉLEZ (1914-2003)

Joaquina Machiñenak Irakasle-Laneko bere ikasketak 1933an amaitu zituen, 1914ko Irakasle-Laneko Plana ikasi ostean. 1934an berriro ere Nafarroako Irakasle-Laneko Eskolan matrikula egin zuen 1931ko Plan Profesionala ikasteko, Errepublikara garaian Irakasle-Lana ikasteko derrigorrez eskatzen zen Goi-Mailako Batxilergo titulua eskuratu baitzuen. Bere ikasketak 1937ko ekainean bukatu zituen, 8,99ko batez besteko notarekin.

Joaquina Machiñena 1937an iritsi zen Villafranca. Hezkuntzako Batzorde agusiak mutilen bigarren unitateko praktiketako bitarteko maistra izendatu zuen. Administrazioak ez zuen maisurik lortu, gerran zeudelako edo Garbiketa Batzordeak zigortu zituelako. Kargua hartu eta egun gutxitara, eskola itxi zen alde nazionalako batailoia hartzeko. Gehienak Galiziakoak ziren, Villafrancaera indarberritzera iritsi zirenak. Ikasle ohien testigantzen arabera, soldaduak buru-zorritz, zauriz eta gaixotasunez beterik zeuden.

Bere lanpostura 1938ko urtarrilean berriz itzuli zen eta ekaina arte egon zen bertan. Villafrancaen egon zen bitartean Eskola-Eguneroko bat idatzi zuen koaderno bertikal batekin, tapaki gogorrekoa. Eskuz idatzi zituen 268 orrialde horiek Gerra garaiko eskolaren nondik norakoak lehen eskutik ezagutzeko



1914ko maisutza planeko maistrak, Iruñeko Eskola Normaleko lehengo patioan. San Frantziskoko ikastetxe publikoak utzitako argazkia.

testigantza bikainak dira. Egunerokoan ondorengo hauen inguruko informazioa ematen du: eskola-absentismoa, ikasleen maila pedagogikoa, erabilitako metodologia, emandako ikasgaiak, erabilitako liburuak, familiekin izandako harremana eta eskolak oinetakoetan eta elikaduran zituen gabeziak.

Egunerokoa lau zatitan banatzen da: “Aurretiko oharrak”, “Lan-plangintza” “Goizeko eta gaueko saioen garapena” eta “Amaierako oharrak”.


Jarraian, hitzez hitz transkribatzen da egunerokoa, “Goizeko eta arratsaldeko saioen garapena” atala izan ezik.

Villafrancaen egon ostean, Ainzoaineko Eskola Mistora joan eta bertan 1946 urtera arte egon zen. Ezkontzean eszedentzia eskatu zuen etxeko lanen ardura hartzeko. Iruñean hil zen 2003an.

Ondorengo testu honetan hitzez hitz kopiatzen da Joaquina Machiñenaren Eskola-Egunerokoa.

A. Aurretiko oharrak

Legeak Plan Profesionaleko maistrei urtebetez eskola batean ikasle gisa aritzeko ezarritako betekizuna dela eta, Villafrancako Eskolako erdi-mailako graduako eskola esleitu zidaten.



Jesús Arrondo Arbeak Cadreitako Museo-Eskolari emandako *Eskola-Egunerokoa*.

Nire gogo handienarekin lanean hasi nintzen, baina nire lana nahi bezala aurrera eramateko gabezia handiak aurkitu nituen, horietan garrantzitsuena bertaratzearen irregulartasuna. Gurasoekin hitz egin nuen eta susmatzen nuen erantzuna jaso nuen, izan ere ezohiko garaiak bizitzen ari baikara.

Hain zuzen ere, gurasoek esan zidaten mutil asko gerran daudela eta, nekazal-herria denez nagusiki, txikienen laguntza behar dutela zelaiak ustiatzen jarraitu ahal izateko. Baina, umeentzat egoera hori zein kaltegarria den jakin arren, isildu egiten naiz. Orain pena handia dut ikusita guraso horiek euren seme-alaben hezkuntzaren inguruan agertzen duten apatiarengatik. Baina, berro ere, ezohiko egoera horren atzean ezkututzen dira euren seme-alabak esplotatzen jarraitzeko.

Beste maisu eta maistrekin adostu ostean, agintariengana jo nahi nuen. Baina maisu-maistra horiek ere gurasoengana jo zutela eta erantzun bera jaso zutela esan zidaten. Eta hutsegiteen zerrenda bidali arren, agintariek ez zituztela ez gurasoak zigortu ezta horiei arreta deitu ere. Hala ere, agintariekin hitz egin genuen eta lagunduko gintuztela zin egin ziguten.

Ez da harritzekoa, beraz, umeek atzerapen ikaragarria izatea eskolako kontuei dagokienez.

Beste arrazoietakoa bat maisu-maistren joan etorria izan da. Ume batzuk erdi abandonatuta egon dira, maisu bat hilabete bakar batez baino egon ez delako, beste batek ez duelako maisu titulurik... Gainera, ikasleek, horrenbeste eskutatik pasa direnez, ez dute inolako diziplinarik

Benetako ahalegina egin behar dut nire ikasleak lanean jartzen lortzen dudan arte.

Erdi-mailako ikasleekin lan egitea egokitu zitzaidan eta, oso pozik negoen, erdi-maila nire mailarik gustukoena izan delako beti. Beraz, lanari gogotsu eta ilusioz beterik ekin nion.

Euren kultura-maila ezagutze aldera, Bineten eta Goodenough testa egin nien euren profil eta adimen garapena zehazteko.

Gorde nituen hainbat lan egin zituzten eta horiekin, ikasturte amaieran, horiekin lanean hastean nola zeuden eta amaieran nola egongo diren aztertu ahalko dut, ez baitut Ikuskarien laguntzarik izan azterketa hori egiteko.

Hizkuntzari dagokionez, idazketan eta irakurketan erdipurdi egiten dute. [...] Kalkuluari dagokionez, batuketak eta kenketak egiten badakite (inondik inora buru kalkulua egiten), ia inork ez daki biderkatzen eta batek ere ez zatitzen.

Beste diziplinei dagokienez, ez dakite deus, lehenengo mailako ikasleen mailan daude, eta dena hitzez hitz azaldu behar dut. Hala ere, poztuko naiz aldeko emaitzaren bat lortzen badut.

Estudio comparativo de ambos test

<u>Nombres</u>	<u>E. mental</u>	<u>E. mental</u>	<u>E. real.</u>
	<u>Binet</u>	<u>Goodenough</u>	
Manuel Navarro	10 años, 1 mes, 6 días	9 años, 7 meses, 15 días	11 años
Antonio Arrondo	9 " 8 " 12 "	9 "	10 " 7 meses
Gregorio Fernandez	9 " 1 " 6 "	7 " 3 "	10 "
Antonio Pascual	9 " 7 " 6 "	12 "	9 " 8 "
Mariano Gómara	8 " 8 " 12 "	8 " 4 " 15 "	9 " 8 "
Alejandro Carnicer	8 " 9 " 18 "	9 "	9 " 5 "
Jesús Burqui	8 " 10 " 24 "	8 " 1 " 15 "	9 " 3 "
Javier Arrondo	9 "	8 " 9 "	9 "
Vicente Barasain	7 " 3 " 18 "	6 " 4 " 15 "	8 " 6 "
José M. Navarro	7 "	7 " 4 " 15 "	8 " 6 "
José Gloria	8 " 7 " 5 "	10 " 4 " 15 "	8 " 5 "



Doña Joaquínak egindako "Trabajo de Paidología" agiritik ateratako irudia.

Umeak nire irakasteko modura egokitu nituenean, klaseak bertan behera utzi behar izan nituen, eskolak agindu militar bidez konfiskatu baitzizkiguten.

Eragozpen horrek min handia egin zidan, berriro ere diziplinaren alorrean lan handia egin beharko baitut nire ikasleekin itzultzen naizenean.

Gabonetako oporrak baino astebete lehenago deitu ninduten, baina nire lana ia baliogabea da. Eguraldia oso kaxkarra da eta, estufarik ez dugunez, ezinezkoa da ikasgelan geldirik egotea. Gainera, umeek Gabonetako oporrak gertu ikusten dituztenez, ez dira eskolara etortzen eta hamairu ikasle baino ez ditut ikasgelan, eta zenbait saiotan sei baino ez.

Oporretan zehar eskoletako bat itxi zen eta beraz, beste klaseetan moldaketak egin behar izan ziren. Nire lankideei ume txikien ardura nik hartzea egokiena dela iruditzen zaie, baina niretzat zaplasteko bat izan zen. Izan ere, ahalegin guztia egin arren, ezingo baitut ia ezer egin arestian aipaturiko irregulartasuna dela eta. Eta gainera, eskolako erantzukizun guztiari bakarrik aurre egiten diodan lehenengo aldia izango delako.



José Glaría (8 urte), Antonio Pascualek (9 urte) eta Armando Burguik (7 urte) egindako marrazkiak. Azpian, Segundo Arrondok (7 urte) egindakoa.

Lehenengo egunak, normala den bezala, umeak ezagutzen pasa ditut, nola dauden jakin nahi dut, eta etsipen handi batek hartu nau. Susmoa dut lan handia egin arren ezer gutxi lortuko dudala, umeek ez baitakite deus, eta haur eskolako lehenengo mailako ikasleek bezala irakurtzen dutelako. Ez dakite idazten, ezta batzen ere. Beste edukiei dagokienez, ez dakite deus. Haur eskolan normala den bezala jolasten ibili ziren, horixe egin behar baitute txikiak direnean, baina eskola horretatik ateratzean, ez dira batere saiatuak eta oso zail egiten zaie arreta jartzea eta mantentzea. Jolastu eta marraztu baino ez dute egin nahi. Hitz batean esanda, haur eskolako haurrak bailiran lan egin beharko nukeela haiekin, baina badakit hori oso kaltegarria izan daitekeela. Aldiz, Lehen Hezkuntzako eskolan ikastea zer den irakatsi nahi diet.

Baina, berriro ere diot, nire lanean itxaropen gutxi dut. Gainera nire aurretik egon ziren maistrarekin modu ezberdinean lan egin zuten, beraz nire lan egiteko modura egokitzea zaila ikusten dut.

Bertaratze-maila hain irregularra izanik, nire nahirik handiena idazten, irakurtzen eta zenbatzen irakastea da, ume horien etorkizunean funtsezkoena izango dena irakastea, alegia.

Eta hau guztia idatzi ostean, eta bisitarik jaso ez dudanez, nire lasaitasunerako klaseak hasi eta hurrengo asteko egutegiari ekiten diot, behin nire ikasle berrien egoera zein den ezagutu ostean.

B. Lan-plangintza

Eskola-Egunerokoa aztertu ondoren (C. atala, goizeko eta arratsaldeko saioak), edukiei zein erabilitako metodologiari dagokionez, ondoriozta daiteke Joaquina Machiñenak hitzez hitz jarraitzen zuela Nafarroako Hezkuntza Batzordeak ezarritako jarraibideak. Errepublikako Gobernuko Plan Profesionalean maistrak ikasitako berrikuntza pedagogikoak ez dira inon agertzen, baina gerra giroak eta Joaquina Machiñenak jasan behar izan zituen estutasunek ez zuten gehiagorako aukerarik ematen. Hala ere, Binet eta Goudenorgh testak erabili zituen bere ikasleen adimen-adina ezagutzeko. Bere irakaspenak ikasle bakoitzaren mailaren arabera ziren eta Administrazioak ezarritako programetatik bere ikasleen beharretara hobekien egokitzen ziren helburuak eta edukiak aukeratzen zituen.

Goizeko eta arratsaldeko saioetan, egunero, Formakuntza Erlijiosoko irakaspen bat eta Formakuntza Aberkoiko beste bat azaltzen zuten, Nafarroako Hezkuntza Batzordeak ezarritako arauetara jarraiki.

Erlijioaren irakaskuntza parrokoarekin partekatzen zuten, azken horrek kristau-ikasbidea irakasten baitzuen. Joaquina Machiñenak Historia Sakratuaren eta asteen behin egiten zen Arrosarioaren ardura zuten.

Formakuntza Aberkoia oroitzapenezko irakaspenen bidez edo alde nazionalako pertsonaia edo ekintza gogoangarri garrantzitsuenen bidez lantzen zuten: Mola, Calvo Sotelo, José Antonio, Franco, tropa frankisten Castelló, Lleida, Teruel eta Tarragonako konkista... Horiek izan ziren landutako eduki batzuk. Irakaskuntza hori Espainiako Historiako pertsonaia eta borrokekin partekatzen zen. Historia irakasteko erabiltzen zen baliabidea analogia zen. Hau da, alde nazionalako eta Espainiako Errekonkistaren arteko analogiak, Franco Don Pelayorekin alderatzen zen edo Independentzia gerra alde nazionalako Gurutzadarekin.

Aukera zuenean, beste irakasgaietan ere eduki aberkoiak eta erlijiosoak lantzen zituen. Eskulanak batez ere itsastea, moztea, marraztea eta buztinarekin alde nazionalako soldadutxoak edo Erregimeneko ospe handiko pertsonaiak moldeatzea ziren. Irakurketa, idazketa eta kalkulua oso garrantzitsuak ziren bere curriculumean. Beste irakasgaiak ezin ziren hain garrantzitsuak, bere Egunerokoa agerian uzten duen bezala. Bere ikasleei kontatzen zizkien kontakizunak irakaskuntza moralak ondorioztatzeko eta klasean lantzeko erabiltzen zituen. Bere ikasleek egindako marrazki guztiek garaiko izaera militarista eta gerrazalea islatzen dute.

15			16		
<u>Plan de trabajo</u>			<u>Jueves</u>	<u>Viernes</u>	<u>Sábado</u>
<u>Lunes</u>	<u>Martes</u>	<u>Miércoles</u>	<u>Mañana</u>	<u>Mañana</u>	<u>Mañana</u>
Mañana	Mañana	Mañana	Oración	Oración	Oración
Oración	Oración	Oración	Lección	Lección	Lección
Lección	Lección	Lección	Geografía	Gramática	Ortografía
Aritmética	Aritmética	Aritmética	Historia	Historia	Historia
Recreo	Recreo	Recreo	Religión	Escritura	Recreo
Consejos	Gramática	Agricultura	Oración		Oración
Escritura	Escritura	Escritura		Parde	Parde
Oración	Oración	Oración			
Parde	Parde	Parde	Oración	Oración	Oración
Oración	Oración	Oración	Lección	Lección	Lección
Lección	Lección	Lección	Escritura manual	Escritura	Escritura
Recitación	Alfabetización	Religión	Religión	Historia	Historia
Religión	Historia Sagrada	Religión	Escritura	Santo Espiritu	Oración
Escritura	Escritura	Escritura	Oración		
Oración	Oración	Oración			

Ondorengo testu honetan hitzez hitz jasotzen da Joaquina Machiñenaren Eskola-Egunerokoa (D atala).

D. Amaierako oharrak

Urtarrilaren erdialdean hasi nuen eguneroko hau amaitu aurretik, eskolan bizitako hilabete hauetan nik neuk ondorioztatu ditudan zenbait ohar aditzera eman nahi ditut.

Eskolan egindako lana ahalik eta erregularitasun handienarekin egiten saiatu naiz, bizi dugun egoera kontuan hartzen badugu.

Gogorarazi behar dut nola hasi zen niretzat ikasturtea Gabonen ostean, [...] izan ere ikasturtea zatitu baitzen tropak atsedean hartzera iritsi zirenean. Mailaz aldatu ninduten, mailetako bat ezabatu baitzen.

Txikien bertaratzea oso txarra zen. 56 ikasle nituen matrikulatuta eta batez beste, hilabeteen arabera, 40-45 ikasle etortzen ziren eskolara.

Egindako lana deskribatzen hasita, jakinarazi behar dut handien taldeko ikasleak iruzkinak egitera eta hiztegia nola edo hala erabiltzera ohitu ditudala. Gainera, ulertzen ez dituzten hitzen esanahia galdetzen dute eta horrela euren hiztegia aberastu dute.

Erdi-mailako taldean mekanismo hori egonkortzen saiatu naiz. Gainera hitzak diren moduan irakurtzen ikasi dute ikasleek, eta hizkiak lekuz aldatzeari utzi diote.

Hirugarren taldeak, hau da, txikien taldea, irakurketan aurrerapen handiena lortu duen taldea izan da. Izan ere, horietako batzuk gai dira liburu bat egoki irakurtzeko, kontuan hartzen badugu orain dela hilabete batzuk nekez irakur zitzaketela hizkiak. Beste ikasle batzuk esaldi errazak ongi irakurtzen dituzte eta gutxi batzuk oraindik soilik hitzak edo esaldi zuzenak irakurtzen dituzte.

Idazketan izan ditut zailtasunik handienak. Idazten zekitenek letra hobetu zezaten saiatu naiz eta txikienean gutxienean ikas zezaten [...]

Erdi-mailako taldean zein txikien taldean nire lanik handiena batzuek letra hobetzea eta besteek idazten ikastea, diktaketetan esaldiak edo hitzak idazten, izan da. Izan ere, ikusi dut praktika gutxi dutela eta horrek zailtasun handiak sortzen zituela. Ez naiz arbelean kopiatzearen aldekoa izan. Aurretik diktaketa egiten nien, bestela marrazki soil baino ez zutelako kopiatuko arbelean.

Ikasleek idazten zuten guztia zegokion marrazkitxoarekin egiten zuten, horregatik ez diot arreta berezirik jarri marrazketari. Denbora genuen egunetan baino ez dugu egin.

Kalkuluan asko aurreratu dute batzuk eta handienek (inork ez zekien kenketarik egiten) [...] dagoeneko badakite zifra batekin kenketak, biderketak eta zatiketak egiten. Orain bi zifrako zatiketak egiten ikasten ari dira eta ia egunero eskolara datozen horiek berehala bereganatu dute prozedura.

Erdi-mailako taldean soilik batuketak egiten zekiten eta kenketak eta zifra bateko biderketak egiten ikasi dute. Orain bi zifrako biderketak egiten ikasten ari dira.

Txikienean batuketak eta kenketak egiten ikasi dute [...]

Kristau-Ikasbidea eta Historia Sakratua ia denek ikasi dute edo ikasteko bidean daude. Erraza eta atsegina egiten zaie.

Diziplina horiek nola ikasi dituzten poztu nau gehien. Noski, ikasleen bizitzetan garrantzitsuenak izango direnez, gehien landu ditudanak izan dira. Egunero idazketarako zazpi ordu laurden, ordu erdia Aritmetikarako eta beste ordu erdia Erlijiorako eskaini ditugu eduki horiek lantzeko. Eskolako beste diziplinak oso gutxi landu ditugu [...]

Aurkeztu ditudan ikasleen lanak egunero egiten joan direnak izan dira. Ez daude oso itxuroso, baina eskolako benetako lanaren isla dira. Izan ere, garbitasuna eta horrelakoak 7 urteko mutilei eskatzea ia ezinezkoa baita.

Ikasleek ez dituzte irakasgaien laburpenak euren kabuz bakarrik egin. Nik galdera bat egiten nien, haiek erantzun eta ondoren arbelean erantzuna idazten nien haiek kopia zezaten.

Ikasleek egindako lan guztiak aurkezten ditut, eskulanak izan ezik, eskolan gordetzen baititut moztutako eta itsatsitako lanak eta buztinarekin egindako gorputz geometrikoak.

Orientabide gisa Martín Alperaren programak jarraitu ditut, nire ustez oso ongi eginak daudelako. Irakaspen batzuk kendu ditut, nire ikasleentzako ego-kiak ez baitziren, baina orokorrean gida ona izan da eta eskola guztietan egon beharko litzateke.

Diziplinaren kontua oso gogorra egin zitzaidan hasieran, ziurrenik nire izaeratik hain desberdina den Erriberako izaerarekin talka egin nuelako. Baina, oraindik ere ikasleak txikiak direla jakinda, askatasun handiagoa izan dute, hori bai, lehen hezkuntzako eskolan daudela ahaztu gabe.

Hasieran eskolari aurre egin behar izan nionean, nire lan egiteko modua zertxobait zuzendu behar izan nuen, ikusten bainuen ez nuela nahi nuen emaitza erdietsiko. Nire burua garaiz zuzendu nahi izan nuen, huts egitekotan ez etsitzeko.

Berrikusteko denbora izan nahi nuen, nire azalpena entzutearekin soilik ez delako nahikoa ikasleek edukia barneratzeko. Izan ere, denboraldi bat igaro ostean, ezinezkoa da buruan gordetzea azaldutakoa. Hurrengo urtean ikasle berdinak suertatzen bazaizkit, nire itxaropena da ez zaiela hain zaila egingo ikasitakoa berriro gogoratzea eta, bide batez, euren ideiak poliki-poliki zabaltzen joatea.

Villafranca, 1938ko ekainaren 23a.
Sinatuta: M^a Joaquina Machiñena





1808an Villafrancaen hiru eskola zeuden: mutilena, neskena eta latinitatearen eskola. Azken eskola horretan ikasleek latina, antzerkia, musika, literatura eta oinarrizkoa lau arauak (irakurtzea, idaztea, zenbatzea eta otoitz egitea) ikasten zuten.¹⁴⁸

Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an lau eskola-unitate zeuden herrian. Mutilen eskola, neskena eta haur eskolako unitatea Udal Eskolak ziren. Laugarren unitatea Santa Anako Ahizpen esku zegoen. Villafrancaen ere helduentzako Gau Eskola zegoen, Udalak ordaintzen zuena bere osotasunean.

XX. mendearen hasieran, Villafrancako eskola publikoak “Cuatro Esquinas” delakoan zeuden. 1920-1923 urteetan “Eras de los Yanguas” eskolak eraiki ziren. Horiek egiteko egurra erabili zuten eta ondorioz, termitek ia guztiz eraitsi zuten eraikina. Hori dela eta, 1965ean Udalak eskola ohien orubean eskola-multzo berria eraikitzeko agindua eman zuen. 1967ko urtarrilaren 29an bukatu ziren eraikuntza lanak. Eskola berrietan 8 eskola-unitate eta maisu-maistrentzako 6 etxebizitza zeuden. Guztira herriko 450 ikasle har zitzaketen. Proiektua Quadra Salcedo arkitektoak diseinatu zuen eta 3 milioi pezetako kostua izan zuen. 1983-84 ikasturtean eskolak berritu, handitu eta azpiegitura eta material modernoekin hornitu ziren. Castellar Ikastetxe Publikoa da egun. Eskola-unitateak egon ziren baita ere egungo Gayarre Kasinoan.

Herriko irakaskuntza pribatua ondorengo ordena erlijioso hauen esku egon zen: Santa Anako Ahizpak (1884-1970), Aita Karmelitak (1734-1972) eta Anai Maristak (1922-1995). Azken bi ordena horiengana apaiztegiko umeak joaten ziren.

Irudian, ezkerretatik eskuinetara, don Jesús Sánchez, don Cándido Sánchez, don Pelayo Sánchez y D. Miguel Ángel Álvarez maisuak ikusten ditugu. Azken maisu hori 1965ean iritsi zen Ikastetxera. Sánchez anaiak, hala deitzen baitzitzaizen, beren jaiotewrri Villafrancan maisu aritu ziren beren lan bizitzako denbora gehienez. Hireurei kale bat eskainiz omenaldi egin die beren herriak. Bizitza aterako bazuten eskola partikularrak eman beharrean egon ziren eta bai, hartarako, S.S.S. Ikastegunea sortu ere. Haien lanari esker Villafranca eta cadreitako ikasle askok Batxilergoa eta Maisutza egitea erabaki zuten.. M^a Jesús Sánchezek utzitako argazkia.

148. A.G.R.N. 5. Paper-sorta, 21.karp.

Julián Biurrun Mutiloako bere ikasleekin. 2003an euren aldetik omenaldia jaso zuen. Egurrezko xafla bat eman zioten, ondorengo inskripzio honekin: “Gure maisuari, on Juliani, Mutiloabeitiko bere ikasleen partez”.



JULIÁN BIURRUN ESLAVA (1913-2007)

Jarraian, 2002an Julián Biurrunek Iruñean sinatutako testua transkribatzen da:

19 urte bete berritan, Zareko Eskola Nazionaleko ardura hartu nuen 1932ko irailaren 1ean, oposaketak prestatzen ari zen Eliseo Gastesi Lecumberriren ordezkoko gisa. Bitarteko maisuen soldata urteko 2.000 pezetako zen eta hilean 120 pezeta ordaindu behar nizkion ugazabandreari.

Nire bigarren postua Zabaltzan izan zen (Urraulgoiti), Erdi Aroa gogora ekartzen zuen herria: ez zegoen errepiderik, urik eta are gutxiago elektrizitaterik ere.

Bitarteko gisa izan nuen hirugarren eskola, berriro ere Zarekoa izan zen. Oso adierazgarria izan zen Hezkuntzako Batzordeko Ikuskari Nagusi zen Mariano Lampreveak ezarritako funtzioa: eskolatik Gurutzea kentzea alegia. Hasieran ez nion jaramonik egin aginduari baina, aurrerago, berriro ere agindua bidali zidaten. Zalantzasz beterik, apaizarekin hitz egin nuen, eta berak Gurutzea elizara eramatea gomendatu zidan. Horrela, umeekin prozesio bat genuen elizaraino eta ekitaldia oso hunkigarria izan zen.

Garai horretan oposaketak ikasten ari nintzne, eta lankide batzuk esaten zuten gainditu ahal izateko Herriko Etxean izena eman behar zenuela. Askok hori egin zuten eta ni egitekotan egon nintzen, nire ideologiaren guztiz kon-



Madozen arabera, 1847an Zaren (Zangoza) Lehen Hizkien Eskola zegoen, bi sexuetako 100 ikaslerekin. 1908an, 138 ikasle zeuden. Udalak, ikasle-kopuru handi hori zela eta, bi eraikin egokitu zituen eskola gisa erabiltzeko: bat Mutilen Oinarrizko Eskola izateko eta bestea Nesken Oinarrizko Eskola. 1970ean bi eskola-unitate zeuden oraindik, 21 mutilekin eta 28 neskekin. Argazkian Zareko Eskola ikus dezakegu.

trakoa izan arren. Azkenean ez nuen izenik eman. Oposaketak Vicente Navarro eta Rosaura López ikuskariak zuzentzen zuten akademia batean prestatu nintuen. Gerra amaitu ostean, UGTean izena eman zuten guztiak zigortu zituzten eta horietako batzuk fusilatu zituzten, esaterako Oibarreko maisu oso ona zen Gabriel Valentín. Gure ikuskaria, Blanca Bejarano eta Ikuskaritzako beste kide batzuk (Francisca Gonzalez eta Vicente Navarro, esaterako) Nafarroatik kanporatu zituzten. Maisu bikaina izan zen Vicente Navarro ikuskariari buruz ez dut albiste gehiagorik izan ¹⁴⁹.

1936ko irailaren 1ean Uztarrotzera bidali ninduten, eta irailaren 24ra arte egon nintzen, gerrara joan bainintzen.

Gerrak nire irakasle-lana eten zuen. Gerra amaitu ostean, Iruñeko San Frantziskoko eskoletara bidali ninduten. Horietan, behin-behineko arduraduna izan nintzen 1940ko irailaren 1etik 1941eko abuztuaren 31 arte ¹⁵⁰.

149. Vicente Navarro Ruiz (Carcar 1887 - Montevideo, Uruguay, 1964). Agoitzen maisu izan zen eta Faltzeseko "Eladio García" Eskola Nazionalerako zuzendaria. Iruñera joan zen ikuskari postua eskaini ziotenean. Errepublikara garaian Nafarroako Eskola-Kontseilu Probintzialeko kide izendatu zuten eta kongregazio erlijiosoetan emandako Irakaskuntza ordezkatzeko Batzorde Mistoko idazkaria. Erbestean Baionako kanpoaldeko ume umezurtzen udalekuetako zuzendaria izan zen eta Montevideoko (Uruguay) Euskal Etxeko zuzendaria.

150. 1941eko ekainaren 30eko Agindua praktikak egiten ari ziren Maisu Ofizialak euren kargutik kendu zituen, horien artean Julián Biurrun.

Gerraostean San Frantziskoko Eskoletan ezarritako ordutegia. 1939.

Escuela Práctica Graduada de niños aneja a la Normal del Magisterio Primario de Navarra - Pamplona

MATERIAS	TIEMPO Y TRABAJO ESCOLARES					
	GRADOS					
	I	II	III	IV	V	VI
	Horas	Horas	Horas	Horas	Horas	Horas
Religión: Doctrina Cristiana, Historia Sagrada, Liturgia, Apologética	3	3	3	3	4	4
Lenguaje: Lectura, Escritura, Gramática, Composición	6	6	5 ½	5	4	3 ½
Cálculo: Aritmética, Geometría, Nociones de Álgebra.	3 ½	3 ½	4	5	5	5
Geografía e Historia: Navarra, España y General.	1	2	2 ½	3	3	3
La Naturaleza y el Hombre: Física, Química, Historia Natural, Agricultura e Higiene.	1	1	1	3 ½	3 ½	4
Moral y Cívica	1	1	1	1 ½	1 ½	1 ½
Patriótica.	2	2	2	2	2	2
Educación	1 ½	1 ½	1 ½	1 ½	1 ½	1 ½
Física	3	2	2	1 ½	1 ½	1 ½
Artística: Dibujo, trabajos manuales, canto.	3	3	3			
Lecciones de cosas	3	3	3			
Juego libre	3	3	2 ½	2	2	2
Número de horas semanales.	28	28	28	28	28	28

Pamplona 1.º de Septiembre de 1939.

San Frantziskoko Eskoletako klase-egun bat deskribatuko dut:

Ikasgelan sartu aurretik, San Frantziskoko enparantzan edo eraikineko korridoreetan (eguraldiaren arabera), denak lerrokatzen ginen bandera igotzeko. Behin ordenan jarrita batzuetan Cara al Sol¹⁵¹ abesten genuen eta beste batzuetan Oriamendia. Bukaeran “¡Franco! ¡Viva España! eta ¡Arriba España!” indarrez oihukatzen genuen bizilagunek begiratzen gintuzten bitartean.

Ondoren, umeak, lerroan, ikasgelan sartzen ziren eta “Agurmaria” esan eta maisuak “sortzez garbia” erantzun ostean, hasierako otoitza egiten genuen eta lanari egiten genion.

Ikasgela barruko lana beste eskoletan egiten nuen lan bera zen, baina larritasun gutxiagorekin. Ikasleak adin berekoak ziren eta, ezagutzei zegokienez, euren adinari zegokiona baino pixka bat atzeratuago egon arren, banan-banan egon ninteen haiekin. Zaren ezin nuen horrelakorik egin, ikasleak adin desberdinekoak baitziren. Goizeko saioetan irakasgai astunenak lantzen ziren: matematikak-kalkulua, hizkuntza-diktaketa eta kristau-ikasbidea. Azalpenak arbelaren ondoan egiten nituen eta amaitu ostean, arbelean kopiatzen nituen ikasleek euren koadernoetan egin behar zituzten ariketak. Jolas orduan, atzeratuago zeuden ikasleekin eta zigortutakoekin geratzen nintzen. Atsedendialdiaren ostean, egun batzuetan, heziketa fisikoa lantzen genuen eta besteetan Espainiako Historia edo Espainiako eta Nafarroako Geografia. Arratsaldeetan eskulanak,

151. “Cara al sol” Espainiako JONSeko Falangearen ereserkia zen. 1935ean José Antonio Primo de Riverak deituriko idazle talde batek konposatu zuen, Agustín de Foxá eta alderdiko zuzendaritzako beste kide batzuekin batera. Musika Juan Telleria euskaldunak konposatu zuen. Gerra Zibilaren ostean, frankismoko kantika ofizialeko bat izatera pasa zen “Marchar Marcial” edo “Oriamendi” bezalakoak.

Herritarrekin nituen harremanak oso onak ziren. Igandetan prozesioak antolatu behar nituen santuak ateratzen zituztenean eta baita ikasleekin prozesioan joan ere. Jarduera hori derrigorrezkoa zen garai horretan.

Azkenik, nire azkenengo eskolara joan nintzen, Mutiloakora. 1946ko urtarriaren 15etik 1975eko maiatzaren 30era arte egon nintzen bertan, ikusmenaren ezgaitasun bat dela eta erretiratu nintzen arte¹⁵³. 62 urte nituen eta soldataren %80ko pentsioa jaso nuen, Lehen Hezkuntzako Mutualitateak ezartzen zuenaren arabera.¹⁵⁴

Nire azken eskolatik gehien gogoratzen ditudan jarduerak edo gertaerak ondorengo hauek dira:

Esne-hautsa, gazta eta gurin gazia. *Esne-hautsa harri-kartoizko bidoietan bidaltzen ziguten Hezkuntzak “Vázquez de Mella” Eskola Nazionaletan zuen biltegitik. Banaketaren arduraduna Javier Arbeloa zen. Prestaketa erritu moduko bat zen eta ikasleekin batera egiten zen. Ikasleek prestaketa maisuaren gainbegiradik gabe egiten zutenean, hauts gehiago botatzen zituzten horrela zapore hobea zuelako esneak. Ikasle askok esaten zuten esne hori behi-esnea baino gustukoago zutela. Gurin gazia behin baino ez ziguten banatu.*

Estufa piztea. *Egondako beste eskoletan egurra ikasleek ekartzen zituen. Eskola honetan, aldiz, Mutiloako Udala zen estufaren mantenuaren arduraduna. Ikasle nagusienek laguntzen zuten estufa pizten.*

Ordutegia. *Ordutegia astelehenetik larunbatera zen, goiz eta arratsalde. Ostegun arratsaldetan ez zegoen klaserik, aste horretan jaiegunik egon ez bazen. Sartzean eta irtetzean ezarritako otoitzak egiten genituen eta larunbatetan Arrosarioa.*

Álvarez entziklopedia. *Nire karreran zehar gustukoan izan ditudan entziklopediak Antonio Álvarezek argitaratutakoak izan dira. Batez ere mailak eta graduak banatuta zeudelako gustuko nituen: Lehenengo maila, Bigarrena, Hirugarrena eta Hastapen Profesionala. Gai bat azaltzen zenuenean, klase osorako egin zenezakeen, maila guztiak baitzeuden entziklopedian.*

Ikuskariaren bisita-liburua. *Ikuskariak eskoletara bisitak egiten zituzten eta koaderno batean eskolako metodoen, ikasleen mailaren, gomendioen, oharren... berri ematen zuten.*

153. Maisuaren gaitasuna nabarmenki gutxitzen zenean eta maisuak bere lana egiteko zailtasunak zituenean, ezintasun fisikoarengatik erretiroa ematen zitzaion, bizitza osorako pentsio batekin. Estatuak ordaintzen zuen, eta soldataren %80a jasotzen zuen, edozein zela bere adina baina gutxienez hamar urtez lan egin bazuen.

154. Lehen Hezkuntzako Mutualitatea eta bere prestatzioak 1951eko maiatzaren 1ean sortu ziren, erretiro eta alarguntza pentsioak berrikuste eta hobetze aldera.



Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1909an Mutiloan ez zegoen Lehen Hezkuntzako eskolarik. Mutiloabeitiko lehenengo Eskola Nazionalak 1928an eraiki ziren eta 14.689 pezetako kostua izan zuten. 1970ko hamarkadaren hasieran itxi ziren. Argazkia 1957koa da.

Ikuskari bakoitza ezberdina zen. Gurpegui ikuskariaren kasuan, bere ikuskapenean kristau-ikasbideari buruz baino ez zuen galdetzen eta apaiza maisua baino lehenago bisitatzen zuen. Laguna eta Irurzun ikuskariek ikasleei galderak egiten zizkieten eta ozta-ozta agurtzen ninduten. Minonondo ikuskariek ikasgelako txandaketa-koadernoak eskatzen zidan. Koaderno horretan ikasle guztiek idazten zuten, egunero batek. Normalean denek parte hartzen zuten, baina kaligrafia ona zuten ikasleak lehenak ziren. Gaizki edo zakar idazten zuten ikasleak nituen eta horiek beste modu batean parte hartzen zuten koadernoaren ekoi-zpenean. Marrazkiak egin ohi zituzten, koadernoak gordetzeko ardura zuten edo protagonista sentiarazten zituen beste edozein jardura egiten zuten.

Iruña, 2002ko azaroaren 20a.

Sinatuta: Julián Biurrun



Irudian, Tafallako "Higuera" Nesken Eskolako ikasgela bat ikus dezakegu. M^a Ángeles Molina bere ikasleei klase ematen ari da. 1947.



MARÍA ÁNGELES MOLINA JUSUÉ

Jarraian 2007an María Ángelesek Molinak Tafallan sinatutako testua transkribatzen da:

Ilusio handiz hasi nuen nire ibilbide profesionala Santacarako Eskolan 1945ean, 1. unitateko behin-behineko arduradun gisa. Ikasgelan sartzean, neskek zutik zeuden, euren ikasmahaien ondoan. Berrogei inguru ziren, 11 eta 14 urte artekoak. Harritu ninduen horrenbeste begi niri begira egotea eta goitik behera ni aztertzea. Jarraian konturatu nintzen ikasteko eta lan egiteko gogoz zeudela. Ikaragarri ongi onartu ninduten.

1946ko irailaren 30ean Tafallako, nire sorterriko, eskolako lekualdatzea lortu nuen, oraingoan behin betiko arduradun gisa. Erretiratu arte eskola horretan jardun nuen.

Garai horretan 5 eskola zeuden herrian, mutilen bi, nesken beste bi (horiek guztiak eskola bateratuak) eta mistoa zen haur eskola. Eskola Nazionalak ziren. Mutilena eta haur eskola egun "Hijas de la Cruz" Ikastetxea dagoen eraikineko beheko solairuko hiru ikasgeletan zeuden. Nesken eskolak Higuera (Pikondo) kalean zeuden. Ez dakit izenak pikondoren bati egiten zion erreferentzia, nik soilik gogoratzen dut jolastokiaren ondoan zegoen lorategi txikian granadondo

bat zegoela. Neskek zuhaitza ureztatzen zuten eta udaberrian lore gorri politik ateratzen zituen. Gerora fruituak ematen zituen zuhaitzak eta nik nesken artean banatzen nituen. Bi eskolak etxetzar zahar batean zeuden, nahiko hondatuta zegoena. Bi solairu zituen etxeak: lehenengoan ikasgelak zeuden eta bigarrenean maistrentzako bi etxebizitza.

Azalduko dut nolakoa zen egun arrunt bat eskolan. Goizeko 9etan neskak, lerroan, ikasgelan sartzen ziren. Euren ikasmahaietan eseri aurretik, agurmaria bat errezatzen genuen eta aldi berean, nesken eskuak, aurpegiak, buruak eta mantal zuriak berrikusten nituen. Jarraian, eta egun bakoitzerako ezarritako ordutegiaren arabera, etxeko lanak arbelean zuzentzen genituen. Zuzenketak egin ostean, koaderno garbira pasatzen genituen zuzenketok. Denen artean aukeraturako eguneko lanik onena txandaketa koadernoan jartzen zen, baita eta lanari zegokion goiburua eta marrazkia ere. Erabiltzen nuen metodologia “behin eta berriro” metodoa zen: ozenki biderketa taulak esaten zituzten. Geografia eta historia ikasteko ere metodo bera erabiltzen genuen. Idazketari garrantzia handia ematen nion, gurasoek asko balioesten baitzuten euren seme-alabek kaligrafia ona izatea. Hori dela eta, ortografia akatsik gabeko ariketak egitea gomendatzen nien, kaligrafia onarekin eta orbanik gabe. “Poliki eta letra onarekin”, esaten nien nire ikasleei¹⁵⁵.

Arratsaldeetan programazioaren zatirik handiena joste-lanei eskaintzen genion. Gurutze-puntua, puntu erdia, bainikak, puntu apaingarriak, saretuak eta jantzigintzako teknika batzuk irakasten nizkien. Joste-lanak egiten genituen bitartean biderketa taulak eta bestelako edukiak erreparatzen genituen. Ikasgelatik irtetzean, Arrosarioa errezatu ostean (ez egunero), neskek aitaren egiten zuten eta kalera lerro bikoitzean ateratzen ziren.

Eskolako materiala urria zen. Nire ikasgelan zortzi mahai handi zeuden. Hilaria Sevilla ikuskariak “tabernako mahaiak” deitzen zien. Matrikulazioa txikia zenez, mahai asko soberan egoten ziren. Gero, hilabetez hilabete, eskolako errolda handitzen joan zen eta ikasgela bakarrean 59 neska izatera pasaginen. Ondorioz, bankuak ekarri behar izan genituen ez baitziren mahaietan sartzen. Armairuetan hogeitahiru irakurketa-liburu zeuden. Gerraostean, neskek arbel txikia bere arbel-ziriarekin ekartzen zuten ikasgelara. Erabilgarriak ziren eta

155. Erregimen Zaharreko adierazpen horiek asko erabili ziren eskolan eta jendartean orokorrean. Gurasoek eta maisu-maistrek hezkuntzarekin eta garaiko egoera sozioekonomikoarekin lotutako hainbat esaldi erabiltzen zituzten.: “Pasas más hambre que un maestro escuela”, “La letra con sangre entra”, “No estás bien ni descolgando longanizas”, “Aquellos muetes no saben hacer la o con un canuto”, “La escuela y la familia nos mejora la hebilla”, “Espacio y buena letra”, “Al maestro reverencia y aprovecha su experiencia”, “Cada maestrillo tiene su librillo”, “Para educar a un niño hace falta la tribu entera” (proverbio chino)...

Madozen arabera, 1845ean Tafallan fraile frantziskotarren eta kaputxinoen bi komentu zeuden. Kaputxinoen komentuan mutilen bi eskolak zeuden (oinarrizkoa eta goi-mailakoa), 300 ikaslerekin eta hiru maisu eta hiru laguntzailerekin.

Nesken Oinarrizko eskola ere bazegoen, 260 ikaslerekin.

Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, Tafallan 8 eskola-unitate zeuden, 2 publiko eta 6 pribatu, eta osotara 722 ikaslek ikasten zuten horietan.

Argazkian Pikondoko kaleko Tafallako nesken Eskola Publikoak ikus ditzakegu. Eskolan bi solairu zeuden: lehenengoan ikasleen ikasgelak zeuden eta bigarrenean maistrentzako bi etxebizitza.



markoaren albo batean zulo bat zuten, bertan zintarekin zintzilikatzen zuten zapia jartzeko. Zapia urarekin busti eta horrela arbela garbitzen zuten. 50ko hamarkadatik aurrera, neskek koadernoak, arkatza eta borragoma ekartzen zuten. Material hori Udalak ematen zuen hasieran, ondoren Hezkuntzako Ministerioa izan zen materiala urtero berritzeko arduraduna. Entziklopediak iristean, libururuak bigarren mailara pasa ziren.

Espainiako gerra zibilaren ondorengo urte horietan, elikagaien eskasia zela eta, gure herrialdeak, “Marshall Planaren” bidez, amerikarren laguntza onartu zuen. Eskolei esne-hautsa ematen zieten eta,

uretan disolbatu eta berotu ostean, eguerdian edalontzi bat esne ematen zitzaion ikasle bakoitzari. Arratsaldean urtutako gazta banatzen zen, neskek euren etxetik ekartzen zuten ogiarekin jaten zutena. Gazta latorrizko ontzi zilindrikoetan jasotzen genuen.

Aipatu nahi dudan beste kontu bat Eskola-Mutualitatekoa da, Aurreiskupeneko Institutu Nazionalaren ekimenari esker maisu-maistrok sortu genuena. Ikasleek astelehenetan gurasoek asteburuan emandako aste-sariaren zati bat ekartzen zuten, hamar zentimo hain zuzen ere, “ochena” gisa ezagutzen zena. 25 urte betetzen zituztenean dirua interes handiekin ateratzen zuten. Nesken testigantzen arabera, ezkontzen zirenean oso ongi zetorkien diru hori sukaldea, joste-makina edo egongela erosteko. Ikasle bakoitzak aurrezten zuen diruaren arabera zen eros zezaketena. Eskolaz kanpoko lan horrengatik sari probintzialak zein nazionalak jaso genituen.

Ez dut oraingo teknika eta didaktika ezagutzen. Baina, lehen, noizean behin, nahiko maiz, maisu-maistrok eremuka bilerak izaten genituen. Txandako ikuskariak (Hilaria Sevilla, Aurorar Medina edo León Minondo) egun zehatz

batean biltzen gintuen eta bertan eguneroko lanean jarraitu beharreko jarraibideak ematen zizkiguten. Batzuetan, talde txikietan, programazioak eta materialak prestatzen genituen gure ikasgeletan erabiltzeko.

Ikasturte bakoitzaren amaiera, alkateak bisita egiten zigun, udaleko beste agintarirekin batera. Neskei euren ezagutzen inguruan galdetzen zieten eta lanean jarraitzera bultzatzen zituzten. Urte batzuetan zehar neskak “Higuera” kaleko eskoletara joaten ziren (egun Mairaga uren bulegoak dira) eta arratsaldeetan, klaseak amaitzean, Santa Mariako parrokiara bisita egiten zuten denek batera.

Asteko eskola-egunak urteekin aldatzen joan dira. Hasieran libre genituen arratsaldeak ostegun arratsaldeak ziren eta ondoren baita larunbat arratsaldeak ere. Igandeetan neskak mezetara joaten ziren euren maistrarekin batera.

Azaroaren 27a (San Jose Calasanz) gogo biziz ospatzen zen, maisu-maistren eguna baitzen. Irakaskuntza zentro guztien senidetasunaren festa zen eta egun horren antolaketa Aita Eskolapioen esku zegoen. Programa oso anitza zen: meza Santa Mariako parrokian, askotariko jolasak eskolapioen jolastokian (futbola, saskibaloia, lasterketak... mutilentzat), aperitiboa eta arratsaldean umeentzako zinema Casino Españolean.

Gogoan dut, Amaren Eguna zela eta, 8 eta 9 urte arteko nesken lehiaketa bat: idazlan bat idatzi behar zuten. Jarduera hori Iruñeko saltoki handi batzuen inaugurazioa zela eta antolatu zuten. Lehiaketa gure neskek irabazi zuten eta hainbat sari jaso zituzten. Gogoan ditudan beste festa batzuk San Frantzisko Xabierren bederatzaurrena, martxoaren 4aren eta 10aren artean ospatu zena, Ama birjinaren irudiaren inguruko poesia errezitaldiak eta maiatzeko hilabetea dira.

Niretzat oso pozgarria den beste oroitzapen bat Domundaren eguna da. Bezperan hala eskatzen zuten neskei buztinezko itsulapikoak ematen genizkien. Beste eskola batzuetan “chinitoak” erabiltzen zituzten. Normalean binaka joaten ziren eta igandeetan, eguerdira arte, kalez kale joaten ziren itsulapikoekin. Ondoren, eskoletan uzten zituzten. Astelehenean, neska guztien arrear, mahaiaren gainean hausten ziren itsulapikoak. Txanponak zenbatzen ziren, baina inork ez zekien zenbat diru zegoen itsulapiko bakoitzean. Jasotako dirua parrokiara eramaten zen.

Gauetz, urte askotan zehar, nire lankide batzuekin batera, Helduen Eskolan parte hartu nuen eskola-graduatua lortu ez zuten neskentzako egiten ziren klaseetan. Azterketak Tafallan egiten genituen, ondoren Iruñeko Ikuskaritzara bidaltzen genituen eta han egiten zuten ziurtagiria. Klase horiek emategatik hilean 50 pezeta jasotzen nituen.

Tafallako “La Higuera” eskola-
eraikineko ikasgela. Goya maistra.



Matrikulazioaren goradaka arintze aldera, Udalak “Real Defensa” Eskola-Multzoa eraiki zuen eta 1964ko abuztuan inauguratu. Zentroan mutilentzako lau ikasgela eta neskentzako beste lau zeuden. Zentro horretatik “Marqués de la Defensa (La Plana) Eskola-Multzora joan ginen 1977an. Jada Eskualdeko Ikastetxean geundenean, Javier Ojerrek eta biok, eta klaustro osoaren parte hartzearekin, “El volcán de letras” aldizkaria argitaratu genuen. Azala Julián Aranak egin zuen eta Nafarroako Aurrezki Kutxak babesten zuen aldizkaria.

Nire azalpen motz honekin amaitzeko, nirekin batera lan egin zuten lankideak gogoratu nahi ditut: Pedro Barace, M^a Fernanda Jiménez, Goya López de Heredia, Norberto Veintenillas, Carmen Ruiz, Josefina Barea, Javier Martínez, M^a Ángeles García, beste askoren artean.

Tafalla, 2007ko martxoaren 15a.

Sinatuta: M^a Ángeles Molina



Tafallako ordena erlijiosoak Aita Eskolapioak (1883an herrira iritsi zirenak) eta Gurutzearen Alabak (1888an iritsi zirenak) izan ziren. 2012an Gurutzearen Alabek herria utzi zuten eta Aita Eskolapioek hartu zuten “San José” Ikastetxearen ardura. Bi kongregazioek herriko irakaskuntzaren zati handi bat euren gain hartu zuten.



Gerraostean, Tafallan bost eskola-unitate zeuden: haur eskola, mutilen bi eta nesken beste bi. Haur eskola eta mutilen eskola egungo “Hijas de la Cruz” Ikastetxean zeuden. Herrian eskola-matrikulazioa igotzen ari zela ikusirik, Udalak eta Aldundiak eskola-multzo berria inauguratu zuten 1962an. 1970ean herrian jada 12 eskola-unitate zeuden: 8 publiko, 3 pribatu-erlijioso eta pribatu bat. Orotara 426 neskek eta 366 mutilek ikasten zuten horietan. Argazkian Pedro Barace, M^a Ángelesen kidea, ikus dezakegu Tafallako “Hijas de la Cruz” Mutilen Eskolako jolastokian. (1960). Maite Baracek utzitako argazkia.

Cándido Sainz de Vicuña Lodosako bere ikasleekin. Maisuak berak utzitako argazkia.



CÁNDIDO SAINZ DE VICUÑA ALBÉNIZ (1917-2014)

Jarraian 2006an Cándido Sainz de Vicuñaak Lodosan sinatu zuen testua hitz hitzez transkribatzen da.

Faltzesen jaio nintzen 1917an. Nire aita funtzionarioa zenez, lekuz maiz aldatzen ginen, horregatik ondorengo herria hauetan bizi izan nintzen: Faltzes, Lodosa eta Sartaguda Nafarroan eta Aramaion eta Oionen Araban.

Oionera, Logroñotik bost kilometrora zegoena, bizikletaz Batxilergoa ikastera joaten nintzen maristen ikastetxera eta handik Institutura eramaten gintuzten, ikasle ofizial gisa. Klaseak goizeko zortzietan hasten ziren. Arratsaldetan ikastetxean egoten nintzen hurrengo eguneko ikasgaiak prestatzen eta arratsaldetako zazpian itzultzen nintzen Oionera.

Bosgarren maila arte ikasi nuen bertan eta ikasturte erdialdean, nire aitaren lekualdatzea zela eta, Gasteizen bukatu nuen Batxilergoa, 1935ean.

Urte horretan bertan oposaketak prestatu nituen, ekainetik irailera arte, Gasteizko Eskola Normalean sartzeko eta 1931ko Irakasle-Laneko Plan Profesionaleko ikasketak egiteko. Oposaketak gainditu nituen eta lehenengo maila egin nuen bertan.

1936ko ikasturtea amaitzean, Gerra Zibila hasi zen. Gerran zehar Gurutze Gorrian egon nintzen, frontean, eta gero, kintoak mugitu gintuztenean, soldadu gisa Nafarroako Laugarren Brigadako Flandesko Lehenengo Batailoian.

Gerra amaitzean, Gasteizeko Maisuen Eskola Normalera itzuli nintzen eta ikasketak 1940an bukatu nituen, bi ikasturte ikasturte trinko batean egin ostean. Nire promozioko bigarrena izan nintzen eta Ohorezko Matrikula lortu nuen. Jarraian, Gasteizko atxikitako eskolan egin nituen praktikak eta nire lehenengo soldata jaso nuen.

1941eko martxoaren 1ean Arabako Kintako eskola mistoko behin-behineko ardura hartu nuen. Bertan 1943ra arte egon nintzen. Hurrengo ikasturtean lekualdatze lehiaketan parte hartu nuen eta Lodosako Udalak aukeratu ninduen. Nafarroan prozedura hori erabiltzen zen maisu-maistrak aukeratzeko, hau da, udalen ustetan euren eskoletan lan egiteko aproposak izango ziren maisu-maistrak aukeratzeko zituzten eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiari proposamena egiten zioten. Batzordea zen izendapena ofiziala egiten zuena.

Kintako eskola mistoa zen eta herrian zegoen bakarra. 6 eta 14 urte arteko ikasleak etortzen ziren. Ezin zen apaindura handirik egin baina oso ongi pasa nuen nire ikasleekin gogor lan egiten. Ikasleak hiru ataletan banatzen nituen eta irakasgai instrumentalei eskaintzen nien denbora gehien. Lortutako emaitzak Ikuskaritzari ongi iruditu zitzaizkion eta zegokion txostenean jaso zuten. Nik eskola utzi eta handik gutxira, Lauzirica monsinoreak eskolara bisita egin zue-nean oso pozik geratu zen ikasleengandik jasotako erantzunarekin. Eskola horretan gehien gogoratzen dudana pasadizoa tximiniaren sutearekin du zerikusia. Udaberriko arratsalde bat zen, gizonak eta emakumeak landan lanean ari ziren eta jenderik ez zegoenez, teilatura igo eta ikasleak antolatu behar izan nituen urez betetako ontziak eramateko eta bustitako zaku batekin tximinia estaltzeko. Azkenean, dena bikain atera zen. Herrian bizitzen egon nintzen bitartean, Gasteizko aurrezki kutxak 50 pezetako saria eman zidan eta beste 50 pezeta ikasleei emateko eta horrela aurrezpena sustatzeko.

Lodosako mutilen 3. Eskola unitariorako postua lekualdatze lehiaketan lortu nuen eta 1943ko abuztuaren 30ean kargua hartu nuen. Bizikletaz egin nuen bidea Torres del Riotik, nire familiarren herritik, nire anaiarekin eta lagun batekin batera. Gutxi balitz, bidean gurpil bat zulatu zitzaidan eta unean bertan konpondu eta bidea jarraitu genuen.

Lodosan 39 urtez egon nintzen lanean, 1982an erretiratu nintzen arte. Beti pentsatu nuen erabili beharreko programazioa eta metodologia adinaren, matrikularen eta herriko lan jardueren arabekoak zela. Lodosari dagokionez, nekazaritza da jarduerarik garrantzitsuena eta fruitu asko ematen ditu.

60ko hamarkada erdialdean eskola-antolakuntza ulertzeko moduan aldaketa garrantzitsua eman zen. Cándido maisuak metodologia ezberdinak erabiltzen zituen bere ikasleak suspertzeko: eskola-lehiaketak, eskola-baratza, talde lanak, geografia irakasteko askotariko metodoak, irteera hezigarriak, etab. Maisuak berak utzitako argazkia.



Ikasleak nagusiagoak zirenean nire urteko programazio guztia lehenengo lau hilabeteetan ematen nuen, batez ere matematikak eta hizkuntza. Izan ere, otsailetik aurrera ikasle batzuek eskolara etortzeari uzten zioten. Hala ere, tarteka etortzen ziren, eta lehenengo hilabeteetan gutxieneko edukiak bereganatu zituztenez, errazago egiten zitzaaien euren ikaskideei azaltzen ari nintzaaien edukiak jarraitzea.

Ikasleen ikasketa sustatzeko bi bando sortzen genituen ikasgelan: kartagotarrak eta erromatarrak. Talde bakoitzeko buruzagiak izendatu ostean, taldekideak aukeratzen zituzten. Borroka aukeratutako gaiaren inguruan elkarri galderak egitean zetzan. Batek erantzuten ez bazuen, bere eserlekura joaten zen eta gelditzen zen azkena edo azkenak ziren garaipena ematen ziotenak bere bandoari. Bando bakoitzeko aurpegia zuen banderatxoa zintzilikatzen genuen hurrengo borroka egin arte. Banderatxoa urdina zen alde batean eta gorria bestean eta bando irabazlearen alde aurrez jartzen zen hurrengo lehiaketa egin arte.

Urte askotan zehar nagusien mailak izan nituen, 5.etik 8.era eta ikasgela mistoak ziren. Gehienak kontabilitatea ikasten hasi ziren balantzeak etabar eginez. Urte zoragarriak izan ziren, ikasle batzuk lau ikasturtez egoten baitziren eskolan eta maila bikaina lortzen baitzuten.



Promozio honetan berrezarri zen Lodosan hezkidetzak. Cándido maisuaren arabera, esperientzia oso positiboa izan zen (1968-1972). Maisuak berak utzitako argazkia.

Beti irakatsi nizkien probintzia guztiak euren alderdi judizialekin, eta beste udalerri batzuk neurtitzetan ikasten zituzten. Ez dut uste ikasle askok probintzia guztiak ikasi zituztenik, baina, gaur egun, 70 urte baino gehiago dituzten ikasle horietako batzuek ikusten nautenean probintziaren bat errezitatuz agurtzen naute. Esaterako:

Nafarroa

*Iruña, Erriberri, Cascante
Tafalla, Altsatsu, Corella,
Cintruenigo, Orreaga,
Tutera, Lodosa, Lizarra*

Cuenca

*Cuenca, Belmonte Montilla,
arancón, Uclés, Cañete,
San Clemente, Minglanilla
Priego, Almodóvar eta Huete*

Gipuzkoa

*Donostia eta Pasaia
Deba, Bergara, Getaria
Oñaie, Tolosa, Irun
Eibar, Mutriku, Zumaiia*

Gasteiz

*Gazteiz, Amurrio, Guardia
Elgorriaga, Legutio
Agurain, Araia, Laudio
Urizarra eta Villar*

1967an León Minondo ikuskariak gure eskola bisitatu zuen. Aurrerago, eskutitz bat bidali zidan eta ondorengo hau esaten zidan idatzian: “Aurreko ikasurtean egin nizun bisitan inpresio bikaina jaso nuen, eta nire lankideekin hitz

egin ostean, denak horrekin bat datoz. Hori dela eta Alfonso X.a Jakintsuaren Gurutzea jasotzeko proposatu zaitugu". Gurutzea Iruñean eman zidaten 1972ko azaroaren 22an, maisuaren festa zela eta, eta horrekin batera 5.000 pezeta eskudirutan. Ondoren, Lodosako Udalak, lagunarteko ekitaldi batean, Gurutzea jasotzeagatik pergamino bat eman zidan.

Nire bizitza profesionaleko azken urteetan Martínez Baigorri Ikastetxe Publikoko zuzendaria izan nintzen, baina klase ematen nuen hala ere. Izan ere, ordu gutxi batzuk baino ez nituen bulegoan arreta egiteko eta kontabilitatea eramateko. Erretiratzear nengoela, nire dimisioa aurkeztu nuen ordezkotzat izenda zezaten, plaza hutsik gera ez zedin.

Laburbilduz, oso zoriontsua izan naiz nire lanean eta, uste dut ez dudala iraganeko eta oraingo maisu-maistrek egin dutena baino gehiago edo gutxiago egin.

Lodosa, 2006 irailaren 15a.



Madozen arabera, xix. mendearen hasieran Lodosan Mutilen Eskola zegoen, maisu baten esku zegoena eta maisu laguntzaile bat zuena. Urtero 6.000 erreal kuarto ematen zizkioten maisuari eta 1.100 laguntzaileari. Eskolara 100 ikasle joaten ziren. Nesken Eskola bat ere bazegoen, maistra baten esku zegoena eta 60 ikasle zituena. Maistrak 1.400 erreal kuarto jasotzen zituen urtean eta etxebizitza-logela eskaintzen zitzaion. Eskolak udaletxean zeuden. Argazkian, Epifanía Garayoa maistra bere ikasle batzuekin ikus dezakegu. 1887. Lodosako Udalak utzitako argazkia.





Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an, Lodosan lau eskola-unitate zeuden bi sexuetako 450 ikasle jasotzeko. Gerra Zibilean (1936-39) eskolak zeuden Plazuelako eraikina Guardia Zibileko Kuartel bilakatu zen. 1946ko irailaren 1ean Eskola Nazional berriak abiarazi ziren eta bi eraikin zituzten: “Santa Maria la Real” eskolak, “las de arriba” eskola gisa ezagunak zirenak, eta “Virgen de las Angustias” eskolak, “las de abajo” gisa ezagunak. Bi eskola-multzoak 1981ean batzean, ikasleak egungo Ángel Martínez Baigorri Ikastetxe Publikora joan ziren ikastera. Argazkian, “Virgen de las Angustias” eskolak ikus ditzakegu, Cándido maisuaren esku zeudenak. Isolina Pliego Soler Cándido maisuaren lankidea izan zen eskola horietan eta sortu zuen Batxilergoko akademiarengatik gogoratzen dute. Izan ere, akademia horretan hainbat belaunaldik ikasi zuten. Lodosako irakaskuntzari dagokionez, aipatu behar da tren geltokian zeuden Eskola Nazionalak sortu zirela 1934an eta 1964an itxi zituztela. Historian zehar, Lodosako eskolek hainbat izen izan dituzte: Lehen Hizkien Eskolak, Eskola Nazional Graduatu Mistoa, Ángel Ikastetxe Publikoa eta, egungoa, “Ángel María Baigorri” Ikastetxe Publikoa, Lodosako apaiz eta poeta ospetsuaren izena, alegia.

Herriko irakaskuntza pribatua Aita Agustindar Errekoletoen Ikastetxean (1925-1976) eta “Sagrado Corazón” Ikastetxean jasotzen zen (1900-1970). Data horretatik aurrera, azken zentro horrek “La Milagrosa” Ikastetxea izena jaso zuen. Ikastetxea San Vicente Paul Ahizpen esku (1970).



Lodosako Aita Agustindar Errekoletoen historia 1925ean hasi zen. 1949an, apaizgaien kopurua handitu zenez, erlijiosoez eraikin berria eraiki zuten, lehenengo eraikinera lotuta zegoena. 70ko hamarkadaren amaieran, Agustindarren apaiztegia itunpeko ikastetxe bilakatu zen, “San José” Ikastetxea hain zuzen. 1976an itxi zuten zentroa. Argazkian Lodosako La Milagrosa ikastetxeko ikasle batzuk ikustend itugu, Agustindar errekoletoen aita Asenjorekin dantza dantzatzeko. 1960-61. Amelia Resanok utzitako argazkia.

Jesús Amátrian 4. OHoko Andosillako bere ikasleekin batera, eta bere ordezkari egongo zen Julia Recalde maistra, maisua erretiratzean. Argazkia Andosillako San Julián eta Santa Basilia eliza-parrokian egina dago, bere irakasle-lana eskertzeko egindako mezaren ostean. Promozio hori Jesús maisuaren azkena izan zen, 1982. Marisa Tejedorrek utzitako argazkia.



JESÚS AMÁTRIAN AMÁTRIAN (1916-2005)

Jarraian 2000. Urtean Andosillan Jesús Amatraineak sinatutako testua transkribatzen da. Testua Andosillako eskoletako irakaslea zen Juan Ramón Sagastiri eman zion.

E1935eko urtarrilaren 26an Beasainetik kilometro gutxira dagoen Idiazabalera (Gipuzkoa) eskola bateratuko ardura hartu nuen. Trenez joan nintzen haraino eta ondoren, taxi bat hartu nuen eskolara joateko. Gazten herria da Idiazabal. Errepidea herriaren erditik igarotzen da eta eskola oso gertu dago. Nire lankide bat apaiza zen eta egunero joaten zen eskolara bere sonatarekin. 30 ikasle nituen klasean eta ia denak joaten ziren egunero eskolara. Haien artetik hitz egiten zutenean ez nien ulertzen, euskaraz hitz egiten baitzuten. Baina nik hitz egiten nuenean arazorik gabe ulertzen ninduten. Eskolak egunero argi ona zuen, baina argi artifizialarekin zaila zen lan egitea. Lan egiteko mahaiak ezin ziren banakakoak, gure herrian ez bezala. Luzeak ziren eta horiei itsatsita hainbat ikasle esertzeko bankuak zeuden. Mahaien gainean tinta ontziak jartzeko zuloak zeuden eta lumak erabiltzen ziren idazteko. Maiz zikintzen zitzaizkien



1847an, Zabaltzan Lehen Hizkien Eskola Osatugabea zegoen, bi sexuetako 40 ikaslerkein. 1908an, ikasleak ia erdira pasa ziren, 22ra. Argazkian, Zabaltzako (Etxauri) Eskola Mistoa ikus dezakegu. 1953.

eskuak eta aurpegiak, pailazoak bailiran, eta lurra tintaz beteta zegoen. Urte horretako ekainaren 6an eskola horretako bitarteko irakasle izateari utzi nion.

ZABALTZA (NAFARROA)

Bitarteko irakasle gisa ere eskolako ardura hartu nuen 1936ko abuztuaren 31n eta kargua 1938ko urtarrilaren 31n utzi nuen. Gerra Zibilean Donostia hartu zutenean izendapena iritsi zitzaidan eta eskola horretara joan nintzen. Ordura arte itxita egon ziren. Herrian etxe gutxi zeuden baina xelebrea zen. Arraitzako Udalaren menpe zegoen kontzejuan zegoen Zabaltza. Gereziengatik ezaguna den Etxauriko bailararen erdian zegoen.

Eskola mistoa zen eta herriko frontoira itsatsita zegoen. Eraikin zahar eta txiki bateko beheko solairua zen eskola. Niretzako berritasuna izan zen mutilak eta neskak batera izatea, garai horretan hezkidetzarik ez baitzegoen eta eskola mota horiek normalean maistra baten esku egoten zirelako. 14 ikasle nituen matrikulatuta eta 11 inguru bertaratzen ziren, gehienak mutilak eta adin ezberdinekoak. Argi natural asko zegoen eta Kontzejuak gure estufa txikiarentzako egurra ematen zigun. Asteburuetan mutilek, maisuak zuzenduta, eskolan erratza pasatzen zuten. Maisua, aldi berean, zeregin horietan berezitzen hasten zen. Eskolako materiala urria eta zaharkitua zen, baina nahikoa: mapa batzuk, irakurketa liburuak, mahaiak, idazteko lumak eta tinta ontziak. Gipuzkoako eskolaren antzekoa zen.

PORTUGALETE (BIZKAIA)

Eskolaren ardura 1939ko urriaren 5ean hartu nuen eta 1941eko ekainaren 30ean utzi. Gerra jada amaituta zegoen eta gosea eta merkatu beltza hasia zen. Herriak biztanle asko zituen eta bi eskola graduatu zituen. Niri herritik gertuen

zegoena egokitu zitzaidan. Lehenengo maila hartu nuen. Matrikula 75-80 ikaslekoa zen eta 60 bat ikasle bertarutzen ziren, hainbat adinekoak, baita 12 urteko batzuk ere.

Lana gogorra zen, ikasle asko baintuena. Hala ere, garai horretan orain baino errazagoa zen diziiplina lortzea, umeez ikusten baitzuten jendea ordenarekin bizi zela gabeziak, batez ere ogiarena, pairatu arren. Eguneko 125 gramorekin igaro behar zen eguna eremu industrialean. Beraz, oportetarik itzultzen nintzeanean, garai horretako errotetatik lortutako irinarekin etxean egindako ogiarekin betetzen nuen maleta erdia. Bilboko tren geltokian zaintza zorrotza egon arren, maletak ikuskatzen zituzten militarrek ez ikusiarena egiten zuten nire arroparen azpian ogia antzematen zutenean. Eskola graduatu batean adinaren eta ezagutzen araberako sailkapen hobea egon arren, nire lehenengo maila horrek lan handia ematen zidan ikasle kopuruarengatik eta ezagutzetan zituzten atzerapenengatik. Eskolako materiala hobea zen, baina ez oso modernoa. Liburu eta mapa gehiago zeuden, baina idazketa sistema antzekoa zen.

SESMA (NAFARROA)

Eskola bateratuaren 1. saileko ardura 1941eko abenduaren 13an hartu nuen eta 1943ko abuztuaren 31n utzi. Oraingoan ere, aurrekoetan bezala, bitarteko maisua izan nintzen.

1940 arte, urteko soldata Idiazabalen, Zabaltzan eta Portugaleten 3.000 pezetakoa izan zen. Data horretatik aurrera, eta 1941eko abenduaren 31 arte, 4.000 pezetakoa izan zen. Eta Sesmako eskola utzi nuen arte 4.000 pezetatik 5.000ra igo zuten.

Nekazaritzako produktu gutxien zuen lekutik (Portugalete) produktu gehien zituen lekura joan nintzen. Ogi zuri asko zegoen batez ere. Herrian 8 edo 10 emakume argal etortzen ziren eta arratsaldetan, Calahorrara lodi-lodi itzultzen ziren ehun bikoitzeko euren soinekoetan sartzen zuten irin kopuruarengatik.

Mutil nagusien eskola egokitu zitzaidan, eskolara joan aurretik jada 10 kg espartzu lantzen zituztenak. Nire beste bi lankideak behin betiko maisuak ziren eta ni baino helduagoak.

Eskolako altzariak urriak eta zaharrak ziren: mahai luzeak atxikitako bankuekin eta aurreko eskolen antzeko tinta ontziak eta idazteko lumak. Leihoeak argi gutxi ematen zuten eraikin zaharraren orientazioa zela eta.

ZIRAUKI (NAFARROA)

Ordezko gisa 1943ko abenduaren 13an hasi nintzen. 1945eko urtarrilaren 1ean soldata 6.000 pezetara igo zidaten. 1994an oposaketak gainditu nituenez,



Ziraukiko mutilen eskolako ikasgela.
On Jesus maisu zen izan eskola
horretan.

eskola horretan jarraitu nuen behin-behineko arduradun gisa. 1947an urteko soldata 7.200 pezetara igo zidaten. Baina bizitza-maila ere igo zenez, errentagarriagoak ziren hasierako 5.000 pezeta horiek. Hala ere, pozik negoen, nirekin ikasi zuen lagun baten herrian nengoelako. Diabetikoa zen beste lankide batekin nengoen, ni baino 20 bat urte nagusiagoa.

Bi eskolak jendea bizi zen eraikin bateko beheko solairuan zeuden, bionbo batekin bereizita. Jolastoki txiki bat zegoen eta bertan soinketa egiten zen. Eskola material gutxi zegoen: mahai luzeak euren eserlekuekin eta idazteko material bera.

TALVEILA (SORIA)

1947ko abenduaren 31n eskolaren ardura hartu nuen eta 1948ko abenduaren 31 arte egon nintzen. 1949ko urtarrilaren 1ean jada 8.400 pezetako soldata genuen eta 1951ko urtarrilaren batean 10.920 pezeta. Eskolara joateko Soriarra joaten zen autobusa Calahorran hartu behar nuen eta bertan, gaua igaro eta hurrengo eguneko arratsaldera arte itxaron. Gero, Burgoseko tren hartzen nuen eta Pinar Grandeko geltokian jaisten nintzen. Geltokian nagusia edo bere semea asto batekin zain egoten zen. Astoan nire maleta eta bestelakoak jartzen genituen eta oinez joaten ginen Talveilaraino, 8 kilometro inguru. Auzo bide bat zen, baina niretzat errepide sendoa eta estua zen, pinudizz inguratuta zegoena. Ugazabandreari egunean 18 pezeta ordaintzen nizkion eta udalak soldata handitu zidan gastu horietarako.

On Jesús Talveilako (Soria) bere ikasleekin 1950ean. Herriko museo etnologikoak 50eko hamarkadako ikasgela baten birsortzea egin zuen,

On Jesús-en ikasgelarena, hain zuzen. Erakusketa horretan altzariak eta maisuak klaseak emateko hainbat tresna ikus daitezke. Jesús Gómez Fernándezek, On Jesús-en ikasle ohia, utzitako argazkia.



Eskola lokal zahar bat zen, baina ongi aireztatuta zegoen. Altzarietara dagokienez, mahai luzeak eta horietara atxikitako eserleku luzeak zeuden, beste eskoletan bezalaxe. Idazketa sistema ere bera zen. Larunbatean, eta batzuetan astean zehar, ikasleek nirekin pasatzen zuten erratza ikasgelan. Egurrezko estufa genuen. Goizero ikasleek pinuzko bi edo hiru makil eramaten zituzten. Beste batzuk zuziak eramaten zituzten: egurrezko zati finak ziren, erretxina-ateratzaileek moztu zituztenak, erretxina asko zituztenak eta pospoloarekin piztuta papera baino hobe erretzen zirenak. Zati horiek ez ziren inoiz beste zereginetarako erabili. Eskolan mutilen eskola bateratu bat zegoen eta baita nesken beste bat ere. Mediki bat eta apaiz bat inguruko herrietan ere arduratzen ziren, hiru edo lau kilometrora zeudenak. Sorian asko balioesten zuten irakaskuntza, eta uste dut oraindik ere hala dela. Normalean matrikulatutako ikasle guztiak etortzen ziren eskolara eta etortzen ez zirenean txerri-hilketan ari zirelako edo gaixorik zeudelako zen. Nire herrian, Andosillan, sendoak ziren ume asko landara lan egitera joaten ziren familia laguntzera, baina Sorian ez zuten eskola egun bakar bat ere galtzen. Funtzionarioak asko maite zituzten eta herriko gazteek beti egiten zieten ongietorria gitarrekin eta kantuekin ostatu hartzen zuten lekuan. Omenaldia jasotzen zuenak ogia eta ardoa ematen zien. Eta horrekin nahikoa zen.

Gurasoei gehien interesatzen zitzaiena zen euren semeek zuhaitzak kubikatzen ikastea zen, familia bakoitzak banatzen zituen sortengatik. Gero beste herri batzuetan saltzen edo irinagatik trukatzeko zituztenak.



Pascual Madozek bere *Hiztegia* azaltzen duenaren arabera, 1845ean, Andosillan, 60 ikasle zituen Mutilen Udal Eskola zegoen eta baita nesken eskola ere, 45 ikaslerekin. 1908an ikasle kopurua 260ra igo zen, baina irakasle kopurua bera zen: maisu bat eta maistra bat. xx. mendearen hasieran, eskolak udaletxeko lokaletan zeuden. Espazio urria eta higiene baldintza txarrak zirela eta, Udalak Eskola Nazional berriak eraikitzea erabaki zuen “Virgen de la Cerca” izenarekin. Maisu-maistrentzako etxebizitzak ere eraiki zituen. Eskola-eraikina 1953an inauguratu zen eta bi solairu zituen. Lehenengoan nesken ikasgelak zeuden, Estefanía Sanz (zuzendaria), Irene Bueno eta Teresa Ayúcar maistren ardurapean. Goiko solairuan mutilen ikasgelak zeuden, José García (zuzendaria), Jesús Amátrian eta Luis Cárcar maisuekin. Argazkian Andosillako “Virgen de la Cerca” Eskola Nazionalak ikusi ditzakegu. 1953.

ANDOSILLA (NAFARROA)

Lekualdatze lehiaketan 1951ko irailean postua hartu nuen eta 1981ko irailaren 31n erretiratu nintzen arte bertan egon nintzen. 15 hiru urteko guztira.

Nire herrian nire bizitzako eskolarik okerrera eta onena izan dut. Okerrena iristerakoan izan zen: Román Suescunen (goian bego) tabernako biltegia. Argi naturala ematen zuen leiho bakarra zegoen, teilatu txiki batera ematen zuena eta eskola ordu gehienetan argi elektrikoa erabili behar genuen. Zerrautsezko estufa handi bat genuen, eguerdira arte ongi funtzionatzen zuena. Baina gero, zerrautsa erortzen zitzaion eta ez zion aireari uzten pasatzen, eta ordu erdiz ez zion kea ateratzeari uzten. Argiari eta aireztapenari dagokionez, Lope de Val enparantzako terrazaren gainean zeuden eskola zaharrak askoz hobek ziren.

Izan dudana eskolarik onena Eskola-Multzo berria izan zen. Beste guztia denek dakigu, nire lankide kutunek eta nik.

Andosilla, 2000ko martxoaren 20a.



Andosillako maisu-maistrentzako etxebizitzak. Egun eraitsita daude. José Miguel "Puskasek" utzitako argazkiak.



Andosillan, irakaskuntza pribatua Kaputxino Tertiario ahizpen esku zegoen. Herrian 1940tik 1970era arte egon ziren. José Miguel "Puskasek" utzitako argazkia.





Emilio Catalán Arguedaseko Juan José Gárriz eta Javier Pastor bere lankideekin. Hirurek "San José de Calasanz" Eskola-Mutualitatean lagundu zuten. Emilio Catalánek utzitako argazkia.

EMILIO CATALÁN ESCRIBANO (1925-2014)

Jarraian 2007an Emilio Catalán Escribanok Corellan sinatutako testua transkribatzen da.

953ko irailean, Fiteron maisu plaza hutsik zegoela jakitean, alkatearekin eta udalbatzarekin harremanetan jarri nintzen nire zerbitzuak eskaintzeko. Zinegotzi batzuek esan zidaten postu hori betetzeko beste izangai bat zegoela. Azkenean, zortea izan nuen eta udalak nire alde bozkatu eta Eskola Nazionaltako maisua ni izateko izendapen-proposamena Hezkuntzako Batzorde Nagusiari helarazi zion.

Fiteron igaro nituen hiru ikasturteak ahaztezinak izan ziren, bai alde profesionaltik zein pertsonaletik. Pertsonalki bolada txarra pasatzen ari nintzen nire ama paraplejiko geratu zelako eta bere zaintzen gainean egon behar nintzelako. Lankideek, nire egoera txarraren jakitun, une oro lagundu ninduten eta erraztasun guztiak eman zizkidaten. Profesionalki, nik amestutako horretan lan egin nuen, maisu gisa alegia.

Eskola-Multzora lehen aldiz joan nintzenean On Manuelek betetzen zuen plaza eskaini zidaten. Maisu horrek ospe handia zuen herrian bere profesional-

1954ko abenduaren 22an, Carlos Arias Navarro Nafarroako Gobernadore Zibilak Fiteroko maisu-maistrei herrian haiantzako eraikitako zortzi etxebizitzan giltzak eman zizkien. Pribilegio hori izan zuten maisuak eta maistrak ondorengo hauek izan ziren: Gabino Galán, Gregorio Calleja, Miguel Peñafiel, Emilio Catalán, Constanca, Avelina Pérez eta Carmen Larrea. Argazkian Emilio Catalán (bizkarrez) Gobernadorearen eskuetatik giltza jasotzen ikus dezakegu. Gobernadorearen ondoan Julio Asiain Corellako alkatea, gotzaina eta herriko seme kutun zen García Lahiguesea doktorea ikus ditzakegu.



tasunarengatik eta oroitzapen sakona utzi zuen bere ikasleengan. Bere ikasgela material teknologiko eta pedagogikoekin ongi hornituta zegoen. Eta garai horretan ez zen ohikoa horrelako inbentario aberats eta anitza izatea.

Ikasgelako material teknologikoak probestu nituen nire ikasleak motibatzekeo estrategia gisa. Pelikula motzak eta filminak prestatu eta proiektatzen nizkien. Gaiak askotarikoak ziren: santuen bizitzak, artearen historia, natura zientzien historia... Jarduera horrek beste ikasgeletako interesa piztu zuen eta lankideek zentroko ikasle guztientzako filminak proiektatzea proposatu zidaten. Ondoren, landutako gaien inguruko lanak egiten genituen.

Gehien gogoratzen dudana bizipen bat 1954ko Andre Mariaren Urtearen ospakizuna izan zen. Jubileua irabazteko, nire lankideei Corellako Villarreko Ama Birjinaren santutegira erromeria egitea proposatu nien. Proposamena gogoz onartu zuten eta ekitaldi guztien arduradun izendatu ninduten.

Nire familiak nekazaritzarako erabiltzen zuen traktorean Corellatik Fiterora joan nintzen eta herriko sarreran nire ikasleak zain nituen euren ogitartekoekin. Lau maisuok traktorea apaindu genuen eta atoian bankuak jarri genituen ikasleak eser zitezten. Santutegira joan aurretik, herritik bira bat eman genuen eta alkatea buru genuela, gure helmugarantz abiatu ginen.

Santutegira iristean monjeak eta nobizioak zain genituen. Erromeria osoan zehar gurekin egon ziren. Hasteko, elizara joan ginen meza entzuteko eta ostean, ikasleak zelaigunera atera ziren, nobizioek hainbat jolas antolatu baitzituzten haiantzat.



Nafarroako maisu-maistrek eta ikuskariek Lurdesera egindako erromesaldia. Argazkian Canfranceko tren geltokia ikus dezakegu. Emilio Catalánek utzitako argazkia.

Oso gogoan dudan beste ekitaldi bat Maisu-Maistren Etxeen giltzen ematea da. 1954ko abenduaren 22an Carlos Arias Navarro Nafarroako Gobernadore Zibilak eta tokiko zenbait agintarik aipaturiko eraikina inauguratu zuten. Maisu eta maistra guztiak pozez zorutzen geunden etxebizitza izango genuelako.

1956an, Corellan egon nintzen epe labur batean, eta nire herrian lan egiteko aukera izan zuen, baita “José Luis de Arrese” Eskola-Multzoaren inaugurazioa ikusteko ere. Ondoren, Iruñeko “Federico Mayo” Eskola-Multzora joan nintzen eta eskola-atzerapena eta adimen atzerapena zuten 12 ikasleko taldea esleitu zidaten.

Ikasturte horretan zehar (1957-58), oposaketak prestatu nituen Kuria kalean zegoen Ábrego akademian eta Ikuskaritzak aukeratu ninduen Lurdesko santutegira erromesaldia egiteko. Txangoa Ikuskarrien Kofradiak antolatu zuen Ama birjinaren agerraldiaren I. mendeurrena ospatze aldera. Lurdesera ikuskarriak eta maisu-maistrak joan ginen.

Hurrengo ikasturtean, oposaketak gainditu ostean, Administrazio Saileko buru zen Janín jaunak eta Manuel Laguna ikuskari nagusiak Iruñera joateko behin eta berriz eskatu zidaten, baina nire familia-betebeharrek nire herritik gertu zegoen plaza hartzera bultzatu ninduten. Hori dela eta, 1958ko irailaren 1ean Tuterako “Castel Ruiz” Eskola Nazionalaletako behin-behineko ardura hartu nuen.

“Castel Ruiz” Eskola Nazionaletako ikasgela. 1945.



Espainiako Eskola-Estatistikaren arabera, 1908an Arguedasen 143 ikasle zeuden, bi eskola-unitatetan banatuta: neskena eta mutilena. Argazkian ikusten dugun eskuinaldeko lehenengo eraikinean Arguedaseko Udal Eskolak ikus ditzakegu, xx. mendearen hasieran eraiki zirenak. Horietan Pedro Lino Munárriz maisu ospetsua lanean egon zen. Eskola horietan ere, 1903an, doakoa zen gaueko udal eskola abiarazi zen. Ondoren, Caja Ruraleko lokaletan eskolak eta maisu-maistrentzako etxebizitzak eraikitzen hasi ziren, 1928ko proiektuari jarraiki. Argazkiaren atzeko aldean ikus daitezke. Eskola horiek 1987ra arte egon ziren irekita, “Sancho Ramírez” Ikastetxe Publikoa ireki zen arte. Francisco Gonzálezek utzitako argazkia.



Arguedaseko irakaskuntza pribatua Gurutzearen Alaben esku zegoen (1923-1973). Haur hezkuntzaren eta nesken lehen hezkuntzaren ardura izan zuten. Francisco Gonzálezek utzitako argazkia.

Hurrengo eskola Arguedasekoa izan zen eta bertan hiru ikasturte igaro nituen. Niretzako garai horretako ekitaldirik gogoangarrienak ondorengo hauek dira:

- *Yugoko Ama birjinaren ermitara maisuok eta ikasleek egindako **erromeriak**. Alde ludikoak zein erlijiosoak lantzen genituen.*
- ***Gabonen prestaketa**. Gurasoek, ikasleek eta maisu-maistrek parte hartu zuten. Gabonetako irudien antzezpenak antolatu genituen. Eskulanetan 40 eltzagor prestatu genituen Gabonak girotzeko. Ikasle batzuk oraindik ere gogoratzen dute.*
- *Maisuok urte horietan pairatzen ari ginen gabezia ekonomikoa arintze aldera, batxilergoa ikasten ari ziren ikasleentzako **akademia** bat sortu genuen. Nire lankideak Juan José Garriz Ayestarán eta Javier Pastor Pejenaute izan ziren. Mojen ikasleak ziren neskei klase partikularrak ematera maistrak ere joaten ziren.*

Txandatze-koadernoaren lanketan izan nuen parte-hartzea Administrazioak nire irakasle lanari egin zion aitortpen gisa gogoratzen dut. Koadernoan ikasle guztiek parte hartu zuten eta horretan urteko oroipen aberkoi eta erlijioso garrantzitsuenak islatu genituen. 1966an “Delegación Nacional de Juventudes” delakoak sari bat eman zigun. Saria Ohorezko Diploma bat eta diru kantitate bat izan zen.

Emilio Catalánek, Corellako maisua, "Frente de Juventudes" delakoaren eskutik Ohorezko Diploma jaso zuen bere ikasleek egindako *Txandatze-Koadernoarekin* egindako lan onarengatik. Félix Armendáriz bere lankide eta multzoko zuzendariari Luis Sobrado sari nazionala eman zioten. 3.000 pezeta eskudirutan izan zen saria. Emilio Catalánek utzitako argazkia.



1970eko Hezkuntzako Legea argitaratzean eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) ezartzean, maisuok espezialitatetan birziklatu behar izan¹⁵⁶ ginen: Juan Jiménez Catalán natura zientzietan, Pablo Delgado eta José Luis Romano matematiketan, Julio Mateo hizkuntzan eta ni gizarte zientzietan. Ikastaroak unibertsitateak antolatzen zituen Hezkuntzako Zientzien Institutuaren bitartez eta 400 ordukoak ziren.

Nafarroako geografia eta historia nire gairik kuttunenetariko bat izan da eta hainbat lan egin ditut horren inguruan. Bereziki aipatu nahiko nuke Nafarroako Kultura Eskola-Zentroetan gehitzeko Batzordean egin nuen lana. Batzordea kazetaria, maisua eta laguna zen Jesús Tanco Lergak koordinatzen zuen.

Niretzat, irakaskuntza benetako bokazioa izan da eta poztasun handiz esan dezaket zerbait erein dudala. Izan ere, hainbat urte eta gero, jada helduak diren ikasle ohiekin topo egiten dudanean, jasotako irakaskuntza baloratzen dute eta euren maisua izan izana eskertzen dute.

Ez nuke nire eskola-bizipenen azalpen hau bukatu nahi nire lankideei oroitzen sentikorra eskaini gabe, bereziki Martín Omeñaca Ruizi, aholkulari, maisu, lankide eta lagun onari.

156. On Emiliok aipatzen duen birziklapena zazpigarren eta zortzigarren mailako ikastaroak dira. 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorrak sortutako espezialitateak emateko maisu-maistrentzako gaikuntza ikastaroak izan ziren. 400 orduko ikastaroak izan ziren.



Pascual Madozen *Hiztegiaren* arabera, 1847an, bi eskola zeuden Corellan. Mutilenak 250 ikasle zituen eta maisuak 6.000 erreal eta laguntzaileak 1.500 jasotzen zituen. Nesken eskolan 120 ikasle zeuden. Maistrak urtean 1.620 erreal jasotzen zituen, gehi hilerro neska bakoitzak ematen zizkion bi erreal. *Espainiako Eskola-Estatistikaren* arabera, 1908an 690 ikasle zeuden Corellan, lau eskola-unitatetan banatua: mutilentzako bi eta neskentzako beste bi. Argazkian, 1956an eraiki zen Corellako Eskola-Multzoa ikus dezakegu.

Eskuinetara, Corellako maisu-maistren etxebizitzak. 1956.



Corellako Eskola-Multzoan Emilio Catalanen esku egon zen lehenengo promozioa (1956). Jesús Melladok utzitako argazkia.

Corellako "José Luis de Arrese"
Eskola-Multzoan 1962-63
ikasturtean Emilio Catalanekin lan
egin zuten maisuak. Ezkerretik
eskuinera: Isidoro López, Fermín
Arteaga, Julián Sanz, Félix
Armendáriz (director), Federico
Catalán, Emilio Catalán eta Martín
Omeñaca. Emilio Catalánek utzitako
argazkia.



Emilio Catalánek ikasleei
eman zien azkeneko
klasea, 1982an. Emilio
Catalánek utzitako
argazkia.



1982ko azaroaren 28an eman nuen nire azkeneko klasea. Gaixotasuna dela eta baja hartu nuen, 1986ko abenduaren 31n ezintasun fisikoarengatik erretiratu nintzen arte.

Corella, 2007ko otsailaren 3a.
Sinatuta: Emilio Catalán





Emilio Cataláni omenaldia. Emilio Cataláneek utzitako argazkia.



Ama Mertzadariak 1937an iritsi ziren Corellara, baina ikastetxea bera (Lehen Hezkuntza eta Batxilergoa), 1941eko uztailaren 17an hasi zen. 1942an, neska zein mutilendako Haur Hezkuntza ere erantsi zioten beren eskaintzari (haurtzaindegia). 1961ean ikastetxe berria eraiki zuten. Ikastetxea eta Nobiziatua 1975ean itxi zituzten. Jesús Melladok k utzitako argazkia, 50. urteen erdialdean.

Corellan ere irakaskuntza pribatuko eskaintza zegoen: Aita Konbonianoak mutilentzat eta Karitatearen Alabak eta Mesedetako Amak neskentzat.

Ana María Ortega “Gayarre”
Eskola-Multzoko ikaslea. 1944.



ANA MARÍA ORTEGA ÁLAVA

Jarraian, 2008an Ana María Ortega Tuteran sinatutako testua transkribatzen da.

Ziurrenik familia tradizioak eragina izan zuen irakaskuntzan jarduteko hartutako erabakian. María nire ama, Conrado nire aita eta Adela nire izenak maisu-maistrak izan ziren Tuteran.

Hori dela eta, nire eskola-ibileren berri emango dut nire gurasoekiko aitortza gisa eta, batez ere, haur eskolako nire lankideekiko.

Ilusio handiz hasi nuen nire ibilera profesionala oposaketak gainditu ostean. Nire lehenengo eskola, behin-behineko arduradun gisa, Corellako haur eskola izan zen, 1958an. Hortik Girgillaoko eskola mistoko behin betiko arduradun izatera pasa nintzen eta bertan hiru ikasturte igaro nituen. Bitartean, haur eskolarako oposaketak egin nituen eta Añorben epe motz batez egon ostean, Tuterako Lurdes auzoan zegoen “San Francisco” Patronatuko Ikastetxera lekualdatzea eskatu nuen.

Bi urte beranduago, 1964an, oposaketak egin eta plaza lortu nuen “Elvira España” Ikastetxera atxikita zegoen “Gayarre” haur eskolan. Urte batzuetan zehar nire amaren eta Adela Ortega nire izebaren lankidea izan nintzen..



Tuterako Gayarre kaleko Eskola-Multzoa 1926an abiarazi zen. 1940tik aurrera “Elvira España” izena jaso zuen, zentroko maistra eta zuzendari ohiaren omenez.



Argazkian, On Conrado Ana María Ortegaren aita eta “Castel Ruizeko” maisua Jesús bere semearekin ikus dezakegu.

Ondoren, “Gayarre” Ikastetxea eraitsi zuten, “Moneo” pabilioa eraiki eta ikastetxe osoak “Elvira España”¹⁵⁷ izena jaso zuen. Bertan erretiratu arte egon nintzen, 1995era artea alegia.

Lanean hasi eta erretiratu nintzen arte, hezkuntza asko aldatu zen, batez ere haur eskolako hezkuntzari dagokionez.

Urte askotan zehar, formakuntza erlijiosoak lehentasunezko lekua izan zuen eskola-jardueretan. Kristau-ikasbidea buruz ikasten zuten ikasleek, Aita Gurea, Agur Maria eta garaiko umeentzako otoitzak errezatzen zituzten. Eskola-eguna hastean eta amaitzean otoitz egiten zen. Eskola-Almanakak ezartzen zituen jai erlijiosoetatik, bereziki gogoratzen ditut Domunderako eta “Santa Infanciarako” egunak, eta horretarako erabiltzen ziren “chinitoen eta negritoen” itsulapikoak. Eta baita Gabonetarako prestakuntza ere. Garai horretarako, sakrifizio txikiei eta opariei esker, Jesus Haurrarentzako sehaska sinboliko bat prestatzen genuen. Maistra gisa igaro nituen azken urteetan, erlijioa hautazko irakasgai izatera pasa zen eta erlijioa maistrak ematen zuen.

157. Elvira España Ortiz de Lanzagorta Logroñon jaio zen 1879an. Logroñoko Eskola Normaleko Lehen Hezkuntzako Maistra titulua 1896an lortu zuen. Bere bizitza profesionalaren zatirik handiena Tuteran pasa zuen eta bertan egon zen erretiratu zen arte. Hainbat sari eta Eskertza Boz jaso zituen bere gaitasun eta ardura profesionalagatik. Tuterako Eskola Nazionalak maistra 40 urtez izan zen. 1940an, erretiratu zenean, Irakaskuntzako Zuzendaritza Nagusiak, Tuterako Udalak eskatuta, Eskola-Multzoari bere izena jartzea onartu zuen.



Tuterako “Elvira España” Eskola-Multzoa eraikin funtzionala eta modernoa da, 1970ean eraiki zena Tuterako Rafael Moneo arkitektoaren proiektuaren arabera. Agintariek interes orokorreko eraikintzat hartu dute.



“Elvira España” Eskola-Multzoko gela baten barnealdea.

Irakurketaren eta idazketaren ikasketa aldi berekoa zen. Txartelak, arbelak eta arbel-ziriak, marra bikoitzeko koadernoak eta “Parvulito” liburuak garai horretako materialik adierazgarrienak izan ziren. Ondoren, irakurtzen eta idazten irakasteko material berriak atera zituzten, esaterako: “Sistema Onomatopéyico de la enseñanza simultánea de la lectura y escritura”, “Colasín lee y escribe”, “Micho”, Palauren “Método Foto-silábico”, “Amiguitos de Arias”, Rubio Koadernoak...



“Ntra. Sra. de Lourdes” Ikastetxea
 “San Francisco Javier” Guraso
 Elkarreak sortu zuen Lurdeseko
 auzoan. 1961ean abiarazi zien.
 Ofizialki “San Francisco Javier”
 Patronatuko Ikastetxea zuen
 izena, Lehen Hezkuntzako Eskola
 Kontseiluaren menpe zegoena.
 Argazkian, Ana María Ortega ikus
 dezakegu, Lurdes Ikastetxeko haur
 eskolako maistra.

70eko hamarkadako berritze pedagogikoaren mugimenduak agertzean, irakurtzen ikasteko irakaskuntza-metodo berriak agertu ziren. Nire ustez, metodo horiek ikasleen irakurketa-maila jaitsi zuten. Txartel silabikoetatik Lamela metodoa erabiltzera pasa ginen eta, aurrerago, ipuinetan oinarritutako irakurketa-metodoak erabiltzen hasi ginen, pertsonaia bakoitza letra bat zelarik. Hainbat fitxa prestatzen genituen eta horiekin neskek motrizitate fina lantzen zuten. Horretarako, urratzen, zulatzen, mozten, margotzen... ikasi behar zuten.

Zenbakiak eta matematika eragiketa errazak ikasteko Cousineten erregeletak, abakoak eta bestelako materialak erabiltzen genituen. Beste irakasgaien irakaskuntzarako unitate didaktiko baten inguruan jarduerak biltzen saiatzen nintzen. Interesguneak eta txokoak jarduera batzuetarako erabiltzen nituen.

Urte askotan zehar irakasleok prestatzen genituen fitxak asko balioesten ziren. Multikopistarekin lana erraztu zen.

Teknologia berriak iristean, magnetofonoak erabiltzen hasi ginen ariketa erritmikoak egiteko, kaskabiloekin, krotaloekin eta beste tresnez lagunduta. Gardenkiak, filminak eta, aurrerago, bideoa, irakasleok oso gustukoak genituen materialak ziren ikasleengan interesa eta motibazioa pizten zutelako.

Ni kontra egon arren, nire lankideek omenaldi hunkigarria egin zidaten 1995eko ekainean erretiratu nintzenean. Une horietan, nire aita hainbeste urtez maisu gisa aritu zen ikasgela berean irakasten nentzen. Ikasleek zein gurasoek hainbat opari eman zizkidaten, eta horien artean bereziki maite dute ekitaldia eta nire anaiak (Tuterako jesuita) eman zuen hitzaldia grabatuta dagoen bideoa. Nire anaia Elvira Españaren seme besoetakoa izan zen eta baita eskola-multzo honetako ikasle ohia ere. Bere irudia, eta nire lankideena, poliki-poliki desagertzen ari direnak, beti bizirik egongo dira grabazio horretan.


Tutera, 2008ko irailaren 25a.

Sinatuta: Ana M^a Ortega



Corpus Monreal Miramón, Tuterako "Castel Ruiz" Udal Eskoletako maistra, joste-lanak erakusten ari diren bere ikasleekin batera. 1920. Dolores Sanzek utzitako argazkia.

Tuteran ere bazegoen irakaskuntza pribatua. Ondorengo hauen esku egon zen: Jesuitak (1600), Anai Klaretarrak (1925-1963), Ahizpa Bizkaitarren Ikastetxea (1920-1939), “Lestonnac” Ikastetxea (1947-74), Mariaren Konpainia (1859), “Dominicas de la Anunciata” Ikastetxea (1957), Aita Kaputxinoak (1932-1968), “San Felipe Neri del Carmen” Ikastetxea eta Mariaren Mirabeak.



Tuterako egungo Jesuiten Ikastetxea 1891-92 ikasturtean abiarazi zen. Bigarren Errepublika iritsi zenean, Jesuitak desegin ziren eta euren jabetzak konfiskatu zituzten. Tuteratik 1932ko otsailaren 2an atera ziren eta 1936ko abuztuaren 28an itzuli. Kanpoan egon ziren bitartean, Tuterako Udalak Bigarren Hezkuntzako Institutua ezarri zuen eraikinean. 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorra argitaratzean, irakaskuntza mistoarekin hasi ziren. Tuterako Jesuiten argazkia, Luis María Marín Royok utzitako argazkia. 1947.



Aita Klaretarrak Tuteran 1925-1963 artean egon ziren. Euren eskolak San Adriango Markesen jauregian ematen zituzten. Luis María Marín Royok utzitako argazkia.

Lestonnac izena "Santa Juana de Lestonnac" izenetik dator, 1607an Mariaren Konpainiaren sortu zuena. 1947tik 1974ra arte Tuterako "Lestonnac" Ikastetxea, Mariaren Konpainiak, bi Ikastetxe zituen: Lestonnacekoa eta eurena.

Lehenengo ikastetxean ikasle mistoak zituzten. Noski, ikasgela ezberdinetan ikasten zuten. Jantokian ere, neskek eta mutilek bereizita bazkaltzen zuten. Tuterako "Lestonnac" Ikastetxeko mutilen ikasgela (1950).



Mariaren Konpainia 1687an iritsi zen Tuterara eta Francisco Garcesen donazioari esker eraikitako ikastetxean ezarri ziren. 1859an konpainiak San Juan enparantzan dagoen ikastetxe ohia eraiki zuen, argazkian ikus dezakeguna. Luis María Marín Royok utzitako argazkia.





Argazkian doña Ana Maria maistra eta bere ikasleak ikusten ditugu, Burlatako "Hilarión Eslava" ikastetxe publikoakoak, Eguberriko jaialdia prestatzen ari, 1984-85.

ANA MARÍA ZANDIO JUANSARÁS

Jarraian 2008an Ana María Zandiok Burlatan sinatu zuen testua transkribatzen da.

Oraindik ere ez dakit nola onartu dudan liburu honetan agertzea. Baina, hemen nago, eta esango dizuet irakasle gisa izan dudan bizitzak ez duela deus berezirik izan. Baina ni oso zoriontsu egin nau. Beraz, testu hau Valentina Unzuren omenez idatziko dut, nire jaioterriko, Esaingo, maistra izan zena eta bere urratsak jarraitzera bultzatu ninduen.

1958ko urtarrilean Barañaingo eskola mistoko bitarteko maistra gisa lanean hasi nintzen. Ikasgela ez zen inondik inora Amparo Torok "irudikatzen" zizkigun gela horiek bezalakoa, baina bertan zeuden 20 ikasleak lan egiteko eta ikasteko gogotsu zeuden.

Urte horretako urrian Uxueko mutilen eskolako 1. saileko behin-behineko ardura hartu nune eta hurrengo urtean behin betiko maistra gisa. Eskola-multzooan bost ikasgela zeuden: haurren bat, nesken bi eta mutilen beste bi. Nire ikasgelara zazpi, zortzi eta bederatzi urteko neskak etortzen ziren. Pozez esan dezaket ikasle horietako bat, M^a Esther Leza, egun Uxueko maistra dela.



XIX. mendearen hasieratik eta 1934ra arte, Uxuen Lehen Hizkien bi eskola zeuden, askotan 60 ikasleko ratioa gainditzen zituztenak. Analfabetismoa eta ikasleen pilaketa saihesteko, Errepublikako agintariek egungo "Carlos II" Ikastetxe Publikoa eraiki zuten 1934an. Bost ikasgela zituen, jolastokia eta maisu-maistrentzako bost etxebizitza. 1965/66 ikasturtetik aurrera, ikastetxea eskola misto bilakatu zen. Lehenengo argazkian Carmen maistra ikus dezakegu, 1962an. Bigarrenean Fermín Ugalde maisua bere ikasleekin, 1962an. Esther Lezak utzitako argazkiak.

1961ean Esaingo eskola mistora joan nintzen lanera. 1947an inauguratutako eraikin polita zen.

Ikasgelak leiho handiak zituen eta ongi hornituta zegoen. Material asko zuen eta irakurketarako liburu asko zeuden. Gogoratzen ditudan liburuen artean ondorengo hauek daude: "Viajes por España" eta "Cartas para niñas", Federico Torresenak; "Palabras y pensamientos", Serrano de Harorena, eta "Cien figuras españolas", Antonio Onievarena.

Adin guztietako ikasleak bertaratzen ziren eskolara, baina ikasle gutxi ziren. Hori dela eta, Ikuskaritzatik jakinarazi zidaten eskola berehala itxiko zutela. 1979an itxi zuten eta ikasleak eta maistra Atarrabiako eskola-multzora joan ziren.

Uxueko zein Esaingo eskola-bizitzaren alderdi batzuk azalduko ditut errepikakorra ez izateko.

Álvarez entziklopediarekin lan egiten genuen, hiru maila barne jasotzen zituena eta oso material baliagarria zena. Egunaren zati bat matematikari eta hizkuntzari eskaintzen genion. Egun horretan landutako gaia koaderno garbian idazten zuten ikasleek, eta beti horri marrazki batekin egiten zioten erreferentzia, Aurora Medina ikuskariaren jarraibideek esaten zuten bezala. Lanik onena "Txandatzeko-Koadernora" pasatzen zen.



XIX. mendean, Etsainen (Anue), ez zegoen eskolarik eta umeak Egozkueko eskolara joaten ziren ikastera. 1908an, herrian bi sexuetako 22 ikasle zeuden. Udalak etxe partikular bat eskola gisa egokitu zuen, ezkerraldeko argazkian ikus dezakeguna. 1947an, eskola berria inauguratu zen, eskuinaldeko argazkian ikus dezakeguna.

Erlijiotasuna oso agerikoa zen ikasgelako giroan: sarrerako otoitza, Angelusa eguerdian, Ama birjinari loreak maiatzean, elizan egiten zen Via Crucisa-garizumako ostiralean-. Apaizek kristau-ikasbidea irakasten zuten. Nire ikasgelan beti egon zen gurutzea eta Sortzez Garbiaren irudia. Baziren ere “chinito” deiturikoak, aurrezki txikiekin ilusioz betetzen genituenak ondoren misioetara bidaltzeko.

Urtero “Sección Femenina del Frente de Juventudes” delakora Espiritu Nazionalaren Formakuntzarekin lotutako gaiak nola garatu nituen azaltzen zuen koaderno bidaltzen nuen. Txosten hori, ondoren, itzuli egiten zidaten. Eta “Sección Femenina del Frente de Juventudes” delakoari buruz ari garela, burura datorkit garai horretan irakasle-lanean jarduteko ikastaro bat egin behar zenuela Etxeko eta Gaztaroko Oinarrizko Irakasle izateko titulua lortzeko. Neskok ikastaroa Leitzan edo Beran egiten genuen eta Montejurran edo Espinosa de los Monterosen.

Astegunak dezente aldatu dira. Hasieran ostegun arratsaldeak genituen libre eta ondoren larunbat arratsaldeak. Aurrerago, asteazken arratsaldetara pasa zen, gaur egun egiten den bezala.

Joste-lanek arratsaldearen zatirik handiena betetzen zuten. Garai horretan lantzen ziren eredu guztiak irakasten nizekien: gurutze-puntutik jantzigintzako

teknika batzuetara. Neska bakoitzak brodatzeko bere euskarria ekartzen zuen eta batzuek euren nezeserra.

Hilero edo hiruhilekoan behin (ez dut gogoan) ikasgela garbitzen genuen. Neskek euren ikasmahaiak distiratsu uzteko gogor lan egiten zuten. Lixak erabiltzen zituzten egurrean tintaz blaitutako orbanak kentzeko.

Hezkuntza Ministerioak eskolarako materiala ematen zigun urtero eta kontabilitate-koadernoan gastu guztiak idazten genituen, fakturekin frogatuz. Fakturak Ikuskaritzaren bisitan berrikusten ziren. Ematen ziguten materiala urria zenez, Udalak edo Kontzejuak gabezia hori betetzen zuen aurrez eskatzen genien materiala emanaz. Eskolaz aldatzen zinen bakoitzean inbentarioa goitik behera egin behar zenuen.

Ikasgelan ikasleek pizten zuten estufa bat zegoen, eta bizilagunek auzolanean prestatzen zuten egurrari esker funtzionatzen zuena.

1969an Burlatako “Hilarión Eslava” Ikastetxean hasi nintzen lanean. Garai horretan 20 maisu-maistra zeuden ikastetxean. Berehala, Hezkuntzako planei jarraiki, musikako eta heziketa fisikoko irakasle espezialistak etorri ziren, eta aurrerago Inglesekoak, Erljiokoak eta Logopediakoak.

Lehenengo bi ikasturteetan OHOk 1. mailako ikasleak izan nituen, berrogei baino gehiago. Aurrerago, 3. mailara pasa ninduten eta, ondoren, hezkuntza berrantolatu zenean, erdi mailara.

Irakasleen klaustroa nahiko maiz biltzen zen, ikasle kopurua handia zenez, eraikin ezberdinetan geundelako. San Juan Bautista kaleko lokal batean hasi nintzen klaseak ematen, ondoren aurrefabrikatutako ikasgeletan eta, azkenik, “Hilarión Eslava” Ikastetxean, Askatasuna Ikastetxea euskarazko zentro bilakatu zelako (eta horrek asko tristutu gintuen).

Aldaketa sakonen urteak izan ziren. Entziklopediak testuliburuengatik ordezkatu ziren eta irakasgai bakoitzak berea zuen. Hasieran, testuekin batera lan-fitxak etortzen ziren, zuzenketa oztopatuz, eta, gainera, ez zuten liburua berriro erabiltzeko aukera ematen.

Apymaren sorrera azpimarratu nahi nuke. Hasieran gurasoen eta irakasleen arteko harremanak tirabiratsuak ziren. Denok ohitu behar genuen egoera horretara eta bi aldeen gogo onari esker, sintonia ezin hobea lortu genuen.

Irakasleen arteko talde lana nabarmendu nahi dut. Zentro osoak gogor lan egiten zuen Gabonak, Inauteriak eta ikasturte amaiera prestatzeko. Horri esker, jarduera alaiak eta dibertigarriak prestatzen genituen.

Ikasleekin genuen harreman pertsonala ere aldatu zen. “Usted” formula “tú” formulagatik ordezkatu zen eta horrek asko pozten ninduen, errespetua gutxitu gabe gertutasuna ematen zuelako.



Etsaineko Eskola Mistoko ikasgela, Ana María Zandio maistra gisa egon zen eskola. 1961.



1847an, Burlatak Lehen Hizkien Eskola Osagabe bat zuen, 800 erealez hornitua, zeinera 40 eskola ume joaten ziren. 1908an, oraindik bazuen neska-mutilendako eskola bat, San Juan Bautista kalean, zeinera 43 eskola ume joatzen iren. 1934an, eskola zentsoak 80 ikasle zituen, herriko bi eskolen artean banatuak: Mutilendako Eskola Elemental, don Fulgencio Sánchezek zuzendua, eta Neskendakoa, doña Dionisia Divassonek zuzendua.

Burlatako Eskola Nazional ohiak, Ermitako eskola gisa ezagunak zirenak, 1954ko urtarrilaren 12an inauguratu ziren. Zentroan sei unitate zeuden: mutilen bi, nesken beste bi eta haur eskolako bi. Burlatako Eskola Nazional ohien ikasgela baten barnealdea. 1955.



1974an, Burlatako Eskola Nazionalak erortzen ari ziren eta eraistea erabaki zuten. Eskola berriak eraikitzen ziren bitartean, Udalak 8 barrakoi jarri zituen, Eskola Prefabrikatu gisa ezagutzen zirenak. Irudian barrakoiak ikus ditzakegu.

Naturarekiko eta ingurumenarekiko kezka etengabekoa izan zen nire irakasle-lanean. Proposatutako helburuak lortze aldera, eskolaz kanpoko hainbat jarduera prestatzen ziren: erdi mailako ikasleek lantzen zuten baratza, udalerriko hainbat lekutan zuhaitzak landatzea edo Hondarriabiko udalekuetan parte hartzea. Azken jarduera horrek astebete iraun zuen, ikasleek oso ongi pasa zuten eta uste dut oroitza hori betiko gorde zutela.

Ez hain “espirituala” den zerbait aipatuz bukatuko dut: maisu-maistren soldata. Nire lehenengo urtean, ugazabandrea ordainduta eta bere eskuzabaltasunari esker, almendra batzuk erosten ahal nituen. 75eko grebaren ostean, soldata igoera garrantzitsua lortu genuen. Gutxinaka-gutxinaka, soldata duina lortzen joan ginen.

Hori dela eta, eta askoz gehiagorengatik, MILA ESKER jardun nuen Hezkuntza Komunitate guztiei.

Burlata, 2008ko ekainaren 1a.

Sinatuta: Ana María Zandio



Burlatan ere bazegoen irakaskuntza pribatua: “Amor de Dios” Ikastetxea (1951), “Regina Pacis” (1956) eta Notre Dameko erlijiosoak (1964) izan ziren zentrorik esanguratsuenak

1951eko otsailaren 28an, Burlatako “Amor de Dios” Ikastetxea abiarazi zen, Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren baimena lortu ostean. Argazkian neska-mutilak eta irakasleak ikus ditzakegu. Joaquín Ahechuk utzitako argazkia.





Esther Pagola bere Aldazko ikasleekin, 1965.

M^a ESTHER PAGOLA ACEDO

Jarraian, 2008an, María Esther Pagolak Burlatan sinatutako testua transkribatzen da.

Beti izan dut gustuko nire ogibidea; maistra izatea, alegia. Eta esan dezaket, nire bizitza profesionalean zehar, ikasleekin eta lankideekin batera, neska-mutilen ikasketan nola lagundu, egoera, adin, eremu ezberdinetan nola jardun... ikasi dudala. Irakaskuntza/ikasketa prozesuan garapen handia bizi eta ikusi dut.

Irakasle-laneko ikasketak bukatu nituenean, nire bizitzako etapa garrantzitsu bat hasten zela sentitu nuen. Baina, aldi berean, teoriatik errealitatera igarotzeko zailtasuna hauteman nuen: lehenengo aldiz eskola batera iristea eta pozez gainezka dauden pertsona (neska-mutil) pilarekin topo egitea, ikasteko gogoz daudenak, euren beldurrak dituztenak... Deskribaezina eta zoragarria da, eta zaila aldi berean, erantzukizun handia baitakar.

Nire lehenengo lana 1957an izan zen Ilurdetzoko (Nafarroa) "Sasoiko Eskolan". Sasoiko Eskolak azarotik apirila arte izaten ziren, eta Eskola Bateratua izateko aukerarik ez zuten herri txikietan Nafarroako Aldundiak sortu zituen.



XX. mendearen hasieratik, Puiuko eskolak oso sakabanatuta zeuden. Mutilen eskolak Elizan zeuden, atrioaren gainean, eta neskenak Vinculoko eraikinaren etxabeetan. 1954ko azaroan eskola-multzo berria eraiki zen. Bi unitate zituen: mutilena, neskena eta maisu-maistrentzako bi etxebizitza. Lehenengo argazkian Eskola Nazionalak ikus ditzakegu eta bigarrenean Eduardo Fernández Cabezón maisua bere ikasleekin. 1930. Jesús María Subiza Armendárizek utzitako argazkiak.

Esperientzia zoragarria izan zen. Herriko adin guztietako neskak eta mutilak etortzen ziren eskolara eta ikasle-kopurua txikia zen. Ni herriko etxeren batean bizi nintzen (urtero txandakatzen ziren maistrari ostatu emateko). Ni familia handi batekin bizi nintzen: bikotea, 8 seme-alaba, aitona... eta maistra. Gure arteko harremana oso ona izan zen. Amak lan handia zuen eta, maiz, klaseak eman ostean, etxeko haur txikiak zaintzen nituen. Lehenengo hilabetea amaitzean eta nire mantenuari zegokion kopurua ordaintzera nindoala, ez zidaten ezer kobratu nahi izan. Egun, oraindik ere, adiskidetasuna mantentzen dut familia horretako hainbat pertsonarekin.

Ondoren Puiura joan nintzen lanera bitarteko maistra gisa. Herrian mutilentzako maisu bat zegoen eta ni nesken maistra nintzen. Lehen Hezkuntzako 45 ikasle zeuden osotara. Eskolako eraikina berria zen eta maisu-maistrentzako etxebizitza bat zegoen. Tristeia egiten zitzaidan bakarrik bizitzea. Oso gaztea nintzen eta lehen ez zenuen etxetik hain gazte alde egiten. Orduan, nire adineko alabak zituen herriko andre batek bere etxera joatera gonbidatu ninduen. Beraz, familia abegitsu eta maitakor horrekin bizitzera joan nintzen. Eskolako lanari dagokionez, aldaketa handia egon zen. Hasteko, 45 ikasleak adin ezberdinekoak ziren eta horrek aldi berean talde ezberdinentzako lanak prestatzera behartzen ninduen. Gainera, ikasteko ohituretan eta ikasleen autonomian gogor lan egin behar nuen. Beste behin jabetu nintzen praktikak errealitatearen teoriak zenbat aberasten zuen.

Ikuskariaren bitaren oroitzapen ona dut. Ikasleei galderak egin zizkien, nire lanarengatik galdetu zidan... eta amaieran esan zidan: Baina, badakite zerbait abesten?. Eta nik, abestiak irakatsi nizkienez, koru bat bailiran zuzendu nituen

ikasleak (esan behar dut oso gustuko dudala abestea). Beraz, ikuskariak, bisitaren gora beherak idazteko koadernoan, ondorengo hau idatzi zuen amaieran: “gaitasun handiko eta aukera asko dituen maistra gaztea zara. Sakondu horretan”. Horrek indar eta segurtasun handia eman zidan. Beti iruditu zait funtsezkoa pertsonen gauza onak ikustea eta adieraztea eta hori oso kontuan izan dut nire ikasleekin: alderdi onak aitortu, egiten dituzten aurrerapenak... oinarritzak da, eta baita motibaziorako iturri ere.

Puiun bi ikasturte igaro nituen, oposaketak egin eta Aldatzeko (Larraun) eskolako ardua lortu bainuen. Han hiru ikasturtez egon nintzen. “Berezia” izan zela esan dezaket. Han denak ziren euskaldunak, baita apaiza ere. Maisua eta ni ginen euskaraz ez genekien bakarrak, baina nire ugazabandreak irakasten zidan. Euskara bere gogo guztiekin maite zuen emakume nagusia zen. Berarengandik ikasi nituen euskarazko lehenengo hitz horiek nire oinarria izan ziren urte batzuk beranduago euskara ikasten hasi nintzenean. Eta batez ere konturatu nintzen herri euskaldun batean euskaraz ez zekiten maisu-maistrak egotea zer nolako errespetu falta zen. Beste gauza askotan pentsatzen lagundu ninduen, baita garai horietan ere ...

Herrian ia inork ez zuen telebistarik, soilik herriko familia aberats batek eta euren etxera ez ziren umeak sartzen. Maisua eta biok familia horrekin harremana izaten hasi ginen eta hauxe onartu zuten: astean behin, herriko umeak euren etxera joango ziren gure ustez gelan lantzeko erabilgarria izango zen umeentzako telebista programa bat ikustera. Hori bat, ume bakoitzak zapatila pare bat eramaten zuen etxeko atarian jartzeko eta etxea ez zikintzeko. Oso interesgarria izan zen, familiarentzat zein eskolarentzat.

Hiru urte igaro ostean, eszedentzia eskatu eta Madrilera joan nintzen Filosofia eta Letrak ikastera. Han, itundutako eskola batean lana lortu nuen eta OHOk 2. mailako talde bat egokitu zitzaidan. Madrilen, hezkuntzarekiko eta ikerketarekiko ardua genuen maistra talde bat elkartu ginen. Aldi berean, gure ogibidearekin lotutako eskubide eta betebeharez jabetu ginen. Taldean egiten genuen lan eta bakoitzak bere irakasgaitik heltzen zion etaparen ikuspegia bateratzeko.

Aldi berean, Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboan parte hartu genuen, Freinet pedagogiaren barnean zegoena. Madrilen geunden hainbat irakasle biltzen ginen Freineten pedagogia eskolan lantzeko asmoz. Pedagogia hori ondorengo honetan oinarritzen zen: umea bere osotasunean kontuan hartzea, n adierazpen askean, lan kooperatiboan, gelako asanbladetan... Oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun lan kooperatiboa, horrek taldeko integrazioari, trukaketari, lankidetzari, komunikazioari... laguntzen ziolako. Lana aurrez adostutako kontratuan oinarritzen zen. Bakoitzak nahi bezala antolatzen zen ezarritako epean.

Gogoan dut metodologia hori abiarazi genuenean bakoitzak nahi zuena egiteko (ikasi, idatzi, marraztu, irakurri, etab.), lan libreari, arratsalde bat eskaintzen

geniola. Beti zer egin behar zuten esaten zien eskola zurrunari ohituta zeuden ikasle horiek ez zekiten zer egin hasieran eta esaten ziguten: “Beno, ba nik margotu edo marraztuko dut”, hori interesgarria izango ez balitz bezala. Poliki-poliki antolatzen eta ikasten joan ziren. Ikusi zuten jarduera guztiak garrantzitsuak zirela, adierazpen askea oso interesgarria zela eta lan-kontratuari erantzuteko betekizuna zutela.

Maistra gisa genuen paperan, ikasleak laguntzeaz eta gomendioak eta tresnak emateaz gain, segurtasun eta lankidetzaren harremana sortzen zen, gizakiaren garapenean hain garrantzitsua dena. Horrek aukera ematen zigun pertsona bakoitza ezagutzeko, eta ez soilik ikaslea. “Testu libreari” zegokionez, ikasle bakoitzak nahi zuena eta nahi zuen lekuan idazten zuen. Testu libre bat idazten zuen neskek klasearen aurrean azaltzen zuen eta interesgarriena iruditzen zitzaiena aukeratzen zuten. Testuaren inguruko galderak egiten ziren, adierazpenak hobetzen ziren, zuzenketak egiten ziren... eta azkenik, denek egindako ekarpenei esker testua aberastan zen.

Prozesu hori guztia oso interesgarria zen. Eta hizkuntz adierazpena, testu motak, ahozko adierazpena... lantzeaz gain, komunikazioan, autoestimuan, zentzu kritikoan, lan kooperatiboan... eragina zuen.

Eskola-inprenta martxan jarri genuen, testuak idazteko asko motibatzen zuen tresna. Eta eskola-egunkaria ere argitaratu genuen, bai eta Freineteko pedagogia lantzen zuten beste herri eta hirietako egunkari eta eskutitzen trukaketa ere. Trukatzen ziren testuak eta egunkariak oso interesgarriak ziren eta testuak idazteko, zuzentzeko, berridazteko... oso baliagarriak ziren, bai eta gure egunkariak egiteko ere. Ilusio handiz itxaroten genituen beste eskoletako egunkariak eta eskutitzak.

Astean behin eskolako asanblada egiten genuen. Bakoitzak alde onak eta txarrak azaldu eta horiek hobetzeko proposamenak egiten zituen. Horrela, izaera kritikoa eta eraikitzailea sustatzen zen, eta ez ginen soilik gertaeretan geratzen, baizik eta balizko irtenbideak proposatzen genituen.

Matematikei zegokionez, matematika bizia eta arrazoitua lantzen saiatzen ginen, interesgarriagoa egite aldera. Eta gauza bera adierazpen artistikoari zegokionez (ez naiz gehiago luzatuko).

Eskoletan pedagogia hori lantzen genuen maisuak eta maistrak aldizka biltzen ginen proiektuak, pedagogia teknikak... aurrera eramateko eta eskola bakoitzeko nondik norakoak azaltzeko eta berrikusteko. Irakurtzeko, ikasteko, formakuntza jasotzeko. Topaketa horiek oso aberasgarriak eta didaktikoak ziren, proiektu pedagogikoak egiteaz gain, taldean lan egiten ikasi genuelako.

Madriilen igaro nituen urte horietan lehenengo “Jokaera Zentroa” ireki zuten profesional talde batekin harremanetan jarri nintzen. Zentroa, garai horretan,



Herrizaintza Ministerioko Gizarte-Ongizate sailaren esku zegoen. Psikiatra bat, bi psikologo, gizarte laguntzaile bat eta ni, pedagogo gisa, ginen talde horretako partaideak. Eskola orduetatik kanpo familiar edo eskolan, besteekin zituzten harremanetan ... arazoren bat zuten umeak jasotzen genituen. Lana oso interesgarria zen, taldea oso arduratsua zen eta astean behin biltzen ginen ume bakoitzarekin, berarekin eta eskolarekin egin behar genuen lana prestatzeko eta emaitzak berrikusteko.

Ezgaitasunen bat zuten umeekin lan egitea hain interesgarria iruditu zitzaidanez, Pedagogia Terapeutikoa ikasi nuen, eskolan ere mota horretako lana egin ahal izateko.

1976an Valentziara joan nintzen eta bi ikasturtez eskola pribatu batean lan egin nuen. Eskola aldaketa ikaragarria izan zen: ia nerabeak ziren neskekin egotetik OHOk 1. mailako neskekin egotera pasa nintzen eta gainera 40 baino gehiago ziren. Baina esan behar dut lan zoragarria eta oso aberasgarria izan zela. Berriro ere, harremanetan jarri nintzen Freineten pedagogia jarraitzen zuten lankideekin. Garai horretan ikasi nuen txikitatik, haurren interesak baloratu behar direla, euren ekimenak kontuan hartu behar direla, horrek guztiak ikasketa sustatzen baitu. Idazketa-irakurmen metodoaren irakaskuntza Metodo Globalean oinarritzen zen, ikasleek irakurri eta idatzi nahi zutenetik abiatzen zena. Gauza bera matematikekin eta beste alorrekin. Oraingoan ere, eskola honetan, eta nire ikasleen mailara egokituta, inprenta, testu librea, sormena, egunkaria eta gutunen trukaketa, asteroko asanblada... landu nituen. Laguntza pixka batekin, sormena eta ikasteko gogoak euren adinarekin bat zetorren Irakaskuntza/Ikasketa prozesuarekin bikain bat zetozen. Gogoan du Valentziako Unibertsitateko Udako Eskolan, Freineteko pedagogikoa kideen taldekoek hitzaldi bat eman genuela: "Umeen sormena OHO hasterakoan" (ikasgelan bizitakoarekin eta ikertu nuenarekin material asko nuen).

Puiuko irakaskuntza pribatua Angleteko Mariaren Mirabeen haur eskolaren esku zegoen. 1944ko maiatzaren 1ean abiarazi zen eskola, On Modestoren komentuan. 1945eko martxoaren 2an, bi ikasgela zituen ikastetxea inauguratu zuten. Mutilen eta nesken ikasgela bana zeuden. Ikastetxea eraikitzeko lanak Blanca Perez andrearen herentziari eta Modesto Perez Aoiz bere ongileak egindako kudeaketei esker ordaindu ziren. Eraikinerako lursailak ere haiek lagatu zituzten. 1967an ikastetxea itxi zuten eta 1978ra arte haur eskola herriko andre baten ardurapean egon zen. Egun, eraikina erabilera anitzeko areto gisa erabiltzen da. Jesús María Subiza Armendarizek utzitako argazkiak.

1978an Nafarroara itzuli nintzen. Nire eszedentziarekin bukatu eta maistra-funtzionario gisa hasi nintzen lanean berriro. Hasieran Iberoko Hezkuntza Bereziko Isterria Zentroan hasi nintzen lanean. Bertan, praktikara eraman nuen pedagogia terapeutikoan ikasitakoa. Bi ikasturte oso interesgarri izan ziren, lana oso espezifikoa zen. Pertsona bakoitzari egokitutako laguntza pedagogikoa eskatzen zuen. Zentroko zuzendariak, astero, irakasleen formakuntzarako tresnak azaltzen zizkigun.

Ikasleen interesetatik abiatzea zaila egiten zitzaidan, baina beti dago pertsona bakoitzari motibatzen dion zerbait, ezgaitasunak izan arren. Ikasle gehienak Nafarroako herri ezberdinetatik etortzen zirenez, eta gehienek nekazaritzarekin harremana zuten, gazteen interesa piztu zuen eskola-baratza txikia sortu nuen (eta uste dut baratza hori oinarria izan zela ondoren beste irakasle batzuk sortu zituztenentzatt).

Adarrako kide ere izan nintzen, Euskal Herriko Berrikuntza Pedagogikorako Mugimendua.

Isterrian bi ikasturte igaro ostean, Antsoaingo Ezkaba Ikastetxe Publikora joan nintzen eta ia erretiratu arte han egon nintzen. Irakasle-laguntzailea izan nintzen eta nire lehenengo ikasturtean 8 eta 11 urte arteko ikasleekin egon nintzen. Horiek guztiek behar eta arazo ezberdinak zituzten eta ez zuten euren lekua topatzen ikasgelan. Ikasturtea gainditzen ez zutelako zapuztuta zeuden eta ez zuten besteek bezala ikasten. Hori dela eta, alde batera uzten zituen eskolaren aurka jarrera oldarkorra zuten batzuetan. Ikasturtean zehar nirekin egon ziren eskola-ordutegi osoan, Hezkuntza Bereziko ikasgelan. Lehenengo egunak ez ziren errazak izan, baina laster egoera aldatzen hasi zen nire lana haiek ulertzea eta ikasketa-prozesuan laguntzea zela ikusi zutenean. Ikasturtea oso interesgarria izan zen, eskola bizia eraman genuen aurrera, egoera eta teknika ezberdinak probestu genituen euren egoerara egokitutako ikasketa-prozesua sustatzeko eta antolatzeko. Baina gure artean oso gustura egon arren, ez zitzaidan egokia iruditzen beti beste klaseki-deengandik berezita egotea besterik gabe alderdiren batean laguntza berezia behar zutelako. Hori dela eta, laguntzaileak ginen bi irakasleok Hezkuntza Bereziaren inguruko ikuspuntu berria proposatu genion klaustroari. Poliki-poliki, tutoreen laguntzarekin, Hezkuntza Bereziaren kontzeptua aldatzen joan zen. Ikasle mota hori berezizat hartzeari utzi eta pertsona bakoitzaren beharrei egokitutako laguntza pedagogikoa doitu genuen. Laguntza hori denbora, leku, teknika eta laguntza ezberdinetan eman zitekeen, baina helburua ikasle horiek besteengandik ez bereiztea zen. Ondoren, ikasgelan bertan laguntza berezitua eskaintzen hasi ginen, beti ere tutorearen laguntzarekin eta posible zenean.

Zentro berezietako umeren batekin hezkuntza “normalizatzen” saiatu ginen baita ere. Ume horiek euren adineko ikasleekin igarotzen zuten egun erdia eta beste



1966an sortu zenetik, Hezkuntza Bereziko Isterria Zentroa Iberon egon da. Ezgaitasun intelektual ertaina eta sakona duten ikasleak jasotzen ditu. Caja Navarraren Fundazioak sortutako, kudeatutako eta finantzatutako zentroa da eta Nafarroako Gobernuo dirulaguntza jasotzen du. Nafarroan, ikasle mota horientzako hezkuntza-eskaintza Hezkuntza Bereziko Ziganda Ferrer Zentroak, el Molinok (1978), Hezkuntza Bereziko Errotazar Ikastetxe Publikoak (1965), biak Iruñean eta Tuterako Hezkuntza Bereziko Torre Monreal Ikastetxe Publikoak osatzen dute (1970). Isterria Ikastetxeak utzitako argazkia.

erdia nirekin edo Hezkuntza Bereziko irakasleren batekin eta tutorearekin. Lehen hezkuntzako ziklo horretan Hezkuntza Bereziko bi irakasleok aurrera eramane genuen beste esperientzietako bat maila horretako tutoreak izatera pasatzea izan zen. Horrela, denak ginen tutore eta 15 ikasle inguru baino ez genituen. Horrek lana taldean bideratzeko eta berrikusteko aukera eman zigun. Modu horretan, gure espezializazioa taldeari eskaintzen genion, Irakaskuntza/Ikasketa lantzen genuen, eta laguntza behar zuten ikasleak sailkatu ordez, ikasgelan bertan eman zien euren tutoreak beharrezko laguntza. Oso interesgarria izan zen, baina Administrazioaren aldetik babesik jaso ez genuenez, ezin izan genuen beste zikloetan gauza bera egin. Zentroko Hezkuntza Bereziko taldea, beste irakasle guztiekin batera, hezkuntza guztientzat bakarra dela onartzen joan ginen, denek dutela hezkuntzarako eskubi-dea (beharrezko laguntza jasoz) eta denak direla aurrera egiteko gai. Gure ekarpena: ezgaitasunen bat zuten neska-mutileen kompetentziak garatzen laguntzea, autonomia sozial eta pertsonala lortu arte. Eta horrela, aniztasunaren kontzeptu patologikotik urrunduz. Aitzitik, aniztasuna eskola aldatzeko balio positibo gisa hartzea. Laguntza pedagogikoa ikasgelaren barruan ematen zitzaie, tutorearekin eta ikaskideen, edo ikasgelatik kanpo, laguntzarako beharrak hala eskatzen bazuen.

80ko hamarkadako urte horietan Nafarroako Pedagogia Terapeutikoko irakasleak koordinatzen hasi ginen. Horrela, 1979-80 ikasturtean Nafarroako Hezkuntza Bereziko Lehenengo Jardunaldiak antolatu genituen (Iruñeko San Frantziskoko eskoletan). Oso garrantzitsuak izan ziren jardunaldiok, Hezkuntza Bereziko beste irakasleekin egoteaz gain, Nafarroako egoera zein zen ikusten eta lanean jarraitzen lagundu zigutelako.

Lankideen talde txiki batekin batera, Nafarroa osoko Hezkuntza Bereziko irakasleekin koordinatzen hasi ginen. Mintegiak antolatu genituen, arazoan bateratze-lanak egin genituen... Koordinazio hori sustatu genuen batzuk Madrilera bidali gintuzten behin baino gehiagotan. Hasieran Ikuskaritzak bidali gintuen eta ondoren Hezkuntza Bereziko koordinazioak. Berrikuntza Pedagogikoko Zuzendaritza Nagusiak antolatzen zituen Hezkuntza Integrazioko Mintegietara joan ginen, bai eta Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentro Nazionalera ere.

Madrilen lan eta formakuntza mintegietan biltzen ginen autonomia erkidego ezberdinetako ordezkariak. Bateratze-lana egiteaz gain, errealitate ezberdinen inguruan hausnartzen genuen eta Hezkuntzako Lege berrian lan egiten zuten adituen teoriak jasotzen genituen. Helburua hezkuntza sistema arruntean ezgaitasunen bat zuten neska-mutilentzako Integrazio Programa abiaraztea zen.

LOGSEaren oinarrian zegoen filosofia, bai eta Hezkuntza Bereziko ikuspegia ere, beharrak dituzten pertsonen hezkuntza sistemari zegokionez, biziki gustatu zitzaidan. Irakaskuntza/Ikasketa prozesuaren izaera eraikitzailea bat zetorren nik parte hartzen nuen Berrikuntza Pedagogikorako Mugimenduekin (Freinet, Adarra): ikasketa esanguratsua, ikasten ikastea, lan kooperatiboa, eduki mota ezberdinak, irakaslearen rola, motibazioa, autoestimua... Beraz, ikuspegi hori martxan jartzeari ekin nion Antsoaingo Ezkaba eskolan zein Nafarroa osoan. Maila zabal horretan, eskola ezberdinetako irakasleekin Integrazio Mintegiak, ikastaroak, eztabaidak... antolatzen genituen. Denbora, energia eta gogo guztia eskaintzen genuen Hezkuntza Bereziko ikuspuntu berri hori martxan jartzeko.

Horrela, Eskola-Integrazio Programa Nafarroako zentro guztietan txertatzeko lankidetzan aritu ginen. Helburua, ezgaitasunen bat zuten ikasleak hezkuntza sistema arruntean integratzea zen. Zentzu horretan, eskola-curriculum berria ezaugarrazteko dibulgazio-lanak egin genituen eta beharrezko teknika pedagogikoak eta baliabideak, curriculumaren egokitzapenak... eskaini genituen integrazioa zentro guztietan errealitate bilakatu zedin.

1989tik 1995era arte Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan Lehen Hezkuntzako Irakasle-Aholkulari postua izan nuen (zerbitzu-eginkizunetan etapa horretako irakasleak prestatzeko eta euren ezagutzak eguneratzeko). Gure curriculumaren eta formakuntza pertsonalaren osagarri gisa, aholkulari guztiok bi urtez jaso genuen Curriculum berriaren inguruko formakuntza. Bartzelonako Unibertsitatetik etorritako adituengandik jaso genuen formakuntza.

Esan behar dut irakasleen eguneratzean egindako lana ilusio eta gogo handiz egin nuela eta, aurretik aipatu dudan bezala, LOGSEaren oinarri den Irakaskuntza/Ikasketaren Ikuskera Eraikitzailea bat zetorren nik landutako Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduekin (Freinet, Adarra). Beraz, 6 urtez nire ahalegin, gogo, esperientzia eta eguneratutako formakuntza guztia eskaini nien irakasleei,

zentroetako klaustroei... Eskola-Curriculum berria aurkeztu nien, mintegiak antolatu genituen irakasleentzat, formakuntza-tailerrak... Zalantzarik gabe, gehien eman nuen eta gehien eskatu zuten mintegia “Aniztasunaren Heziketa” mintegia izan zen. Mintegian azaltzen nuen bezala, hezkuntza bakarra da ikasle guztientzat, euren beharretara egokitutako laguntza pedagogikoa behar du, baina aniztasuna, errealitatea izatez gain, hezkuntza komunitate guztiarentzat aberasgarria da.

Azkenik, nire irakasle-laneko azken ikasturtean “nire eskolara” itzuli nintzen, Antsoaingo Ezkaba Ikastetxe Publikora, alegia. Han 18 urtez egon nintzen lanean eta hezkuntza komunitate guztiarekin lotura profesionalak eta pertsonalak sortu nituen. Azken ikasturte horretan, ezgaitasun bereziren bat zutenentzako irakasle-laguntzailea izan nintzen eta euskarazko eskolak ere eman nituen A ereduko haur eskolan (esan behar dut irakasleentzako euskara-gaitasunerako birziklapena egin nuela).

1996an erretiratu nintzen eta Ezkabako Ikastetxe Publikoko hezkuntza komunitatearen eta Antsoaingo Udalaren esker ona jaso nuen. Bai eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Irakasleentzako eguneratze eta formakuntza urteak nirekin igaro zituzten lankideena ere. Erretiratu ostean Haur Eskolako eta Lehen Hezkuntzako Zentro Publiko bateko lan-proiektu bat zuzendu nuen. Klaustroarekin hilerok biltzen nintzen eta esan beharra daukat lan oso interesgarria egin zutela euren ikasleekin. Gainera, “Aniztasunerako Heziketa” ikastaroa eman nuen ikastola batean.

Horrela eman nuen bukatutzat nire irakasle-lana, beti oso gustuko izan dudana, ikasleekin zein lankideekin. Eta horren ostean, lasaiagoak diren jarduerak landu ditut: abesbatza, irakurketa, bidaiak....

Eta horrela nengoen, lasai-lasai, 2006an Lan Merituari Urrezko Domina jasotzeko proposatu nindutela esan zidaten arte. Domina Nafarroan Hezkuntza Sistema Arruntean ezgaitasunak zituzten ikasleen Integraziorako Programa abian jartzeagatik eman nahi zidaten. Nire lehenengo erantzuna izan zen egindako guztia oso gustura egin nuela eta nirekin batera beste lankide askok lan egin zutela. Baina azkenean, curriculumak bidali behar izan nuen Ministro-Kontseiluak domina ematea onar zedin. 2007ko urtarrilaren 17an, Jesús Caldera Laneko eta Gizarte Gaietako ministroak Lan Merituari Urrezko Domina eman zidan. Ezusteko handia izan zen eta, bestetik, gonbidapen kopurua oso mugatua zenez, esker on hori jasotzen egon beharko ziratekeen pertsona asko ezin izan ziren egon. Esan dudana bezala, nire pertsonan gorpuztu arren, uste dut esker ona Hezkuntzak orokorrean eta Hezkuntza Bereziak bereziki egin duen lanarentzat izan behar dela. Nire pertsonaren bidez aitortzen da bere garaian Integrazio Programa abian jartzeko denek egin genuen lana, bai eta egun gure eskoletan aniztasuna aberastasuna izan dadin lan egiten duten pertsonen lana ere.

Irudian ikusten dugu nola Laneko ministroak, Jesús Caldera jaunak, Lan merituen urrezko domina ematen dion, 2006an, Esther Pagolari, Ikasle Ezgaituen Integrazio Programa abiarazten egindako lanagatik



Nafarroan Integrazio Programa abiarazteagatik Lan Merituari Urrezko Domina jasotzean, burua eta bihotza lan horri gogoak, denbora eta profesionaltasuna eskaini zioten pertsonak nituen. Horiene ere da domina. Batzuk aipatu gabe uzteko arriskua izan arren, lan horretan giltzarri izan ziren pertsona batzuk aipatuko ditut: Txano Ansa, Nafarroan zabaltze aldera, Madrilen horrenbeste eguneratzeko ikastaro nirekin egin zituena. Nafarroako Hezkuntza Bereziko koordinatzaileak izan zen Luis Arbea, aniztasunaren arazoaren eta aberastasunarekiko enpatia handia zuen pertsona eta bere garaian Madrilerara bidali ninduen Nafarroako Hezkuntza Bereziko irakasleen izenean. Isabel Valdelomar eta Juani Juanena, batera ikastaro, mintegi eta curriculum-egokitzapenak egin genituelako. Cristina Arregui eta Maite Goicoechea, Integrazio Programa abiarazi zutenak. Guillermo Iriarte, Nicolás Uriz, eta hainbat eta hainbat lankide: Carmen Blanco, M^a Jesús Sánchez, Antonio Adrián, Pilar Elcarte, Epi Arakama, Alicia, Ana Albertin, Julio Nubla, Estebe Petrizán... eta ikastaroetan eta mintegietan parte hartu eta euren zentroetan integrazioa praktikara eraman zuten lankideak. Horien guztien izenean jaso dut Lan Merituari Urrezko Domina.

Burlata, 2008ko irailaren 24a.





Argazkian, Julián Arana Pascual ikus dezakegu 2007an Garraldako bere eskola ohia bisitatzen.



Caparrosoko “Religiosas Misioneras de la Inmaculada Concepción” Ikastetxea 1926ko urrian ireki zen eta hiru ikasgeletan banatutako 75 ikasle jaso zituen: “Sagrado Corazón” ikasgela (20 ikasle), “Inmaculada” ikasgela (22) eta “Niño Jesús” ikasgela (33). Fundazioa 2013an utzi zuten. 80ko hamarkadan zehar, hainbat herrialdetan misioi ebanjelizatzailea egin duten 20 bokazio egon dira Caparroson. Argazkian, “Religiosas Misioneras de la Inmaculada Concepción” Ikastetxeko alboko fatxada ikus dezakegu. Eraikuntza-lanak 1946an bukatu ziren. Enrique Salvadorrek utzitako argazkia.

JULIÁN ARANA PASCUAL (1949-2017)

Jarraian 2002an Julián Aranak Tafallan sinatu zuen testua transkribatzen da.

Norbaitek bizitza horrela definitu zuen: egunero gertatzen zaiguna gu bitartean beste zerbait amesten ari garen bitartean. Nire bizitza definizio horren adibidea da. Oso gustuko izan ditut beti filosofia, antropologia, historia... eta eskola-orientatzaile gisa erretiratzear nago. Ez naiz damutzen, eta oso zorionekoa sentitzen naiz baina munduaren eta bizitzaren inguruko gauza ezezagunak segika ditut. Literatura biziki gustuko dut eta Atapuercako azken aurkikuntzak irrikaz jarraitzen ditut. Zergatik aukeratu nuen, bada, hezkuntza? Bizitzaren gorabeherak eskolara eraman ninduten, eta maisu gisa lanean ari nintzela, nire ogibidean psikologikoki sakontzeko beharra sentitu nuen. Lagun batek berarekin batera Psikologia ikastera bultzatu ninduen... eta jada hogeitau urte baino gehiago igaro ditut orientatzaile gisa.

Baina nire bizitzaren berri eman aurretik, iraganeko nire maisuen bizitzak gogora ekarri nahi ditut. Nire eskola-ibilerak orain dela mende erdia hasi ziren. Memoriak bertigoa ematen dit, baina 50ko hamarkadako eskola nazionalako ikaslea izan nintzen. Bai, esne-hautsaren, arbelen, zerrautsezko estufen, tinta ontzien,

Argazkian Caparrosoko eskola berrien fatxada nagusia ikus dezakegu. Egun, “Virgen del Soto” Ikastetxe Publikoada, 1960an ireki zena. Enrique Salvadorrek utzitako argazkia.



Aita Asteteren kristau-ikasbidearen, Álvarez entziklopediaren eta Franco eta José Antonio “aberriaren aiten” garaiko ikaslea izan nintzen. Nire lehenengo testigantza “Nire iraganeko maisuak”, eskola horri eta oso gutxiren truke dena eman zuten maisu eta masitra horiei eskaintzen diet. Ideologikoki eta profesionalki garai ilunak bizi izan zituzten, baina gure bihotzetan beti izango dira distiratsuak.

Nire iraganeko maisuak

Mutilen Eskola Nazionalean zazpi urterekin jaunartzea egin ondoren sartzen ginen. Aurretik, Caparrosoko mutil eta neska gehienak Ama Kontzepzionisten mojen ikastetxetik pasatzen ginen. Ikastetxea herriko ongile ospetsuaren testamentuan ezarritakoaren arabera eraiki zen 40ko hamarkadaren amaieran. Jatorrian Ikastetxe-Ospitalea izan zen, baina nik ikastetxe gisa ezagutu dut soilik. Mojek irakurtzen irakasten eta jaunartzerako prestatzen gintuzten. Denboraldi batean zehar, egunero mezara joatera behartzen gintuzten. Orduan ikasi nuen gezurrak esaten, ez bainengoen prest egia esan gabe “errekreorik” gabe geratzera. Irakurtzen irakasten zigun mojak “aingeru-ogia” (ostia zatiak) ematen zizkigun ongi egiten bagenuen. Ikastetxeko kapera katekesia irakasten ziguten. Ikastetxeak eliza usaina zuen, lurak garbi-garbiak zeuden eta argia leiho eta sabai-leiho garbietatik sartzen zen. Jolastokiaren ondoan frontoi handia zegoen eta han ere kapera eta areto txukun bat zegoen. Baina leku horiek ez ditut ia gogoratzen. Ikastetxea utzi aurretik, eskolako ohiko argazkiak egin zizkiguten, idazmakinaren aurrean eta mapa atzean zuen idazmahai dotore batean. Ni han eserita agertzen naiz, txintxo aurpegiarekin, nire eskuak Remington baten gainean jarrita. Nire ondoan Inma nire ahizpa agertzen da, bere bi begizta dotoreekin eta orrazkera txukunarekin.



Caparrosoko " Madres Concepcionistas" Ikastetxeke ikasleak. Enrique Salvadorrek utzitako argazkia.

Caparrosoko 50ko hamarkadako nire eskola, ume baten begietatik ikusita, eraikin altua eta izugarria zen, xake-itxurako beirak zituzten leihate handiekin eta ikasgeletara joateko alboetan eta erdialdean zituen kanpoko eskailerekin. Ikastetxea mendi-hegal batean zegoen, albo batean akazia mehe batzuk zituen lursail batean. Eraikinaren barrualdeko oroitzapenen artean gogoan ditut sabai altuak, tinta arrastoz beteriko oholtza koipetsuzko lurrak, karezko paretak, bi eserleku eraisgarri zituzten mahai ilarak eta ertzetan gaizki zintzilikatutako Espainiako mapak. Maisuaren mahai, altuago zegoena, espazio guztia zaintzen zuen arbela beltz luzearen ondoan zegoen. Eta, goian, aurrealdean, dena ikusten zuen gurutzea, Francoren eta José Antonioren argazkiak albo banatan zituela.

Nonbait, zerrautsezko estufa luze bat, arnastu ahal izateko bere sudur teleskopikoa leihoraino luzatzen zuena. Soilik ingurukoa nola edo hala epeltzen zuen. Beste espazio guztian, hotza, katarroak eta ospelak. Ez dakit negua ere hazizurren jatorria ote zen, baina kutsakorra izan behar zuen, hantura estaltzeko eskolara hainbat eta hainbat ikasle burua zapiaz inguratuta joaten baikinen. Oparien itxura ematen zigun horrek. Eskola sakon horretako lainoen artean galdutako zuri beltzezko argazkien irudi bitxia.

Nire iraganeko maisuak on José, on Rosalío eta on Jacinto izan ziren. Ez nintzen on Ferminen klaseetara joan, nagusien maisua baitzen. Baina, aurrerago, bizitzaren bideek elkartu gintuzten eta horrela, maisu umil hori ezagutzeko aukera izan nuen. Zazpi urteko ni gazteak on Joséren inguruan duen irudia autoritate handiko

Madozen arabera, 1845ean
 Lehen Hizkien bi eskola zeuden
 Caparroson: mutilena, 80
 ikaslerekin, eta neskena, 36
 ikaslerekin. 1908an, lau ikasgelatan
 banatutako 300 ikasle zeuden:
 neskentzako bi ikasgela eta
 mutilentzako beste bi. Argazkian,
 Caparrosoko "Escuelas Viejas"
 Eskola Publikoak ikus ditzakegu,
 1927an eraikitzen hasi zirenak,
 Carlos eta Joaquín de Marichalarrek
 utzitako lursailetan. Eskola-eraikinak
 bi pabilioi zituen eta maisu-
 maistrentzako lau etxebizitza.
 1930ean inauguratu zituzten.
 Enrique Salvadorrek utzitako
 argazkia.



Caparrosoko Eskola Nazionaletakoa
 ikasgela. 1930. Enrique Salvadorrek
 utzitako argazkia



maisu zorrotz eta serioarena da. Gazteenoi ematen zizkigun eskolak, baina bere mahaitik gertu helduagoak ziren ikasleak zituen. Aurrerago jakin nuen Batxilergoa prestatzen ari ziren ikasleak zirela. On Rosalío erlezaina zen, asko omen zekien horren inguruan, baina klasean ez zuen inoiz horri buruz hitz egin. On Jacinto ehiztaria zen, eta oraindik ere, memoriaren lainoen artean, bere txakur grisa lantzantzen ikus dezaket, txakurra txoko guztiak arakatuz ogi zati bat aurkitu nahian zebilen bitartean. Maisuak zein adinekoak ziren ez dakit, baina niretzat oso nagusiak ziren. Errespetatzen nituen eta beldur nien. Euren jarraibideak jarraitzea, ongi portatzea eta lanak ongi egitea Hamar Aginduak bezalakoak ziren, zerbait sakratua zortzi urteko ume horren buruan. Horrelakoren bat ez betetzeak ondorio moralak eta diziplinazkoak zituen. Zigor fisikoak: belarrondokoak, masailekoak, esku moreak erregelaren kolpeak jaso ostean edo maisuaren mahaitik botatako pilotakada trebeak ohikoak ziren. Zigor horiek “letra odolarekin sartzen da” premisa jarraitzen zuten. Ez zituzten txartzat hartzen, eta gurasoek zigorren berri izaten bazuten, zigor bikoitza izaten ahal zenuen etxean. Ez zen inoiz zalantzan jartzen maisuaren lana, ez etxean ezta gizartean ere. Dena ongi zegoen eskatutako zerbait egiten ez bazen. Zigor fisikoak garai horretako testuinguru soziokultural, erlijioso eta familiarraren zati natural bat ziren. Egungo gure parametroekin maisu horien metodoak epaitzea tokiz kanpo legoke. Nolanahi ere, ikasgela ordena mantentzen zuten errespetatzen eta onartzen zen autoritatearen bidez. Ohartarazpenak eta errietak publikoak ziren, bai eta ongi egindakoaren aitortza ere. Diziplina eta ikasteko gogoia pizteko, ikasgelan zenuen zure tokiarekin jolasten zuten. Eta, ikasturtearen amaiera, ikaslerik onenek irakurketa-liburu txiki bat irabazteko aukera zuten.

Nire maisuek hasieratik gogor lan egitera behartzen ninduten. Ez ditut gogoan klaseak hasi aurretik egiten genituen otoitzak, baina oraindik ere argi eta garbi entzun ditzaket egunaren hasierako orduetako Aita Asteteren kristau-ikasbidearen oihartzunak. Buruz ikasi eta ozen errepikatzen genuen. Ondoren, maisuak literalki erantzun behar genituen galdera literalak egiten zizkigun. Erantzunen zehaztasunak gure estatusa eta gelako kokapena zehazten zuen. Nire maisuek hitzez hitz jarraitzen zuten kristau-ikasbidearen letra sakratua, Jainkoaren eta Elizaren hitza balitz bezala. Oso argi zuten pertsona baten oinarriak erlijioan zeudela: hamar aginduak, sakramentuak, igandeetako meza nagusia... Ez zuten kristau-ikasbidetik koma bat ere aldatzen eta pentsamenduak, sentimenduak eta ideak fedearen ikuspegitik interpretatzen zituzten. Gerra Zibilaren itzala luzatzen zihoan Estatuak Egoitza Santuarekin konkordatua sinatu zuen garai horretan. Bizitzaren ikuspuntu liberalagoa pentsaezina zen.

Klaseak adinaren arabera banatzen ziren eta ez ezagutzen arabera. Hori dela eta, ikasgela berean maila ezberdinak zituzten ikasleak zeuden. Nik hamar

On Jacintoren ikasleak.



*urte nituenean nire gelan ia irakurtzen ez zekiten ikasleak zeuden eta aldi be-
rean, akatsik gabe idazten zekiten klasekideak eta arazorik gabe buruketak ongi
egiten zituztenak. Irakasgai asko guztiek batera ikasten genituen, bereziki Historia
Sakratuarekin eta Geografiarekin harremana zuten horiek. Baina beste irakasgai
batzuetan, nire maisuak euren modura moldatzen ziren ikasleen arteko desber-
dintasunei arreta jartzeko. Niri klasera gutxitan etortzen zen klasekide artzain
baten irakurketa-prozesuaren tutore lanak egokitu zizkidaten.*

*Ez nuen gustuko amerikarren esnea. Apartsua eta pikortsua zen. Eta nola edo
hala moldatzen nintzen ez edateko. Agian edaten ez nuelako eta hain argal nen-
goelako, on Rosalíok Zudairiko udalekuetara ni bidaltzea erabaki zuen. Ez nintzen
inoiz herritik atera eta nire begiak txundituta geratu ziren pagondoak, belardiak,
iturriak eta lurra ukitzen zuten hodeiak ikustean. Ez dakit zenbat denbora pasa
nuen han, baina niretzako eternitate bat izan zen. Ez nekien zergatik bidali nin-
duten hara, soilik joan aurretik nire izeba batek amari esan ziola: “Ikusiko duzu,
leku horietatik txukunago itzultzen dira”. Agian hori dela eta, udalekuetako bizitza
lasaia zen, egunero lokuluxka egiten genuen eta dena jatera behartzen gintuzten.
Nik oso gustukoak nituen askariak, txokolata edo irasagarra jaten genuelako. Nire
etxean bost anai-arreba ginen eta ez zegoen txokolaterik egunero. Ibilaldiak eta
gimnastika egiten genuen, jolasten genuen eta kantak ikasten genituen. Geroztik
“Salió de Jamaica...” abesten dut. Aisialdian irakurtzen genuen, edo maskorrekin*

lepokoak egiten genituen. Esperientzia ona izan zen eta badirudi helburuak bete nituela, gurasoei bidali zieten nire fitxak ia bi kilo loditu nituela esaten baitzuen.

Errepublika, Konstituzioa, Giza Eskubideak... bezalako terminoak ez nituen sekula entzun. Nik uste dut maisuek ezagutzen zituztela, baina ez zituzten inoiz aipatu. Eta Zudairitik itzuli ostean, berriro Asteterekin itzuli behar. Kristau-ikasbi-deak lehentasuna zuelako, eta jarraian irakurketa, idazketa eta zenbaketa. Tartean Historia Sakratua, Geografia eta Espainiako Historia zeuden. Inperioaren egitandiak, Ameriketako aurkikuntza eta Gurutzada Nazionala behin eta berriro errepikatzen ziren gaiak ziren. Oraindik ere ikus dezaket on Jacinto, begiek dir-dir egiten ziotela, Kapitain Handiak lortutako Granadako birkonkista azaltzen eta nire begietan Boabdilen malkoak sentitzen. Bai, maisu horiek gogo biziz deskribatzen eta kontatzen zuten.

Harrotasunez, ekintza gogoangarriz, aurkikuntzez, konkistez, santuez eta inperioez hitz egiten ziguten.

Nire iraganeko liburuak gogora ekartzean Álvarez entziklopedia nahitaez aipatu behar dut. Urte horietan maisuek erabili zuten baliabide pedagogiko garrantzitsua izan zen. Sintetikoa eta praktikoa zen, eta irakasgai guztiak mailaren arabera antolatuta zituen. Grafikoak eta marrazkiak zituen eta horrela gaiak entretenigarriagoak ziren. Lezio bakoitzaren amaieran galderak eta ariketak zeuden. Zentsurak gertutik zaindu zituen entziklopediaren eduki erlijiosoak eta Gurutzada loriatsua balioak. Laguntzen gabezia zela eta, eta ziurgabetasun pedagogikoarengatik orokorrean, entziklopediak bere lana bete zuen eta 50ko hamarkadako maisu eta maistrentzako gida izan zen.

Irakurketa liburuen inguruko oroitzapenei dagokienez, gerraosteko Espainia zeharkatzen zuten umeen irudiak gordetzen ditut. Lekuak eta ohiturak deskribatzen zituzten, eta ia beti ekintza eta eszena aberkoiak agertzen ziren. Irakurketa horiek balioak transmititzen zituzten eta gure maisuek abiadura, zuzenketa eta intonazioa lantzeko ere probesten zituzten. Liburu horien artean irakurtzen ikasi nuen, eta baita irakurtzeko zaletasuna piztu ere. Gogoan dut batzuetan on Jacintok egunkariak ekartzen zituela eta gertaeren bat irakurri eta azaltzen zigula. Niri bereziki hunkitu ninduen Ridavelgoko presaren erorketa eta horrek sortu zuen zorigaiztoa.

Idazketarako ikasmahaietan genituen loza zuriko tinta ontzietan sartzen genituen oholak erabiltzen genituen. Luma horiekin idaztea ez zen erraza eta ezinezkoa zen mahaiak, koadernoak edo lurra ez zikintzea. Laginak zituzten koadernoak genituen eta maisuek ahalegin handia egiten zuten letra ingeleseko ereduak lortzeko. Kaligrafia horiek jende askoren letra pertsonala sortu zuten. Ez dakit idazlanak idazten irakatsi zidaten, baina bai inoiz ikasi ez nituen arau ortografikoz beteriko diktaketak.

Ikasgelan geundenean, zenbaketak arbelean egiten genituen. Horrela, koadernoen orriak aurrezten genituen eta zuzentzeko listua baino ez genuen erabili behar. Koadernoan batez ere etxeko lana idazten genuen. Zorigaiztokoa hurrengo egunean etxeko lana egin gabe eskolara etortzen zena! Zenbaketak, buruketak, egunero ozenki errepikatzen genituen biderketa-taulak, neurketa sistema hamartarra, nekazaritzako neurri batzuk eta kartoizko edo buztinezko poliedro solte batzuek osatzen zuten Matematiketako gure curriculum osoa.

Gainera, gizalegezko arauak eta gure maisuek gutxieneko higie pertsonalarengatik zuten kezka zeuden. Aldizka ikasgelako garbiketa orokorra egiten genuen. Bakoitzak etxetik tresnak ekartzen zituen eta lanari ekiten genion. Beirekin ikasmahaietako orbanak harraskatzen genituen. Gizalegezko arauetan helduekiko errespetua eta begirunea hezurretaraino sartzen ziguten. Desobeditzea Jainkoaren legearen kontrakoa zen eta gure aiton-amonen estatusa oso estimatua zen etxean zein kalean. Modu naturalean onartutako heziketa-arau zehatz batzuek harreman hierarkikoak harmonikoki antolatzen zituzten. Hori dela eta, agurtzeko edo barkamena eskatzeko formulak ohikoak ziren, bai eta pertsona nagusiei laguntzea, haiek arretaz entzutea, zure eserlekua uztea, ikasgelako ikasle guztiak zutik jartzea agintariren bat etortzen zenean... Beste batzuk, emakumearekin lotutakoak, guztiz onartezinak ziren, eta gure amek eta amonek pairatu zuten arbasoen herentzia soziokultural maltzuraren zati ziren. Eredua etxean geratzen zen emakumearena zen, garbia, elizkoia, zintzoa, ama arduratsua, eta gizonaren menpe zegoena. Joste eta bainika egitea, nire arrebei entzuten nien bezala, idaztea edo irakurtzea bezain garrantzitsua zein haientzat.

Erlijioa ez zen ikasgai bat. Bizitzeko era bat baizik, dena inguratzen zuen erlijioak: Jainkoaren grazian bizitzea, mezetara joatea, hilabete bakoitzeko lehengo ostiraletan jaunartzea hartzea, Garizuma betetzea, Maiatzeko hilabetean parte hartzea, Aste Santuko ofizioetara joatea, izaturik sonata zeramaten apaiz bizardun horien sermoi eskatologikoak entzutea... Liburuek eta entziklopediek euren edukien zati handi bat erlijioari eskaintzen zioten. Oraindik gogoan ditut zenbait irudi: orraztu gabe eta zikin dagoen mutilak bekatua irudikatzen du eta, bere ondoan, ilean marra txukuna duen eta eskuak elkartuta dituen ume ona, irribarretsua, garbia. Nik nire burua gaizki ikusten nuen, ilea beti korapilatuta eramaten nuelako. Nire maisuak gizon oso erlijioso gisa ikusten nituen. Praktikante konbentzituak ziren, eta euren klaseetan balio moral eta erlijiosoak barruraino sartzen zitzaizkigun. Elizkizun batzuetara joateko, ilaran parrokiaraino joatera behartzen gintuzten. Bertan, niretzako santuak ziren aguretxoak ikusten nituen euren txapel gorriekin. Aurreragoa, errepublikazalea zen nire amak, txikitan ipuinak kontatu beharrean istorioak kontatzen zizkidana, esan zidan txapel horiek ez zirela preseski koroak. Maisuek euren gomendio, arau moral eta gomuta errukio-



Irudian “arbazta” eta “ikurra” ikus daitezke. xx. mende hasieratik ikastetxe erlijiosoetan erabilitako tresna pedagogikoak eta diziplinazkoak izan ziren. Ikurra, goikoa aldean ikus dezakeguna, Jesusen Bihotzaren erlijiosoek erabiltzen zuten eta arbazta, behealdean, Maristek. “Arbazta” Milagron Munarriz amak utzi du eta “ikurra” Valentín Jiménez anaiak.

rrekin estutzen gintuzten. Horietako batek, heriotzarekiko kezka argia erakusten zuen: “Jainkoari eskatzen diodana da hil aurretik bost minutuko buru-argitasuna eskaintzea damutzeko aukera izateko eta aitortu ahal izateko”. Nire ume buru horrek bazekien nola interpretatu: alaitasunez bizitzea eta hil aurretik zerura joateko sarrera erosteko denbora izatea.

Ikasgelatik kanpo, jolastokian eta inguruko kaleetan zalaparta iskanbilatsua egoten zen. Baloiarekin jolasen genuen, behi-entzierroetan korrika egiten genuen eta, sasoiaren arabera, taldeka biltzen ginen zibarekin edo futbolezko kromoekin jolasteko. Gertu, mojen ikastetxeko aurrealdean, neskak soka saltoan edo tortoletan jolasten ikusten genituen.

Hamar urte nituela anai marista bat on Jacintoren ikasgelatik pasa zen eta, nire ezusterako, ni deitu ninduen batez bestekoa baino hobe irakurtzen, idazten eta zenbatzen nekielako. “Zoaz eta ikas ezazu, etorkizunean gizon zintzoa izan zaitezten”, esaten zidaten etxean. Beste behin Penintsulako lurmuturrak edo agian Duero ibaiaren bizitza buruz esaten, egun batean betiko utzi nituen nire haurtzaroko lagunak. Nire ikasmahaia hutsik geratu zen, baina zuek Ubaldo, Ricardo, Carlos, Jesús Mari, Juan José, Domingo, Jacinto, Resano, Aráiz, Aícua, Legat, Salvador, Menaut, Vicente, Pedro Benito, José, Miguel, José Luis... nire memorian oraindik ere ezkutaketara jolasten zarete.

Maisu horiek bizitzea egokitu zitzairen gizartearen balioak irakatsi zizkiguten. Eliza eta Estatuak elkarrekin, iraganeko tradizio erreformista, humanista, liberala eta laizista ezeztatzen saiatu ziren. Aita Ripaldaren kristau-ikasbideak esaten zuen bezala: “Irakasteko askatasuna, propagandarako askatasuna eta biltzeko askatasuna kaltegarria da eta oker irakasteko eta bizioa zabaltzeko baino ez dute balio”.

Ez ditut nire maisuei euren nazional-katolizismoa leporatzen, eurek ere Espainiaren “handitasuna” ikasi zutelako: euren gizona, hizkuntza, arraza eta kultura beste zibilizazioak baino garrantzitsuagoak zirela, Jainkoak aukeratu zituela Ameriketako inperio kristaua zabaltzeko... Katolizismoa espainiartasunaren oinarria zen. Aberriaren alde lan egiteko nahikoa zen federekin.

Mundua, deabrua eta haragia arimaren etsaiak zirela esaten ziguten. Nik ez nuen munduarena eta haragiarena ulertzen, baina deabruak ikaragarritzko beldurra ematen zidan. Jainkoak bezala, leku guztietan zegoen begi handi bat zeukan eta mezara joaten ez baginen edo lagunekin haserretzen baginen infernuan zain genuen irakiten zeuden pertzekin. Hamar urte nituenean, askotan lotara joateko beldur nintzen konfesatu ez nintzelako, pentsatu, sentitu edo amestu nuelako...

Gizarte horretan autoritatea miresten zen, eta kexatu gabe obeditzera irakasten ziguten. Jainkoak sortutako ordena natural bat zegoen, Buruzagiak eta Elizak defendatzen zutena. Men egitea bertutea zen, errebelatzea, bekatua.

Pentsatzea? Ezinezkoa. Sinestu behar genuen. Egia dagoeneko agerian zegoen. Santo Tomasi gertatu zitzaiona eta San Agustinen zalantzak askotan errepikatzen ziren ereduak ziren.

Gogor lan egitea, errespetua, zintzoak izatea, umilak... Jesusek bezala beste masaila eskaintzea min egiten dizutenean, zerurako bidea da.

Errepikatuz eta buruz ikasiz gauza asko irakatsi zizkiguten. Bete beharreko putzuak ginen eta gure maisuek, setatsu lan egin zuten horretan. Gu dena jasotzeko, onartzeko eta eskertzeko prest egon baino ez ginen egon behar.

Bestalde, eskola horrek pertsona bezala heldutzen lagundu zigun. Familiako giro afektibotik banatutako arauak zituen beste giro sozialago batera pasa ginen. Maisu horiek gure arreta osoa zuten, ahalegintzen irakatsi ziguten, nahiak diziplinatu zituzten eta ikasteko eta bizitzan aurrera egiteko gogoak eman zituzten.

Mutualitateko txartelen bidez gure maisuek aurrezpena sustatu zuten. Txarteletan idazten zuten itsulapikotik ateratzen genituen pezetak edo gure amak ematen zizkigunak. Ez dakit noiz irakurri nuen Inurriaren eta Txixarraren ipuina, baina hurrengo egunerako gordetzearen inguruko irakaspenera gurasoek askotan errepikatzen ziguten. Nik, egia esan, txartela non zegoen ahaztu nuen ez eta aurreztu ahal izan nituen duro gutxi horiek ere, baina badakit, ezkontzerakoan, neska batzuk arreoaren zati bat erosi ahal izan zutela diru horrekin.

Oraindik ere nire buruari galdetzen diot zergatik izan zuten maisu horiek horrenbesteko eragina gure bizitzetan. Ekonomikoki ez zitzaien aitortzen baina sozialki estimu handitan zituzten. Maisuak, medikuak, idazkariak eta apaizak buruetan eta gorputzetan agintzen zuten. Ona eta txarra non zegoen esaten ziguten, ia dena bekatu zela, igandetan zein filma ikusten ahal genuen eta zein ez, emakumeak ezin zirela elizara sartu galtzerdiak eta mantelinak eraman gabe, pentsamenduak ere zikinak izan zitezkeela...

Bizitzaren antzezlanean, nire iraganeko maisuek inposatutako gidoia eta eszenatokia izan zuten. Ez dakit zein punturaino ulertu zuten haien papera. Nolanahi ere, haiek dena eman ziguten eta indarrez etorkizunera bultzatu gintuzten. Gehien gogoratzen dudana irakaspena da.

Nire iraganetik XXI. mendera

Herriko nire maisuei agur esan eta 8 urte beranduago, ni ere “iraganeko maisua” nintzen galdutako eskola bateratu batean. 1967-68 ikasturtean izan zen, hain zuzen ere, 18 urte nituela nire lehen erantzukizun profesionala izan nuenean.

Gaur, 2007-08 ikasturtea hastera dela, nire memoriak berrogei urte atzera egiten ditu. Horrenbeste denbora une bat besterik ez dela izan sentitzen dut. Badirudi atzo zela, baina erlojuaren orratz hotzek gor eta errukigabe aurrera egiten dute. Konturatu gabe, nire bizitza profesionala historia bilakatu da. 70ko hamarkadan harrotasunez uste nuen nire karrerak mundua aldatzeko giltzak ematen zizkidala. Orain, hainbat borroketan azala belztu ostean, munduak gu aldatu gaituela uste dut.

Eskolak profesionalki dena eman dit. Une onak eta txarrak, poz handia eta pessimismoa, zoriontasuna eta tristezia, gogoratzeko uneak eta baita ahazteko uneak ere. Zalantzarik gabe, poztasun handiena ikasleek eman didate beti, eta okerrenak Administrazioak eta zenbait lankidek.

Iraupen antzekoa duten bi atal argi berezitatea ditut: maisu gisa igarotako urteak eta orientatzaile gisa igarotakoak. Maisu garaitik orain dela hogeita hamar eta berrogei urteko aurpegiak gordetzen ditut, adi-adi eta ikusminez beteriko begiradak, gurasoen ezinegona, aisialdiko tarte goxoak... Orientatzaile gisa, ikasgelarekin harreman zuzena izan gabe, nire lana bulegoan giltzapetzen da eta zailtasunak dituzten edo nire laguntza eskatzen duten ikasleen inguruan biltzen da. Nire esku-hartzea zeharkakoagoa izan zen eta programa psikopedagogiko ezberdinetako irakasle eta tutoreekin lan egin behar izan dut.

Maisu gisa, Tafalla behin-behineko postua lortu arte, Garraldan, Elon, Olesa de Montserraten, Andosillan eta Lesakan egon nintzen.

1973/74 ikasturtean, Tafallako Eskola Publikoetan hasi nintzen lanean. Zentroa hiru eraikinetan banatuta zegoen eta niri 4. DBHko ikasleei klase ematea egokitu zitzaidan, herriko aspaldiko leinuko etxetzar batean, gaur Kultura Etxea dena. Urte gutxira, eta presio handia egin ostean, Eskualdeko Eskola berria lortu genuen, maisu gisa nire bizitzako eskola izango zena.

Orientatzaile gisa, ondorengo herri hauetako eskoletan aritu nintzen: Milagro, Villafranca, Artaxoa, Larraga, Barasoain, Garinoain, Miranda, Berbintzana, San Martín Unx, Beire, Pitillas ... Eta baita Tafallan bertan, “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Ikastetxean eta Tafallako Politeknikoan.

Nire historia profesionaletik nire burura etorri diren bi garai horietako zenbait eszena nabarmenduko ditut. Ez dute deus berezirik edo ikusgarririk, baina nire bizitzaren zati dira. Lehena “Garralda, nire lehenengo eskola” izango litzateke. Nire lehenengo urratsen eta fantasia batean bizi den maisu nerabe baten istorioa litzateke, Azkena, “Tafalla, 70ko hamarkadako nire eskualdeko eskola”. Protagonista bere lana biziki maite duen eskola publikoaren aldeko militantearen historia litzateke. M^a Jesús, OHOk lankide ohia, hil ondorengo egunean idatzitako istorioa da, eta oroimenez lankide ohiak eta eskola horretan bizitako 70ko hamarkada miresgarria ekartzen du gogora.

Garralda, nire lehenengo eskola

“Bitarteko maisurako plaza bat dago Garraldan”, esan zidaten Hezkuntzako Ordezkaritzan. Herri horren izena entzuten nuen lehenengo aldia zen eta gogoan dut autobusak errepidean utzi ninduenean, elizaren ondoan, udazkeneko sirimiri baten azpian.

Garraldan, 1967-68 ikasturtean, nesken eskola bat eta mutilen beste bat, nirea, zeuden. Eskola bateratua zen eta bost eta hamalau urteko arteko berrogei ikasle zeuden. Gainera, Batxilergoko laupabost neskari ere eman behar nizkien klaseak.

Eskola, Aribetik etorrita herriko sarreran dagoena, beste etxetzar bat zen. Atearen gainean dagoen brontzezko plaka batek esaten du Antonio Aróstegui, herriko seme kutuna, sortu zuela 1911n. Lurpean egurra biltzeko biltegi antzeko bat zegoen; solairuartera, ikasgela zegoen lekuan, kanpoaldeko eskailera batetik iristen zen eta goian maisuaren etxebizitza zegoen. Inguruan sastrakak eta zuhaitzak zeuden.

Nik 18 urte nituen, apaiztegitik atera berri nintzen eta dena berria eta harriagarria zen niretzat. Jaso nuen lehenengo inpresioa izan zen lehenengo egunetik denek “don Julián” deitzen nindutela. Bigarrena, ikasleen eta familien ongietorri beroa eta maitekorra izan zen. Eta, ni gehien urduritzen ninduen zen ezin niola gorritzeari utzi Batxilergoko neskak begiratzen nituenean. Ez nuen sekula aurretik nire adineko neskekin hitz egin eta adrenalina bor-borka igotzen zitzaidan.



Garraaldako nesken Udal Eskolak eta maistraren etxebizitza, 1957an eraikitakoak. Acciona Garraaldako Udalak utzitako argazkia.

Garralda, orain dela berrogei urte, ez da orain den herria. Orduan, edozein ordutan zeuden umeak, behiak eta belar ondu usaina kaleetan. Etxeak zuri garbi-garbikoak ziren, atariak beti irekita zituzten eta leihoetan geranioek gainezka egiten zuten. Orain dela gutxi, herriko kaleetatik barna ibili nintzen berriro eta isiltasunak harritu ninduen. Nire eskola oraindik ere hutsik dago, ez dute Damasoren aroztegiko zerrek karranka egiten eta ate asko mutu daude.

Negu horretan elur asko bota zuen eta udaberria ikusgarria izan zen. Erriberako nire begiak ez zeuden ohitutako belardien kolore gorri-horira edo uztondoen kolore horiak naturarekin mozkortzen ziren kolore berdeko milaka tonutan. “Aita, Garraldan, garia bildu beharrean belarra biltzen dute”, errepikatzen nuen etxera joaten nintzenean.

Maisu gisa jasotzen nuen soldata 5.404 pezetakoa zen. Aribera bizikletaz jaisiten nintzen eta Aurrezki Kutxan kobratzen nituen. Nik 3.300 pezeta ordaintzen nituen Casa Romualdon, herriko ostatua, eta gainerakoarekin ozta-ozta aurrera egiteko gai nintzen. Lansari estra gisa, zuhaitz-sorta bat egokitu zitzaidan eta Mocholiri saldu nizkion 3.000 pezetan truke.

Oroimenez gogoratzen ditut nire lagunak: Miguel Ángel, Alfonso, José, Carmelo... eta baita emakumezko lagunak ere: Mirentxu, Inés, Angelines, Tere, M^a Jesús, Imelda, Consuelo... Herritik pasiatzen genuen, enbor erraldoiekin egindako su handien inguruan askariak antolatzen genituen, eta tarteko inguruko herrietako festetara joaten ginen: Abaurrea, Garaioa, Orbara, Arike... Bitxia da, baina nire bizitza erlijiosoa kuadrilla horrekin berri agertu zen. Ez zegoen beste aukerarik: haiekin mezetara edo arrosariora joaten nintzen igandetan edo bakarrik geratzen nintzen. Eta ni, paradoxikoki, haiekin batera joaten nintzen nire barne-mundu

erlijiosoa erortzen ari zen bitartean. Zer bait sumatuko zuen herriko parrokoa zen Jesús Gurrupidek Orreagara egiten zen Aezkoako eguneko erromesaldian besteekin batera tunika beltza eta gurutzea hartzera nindoala galdetu zidanean: Zu ere bai?. Ez nuen inoiz galdera horren arrazoia zen izan zen jakin baina, apaiz horrek, garaian ohikoa zenaren kontra, ez zuen eskola bisitatu urte hartan. Erromesaldi horretatik, Auritzeko kaleetatik kantuz eta otoitz egiten tunika beltzez jantzita eta gurutzea goratuta eramaten zuten ehundaka pertsonen irudia gordetzen dut. 1968ko ekainaren 5a zen eta megafonia bidez, Orreagarako bidean geundela, otoitz egin zen Robert Kennedyren zorigaiztoko heriotzarenegatik.

Eskola horretan, ez nuen denborarik galdu metodologia artean arakatzen. Zentzu onak eta lan egiteko gogoek aurrera egiten lagundu ninduten. Txikienen lehenengo hizkien eta Batxilergoko nire ikasleen algebraren artean, maila ezberdineko taldeak pasatzen ziren. Eskarmenturik izan ez arren, uste dut ongi probestutako ikasturtea izan zela. Batxilergoko nire ikasleek azterketa gainditu zuten eta nire ikasletako batzuk unibertsitateira iritsi ziren. Nire memoriaren ganbaran oraindik ere, berrogei urteko hauts azpian, Agustín, José Luis, Pedro Mari, Ángel Mari, José Ramón, Juan Miguel, Juan Carlos, Miguel José, Manolo, Demetrio, Juan José, Jesús Mari... umeen irribarreak bizirik daude eta baita izenik gabeko begiradak ere.

Egun, Juan Manuel Iriarte magistratuaren agintea letra txikian agertzen da buletinetan eta epaietan, eta Demetrio Loperenaren idatziak, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, egunkarian irakur ditzakegu bere anaia Ángel Mariren Aunak Hoteleko jatetxe zoragarriaren plater bikainak dastatzen ditugun bitartean.

Eskola Olivetti makina zahar bat zegoen, urtetan zehar ahaztua egon zena. Nola edo hala moldatu nuen eta horri esker nire ikasleei makinan idazten irakatsi nien. Eskola orduetatik kanpo doan irakasten nien. Azken egunean, nire ikaslea eta orain laguna den Miguel Ángel Lerindeguik berak egindako gazta handi bat eman zidan eskerrak emateko.

Garai horretan Ministerioa ikasgeletan telebista txertatzen hasi zen. Herrian zegoen lehena eta bakarra zen. Baliabide pedagogiko gisa ez zuen ezertarako balio izan, baina eskola jende askorentzako erreferente berritzailea izan zen. Larunbat eta igande arratsaldeak jendearen eskura zeuden. Ez nituen 68ko Maiatzaren gertaerak ikusi baina bai Masielek Eurovision irabazterakoan bizitako zalaparta.

Eskola horrek azkar heldutzeroa behartu ninduen. Iraganeko landa-maisu eta maistren bakardadea bizi izan nuen. Ez zen ikuskaririk pasa gure eskolatik, ez zen topaketa profesionalik egon Aezkoan... Gaztea eta eskarmenturik gabekoa nintzen, eta nik bakarrik erantzun behar nituen galderak eta ikasleak aurrera eramanez. Baina eskola horrek harrapatu ninduen eta nire bihotza eskaini nion.

Nire ikasleekin maitemindu nintzen baina baita 68ko udaberriko Garraldarekin, bere berde-esmeralda kolorearekin, bere baserriekin, bere etxetzarren tximiniekin, galdutako bideetako zintzarrien dangarekin, bere zeruarekin, bere ubideekin, lagunen bihotzekin...

Amaitu baino lehen, ezin dut nesken eskolako maistra zen M^a Luisa Erviti aipatu gabe utzi. 23 urte zituen eta bere ikasgela herriko erdialdean zegoen, ia elizaren aurrean. Ez dakit zergatik, baina Laurenz jaunarekin, herriko idazkaria, hitz behar zuen bakoitzean berarekin joateko eskatzen zidan. M^a Luisa Agoitzekoa zen, ez zen herrian lotan geratzen eta ez genuen harreman askorik baina, behin, Abaurreagainako maisuarekin hitz egiten ari zela esan zion: “Garraldara Santa Infancia delakoaren maisuak baino ez dizkidate bidaltzen”.

Askotan, hemen, Tafallan, Ijituaren Zuhaitzaren bidea hartzen dut Plano mendirako bidean. Udal Eskolaren aurretik igarotzen naizenean zentroa begiratu eta bere jolastokian ahots zalapartatsuak entzuten ditut. Atzokoa egun ezberdina zen, eskola horretako María Jesús OHoko nire lankide ohia hil zen eta bazirudien aura gris batek dena estaltzen zuela. María Jesús emakume isila zen, buru-belarri aritzen zena, bere bizitza eskaintzen zuena eta guztien laguna zena. Denak berdin jarraitzeak amorratzen ninduen: haur eskolako kantak, kiroldegiko oihartzunak, irekitako leihoetatik ateratzen ziren zurrumurruak. Amorrua ematen zidan eguzkia berriro axolagabe atera izana, amorrua ematen zidan ni hiltzean mundua ere ez zelako etengo...

Berriro begiratu nuen eta nire buruak nire ikasgelakoak izan ziren leihota-raino igo zen. Orain dela hogeita hamar urteko nire ikasleak agurtu nituen eta irakasle-gelara jaitsi nintzen. Bertan, nire lankideak, nire klaustroa zegoen: Javier Ojer, Tita, María Ángeles García, María Jesús Martín, Ignacio, Chuma, Conchita, María Dolores Celayeta, Nieves, María Jesús Jurío, Pibe, María Dolores Iracheta, Resu, Rafa, María Jesús Redrado, Rosa, Ana, Manolo, Jesús, Gloria Mendía, María Jesús Díez, Chemi, Emilio, Sagrario, Feli, Julita, Vicente, Carmen, Gloria Martínez, Tere Valencia, Javier Martínez, José Garde, Maribel, Aurelio, María Jesús Zabalza, Tere Artieda, Pedro Barace, María Ángeles Molina... Nire memoria, hamarkadetako artxiboen artean bilatuz, pareta horietako eztabaidak, liskarrak, urtebetetzeak, irriak eta malkoak ekarri zizkidan burura. Une batez, gela horrek munduko erdigunea zirudien berriro.

Ez dut ahaztu Titaren indarra klaustro horietan, María Jesús eta Resuren lan isila eta etengabekoa euren ikasleekin, Manoloren, Aurelioren, Emilioren... parte-hartze lasaiak, Conchirenak, Chumarenak edo nireak, sutsuagoak zirenak, Piberen kontrapuntua, Sagrario Echeverría bere “ezinezko kasuekin”, Rosa, María Dolores eta Gloria, eraikineko alde eguzkitsuenean, txikienen zalapartaz inguratuta.

Ez ditut inoiz ahaztuko elkartasun, konpromiso eta partekatutako borroken urteak. Bitarteko irakasleekin arazoak, edozein motako lan-arazoak, eskola publikoan mehatxatutako balioak, “Pito de Etxarriko” kasu ulergaitza... gu guztion arazoak ziren.

Urtero, ikasturtearen hasiera ilusioz beteriko abentura izaten zen niretzat. Nire lanaz harro eta zorionekoa sentitzen nintzen. Ikasketa Buru izatea edo garai horretan ezezaguna zen Hezkuntza Berezirako boluntario aurkeztea asko desiraturako esperientziak izan ziren. Oraingo CAP horiek gabe eta kanpoko laguntza gutxirekin, baina indarrekin eta gogoekin, ezgaitasunak zituzten ikasleak integratzen aitzindariak izan ginen, zailtasunak zituzten ikasleentzako tailerrak eta egokitutako curriculumak prestatu genituen, Gurasoen Eskola antolatu genuen eta eskolako ospakizunak, udalekuak, txangoak eta ikasketa bidaiak probesten genituen gure bihotzaren bidez komunikatzeko. Oso atsegingarria zen gero, kaletik joaterakoan, ikasgelan “gerra” gehien ematen zuten gazte horien agur irribarretsua jasotzea.

Udazkeneko haize leunak nire ametsak erroitik moztu zuen. Zentroari berriro begiratzean, nire buruari galdetzen nion zer gertatu zen garai horretako ilusio, kezka, proiektu... horiekin. Filosofoen harria bilatzen genuen eskola eta, bidez batez, mundua aldatzeko giltzarria, baina egunerokotasuna krudelagoa eta errealistagoa zen: gogor aurka egiten zioten aginte-taldeak, eztabaida garratzak eta tentsio-deskarga lazgarriak, etsai amorratuak ziren bi aldeak markatzen zituzten. Gehienetan, ideia berdinak alde batetik bestera kendu eta botatzen, aurkako sentimenduak zituzten erreboltetan.

María Jesúsen heriotzak gauzei bestelako garrantzia ematen lagundu dit, bizitza erlatibizatzen eta, minez, eskola horretako 70ko eta 80ko hamarkadetan nire filma bestela gogorarazten. Zuri beltzeko filma, laburra, denborak lausotutakoa eta eduki zaharkituekin. Baina bere protagonistentzako oroiminez, balio zaharrez eta betiko lagunez beteriko filma da.

80ko hamarkadaren amaieran, zentrotik atera nintzen Sancho III El Mayor BHIIn lan egiteko. Bi ikasturte beranduago, ez dut gogoratzen zergatik, Eskualdeko Eskolara itzuli nintzen. Beti bezala, tinko eta naturaltasunez, ataria gurutzatu nuen eta orduan maistra gazte batek bidea moztu zidan: “Ezin zara sartu, zertan lagun zaitzaket?”

Ezin nuen gertatutakoa sinestu, hori nire eskola zen eta hasiberri batek bidea mozten zidan. Berehala konturatu nintzen bizitzaren legeak errukigabe pasatzen zuela bere arrabola: inor ez da ezinbestekoa eta orain, Eskualdeko Eskola bere istorioak beste protagonista batzuekin bizitzen ari da.

Tafalla, 2002ko urtarrilaren 1ean.



I. NAFARROAKO HEZKUNTZAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA.

- AGUINAGA, L., *La cendea de Galar*. Galarko Zendeako Udala, 1974.
- AHECHU EGÜÉS, J. y otros, *Memoria fotográfica. Huarte Siglo XX*. Uharteko Udala, 2010.
- Altaffaylla Kultur Taldea, *Navarra 1936. De la esperanza al terror*, Lizarra, 1986.
- AMEZKETA y otros, *La República y la guerra española. El Sueño del Tío Tebas*. Colección Nuevas Tecnologías y Educación. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. 2001.
- ANAUT, Sagrario. “La infancia de Pamplona durante el primer tercio del siglo XX”, *Estudios de Ciencias Sociales* 7.zk, Iruña 1994
- ARAZURI, J. J. *Pamplona, Calles y Barrios*, 1980.
- ARNAL RAMOS, Santiago. *Paseos Escolares*. Iruña. 1897.
- ASÍN SEMBEOIZ, F. J. *Navascués en el siglo XX*, 1995.
- AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA, *Memorial de los maestros de Pamplona*. 1814.
- BERRUEZO ALBÉNIZ, Reyes. *Política Educativa en Navarra: 1931-1939*. Nafarroako Gobernu. Iruña. 1991.
- BERRUEZO ALBÉNIZ, Reyes. “La sustitución de la enseñanza religiosa en Navarra durante la República”. *Congreso de Historia de Euskal Herria*. VI. alea. Gasteiz, 1988. Eusko Jaurlaritzako argitalpenak.
- BERRUEZO ALBÉNIZ, Reyes. “La Junta Superior de Educación del Reino de Navarra. 1829-1838”. Iruña 1986. *Revista Príncipe de Viana*.
- BERRUEZO ALBÉNIZ, Reyes. “La Comisión de Instrucción Pública de Navarra”. Segundo Congreso de Historia de Navarra. Iruña 1990. III. alea.

- BERRUEZO ALBÉNIZ, Reyes. *Educación y desarrollo urbano en Pamplona. La Educación Infantil (1940-1965)*. VII Congreso de Historia de Navarra. II. alea, 510.orr.
- BIBLIOTECA CASTEL RUIZ. *Jornadas sobre Renacimiento en la Ribera*. Tuterá. 1993.
- CARMONA SALINAS, J. F. *José María de Juanmartiñena. 1822-1895*. Aldatz, 1944.
- CASTILLEJO CAMBRA, Emilio. *Mito, legitimación y violencia simbólica en los manuales escolares de Historia del franquismo*. Serie “Proyecto Manes”. UNED. Madril, 2008.
- CUADERNOS DE LAS LEYES Y AGRAVIOS REPARADOS POR LOS TRES ESTADOS DEL REINO DE NAVARRA. 1780-81.
- ECEOLAZA LATORRE, Joseba. *Camino Ocoz y otras historias del 36*. Ediciones Cénlit, 2017.
- EMA FERNÁNDEZ, Francisco Javier. *Educación y sociedad en Pamplona durante la segunda mitad del siglo XIX*. Nafarroako Gobernua. Iruña 1999.
- EMA FERNÁNDEZ, Francisco Javier. *Fuentes histórico-educativas para el estudio de la práctica escolar: el caso de Navarra*. Nafarroako Gobernua. Vianako Printzea. Iruña 2004
- EUGUI, Javier. *La enseñanza de Primeras Letras en Navarra*. Erroma 1970. (Argitaratu gabeko doktore-tesia).
- FERNÁNDEZ, S., RODA, P. (coord.), DÍEZ DE URE, A. y PINILLOS, S. *Ellas. Las mujeres en la historia de Pamplona*. Iruñeko Udala, 1998.
- FLAMARIQUE, D. “La enseñanza actual a la luz del fuero”. *Revista Pregón*, 89.zk, Iruña, 1966.
- FUENTE LANGAS, J. M^a. *La Dictadura de Primo de Rivera en Navarra*. Nafarroako Gobernua, 1998.
- GARCÍA MERINO, Pedro. “Las antiguas escuelas de Pamplona”. Iruña. *Revista Pregón*, 75.zk. 1966.
- GARCÍA SESMA, M. *Los Fiteranos*, 2004.
- GÁRRIZ YAGÜE, María Rosario. “Las maestras de escuelas de niñas en Navarra durante el Antiguo Régimen”. *Revista Príncipe de Viana. VII Congreso General de Historia de Navarra*. Vianako Printzea Erakundea. II. alea, 254. zk. Iruña, 2011.
- GOBIERNO DE NAVARRA. *Primer encuentro sobre historia de la educación en Navarra*, 2001.
- GRAN ENCICLOPEDIA NAVARRA. Iruña. Nafarroako Aurrezki Kutxa. 1990.

- GUIBERT NAVAZ, M^a Esther. “Las Escuelas Normales de Primeras Letras en Navarra”. *Príncipe de Viana*, 165.zk. Iruña. 1982.
- GUIBERT NAVAZ, M^a Esther. Historia de la Escuela Normal en Navarra. (1831-1931). *Príncipe de Viana*. 1983.
- GUIBERT NAVAZ, María Esther. (1992). “Leoncio Urabayen: su contribución a la educación en Navarra”. Pamplona. *Revista Príncipe de Viana*. Año 1992. Vianako Printzea Erakundea.
- GÚRPIDE BEOPE, Julio. *Navarra Foral, Siempre Española*. Editorial Aramburu. Iruña, 1953.
- HUARTE ILÁRRAZ, Gerardo. *Cruce de Caminos. Nagore (Arce)*. Fundación Navarra Cultural, 2015.
- IDOATE, Florencio. (1970). “La primera enseñanza en Navarra en 1807”. Iruña. *Revista Pregón*, nº 105.
- INDURÁIN ANAUT, Juan Antonio. *Castejón: Pinceladas de Historia*. 2006.
- IRIARTE ARANAZ, Guillermo. *La Escuela y los Maestros del Ayer en Cadreita*, M.I. Cadreitako Udala, 2014.
- JIMÉNEZ GOICOA, Blanca y otros. *La educación en Navarra. Siglos XIX y XX. Guía Bibliográfica*. Iruña, 1994.
- JIMENO JURÍO, José María. (1993). “Escuelas de Primeras Letras en Estella” (siglos XVI-XIX). Pamplona. *Revista Príncipe de Viana*. Año 1993. 1993. urtea. Vianako Printzea Erakundea.
- JIMENO JURÍO, José María. *La Guerra Civil en Navarra (1936-1939)*. Iruña 2006.
- JIMENO JURÍO, José María. *La Enseñanza y la beneficencia en Artajona*, Editorial Gómez, Iruña, 1963.
- JUNTA SUPERIOR DE EDUCACIÓN. *Plan y Reglamento General para las Escuelas de Primeras Letras*. PIruña. Nafarroako Gorteak.1831.
- LAKAR IRAIZOZ, M. y TELLEXEA KOXKOLIN, A. *Baztan Solasean*. Nafarroako Gobernuko Argitalpen Fonda, 2007.
- LASPALAS PÉREZ, Francisco Javier. (1991). *La enseñanza de Primeras letras en el Antiguo Régimen*. Iruña. Doktore-tesia. Nafarroako Unibertsitatea. (Ezezaguna).
- LASPALAS PÉREZ, Francisco Javier. (1993). *La reinención de la escuela: cinco estudios sobre la enseñanza elemental durante la edad moderna*. Iruña. Eunsa.
- LASPALAS PÉREZ, Francisco Javier. (1993). “La escolarización elemental en Navarra (1780-1800)”. Pamplona. *Revista Príncipe de Viana*. Año LIV. Anejo 15. Vianako Printzea Erakundea.

- MADOZ, Pascual. 1845-50. *Diccionario Geográfico Estadístico de Navarra*. Ediciones Ámbito S.A. Edición Facsímil. Valladolid. 1986.
- MAEZTU ESPARZA, Víctor Manuel. “Apuntes sobre la historia del Nombramiento de Maestros y el Derecho de Propuesta en Navarra”. Iruña. *Revista Príncipe de Viana*. 1994. urtea. 204.zk. Vianako Printzea Erakundea.
- MAEZTU ESPARZA, Víctor Manuel. “La Ley General de Educación y Navarra”. Iruña. *Revista Príncipe de Viana*. 1999. urtea, 217. zk. Vianako Printzea Erakundea.
- MAEZTU ESPARZA, Víctor Manuel. *Régimen Foral de Navarra en materia educativa (1970-1982)*. Nafarroako Gobernua. 2002.
- MARÍN ROYO, L. M. *La Tudela que yo viví cuando era chico*. Tuter, 2013.
- MARÍN ROYO, L. M. *La vida cotidiana de los tudelanos en el siglo XX*, 2014.
- MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, Félix Manuel. *Historia de Villafranca de Navarra*. 1983.
- MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, Félix Manuel. *Historia de la villa de Funes*. 1984.
- MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, Félix Manuel. *Historia de la villa de Azagra*. 1982.
- MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, Félix Manuel. *Historia de la villa de Andosilla*. 1982.
- MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, Félix Manuel. *Historia de la villa de Milagro*. 1983.
- MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, Félix Manuel. *Historia de San Adrián*. 1981.
- MATEO GAMBARTE, Eduardo y otros. *Cárcar: Historia, Vocabulario y plantas*. Carcarreko Udala, 1981.
- MEDARDE URZAINQUI, Javier y otros. *Burlada siglo XX*, 2014.
- MEDRANO GUTIÉRREZ, A. *Peralta en imágenes. Fragmentos de una vida (1870-2007)*.
- MERINO VERGARA, S. *El sistema métrico decimal aplicado a Navarra*. Iruña 1868.
- MONENTE, Pedro Miguel. *Memorias de un campesino republicano*. Pamiela, Iruña, 2012.
- MONTES ANDÍA, Luis Antonio. *Memorias de un chico de pueblo*. Iruña 1990.
- MÚGICA NAVARRO, José Remigio. *Concentraciones Escolares en Navarra: 1966-1985*. Iruña. Nafarroako Gobernua. 1996.
- MÚGICA NAVARRO, José Remigio. “Las escuelas de temporada en Navarra”. *Estudios de Psicología y Pedagogía*, 10.zk. Uned, 1998
- NOMBELA, Julio. *Crónica de la provincia de Navarra*. Madril 1868.
- NUÑEZ DE CEPEDA, M. *La beneficencia en Navarra a través de los siglos*. Iruña. Salestarren Eskola Profesionala, 1940.
- ONSALO Y UROZ, F. *Manual del Maestro. Compendio de Legislación de Primera enseñanza*. Imprenta Nemesio Aramburu. Iruña 1898.

- ONSALO Y UROZ, F. *Memoria relativa al estado de la Instrucción Primaria de Navarra según los resultados del curso 1902 a 1903*. Iruña 1904.
- OSLÉ GUERENDIÁIN, Camino. *La Casa de la Misericordia de Pamplona*. Hezkuntza eta Kultura Departamentua. Nafarroako Gobernua, 2000
- REVISTA PREGÓN. “La Primera Enseñanza en 1807, 105.zk, Iruña, 1970.
- PASCUAL BONIS. La represión del Magisterio Navarro. *Congreso de Historia de Euskal Herria*. 1988, 6 orr. 177-192.
- PASTOR ABAIGAR, V. y otros. *Centenario de los Maristas en Pamplona, 1903-2003*.
- PÉREZ-NIEVAS BORDERÍAS, Fermín. *Julia Álvarez Resano. Memoria de una socialista navarra (1903-1948)*. Pamiela. 2007.
- PÉREZ UGARTE, Lorentxi. *De Puente al Cielo y de mala gana*. 2008.
- SAGASTI, Ma José. *Historia de Dicastillo siglos XIX y XX*. Diekatzeluko Udala, 2007.
- SERNA SAN MIGUEL, Ma Pilar. *La Instrucción Pública en Navarra de 1780 a 1833*. Iruña, 1990,
- SERNA SAN MIGUEL, Ma Pilar. (1988). Política Escolar en Navarra de 1780 a 1833. Iruña. *Primer Congreso de Historia de Navarra*. Vianako Printzea Erakundea
- SOTO ALFARO, Francisco. *El Nuevo Libro Segundo de la Junta Superior de Educación de Navarra. Un texto casi centenario*. 2001.
- SOTO ALFARO, Francisco. *Manuales escolares de primera enseñanza editados en Navarra de 1800 a 1912*. Universidad Nacional de Educación a Distancia. Madrid. 2005.
- TANCO LERGA, Jesús. *Historia de la enseñanza. Pamplona*. Temas de Cultura Popular 204.zk Nafarroako Foru Aldundia. 1974.
- TORRECILLA, Ezequiel. *Plan muy instructivo a los Maestros de Primeras Letras acerca de los conocimientos que abraza su profesión y modo de comunicarlos con orden, método y claridad a sus discípulos*. Imprenta de Francisco Erasun y Rada. Iruña. 1827.
- UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA. *100 años de las Escuelas de San Francisco (1905-2005)*. Enseñanza Pública en Pamplona.
- YORK, P. y otros. *Lerín. Paisajes urbanos y humanos*. Grupo “Conocer Lerín”. Leringeko Udala, 2015.
- ZAPATA LERGA, Pablo. *Memorias de un niño de pueblo*. Iruña. 1995.

II. ESPAINIAKO HEZKUNTZAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

AA. VV. *Retratos de maestras. De la segunda república a nuestros días. Especial 30 años*, 2004.

ALCÁNTARA GARCÍA, P. *Teoría y Práctica de la educación y de la enseñanza*. T.VIII. Sucesores de Hernando. Madrid, 1904.

ALDECOA, Josefina. *Historia de una maestra*. Editorial Anagrama. Barcelona, 1990.

ALMENDROS IBAÑEZ, Herminio. *Diario de un maestro republicano*. Ministerio de Cultura. Valencia, 2005.

ALVAREZ LÁZARO, P. (Dir.). *Cien años de educación en España*. Ministerio de Educación Cultura y Deportes. Madrid, 2001.

BORDÓN. *Las reformas educativas durante la segunda República*. Nº 252, 1984.

CAMPO ZURITA, Julián. *Los avatares de una vida (Memorias de un maestro asturiano)*. Red de museos etnográficos de Asturias, 2009.

CARDERERA, M. *Diccionario de Educación y métodos de enseñanza*, Madrid, 1883.

CARBONERO, J. (Coord.). *Recuerdos de un olvido. Los libros en que aprendimos*. Valladolid, Junta de Castilla y León, 1997.

CENARRO, A. *Los niños del auxilio social*. Madrid, 2009.

CENARRO, A. *La sonrisa de la falange. Auxilio social en la guerra civil y en la posguerra*. Barcelona, 2006.

CEREZO MANRIQUE, Miguel y Francisco. *La última escuela*. Asociación Cultural “El Corralón”. Otones de Benjumea. Segovia, 2001.

- COLECCIÓN LEGISLATIVA DE INSTRUCCIÓN PÚBLICA. Madrid, 1878.
- CONSEJERIA DE EDUCACIÓN DE CANTABRIA. *Vidas Maestras*, 2006-07.
- COSSÍO, M. Bartolomé. *La enseñanza primaria en España*. Madrid. R. Rojas, 1915.
- COSTA RICO, A. *Mobiliario, dotación y equipamiento escolar en el siglo XIX. Historia de la educación*, Madrid, 1997.
- DE GUZMÁN, M. *Cómo se han formado los maestros. Cien años de disposiciones oficiales*. Prima Luce. Barcelona, 1973.
- DEL AMO LOBO, José. *Historia de una escuela rural*.
- DELGADO, Francisco. *La escuela pública amenazada*. Editorial Popular, 1997.
- DÍAZ DE RUEDA, R. *La escuela de instrucción pública*, Valladolid, 1850.
- DOMÍNGUEZ, C. y GARCÍA MELERO, C. "La escuela de la II República". *Cuaderno de la Fundación de Investigaciones Educativas*, nº 4. Madrid, 2003.
- ENCICLOPEDIA AUÑAMENDI. Gobierno Vasco, 1969.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *Historia Ilustrada de la Escuela en España. Dos siglos de perspectiva histórica*. Fundación Germán Sánchez Rupérez, 2006.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *Leer y escribir en España. Doscientos años de alfabetización*. Fundación Germán Sánchez Rupérez, 1992.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *Tiempos y espacios para la escuela, ensayos históricos*. Editorial Biblioteca Nueva, 2000.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *El pensil de las niñas*. Editorial Adaf, 2000.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *Del Antiguo Régimen a la Segunda República. Historia Ilustrada del libro escolar en España*. Fundación Germán Sánchez Rupérez, 1998.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *De la posguerra a la reforma educativa. Historia Ilustrada del libro escolar en España*. Fundación Germán Sánchez Rupérez, 1998.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *Arte y oficio de enseñar. Dos siglos de perspectiva histórica, XVI coloquio nacional de historia de la educación*, Burgo de Osma, 2011.
- ESCOLANO BENITO, Agustín. *España Cubista de Luis Bello*. Visiones desde la Escuela. Universidad de Valladolid, 2015.
- EZPELETA AGUILAR, F. *Crónica negra del magisterio español*. Madrid, 2001.
- EZPELETA AGUILAR, F. *La mala vida del maestro. Literatura satírica en la prensa pedagógica turolense (1800-1900)*. Centro de Estudios del Jiloca.

- FERNÁNDEZ AGUINACO, C. y VICTORIA DIEZ. *Memoria de una maestra*. Madrid, 1993.
- Fernández Soria y AGULLÓ DIAZ. *Una escuela rural republicana*. Universidad de Valencia, 2004.
- FERRER Y RIVERO, Pedro. *Tratado de Legislación de primera enseñanza vigente en España*. Madrid. Imprenta de los Sucesores de Hernando, 1906.
- GÁLVEZ CAEMONA, C. *Nuestra Pedagogía*. Editorial Prieto. Granada.1938.
- GARCÍA DEL DUJO, A. *Museo Pedagógico Nacional (1882-1941)*. Ed. Universidad de Salamanca. Salamanca 1985.
- GENERALITAT VALENCIANA. *La Escuela y los Maestros (1875 - 1970)*. 1994.
- GONZÁLEZ PÉREZ, T. *La voz del olvido. Maestras de Ayer*. Las Palmas de Gran Canaria, 2008.
- GÓMEZ LOZANO, P. *Mi Escuela Activa*. Madrid 1933.
- HERNÁNDEZ DÍAZ, J. M^a. *La escuela primaria de Castilla y León*. Ediciones Amarú. Salamanca, 1993.
- HERNÁNDEZ DÍAZ, J. M^a. *La humilde escuela primaria en la Salamanca de Unamuno (1891-1936)*.
- HERNÁNDEZ DÍAZ, J. M^a. *La escuela rural en la España del siglo xx*. Revista de Educación. Número extraordinario, 2000.
- Hernández García, Antonio. *La purga de Franco en el magisterio soriano*. Dos volúmenes. Soria, 2015 y 2016.
- IGLESIAS, M^a Antonia. *Maestros de la República*. Madrid. 2006.
- IGLESIAS, M. A. *Maestros de la República: los otros santos, los otros mártires*, Madrid, 2010.
- INSTITUTO DE LOS HERMANOS MARISTAS. *Cien años en la escuela*. Edelvives. 1987.
- JUAN BORROY, Víctor M. *La tarea de Penélope. Cien años de Escuela Pública en Aragón*. Biblioteca Aragonesa de Cultura. Zaragoza, 2004.
- LLANO DÍAZ, Ángel. *Las maestras de nuestros pueblos*. Consejería de Educación. 2009. Gobierno de Cantabria.
- LLOPIS, R. *La revolución en la Escuela*. Editorial Aguilar. Madrid, 1933.
- LOMAS, C. *La vida en las aulas*. Paidós. Barcelona, 2002.
- LOMAS, C. *Lecciones contra el olvido*. Ministerio de Educación. Octaedro, 2011.
- LÓPEZ ALLUÉ, José Luis. *Capuletos y Montescos*. Reedición Zaragoza, 1993.

- LUZURIAGA, Lorenzo. *El analfabetismo en España*. Madrid, J. Cosano, 1926.
- MATO DÍAZ, Ángel. *Gijón la Escuela del Ayer*. Biblioteca Gijonesa del Siglo XX. Gijón 2001.
- MAILLO GARCÍA, A. *Educación y revolución. Los fundamentos de una educación nacional*. Editora Nacional. Madrid, 1943.
- MARTÍ ALPERA, F. *Las escuelas rurales*. Dalmau Carles. Gerona, 1911.
- MATILLA, J. Antonio. *Tesoro Infantil. La artística Industrial*. Madrid.
- MEDIO, Dolores. *Diario de una maestra*. Editorial Castalia, 1993.
- MENDÍA ECHEVERRÍA, Luis. *La Ley del Cristiano*. Guipúzcoa, 1891.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN NACIONAL. *Curso de Orientaciones Nacionales de Enseñanza Primaria*. Burgos 1938.
- MOLERO PINTADO, Antonio. *Historia de la Educación en España. La Educación durante la Segunda República y Guerra Civil (1931-39)*. Madrid. Servicio de Publicaciones del MEC. 1991.
- NAVARRO SANDALIOS, Ramón. *La enseñanza primaria durante el franquismo. (1936-1975)*. Barcelona. PPU. 1990.
- ONIEVA, Antonio. *Para ser Inspector de Primera Enseñanza*. Ediciones Pedagógicas Aguado. Madrid 1942.
- PASCUAL HERNANDEZ, Alicia. *Leer, Escribir, Contar y rezar. La escuela en los pueblos de Madrid en el siglo XIX*. Comunidad de Madrid, 2003.
- PEDRERO, M. G. y C. PIÑERO, (Coord.). *Tejiendo recuerdos de la España de ayer: Experiencias de postguerra en el régimen franquista*. Madrid. Narcea, 2006.
- PÉREZ GALÁN, M. *La enseñanza en la Segunda República Española*. Madrid 1977.
- PESQUERA, J. G. *Con flores a María y otras hierbas. Relatos de la vida cotidiana entre 1950 y 1975. San Vicente (Alicante)*. Editorial Club Universitario, 2010.
- PICABEA, M. *El problema nacional. Hechos, causas y remedios*. Madrid, 1899.
- PUELLES BENÍTEZ, Manuel. *Educación e ideología en la España contemporánea*. Ed. Labor, Madrid 1991.
- SÁNCHEZ ARBÓS, María. *Mi diario*. Gobierno de Aragón, 2000.
- SÁNCHEZ-REDONDO MORCILLO, Carlos. *Leer en la escuela durante el franquismo*. Colección Arcadia. Universidad Castilla-La Mancha. Cuenca, 2004.
- SAN ROMÁN, Sonsoles. *Una maestra republicana: el viejo futuro de Lulia Vigre (1916-2008)*. Papeles del tiempo. Número 31, 2015.

- SATUÉN OLIVÁN, E., Caldearenas. *Un viaje por la historia de la Escuela y el Magisterio rural*. Huesca, 2000.
- SUBSECRETARIA DEL MINISTERIO. *Estadística Escolar de España, en 1908*. Imprenta de la Dirección General del Instituto Geográfico y Estadístico de Madrid, 1909.
- TIANA FERRER Y JUAN BORROY, *Santiago Hernández Ruiz y la educación de su tiempo (1901-1988)*. UNED - Calatayud, 2002.
- UNIVERSIDAD DE BURGOS. *Etnohistoria de la Escuela*. Sociedad Española de H^a de la Educación. Burgos, 2003.
- VALERA FERNÁNDEZ, J. y Ortega Gutiérrez, F. *El aprendiz de maestro*. MEC. Madrid, 1984.
- VIÑAO FRAGO, A. *Innovación pedagógica y racionalidad científica. La escuela graduada en España (1898-1936)*. Editorial Akal, S.A. 1990.

III. BESTE ITURRI BATZUK

Lehen Hezkuntzako urte-liburuak. Eskoletako eta maisu-maistren aldizkariak.

Maisu-maistraren urtekaria.

Nafarroako Errege Artxibo Orokorra. Instrukzio Publikoko atala.

Nafarroako Administrazio-Artxiboa.

Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Artxiboa.

Udal Artxiboak: Oibar, Altsasu, Andosilla, Arguedas, Aribere, Arroitz, Azagra, Bargota, Barasoain, Beire, Bera, Biurrun-Campanas, Cabanillas, Cadreita, Castejón, Zarrakaztelu, Caparroso, Cascante, Cintruenigo, Corella, Lizarra, Fitero, Garde, Garralda, Lakuntza, Larraintzar, Leitza, Lerin, Legarda, Lesaka, Liedena, Lodosa, Los Arcos, Martzilla, Melida, Mendabia, Milagro, Murchante, Murillo del Fruto, Murillo el Cuende, Erriberri, Oteiza de la Solana, Azkoien, Iruña, Pitillas, Gares, Puiu, San Adrián, Sada, Zangoza, San Martín Unx, Sartaguda, Sunbilla, Tafalla, Tuterako, Uxue, Urrotz, Viana, Atarrabia, Valtierra eta Igantzi. 1780-1975 epeko Udalbatzen akta-liburuak eta hezkuntzari buruzko agiriak kontsultatu dira.

Iruñeko eta Tuterako Udal Liburutegiak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegia eta Artxiboa.

Hezkuntzako Aldizkaria. Instrukzio Publikoko Ministerioa, 1933.

Hezkuntzako Aldizkaria. Nafarroako Lehen Hezkuntzako Ikuskaritza. Iruña, 1935.

Hezkuntzako Aldizkariak (1950-1968). Nafarroako Lehen Hezkuntzako Atala. Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusia. Iruña, 1950.

Nafarroako Ikuskaritza Batzordeko akta-liburua, 1933-1969.

Nafarroako Ikuskaritza Batzordeko akta-liburua, 1969-1977.

Eskola-bizitza. Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa.

Kontsultatutako prentsa: *Diario de Navarra*, *Eco de Navarra*, *Eco del Distrito de Tudela*, *Pensamiento Navarro*, *Arriba España* y *Trabajadores*.

Horas de entrada

Mañana

Meses

Mañana

Horas

En los de Marzo,

Abril, Setiembre

y Octubre

A las 8

A las

En los de Mayo

Junio, Julio y

Agosto

A las 7 $\frac{1}{2}$

A las

En los de Noviembre

Diciembre

Enero y Febrero

A las 8 $\frac{1}{2}$

A las

da y salida en la escuela

Garde

de Meses.

Mañana Garde

En los de

2

Alas 5 Alas 5

2 1/2

Alas 5 1/2 Alas 8 1/2

3 1/2

Alas 5 1/2 Alas 5 1/2



Liburu hau Nafarroako eskolen eta maisu-maistren lanaren ikerketari egindako ekarpena da, Erregimen Zaharra erori zenetik hasi eta Espainiako demokraziaren hastapenera arte. Hori dela eta, ikerketa honetako denbora-tartea xix. mende hasieratik, 1828-29 Gorteak (Erresumako azkenak) ospatu zirenetik, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra aldarrikatu zen artekoa da. Ia berrehun urteko aldi hori nahikoa da Nafarroako eskola-erakundearen egon ziren aurrerapenak, geldialdiak eta atzerapenak ulertzeko.

Nafarroan hezkuntza publikoak Espainiako gainontzeko probintzietan ez bezalako ezaugarriak garatu zituen, bere foru izaerak estatu mailan ezarritako hezkuntza politikaren hainbat alderditatik aldentzeko aukera eman baitzion. Horregatik, Nafarroako foru berezitasuna azpimarratu nahi izan dut eskolari eta irakasleei buruz hitz egiterakoan.

Liburuak Nafarroako Eskolaren eta hainbat pertsona, baliario eta ideien iragana ekarri nahi du argitara, bai eta eta hainbat gauzatxo hutsalena ere: entziklopedia, arbela eta arbel ziria, estufa, ikasmahai zaharrak, eskolan bertan egindako tinta, himnoak eta otoitzak, zigorrak eta sariak, katona eta katixima... hots Nafarroako atzoko eskola eta irakasletzaren intrahistoria jorratu nahi du: eskola-eraikinak nolakoak ziren, maisu-maistren eta ikasleen ezaugarriak, beraien arteko harremanen nondik norakoak, eskolara zer motako materialak eramaten zituzten, zer eta nola irakatsi eta ikasten zen, zer metodologia erabiltzen zen, zertan zetzan sarien eta zigorren sistema, zer liburu eta tresna erabiltzen zituzten, udalek eta Foru Aldundiak Nafarroako gizartearen hezkuntzan izan zuten eginkizuna, horra hemen jorratzen diren zenbait gai.

Bestetik, garai luze horretan landu ziren edukiak eta materialak iraganeko eskolaren memoria berreskuratzeko asmoz aztertuko dira, eskolaren etorkizunaren inguruan iradokizunak eta bizi-penak batzeko asmoz, eskola baita, izan ere, bere garaiko gizartea hobekien islatzen duen instituzioa.



9 788423 535125